

AXULARREN PROSA ERRETORIKAREN ARGITAN

DONATIVO  
DOHAIN

AXULARREN PROSA ERRETORIKAREN ARGITAN

Patxi Salaberri Muñoa

BIBLIOTECA CAMPUS DE ALAVA KOLDU MITXELENA	
KOLDU MITXELENA ARABAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA	
Nº B 14284467	Fecha/Data 28/01/2015
Nº I 21535474	Dpto./Saila Biblioteka
Signatura 891.69 AXULAR.06 SAL	

1. Axular, Pedro de, 1556-1644
2. Novela vasca
3. Literatura vasca

oman la zabal zazu



Universidad  
del País Vasco  
servicio editorial

Euskal Herriko  
Unibertsitatea  
argitalpen zerbitzua



2700944

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu informatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

Ninguna parte de esta publicación, incluido el diseño de la cubierta, puede ser reproducida, almacenada o transmitida en manera alguna ni por ningún medio, ya sea eléctrico, químico, mecánico, óptico, de grabación o de fotocopiado, sin permiso previo y por escrito de la entidad editora, sus autores o representantes legales.

©Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua  
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
I.S.B.N.: 84-7585-943-7  
Depósito Legal/Lege Gordailua: BI-2204-97  
Impresión/Inprimaketa:  
Servicio Editorial/Argitalpen Zerbitzua UPV/EHU  
EUSKAL FILOLOGIA SAILA

*Angelari  
eta  
Iñakiri*

Lerro hauetatik ene eskerrik beroenak azaldu nahi nizkieke ikerlana burutzen lagundu didatenei, bereziki Angelari -ba ote daki berak noraino den berea ene lan hau?-, Karolinari -une goxoak prosa erlijiosoaren inguruan, zinez!- eta, zerrenda amaigabea ez egitearren, banan-banan aipatuko ez ditudan beste hainbati, tartean Aita Villasante bera ezin falta daitekeelarik.

Mila esker guztiei!

Liburuak arrotz zaigun buru baten erdian jarri ohi gaitu, haren esentzia isurtzen digu. Idazten aritua behar da izan ohartzeko zernolako mozketak, zer soberakin suposatzen dituen idatzitako orrialde bakar batek, zenbat materia geratzen den horrela gutxitua, zenbat gauza desagertzen diren testuan dirautenak nabarmendurik gera daitezten. Eta liburuak gizakiaren barnebizitzaren aipamenik egiten ez badu ere, ia ez da orrialderik sekreturen bat gordetzen ez duenik.

Jean Guitton

## AURKIBIDEA

0.- SARRERA	15
0.1.- Axular eta <i>Gero</i>	18
0.2.- Helburuak	19
0.3.- Metodologiaz	22
1.- IKERKETEN EGOERA.	29
1.1.- Axularren eta haren obraren errezepziotik...	31
1.1.1.- Euskal gizartearen testigantza	32
1.1.2.- Euskal Letretako autore zenbaiten testigantza	33
1.2.- ...azken urteotako ikerketetaraino	36
1.2.1.- Axularren biografiaz	36
1.2.2.- Obraren planteamenduaz	36
1.2.3.- Planteamendu erlijiosoaz	37
1.2.4.- Idazlanaren alderdi formalez	37
1.2.5.- Erretorikaren ikuspuntutik	38
1.2.5.1.- Originaltasunaren azterketa	38
1.2.5.2.- Prosaren azterketa eta obraren egituraketa	39

## I. PARTEA: INGURUNEA, AUTOREA ETA OBRA

2.- INGURUMARI OROKORRA	45
2.1.- Gizartearen konfigurazio-lerroak	47
2.1.1.- Errenazimendutik Barrokorantz	47
2.1.2.- Humanismotik Erreform(et)araino	49
2.2.- Panorama erretorikoa	51
2.2.1.- Erretorika klasikoa abiapuntutzat	51
2.2.2.- Oratoria sakratuaren ildotik	51
2.2.3.- Oratoria sakratuaren pragmatika: sermoia	53
2.2.4.- Predikazioaren eredu dibergentziak	54
2.3.- Testuinguru sozio-erlijiosoak	55
2.3.1.- Lapurdi, arragoa	57
2.3.2.- Kontrarreforma giroan	62
2.4.- Ikuspegi sozio-literarioak	63
2.4.1.- Ahozkotasanaren mundua	63
2.4.1.1.- Ahozkotasunean murgildutako garaia	64
2.4.1.2.- Ahozkoa eta idatzia	65
2.4.1.3.- Ahozkotasun landuaren presentzia	66
2.4.2.- Literatur tradizioz gabeko alorra	67
2.4.3.- Tradizioa eraikitzen	67
2.4.3.1.- Konfigurazio ideologiko-erlijiosoaren bidetik	68
2.4.3.2.- Idatzizko ereduak	70
2.4.3.3.- Bestelako ezaugarriak	70
2.4.3.3.1.- Hizkuntz egoeraren kontzientzia	71
2.4.3.3.2.- Sorrera berankorra	72
2.4.3.3.3.- Erdarazko literatura iturri	73
2.4.4.- XVII. mendeko euskarazko literaturaren protagonistak	73
2.4.4.1.- Idazleak	77
2.4.4.2.- Irakurleak	77
2.4.4.3.- Idazlanak	78
3.- AXULAR ETA ERRETORIKA: HIPOTESI BATEN OINARRIAK	83
3.1.- Atarikoak	85
3.2.- Axularren oinarrizko prestakuntzaz	88
3.3.- Erretorika klasikoan barrena: Arteetan batxilergoa	90
3.4.- Prestakuntza eklesiastikoa (Salamanca 1591-1595)	93
3.4.1.- Prestakuntza teologiko-morala	94
3.4.2.- Axular, irakasle ospetsuen ikasle	96
3.4.3.- Eztabaida teologikoen lekuko	97
3.4.4.- Salamanca, kulturgune eta argitaltoki	98
3.4.5.- Salamanca, euskalkien biltoki	99
3.5.- Oratoria sakratuaren bideetan	101
3.6.- Axular, predikari	106

4.- GERO-REN HARI NAGUSIAK	109
4.1.- Liburuaren problematika	111
4.1.1.- Argitalpenaz	111
4.1.2.- Argitaratze kontuez	112
4.1.3.- Ale kopuruaz	114
4.1.4.- Bestelako arazoez	115
4.1.5.- Originaltasunaz	116
4.2.- Liburuaren planteamendu doktrinalaz	118
4.2.1.- Ohiko aszetikaren bideetatik barna	119
4.2.2.- Obraren izaera	120
4.2.3.- Eginkizun pastoralara eta doktrina lerroak	123
4.2.3.1.- Predikazioa	124
4.2.3.2.- Sakramentuak	126
4.2.3.3.- Bekatuak	127
4.2.3.4.- Azkenkiak edo Gerorengoak	128
4.2.3.5.- Bestelako elementu doktrinalak	129
4.2.3.6.- Gabeziak	131
4.2.- Liburuaren genero erretorikoaz	134
5.- LIBURUAREN IRAKURLEA	137
5.1.- Errealitate erlijiosoaren baldintzapean	139
5.2.- "Irakurle" kontzeptuaren esparrua	140
5.3.- Gero-ren irakurleen ezaugarriak	141
5.4.- Irakurle tipoaren konfigurazioa	144

## II. PARTEA: PROSA ERRETORIKOA GERO-N

6.- GERO-REN SORRERAZ	151
6.1.- Gaiaren harilkatzea	155
6.1.1.- Liburuaren ardatza eta kidetasun tematikoak	155
6.1.2.- Bestelako gai-kidetasunak	159
6.2.- Testu dependentziaz	161
6.2.1.- Axularren iturriak direla eta	161
6.2.2.- Originaltasuna eta testu dependentzia	162
6.2.2.1.- "...Axular Sarako erretorak bildua"	162
6.2.2.2.- Ohar metodologikoa	163
6.3.- Testu kidetasunak eta beste	165
6.3.1.- Euskal eremuko iturriak	165
6.3.1.1.- Azal-atarikoak	167
6.3.1.2.- "Gomendiozko karta"	167
6.3.1.3.- "Irakurtzaileari"	170
6.3.2.- Gero liburuan barrena	173
6.3.2.1.- Iturri eta eragin aszetikoak	173
6.3.2.2.- Iturri-eraginen ildo nagusiak	174
6.3.2.2.1.- Iturriak isiltzeko joera	174
6.3.2.2.2.- Oharkizun zenbait	176

7.- LIBURUAREN EGITURAKETA	187
7.1.- <i>Dispositio</i> -a <i>Geron</i>	191
7.1.1.- Aurretikoak	191
7.1.2.- Egitura finkatu nahian	192
7.1.3.- Intxausperen berrantolamendua (1864)	193
7.1.4.- Lafitteren berrantolamendua (1943)	195
7.2.- <i>Gero</i> -ren antolamenduaz	198
7.2.1.-Axularren asmoak	198
7.2.2.- Hipotesiak garatzen	200
7.2.3.- Gai taxuketaz	200
7.3.- Liburuaren antolamenduaren errealitatea	203
7.3.1.- Linealtasun eta logika tematikoa	203
7.3.2.- Egituraren zantzuak	208
7.3.2.1.- Kapitulu-multzo teorikoak	208
7.3.2.2.- Azpimultzoak	211
7.3.2.3.- Konektore tematikoak	212
7.3.3.- Azken oharkizunak <i>Gero</i> -ren egituraketa orokorraz	213
7.4.- Kapituluaren barne-egitura	214
7.4.1.- Sermoi-egitura eredu	215
7.4.2.- Kapituluaren barne distribuzioa: eskema gisakoa	216
7.4.3.-Kapitulu hasierak	217
7.4.4.- Kapitulu amaierak	218
7.4.4.1.-Kapitulu-multzoetako bukaerak	220
7.4.4.2.- Azpimultzoetako bukaerak	221
7.4.4.3.- Kapitulu solteetako bukaerak	222
8.- JOKALMOLDE ERRETORIKO-ARGUMENTATZAILEA	225
8.1.- Predikarien ohiko lan metodoaz	227
8.2.- Axularren jokabide-lerroak	229
8.3.- Axularren aribide erretorikoa	232
8.3.1.- Argumentuen sortze-eratzia	232
8.3.2.- Topika	235
8.3.2.1.- <i>Gomendiozko karta</i>	235
8.3.2.2.- <i>Irakurtzaileari</i>	237
8.3.2.3.- Bestelakoak	238
8.3.3.- Argumentazioa	239
8.3.3.1.- Argumentazio mota	240
8.3.3.2.- Argumentazioaren egituratze formala	242
8.3.4.- Anplifikazioa	242
8.3.5.- Testuen itzulpen-moldaketak	245
8.3.5.1.- Itzulpenak	245
8.3.5.2.- Testu-ezabaketak	247
8.3.5.3.- Laburpenak eta testu-eraketak	248
8.3.5.4.- Bestelakoak	248
8.3.6.- Argumentazio baliabideak	249
8.3.6.1.- Exenpluak	249
8.3.6.2.- Sententziak, atsotitzak eta beste	251
8.3.6.3.- Konparazioak eta similak	255

9.- AIPAMENAK ETA EXENPLUAK	259
9.1.- Aipamenen planteamendu orokorra	261
9.2.- Aipamenak <i>Gero</i> -n	262
9.3.- Eskritura Sainduetatik klasikoenganaino	263
9.4.- Bibliatik jasotako aipamenak	265
9.4.1.- Aipamenak	266
9.4.1.1.- <i>Testamentu Zaharra</i>	266
9.4.1.2.- <i>Testamentu Berria</i>	268
9.4.1.3.- Aipatu edo erreferentziatu gabekoak	268
9.4.2.- Aipamen eta erreferentzien zuzentasunaz	269
9.4.3.- Bibliako aipamenen arazoa	270
9.5.- Aipamen ez-biblikoak <i>Gero</i> -n	272
9.5.1.- Elizako Guraso-Doktoreak eta idazle kristauak	274
9.5.2.- Autore garaikideez	276
9.5.3.-Literatura erlijiosoaren arloko aipamen arazoaz	277
9.6.- Autore klasikoak	282
9.6.1.- Autore "jentil"-en erabilera oratoria sakratuan	282
9.6.2.- Aipamen klasikoak <i>Gero</i> -n	283
9.6.2.1.- Aipamen klasikoen arazoa	283
9.6.2.2.-Senekaren lekukotasuna	285
9.6.2.3.- Beste autore klasiko zenbait	290
9.6.3.- Klasikoen errezepzio mediatizatuaren hipotesia	294
9.7.- Exenpluak	295
9.7.1.- Definizioaz eta erabilpenaz	295
9.7.2.- Hedapen moduak	296
9.7.3.- Exenpluak <i>Gero</i> -n	297
9.7.4.- Exenpluak erkatzen	298
9.7.5.- Bitartekaritzaren hipotesia	300
10.- TRATAMENDU ELOKUTIBOA	305
10.1.- <i>Gero</i> -ren elokuzioaren bideratzaileak	307
10.1.1.- Hunkigarritasuna	308
10.1.2.- Prosaren barne-eskakizunak	308
10.1.3.- Ahozketasuna	309
10.1.3.1.- Predikagarritasuna	310
10.1.3.2.- Irakurketa moduak	311
10.2.- Elokuzio-ezaugarriak	313
10.2.1.- Axularren hizkeraz	314
10.2.2.- Hizkuntz adierazpenaren tasunak	315
10.2.2.1.- Zuzentasuna	315
10.2.2.2.- Argitasuna	319
10.2.2.3.- Diskurtsoaren egokitasuna	322
10.3.- Estiloaren ezaugarriak	324
10.3.1.- Egitura periodikoaz	325
10.3.2.- Prosaren erritmoa	326

10.3.3.- Egitura sintaktikoak	330
10.3.3.1.- Egitura parataktikoak	331
10.3.3.2.- Egitura hipotaktikoak	332
10.3.3.2.1.- Kausazkoak	332
10.3.3.2.2.- Konparaziozkoak	333
10.3.4.- Kadentziak	336
11.- BERBALDIAREN EDERGARRIAK	341
11.1.- Ornatua erretorika sakratuan	343
11.2.- Ornatuaren erabilera <i>Gero</i> -n	344
11.3.- Afektuak lantzeko baliabideak	345
11.3.1.- Hunkipenerako baliabide erretoriko nagusiak	346
11.3.1.1.- Taxuketa dialogikoaz	346
11.3.1.2.- Konfigurazio dialogikoaren erabilera	347
11.3.1.3.- Pertsona gramatikalen agerpena	349
11.3.2.- Bestelako baliabide erretoriko hunkigarriak	353
11.4.- Baliabide foniko-erritmikoak	356
11.4.1.- Paralelismoak	357
11.4.2.- Arlo sintaktikoa	358
11.4.2.1.- Isokolona	358
11.4.3.- Arlo semantikoa	360
11.4.3.1.- Sinonimiaz	361
11.4.3.2.- Sinonimiaren erabilera	362
11.4.3.3.- Ditologia sinonimikoa	367
11.4.3.4.- Antitesiaz	368
11.4.4.- Arlo morfologikoa	370
11.4.4.1.- Anafora	370
11.4.4.2.- Bestelako errepikapen-irudiak	373
11.4.5.- Arlo fonologikoa	375
11.4.5.1.- Aliterazioak	375
11.4.5.2.- Similikadentzia	376
11.4.5.3.- Hoskidetasuna	378
11.4.6.- Erritmoaren areagotzaileak	379
12.- ONDORIOAK	385
BIBLIOGRAFIA	395
ERANSKINA	411

## 0.- SARRERA



Ezaguna da literatura postrenazentistak eta barrokoak oso ezaugarri bereziak hartu zituztela batik bat tradizioz katolikoak ziren herrialdeetan. Baina Kontrarreformaren giroak mendebaleko literaturaren bilakaera orokorra modu nabarmenean baldintzatu eta bideratu zuela ahaztu gabe, Euskal Herrian gertatu zirenek berezitasun edo ezaugarri propio zenbait zituen literatura ahalbidetu zuten.

Izan ere, Euskal Herriko iparraldean eman zen produkzio idatziaren fenomeno faktore erlijioso eta ez-erlijiosoen konfluentzia ilun-estuei esker sortu zen, XVII. mendeko literatur erlijiosoaren loraldirako baldintzak sortzeko arrago egoki bihurtua baitzen ordurako eremu hura guztia.

Hazkunde ekonomikoak, Nafarroa Behereko lubizi erlijiosoak, Lapurdi aldeko pentsakera disidenteak (besteak beste, sorgin mundu hezigabe gisa agertu zenak), egoera politiko ezegonkorrak eta, azken finean, gizarte zaharraren funtsezko zenbait elementurekin hautsi beharrak, gizartea bideratu eta "orekatuko" zuen faktore bat eskatzen zuten. Historikoki Kontrarreformaren etorrerak beteko du funtzio hori eta, gainera, modu zeharo erabakiorrean, jakina den bezala.

Oro har, Kontrarreformaren eraginak islada berezia agertuko zuen euskal literaturaren arloan, baldintza sozio-politikoek horrela bultzaturik, modurik ortodoxoenean eta "herts" -enean gauzaraziko baitzuen produkzio idatzi gehiena. Berez erlijioaren eragina handia izan bazen garai hartako idazle guztiengan (kezka erlijioso berezirik ez zutenak barne), azpimarratu beharrik ez dago noraino iritsi zen prosa erlijiosoaren bideak urratzea erabaki zutenen artean. XVII. mendeko literatura lapurtarra horren lekuko fidagarria da.

Kontrarreformaren atmosfera hori, alabaina, ez zen bakarrik literaturaren bideratze prozesu orokorrean eman; dagoeneko maiz adierazia izan da prosaren bilakaera konkretuan bertan Trentokoaz geroztik -eta hango erabakien ondorioz- birrezartzen hasi zen joera prosistikoaren garrantzia, berreskuratu behar bide ziren "iragan denbora hobea-goetan" erabili literatur estiloa abiapuntu gisa harturik garatuko zen joerarena, alegia.

Erretorika klasikoaz ari gara, nagusiki Zizeronen eta Kintilianoren obrek hurrengo belaunaldiari erabiltzen irakatsi zieten hartaz hain zuzen.

Ildo horretatik, ezaguna da XIV-XVII bitartean erretorika klasikoak Europako mendebalde guztian ezagutu zuen zabalkuntza, tratamendu-diferentziak ere nabarmen egin ziren arren. Oro har, eta autoreek zerabiltzaten erregistro motak hiru nagusitara laburbildu izan badira ere<sup>1</sup>, oreka, argitasuna, neurria eskaintzen zituen sintaxi zizeroniarra izango zen XVI. mendearen azken erdialdetik aurrera esparru katolikoetan prosa aszetiko-didaktikoak onetsi, erabili eta hedaraziko zuena.

## 0.1.- AXULAR ETA GERO

Panorama orokor honen aurrean, eta lanean hasteko hipotesi gisako bat baino ez balitz ere, balirudike hemen aipatu ezaugarri horietako asko erakusten dituela Sarako urdazubiarraren irudiak eta horrexegatik bihurtzen zaiola aztertzaileari haren obra bera ere hain erakargarri: Kontrarreforma garaiazen hasieran jaioa, Lapurdi ingurukoa, kulturalki ere goi mailako unibertsitate batean landua eta Kontrarreformaren eginkizunetan eta Lapurdin bertan zuzenean ihardungo duen elizgizon intelektual modura agertuko baita Axular. Haren ekarpen idatziak ere, garaikideenen antzo, gutxienez ohiko bernizadura erretorikoa erakutsiko uste du gainazal edergarri gisa.

Bestalde, ezin ahantz daiteke prosa narratiborako bidean kronologikoki euskaraz garatutako lehenengo zutabe original ezaguna dela Axularrena, jarraitzaileak izan duen zutabea gainera, gauza ez ohikoegia euskal literaturan. Horrezaz gain, (beste hizkuntzetako) erretorikarekiko jostura puntu nabarmena bada ere, baloratzeke dago oraindik noraino iragazi eta erabili zituen bere kulturari (idazkietan ere) isurtzen zitzaizkion ezaugarri nagusiak, ahozkotasunarena garrantzitsuenetariko bat izan daitekeelarik. Erakargarria eta derrigorrezkoa da, beraz, *Gero*-ren inportantzia kuantitatibo zein kualitatiboz ohartaraztea eta haren egilea dagokion lekuan jartzea.

Baina Axularren mezua erlijioso hutsa delako, edota haren liburuak literatur xede aitorturik ez zuelako nonbait, orain arte *Gero* irakurri dutenak nagusiki erlijiosoak edota hizkuntzalariak izan direla ausartuko ginatke esaten. Inor gutxik aztertu (nahi?) izan du loreen lorea omen den obra honen *literaturtasuna*, eta saioen bat egin izan denean, modu partzialean egin izan da -argitaratu gabe geratuz- eta azalpen orokorrik edo lortu gabe. Gehienak, literatur kritika eta historiagileak barne, hizkuntzalariak puztutako hitzetan gelditu izan dira, eta hori ikonoklasten esparrukoak aipatzeke uzten ditugularik, hauetakorik ere bada eta mahastian. Izan ere, ezagumendu baino intuizio gehiagorekin beharbada, badira *Gero* liburuaren arazoa hitz pare batez garbitu izan dutenak ere: itzulpen hutsa (ik. "Ikerketen egoera" kapituluko 1.2.5.1 atala).

Halakoek, jakina, ez bide dute asmatu -ezin baita asmatu asmatzeko asmorik ez dagoenean- non zegoen obraren balioa eta non kokatu behar den benetako ekarpena.

1 - Europako hizkuntza nagusietan hedatu ziren joera estilistikoaren artean arrakastatsuen Antonio Guevararen estilo antitetikoa litzateke, paralelismoz eta antitesiz osatutakoa eta goi mailakoa izan nahi zuena baina normalean artifizialeki bihurtuko zena. Aurrekoa baino apalagoa, humanismoaren tradizioa idazleek bultzatutako estiloa legoke, hitz jario handikoa eta elegantea baina, aldi berean, ulerterraza eta estilo arruntari gehiegi lotzen ez zitzaiona. Eguneroko kale hizkuntza jaso nahi zuen joera izango zen hirugarrena, arina eta elkarriketaren bidez eratua.

Esan dugu, alabaina, objektiboki obra erakargarria izanda ere, Axularren *Gero* normalean hizkuntzaren ikuspuntuu utsetik tratatu izan dela eta biziki gutxiagota literatur balioarenetik. Egia da Axularren ekarpen linguistikoa behin eta berriz azpimarratu izan direla, baina egia da, aldi berean, literaturaren ikuspegitik aztertua izan denean orokorrean aurreritzi negatibo askorekin izan dela tratatua, gure ustez euskal literaturaren prosaren finkapenaren alorrean eta, zehatzago, estilistikarenean dagokion lekua "gutxi-egi"-etsi egin delarik.

Ildo horretatik, ezinbesteko begitandu zitzaigun obra hau parametro erretoriko-estilistikoetatik aztertzea eta izan zitzakeen balioak nabarmentzea.

Bazen, beraz, motiborik Axularren obrara hurbildu nahi izateko eta haren balioez mintzatzen hasteko, alde batetik, obraren planteamendu orokorra nolakoa zen eta zeri erantzuten zion finkatu behar zelako, eta, bestetik, Erretorikaren presentzia eta eragina oso gutxi aztertu izan direlako euskal literaturan barrena, eta, *Gero*-k, gure literaturaren historian zutarri onartua izan den *Gero* honek, ikuspuntu horretatik gehiegi aztertu gabeko liburu emankorra zirudielako.

Edonola ere, behin eta berriz azpimarratu izan da obra honen eta autorearen inguruan dagoen problematika, arazoak zenbaitetan (gehienetan agian!) gaindiezin bailiren geratu direlarik. Ezin ahaztu, esate baterako, liburuaren egituraketaren ingurukoa, iragarritako bigarren partearena, etab. Antzeko zerbait esan genezake Axularren bizitzaren inguruko iluntasun eta lainoen arteko puntu askori buruz, betiere gogoratuz, jakina, (ezinezkoa bailitzateke ahaztea!) garaiko giroa eta, hain prezeski, literatur lapurteraren loraldia argitasun minimo batekin esplika ditzaketen baldintzapen soziologiko eta historikoen azterketen beharra.

Halere, arazo hauen guztien artean, garrantzizkoa zen jakitea eta finkatzea ea nolakoa zen eta nola koka zitekeen garaiko prosan Axularrek emaniko "urratsa".

Guketz, gogoratu beharrik ez dago, argigarriena (argitzeko errazena, alegia) zirudien arlo erretoriko-formal horretan ezarri nahi izan dugu ikerlan honen arakatze esparrua. Izenburuan adierazi legez, Axularren prosaren azterketa Erretorikaren argitan hain zuzen.

Jakin bagenekien, eta horixe izan genuen hasiera-hasieran helburu, ziurrenik arlo estilistikoarekin lotura ezinago hertsia duen elokuzioaren arloan beharko genukeela ahaleginik handiena burutu, prosaren nondik-norakoak finkatuko bagenu. Halere, metodologiak berak problematizatu gintuen eta, ondorioz, garbi erakutsi zigun alde aurretiko zenbait pausu eman gabe lan nekeza bezain hutsala genukeela burutzeko. Izan ere, arinkeria zitekeen "originaltasunaz", testu-dependentsiaz eta beste hainbat arazoz oinarritako argitu gabe Axularren prosaz mintzatzeraz pasatzea.

## 0.2.- HELBURUAK

Gure hipotesiaren muina *Gero* idazteko Axular erretorikan oinarritu eta hartaz baliatu zela izanik, batetik finkatu beharra zegoen noraino bete zituen "ars" haren aholkuak, eta, bestetik, ea inolako eklektizismorik erakutsi ote zuen eta, ahal zelarik, zernolako intuizio edo kontzientziarekin egin izan zuen arau erretorikoen erabilpen hori. Jakina, horretarako ezinbestekoa egiten zen egitura erretoriko-estilistiko nagusiak ere zehazten saiatzea.

Euskal literaturan topiko bihurtu diren “berankortasuna” eta “produkzio urritasuna” kontzeptuek egia da ez dutela gehiegi ahalbidetzen ondoko literaturetan historikoki garatu diren eredu erretoriko-literarioak gure letretan modu nabarmenean identifikatzen, baldin aldez aurretik ez badira aipatutako erdarazko literatura horiek erreferentzia gisa hartzen. Halere, uste dugu gurean badela areagotu eta nabarmendu den eredurik, prosa arloan Axularrena -eta hauxe da lan hipotesi bat- paradigmatikoa delarik.

Aldi berean, inguruko literaturekiko berankortasun objektibo honetan bazitekeen eklektizismo aztarna nabarmenik ere antzematea, besteak beste euskal literatura idatzia ahozkotasanaren munduarekin lotzeko balioko zukeen elementurik. Izan ere, erretorikaren fruitu bide ziren lehenengo produkzio idatzi hauek ahozkotasanaren estigma eta seinalea erakuts zitzaizkela pentsatzeko arrazoiak hauteman uste genituen hasierahasieratik. Ongak adierazten zuen bezala,

“A pesar de que el humanismo del Renacimiento inventó el moderno saber textual y dirigió el desarrollo de la impresión con tipos, también prestó oídos otra vez a la antigüedad y así imbuyó nueva vida a la oralidad. El estilo del inglés utilizado en el período de los Tudor [...] e incluso mucho más tarde conservaba muchas características del lenguaje oral en su uso de epítetos, equilibrios, antítesis, estructuras formularias y elementos de lugares comunes. Lo mismo sucedía con los estilos literarios europeos en general” (Ong 1987, 115)

Gure lana, hortaz, erretorikaren presentzia eta Axularren prosa-jokamoldea eta planteamendua finkatzean zetzan nagusiki eta, honen barruan, noraino iristen ziren ahozkotasanaren munduko fenomenoek ezaugarriak -eta, bidenabar, baliabiderik pertinenak eta erabilienak- argitzen ahalegintzean.

Esan gabo doa: orain ere *Gero* liburuaren ahozkotasanaz hitzegitea puntu asko tratatzea litzateke; arretaz aztertzeak, gainera, erraz gaudituko litzuzke lan honen xedeak eta mugak. Hori zela eta, bazirudien libururaren barnean ahozkotasanarekin eta herriko mintzairarekin zerikusi gehiago zuen prosa ohiko sintaxi erretorikotik eta itzulpen eta ikasketei egotzi behar zitzaizkien hartatik bereiztu behar zela. Horrezaz gain, ezin ahaz zitezkeen ahozkotasanaren osagaiek erakusten zituzten gainerako elementuak: irudiak, esapideak, etab.

Bestalde, funtsean berbalidia modu ederrean eratzen erakusten duen artetzat hartu ohi da Erretorika. Halere, erretorika mota desberdinak izan dira historian zehar, mendebaldekoak, guri interesatzen zaigunerako, bi multzo orokorren inguruan edo bil daitezkeelarik: erretorika klasikoa, batetik, eta, hartan oinarritua, elizak bere eginkizunetarako egokitutako erretorika eklesiastikoa, bestetik.

Oro har, puntu horretan bilatu behar uste zen Axularren ekarpena euskal prosara, hots, Erretorikan Axularrek emandako “urratsa” zertan zetzan frogatzea eta aztertzea, eta, baldin ondoko hizkuntzetan (batez ere gazteleraz) egiten zenarekiko kidetasunik bazen, horien ildo nagusiak finkatzea.

Halaz ere, azken eginkizun horri lotuko gatzazkion arren, ez da hemen testu dependentziarik huts-hutsean bilatzea helburu izan. Hori alboratu gabe, gure lanak gehiago nahi izan du besterekin konparatuta *Gero*-n zeudekeen paralelismoak, tematikoak zein baliabidezkoak (ideia-irudietakoak barne) azpimarratzea, gure ustez, hauetan guztietan oinarrituta -eta ez hitzez-hitzezko pasarteetan bakarrik- hasi ahal baita obraren originaltasunaz, balioaz eta inguruko literaturekin dituen barneko loturez mintzatzen.

Ageri-agerian da nekez baieztatu daitekeela behin-betiko ezer iturri<sup>2</sup> dago kienez, lan honen xedeak samur gaudituko litzuzkeen eginahal berezia eskatuko bailuke iturriak exhaustiboki finkatu nahi izateak<sup>3</sup>. Gehienik ere, gure helburuen argitzapenerako ezinbesteko deritzogun zenbait “kointzidentzia”<sup>4</sup> edota kidetasun aipatuko da hemen, batik bat autore euskaldunen liburuetatik jasoak diruditenak eta iturburu nabarmena bide zen Granadako Luisen obretakoak.

Bestalde, guk Villasantek behiala burutu nahi izan ez zuena<sup>5</sup> argitzeko saioen bat egin nahi genuke Axularrek darabiltzan aipamenean alorrean. Ez da konparaketa exhaustibo eta sistematikoa izango guk hemen proposatzen duguna, baina bai urdazubiarrak zegiearen adierazgarria.

Halaber, egia da agian kulturalki iturriena bezain garrantzitsu izan litekeela planteamendu orokorraren barnean Bibliaren erabileran Axularrek egiten duen desmitologizazioa<sup>6</sup> zertan zetzan finkatzea. Ez da, baina, hori honako lan honen helburua izan eta ez gara honetaz arituko. Baina bai beste zerbaitez.

Urdazubiarraren liburua, beste zenbaiten egokitzapenaren fruitua izango balitz ere, beti izango litzateke irakurle eta entzule konkretu batzuei zuzendutako mezuaren desmitologizazio edo berrinterpretazio prozesu baten atal edo une historikoa.

Ildo horretatik, ezin ahaz daiteke Axularren liburua euskaldunen artean Eskriturako interpretazio katolikoa egokitzen eta zabaltzen lagundu zuen neurrian, erreferentzia, irudi eta baliabide konkretuez ere hornitu zuela haien irudimen mundua. Axularren liburua beste pausu bat, garrantzitsua dudarik gabe, izango zen hizkuntzaz euskalduna zen gizataldearen erabateko “konbertsioan”, erlijiosoan zein kulturean. Jakina, pastoral politika horren ondorioz, euskaldunen imaginarioa nekez iritsiko da hurrengo mendeetan Eskritura Sakratu deitu horietatik at dauden bestelako kultur erreferenteetara, besteak beste irten ahal izateko faktoreak ere mendebalde zabaleko beste hizkuntzenak baino latzagoak gertatuko zirelako gurean.

Gogora dezagun, helburuen atalarekin bukatzeko, lan honetan prosaren tratamendua Erretorikaren argitan aztertuko dela diogunean ez dugula formari dagokiona bakarrik eta huts-hutsean adierazi nahi, ezaguna baita mezua finkatzeko prozesuak ere berebiziko garrantzia duela idazleak eskaintako zituan. Beraz, prosaren sortze-antolamenduz ere arduratuko gara ondoko lerrootan, horretaz ere baitihardu erretorikak eta ematen argitasunik.

2 - “Iturri” kontzeptua Aguiar e Silvaren adierarekin ulertuko da hemen, hots, “un hecho, un episodio, una descripción, incluso una imagen en que un escritor se ha inspirado, o que ha utilizado en su obra” (Aguiar e Silva 1986, 389). Modu berean, “eragin” kontzeptuari gagozkioelarik, “se refiere a la visión del mundo, a formas de sensibilidad, a procedimientos de realización artística que un escritor recibe de otros” (*Idem*).

3 - Are gutxiago ausartuko ginatke “[...] a meternos por la selva de la literatura mística española del Siglo de Oro para ver si en ella encontramos un libro del cual el Guero pudiera ser traducción [...]” (Villasante 1962, 8).

4 - Ez beti eta ezinbestean “iturri”.

5 - “Tampoco vamos a meternos por el laberinto intrincado de citas que se encuentra en el Guero ni vamos a tratar de verificarlas para rastrear si Axular tenía conocimiento directo y de primera mano de tantos autores y libros como cita. Esta labor es desde luego interesante y está por hacer” (Villasante 1962, 8).

6 - Pasarte biblikoen azal literarioaren berrinterpretazioaz diharduen heinean, desmitologizazioa oso bide egokia izan daiteke orduko kultur giroan eta mentalitatean sakontzeko.

Nolanahi ere den, adierazpidearen "artean", "elocutio" delakoan alegia, agertzen uste dira garbikienik Erretorikak eskaini eta Axularrek erabili zituen baliabide estilistiko interesgarrienak. Hortik etorriko da, beraz, urdazubiarraren prosan antzematen diren jokamoldeak erakusten jarriko den arreta.

Aitor dezagun, azkenik, azterketa honek ez duela erretorikaren ikuspuntutik egon daitezkeen baliabide eta aberastasun guztien zerrenda exhaustiboa burutzea bilatzen. Axularren prosaren aportazioa kontestualizatu eta haren lerro eta ezaugarri nagusiak finkatu eta argitu nahi dira hemen. Besterik gabe.

### 0.3.- METODOLOGIAZ

Gure ikerketan horrelakoetarako ohikoa den prozedura erretorikoaren metodologia berreraikitzaileaz baliatzea erabaki dugu, jakin alde zurretik badakigun arren sarri askotan metodologia eklektiko samarra bilaka dakigukeena. Halere, eklektizismo hori kaltegarri bainoago, eskola edo korrante metodologikoen jarri ohi dituzten muga hertsia gaitzeko apropos bezain aberasgarri izan daitezkeelakoan gaude.

Oro har, planteaturiko ikerkuntza hau bidera zezakeen irizpide nagusia eta giltzarria Axularren obraz egindako errezepzioan eta bestelako argumentu historiko-literarioetan oinarritutako hipotesian zeutzan batik bat. Izan ere, Axularrez ezagutzen genituen gutxitxo guztiek haren idazteko modua eredu erretorikoetan oinarritzen zela pentsatzen bulkatzen gintuen eta horrela planteatu genuen lan honen hasierako hipotesia. *Gero*-ren errezepzio-moduak berak ere areagotu egingo zuen ikuspuntu erretorikoa analisi metodo egoki gisara, Axular eta haren obra, bai ahozko tradizioan nola bestelako lekukotasunen bidez (urdazubiarraren prestakuntza klasiko bera barne), betidanik irudikatu izan baitira fenomeno erretorikoari bereziki lotuta, pertsuasiora bideratutako "*ars de bene dicendi*" delakoarekin hertsiki lotuta alegia.

Era berean, obraren irakurketan barrena etengabe agertzen diren Erretorikaren berezko baliabideek, hau da, *logos*, *ethos* eta *pathos* direlakoekin zerikusia duten *irakatsi*, *atsegin izan* eta *mugarazi* aditzek bete-betean hartarazten gintuzten izaera aszetikoko obra honen analisirako.

Ildo horretatik, nabarmen geratu zen hasiera-hasieratik eginkizun honetan nekez mintza gintezekeela funtsean eta oinarrian planteamendu erretorikoa izan zuen prosaren azterketaz Erretorikak berak eskaini ohi dituen tresnak baliatu gabe.

Nolanahi ere den, jakin, alde zurretik genekien metodologikoki testuaren argitze-tresnatzat hartzen genuen Erretorikak ere bazituela bere mugak, eta ez nolanahi-koak edota ondoriorik gabeko teoriko hutsak, Kibédi Vargak ohartarazten duen bezala.

Batetik, Erretorika printzipioz *berbaldiaren* artea dela ahazten ez bada, ba bide da alderik *testu* bihurturik agertzen den ahozko formulazioarekin, batik bat testuaren isokronia ezak sortarazten dituen mezuaren zentzu anbiguotasun eta arazoengatik; jakina denez, horiek areagotu egiten dira Erretorikaren bidezko azterketa testua idatzi zenetik hirurehun urte beranduago egiten denean. Bestetik, ezaguna da erretorikaren mugak eta ezintasunak testu-azterketaren esparrura bertara iristen direla, eta ez dirudi metodologikoki

azterketa erretorikoa zehatza eta erabatekoa eta osoa izan ditezkeenik<sup>7</sup>.

Edonola ere, eta eragozpen metodologikoa ondo gogoan harturik arren, Axularren obraren sorkuntzaren deskribaketa eta analisiari aurre egiteko modu egoki bakarra iritzi genion erretorikarenari eta horrela abiatu ginen lanean, metodologikoki, egileak egindako idazte-bidea alderantziz ibiltzera bultzatuko gintuen planteamendua saihestuz eta nagusiki aribide deduktiboan oinarrituz. Izatez, metodo honen arriskuak gutxiestekoak ez badira ere, oro har testu mota aszetiko hauetan aski garbi finka daitezke egilearen intentzioak -ageri-agerian baitaude mezua eta asmoak- eta, era berean, errazkiro "egiazta" daitezke baliabide eta prozedimendu erretorikoen egokitzapena eta egokitasuna.

Horrela, analisisian Axularrek jarraitutako bide erretorikoetatik barrena abiatzea eta, neurri batean behintzat, berreraikitzea izan da gure eginkizuna. Ibilaldi horretan Erretorikaren lehendabiziko hiru atal kanonikoetan eman izan dira urratsak, hau da, prosaren sorkuntzarekin zerikusi estu-estua dutenetan hain zuzen: *inventio*-tik hasita *elocutio*-raino, *dispositio*-tik iraganik eta ahaztu gabe *actio* delakoak ere izan zezakeela eraginik haren prosan.

Guztiarekin ere, sarartuaren prosaren planteamendua arretaz eta erretorika klasikoaren eremutik ikertzeaz gainera, azterketarako premiazko iritzi izan diogu ikuspuntu historikoaren laguntza izateari, berau baitzen, gure ustez, metodologikoki hipotesiak modu erabakiorrean froga zitzakeen eredu emankorra<sup>8</sup>.

Hortaz, metodologia taxutzerakoan Reu-ren proposamen metodologikoa (Reu 1993)<sup>9</sup> izan da beste abiapuntu garrantzitsu bat, sermoien azterketarako egoki baino egokiagoa iruditu zaigun planteamendua aszetika-liburu honen analisirako ere heda zitezkeela pentsatu baitugug

Horretan oinarriturik, bada, eta zehatzagoak izateko, hona hemen pausoz-pauso, lan honen burutzapenerako segituko den aribidea:

Lehenetik eta behin, Morel d'Arleux-en xehetasun metodologikoa oinarrituz<sup>10</sup>, *Gero* sortuko den inguruko funtsezko ezaugarriak finkatzen saiatuko gara, besteren artean "ingurune komunikatiboari" dagozkionak eta Axularren planteamenduaren hipotesiaren sustaketa ahalbide dezaketanak.

Esan beharrekoa da azalduko zaigun arazorik latzenetako bat ordura arteko produkzioaren ikuspegi diakronikoarena izango dela. Izan ere, euskal esparruan askotxo

7 - "Une analyse *précise* esta impossible parce ue les outils, c'est à dire la terminologie, sont flous: telle tournure peut relever de deux *lieux* différents, telle expression peut faire partie de plusieurs *figures* de style en même temps. Une analyse *complète* est impossible parce que l'étude des présupposés, l'analyse des arguments utilisés ou à demi cachés et l'examen des émotions sont en principe illimités" (Kibédi Varga 1989, 229 or., 30 oh.)

8 - Maravallek berak azpimarratzen zuen bezala, "es necesario considerar los factores estilísticos e ideológicos enraizados en el suelo de una situación histórica dada" (Maravall 1973: 1983, 134).

9 - Oro har, harenak diren hitz hauekin laburenez honelako obra bat aztertze moduen proposamena: "Nous proposons quatre voies. La première est le sermon lui-même, la deuxième nous mène à étudier le prédicateur, la troisième nous fait examiner l'auditoire, tandis que la quatrième nous invite à analyser la société dans laquelle les prédicateurs et les auditeurs ont vécu, produit et écouté ces sermons" (Reu 1993, 331).

10 - "Teniendo en cuenta que los modelos [...] están en relación con el medio en que se insertan, se puede utilizar como referencia el medio religioso y monástico de sus autores y delimitar las fuentes según la orden de predicación o el convento al que pertenecían" (Morel d'Arleux 1993, 730 or.)

falta da genero honen historiaz, bilakaeraz edota aldakuntzez hitz egin ahal izateko. Edonola ere, garbi utzi nahi dugu hemen ez dela lan honen helburua eskema historiko osotu bat burutzea, besteak beste gure literatur historiaren egoerak berak galeraziko ligu-keelako eginkizuna.

Hurrengo kapituluan, eta liburuaren azterketari ekin baino lehenago, hurbil-keta antzeko bat eskainiko da erretorika liburuetan esaten, aholkatzen eta agintzen denaz, ezinbestekoa baita XVI-XVII. mendeetan “indarrean” zeuden erretorika tratatuetatik abiatzea eta ikuspuntu hartatik aztertzea orduan idatziz produzituriko guztia, Axularrena barne.

Azterketa metodoa, beraz, harako haietakoa ahaztu gabe bideratu beharko da, nahiz eta premisa gisa Axular inolako kategoria hertsitan ez dugun kokatuko<sup>11</sup>. Alabaina, jeneralizazioetan erortzeko arriskua saihestu nahian bada ere, Kintiliano eta Granada erabiliko ditugu nagusiki garai hartako erretorika liburuaren paradigma gisa, hain zuzen kronologikoki muturretan daudelako, eta bigarrena, hots, Axularren garaikide eta, dakigunagatik, aitzindari izandako Granadako Luis Kintilianoren planteamendu orokorren jarraitzailea delako.

Horrezaz gain, eta oraingoz hipotesi gisa bada ere, Axular, predikari eta idazle moduan, erretorika klasikoaren jokamoldeak tinko gordetzen zituen erretorika eklesiastikoan zeharo txertatua zegoela planteatuko dugu hemen, eta, aldi berean, Granadaren erretorika eklesiastiko “praktikoa” bederen ongi ezagutzen zuela<sup>12</sup>; apaizek zuten prestakuntza erretoriko klasikoak Kintilianoren ezagutza eskaintzen bazuen, Granadakoaren proposamen eklesiastikoaren presentzia ukaezina da *Gero*-n, bien arteko kideetasunak lekuko. Garbi da, bada, Granadako Luisen liburu aszetikoen irakurketak gutxienez haren erretorika zeharka ikasteko parada eskaini ziola urdazubiarrari.

Bestalde, honelako liburu aszetikoez betetzen duten funtzio ebangelizatzaileaz gainera, ezin ahaz daiteke bertan gomendatzen diren erremedioak eta arauak etengabe ari direla maila erlijiosotik ateratzen eta gizarte-arlori iristen, horrek ideologikoki dituen inplikazioekin. Beraz, liburu metodologikoki aztertzeak maila bien arteko interferentzia puntuak bilatzen saiatzea<sup>13</sup> suposatzen du eta horretan arituko gara liburuaren planteamendu orokorra eta doktrinala azaltzeari eskainitako atalean. Komenigarri deritzogu, halaber, Axularrek obra taxutzerakoan espero zituen irakurleak irudikatzen saiatzeari, espektatiben arabera egokitu beharko baitzuen gero prosa erretoriko guztia.

Horren ondoren, eta aurrera eginik, *Gero*-n antzeman uste den hipotesi erretorikoaren egiaztapena burutzen saiatuko gara, erretorika klasiko-eklesiastikoaren ohiko atalak kontutan harturik. Jakina, *inventio*, *dispositio* eta *elocutio* izenekoak izango

11 - Ezin jakin daiteke alde zurreratik noraino defenda litekeen haren obran eragin estilistiko-erretoriko nagusi bakarrik. Orobat, Barrokoaren garaiko prosa didaktikoak (zer besterik da prosa aszetikoa?) duen adarreztaketa ikusita (garbitasuna, gardentasuna eta oreka formal bilatzen dituenetik indarra eta pasioa erakustea lortu nahi duenera), zinetan susma daiteke Axularrenean ere, beste zenbaitenetan bezalatsu, agian modu eklektikoan ager daitezkeela joera nagusiak.

12 - Adierazi beharrik ez dago: zaila izango litzateke Granadaren liburu teorikoa (*Retórica Eclesiástica* delakoa) zuzenean ezagutzen ote zuen galderari erantzutea.

13 - Hain zuzen ere, horrek berak eraman gaitzake “[...] a descubrir detrás de la convencional estructura de un libro de devoción la rigidez metódica de un tratado de civilidad y, como tal, un instrumento ideológico privilegiado capaz de influenciar la conciencia y el comportamiento de los fieles” (Morel d’Arleux 1993, 720).

dira egilearen sormenari eta arlo produktiboari zuzenen dagozkienak eta guk hemen tratatuko ditugunak, ez besterik.

Ezaguna denez, lehenengo atal kanonikoak obraren sorketaz eta hura defendagarri egiteko behar diren argumentuen bilaketaz ihardungo du, batik bat liburuaren planteamenduaz eta Axularrek izan bide zituen iturri eta bestelako elementuez. Horren ondoren, berriz, obraren antolamenduaz arituko gara, gure kasuan aztergaia liburuaren egituraketa bera izango delarik: nola antolatzen diren argumentuak, nolako forma ematen zaaien edukiei, zenbat kapitulu, zermolako disposizioa kapitulu bakoitzean eta orokorrean, etab. *Elocutio*-ak liburuaren barrera zabalduko diren ideiei nolako hizkuntz jantzia erantzen zaaien aztertuko du. Atal honetan legoke prosaren tratamenduaren azterketa.

Hortaz, eta aurrekoan oinarriturik, hasieran Axularrek obraren burutzapenerako izan bide zuen *loci*-en tratamenduaz mintzatuko gara, batik bat obra testuinguru egoki batean kokatu ahal izateko eta, betiere, soil-soilik indukzioaren bitartez atera daitezkeena azalduz. Hemen frogatu beharko da ea Axularren *Gero* liburuaren erreferentzia esparru gisa, bai kulturalki bai modu berezian erretorikako arloari dagokionez, gaztelaraz mintzatzen den kultur esparrua denentz. Horretarako arrazoi estrukturaleraino gain (espainiar inperioaren indar politikoa, ekonomikoa eta kulturala; argitalpen politika zabal: gaztelaraz argitaratzen zen Portugalen, Flandrian, etab.), pertsonalak ere badirelako: prestakuntza akademikoarena, urte luzez Sarako bataio-liburuaren erabilitako mintzamoldeak erakusten duena, etab. Hori dela eta, egiantzekotasun handia duen frogatu gabeko hipotesi honen inguruan ihardungo dugu.

Atal horrekin lotuta, aurrera dezagun lan honetan obraren “originaltasunaz” edo hitz egin dadinean ez dela gure artean “ohiko” bihurtu zentzuan egingo.

Gauza jakina eta zenbait mailatan demostratua (ik. Urkijo, Villasante, etab.) da Axularren liburuaren beste autoreerikiko zorra nabarmena dela; hainbat pasarte, argudio eta tratamenduri dagokionez, behinik behin. Axularrek, bere garaia seme eta bere lanbidearen menpeko zen neurrian, mezu aszetikoa zehatza zabaltzea baino ez zuen helburu, eta asmo horrekin, hain zuzen, “karreatu” zituen bere obrara beharrezko iruditu zitzaizkion materiale guztiak. Originaltasuna, alderdi horretatik, besterena bezalakoxea ziurrenik.

Era berean, komenigarria iruditu zaigu *Gero* liburuaren iturri izan zitezkeen eredu klasiko edo garaikideen bila abiatzea<sup>14</sup>. Horrekin ez da azterketa exhaustiborik burutuko, hori guztia aztertzea beste lan baten egitekoa bailitzateke; besterik da hemen bilatuko dena: Axularren “originaltasuna” denominazioaren pean kalifikatu den hori benetakoa parametroetan uztea. Horrek, jakina, saratarraren estiloaz ere esango digu, hain zuzen ere beste obraren itzulpen-moldaketak ager dakizkigunean, beraien tratamendua hertsia ala askea den baieztatzeko irizpiderik izango baitugu, eta, ondorioz, “gure idazlearen estiloaz” ala “besterenaz” aritu behar dugun jakiteko.

Nolanahi ere den, modu berezian azpimarratu nahi genuke lan honetan ez dela agortzen iturri eta eraginaren azterketa. Hemen, guk aurkitutako iturri posible batzuk baino ez dira aurkeztuko. Sortze legearen arabera, noski, beti egon liteke “usaindutako”

14 - Aztertzeke utzi da Farinellik zabalduko Schuchardt-en hipotesia. Haren arabera, Axularren liburuaren beste baten itzulpena edo moldaketa hutsa baino ez litzateke. Ikuspuntu hau argitu bitartean (eta egia esan, bakar-bakarrik argi liteke delako “iturria” aurkituko balitz, ezen aurkitzen ez den bitartean, beti egon baitaiteke “iturria” bilatu behar dela eta aurkituko dela pentsatuko duenik!) metodologikoki ez balego bezala jokatu behar da. Alabaina, “susmo” honek eragozpen gehiegi ekarri izan du beti *inventio* eta *dispositio* ataletara.

iturri horien atzetik beste iturririk, guk geuk ediren ez arren. Halere, kronologikoki aurrekoa den iturriren bat aurkitzen den oro aski garbi geratzen da nolabaiteko dependentziaren hipotesiaren frogantza, hots, gure kasuan liburu zati edo atal hori ez dela Axularren burutik huts-hutsean aterea behinik behin.

*Dispositio* erretorikoari dagokion bezainbatean, liburuaren barne egitura-ketaren inguruko analisia burutzen saiatuko gara, hemen ere originaltasuna, hipotesi guztien arabera, ohiko sermoigintzaren ildoko egitura moduetara mugatu ahal daitekeela dirudielarik.

Baina *Gero*-n bestelako originaltasunik ez balego ere, prosaren tratamendu orokorrari legokiokeena geratuko litzateke, historikoki erretorika literatur arloran hurbiltzeko eginkizuna izan duen *elocutio* delakoaren azterketak azal lezakeena hain zuzen.

Edozein gisaz, desegokia litzateke atal bakarreko originaltasunaz mintzatzen hastea, planteamendu erretorikoak dioen bezala, aipatu elementu guztien konfluentziatik sortzen baita autore baten obra eta hari dagozkion ezaugarriak. Horregatik, gure honetako honi dagokiona behiala Dámaso Alonsok zioenarekin bat letorke:

“El tema de ésta (literatur ikerkuntza ari da) es [...] la unicidad de la obra, del «poema». Y lo que yo quisiera sería, precisamente, explicar qué es lo «único», lo «personal» del escritor, lo «peculiar» de su obra, y su efecto sobre mí, sobre el lector. Para saberlo, sí, será necesario que se haya investigado qué es lo que tienen en común con otros. Pero mi perspectiva -lo que a mi corazón y a mi inteligencia les importa- no es ésa, sino la de la íntima originalidad” (Alonso 1964, 85 or.) (azpimarrak gureak dira).

Azken kapituluetan, Axularren prosaren berezko dinamika estilistiko hori ulertzeko ezinbesteko diren baliabide erretoriko nagusien mugaketak hartuko du protagonismoa, batik bat liburuaren izaera definitzen duten baliabideenak. Ildo horretatik, obraren azterketa burutzeko adierazgarrien diren elementuez baliatuko gara, inolaz ere ez testimonial hutsak edota Axularren prosa identifikatzeko baliorik gabekoak direnez, ez baita hemen taxonomia lanik bilatzen, Axularren “joera erretorikoa” identifikatzea baizik.

Formalki, ikerlan honetatik ondorioztatzen diren puntu orokorren atalak itxiko du obra. Gainerako orrialdeetan lanaren burutzapenerako baliatu bibliografia eta argigarri izan daitezkeen eranskinak gehituko dira.

Bestalde, metodologikoki hasiera-hasieratik nabarmendu beharrekoak dira liburuan barrena dauden atal desberdin nagusiak. Batetik, liburuaren eskaintza egiten duen atala genuke. Bigarrenik, “Irakurtzaileari” zuzendutako atala eta, hirugarrenik, liburua bera genuke, hirurogei kapituluk osatzen dutena, alegia. *Gero*-ren irakurlea berehala ohartzen den bezala, hiru zatiak erabat desberdinak dira planteamendu, tonu, estilo eta baliabideei dagokienez. B. Etxauzi eskainitako dedikatoria oso landua eta zaindua den bitartean, bigarrena askoz ere pragmatikoagoa da, eginkizunak, ardurak eta bestelakoak azaldu nahi baititu bertan egileak. Guztiarekin ere, hirugarrena izango da lan honen helburu nagusia, *Gero* liburuaren corpusa alegia.

Era berean, eta ikusi ahal izango denez, metodologikoki ez da egoki ikusi testuak jatorriaren arabera esparru desberdinetan sailkatzea. Aipamenenak iturri aitortuetakoak badira ere, askotan itzulpen-moldaketa aitortugabeak aurkitu ahal izango dira testuan zehar disimulaturik eta inolako estilo desberdintasunik erakusten ez dutelarik. Ez dirudi motiborik, beraz, legokeenik kidetasunik azaltzen ez duten (edo aurkitu ez dugun) pasarteak beste modu batez aztertzeko. Are gutxiago Axularren estiloa gora-behera urrikoa baldin bada.

Halaber, tratamendu erretorikoaren ataletan demostratu nahi denerako pertinenteak diren perpausen identifikazioa (non hasi eta non bukatzen diren, alegia) testuan dagoen puntuazio zeinuen abstrakzioa eginez burutuko da, jakina baita gaur eguneko puntuazio eredu ez dela garai hartakoa bezalakoxea. Orobat, adibide gisa eskainiko diren pasarteak grafikoki egungo euskara batuan dauden zeinuetara moldatuak emango dira gehienetan, betiere testuen edizioetarako erabili ohi diren irizpideak zainduz (Pascual 1993; Barroso & Sánchez de Bustos 1993). Erreferentzia nagusia, dena den, Villasanteren bertsoia (1976ko edizioa) izango da.

Azkenik, azterketa honen parametro erretorikoen finkapenerako baliatuko dugun sistematizazio eskema -Kintilianok eta Granadak idatzitako obretakoak ahaztu gabe- Lausberg-en (1960: 1991) eta Mortara Garavelli-ren (1991) obretatik jasotakoarekin osatu dugu nagusiki, beraiek izan dira-eta gure asmoetarako kontzeptuak garbien, didaktikoen eta zehatzen azaldu dituztenak. Halaber, irudi erretorikoen analisisan erreferentzia interesgarri iritzi diogu Mayoral-en lanari (1994).

**I.- IKERKETEN  
EGOERA**

“Le basque a partagé avec le celtique  
le privilège de faire dire à son sujet  
d’innombrables extravagances”

J.-J. Ampere

Axularren eta haren obraren inguruko lanetan ikerketa sendorik falta ez bada ere, argitaraturiko guztien artean ez dirudi gutxi direnik aldez aurretik hartutako iritziak zurrizko oker metodologikoa erakutsi dutenak edota, horrelakoetan gertatzen den *totum revolutum*-az baliatuz, eta apriorismo beretan oinarriturik, gehiegikeriak ere areagotzera iritsi direnak. Eta, jakina, ez gara ohiko turiferarioen ustezko azterketei buruz bakarrik ari.

Aski da lan horien katalogoa hartzea esandako horretaz guztiaz ohartzeko. Axular eta haren obra ia denetarako aitzakia izan dira: literaturaz iharduteko, erlijioaz ari- tzeko, antropologiaz mintzatzeko, etab. *Gero* sakonki irakurri gabe “baloratu” dutenetatik liburua irakurtzeko asmorik ere ez duten ikertzaileenganaino, baieztapenak egiten hasi ondoren ez bide zegoen balazta sakatzerik. Besteren artean, liburuaren balio literarioa ere gorai patua izan da egileak hizkuntza -sintaxia eta lexikoa, alegia- aberatsa zerabilelako eta herriaren hizkeratik gehiegi urrundu gabe maila altuko (!?) gauzak tratatzen omen zitu- elako -eta, gainera, nola tratatu!: seiehun bat orrialde beteaz!.

Azken urteotan Axularren hizkera hizkuntza kodetutik hurbil sentitu izanak ere -eta euskara eta estilo egokiaren eredu gisa edo har zitekeelako usteagatik nonbait (ik. Goikoetxea 1991)- lagundu du baiespen barreiatze horretan.

Oro har, esan genezake, kategoria morfo-sintaktikoetatik at, deus gutxi aprobetxatu dela harenetik eta gaur egun oraindik “ezezagun ia perfektoa” dugula sara- tarra, denon agerian ezkututzen zaigun altxorra hain zuzen. Eta hau diogunean, zera adierazi nahi dugu, hots, saio solte eta partzial batzuk izan ezik, Axularren planteamendu aszetikoa ezer gutxi ikertu dela, haren jokamolde sozialaz gehiegi ez dakigula eta, gure arloari dagokionez, prosaren balio eta ekarpenen oinarritzoo ebaluazioa egiteke dagoel oraindik.

Baina, Axularren eta haren obraren inguruan topiko faltarik ez den arren, bada zabalkuntza eta ikerkuntza arloan ohorezko salbuespenik ere, guztien artean Urkijo eta Villasante nagusi agertzen zaizkigularik.

### 1.1.- AXULARREN ETA HAREN OBRAREN ERREZEPZOTIK...

Ez da hau seguraski Axularren obraren eta balioaren esandako guztiaren zerrenda egiteko tokirik aproposena, monografia mardula aterako bailitzateke horrelako lanetan abiatuz gero. Izan ere, askotxo ditugu gure letretan Axularren gorentasunaz mintzatu direnak, eta ez bakarrik Dissaneche<sup>15</sup>, Petrus D’Urthubie<sup>16</sup> edota Etxeberri Sarakoa, azken hau Axularren benetako gurtzailea izan bazen ere.

<sup>15</sup> - Axular “Viro magni nominis in nostra cantabria” dela dio (*Gero* 13 or.)

<sup>16</sup> - *Gero* 14 or.



Francisque-Michelen lekukotasunari kasu eginez gero, Axularren *Gero* obraren harrera ezin hobea izan zen hemeretzigarren mendean euskaldunen artean:

“Le *Gueroco guero* est encore regardé de nos jours comme le meilleur livre de la modeste littérature de ce pays, pour la choix et la propriété des expressions, pour la vivacité des tournures et la noble simplicité du langage” (Michel 1857: 1983, 474).

Eta horrela jarraitu bide zuen hurrengo urteetan ere, Intxausperen edizio berriak (1864) eta hainbat autoreren hitzek adierazten duten bezala. Halere, Axularren obraren errezeptzio honetan denetatik izan bide da: obra baloratu dutenen iritzietatik liburuaren arrakastaz baliatuz irakurri gabe mintzatu zirenganaino. *Continuum* horretan, dena den, nekez bereiz litezke egiazkoak besteetatik eta laudorio “erretoriko” hutsak zirenak benetan balorazio izan nahi zuten haietatik. Horren adibide gisa genuke honako hau, esaterako:

“Eta zer adimendu zorrotzekoa zitaken! Gain gainetik eskolatua, aintzineko idazlen lanak jakituz irakurtuak zituen eta beretuak: zer mami aberatsa zuketean Axularren predikuek! Axular predikariak bazuken ere adimenduaz eta jakitatez bertzerik: ezen bihotzen hunkitzeko, adimendua ez aski, behar da gogaren agergarri zerbait, eta hura da mintzaira.

Oi Axularren mintzaira ... Zaintsuago, aberatsago, nasaiagorik ba othe da? Haren berri jakiteko, esku menean dugu Axularren liburu famatua: *Gero*.

Gauza funts handikoak bezala, ez du bada achala gustagarri; bertzelako gai bat nahiago ginuke menturaz, oraiko egun arin hotan. Erran behar da ere horgo egien ithurria ez dela bilhatu behar ez Saran, ez eta ere Urdazubin, baina Axularren aintzineko idazlen lurretan... Baina hasian hasi irakurtzeari, lotu ondoan jarraitzen begira, zer loria! Zer arrazoinamendu zuzena! Zer orduko eta bethiko gizonen ezagutza paregabea! Eta zer mintzaira ahotik ezin utzizkoa: batean zabal eta luze, bertean lerdan eta labur, artetan dena chista eta chimista, bethi dena zain, bethi dena argi...” (Narbaitz 1956, 326).

Ildo horretatik, eta egiazko errezeptzioaren zailtasunaz alde aurretik ohartuta gaudelarik, Axularri egindako tratamendua isladatu nahi genuke honako lerro hauotan: Euskal Herrian eta euskal autoreetan antzematen den harrera hori nolakoa izan den azaldu eta, bestalde, euskal letretan eta ikerketetan funtsezko (ez azaleko) eragina izan dutenen ekarpenak zertan dautzan argitu.

### 1.1.1.- EUSKAL GIZARTEAREN TESTIGANTZA

Beherago ikusiko den bezala, azken mendeotako euskaltzale eta filologoen eremu hertsietatik kanpora isur zitekeenaz gain, ezin ahaz daiteke Axularrez euskaldun arrunten artean betidanik izan den “pertzeptzio” berezia eta, batik bat, nola geratu den haren presentzia ahozko tradizioan isladaturik.

Bi mailatan dugu irudikaturik sarartaria, beraz: ahozko literatura deitu izan den tradizioan batetik, eta bizimodu errealean bestetik, baina biak elkarrekin uztartuta eta, askotan, bereiziez bihurturik.

Asko izan dira esparru honetan On Joxe Miel Barandianek berak eta beste hainbatek behin eta berriz gogora ekarri dituzten narrazioak. Guztietan “imaginario colectivo” delakoaren partaide gisa agertuko da urdazubierra, eta gehienetan -eta hau da

guri interesatzen zaiguna- egitate erretorikoaren alderdi bati edo besteri lotuta<sup>17</sup>. Salamancako leizeetan deabruarekin ikasi zueneko narrazio edo ipuin moduko haietatik aurrera (ikus, esaterako, Barandiaran 1956a), Axularren irudia euskal Krisostomo baten mailakotzat agertuko da beti. Oraintsurarte bizirik iraun duen irudimen kolektiboak horrela hartu duelako hain zuzen. Eta hori guztia Axularrengan ezohiko jakituria<sup>18</sup> (eta jakituria azaltzeko hizkuntz jariotasuna, ziurrenik) antzematen zutelako nonbait (Burke 1991, 250).

Ahozko tradizioaren bidez iritsitako horiezaz gain, ezin ahaz daitezke erreallitatean herri xeheak Axularren obra zerbait misterioitsu eta bekaturako bide bezala ikusi izan duela maiz<sup>19</sup>. Haren *exemplum* sortak (berriz erretorikaren esparrua!) hori pentsarazteko motiborik aski ematen zuen, batik bat ia gaur arteino iraun duten erlijio eta pentsamendu estuko giro eta urte luzeegi haietan.

Horrek guztiak urdazubiarraren pertsonaia herri xehearentzat eskuraezina zirudien “jakituria” baten aldarean mitifikatzeko balio izan du, baina, berrito diogu, betiere Axularren iharduera erretorikoaren irudia mitifikatze horretatik hurbil zegoelarik.

### 1.1.2.- EUSKAL LETRETAKO AUTORE ZENBAITEN TESTIGANTZA

Samur luza liteke Axular-zale bezala agertu diren autoreen zerrenda. Halere, haren obraren estudio edota ikerketa sistematikorik ez eta zientifikorik ere egiten ez duten neurrian, XVII. mendetik hona Axularren errezeptzioa nolakoa izan zen zirriboratzeko balioko uste dute ondoko lekukotasunek.

Ez ditugu hona ekarriko Axularren garaikide izan ziren liburu-aztertzaileek lerro artean adierazitakoak, ez eta euskal literaturan agertzen diren guztiak ere. Bide exhaustiboa baino interesgarriagoa iruditzen zaigu kualitatiboa, hau da, esanguratsuen, lekukotasun garrantzitsuenak jasotzen dituen.

Zinez esan daiteke XVIII. mendean Joannes Etxeberri Sarakoarekin hasi zela harrera komentatuaren zikloa Axularren *Gero*-ren balioari dagokionez. Tamalez, ez zen Etxeberri bere garaian literatur eraginik izan zuen autore suertatu: euskal prosaren kaltetan ziurrenik, alperrikaldu egin baitzen haren lana Urkijok berrehunen bat urte beranduago argitara eman arte.

Halere, Etxeberrik Axularren obraz isuri zituen hitz eta iritziek haren inguruan hedaturik bide zegoen sentsibilitate literario baten adierazgarri diren neurrian, baliagarriak zaizkigu Urdazubikoaren errezeptzioaz ohartzeko. Urkijoren hitzak erabiliz, “en los comienzos del siglo XVIII, Joannes d’Etxeberri, el laborioso doctor labortano [...] consagró uno de los más sentidos y vibrantes capítulos de su obra á enaltecer la memoria del preclaro párroco de Sara” (Urquijo 1911, 538).

17 - Gogora bedi, esaterako, Barandianek Axularri buruz prestatu ipuinen zerrendan (Barandiaran 1974, 102) zenbat diren “maisu”, “eskola”, “ikasle” kontzeptuekin eta jakituriarekin oro har lotutako ipuinak.

18 - Ahozko tradizioaren arabera, badirudi jakintza arloan Axular arruntasunetik at zeukatela haren garaikideek. Aski da Barandiaranen obrei begirada bat ematea Axular herri tradizioan nola agertzen den ikusteko: sorgin baten seme bezala, fenomeno naturalei aurre egiteko ahalmen bereziekin, deabruarekin ikasten egona, etab. (ik., besteak beste, Barandiaran 1956a, 1956b eta 1974).

19 - Adierazgarria izan daiteke Olhetako gizon hartaz kontatzen zena, hots, *Gero* zahar bat zuela gordeta “sorginkeriazko liburu bat” bailitzen (Lafitte 1956, 341).

Izatez, Etxeberriek *Escuararen hatsapenac* izendatu den liburuan "P. Axular, Saraco Errotora Escuarazco autoretaric hautuena eta famatuena" kapituluaren, honako informazio hirukoitza utzi zuen, lehenengo pasartearen teologiaz eta zerabilen hizkuntzaz:

"Eguiazqui Escual-herrian hau da bakarra, hambat autoreen liburuetañ çautñan gauçac, arantçepetic atheraric beçala, eta Theologiaren mami hautua bilduric escuaraz ederquienic arguitara eman darocuna" (6. §: *RIEV XVIII*, 143 or.)

Eta beste pasarte honetan Axularrek izan zuen arrakastaz (nahiz haren obra zerabiltenek ez omen zuten Axular iturritzat aitortzen):

"Oraino bertce-alde maiz ikusten dugu, nola gure predicari batçuec ekhartcen tuzten bere predicuetan Axularren obraticcaco parte batçuec: ceinez baliatcen baitira bere perpausen beztitceco eta edergailluztaceco: ordea eztiote mereciesten erraitea: *Hau Axular famatuac dio*. Bertce hainitz Autor arrotz mendreagori ohore hunen emateaz batere dudaric eguiten ezutularican" (15. §, 147 or.)

Edozein modutan, Etxeberriren ustez, Axularri ohore eta gradu guztiak eta letretan buruzagitasuna zor zaizkio,

"ceren hunen Philosophia, *De non procrastinanda pœnitentia*, baita haguiz çuhurragoa, eta seguragoa, ez gauça naturazcoez, eta lurrecoez bainan bai naturaleçaz goragocoz tratatcen duena: non handican seguitu baitu Dotor Ainguiruaren escola, eta eguinbidea, eta dembora berean merecitu du deit dadin Escuararen, eta Escual-herrico Escualdun Dotor, Ainguirua beçalacoa" (7. §, 144 or.)

Balorzio eta iritzi hauek, zalantzarik gabe, zirkulu batzuetan Axularri buruz hedaturik zegoen maisutasun irudia -idazle zein teologo/filosofo gisa- uzten dute agerian.

Ildo horretatik, bidezkoa da pentsatzea Manuel Larramendirenganaino iritsi zela saratartuari buruzko irizkidetasun hori. Sarako Etxeberriren hainbat lan ezagutzen zituen Larramendik Axularren hizkeraz dioena laudorioen mailakoa da:

"El bascuence (Axularrena, alegia) es elegante, propio, puro, abundantísimo, el asunto tratado por principios, probado por la Sagrada Escritura, Padres de la Iglesia, ejemplos y semejanzas muy oportunas: los vicios pintados al natural y convenientísimos sus remedios" (*Diccionario Trilingüe*, 1745, xxxv or.).

Berdintsu jarraituko du Axularren obraren harrera XIX. mendean ere, Intxauspe (1815-1902) horren lekuko garbia delarik. Elizgizon honetaz geratu zaizkigun erreferentzien artean nabarmenenetarikoek Axularren obraren inguruko jakituriaren berri eskaintzen digute, eta ez bakarrik *Geroko gero* berrantolatua argitarapenagatik. Haren gairaikide izandako Duvoisinek eskuizkribu argitaragabe batean idatzirik utzi zuenez, M. le Chanoine Inchauspe zera zen, "un theologien, plein de science et bon prédicateur, qui avait étudié à fond l'oeuvre d'Axular" alegia (apud Altuna 1987, 77).

Badirudi, dena den, Intxausperen *Gero*-zaletasun hori ez zela aski berandura arte hasi eta betiere prebentzio ideologiko-erlijioso handiz<sup>20</sup>. 1862ko martxoaren 20an

20 - *Gero*-ren erabileraz eta irakurtzeko apaiz zenbaitek jarri debekuz Intxauspek eman zion "réponse textuelle", Duvoisinek berak ematen digu: "La défense de cette lecture est un puritanisme assez mal entendu. Le reproche le plus grave qu'on ait fait à Axular, c'est un expression trop crue quant à la question de *concupiscence*. Sa parole était probablement bienséante au temps où il vivait; aujourd'hui, elle peut blesser quelquefois certaines oreilles; jamais on n'est plus délicat sur ce point que lorsque les mœurs sont plus relâchées" (apud Altuna 1987, 77).

d'Abbadie-k L.-L. Bonaparte printzeari bidalitako eskutitz batean zioenaren arabera, Intxauspek oraindik irakurri gabe zeukan berak, Abbadiek, bertatik, eta Bonaparteren enkarguz, Axularren oroitarrian jartzeko esaldiren bat atera zezan utzi zion *Gero* liburua (ikus Lacombe 1943: 1956, 368).

Edonola ere, Axularren hizkera eta planteamendu erretorikoaren harrerak badu disidenterik ere, iduriz Axularren estiloa ez da guztien gogokoa. Honako hau diosku Duvoisinek, esaterako:

"La parole d'Axular est abondante jusqu'à l'excès; elle n'est pas toujours d'un très bon goût. Ce n'est pas dans son livre qu'il faut chercher le modèle du style, ni la pureté du langage" (apud Altuna 1987, 77)<sup>21</sup>.

Areago, "ce n'est pas dans le *Guero* *guero* qu'il faut chercher cependant le beau basque" (*idem*, 78). Duvoisine ustez, euskara eder hori bilatzekotan, "on le trouvera plus certainement dans l'oeuvre de son vicaire, Harizmendy, qui traduit en vers l'Office de la Sainte Vierge" (*Ibidem*).

Euskal letren esparruan ikerketa linguistiko-literario sistematikoei aurreko mendearen bukaera aldean ekin bazitzairen ere, gauza jakina da XX.a izango dela lan sistematiko-zientifikoen mendea. Inolaz ere, oinarriak Vinson bezalako baten lanetan (Vinson 1981 eta 1898) bilatu beharko dira nagusiki.

Axularren bizitzaz eta obraz den bezainbatean, ahalegin filologikoari zor zaio nolabaiteko herritartzearen "uholdea". *RIEV* aldizkaria dela medio, argitara ematen hasiko dira *Gero*-ren lehen argitalpenaren zatirik handienaren faksimila (*RIEV IV-VI, XI eta XXIV*), Añibarroren bizkaierazko bertsioaren lehen berrogeita bi kapituluak (*RIEV XIV-XVII, XIX-XXII eta XXIV*) eta lehendabiziko apunte biografikoak (Urquijo 1911). Tartean ez da faltako gipuzkerara isurtzeko saiarik ere (J. Ateagarena, *Euskal Esnalea*, 1909tik aurrera).

1936-39 bitarteko gerrak maila guztietan (kulturala eta literarioa barne) sortutako etenketaren ondorioz, bigarren erdialdean hasiko da gaintzen, eta, ondorioz, Axularren obra ezagutarazteko edizioak ere areagotzen. Hamar-hamabi urteko zikloak errespetatuz, *Gero*-k edizio desberdinak (elebiduna, faksimila, etab.) ezagutuko ditu handik aurrera: 1954, 1964, 1976 eta 1988.

Hasierako zabaltze ahalegin haien ondokoak izango dira, neurri handi batean, kritikan eta, ondorioz, jendearengan Axularren obrari buruz geratu pertzepzio homogeneoa (topikoa?) hedatuko duten iritziak<sup>22</sup>, bai Villasanteren obren bidez barreiatuak nola besteren *auctoritas* -en bitartez.

21 - Ez da ahaztu behar "excès" delako horrek Barrokoaren lehen mailako kategorizazio bati erantzuten diola hein handi batean eta, aldiz, "bon goût" delakotik egiten zizaion kritika parametro klasikoetan oinarritutakoa zela. Planteamendu kontrajarria eta bateraezina, beraz, ezin elkarrekin ezkon zitezkeen jokamoldeen ikuspuntutik sortzen zena.

22 - Pertzepzio hori, erraz konproba daitekeen bezala, pertsonaiaren jakituria erretorikoaren ingurukoa eta obraren planteamendu erretorikoari buruzkoa da eskuarki. Adierazgarrietarikoak baino ez ekartzearen, ikus Mitxelenak eta Villasantek idatzitako hauek: "Asko-jakina zen Axular eta mutila, gainera, zekiena esaten [...] Zekiena adierazteko, berriz, zenbat gogoeta sakon, zenbat hitz zorrotz, zenbat aukerako exemplu!" (Mitxelena 1954: 1988, 40-41). Orobat Villasantek: "Tratado con extraordinaria abundancia, extensión, con pasmosa erudición de citas, anécdotas, ejemplos, razones" (Villasante 1974a, 31).

## 1. 2.- ... AZKEN URTEOTAKO IKERKETETARAINO

Literatura guztietan errezeptzio mailaren araberakoa izan ohi da obrari eskainitako lan eta ikerketena bera ere. Ildo horretatik, zalantzarik gabe esan daiteke azken mende honetan Axularrek jaso izan duela bere balioarengatik legokiokeen errezeptzioaren kategoria, izan ere areagotuz joan baitira hari eta haren obrari eskainitako ikerketak.

Guztien artean, literaturaren historiaz arduratu den bibliografia aipatu beharko litzateke lehendabizi. Haien helburua oinarritzko ikuspuntu historiko-literarioa eskaintzea izan den heinean, literaturaren protagonistek eta haien obrek jendartean ezagun bihurtzeko aukera izan dute.

Ezagutarazte lan horretan ohargarria da Francisque-Michel-ek *Le Pays Basque* (1857) liburuaren bidez egindako ahalegina. Haren ondoren ez dira gutxi izan urdazubiarraren irudia literaturaren historian kokatzen eta kaleratzen saiatu direnen saioak: Orixe (1927), Lafitte (1941), Etxaide (1958), Mitxelena (1960), Villasante (1961) eta beste zenbaitenak. Hauen artean, ez dira gutxi izan Axularren prosa erretorikoa eta haren funtzioa eta balioa nabarmendu dituzten autoreak, besteak beste Sarasola (1971; 1976), Orpustan (1996) eta Kortazar (prentsan)<sup>23</sup>.

Bibliografia espezializatuagoaren eremuan, baina gaur egun Axularren inguruan ikerlariak aurki dezakeen panorama bibliografikoa exhaustiboki urratzeko asmorik gabe (ik. Villasante 1974; hark eskainitako lan oinarritzko eta orobiltzaileari azken 20 urteotan argitaratuak gehitu beharko litzaizkioke), gure lanerako garrantzitsuen gertatzen diren arloetan burututako idazlanen norabidea marraztu nahi genuke hemen.

### 1.2.1. - AXULARREN BIOGRAFIAZ

XVI-XVII. mendeetako historia-atal partzialak osatzeko dagoen dokumentu eskasian Urkixo (1911), Manuel Lekuona (1954), Irigarai (urteak), eta Villasante (1972) aipatu beharko lirateke. Horiekin batera, garrantzitsuak dira A. Irigaray eta Juan Aguirre-rena (1978) eta azken honek argitaratutako perfil biografikoa eta dokumentuak (1980).

Saratarraren bizitzaz ezer gutxi jakiteaz gain, Axularren eta haren garaikideen prestakuntza (akademikoa eta erretorikoa) ezagutzen hasteko lanak ere falta ditugu. Eskasia honen aurrean, azpimarragarriak dira Itziar Mitxelenak eskainitakoak (1974; 1977), besteak beste.

### 1.2.2. - OBRAREN PLANTEAMENDUAZ

Oro har, eta egia aitortzeko, ikuspuntu lingusitikoa izan da nagusiki Axularren obrara hurbiltzeko erabili izan dena; eta lingusitikoa barrenean, honelako bereizketarik egin ahal bada bederen, atal lexikoa eta morfosintaktikoa izan dira baloratu diren ia bakarrak, bai obra onetsi dutenen artean eta bai gaitzesteko erabakia hartu zutenen artean.

Planteamenduaz esan dena gaia deskribatzera mugatu da eskuarki, Ibarren esplikazio-nahiaren salbuespenarekin. Horregatik agian izan da Ibarren *Genio y Lengua* liburu (1935) ondoko urtetan hain eraginkorra: giltza filologikoez harantza, liburuaren planteamendu eta funtzionamendu orokorra ulertzen saiatu zelako eta, horretan oinarriturik eta jeneralizatze asmoz, literaturaren klabeak eskaintzen jakin zuelako. Harek aurkeztu

23 - Autorearen adeitasunari esker kontsultatua.

proposamenak *Gero* irakurtzeko eta ulertzeko sistema egokia eskaintzen bide zuen. Harrezkero interpretazio gehienak Ibarrek jorratutako bidetik abiatu izan dira, alegia Axularrek bere obran bertan gauzatu zituela gerokoentzat idazteko baldintza edo arau izan behar zuten ezaugarriak: pedagogikoa, pragmatikoa eta jeniala.

B. Urgell (1991) izan da Axularren obra interpretatzeko teoria hau kolokan jarri duen lehena oso lan interesgarri batez; besteak beste Ibarrek Axularren obran atzematen bide dituen ezaugarrien oinarriak dira zalantzatzen jartzen direnak.

Dena dela, zehatzago ikusi ahal izango ditugu kritika horren bestelako nondik-norakoak tesi-lan honetan barrena.

### 1.2.3.- PLANTEAMENDU ERLIJIOSOAZ

Baina *Gero* liburuaren azterketa ez-lingusitikoez gauza gehiegi esan ez bagenezake ere, are gutxiago komenta liteke Axularren planteamendu aszetiko-teologikoaz. Egia esan, inor gutxi arduratu da liburuaren edukiaz eta bertan antzeman litezkeen joerak, isiluneak, beste tradizioekiko paralelismoak eta bestelako puntuak finkatzen.

Ezaguna da Intxausperen "liburua ordenatzeko" nahi hartatik sortutako zitua, eta, beharbada, horixe izan da liburuaren mamia ulertzeko egin den saiorik nagusiena, burututako espurgazioek benetako barne kontraesana sortu bazioten ere nahi / asmo horretan.

Bestalde, Urkijok berak ere ez zuen horretaz gehiegi sakondu, baina laburtuta utzi zuen puntu horri buruz pentsatzen zuena Etxeberri Sarakoaren hitzak bere bihurtu zituenean: "único *euskaldun* que, en tiempos pasados, supo, dejándose de traducciones literales, recoger y expresar en hermoso vascuence el meollo más selecto de la Teología católica" (Urquijo 1911, 538)

Jakina, arazoa etor liteke *Gero* liburuan ematen diren pautak aszetikoak "el meollo más selecto de la Teología católica" gisara agertzen direnean. Baina ez da horrelakorik planteatu.

Gehienik ere, planteamendua problematizatzen ez duten lanak dira bakanka agertu direnak. Teologiari buruzko argitalpenen artean, esaterako, Balenziagarena (1990) da azken urteotan kaleratu den bakarra. Katolikoen probetxu izpiritualeko helburu soilaz, Axularren testuen glosatze eta zenbait kontzepturen katalogatze lana da. Adi-mugaz honantz dagoenari, inondik ere, jeneralizazioak eta bestek esandakoen errepikapenak baizik ez zaizkio eskaintzen bertan.

### 1.2.4. - IDAZLANAREN ALDERDI FORMALEZ

Badirudi hizkuntza bera, dituen maila diferenteetan, izan dela ikertzaileak gehien erakarri dituen, bai gaitzesteko nola laudatzeko.

Ildo horretatik, azken mende erdi honen hasieran, Lekuonaren iritziak (1954) izan ziren sektore zabal batzuen pertzeptzio lingusitiko-literarioa laburbildu zutenak, batik bat urdazubiarrari leporatutako erdarakada eta barbarismoei dagokienean.

Baina aurreko ahaleginak inolaz ere gutxietsi gabe, azken hogeita bost urteotakoak izan dira, ezbairik gabe, ziturik sistematizatuena eta sendoenak eskaini dituz-

tenak. Ildo horretatik, aitortu behar da ikertzaileen interesgunea ezezik idazleena ere gertatu izan dela -ezin zitekeen bestela!- urdazubiarraren hizkuntza. G. Arestiren "Flexiones verbales empleadas por Pedro de Axular en su obra *Guero*" (FLV 3, 1971, 197-221) lanarekin hasita, azken urteotako ikerlanetaraino (Odriozola<sup>24</sup>,...), kateak ez du etenik ezagutu, tartean J. Arzamendiren<sup>25</sup> eta M. Azkarateren<sup>26</sup> lanak bezalakoak izan direlarik.

Dena den, nabarmentzekoa da Villasantek atal honetan ere egin duen lan erraldoia: lexikografia arloan prestatutako *Axular-en hiztegia* (1973) askietsirik ez nonbait, eta morfosintaxi arloari ekin zion. Haren ondoren aurkeztutako emaitzak<sup>27</sup>, ohi bezala, Axularren irakurle eta hizkuntzazale guztien erreferentzia bihurtu dira.

## 1.2.5. - ERRETORIKAREN IKUSPUNTUTIK

Ezaguna da Erretorikak iharduera komunikatiboaz diharduela oroz gainetik. Igorleak bidali nahi duen mezuaren sortze-unetik beretik hartzailearenganaino iristeko dauden urrats guztiez arduratuko da betiere eta pausu horiek arautzen edo saiaturik. Guztiarekin, interes berezia erakutsi ohi dute obraren originaltasunaz eta formaz dihardutenek. Ikusiko den bezala, alabaina, gurean ez dirudi hauen perspektiba hizkuntzaren alderdi formalena bezain emankorregia gertatu denik.

### 1.2.5.1.- Originaltasunaren azterketa

Jakina denez, esku artean dugun obraren "originaltasun" maila ustezko iturriekiko askatasunaren arabera izan da neurtua gehienetan, iturriekiko urruntasun-hulbiltasunak originaltasun-(eza)az epaitzeko premisa huts bezala jokatu duelarik.

Axularren obraren originaltasunik eza baieztatu izan dutenen berbaldiak normalean papereratu gabe geratu diren arren, badirudi iritzi horren hedapenak ondorioak izan dituela urdazubiarraren obra zuzenean ezagutzeko egokierarik ez dutenen ikerlanetan. Hori dela eta, agian alor honetan azken urteotan agertu diren lanen artean esanguratsua eta, aldi berean, harrigarriena A. García del Moral eta A. Román de la Rosa-ren eskutik datorrena izango genuke.

Ikertzaile horiek Fray Luis de Granadaren omenez 1988an burutu zen Nazioarteko Kongresuan aurkeztu "Fray Luis de Granada, autor europeo" izeneko artikuluan (García del Moral eta Román de la Rosa 1993, 269), eta Luis de Sarriaren bibliografian sakontzeko elementu aberatsen artean, bat-batean eta inolako daturik ez oinarriak eskaini gabe, tesi-lan honetan aztergai izango dugun *Gero* liburua aurkeztuko

24 - *Axularren kasu-markadun adizkiak*, Gasteiz, 1990, doktorego-tesia, arg. g..

25 - *Las frases condicionales en Axular* (1973, argitaratu gabeko tesina).

26 - "-n/-z erlazio hizkiak denborazko aditz lagunetan Axular eta Etxeberri Sarakoarengan", *Euskera* 25, 1980, 401-416.

27 - Besteak beste: *Estudios de sintaxis vasca* (Oñati, Ed. franciscana, 1978); *Sintaxis de la oración simple* (Oñati, Ed. franciscana, 1980); "Las oraciones causales en Axular" *FLV* 37 (1981), 9-18; 38 (1981), 9-21; 39 (1982), 9-20; 40 (1982), 359-386.

digute "Traducciones" delako atal baten barnean<sup>28</sup>.

Beste guztiagatik serioa eta interesgarria den artikulua honetan zalantzarik gabe adierazten da egia ez den zerbait, edo egokiago nahi bada, frogatzeko dagoen zerbait hain zuzen, hots, Axularren *Gero* liburua itzulpen hutsa dela. Horretatik, logikoak izanik eta besterik ez bada ere, Granadakoaren 10-15 orrialdeak itzultzeko Axularrek seihun bat orrialde behar izan zituela ondorioztatu beharko litzateke.

Nolanahi ere, *Gero* liburua erretorikaren ikuspuntutik gehiegi aztertua izan ez den arren, egia da bat baino gehiago izan direla originaltasunaren inguruan egindako saio serioak, nahiz eta gorabehera askotxorekin beharbada.

Urkijok, esaterako, ez bide zuen burutu sistematikoki ikertu nahi izan zituen eraginaren azterketa, horretarako asmo tinkoa erakutsi zuen arren. Halere, Urkijori zor zaizkio libururaren originaltasunaz isuri diren iritzirik zabalduenak (1912). Mitxelena ere zerbait bide urratzeko azarna eta ohar metodologikoak eskaini zituen (1971).

*Motu propio Inventio* atalekoak diren aipamenei dagokien bezainbatean, aitortu beharrekoa da Iragarairaren lantxoak (1954) akats eta hutsarte nabarmenak zituela eta, argi izpiak ekarri zituen arren, agerian uzten zuela lan osoago baten premia. Bestalde, P. Etxeberria (1973) aipamen bibliko guztien erreferentziak identifikatzen, zuzentzen eta finkatzen saiatu zen, jakin gabe lan hori ordurako Urkijoren liburutegian bertan zegoela eskuz prestatuturik, nahiz eta zerbait akatsez zipristindurik<sup>29</sup>. Inolaz ere, Etxeberriarenak ere bazuen zuzendu beharreko huts nabarmenik (ikus 9.4 atala).

Horiezaz gainera, gogoratu baino ez atal honetan -batzuetan zeharka, bestetan zuzenago- sakontzen lagundu duten bestelako saioak ere. Horra hor, esaterako, Chaho, Humboldt, Schuchardt, Farinelli, Azkue, Mitxelena, Villasante eta beste hainbaten lanak eta oharrak.

### 1.2.5.2.- Prosaren azterketa eta obraren egituraketa

Ezer gutxi esan genezake bestelako alderdi erretorikoez egindako ikerketei buruz, erabateko gabezia somatzen baita euskal letretan Erretorikaren ekarpen eta eraginei dagokienez. Neurri handi batean, eginkizun egon da XVI eta XVII. mendeetan ikasketa humanistikoetan hain garrantzitsua izan zen disziplina honek euskal idazleen obretan izan duen isladaren azterketa.

28 - Zehatzago izateko, "Vida de austeridad y de misericordia" atalaren barruan, azken azpiatalean, Luis Granadakoarenak bide diren "Otros breves opúsculos" izenekoan alegia, honako informazio hau plazaratu da:

"*Tratado de las postrimerías* (con el *Vita Christi* de 1559, *Obras*, XI, pp. 395-405, y en *Oración y meditación*, *Obras*, II, pp. 98-210). *Contra los que dilatan la penitencia para la hora de la muerte* (primera *Guía*, libro I, cc. 8-9; *Obras*, X, pp. 42-60).

Traducciones:

*Trattato de i quatro estremi ultimi dell'huomo*, Roma, José d' Ageli, 1576. Reedición: Venecia, 1601.

[...]

*Guero bi partetan partitus* (sic) *eta berecia...*, Bordelen, 1643 [...]" (García del Moral eta Román de la Rosa 1993, 269).

29 - Eskuizkribuaren egiletza Fray Lucio M<sup>a</sup> Núñez delakoarena bide da, honela agertzen baita idatzirik orrien hasieran: "B.P. Fray Lucio M<sup>a</sup> Nuñez / Colegio de San Buena Ventura / Guarecchi / Firenze" (ik. "Julio de Urquijo" ondarea, 8.022 zkia.)

Edozein modutan ere, XX. mendea aurreratu ahala agertuko dira lehenengo balorazio orekatuak Axularrek erabili hizkuntzaz eta estiloaz.

Ildo horretatik, haren estiloan ongien sakondu dutenetako bat On Manuel Lekuona genuke, urdazubiarraren estiloaren ezaugarri nagusiak zehaztu baitzituen 1954an kaleratutako *Gero*-ari prestatu zion hitzaurre ospetsuan:

“Esakun laburra. Estilo laburra. Eta, izan ere, Axular eztegu bat-ere parrafo-zale. Luze itz egingo dizu aldiz aldiz; bañan ifoiz ere ez parrafo bakar luzean. Sorta txiki asko dun itzaldia degu beti aren itzaldia. Eskutada txiki asko batuko dizkigu arek zama aundian; bañan beti ere olaxe, sortaka; ez bein ere, mahats-aiena iduri, parrafo nahasi, klausula luze, amas-etengabeko periodo bakar batean. Aditza, berboa, maiz *indicativoan*. *Gerundioz* eta *participioz* eta *subjuntiboz* eta *relatiboz* asko luzatu gabea beti ere paragrafoa... luzabidez eta luzagarritz aizatu gabea, «anpatu gabea», berak liokean bezela.

Ots, orratik! Ez uste izan orrenbestez, Axular'en estiloa, amas-estuko estilo lakonikoa danik. Estilo lakonikoa, ebakia, itz-neurtua, Kempis'en *De imitatione*-rena bezela, edo Salomon'en *Proverbia* -rena bezela, azal eta mami, dana labur. Ez. Axular askotan gai luzeari ditzeko. Eta eraz, berriz, zati labur bakoitza leunkiro alkartzen du zati urkoakin. Ortarako du ark, daukan bezelako arte, daukan bezelako Retorika. Retoriko bortitza baita, izan ere, gure Sara'ko Erretor zar, antziñako Tolosa'ko edo Salamanka'ko ikasle gotorra...” (Lekuona 1954, xxi-xxii)

Badirudi, dena den, Mitxelenaren iritzia izan dela orekatuenetariko bat eta estiloaz zabaldu den ikuskera egokien edo laburbildu duena. Honela zioen Axularren estiloa komentatzean:

“Abundante y con una ligera propensión a la elocuencia, la expresión es siempre precisa y ceñida a destacar la fuerza del razonamiento. No hay en Axular huellas de barroquismo y sí más bien, aunque con mayor sobriedad, una cierta semejanza con la manera de fray Luis de Granada. Siempre se han celebrado con razón sus admirables versiones de textos latinos, tan vascas como exactas” (Mitxelena 1960, 74)

Edozein gisaz, eta hedatutako iritzi horiek inolaz ere gutxietsi gabe, badira alor honetan bi ahalegin serio orain arte bestelako jarraipenik izan ez dutenak, bi-biak, zein bere planteamendutik, Axularren prosaz arduratu direnak. Oterminen eta Letamendiaren ikertze-lanez ari gara hain zuzen.

A. Oterminek 1973an lizentziatura memoria gisa burututako *Aproximación al ritmo de la prosa de Axular* lanean, neurri batean bederen, hemengo lan honen ildo berdintsutik abiatu nahi izan zuen. Egileak dioen bezala, “aspira a ser una primera aproximación a la estructura de dicha prosa. Y esto bajo el aspecto que se nos ha parecido más interesante y llamativo; a saber el ritmo” (Otermin 1973, 3). Ikerketak, beraz, maila semantiko-ideologikoa, fonetikoa eta sintaktikoa hartuko ditu abiapuntu erritmoa osatzen duten osagarrien azterketarako.

“Kausa-efektua” dinamika argiegi ez badago ere, egia da, alabaina, etenketa bezalako fenomeno bat gertatu zela ikerketa erretorikoan Axularrek Granadarekiko zuen dependentzia demostratuago eta “hedatuago” edo geratu zenean, Villasanteren obra dibulgatzailearen ondotik hain zuzen (1972). Handik aurrera -eta ez da hau inori inolako “errurik” egozteko nahia, konstatazio huts bat baizik- ikerketak kualitatiboki Axularren itzulpen eta hizkera arlora mugatu ziren, originaltasun erretorikoaren eremu irristakorrak baino biziki ziurraga diren horietara, zalantzarik gabe.

Bide horretatik, J.A. Letamendia, Axularren obraz ziharduen argitaratu gabeko lizentziatura memoria baten ondoren, saratarraren baitan zegoen “itzultzailearen

ezin ukatuzko estilo nahia (...) eta (...) beronen erretorika zaletasuna axola handiko eragile bezala” (158 or.) agertzen saiatuko zen “Erretorika klasikoaren eragina Axularren aipamenean itzulpenetan” izeneko artikulu laburrean (*Euskera* XXII, 1977).

Ikertzaile bera izango da handik urte batzuetara, eta aurreko lanaren ildo beretik, Axularren prosa berriro plazaratuko duena (1981), betiere itzulpenen azterketaren ikuspuntutik. Argitaratu gabeko tesinatik ateratako atalek osatuko dute artikulu hau.

Ikus daitekeenez, Axularren estiloa erreibindikatzeko saiorik faltako ez den arren (Goikoetxea Arrieta 1991), urriegia dugu Erretorika arloko ikerkuntza. Paradoxikoki, aztergaien multzoak ez dirudi honelako lazeriak zuritu ahal izateko bezain zabala.

**I. PARTEA: INGURUNEA, AUTOREA ETA OBRA**

## **II.- INGURUMARI OROKORRA**

## 2.1.- GIZARTEAREN KONFIGURAZIO-LERROAK

Euskal Literaturaren historiografiak jasan eta jasaten dituen era askotako ga-beziak direla medio, ezagunegia da erreferente sozial eta kultural anitzek irudikapen hutsetan geratu behar izaten dutela sarritan, historiaren ibilaldian atzerantz joanago, eta gehiago.

Gure aldetik ere agian urrutiegi joango ginateke XVI-XVII. mendeetako irudikapen sozio-politikoaren egiten hasiko bagina. Baina, era berean, ezinbesteko dirudi *Gero*-ren sortze-baldintzak behar bezala ulertzeko garai hartako gizarte-egoeraren oinarrien lerroak, azaletik bada ere, marrazteak, prosaren errealitatearen azalpen egokirako giltzarri zenbait eskain bailitzake.

### 2.1.1.- ERRENAZIMENDUTIK BARROKORANTZ

Oro har, bi dira Axularren obra ulertu ahal izateko nabarmendu beharreko kultur fenomeno nagusiak, hau da, *Gero* liburuaren konfigurazioa baldintzatzen agertzen diren faktoreak. Batetik, haren garaiak Errenazimenduarekin duen lotura eta zor kulturala eta, bestetik, erreforma-kontrarreforma giroari -bertan munduratu baitzen- zor diona.

Aldaketa handi eta sakoneko garai hau modu gatazkatsuan bizi bazen ere<sup>30</sup>, aipatu kontraesanean ezin da azpimarratu gabe utzi izatez prozesu bakar bat bezala ulertu behar den horren barnean gertatuko dela Euskal Herriko panorama literarioaren eszenatokia. Esan nahi baitugu kultur arloan eta, batik bat, literaturarenean agertzen diren lotura faltak edota etenketak gehiago ikusi behar direla sakonean jarraipena duen prozesu baten azaleko fruitu bezala etenketak bezala baino, elkarren arteko loturarik gabe dirudien "Etxepare-Leizarraga-Axular" hirukotea, aldaketa sakonak ezagutzen ari den gizarte konplexu baten partaide diren arren, sustrai sozio-kultural beretsua duten autoreak baitira.

<sup>30</sup> - Maravallek gogorazten duen bezala, "la situación de conflictividad es normal en la base del Barroco" (Maravall 1975: 1983, 96). Gainera, aurrerago dioenez, krisi objektibo hori modu berezian izan zen gizartearen barneratua: "se traduce en un estado de inquietud -que en muchos casos cabe calificar como angustiada-, y por tanto de inestabilidad, con una conciencia de irremediable «decadencia»" (Maravall *idem*).



Kulturalki, beraz, asko da Axularren mendeak Errenazimenduak sortutako tradizioari zor diona (Wardropper 1983, 7-hk.), izan ere eragin eta hedapen handia lortu zuen garaiko pentsamendu-molde gehientsuenetan. Ildo horretatik, ezin da ahaztu ondoren etorriko den forma kultural berriaren garrantzia ere, hots, Barroko izendatua izango zenarena. Barrokoaren kontzeptua, historikoki izan dituen zailtasunen gainetik, honetara laburbil liteke: “no es sino el conjunto de medios culturales de muy variada clase, reunidos y articulados para operar adecuadamente con los hombres, tal como son entendidos ellos y sus grupos [...], a fin de acertar prácticamente a conducirlos y a mantenerlos integrados en el sistema social” (Maravall 1975: 1983, 132).

Baina agian Errenazimenduaren fruiturik nabarmenena Erdi Aroaren bukaeran antzemango den Aintzinatearen aldeko joera izango da, dinamika honen fruituak literatur alorrean ikusiko direlarik bereziki. Errenazimendua, behiala azpimarratua izan zen bezala,

“estriba en un esfuerzo por introducir la belleza den la expresión mediante la imitación formal de los clásicos griegos y latinos. La ocasión para este gran movimiento de ideas [...] ha sido el entusiasmo y la admiración suscitados por el nuevo conocimiento de las obras literarias de los antiguos, desenterradas de los archivos y bibliotecas monacales o importadas del Oriente bizantino por conductos diversos. La revelación del mundo clásico constituyó ahora [...] un revulsivo para la conciencia europea, que se sintió agitada por un irreprimible sentimiento de simpatía hacia la cultura antigua. [...] Europa experimentó en el XV un auténtico Renacimiento, toda vez que la Antigüedad le fue revelada, no parcialmente y tamizada a través de otras culturas (persa, siria, egipcia, árabe o hebrea), sino directamente en la gran masa de sus tesoros. Poetas y dramaturgos, gramáticos y retóricos, historiadores y filósofos fueron ahora conocidos en sus textos originales, libres de toda suerte de mixtificaciones” (Carreras y Artau - Carreras y Artau 1943, 611-612).

Egia da, alabaina, aipatu joera kultural horietan, maiz asko berdintsuak izaten jarraitu arren, sakoneko norabide aldaketa bat emango dela hurrengo urteetan, xedeak zeharo ezberdinak atzemango direlarik Barrokoaren etorrierekin. Hori dela eta, biziki nabarmena izango da literaturan bertan Errenazimenduak lasaitasuna eta oreka bilatzen dituen bitartean, Barrokoak bestelako helburua duela, izan ere honek “procura conmovier e impresionar, directa e inmediatamente, acudiendo a una intervención eficaz sobre el resorte de las pasiones” (Maravall 1975: 1983, 170). Adibide gisa, Axularren obra bera norabide horretakoa agertuko da bete-betean.

Nolanahi ere den, euskal literaturaren panorama urriak literatur fruituetan errenazimenduarekiko nolabaiteko berankortasuna erakutsiko badu ere, ideien mugimendu erraldoi honek klasikoaren eta “letren” aldeko joera ezarriko du beste lekuetan bezalatsu, gure lan honetan hain garrantzitsua izango den erretorika bera birbaloratzen eta metodikoki erabiltzen hasiko delarik.

Honenbestez, jakintza arloan iraultza antzeko bat burutuko da ordurarte zegoen jerarkizazioan<sup>31</sup>.

<sup>31</sup> - “Los medios renacentistas experimentan un creciente despegue por la teología y la dialéctica escolásticas, que habían detentado la hegemonía científica en los siglos anteriores, y realizan frente a ellas las otras disciplinas liberales caídas en inerioridad por el abuso de ambas. El cultivo de las humanidades se centra en la gramática y en la retórica: y, rechazada la lógica escolar al uso, se busca una nueva dialéctica de tipo asimismo gramatizante y retorizante. El complemento a las humanidades lo constituye la enciclopedia científica, que abarca los conocimientos sobre el mundo real. Tal vez el sentido más profundo de la revolución renacentista se concreta en esa exaltación del saber profano, que acabará por originar en el siglo XVI una nueva ciencia y en el siglo XVII una nueva filosofía” (Carreras y Artau - Carreras y Artau 1943, 613).

Oro har, XVI. eta XVII. mendeetako kulturaren Errenazimenduak izango duen eragina areagoturik emango da oratoriaren esparruan. Ildo horretatik, Martík dioen bezala, “los autores que han tenido una concepción más grandiosa de la retórica ha sido los renacentistas” (Martí 1972, 13).

Guztiarekin ere, garai honetako literatura idatziak lotura (konpromezua, zenbaitetan) ezin hertsia izango du boterearen eta gizarte-ordenamenduaren planteamenduekin. Kultura barrokoaren gune garrantzitsuenetatik euskal eremuraino iritsiko den literatur barreiaketa ere oro har eskema nagusi horiei jarraituz burutuko da.

### 2.1.2.- HUMANISMOTIK ERREFORM(ET)ARAINO

Errenazimenduaren eta Barroko izenekoaren arteko *continuum* antzeko honetan bada faktore garrantzitsu bat Barrokoaren kulturari izaera propioa hartzen lagunduko diona eta, aldi berean, aurrekoaren planteamenduetatik zeharo bereiztera eramango duena. Erliñoaren esparruan prestatuko den Kontrarreformaz ari gara.

Asko mintzatu da eta asko idatzi erreforma-kontrarreformari buruz eta ez genuke hemen apunte zenbait baino egin nahi Axularren liburuaren esanahia fenomenoaren bere osotasunean kokatu ahal izateko eta ulertarazteko. Izan ere, historikoki eta kulturalki garrantzi handikoa izan bazen erreforma protestante eta katolikoaren arteko gatazka, euskal lurraldeetan gertakari hori hil ala biziko bihurtuko zen bertako biztanle askorentzat.

Baina has gaitezen lehendabizi honen guztiaren bideragarri izan ziren Humanismoa eta Erreforma ardatzak harilkatzen.

Bat datoz historialariak XVI. mende bukaerak eta XVII.aren hasierak ezagutuko zuten giro erreformistaren (eta kontrarreformistaren, dena esateko) aitzindaria Humanismoan bilatu behar dela aitortzean, antzindaritasun horrek Erreforma protestanteak bere bereak bezala dituen zenbait ezaugarri garrantzitsu delineatzen baititu hasieratik beretik. Kapitulu honetan gehien sakondu duten historialari horietako batek dioen bezala,

“[...] el humanismo preparó la Reforma en dos sentidos: contribuyó a este retorno a la Biblia, que era una aspiración de la época, e insistió en la religión interior desvalorizando la jerarquía, el culto de los santos y las ceremonias. Pero su concepción del hombre coincidía más con el catolicismo -al menos con el del siglo XX, que repudió al jansenismo- que con el pesimismo luterano y calvinismo [...] Sin embargo, en su filosofía más profunda, el humanismo era adomático y llevaba a una denegación de la teología: contra esto reaccionaron los ortodoxos protestantes y la Reforma católica” (Delumeau 1967, 25)

Alor praktikoan, esaterako, humanismoaren lehen eginkizunen artean Jaungoikoaren Hitz transmititzeko erabiltzen den hizkuntza garbitzea egongo da. Eskriturak gizakion kutsaduretatik at nahi izango ditu, planteamendu honek dituen ondorioekin: alde batetik, *Vulgata*-ren autoritatea bera jartzen zen zalantzatan eta, bestetik, “filologia” bezalako zientzia a-religioso bat elizaren magisterioaren gainetik kokatzen zen. Jakina, erliñoaren eta fedearen eremuan metodo kritikoa sartze horrek Erreformaren zutabe bihurtuko du humanismoa azken batean.

Baina humanismoaren eragina ez da erreformaren mundura mugatuko. Esparru katolikoko teologiak ere nabaritu du haren eragina:

“Bajo el influjo del humanismo, la teología aspira a una nueva motivación y a un nuevo método; pasa de los argumentos racionales a los de autoridad y tradición, de la dialéctica escolástica a la

investigación de fuentes, del procedimiento especulativo al «positivo», del lenguaje bárbaro de las escuelas al latín ciceroniano. En el lugar del sistema filosófico viene a colocarse la «tópica» teológica, esto es, la ciencia, no de los argumentos generales para la silogística, sino de las fuentes de la fe, contenidas en la Revelación y en la tradición” (Curtius 1976, 767).

Eragin hori, baina, ez da bakarrik humanismoaren ondorioa izango; Erreformak ere ildo beretsutik eramango du eliza katolikoa. Halere, oraingo honetan eragina teologiaren berrikuntzan baino areago funtsezko printzipio doktrinal zenbaiten zehaztaperen eta argitasunaren premian nabaritu da, eta, horrekin batera, katolizismoaren esparru ideologiko-erlijioso zaintzeko urratsak nola eman planteatzen den arazo praktikoa. Delumeau-k dioenez, “la conmoción del cisma protestante obligó a Roma a reconsiderar su teología, a clarificar su doctrina y a revalorizar el sacerdote y los sacramentos” (Delumeau 1967, 26)

Horren fruitu gisa, besteak beste, dogma katolikoaren finkapena gertatuko da eta eliza katolikoak kontzientziak kontrolatzeko ahalegin eskerga burutuko du. Era berean, aszetika berri eta “egokitutako” bat ezartzen hasiko da<sup>32</sup>, betiere bekatu “ahaltu eta omnipresente” kontzeptuaren inguruan. Ondorioz, predikazioa bera faktore ezin garrantzitsua agertuko da eskema orokor honetan.

Axularren *Gero* liburua -bekatuaren problematika guztiarekin: haragia<sup>33</sup>, iuramentuak, konbertsio bideak, etab.- horren guztiaren erakusgarri nabarmena suertatuko da.

Jakina denez, Axularri bete-betean egokituko zaio teologia eskolastikoarekin izandako haustura ikustea. Areago, Salamancan ezagutuko zuen giroan eztabaida teologikoak egunean zeuden, gauzak teologikoki aldatuz zihozela adierazten zuten eztabaidak alegia. Besteak beste, eta ospetsuenetarikoa bat aipatzearen, “De Auxiliis” izenarekin ezagutu zena gogoratu beharko litzateke<sup>34</sup>. Aurrerago adieraziko den bezala, *Gero*-n ere antzeman daiteke eztabaida horren arrastorik.

Hori guztia, adierazi bezala, Axularrek bizi beharko du hurbildik, hots, Salamancako unibertsitatean egindako urteetan. Era berean, erretorika arloan burutu nahi ziren aldaketak ere frenatzen ikusiko zituen urdazubiarrak<sup>35</sup>.

32- Ez da ahaztu behar osagai erlijioso sakona erakutsiko duela Barrokoan sortuko den literatura gehienak.

Arrazoia, erreforma katolikoa abian jarri zuen Trentoko kontzilioaren gizarte-eragin zabalean legoke nagusiki. Alabaina, idazleengan izan zuen eragina maiz asko oharkabean pasatzen den arren (“es más sutil y menos fácil de advertir de lo que podría suponerse”), oro har esan daiteke ezen “la Contrarreforma impuso la conciencia de la necesidad de ser moralmente responsable de sus obras. La mayor parte de la literatura que llamamos barroca se adapta a este principio” (Wardropper 1983, 11)

33 - Puntu honetan ere Axular besteak bezalakoxea bide da, izan ere “el sexo ocupa el mayor espacio en los manuales de confesiones contrarreformistas [...]” (García Cárcel 1989, 40).

34 - “Adierazi dezagun [...] arazo larria bideratu zitzaizela teologuei XVI heunkaren azken aldan, “De Auxillis” izenarekin gogoratzen dena. Izan ere, gizonaren nortasun eta honen goramena humanistek egin zuten neurrian kontutan izanik, galdera bortitza zuten atarian: hau da, gizona bere buruaren jabe bada, nola konpondu honen erabakiak eta nagusitasuna Jainkoaren Jakintza eta guztien gaindik duen aginpidearekin” (Balenziaga 1990, 112).

35 - Beherago ikusiko den Brocense delakoarekin bukatu ziren espektatibez ari gara, izan ere harekin Salamancako unibertsitateak erabili jokabideak Elizak Trentoko Kontzilioaz geroztik Humanismoarekiko hartu jarrera finkatu baitzuen, ohiko bide antzuetara itzuliz.

## 2.2.- PANORAMA ERRETORIKOA

### 2.2.1.- ERRETORIKA KLASIKOA ABIAPUNTUTZAT

Ezaguna da Errenazimenduaren atarian erretorika klasikoaren berreskurapen prozesua irekitzen dela mendebaldean, eta modu berezi batez estatu espainolean (ikus Camillo 1978), hots, Axularren prestakuntza erlijioso-erretorikoa burutuko den esparru linguistiko-administratiboan. Adibide gisa, aski izan bedi erretorika klasikoan zutabe garrantzitsu diren liburuen gaztelerazko itzulpenez ohartzea, betiere humanisten eskutik egindakoak: Alfonso de Cartagenak Zizeronen *De inventione*, Villenak itzulitako *Rhetorica ad Herennium*, etab.

Testu hauek bidea egingo dute espainiar humanismoaren eraikuntza prozesuan eta, aldi berean, eredu latindarra zabalduko dute garaiko prosaren esparruan. Zizeronen diskurtsoak, esate baterako, “fueron particularmente útiles por su riqueza de recursos retóricos, pero también para el estudio de la gramática, la ética o la lógica” (San José Lera 1993, 913).

Rafael Lapesak XVI. mendeko idazleez dioten bezala, “la mayoría de los proistas se atiene a la arquitectura ciceroniana de la frase, repartiéndola en miembros contrapuestos. La marcha pausada del periodo los lleva, como antes a Santillana o Nebrija, a remansar el pensamiento, desdoblándolo en frecuentes parejas de vocablos” (Lapesa 1981, 306).

Halere, XVI. mendearen bukaeran, autore-kanonaren aldaketarekin batera, prosan ere estilo aldaketa emango da: estandarrek (“standar style”) egiteke dagoen berri bati utziko dio tokia. Bai pentsamenduan eta bai estiloan ordurarte gailendu zen eredu zizeroniarrari Senekarena jarriko zaio gainetik (López Grigera 1983).

### 2.2.2.- ORATORIA SAKRATUAREN ILDOTIK

Oratoria sakratua, XVI eta XVII. mendeetan barrena, erretorika klasikoaren prezeptibaren esparruan aritu zen bete-betean, berezko zuen ezaugarri garrantzitsua, hots, *movere* delakoaren arloko hunkigarritasun hanpadura ohiko erretoriken aurrean areagotutik geratzen bazen ere<sup>36</sup>.

Alabaina, irakurle-entzulegoaren egoerak eta predikarien prestakuntza maila desberdinek posibilitatuta zeukaten ordurako bilakaera moduko zerbait jo daitekeena.

Garaiko predikariak maizegi gizon ez ikasiak, bizitzan esperientziarik gabekoak eta, zenbaitetan, zentzun izpirikgabeak ziren. Hori zela eta, ez zekiten afektoak bereizten, ezta berauek motibatuzko zer egin behar zen ere. Ez zekiten hizkuntza maila egokia aukeratzen, ezta diskurtso mota edo gaia ere, eta gainera ez bide zuten sermoiak

36 - Ez da ahaztu behar esparru erlijiosokoa lirudikeen ezaugarri hau Barrokoan zehar nabarmenkiro atzemango dela literatura guztian. Maravallek ohartarazten duen bezala, “el Barroco piensa, con su contemporáneo Descartes, que, con frecuencia, los juicios (eta jokamoldeak, erantsiko genuke guk) de los hombres se fundan «sur quelques passions par lesquelles la volonté s’est auparavant laissé convaincre et séduire». Y ésta es una tesis que se repite un sinnúmero de veces, dando a esa idea de admiración un carácter dinámico interno. Hay que mover al hombre, actuando calculadamente sobre los resortes extrarracionales de sus fuerzas afectivas” (Maravall 1975: 1983, 170) (azpimarrak gureak dira).

prestatzeko inolako saioren ere egiten<sup>37</sup>. Horrelakoetan, entzuleak lokartu edo aharrasika hasten omen ziren.

Hauxe ohi zen, beraz, XVI. mendean zehar zabalduegi zegoen ajea, erretorikaz arduratu ziren autore gehienek azpimarratzen zuten bezala. Gogoratzekoa da, esate baterako, Arias Montanok latinezko hexametroetan zioena<sup>38</sup>: “De ahí resulta que muchos ya no frecuentan los templos por miedo de perder el oído ante voces tan fuertes y estridentes, o los que van acuden en busca de chistes, materia de risa o con intenciones de llevar a cabo hechos poco nobles” (Martí 1972, 114-115).

Baina predikarien jakituria ezaz aparte, arazoa areagotu egiten zen sermoietarako zerabilten metodoagatik. Izan ere, erretorika klasikoaren teknika Aristotelek, Zizeronek (edota *Ad Herenium*-en egileak) eta Kintilianok definitu zutelaren onartua den arren, San Agustinek eta, batik bat, Santo Tomasek formulatuko zuten mende hauetan gailenduko zen oratoria sakratuaren teknika. Azken honen eragin teologikoarekin batera, baina, eredu erretoriko berezia ere zabaldu zen predikarien artean. Arazoa sortu zen predikazio eta idazkietarako metodo eskolastikoa<sup>39</sup>, menperatu gabe, erabiltzen hasi zirenen artean: adibide eta irudi konkretu batzuk kenduta, batik bat sermoiak lehorrak eta astunak bilakatu ziren, *Summa*-tik hartutako pasarte hutsak baitziruditen askotan: definizioak, sailkapenak, bereizketak, etab.

Trentoko Kontzilioaz geroztik, igande eta jai egun guztietan, eta bereziki Garizuma eta Adbentuan, derrigorrezkoa egin zen eguneko Ebanjelioari buruzko sermoia. Horrek, oro har, agerian utzi zuen ez bakarrik egokiro prestatutako predikarien eskasia<sup>40</sup>, baizik eta Eskrituratik orrialde bakan batzuk baino ezagutzen ez zituztenak nahikotxo zirelako predikarien artean.

Predikazioaren erreformaren arazoa, beraz, larria zen, baina erroetatik hartu beharrekoa, hots, predikarien prestakuntza bultzatzen eta ahalbidetzen. Abiapuntu horrekin, eta erretorika eklesiastiko unibertsaliki finkatzea lortu ez zen arren<sup>41</sup>, Trentoko saioak idazle mordoa bideratu zuen erretorika sakratuaren lubakietara.

37 - “Y lo peor del caso era que esta improvisación indecorosa era tenida como un toque de genialidad” (Martí 1972, 116)

38 - “Unde fit, ut multi vel non ea templa fraequentent / in quibus ingratis perdendos vocibus aures / pertimeant, multi risus causasque iocorum / unde petant, indignaque piis deflendaque facta” (Arias Montano, *Rhetoricorum* ... 12 or.)

39 - Izan ere, gaitz hedatua baitzen eskolastikak eskaintzen zuena behar bezala ez ulertzea. Melquíades Andrés-ek gogoratzen duen bezala, “Escolástica no es un sistema de doctrinas sino un método de abordarlas a través de un lenguaje sencillo, un procedimiento constante de división y una estructura de razonamiento siguiendo unas leyes fundamentales de valor de la gramática, lógica, autoridad y razón, aplicadas de modo cambiante según las culturas y los tiempos” (Andrés 1989, 23)

40 - Estatu espainiarrean ez zen hain larria izan egoera hori, Cisneros eta Talaverak burututako berrikuntzan predikarien prestakuntzak garrantzi handia izan baitzuen. Horren kariaz, elizak txiki geratzen hasi bide ziren predikarien sermoiak entzutera joaten ziren guztiak hartzeko. Adibide gisa, ezaguna da Garizuman Tomás de Villanuevak Salamancan egindako sermoi baten arrakasta eta ondoko oihartzuna. Fray Juan de Muñatones-ek kontatzen duenez, jende uholdeak bihurtu ziren katedralerako kaleak eta, gero, asko izan omen ziren erlijioso sartu zirenak (in Olmedo 1960, lv).

41 - “Se quiso solucionar el problema de la predicación, pero se descuidó el principal aspecto del mismo: la renovación y creación de una verdadera retórica que llenara las necesidades de la predicación y que, como consecuencia, se pudiera aplicar a la mejora de las técnicas de la oratoria forense” (Martí 1972, 141)

Ordurarte erretorika klasikoaren “hirutasun jainkozkoaren” ildotik abiatzen ziren predikatzerak ausartzen zirenak: Aristotele, Zizeron eta Kintiliano. Hori zela eta, sermoietako estiloa ez zen naturala gertatzen, puztuegia, behartua eta bortitiz samarra baizik. Jende arruntaren eguneroko lengoaiatik urrun geratzen zen mendeetan zehar garatutako estiloa, egokiago baten beharra sentitzen zelarik<sup>42</sup>.

Ondoko urteetako erretorika sakratuan ere Zizeronen “erakutsi, atsegin izan eta mugiarazi” printzipioetara jotzea aholkatuko da. Hori eta Eskrituren eta Guraso sainduen obren irakurketa aholkatuko da nagusiki eta sermonarioen bazterketa.

### 2.2.3.- ORATORIA SAKRATUAREN PRAGMATIKA: SERMOIA

Oratoria sakratuak garrantzi handia izan zuen kristaukuntza prozesuaren hasieratik bertatik. Honen ondorioz izan zuen bilakaerak esparru zehatz eta konkretu bat aurkitu zuen garapenerako: sermoia.

Sermoia izango da antonomasiak Elizak maizen erabiliko duen bidea eta modu berezian zainduko duena. Gogoratu behar da, batetik mass-mediaren faltak (inprenta ez da mendebaldean ezagutuko XV. mendean erdialderarte) Elizaren eskuetan uzten zituela “berriak” emateko eskusibotasuna, eta, bestetik, gizartearen jerarkizazioak, foru demokratikoetan aritzeko garatua zen oratoria eta baliabide erretorikoak elizetara mugatu zituela, bertan toki aproposa aurkitu zutelarik sermoien forman.

Baina sermoiaz mintzatzen garenean ez dugu ahaztu behar sermoia *ars predicandi* delakoaren helburu zuzenena baino ez dela. Halere, erretorika klasikoan erabat erroturik eta haren menpe bizi ziren “erretorika kristau” guztiak kokatu behar dira *ars predicandi* horren barruan. Izan ere, *predikatzearen artea* ez zen sermoietara soil-soilik mugatzen, ez baitzen *ars dicendi* hutsa; harekin batera, alde aurretik predikatzaileak idatzi behar zuen hartan laguntzeko *ars scribendi* bat ere eskaintzen zitzaion edozein erretorika-liburutan.

Edonola ere, erretorikak maila mintzatuarekin du lotura gehiago, idatzia mintzateko tresna edo bitarteko bat baino ez delarik. Hori dela eta, “erretorikak” zein “oratoriak” (sakratua izan ala ez) ahozko teknikarekin izango du ezinbesteko lotura. Izan ere, erretorika klasikoaren ohiko bost operazio edo atal kanonikoetatik azkenak (*actio* edo *pronuntiatio* delakoak, alegia) produktuaren ahozotasunaz dihardu, ahozko produkzioa baita helburua (hornidura gisa eramango dituen ahots, donu, antzerki-teknika eta keinu guztiak).

Hortaz, erretorika klasikoaz baliatuko den hizkuntza eklesiastikoa esan daiteke lehenik eta behin ahozotasunerako prestatua dagoela, sermoiarako prestatua, jendearen aurreko *docere*, *delectare* eta *movere* helburuetarako. Hortik aurrera elizgizonak idatzirik utziko dituzten obra asko eta asko (asetikoak batik bat) *ars predicandi* (*predicandi* berrazpimarratuz) delakoaren abortoa baino ez dira.

Bilakaera luzea ezagutu zuen sermoiak, denboraren poderioz modu desberdinak garatu zirelarik (Herrero García 1942). Baina estilo landu edo sermoi klasiko bezala ezagutuko zenaz gain, nagusiki beste bi ereduaren inguruan garatu zen ohiko predikazioa

42 - Estilo aldaketa, biziagoa eta naturalagoa, Tomas de Villanueva (Salamanca), Alonso de Orozco (Madril) eta Juan de Avila (Granada, Andaluzia) bezalako predikarien eskutik etorriko zen. Horiezaz gain, honako hauek ere aipa litezke ezagunen artean: Fco. de Borja (Gandia), Luis de Granada (Lisboa), Fco. Javier (India), Fco. de Osuna (Frantzia), Pedro de Ribadeneyra (Flandes), etab.

(Herrero Salgado 1971). Batetik, eredu herrikoa, herritarra legoke, hizkuntza pobre eta estilo zuzeneko, baliabide erretorikorik gabea, antzeppen teknikaz baliatzen dena (ahotsa, keinuak, etab.), Jaungoikoaren aginduen eta azkenkien tematikan murgildua; normalean sermoi hauek apaiz arrunt eta gehiegi prestatu gabekoen eskutik etorri ohi ziren.

Bestetik, eredu izpiritualista edo dei litekeena zegoen, baliabide erretorikorik gabea hau ere, baina askoz ere hunkigarriagoa, hizlariaren saindutasunaren edo haren izaera izpiritualaren ospean oinarritua eskuarki. Terrones del Caño dioen bezala,

“En nuestros tiempos hemos conocido al Padre M. Juan de Avila, al Padre Lobo y otros santos varones, que no revolvían muchos libros para cada sermón, ni decían muchos conceptos, ni esos que decían los enriquecían mucho de Escritura, ejemplos, ni otras galas; y con una razón que decían y un grito que daban abrasaban las entrañas de los oyentes” (Terrones del Caño, *Instrucción...*, 24)

Nolanahi ere den, XVII. mendera iritsitakoan, orduko literatura profanoak zuen hedapen eta eragin-ahalmen indartsuagatik batik bat, sermoi landuak hartuko du nagusigoa. Hori horrela, sermoi klasikoa

“entramado perfecto [bat bihurtu zen]: la exposición del Evangelio de cada día, fraseado, desentrañado, y concordado por El Antiguo y Nuevo Testamento, Santos Padres, Comentaristas, Teólogos y Filósofos, y aclarado con ejemplos, símiles y comparaciones, había incorporado la retórica clásica, la dialéctica escolástica y, hasta, lo posible, el pensamiento humanista” (Herrero Salgado 1993, 501-502).

Predikazio landu eta kultu honek bere bilakaera propioa izango du, literatur formula barrokoen eraginak (handiagoak edo txikiagoak) ondorio nabarmenak utziko zizkiolarik. Herrero Salgadoren hitzetan, “como consecuencia [...] se abriría ante el predicador una doble tentación: la sutileza del concepto y los realces del lenguaje” (*idem*, 503).

#### 2.2.4.- PREDIKAZIOAREN EREDU DIBERGENTZIAK

Ildo horretatik, gaztelaren esparruko oratoria sakratuak predikazio eremuan izandako oihartzun praktikoari begiratu laburbiltzaile bat emanez gero -ezin baita ahantzi urdazubiarraren ekoizpena bera ere testuinguru horren barnean dagoela-, ikuspegi orokor bezain esanguratsua irudika liteke inondik ere.

Nabarmena da oratoria sakratuaren teorizazioak egokitzapen berria ekarri duela predikazioaren eremura. Horrekin batera, agerian da sermoi klasikoak gaintzeko bideak jartzen ari direla etengabe, batez ere eskolastikoak edo zirenak eta, oro har, XVI. mendean zehar ohiko bihurtu zirenen arlokoak.

Egokitzapen prozesu horretan proposatzen ziren bide berriek bilakaera desberdinak ezagutuko zituzten eta predikazio estilo bereziak sortuko. Sinplifikatuz, bi izan ziren prozesu horretan nolabaiteko polarizazioa lortu zuten ereduak, betiere literatur tradizioan gailendu zirenekin paraleloki agertuz: batetik, kontzeptismoaren ildokoa eta, bestetik, kulteranismo bezala edo definitu izan dena.

Kontzeptismoaren ildoko ereduari dagokionez, esan behar da ohiko sermoilartzaren bidetik abiatu zela nagusiki, tradizioak kontsagratutako baliabide erretorikoez eta hitz jokuez baliatuz. Argumentazioaren garapen ezaugarri gisara, estilo antitetikoa erakutsiko du nagusiki.

Jakina, kontzeptismo huts horrekin batera baziren hartara urrundu-hurbildu egiten ziren bestelako joerak ere. Horrela, kontzeptismo hutsak kritika handiak jaso zituen

bitartean, Eskritura Sainduari kontzeptuari bezainbeste garrantzi ematen ziotenak ere ez ziren kritiketatik libratu, gehiegikeriak egitera iritsi baitziren maiz asko. Horrela, badirudi Eskrituretako aipamenak etengabe eta edozein aitzakiarekin ekarri ohi zirela predikazioetara. Horrek, zer esanik ez dago, zaildu egiten zuen entzunaldia sermoietan eta irakurketa liburuetan, are gehiago zailtzen zuen, latinezko aipamenean itzultzean behar bezalako hizkuntza garbi, zuzen eta argira isurtzen ez zenean.

Predikuetan jokabiderik hedatuena eta arrakastatsua nonbait kulteranismoarako bidean gelditzen direnena izango da, nozio logikoa eta kontzeptuaren estetika modu orekatuan elkartzen dituztenena alegia. Edonola ere, egin zitzaizen kritika handiena Eskritura Sainduak gutxiesteagatik izan zen.

Beste muturrean, garaiko kulteranismoaren ildotik zihoazen predikariek ere kritika sakona jasan behar izango zuten<sup>43</sup>, ilun bezain ulertezin bihurtzen baitzaizkio herri arruntari apaizek sermoietan darabiltzaten hizkuntza eta estiloa. *Delectare* hitzaren inguruan osatuko duten berbaldiaren baliabideek (metaforak, alegoriak, ...) sobera erakutsiko dute eredu barrokoa.

### 2.3.- TESTUINGURU SOZIO-ERLIJIOSOA

#### 2.3.1.- LAPURDI, ARRAGOA

Oro har, XVI. mendearen bigarren erdialdean eta XVII. mendearen lehen erdialdean, Iparralde bezala ezagutuko dugun esparru geografikoa aldaketa askoren lekuko suertatuko da. Goyhenetxek dioen bezala,

“El siglo XVI [...] fue para los vascos de Iparralde tal vez el más trágico de su historia. El conflicto franco-español, las Guerras de Religión y, por fin, la represión de la pseudo-brujería hundieron el país en la miseria y el terror. Entre 1512 y 1659, no pararon los ataques de una u otra de las potencias” (Goyhenetxe 1985, 234 or.)

Maila politikoan, esaterako, Gaztelak hegoaldeko Nafarroaren bereganatzearekin (1512), Nafarroa Behereari ibilbide berezia egokituko zaio, 1620an Frantziako estatuari erabat atxiki arte. Eta ibilbide berezia diogu faktore politikoak, beherago ikusiko den bezala, konnotazio erlijioso-kulturalak ere izango dituelako hain zuzen. Horretaz aparte, 1636an Donibane Lohitzuneko lurraldea hartuko du armada espainiarrak, horrek suposatzen zuen egoera ez-egonkorrekin. Era berean, frantsesen armadaren mugimendua nabaria izango da Iparraldean zehar Hondarribia setiatzeko (1636).

Ikuspuntu ekonomikoari dagokionez, bestalde, maiz errepikatua izan da urte hauetako krisiaren ondoko hazkunde eskerga, batik batik itsasoarekin lotutako geografía ekonomikoan. Adibide gisa, Iparralde guztiak XVII. mendean, 30.000ren bat biztanle bide zituen, asko eta asko Lapurdi aldean bizi zirelarik.

<sup>43</sup> - Gizakien kritikaz gain, Jainkoaren zigorra ere egokitu omen zitzaizen horrelako prediku motatan zihardutenei: minbizia ezpainetan, deabrua azaldu, purgatorioan egon beharra, etab. (cfr. Herrero Salgado 1993, 505).

Baina nekazal munduko biztanle-kopurua eta maila ekonomikoa gutxiesteko modukoa ez zen arren<sup>44</sup>, ekonomiaren motorerik handiena gezalarekin lotua aurkitzen zen. Izan ere, "sin embargo de estar muy poblado, el Labourd no era un país fértil y los labortanos preferían «el inconstante ejercicio del mar» al trabajar en el campo cultivando la tierra" (Caro Baroja 1985, 166). Ondorioz, ez da harritzekoa izango 6.000 inguru arrantzale Ternua aldera baleak harrapatzera joaten ikustea (Intxausti 1990, 84). Ezin ahaz daiteke arrantzaleen kopuru horren atzean emaztea eta seme-alabena dagoela. Denetara, beraz, asko ziren itsasotik eta modu horretan bizi zirenak.

Horrezaz gain, itsas-industriak (untzigintzatik arrainen komertzializazioari), inoiz ezagutu gabeko aberastasuna ekarri zien Lapurdiko kostalde eta inguruei, Donibane Lohizun eta Ziburu -"los dos burgos más bellos de Europa", G. Martín izeneko bidaiariak zioenez (cfr. Torrealdai eta Azurmendi 1985, 481 or.)- gune garrantzitsuenak bihurtu zirelarik.

Esan bezala, Donibane Lohizune (12 mila biztanlerekin 1578an) eta Ziburu (3 mila biztanlerekin)<sup>45</sup> Lapurdiko arrantz portu garrantzitsuenak<sup>46</sup> izateaz gain, Ternuako bidaien lekuko izan ziren. Horrezaz gain, itsasuntziola inportanteak (gera-, merkatal- eta arrantz itsasuntziak hain zuzen) eraiki ziren bertan.

Hegoaldeko jendea ere erakartzen zuen eskualde itsastiar honek, gipuzkoar-bizkaitarrak nagusiki. Ezin ahaztu, bestalde, aberastasunaren sinonimo bihurtu izan ohi diren komunitate judua ere han bilduko dela (Hispano-portugesak, naparrak eta bordel-darrak), nahiz eta 1622an herri errebolta baten ondorioz Donibanetik alde egin behar izango duten bi mila inguru juduk.

Faktore hauek guztiek Lapurdi kultura eta erlijio diferenteen bilgune bihurtu bazuten ere, komenigarria da ez ahaztea euskara arrago honetako mintzabide garrantzitsua izan zela.

Aberastasun ekonomiko eta kultural honek, besteak beste, eliza katolikoaren eta elizgizonen presentzia ugaritzeko aukera ekarri zuen, ondasunekin eta herrien aberastasunekin lotuegi baitzegoen apaiz eta bestelako elizgizonen ugalketa. Axularrek ezagutuko zuen Saran, esaterako, eta adibide bat baino ez da, asko izan ziren Lancreren

44 - Askain eta Sara herriek, esate baterako, aberastasun nabaria erakusten dute. Horren adierazgarri bide da Sarako elizaren konponketa, Axularrek bideratu eta burutu zuena alegia (Urquijo 1912a, 548-549). Badirudi lehorreko hazkunde hau, hein handi batean, Kontrarreforma katolikoak bultzaturiko eredu ekonomikoari esker gertatu zela, ezaguna baita lurrarekiko loturak itsasokoak baino askoz atxikimendu handiagoa dakarrela moral eta erlijioarekiko. Pierre Lancrek berak ongi ohararazi zuen bezala, itsasoa beti izan da inkonstantzia, immoralitate eta prebisio ezaren sinboloa (Lancre, *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et demons...*, 1612, I. lib. II. disk., 31-32 or.; apud Caro Baroja 1985, 166), erlijio katolikoak bortizki burrukatuko zituen elementuen sinboloa hain zuzen.

45 - Orduko euskal hiri nagusiek zeukaten biztanle kopuru bera gutxi gorabehera. Bilbok adibidez, 5.000 inguru zituen.

46 - Donibanen mende hasieran 721 marinel zegoen; handik urte gutxitara seikoiztu egingo zen kopurua. Horrezaz gain, itsasuntzitan denetara Baionak baino tenelaje gehiago zeukan (Torrealdai eta Azurmendi 1985, 481).

aginduz "garbituak", arrazoi erlijioso eta ez hain erlijiosoak zirela medio<sup>47</sup>.

Jakina, honek guztiak zerikusi handia izango zuen gero sortzen eta finkatzen hasiko zen euskarazko prosan, irakurri eta idazteko eskolatuak izateaz gain, helburu pastoralek bultzaturik garatu eta landu behar izango zuten elizgizon haiek euskal letren esparrua.

Aldi berean, irakurlegoa ere sortzen edo egiten ari den neurrian, idazleek, beren obrak taxutzean, gogoan hartu beharko dituzte irakurlegai horien ezaugarriak - agindu arloan *perspicuitas* eta *aptum*-enak bezain garrantzitsuak ohi dira liburuarekin lortu nahi izaten diren helburuenak-, gero obrak irakurriko badira. Topiko bihurtu da Etxeberri Ziburukoaren irakurle itsastiarrarena edota Axularren nekazal konfigurazioko tiporena.

### 2.3.2.- KONTRARREFORMA GIROAN

Panorama honetan, iparraldea sakonki astindu zuen Erreformaren krisi erlijioso behin gainditu ondoren, Katolizismoa indarturik atera zen Euskal Herrian. Baina, aldi berean, kontrarreformarekin intolerantzia moduko bat -gauzak leunago esateagatik, alegia- nagusitu zen mundu katolikoan. Jakina denez, lehenengo agerpenak Inkisizioaren abiatzearekin hasiko dira 1542an; 1543an inprenta-zentsura ezarriko da eta handik bi urtetara Trentoko kontzilioa hasiko.

Bi modutan gauzatu nahi izango da Kontrarreformaren politika: batetik, lurralde protestanteak armekin konkistatu nahian, eta, bigarrenik, jendea konbertitzeko presio mota guztiak egiten (misioak, ikastetxe berriak sortu<sup>48</sup>, etab.). Aldi berean, arlo erlijioso hutsean, fedearen bidezko justifikazioaren aurka, obra onen balioa exageratu zen eta meritoaren kontzeptua asmatu. Ondorioen artean, nabarmenenak baino ez aipatzeko, Eliza katolikoak ez zuen onartu ez Biblia ezta meza ere hizkuntza bulgarrean ematea, konfesionarioa asmatu zen eta Ama Birjina eta Sainduak goratu zituen.

Ezin da ahaztu Euskal Herriak gutxienez bi osagai "iraultzaile" erakusten zituela (askotan beste zerbaiten aurpegia besterik ez zirenak) *status quo* delako horrentzat: kalbinismoa eta erlijio animistantzekoa eta paganoa adierazten zuen sorginen inguruko dinamika.

Eliza katolikoaren jokabidea erabat gogorra eta intrantsijentea agertuko da: sorginen aurkako borroka, apaiz humanisten pertsekuzioa hasten da, aipatu aszetika berria ezartzen hasiko da, eta orden erlijioso berriak sortzen (jesuitena garrantzitsua). Intransijentzia hori batez ere ohituretan, arlo moralean, jokabideenean eta, nola ez, literarioan ere azalduko dira.

Trentoko Kontzilioak eragin ezin handiagoa izan zuen Euskal Herrian eta zenbait ondorio gaur arte iritsi zaizkigu. Orduan sortuko da, esaterako, euskaldunen

47 - Ezaguna da Lancreren optika berezia sorginak eta nonahi ikusteko. Hona hemen Lapurdiko apaizei dagokien erreferentzia bat: "Entre las «benedictas» o sacristanas nosotros encontramos dos brujas, cuando fueron llevadas ante nosotros al hacer justicia. Lo cual no hay que encontrar raro, dado que la mayor parte de los sacerdotes son brujos y hemos hallado iglesias o capillas en las que el Diabolo celebra su sabbat" (Lancre, *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et demons...*, 1612, I. lib., III. disk., 60 or.; apud Caro Baroja 1985, 172) (azpimarrak gureak dira).

48 - "Los jesuitas se establecieron en las regiones francesas de mayor influencia protestante" (Delumeau 1967, 106). Gogora bedi, adibidez, non ikasiko duen gero Etxeberri Sarakoak.

berezko fedearen mitoaren esaera ospetsua. Eliza katolikoaren aurrean euskara pixkanaka ohitura, bertute eta fedearen gordeleku bezala agertuko da, kanpoko ideien aurkako harresi bezala.

Esan daiteke XVII. menderen bigarren hamarkadarako arras bukatuta egongo direla Euskal Herrian leinuen arteko borrokak, eta matxinadek-eta ez dutela euskal gizartearen irudi berria aldatuko, atzean gelditzen ari baita poliki-poliki gauzak "bideratzeko" eratu zen errepresio-garaia, sorginen aurkakoa nagusiki<sup>49</sup>.

Errealitate konkretuaren gorabehera eta gatazkak direla eta, asko dira ditugun lekukoak. Axularren bizitzaren lehenengo urteak ongi zipriztindurik egon bide ziren luterarren eta eliza katolikotik at zeuden bestelako eraginagatik. Beste adibiderik ez bagenu ere, aski zatekeen 1568ko otsailean Guzmán de Silva enbajadoreak Felipe II.ari idatzi zion gutuna. Bertan garbi adierazten zion "que los «luteranos» estaban predicando su doctrina en muchas partes, especialmente en Navarra y en los confines de Francia" (Reguera 1984, 165).

Giroa bortitza zen oso, Nafarroa Beherean eta Zuberoan batik bat, burruka erlijioso gerra zibila bihurtua baitzen inguru haietan<sup>50</sup>. Gogora bedi, horren lekuko gisa, Axularren "Nafarroa behereko parte hetan" hura, non "lege Katolika saildua iduriz flakartzera, kordokatzen eta erortzen" baitzihoan eta non Etxauzen aita "ezpata biluzia eskuan harturik" aritu baitzen (*Gero*, 6-7 or.).

Edonola ere, badirudi ez zela bakarrik "luteritasuna" izan iparraldeko inguru haietatik zabaldu zen izurritea, gehiegi zehaztu gabeko "paganismoak" ere praktikatzeko baitziren, antza denez.

Urrutira aldendu gabe, Axularren garaikide eta laguna izan zen idazle baten lekukotasunaz balia gintezke, garai hartako panorama pagano-erlijiosoaren ikuspegi zehatzagoa izateko. Materren ondoko pasarteetan aski garbi azaltzen dira Euskal Herrian eta inguruetan arrisku erlijioso konkretu gisa bizi zirenak bere dotrinan honako galdera eta ihardespena aurkezten dituenak:

"Galde. Norc eguiten du huts lehenbiziko manamendu hunen kontra?

*Ihar*. Paganoek, Heretikoek, Superstiziosek, eta guztiz ere Sorginek" (Materre, *Dotrina...*, 105 or.; azpimarrak gureak dira)

Heretikoen artean txertatu beharko dira Luteroren eta haren ondoko irakaspeni jarraitu zietenak, ezaugarriak ongi egokitzen baitzaizkie:

49- "Acaso no sea tampoco casual que la represión de la brujería, tanto en Navarra como en Labort, alcance su culminación en 1609 y 1610. No es fácil decir, sin embargo, hasta qué punto representaban las prácticas perseguidas bajo este nombre intentos de conservación de un antiguo estado de cosas" (Mítxelena 1960, 59).

50 - 1568an, Otxagin Inkisizioak zuen komisarioak, Palacio izenekoak, Kalahorrako inkisidoreei idatzi zien Irisarri, Armendaritze eta Iholdiko elizetan higanotak sartu zirela esanez eta honelakoak egin zituztela adieraziz: "acuchillaron las imágenes, principalmente una de Nuestra Señora, quitándole la cabeza y brazos y echando al fuego, y el Santo Sacramento al lodo y al fuego, y llevando las custodias y sirviéndose de la iglesia por caballeriza y de las ropas de los altares por mantas" (apud Reguera 1984, 166). Hurrengo urtean berdintsu aritu bide ziren Maulen, non eliza eta etxe asko erre zituzten eta "a los frailes y clérigos los abrían por la mitad de la barriga, y dándoles fuego los han acabado de matar" (*idem*).

"Galde. Hereticoec nola eguiten dute huts?"

*Ihar*. Fede bat, legue bat, Eliça bat, eta Eliçaren buruçagui bat baicen eztelaric (cein baita Erromaco Aita saildua) hec hura ukhaturic, fedea eta leguea bere antçu, bere borondatera eta libertatera behar ezten beçala declaratcen baitituzte" (Materre, *Dotrina...*, 105-107 or.)

Banan-banan tratatuko ditu heretikoez gainontzeko "desbideratze" bakoitzaren ezaugarriak ere, deskribapen zehatzak eginez. Paganoen irudiak, esate baterako, zerikusi handia dauka *Biblia*-n agertutako idoloekin edota Strabonek inguru hauetako teismo-motaz idatzitakoekin<sup>51</sup>:

"Iguzquia, Ilharguia, urrez edo cilharrez eguinicaco figurac Iaincoçat hartcen eta adoratcen baitituzte, idurituric ecen hec direla eguiazco Iaincoac" (Materre, *Dotrina...*, 105-107 or.).

Superstizioek, haien aldetik, horrelakoetan egiten zuten huts:

"Iaincoac eta haren Eliçac ordenaturic eta errecibituri daduçan cirimoniez, oracinoez, eta erremedioez ez contentez eta ez fidaz, bertce cirimonia, oracino, eta erremedio molde batçuetara laster eguiteaz, eta hequen usatceaz" (Materre, *Dotrina...*, 105-107 or.).

Baina ordurako berez itogarri ziren giro eta egoera haiek are biziezinago bihurtuko ziren Lapurdi-Zuberoa bitarteko lurraldean, lehendik zegoen disidentzia protestanteaz gain, sinismenen ikuspuntutik arriskutsuagoak bide ziren sorginak ere azaltzen. Materren hitzekin jarraitzeko -beste disidentziez baino luzeago eta zehatzago mintzo da fraide saratartua honako honetan:

"Sorginak dira jende tailu batzuk zeinek (diotenez) arnegatzen baitute bere egiazko Jainkoaz, fedez, legeaz, errezibitu duten Bataioaz, Aita-amaz eta Elizako gauza guztiez: eta gero hartzen dute bere jaun eta nabusi deabrua, adoratzeko dute, zerbitzatzeko dute, eta haren borondatearen arauaz (bera laguntzen zaiela) egiten dute ahal dagiten gaizki guztia, guztiz ere haurretan eta lurreko fruituetan. Eta halatan hec dira munduan diren jenderik gaixtoenak, Jainkoz eta mundua erratzea merezi dutenak" (Materre, *Dotrina...*, 105-107 or.)<sup>52</sup>.

Izan ere, ez zen kasualitatea Euskal Herrian "sorginkeriarri" garrantzi handi hori eman izana. Hemen ere, Europako mendebalde guztian bezalatsu,

"El momento comprendido entre finales del siglo XVI y comienzos del XVII, se convirtió en el momento más álgido de la «caza de brujas», con un número de juicios y ejecuciones superior a cualquier época anterior" (Burke 1991, 381)

Euskal Herrian "ehiza" mota honek bere unerik bortitzena eta garaiena izango zuen Axular jaio eta, Salamancako geroztik, biziko zen esparruan, Lapurdiko Sara-Zugarramurdi eskualdean hain zuzen. Mundu horren garaikide, bizikide eta lekuko izan

51 - "...keltiberarrak eta beroiekin iparraldetik mugatzen duten beste herriak, haiek guztiak bai bait dute halako dibinitate izendagabe bat, zeinari, ilargi beteko gauetan, familiek kultu egiten bait diote dantzatzuz, egunsentiraino, beren etxe atarrietan" (Larrañaga 1988, 314-315).

52 - Axularren planteamendua hobeto eago ulertzeko azpimarragarria iruditzen zaigu Materrek sorgintzat jotzen dituztenekin testu honetan hartzen duen "distantzia", eliza ofizialaren planteamendu basatiarekiko distantzia bezainbesteko distantzia Pilatosianoa esango genuke. Sorgin teoriko batzuek ari dela azpimarratzen du, gure ustez, parentesi arteko "diotenez" horrekin, eta ez derrigorrez saratar eta inguruko askoren etxeetan eta familietan penitentziaturik suertatu ziren haiez guztiez. Erreak izatea merezi zutenak, beraz, sorgin tipo haiek ziren, ez hurbilekoak.

zela dirudi<sup>53</sup>. Horrezaz gain, ezin ahaz daiteke Inkisizioaren errepresioaren bukaerak berak kronologikoki Axularren heriotzarekin kointziditzen duela<sup>54</sup>.

Nolanahi ere den, eta arrazoiak arrazoi, arazoa areagoturik agertuko da Lapurdin Axular Sarako errektorea izanik, Henri IV. erregeak komisionaturiko Pierre Rosteguy "sieur de Lancre" ospetsua agertzen denean:

"Le procès de sorcellerie du Labourd revêtirent une tout autre ampleur. Sur une plainte, le conseil royal ordonna en 1609 à deux commissaires d'enquêter sur la recrudescence de la sorcellerie dans cette région, et les dota des pleines pouvoirs pour y mettre un terme. L'un des deux hommes, Pierre de Lancre, manifesta dans cette tâche un zèle qui n'eut d'égal que sa renversante crédulité. En quatre mois, se transportant dans vingt-sept paroisses, il reconnut la "marque" sur trois mille personnes, fit exécuter plusieurs centaines d'entre elles, et déclencha une formidable panique en forme d'exode vers Terre-Neuve et vers l'Espagne. Il se préoccupa d'abord de déterminer les causes, de l'anormale densité des sorcières en Labourd et en retint deux: la pénétration d'esprits malins chassés des Indes et du Japon par les missionnaires; les mauvais penchants des Basques. Ne fument-ils pas trois ou quatre fois par jour?" (Soulet 1974, 277).

Egia esan, Lancrek "penitentziaturiko" 600dik gorako multzo horretako askok Axularren ezagunak izan behar zuten, haietako hainbat adiskide-ahaide mailakoak ez baziren bederen<sup>55</sup>. Bestalde, eta gorago adierazi bezala, auziotan ibilitakoen artean ez zen elizgizonik falta. Sutara botatakoen artean, esaterako, badirudi gutxienez hiru apaizak izan zirela<sup>56</sup> eta beste bost azken orduan edo heriotzetik "salbatuak" (cf. Caro Baroja 1985, 213-214).

53 - Argigarria izan daiteke A. de Legardak bere *Lo "vizcaíno" en la literatura castellana* (San Sebastián, B.A.P., 1953) liburuan planteatzen duena: "hubiera sido muy eficaz la presencia de un sacerdote en Zugarramurdi, puesto que esta población carecía de parroquia. Esta no se creó hasta el año 1580, por culpa del monasterio de Urdax. El abandono espiritual sería la causa que favoreció el paganismo" (Reguera 1984, 192, oh.).

54 - "En Francia, los jueces del Parlamento de París dejaron de tomarse en serio todas las acusaciones de brujería desde 1640, seguidos algo más tarde por los magistrados de los parlamentos provinciales" (Burke 1991, 382). Europako mendebaldean ere XVII. mendearen erdialdean hasi zen sorginkeriaen aurkako prozesuez mesfidantza eta horrelako epaiketen beherakada. Kontrarreformaren itsukeria arrazoi-ari eta zentzunari bidea uzten hasiko da.

55 - Izan ere, 1610ean Zugarramurdikoen aurkako prozesu bezala ezagutzen den Logroñoko hartan ez da saratarrik edota Agerre eta Azpilkuetak falta prozesatuen artean. Ildo horretatik, eta hipotesi-arin, baina hipotesi- gisa bada ere, urdazubiarraren "Axular" izenaren konfirmazioa izan zitekeen garrantzi handiko prozesatu eta penitentziatutako batek sarataruaren izen-deitura berdina eramatea. Ezaguna denez, Lapurdi osoko Justizia izeneko hirurogeita hamahiru urteko gizon hau "el Maestro de ceremonias y gobernador del sabbat" bezala agertu zen. Lekukoaren arabera, "el Diablo le ponía en mano un bastón completamente dorado, con el cual, como maestre de campo, ponía en rango a las personas y organizaba todas las cosas del sabbat: y que terminado esto devolvía el bastón al Gran Maestre de la asamblea" (Lancreren *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et demons...*, 1612, II. lib., IV disk., 125 or.; apud Caro Baroja 1985, 189-190).

56 - Horietatik bi Ziburuko apaizak izan ziren: Migalena (hirurogeitaka urtekoa) eta Pierre Bocal gaztea (27 urtekoa); hirugarrena Askaingo Argibel izeneko apaiz zaharra izan zen.

Gaurko irakurlearentzat harrigarriena, halaz ere, Axularrek derrigorrez<sup>57</sup> ezagutu behar izan zuen egoera horren islada esplizitorik inondik ere ez azaltzea da. Areago, haren obran zeharkako isladarik balego ere, esaten ez den hartatik ondorioztatu beharko litzateke nagusiki<sup>58</sup>.

Edonola ere, garai hartako kontraesan eta gatazka erlijiosoak eta produkzio literarioa ulertuko badira, ezin ahaz daitezke erreformak eta kontrarreformak, zein bere aldetik, planteatzen dituzten bizi-era desberdinak eta ondorio sozialak. Argigarria da, zentzu horretan, Burkeren planteamendua:

"Durante este período nos encontramos con dos éticas opuestas, con dos formas de vida en conflicto. La de los reformadores estaba inspirada por la decencia, la diligencia, la gravedad, la modestia, la disciplina, la prudencia, la razón, el autocontrol, la sobriedad y la frugalidad o, para usar una frase hecha famosa por Max Weber, por «un ascetismo mundano» (*innerweltliche Askese*). De alguna forma Weber cometió un error al llamarla «ética protestante» [...] Desde luego, es ciertamente tentador denominarla la «ética de la pequeña burguesía», porque de hecho llegaría a ser una de las características de los tenderos. Lo que sí parece claro, es que la ética de los reformadores se oponía a una ética tradicional más difícil de definir debido a que estaba menos articulada, pero que sin duda insistía en otro tipo de valores, especialmente en la generosidad y la espontaneidad, y ofrecía una mayor tolerancia hacia el desorden" (Burke 1991, 303).

57 - Handiegia, larriegia eta geografikoki ere Saratik hurbilegia gertatu zen fenomeno sakonki ez ezagutzeko. Adibide argigarria dugu Askaingo apaiz zaharraren kasuan. Itxura guztiengatik erotuta zegoen -erotzat baitzuten ahaideek ere- Argibel izeneko apaiz askaindar hark "confesó haber ido al sabbat y cometido toda clase de abominaciones, de las conocidas. Firmó tres declaraciones e insistió ante el vicario del obispo de Bayonne. Comulgó luego, arrepentido, fue degradado por el obispo de Acqs, en la iglesia de Saint Esprit, por ausencia del obispo de Bayonne y condenado a muerte" (Caro Baroja 1985, 212). Herrian bertan hil zuten. Caro Barojak berak eranstean duen bezala, Argibel apaizaren kasuan "el hecho tuvo repercusión. Muchos sacerdotes del país se marcharon, bajo diversos pretextos" (*idem*, 213). Esan gabe doa: "kanpoan" zegoen gotzaia Bertrand Etxauzkoa zen. Halaber, Axularrek ordurako hamarkada bat zeraman Sarako erretore gisa.

58 - Axularrek bekatuen zigorrez idazten dituenetan errealitatearen zeharkako erreferentziarik ikustea ez dirudi lan hipotesi bat baino gehiago izan daitekeenik, ez bederen *Gero* liburuan maizen aipatutako *Siraken Jakinduria* 5 hartatik transkribatzen ez dena baino garrantzi gehiagokoa: "7. Alabaina urrikalmendua eta hasarrea laster hurbiltzen dira haren ganik, eta bekhatooren gainera begira dago haren hasarrea. 8. Ez berant Jaunaren gana bihurtzera, eta ez luza egunetik egunera; 9. Ezen terrepentean jautsiko zaitzu haren hasarrea, eta galduko zaitu asperkundeko egunean" (Duvoisin-en itzulpena; azpimarrak gureak dira).

## 2.4.- IKUSPEGI SOZIO-LITERARIOA

Dagoeneko topiko bat da -sakonki esplikatugabeko topikoa, baina- XVII. mendean euskal letren munduak ez aurretik ezagutu ezta oso berandura arte berriro ezagutuko ez duen loraldia izango duela baieztatzen duena, betiere literatura erlijiosoaren alorrean.

Loraldi-eremua, ezaguna denez, iparraldera mugatuko da, "Donibane eta Ziburuko kostaldean, bai ere halaber *hinterland* modura zuen Sara-aldeko lur barrenetan" (Mitxelena, *EIG* 4, 85 or.) hain zuzen, bistan denez Lapurdi inguruko euskalkiak ohore gehienak eramango dituelarik. Horren erakusgarri, mende honetan liburutzat har daitezkeen berrogei obra eskasetatik zortziena nafarrera-lapurteraz idatzita egotea dugu<sup>59</sup>.

Maiz asko adierazia izan da, dena den, fenomeno honek historialarientzat duen jite harrigarria, ez baita ongiegi esplikatu oraindik hain jende gutxi<sup>60</sup> euskalki batean kuantitatibo eta kualitatiboki hain produkzio eskerga izatearena.

Baina arrazoiak ongi azterturik ez badaude ere, badirudi faktore desberdin guztien konfluentziak ahalbidetu zuela kultur lehertze moduko hau, Lapurdik garai hartan zuen maila ekonomikoa bera gutxiestekoena ez delarik.

Azpmarratua izan da, bestalde, Lapurdiko herri bakoitzak tradizio berezi bat sortu zuela letren alor desberdinetan: Donibane Lohizunek biblia-itzultzaileak (Urte anglikanoa eta Haraneder), Ziburuk XVII. mendeko poeta erlijioso handienak (Etxeberri eta Gazteluzar eta Argaignaratz -bertako koadjutorra-). Zalantzarik gabe, elementu adierazgarria izan daiteke hau korrante edota eskola modukoak filatzen hastean.

Hegoaldean, berriz, ez dago inolako erreakziorik idatzizko produkzioari dagokionez. Mitxelenak dioenez:

"Resulta sorprendente que, mientras en el País Vaso francés personas bien dotadas de talento y de saber desarrollan en el siglo XVII un movimiento literario importante aunque reducido casi al campo religioso, no se encuentran a este lado de los Pirineos más que traductores de catecismos que, a pesar de recurrir a cada paso al préstamo y al calco literal, parecen haber tropezado con muchas dificultades en su tarea" (Mitxelena 1960, 63).

Baina egoera sozio-literarioaren ezaugarrien artean, ohikoekin batera, hau da, garaiak oro har eskaintzen dituenekin batera, badira zenbait elementu -maiztxo, aldi berean, baldintza eta faktore gisa agertzen direnak- XVII. mendetik hona geratu zaigun produkzio idatzia esplikatzeko funtsezko direnak. Inolaz ere, agian azpmarratzeko garrantzitsuenak, gure lan honen izaerari dagokionez, egoera komunikatiboa osatzen duten idazle eta irakurleez gain, literaturaren aiurri erabat erlijiosoarekin eta ahozkoatasunaren eta mundu idatziaren arteko erlazioekin lotuta daudenak lirateke, ahaztu gabe, jakina, gizarteak orokorrean eta idazleek konkretuan hizkuntzarekin duten erlazioa.

59 - Datu gehiagorako ikus Sarasola 1975, 106 or.

60 - Bizkaierak 105 mila hiztun; Goñafarrerak 90 mila; Baxenafarrerak 60 mila; Gipuzkerak 50 mila; Lapurterak 30 mila; Zubererak 20 mila (Sarasola 1976, 44)

## 2.4.1.- AHOZKOTASUNAREN MUNDUA

## 2.4.1.1.- Ahozkoatasunean murgildutako garaia

Ez da sakonki aztertua izan gure esparruotan literaturaren ahozkoatasuna, ahozko izaera alegia. Nolanahi ere, badirudi ezberri gabekoa dela inguru hauetako -baina nagusiki gaztelaraz egindako- literaturaren izaera oral hori (Campbell 1993, 212). Are gehiago, literaturaren ezaugarri hori gizarteak ia era eksklusiboan bizi zuen kultur erreferentearen oihartzuna baino ez litzateke. Eta, edozein modutan ere, eredu idatzien eza gutza eta "demokratizazioa" berandu iritsiko den zerbait izango da, batik bat hizkuntz esparru hauotara.

Oro har, ahozkoatasunak -gehiago edo gutxiago- bere tokia zuen XVI-XVII.eko gizartean eta "praktikatu" egiten zen, ahozkoaren esparru hartatik sortzen eta isurtzen baitziren erreferente nagusiak. Horrela, inguruko "mundu"-etan bezala, Axularrean ere zinez pentsa daiteke funtsezko kultura ahoz eta ahozkoatasunaren parametroen barnean burutu zela eta bestelako transmisio kulturala ere ahozkoatasunaren bidez garatu zela nagusiki, burua eta aho-mihia bitarteko.

Ezagutzen diren lekuko historiografikoek ere ahozkoatasunaren nagusitasun hori baino ez dute berresten. Areago, ez genuke inolako okerrik egingo euskal esparruan Etxeparearen eskutik agertuko den lehen literatur obra originala bera ahozkoatasunaren eredupean sortutako altxorra dela baieztatzean.

Ildo horretatik, euskarria idatzizko testuetan zuten ondoko lanek ere -originaltzat har daitezkeen haiez ari gara, eta ez beste hizkuntzetatik zuzenean eta estuki itzulitakoez- hori bera erakutsiko dute, besteak beste ahozkoatasunaren esparruetan sortuak zirelako eta ahozko "tresneriaren" bitartez barreiatuak izateko jaiok ere bazirelako (oro gain irakurketa kolektiboen bidez; ikus 10.1.3.2 atala). Juan Mari Lekuonak dioen moduan,

"Urtealdi hauetan ahozko literaturak zuen garrantzi estadistikoa azpmarratu ondoren, adierazi behar da, baita ere, argitaratutako liburuak, helburu pastoralak zuten gero, askotan jendaurrean aldarrikatzen zirela eliz batzarretan, liburu sakratu nahiz katekesiakoak ziren arabera. Eta liburuok batzarretan irakurtzeko zuzendurik zeudenez gero, egileek idazteko orduan helburu pedagogikoak hartzen zituzten kontuan" (Lekuona 1985, 61 or.).

Campbellek berak oroitarazten duen legez, lurralde aurkitu berrietan ere ahozkoatasunaren bitartekaritza erabiliko zen kultur-bide nagusi gisa, berori baitzen bertan nagusi eta, aldi berean, giza-inguru alfabetatugabeetaraino iristeko bide bakarra (eta honekin ez dira inolaz ere ahozkoatasuna eta analfabetismoa ezinbestean loturik doazen fenomenotzat hartu nahi):

"De tal manera que las formas de difusión de la cultura española que había sido el resultado de múltiples adquisiciones a través de la tradición oral en el seno familiar y parroquial y en la que había un lector en cada grupo ante el que se sentaban a escuchar pasajes de las novelas de caballerías, cuentecillos, fábulas y hasta entremeses, sin dejar de considerar los elementos nativos de influencia, vinieron a prolongarse en el seno de las nuevas sociedades americanas" (Campbell 1993, 212).



#### 2.4.1.2.- Ahozkoa eta idatzia

Gizartean konfiguratu daizen bi kultur erreferentzia nagusietako ikuspegiak agertuko dira euskal lurralde hauetan ere, beraien arteko lotura-elementu nabarmenak "ohiko" bilakatutakoak izango direlarik: erlijioa eta hizkuntza bereziki.

Hortaz, ahozkotasan murgildutako sektore zabalaz gain, bada "gizarte-geruza" bat -normalean, ohiko terminologia erabiliz, agintari-klasearekin bat dagiena-harako hartatik alde egiten diharduena eta "idatziaren" esparrutik isurtzen diren kontrol mekanismoak (legeak eta dogmak) ezartzen saiatuko dena.

Grafikoki adierazteko, esan liteke bi mundu hauek badutela zerikusirik eguneroko bizimoduarekin. Lurrarekin eta itsasoarekin lotutako lanbideek (arrantzaleek, untzigileek, ...), esate baterako, zeharka baino ez dute ezagutuko "testu idatziaren mundua, arrazoiak maila ezberdinetakoak izan daitezkeelarik: kultura idatziak eskatzen duen praktikarako denbora eskasa, alfabetizazio maila apala, euskarazko testuen falta, gabezia horren aurrean idatzizko testuetara (batik bat testu erlijiosoetara) iristeko elizgizonen "mediatizazioa", etab. Eta, edonola ere, "mundu idatzia" ezagutzeko izan dezate-nean ere ahozko "tresneriaren" bitartez izango da eskuarki, ez bada, jakina, aipatu "mediatizazioaren" bidez.

Adibide grafikoaren beste muturrean elizgizonak genituzke. Haien lanbidea bera izango da hein handi batean "mundu idatzian" bete-betean ihardutera bultzatuko dituen (sermoiak alde aurretik idatziz prestatzeko, besteak beste). Idatziaren esparruko egiteko horretan, ukitu ezinezkoa den Jainkoaren hitza gordetzen duen liburua altxatuko da haien lehen iturri gisa. Erraz ondoriozta daitekeen bezala, haien kultura maila, alfabetismoa eta idatziarekiko bestelako loturak finean, kontrarreformarekin larriki zauriturik gelditu zen herri-tradizioaren (ohiturak, ahozko produkzioa, etab.) ordezkatza egiten hasteko elementu bihurtu ziren.

Ildo horretan, 1545tik aurrera, eta batik bat hurrengo ehun urteetan, garai hartan "zilegizkoa" zen munduaren eta kulturaren zaindaria eta bermatzaile bakarrak bilakatu ziren idatzizko kulturaren protagonismo ia eskusiboa zuten apaizak eta elizgizonak.

Oker egiteko bildurrik gabe esan daiteke Lapurdikoa bezalako gizarte itxi batean Eliza katolikoa izango dela urte haietako bizimoduaren kontrolatzaile hertsia, eta horrekin batera, kultur elementu berrien sortzaile bakarra, alegia anatemizatutako beste batzuen ordez jarriko diren elementu berrien sortzailea.

Lerro nagusietan Europakoa bezalakoa baino ez litzateke dagozkigun lurraldeetan suertatutakoa, nahiz eta gurearen ezaugarriengatik agian areagotua gertatu zen hemengoan. Alabaina, Burkek honela irudikatu zuen egoera orokorra:

"Entre 1550 y 1650, muchas costumbres tradicionales fueron abolidas. Mediados del siglo XVII, pudo ser tomada como la fecha en la que concluye la primera fase de la reforma de la cultura popular; una reforma que nació gracias al impulso de las reformas católica y protestante y que fue -principalmente- liderada por el clero, lo que en definitiva justificaría la importancia de los argumentos teológicos. Esta primera fase fue seguida por otra en la que los laicos tomaron la iniciativa" (Burke 1991, 315).

Gatazka horretan -eta gure artean, berriro diogu, nabarmenago-, idatzia eta ahozkoa kontrajarririk agertuko dira lehenengo unean, nahiz eta berehala antzemango den ahozkotasan ordezkatzeko xedearekin sortutako idatziak ezin lotura estuagoak dituela ordezkatu nahi duen horrekin. Haren kontra burrukatzeko jaioa bazirudien ere, idatziak etengabe erakutsiko du harekiko morrontza, biak ezinhautsizko zilborrestea lotuko baili-

tuen. Euskal prosaren jaiotza momentu honetan gauzatuko da eta horren guztiaren erakusgarri izango da.

#### 2.4.1.3.- Ahozkotasan landuaren presentzia

Paradoxikoa dirudien arren, erreforma protestantearen ondorioz, ahozkotasan esparruak hedapen berezia ezagutuko du interes erlijiosoak medio. Lovettek dioen bezala, "los protestantes acentúan el púlpito y el sermón" (Lovett 1989, 292). Ondorioz, ohiko ahozkotasan fenomenoak ez dirudien haren presentzia eguneroko bizitaraino areagotuko da.

Modu berdintsuan jokatu du kontrarreformak ere bere zabalkunde ideologiko-erlijiosoa planteatzen duenean. Izan ere, erretorika eta ahozko predikazioak gizarte eta garai hartan zuten balio pragmatikoaz oharturik zeudelako areagotu zen tresna horien erabilera. Arrazoi nagusia begi bistakoa da: jakituria eta maila guztietako bizi-komunikazioa ahoz aho transmititzen zuen gizatalde hartan ahozko baliabideak ziren eraginkorrenak eta praktikoenak ezinbestean, bestelakoak, hots, idatzizkoak, inprimatuak edota papera euskarri bezala erabiltzen zutenak minoritarioak, urriak eta soil-soilik alfabetatuen-gana iristeko modukoak zirelako.

Ez erreformistek eta ez katolikoek, beraz, ez dute gutxietsiko baliabide horien praktikotasuna, lekuko eta adibide frankok adierazten duten bezala. Horietariko bat Villasantek sorginkeriaren esparrura begiraturik jasotzen du,

"Sorginkeriaren gaitza erremediatzeko, gogorkeriaren ordez beste jokabide bat hartu behar zela iruditu zitzaion erreginari: hots, predikari onak euskaldunei bialtzea [...] barkazioa eskaintzen eta damurako bidea ematen" (Villasante 1972, 74; azpimarrak gureak dira).

Dena den, ez da ahaztu behar "idatzia"-ren eremuak ere ahozkotasan esparrua betetzera zuzenduak izango zirela hein handi batean, bereziki irakurketa publikoak edota ozenak bideratzeko eginkizuna hartzen zutenean.

Idatziaren balioa ez da inolaz ere gutxietsiko, alderantziz baizik: errekurtsu guztiak baliatuko dituzte erreforma protestanteak zein katolikoak, bi-biek, eta salbuespenik gabe. Ondorioz, bi funtzio betetzeko helburua nabarmenduko da idatzitakoaren esparru erlijioso horietan: batetik, irakurtzen zekitenak gogoan hartuak izango ziren, besteak beste, haien irakurketak beste irakurketa ez hain piadosoetara desbidera ez zitezen; eta, bestetik, predikaziorik eta sermoirik ez zegoenetan (lanegun zurietan nahiz esparru geografiko urrunetan, alegia) analfabetoei geratzen zitzaizkien hutsuneak irakurketa ozenaren bidez beterik gera zitezen. Honako hauetan, begi bistakoa da, oralitate garbi hutsak betetzen zuena idatzizkoan oinarritutako oralitate bihurtzen zen.

Oro har, beraz, ahozkotasan landuaren fenomenoaren aurrean geundeke, hots, bereziki teknika erretorikoaren bidez landuko zen fenomeno oralaren areagotze baten aurrean. Bigarren mailako oralitate baten aurrean, hain zuzen.

Jakina, ahozkotasanarekin zorrak dituen literatura idatziak arlo bien ezaugarriak jaso zitzaizkeen eta, izatez, jaso ere egiten zituen, maiz asko gertatu bezala eta Axularren kasuan bertan gertatzen uste den legez.

J.M. Lekuonak XVI. eta XVII. mendeetako prosari buruz esaten zuen bezala, ahozkotasan, modu batez edo bestez, elementu omnipresentea izango da garai honetan idatzitako produkzio gehiengan: "esan nahi da, ahozko literaturaren ardatzek eragin

berezia izan zutela, bai textuak idazterakoan, bai hauek ulertzerakoan” (Lekuona 1985, 61 or.; azpimarrak gureak dira).

Historikoki gure literatura “idatziak” -barka bekigu erredundantzia- baluke horren lekukotasun nabarmenik. Soberan legoke, dena den, Etxepare eta Etxeberri Ziburukoaren hitzak eta obrak aipatzen hastea, ezagunegiak bailirateke adibideok edonoren-tzat.

## 2.4.2.- LITERATUR TRADIZIORIK GABEKO ALORRA

Hemen aztergai dugun liburuaren aurretik euskarak idatziaren arloan ibilaldi motza eta urria eginga zuela esatea topikoen eremuan erortzea izan daitekeela jakin bada-kigun arren, komenigarri deritzogu fenomeno nabarmenezari, batik bat horrela areagotu egiten delako eta, aldi berean, egiazko parametroen barnean kokatzen lehen idazle euskal-dunen lana eta balioa.

Tradizio motza eginga zuen euskal literaturak, jakina, 1545ean hasi baitzen Etxeparearen obrarekin. Jaio berria, beraz: ehun urte baino gutxiagoko ibilaldiko letrak aurkituko zituen urdazubiarrak bereari ekin zionean. Horrezaz gainera, urria: eredutzat inolaz ere ezin har zitekeen Leizarraga erreformistaren itzulpenetik landa<sup>61</sup>, gutxi batzuk baino izan ez zirelako Axularren aurretikoak.

Eta sortzeaz dagoen prosa arloan hori guztia gutxi izan balitz bezala, begien aurrean egokitutako euskarazko ereduak ere hala-moduzkoak iruditu bide zitzaizkion gero-koetan estilo-eredutzat agertuko zen sarartuari (eta ez da gutxienekoa Materreren itzul-penean erabilitako ortografiari egindako oharrena; ikus *Gero*, 17-18 or.).

Honek guztiak badu, nola ez, azpimarratu beharreko ondorio moduko konstatazio gehiagoren beharrik. Euskararen presentzia ezak, esaterako, idatzizko egoera komunikatiboaren gabezia ohartaraziko gaitu halaberrez, hain zuzen ere obren eskasia, egin gabeko idazle-irakurleiaz mintzatuko baitzaigu hasiera-hasieratik.

Euskal letra idatzietara ohitzen hasi berria den gizarte hartan, beraz, denak ziren berri: idazleak, irakurleak eta idatzizko kodea. Ondorioak, jakina, berritasun horren mailakoak: erreferentzia munduak (hizkuntzarena, irudiena, baliabideena, etab.) ezagunak edota kulturaliki hurbilen zituzten plataformetatik hartuak izango dira.

Idazleek, oro har, kanpoko testuen itzulpena, moldaketa edota egokitzapena erabiliko dute errekurso nagusi gisa. Hizkuntza, eredutzat hartutako jatorrizko testuen arabera eta inguruan zituzten hizkuntzen erara moldatzen hasiko da. Bestalde, erretorika izango da mezuaren eraketa ederrera baliatuko den tresna eta teknika, hartan trebatuak izango baitira idazletzan murgilduko diren guztiak -salbuespenik gabe, erantsiko genuke.

Ahokotasuna bera ere, azpimarratu beharrik ez dago, elementu baztergaitza bilakatuko da sortzen hasia den prosa idatzian. Eta ez bakarrik erretorikak zor dionagatik.

61 - Gogoratu beharrik ere ez dago Leizarragarena bezalako esperientziak espreski debekatuak zituela eliza katolikoak, eta ez bakarrik haren disidentzia erlijiosoagatik: “Como la experiencia aya enseñado, que de permitirse la sagrada Biblia en lengua vulgar, se sigue, por la temeridad de los hombres, más daño que provecho, se prohíbe la Biblia con todas sus partes impresa, o de mano, en cualquier lengua vulgar; i assi mismo los Sumarios, i compendios, aunque sean historiales, de la misma Biblia, o libros de la Sagrada Escritura, escritos en cualquier idioma, o lengua vulgar. (*Index librorum prohibitorum*, 3 or.) (azpimarrak gureak dira).

## 2.4.3.- TRADIZIOA ERAIKITZEN

### 2.4.3.1.- Konfigurazio ideologiko-erlijiosoaren bideetatik

XVII. mende honetako literaturaren ezaugarri nagusien artean haren planteamendu erlijiosoa izango da egiaz nabarmenduko dena. Eta ez, inolaz ere, ezaugarrien artean berez gailendu behar zelako, planteamendu ideologikoarekin batera, mundu-ikus-kerak berezi bat eta gizarte-mota bat jokuan daudelako baizik; Barrokoaren kultura bezala ezagutuko zen hori bere definizio propioa bilatzen zebilelako, hain zuzen. Maila guztietan (erlijiosotik hasita maila sozio-politiko eta ekonomikoetara zihoazenetan) hierarkizazio-arekin, zentralizazioarekin eta kontrolarekin segitu nahi zuen dinamika zalantzan eta iraulia izateko arriskua zegoelako. Hortaz, aurreko disidentzia guztiakin hausten duen dinamika zehatz hori eguneratzea eta konfiguratzea izango da garaiko esparru katolikoaren tresna eta baliabide guztien eginkizuna, literatura barne delarik.

Gurean garai honetako literatura, oro har, ikuskera barroko horren lehen ezaugarri eta faktore eragile den erlijio katolikoaren kezka indibiduoetaraino eramango dituen literatura izango da, pertsona guztien barnean sakoneraino, burmuinetaraino sartu nahi duen planteamendu ideologikoa bideratuko duen literatura alegia, izan ere gizarte-mo-taren konfigurazioa ahalbide dezakeen lehen baldintza gisa hartzen baita pertsonaren kontrol erlijioso-ideologikoa.

Dinamika ideologiko berriztua izango da, beraz, literatura horrek irakurleen baitara barnarazi nahi duena, ahaztu gabe, gorago esan den bezala (ik. 2.1.1 atala), dina-mika horren ezaugarri garrantzitsuenetakoa haren izaera “mugarazlea” dela<sup>62</sup>.

Praktikan, herri xehearen munduan ematen ziren jokamolde bereziak erlijio ofizialak ezin estali zezakeen mundu-ikuskerak askea eta kontrolatu gabekoa adierazten du. Nabarmena sorginen arazotik atera daitekeena izango genuke. Asko exageraturik agertu bazituzten ere, inkisizio-prozesuetako datuetatik mentalitate primitiboaren aztarnak inferi daitezke, erlijio katolikoak eta haren inguruko sektoreek ezin onar zitzaizketenak. Oro har, superstizioz eta lurrarekiko loturez zipririturiko mentalitate indibidualista xamarra genu-ke, betiere akelarrearen irudi kolektibo<sup>63</sup> guztien gaitetik gailentzen den arren.

Bestelakoak, hots, bizitza eta portaera moralari dagozkionak eta, lehen maila-ko elementu laguntzaileak izango ziren gizartearen konfiguratzeko lan honetan guztian, “ukitu” nahi zen jende arruntarengandik hurbilen zeudenak zirelako. Ildo horretatik, esate baterako, ezagunegiak dira gorago marraztu den gizartearen ikusten diren fruitu eta gatazka konkretuak. Aski izan bedi hemen elizgizonek zeramaten bizimoduaren erlajazio maila gogoratzea. XVI. menderate, adibidez, aita sainduengandik hasita azken apaizenganaino, zerua irabazteko erakusten zituzten “ereduak” ez ziren eredugarriegiak. Sixto IV eta Julio

62 - Maravallek gogorazten duen bezala, “a este individuo con quien el siglo XVII se enfrenta hay que moverlo desde dentro [...] Y ésta es una tesis que se repite un sinnúmero de veces, dando a esa idea de admiración un carácter dinámico interno. Hay que mover al hombre, actuando calculadamente sobre los resortes extrarracionales de sus fuerzas afectivas” (Maravall 1975: 1983, 170).

63 - Sorginkeria kolektibo dela eta, “en 1575-1576, hay un brote en la montaña de Navarra, y, en 1595, otro foco importante en Araiz. Entrando en el siglo XVII, el resonante roceso de Zugarramurdi y su consiguiente Auto de fe de Logroño de 1610 constituyen la última gran acción contra la brujería en Navarra” (Reguera 1984, 211).

II gerlari amorratuak izatearen zama areagotu egingo zen "ilizitoki ezaguturiko emakume-engandik" sortutako seme-alabez inguraturik bizi ziren Inocencio VIII edota Alejandro VI aita sailduekin.

Baina, hurrengo maila jerarkikoez antzeratsu jokatzeko bazuten ere (gotzaiak, etab.), arazoa gaizkoatu egiten zen herri xeherarengandik hurbilen bizi ziren apaizekin, beraiek baitzituen herriak egitura eklesiastikoaren eta zabaldu nahi zuten sinismenaren erreferentzia ia bakarra:

"Muchos prelados sólo decían misa en raras ocasiones. Gran número de sacerdotes, en el bajo clero, vivían en concubinato y tenían hijos bastardos, cosa que, por otra parte, no significaba que llevaran una vida disoluta. Vestidos como el resto del pueblo, jugaban a los bolos con sus feligreses, iban a la taberna y tomaban parte en los bailes pueblerinos" (Delumeau 1967, 16).

Erlaxazioz beteriko gizarte haren aurrean, edo, hobeto esanda, betiere beste zerbaiten adierazgarria zen askatasun haren aurrean, Kontrarreformaren ondoko kultura barrokoak bide estuak erabiltzea erabakiko du, besteak beste dagokigun literaturak erakusten duen moral estuarena.

Literatura aszetikoarena izango da gizarte-morala modu pragmatiko, indibidualizatu eta "mugikor" batean erakusteko eta zabaltzeko garatuko den bidea.

#### 2.4.3.2.- Idatzizko ereduak

Oro har, aszetika eta kateketika izango dira euskal literaturaren arloan<sup>64</sup> landuko diren gai eremuak, betiere, oraintxe adieraziko dugun bezala, Eliza katolikoak markatutako bide meharretatik atera gabe.

Bestalde, planteamendu pedagogiko-erlijioso horrek ekarriko dituen berrikuntzen artean, ikuspuntu soziolinguistiko batetik begiraturaz gero, euskarari ematen zaion erabilera normalizatu(ago)an datza garrantzitsuena. Horrela sortu ziren katexima eta itzulpenek beste modu batez bideratuko zuten hizkuntz arazoa: euskaraz idazten da behintzat, baina ahal dena bakarrik.

Idazgaiak aukeratzeko baldintzak aski garbi azaltzen dira Elizaren idazkietan, honek idazteko ereduak garbiki markatzen dizkiolarik horretan ihardungo duen elizgizonari. Eta beti arau moduan agertzen ez badira ere, idazlegaiak bestelako erreferentziak aurkituko ditu ezarri zaizkion bide meharretatik irteteko arriskurik ez izateko.

Trento ondoren argitaratzen hasiko ziren *Index librorum prohibitorum* izenekoak, esaterako, argitaratu nahi zen gauziaren eredu negatibo bilakatuko ziren. Bertan, ezaguna denez, liburuen eta autore zenbaiten debekua egiteaz gainera, oso garbi gelditzen da idazki erlijiosoetan zer, zein hizkuntzatan eta nola erabili behar den. Adibide gisa, 1597an Venezian latinez argitaraturikoa oso laburra bada ere, 1612koa gazteleraz, aurrekoaren ildotik eta ongi bete (liburutzarra, zinez!) azalduko zaigu Madrilen; hasieran dauden arauak ("Reglak") oso interesgarriak izango dira hizkuntzaren arazoa egokiro ulertzen joateko, batik batik gizarte hartan hain garrantzitsua zen *Biblia*-ren erabileraren

64 - "De las 84 obras parcial o totalmente euskéricas escritas entre 1545 y 1800 -descontando diccionarios, gramáticas, refraneros y poemas sueltos-, 78 son de contenido religioso (catecismos, sermonarios, devocionarios, vidas de santos y libros de espiritualidad. Abundan además las traducciones de clásicos espirituales" (Juaristi 1988, 48)

kasuan<sup>65</sup>.

Baina ezaguna da fenomeno hau ez zela gazteleraren esparruan bakarrik gertatu, 1546an Karlos V.ak debekatu utzi baitzuen Bibliaren itzulpena flandesarara eta frantsesera. Halere, aurretiko zuzenena 1558ko abenduaren 21ean Paulo IV.ak egindako oharpena izan zen. Horren filosofian oinarrituko ziren ondoko urteetako *Index* inkisitorialak, inguru hauetakoak (Fernando Valdes-ek 1559an prestatutakoa, besteak beste) Erromakoak baino askoz ere hertsiago eta debekatuzaileago izango direlarik (Bujanda 1985).

Jakina, "irizpide" gisako liburu horietakoa ongi barneratua izango zuten gero idazle katolikoek, Granadako Luisek berak Bibliari buruz dioen honetan erakusten duen bezala: "[...] libros de la sagrada Escritura no conviene andar en lengua comun, porque

65 - "REGLA III: Las versiones de la Biblia, assi del Viejo como del Nuevo Testamento, hechas por los dichos Autores (*Index*-ean kondenatuak, kalbinistak edota herejeak), generalmente se prohíben; mas con licencia nuestra *in scriptis* i no de otra manera, podran hombres doctos i pios tener i leer las Versiones del Viejo Testamento hechas por los dichos Autores, con que usen dellas como de elucidacion de la Edicion Vulgata, para entender la sagrada Escritura, i no como Texto sagrado, ni auténtico. Pero no daremos la dicha licencia para tener, o leer las Versiones del Nuevo Testamento hecho por los dichos Autores, por el poco provecho, i mucho peligro, que de su lección suele resultar a los lectores" (*Index librorum prohibitorum*, 2 or.)

"(...) Todo el volumen de la Biblia, comunmente llamada de Vatablo, impresso *Lutetiae* (...) 1545. o cada una de sus parte (...) le permitiremos a varones doctos i pios. Pero la parte del Viejo Testamento, siendo corregida conforme a la expurgación ya ordenada en este Indice, se permite a todos: i asi mismo el Volumen, i partes de la misma Biblia: el qual aviendo sido visto, i examinado por Universidades por orden del Santo Oficio, fue buuelto a imprimir, *Salmanticae* anno 1584. i aora de nuevo se enmienda por el Expurgatorio deste Indice, corregido conforme a el, se permite a todos, con que assi en la una, como en la otra Edicion, ayan de usar de la nueva Traslacion no como de Texto autentico, sino como elucidacion de la Vulgata, en la forma arriba dicha" (*idem*, 3 or.)

"REGLA IV: (...) Como la experiencia aya enseñao, que de permitirse la sagrada Biblia en lengua vulgar, se sigue, por la temeridad de los hombres, más daño que provecho, se prohibe la Biblia con todas sus partes impressa, o de mano, en qualquier lengua vulgar; i assi mismo los Sumarios, i compendios, aunque sean historiales, de la misma Biblia, o libros de la Sagrada Escritura, escritos en qualquier idioma, o lengua vulgar: pero no las clausulas, sentencias, o capitulos, que della anduvieren insertos en los libros de catolicos, que los explican i alegan: ni menos las Epistolas i Evangelios, que se cantan en la Missa por el discurso del año, no estando solos, sino juntamente el sermon, o declaracion, que para edificacion de los fieles sobre cada uno dellos se ha compuesto, o compusiere" (*idem*, 3 or.)

"Prohibense tambien las Horas, i diferencias dellas en lengua vulgar" (*idem*, 4 or.)

"REGLA VI: Prohibense los libros escritos en lengua vulgar que tratan de proposito de Disputas i Controversias en cosas de la Religion entre catolicos, i hereges de nuestro tiempo; mas vistos i aprobados, no aviendo inconveniente, concederemos licencia *in scriptis* para tenerlos, i leerlos, a hombres pios i doctos. Pero no se prohíben los libros, que tratan de forma de bien vivir, si no contienen cosa contra la buena i sana doctrina; como tampoco los Sermones en la dicha lengua vulgar" (*idem*, 4 or.)

"REGLA VII: PROHIBENSE Assi mismo los libros, que tratan, cuentan, i enseñan heregias, o errores en la Fè, ora sea exagerando i encareciendo los amores, ora en otra manera. I se advierte, que la santa Sede Apostolica Romana tiene prohibidos los dichos libros que tratan, cuentan, o enseñan de proposito cosas lascivas, o obscenas, aunque no se mezclen en ellas heregias, o errores en la fè, mandando que los que los tuvieren, sean castigados severamente por los Obispos; i que los libros antiguos deste genero compuestos por Ehnicos, los quales permite por su elegancia i propiedad, en ninguna manera se lean a la juventud" (*idem*, 4 or.)

"REGLA IX: TOTALMENTE Se prohíben los libros, tratados, indices, cedula, memoriales, receptas, nominas, escritos, i papeles de Geomancia, Hydromancia, Aeromancia, Pyromancia, Onomancia, Chyromancia, Negromancia; o en que se contienen sortilegios, hechizos, qualesquier agujeros, encantaciones de arte Magica, bruxeria, cercos, caracteres, sellos, sortija, i figuras, o invocaciones de demonios, en qualquier manera que sean" (*idem*, 5 or.)

hay en ellos muchas cosas oscuras, que tienen necesidad de declaración. Así que [...] razon tienen los que no quieren que haya estos libros” (“Prólogo galeato”, *Guía*, 6). Ikus daitekeenez, eliza erreformistek hartua zutenn politikaren aurkako joera bete-betean

Hemen interesatzen zaigun garaiari gagozkioarik, begi bistakoa da eliza kontrarreformistak markatutako bide estu horretatik abiatuko dela euskal letren produkzio guztia XVII. mendearen lehenengo erdialdean behinik behin, oro har oso panorama berezia -zilegi bekigu eufemismoa-, “bideratua” eta, aldi berean, urria antzemango delarik.

### 2.4.3.3.- Bestelako ezaugarriak

#### 2.4.3.3.1.- Hizkuntz egoeraren kontzientzia

Lapurdiko gizartearen osaketa anitza suertatu bazen ere (Euskal Herriko barne-inmigrazioaz gain, Espainia eta Portugaletik etorritako judutarrak, etab.), hizkuntzari dagokionez erabatekoa izango zen euskararen hedapena eta erabilera. Hiri zenbaitetan beste hizkuntzekin batera agertzen da, baina horrek ez dio euskarari nagusitasuna ukatuko, are gutxiago ia erabat elebakarrak ziren barne aldeko herri eta populazio-guneetan.

Horrekin batera, herri handietan -batez ere Donibane Lohizunen eta Ziburun-biltzen diren jatorri ezberdinetako euskaldunen presentziak desberdintasun dialektalen kontzientzia sortuko du eta, ildo horretatik, idatzirako euskara batu antzeko baten beharra agerian utziko.

Hizkuntzaren kontzientzia, dena den, ondoko euskalkia erabiliz 1545ean argitaratu zen lehen euskal liburuan etorriko zen formulatua. Etxepareren bertsoetan ezin garbiago agertuko da euskarak arlo idatzira pasatzeko duen premia eta, aldi berean, horretarako erakusten duen gaitasuna, bertsoak horren frogarik adierazgarriena direlarik. Horri euskarak plazaratzeko eta munduratzeko duen beharra eransten dio Etxeparek, hizkuntzaren egoeraz lehenengo oharpen soziolinguistikoa eginez.

Handik mende laurdenera, Leizarragak berak planteatuko du hizkuntz batasunaren arazoa eta, arazoa gainditzeko, proposamen ezin perfektuagoa aurkeztuko du bere *Testamentu Berria*-n.

Historiaren ibilaldian, ordea, kalbinistaren proposamenari uko egingo zitzaion, baina batasunaren arazoak bere hartan iraungo zuen. Materreren hitzaurreak eta obrak eta Axularrenek, besterik ez aipatzearren, hori baino ez dute erakusten, batasunaren beharra maila ortografikoraino eramango dutelarik.

Horrekin guztiarekin batera, ezin da ahaztu Lapurdiko gizartearen konfigurazio soziolinguistiko horretan eliza ofizialari ere parte garrantzitsua dagokiola, izan ere Eliza hasia zen tokian tokiko hizkuntzen erabilera onesten, leku gehienetako Sinodaletan azaltzen den bezala, elizak “[...] onespina eman zien erabilera mintzatu eta idatzi batzuei, baina erdarak eta latina baztertu gabe” (Intxausti 1990, 79).

Erabaki hauek euskararentzat onuragarriak izan baziren ere, nabarmentzekoa da Ekialdeko Elizek edota Erreformismoak berak euskara bezalako hizkuntzentzat askoz ere neurri aldekoagoak hartu zituztela eliza katolikoak baino.

Nolanahi ere den, tokian tokiko hizkuntzekiko giro “ulerkor” horretan sortuko dira XVII. mendean euskaraz idatzitako lehenengo obrak. Horrela, Bibliak eta

ohiko liturgia latinez izango dira, baina kristauak lantzeko ikasbideak (elizliburuak, katezismoak, etab.) euskaraz

Bestalde, gogoratu beharrekoa da XVI.aren azken mende laurdena eta XVII. mendearen lehenengo erdialdea euskararen apologien sorrera-urteak izango direla oro har. Espainia aldean hiru izango dira nabarmenduko diren autoreak: Garibai (1571), Poza (1587), Etxabe (1607). Euskararen aldeko apologia erdaraz egingo dute eta, beherago ikusiko den bezala, ia ez dago ganorazko ezer argitaraturik (idatzirik, esango genuke) euskaraz.

Euskara bihotzerako eta erdara ezpainetarako uzten duten horien guztien kontrako jarrera agertuko du Klaberriak, agian Iparraldeko idazle gehienei estrapola dakiekeen jarrera kritikoa eta aldi berean pragmatikoa erakutsiz<sup>66</sup>.

Honako hau hizkuntzarekiko kontzientzia desberdintasunaren adierazgarri nabarmena baino ez da. Hegoaldean praktikatu baino teorizatzen den bitartean, iparraldean erabili egiten da, eta, bide batez, erabilerekin demostratu egiten da hizkuntzaren malgutasuna, egokitzapena eta balioa, azken batean.

#### 2.4.3.3.2.- Sorrera berankorra

Bestalde, aurreko puntuetan esaten denaren ondorio gisa, itzulpen eta moldaketetan oinarritzen den prosa batek, logika historikoaren poderioz, gutxienik atzerapen kronologikoa erakusten du iturriekiko. Eta hau da Euskal Literaturaren historian barrena agertuko den beste ezaugarri garrantzitsu bat.

Halere, ez da bakarrik urte batzuetako berankortasuna hemen adierazi nahi dena. Haratago doa berankortasunaren arazoa. Esan liteke hizkuntzak berak, beste kultur hizkuntzekin erkatuz gero kultur hizkuntza bihurtzeko erakusten duen berankortasuna isladatzen dela prosaren berankortasun honetan.

Nekez sor zitekeen prosa lanik XVI. menderate idazteko tresna bezala agertzen ez den hizkuntza batean. Horregatik, soberan leudeke beste hizkuntzetako prosarekiko konparazioetan erortzeko ahaleginak. Izan ere, euskarak ezagutu zuen lehen saio idatzia baino askoz ere lehenago sortuko da hemen XVII. mendean ugaltzen hasiko den prosazko produkzio mota. Delumeauren hitzetan,

“Se estima que un 75 por ciento de la producción tipográfica de 1455 a 1520 correspondió a obras religiosas. La *Imitación*, las *Biblias de los pobres*, el *Espejo de la humana salvación*, el *Ars moriendi*, la *Vita Christi* de Rodolfo el Cartujo, y gran cantidad de obras piadosas, conocidas ya en manuscritos, alcanzaron repentinamente una extraordinaria difusión. La *Imitación* fue impresa, antes de 1500, en diversas lenguas, sesenta veces” (Delumeau 1967, 21).

Dena den, berankortasunaren zama hau hurrengo mendeetako prosan areagotuko bada ere<sup>67</sup>, ezin ahaz daiteke elizak berak bortizki erreprimaturiko gizarte txiki

66 - Gogoratu 1636ko bertsoetan laburbilduko duen planteamendua: “Burlatzen naiz Garibaiez,....” (in Etxeberri Ziburukoaren *Eliçara erabiltceco liburua*).

67 - Hain urrtu joan gabe, Tartasen *Ontsa hiltzeko bidea* ere, 1666an argitaratuko zena, ia bi mendetako atzerapenarekin agertu zen European heriotza edo “memento mori” delakoa gai ikonografiko bezala zerabilen literaturarekin konparatuta. Izan ere, haren aitzindarietako bat izan zen *Ars moriendi* izeneko liburuak ehun bat edizio izan zituen 1465etik 1500era bitartean.

honetan bideratzen duen pragmatismo erlijiosoaren ondorioa ere badela. Sormenezko prosan inolako inkurtsiorik egiteko gogo eta ausardiarik gabe geratu den gizarteak derri-gorrezkoa du erresuma erlijiosoa arriskurik ez duten harma ideologiko(-literario?)ekin defendatzea, ongi eza gutzen baitzuten arlo erlijiosoan desbideratu ondoko fruituak.

Erraz uler daitezke, beraz, esperimendu erlijioso-literarioetan ez erortzeko ahaleginak eta bide ziurrenetik jotzekoak. Ildo horretarik, eremu katolikoan Axularren obraren atalen bat ausartzat har badaiteke ere, idazleak ondotoxoz zurrizten du bere burua egon litezkeen bekatu edota fedearen aurkako baieztapenen erantzukizunetatik libre gertatzeko:

“Escritura Saindutiç, Eliçaco Doctoretaric eta liburu debocinozcoetaric, Axular Saraco errotorac vildua”

Sarakoak ba bide zekien edozein ausardiaren ondorioak nolakoak izan zitezkeen, nahiz eta, guri dagokigunez, eginkizun honetan historiografiak ez digun oraingoz gehiegi laguntzen.

#### 2.4.3.3.3.- Erdarazko literaturak iturri

Aurreko guztiaren aurrean, nekez esan genezake besterik prosa alorrean agerturiko lanak ikustatu ondoren: euskal prosaren sorrera erabat baldintzatua sortuko da. Eta baldintza horietarik lehen faktorea, ez bairrik gabe, literatura mota hori sortuko duten idazleen prestakuntzan datza.

Ez da sekretu bat idazle bihurtuko ziren horien prestakuntza kulturala eta literarioa beste hizkuntza bat(zu)etan burutu zirela. Euskal munduak horretarako ezin eskaini zezakeen erakunde, hizkuntza landu eta beste horrenbeste elementu, alboetako erresumetan aurkitu ahal izan zituzten idazle bezala agertu zaizkigunok.

Materre, esaterako, eta enblematikoenetariko bat adibide gisa jartzeko -ez baitzen lehen euskaldun idazle kontrarreformista alferrik izan-, elizgizona izateaz aparte, frantses kultur mundutik datorren gizona da. Haren erreferentzia kultural guztiek iturri hori baino ez bide dute (eta honekin ez genduke inolaz ere latinezkoa ahaztu nahi).

Axularren kasuan, Urdazubin premonstratenseekin ikasi bide zituenak, idatizkoaren alorrari dagokionez, gaztelera eta latinaren ildokoak izan zirela susma daitezke. Gerokoek ere, hots, batxilergoa lortzeko erreferentziak, erdaraz diharduten kultura eta literaturaren gorabeheretan barneragotzeko balio izango diote.

Bigarren faktorea, nahi bada, sortzen diren obraren izaeran bertan legoke. Obrak beste hizkuntzetatik itzuliak izango dira edota, kasurik hoberenean, originalki moldatuak, baina betiere erreferentzia nagusien erroak -ideologiko-formalak, batik bat- beste hizkuntzetako literaturetan zituazela.

Adibide zehatzetara joz gero, 1545-1645 bitartean euskaraz idatzitako prosa lanek hori baino ez dute erakusten. Ikus Leizarraga, Materre, ... eta Axular bera, demostratuko den bezala.

Baina txertaketa hau ez da testuen dependentzian edota hizkuntzarenean amaitzen. Areago, liburu hauek erabiliko duten sistema erreferentziala, hots, irudiak, enxepluak eta bestelako elementuak eremu klasikoetatik eta, oro har, erdal tradizioetik datoz, normalean erreferenterik nagusia *Biblia* delarik eta ez herrikoitasunaren ingurukoa

(gnomika propioa, mitologia, etab.). Alderdi horretatik, beraz, mundu kamustu bat, zeukan aberastasunean mundu irendu bat da landu gabeko euskaldunari eskainiko zaiona. Kulturalki, beste hitz batzuek esateko, ohikoen eta arrunten diren sinbologia eta irudi erlijiosoak potentziatuko dira testuetan eta uniformizazioa -ideologikoa zein erreferentea- erabatekoa izango da. Irakure euskalduna eta haren hizkuntza, zentzu horretan, ideologikoki erabilia baino ez da izango, kontraerreformari esker diezaiokkeen elementu bakarria euskararen erabilera bera baino ez delarik. Hizkuntzaren erabilera eta hizkuntzak ahalbidetzen dituen elementu estilistikoena, zehatzagoak izateko.

#### 2.4.4.- XVII. MENDEKO EUSKAL LITERATURAREN PROTAGONISTAK

Leizarragaren itzulpena euskarazko prosa gauzatzeko ahaleginetan lehen saio bezala hartu ahal den arren, garbi asko esan daitezke XVII. mendearte ez dela sormenezko euskal prosa inprimategietara iristen. Edozein gisaz, ez genduke eztabaida antzuetan erori nahi “itzulpen” lanen balioa dela kari, batetik, ongi asko baitakigu “sormenezko” hitzak ere zer eta noraino adieraz dezakeen, eta, bestetik, gogoratu beharrik ez dago, gure prosaren lehen lanak itzulpenen fruitu baino ez dira eta.

Seinalatzeko modukoa da, maiz asko ahaztu egiten bada ere, Axularren liburu prosan geratuko den lehen lan originala dela<sup>68</sup>, berea baita egilearen eskua eta sormena erakusten dituen hitz lauako lehena. Areago, inoren eragina ongi estaltzera iritsiko den autore honek euskal literaturaren bilakaeran berebiziko zutarria ezarriko du bere liburuarekin. Eta ez bakarrik hurrengo mendeetan izango duen eraginagatik. Bada honetan zutariaren irudia areagotzeko beste zenbait elementu tesian barrena demostratzen saiatuko garen bezala.

Horretaz gain, ezin ahaz daitezke euskal letretan inolako tradizioz ez duela *Gero* liburua taxutuko duen idazleak, izatez berea baita prosa arloan aurkituko dugun benetako lehen saioa.

##### 2.4.4.1.- Idazleak

Ezbairrik gabe esan daitezke XVI-XVII. mendeetako idazleek beste hizkuntza bat(zu)e(t)an lortutako gaitasunak transferitu behar izan zituztela euskararen arlora, ez baitzegoen euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko beste biderik. Hortaz, lehenengo beste hizkuntza batean (latinean, gaztelera, ...) alfabetatuak izan ondoren, hizkuntza hartarako ikasitakoa haienera -euskarara esan nahi baita- egokitzen saiatu behar zuten ezinbestez, egokitzapen horren fruituetatik batzuk geratu zaizkigun obrak direlarik.

Beste hizkuntzen eredupean burutuko da, beraz, hizkuntzaren formalizatze prozesu hori, eta horretan hasiko dira idazletzan sartzen, betiere transferentzia-metodologia hark suposa zituzkeen dependentzia guztiekin.

Edonola ere, eskerga izango zen idazle haien erroka, batik bat beraien gizataldearekin ikasitako hizkuntzan baliatu behar izan zutelako idazteko, hau da, inon landu gabeko edo oso gutxi landutako euskararekin idaztea erabaki zutelako. Egiten duten aukerak lan erraldoia eta, aldi berean, ohorea ekarriko die ondorioz: idazkerarako erabat

68 - Badirudi betiko galdutzat eman behar dela bi urte lehenago Argaignaratssek argitaratu zuen *Avisu eta Exortatione probetchosac bekhatoarentçat*. Bestalde, originaltasunaren arazoaz ikus 4.1.5 atalean esaten dena.

formalizatu eta arautu gabekoa delako euskara (hortik, besteak beste, Leizarragaren handitasuna) edota, formalizatzeko bidez gain, forma berriak bilatzen saiatuko direlako.

Oro har -eta egoera hartatik sortutako euskarazko idazlan gehienek hori baino ez dute erakusten-, alfabetatzeko aukera eta idazteko premia, gogo eta posibilitatea elizgizonen ingurura mugatuko diren faktoreak suertatuko ziren XVII. mendearen lehen erdialdearen bukaerara.

Bestalde, gorago adierazi legez, bi fase baina hiru interesgune nagusi edukiko genituzke garai hartako produkzio idatzia idazleriaren ikuspuntutik ulertzeko. Errenazimenduaren azken oihartzunak eta protestanteen erreforma elkarren arteko borroka handiegirik gabe bilduko dituen epea litzateke lehen eta Kontrarreformaren ondokoa bigarrena.

Lehenengoan, Etxepare zein Leizarraga genituzke bakoitza bere esparruan eta bere produkzioarekin, interes arras ezberdinei erantzuten diena. Kronologikoki XVI. mendearen bigarren erdialdean kokatuko dira ditugun obra inprimatuak.

Kontrarreformak, berriz, itxia, ideologikoki atzerakoa eta *status* erlijiosoaren autodefentsa ziurtatzeko bortizki erreprimizaileak izango den izpiritua ekarriko du, Barrokoaren muina osatzen joango den egitura ideologikoa azken finean<sup>69</sup>. Gurean, izpiritu honen fruitu izango den idatzizko produkzio inprimatua XVII. mendekoa izango da betebetan.

Ezaugarri orokor gisa, protestantismoak testu sakratuetara iristeko ekarritako planteamenduak (herri-hizkuntzen balioa azpimarratzen zuenak, alegia) bat egingo du -baina beste arrazoiengatik, jakina- kontraerreformaren borrokaren errealismoarekin (hizkuntza bernakuloen garrantziaz ohartzuz) eta zuzenki ahalbideak Dill Goode-k "movimiento nacionalista" deitzen zuen hura<sup>70</sup> bezalako bat euskal eremu -linguistiko- batean sortzea, Lapurdi inguruan edo, agian zehatzago, lapurteraren esparruan hain zuzen.

Errealitatea ulertzeko eta esplikazio egokiak bilatzeko nahiak gizakion artean sortu izan ohi duen joerari jarraituz, Lapurdi inguru hartan sortutako produkzio idatzia, batetik, eta liburutetan agertu onespren hitzen autoreen presentzia erredundanteak, bestetik, "idazle eskola" edota "mugimendu"<sup>71</sup> gisako kontzeptuak erabiltzera bultzatu izan dute euskal literaturaren historialaria.

Hori dela eta, "Eskola" hartako idazleen arteko loturak zeintsu ziren nolabait antzemateko irizpide ezberdinak -baina ez beti egokiak- erabili izan dira gure artean.

Batetik, ustezko lotura pertsonal-profesionalei zegozkienak; ezagunak dira, besteren artean, edozein esku-liburutan aurki daitezkeen hauek: Axular (Materrenen liburuaren aztertzaile: Sara 1616; Etxeberri Ziburukoaren bi liburutan aztertzaile), Argaignarats

69 - Barrokoaren hipotesi desberdinen artean, interesgarri deritzogu Maravall-ek ildo honetan garatu zuenari (ikus Maravall 1975). Haren arabera, mundu-ikuskerari berri bat baino gehiago, historikoki boteretaldetik, gatazka sozio-ekonomikoei aurre egiteko antolatutako erantzuna litzateke Barrokoa.

70 - "En el Renacimiento del siglo XVI, junto con el Humanismo surgió un movimiento nacionalista en que algunos escritores se resolvían a escribir las obras literarias de valor científico en su lengua nacional" (Dill Goode 1969, 29).

71 - "Frente a la escasa e inconexa actividad anterior, aparece aquí en el siglo XVII, de modo inesperado, un círculo de autores que trabajan en estrecha relación [...] Se trata de un movimiento de eclesiásticos que cuentan entre sus lectores y animadores a un cierto número de seculares instruidos" (Mitxelena 1960, 68).

(Etxeberriren *Noelac*-en azaltzen den poesiaren egile), Harizmendi (Haranbururi eskainitako poesiaren egilea, honen liburuan jarria; Axularren koadjutorra).

Horrezaz gain, askok azpimarratu izan dute "Compañía on batean, euscaldunic baicen etcen leccuan" (*Gero*, 15) erabaki zela *Gero* liburua idaztea, pasarte horretan "eskola" delakoaren aztarnarik bailitzen. Interpretazio horren arabera, badirudi inguruetako apaizak arima-pastoralaz edo mintzatzeko bildu egiten zirela eta bertan arazo guztiak mahairatzen zirela: arazo praktikoak nagusiki, baina agian hizkuntzazkoak ere bai.

Bestalde, ez bide da gutxietekoa izan hurbiltasun geografikoaren irizpidea, Sara eta Ziburuko apaizak suertatu baitziren idazle garrantzitsu gehienak.

Jakina, lapurteraren aldeko joera bera, lapurteraz idaztearena hain zuzen, behin-betiko irizpidetzat hartu izan da arazoa gainditzeko.

Guztiarekin ere, batzuk urrunago joan dira delako Eskola haren ezaugarriak zehazterakoan, besteren artean bileren tokia ere identifikatu uste baitute: "Sara, Donibane-Lohizune eta Ziburuko apaizak frantziskotarren komentu batean biltzen ziren euskarazko lanak prestatu asmoz, eta elkarren liburuak epaitzen zituzten argitaratu aurretik"<sup>72</sup>.

Edozein modutan -eta eztabaida honetarako toki aproposena hau ez den arren-, bada "eskola" delako ideia edo intuizio honekin ados ez dagoenik ere (ik. Urgell 1991, 909-910), izan ere, kontzeptu erabilgarri eta esplikagarria baino gehiago, arazoak nahastu eta ezer esplikatzeko ez duen topiko bihur baitaiteke "Sarako Eskola" delako horrena<sup>73</sup>.

Arazo honetan, alabaina, behar beste azpimarratu ez diren bizpahiru faktore mahairatu nahi genituzke hemen, hain zuzen ere aztertuko den lanaren izaera ulertzeko oso garrantzitsu deritzegunak.

Batetik, eta buztinezko hankak dituzten idoloak aurkitzeko bildurragatik nonbait, maiz asko zalantza moduan utzi izan da mende honen hasieran idazle gisara agertzen diren elizgizonen hauen adskribapen ideologikoa. Bestelako frogantza historikoen behar gorria badugu ere, garbi dago gure idazle hauek kontrarreformaren izpiritu eta ortodoxiaren barrenean sartuta zeudela zeharo eta ez zutela haien haragian ezagutu beste apaiz zenbaitek jasan behar izan zuten errepresioa. Honek guztiak mende erdi honetan idatzitako obren izaera erakutsiko liguke nabarmenkiro, Axular eta haren liburua bera horren adibide garbia<sup>74</sup> genituzkeelarik.

Horrezaz gain, geratu zaizkigun obrei gainbegirada bat emanez gero, badirudi idazleak nolabaiteko planifikazio (eta zuhertasun handiz hartu nahi genuke hitz honen esa-

72 - Ik. "Sarako Eskola", *Hiztegi Entziklopedikoa*, Elhuyar, 1993, 1495 or. Ikus daitekeenez, baieztapen honen jatorria Villasanteren obran dago: "Muy pronto, a lo que parece, en el convento de Ciboure se dieron cita los hombres que iban a ser los autores y creadores del movimiento de San Juan de Luz" (1979, 70); baina honen "a lo que parece" zuhur hori zeharo ezabaturik eman dute artikulugile berriek.

73 - Eta ez da arazo bakarria eta ez gutxietekoena ere eskolakidetzat hartu izan den zenbaiten urruntasun geografiko goiztiarra. Gogorazi nahi genuke Materre 1617an -haren liburua argitaratu baino lehenago- La Réole-n zegoela, frantziskarren komentuan, eta 1623an Frantziako Tolosakoan. Lapurdiatik urrunsko, beraz.

74 - Autore zenbaiten intuizioa frogatzeko dagoen arren (Axular Lancrenen idazkari edo laguntzaile izan zela pentsatzen dutenena, alegia), urdazubiara ez bide zen kontrarreformaren planteamendu eta praktika hitzetatik urrutiegi ibili. Edonola ere, hasiera-hasieratik Elizaren eta Henri IV. erregearen aldetik izandako laguntza eta pribilegioak (legalki ez zegokion Sarako erretoretza, esaterako) Axularren "zintotasun" eta inplikazio monarkiko eta kontrarreformistez mintzo lirateke ziurrenik.

nahi zabala) erlijiosoari jarraitzen zaizkiola euren lanak prestatzerakoan, batik bat Materreren *Doctrina Christiana*-ren bigarren argitalpenaren ondoko urteetan, aurrerago ikusiko den bezala.

Aurrekoarekin loturik, esan dezagun zeharka agertutako apaiz euskaldun kulturek ere bazutela ziurrenik idatzizko betebeharrak kontrarreformista haietan eginkizunik, eta ez bakarrik ortodoxiaren zaindaria gisa; Materreren Gilantena bezalako apaiz euskaldunak, esaterako, edota Axularren obran agertzen diren Urtubi<sup>75</sup> eta Disanetxe bezalakoak oso egokiak baitziruditen elizbarrutiko pastoralaren lerroak diseinatzeke eta Axularren “konpaina on” hartako partaide izateko<sup>76</sup>. Esan gabe doa “Konpainaiburua” Bertrand de Etxauz bera izango zela.

Nolanahi ere den, eta ezaugarrietara itzuliz, ohargarria da eskolaketan edo hartu izan diren idazle horietako asko (guztiak, agian?), elizgizonak izateaz gain, predikariak ere bazirela lanbidez. Horrela agertuko dira, esaterako, Haranburu (“predicateur et confesseur de nostre Ordre”<sup>77</sup>), Argaignaratz (“aphez ea Ciburuco predicari ordinario a[c]”<sup>78</sup>), ..., eta horrela agertu zen Axular bera Donibane-Lohizunen Sarara baino lehen<sup>79</sup>.

Beherago demostratzen saiatuko garen hipotesi bezala, faktore honen garrantzia handia izango da hainbaten lanetan, obren taxuketak berak jaso dezakeen eraginagatik hain zuzen. Axularren kasuan, esaterako, predikazio teknika etengabe isuriko da liburuan barrena.

Edonola ere, argi dago konglomeratu horretatik sortutako ahalegin literarioek<sup>80</sup> euskara idatziari homogeneitate handia emango ziotela eta prozarako euskarak behar zuten neurrian egokituko (eguneratuko?) zutela. Mitxelenak dioen legez,

75 - 1609an Lapurdik Henri IV. arengana bidali zuen “Dortobie” Jauna eta handik urte batzuetara *Gero* liburuaren zentsorea izango zen Pedro Urtubikoa (“Durthubie”) pertsona bera ote zen? edo familia berekoak? Horrela ez balitz ere (eta ez dago hori zalantzan jartzeko motiborik: nor izan zitekeen Teologian doktorea eta Baionako gotzaiaren ordeko konfidantzakoa familia ahaltsukoa izan gabe?), garai hartako Urtubikoen “zintzotasun” politiko-erlijioaz eta konpromezu kontrarreformistaz mintzatuko litzaiguke bete-betean.

76 - Hipotesi gisa bada ere, zinez pentsa liteke Axularren “konpaina on” hark ez zuela ezinbestean bat egin behar orain arte “eskola” kontzeptuaren pean ulertu ohi denarekin, Axularrek berak esaten dituenetatik (*Gero*, 15 or.) erraz ondoriozta baitaiteke elizbarrutiko pastora edo diseinatzen ari zirela han bildutakoak (“arima-zaintzaz” ihardutean, gaia aukeratzen da eta liburuaren egiteko kargua nori eman erabaki). Beraz, “Sarako eskolakide” izateak euskaraz idaztea baino ez zuen suposatzen, eta ez derrigorrez pastoralaren antolamendu edo aholkularitzan aritzea. Ohi bezala, jakituria, elokuentzia, eskaintako zerbitzuak, titulazioak, ... izan zitezkeen azken honetako partaide izateko baldintzak; idazleen artean, Axularrek eta Etxeberri Ziburukoak ongien betetzen bide zituztenak alegia.

77 - *Debocono escurra, miraila eta oracinetegia...*, 1635, Fr. Bonal Probintzialak idatzitako boterean (I or.).

78 - Ikus Vinson 1891, § 21 (1984, 84 or.).

79 - Ez da ahaztu behar goren mailako karguak edo titulazioak (Axularren “erretora”, Etxeberri Ziburukoaren “doctor Theologoa”, ...) bestelako egiteko profesional apalagoak ere barnehar zitzakeela.

80 - Nahiago dugu ahalegin literarioez baino “produktzio idatziak” mintzatzea, izan ere lehenengo espresioak badu bigarrenak ez daukan balorazio-maila ez beti egokia. Produktzio idatziak hitzegiten denean, aldiz, deskribapen hutsa baino ez da adierazten, neutroagoa da eta ez du inolako aurriritzirik ekartzen eztabaidara, sarri askotan gero justifikatu ezinezko bihurtzen diren aurriritziak izan ohi baitira hauek.

“Escriben en una lengua de aspecto mucho más moderno que la de Etxepare, incluso, que la de Leizarraga: se trata de la lengua cotidiana (el labortano de Sara y de San Juan de Luz) elevada sin esfuerzo a lengua literaria. Algunos de los autores poseen una magnífica formación humanística y todos han recibido al menos una iniciación en las bellas artes: no es de extrañar, pues, que no sientan preocupaciones puristas ni en el léxico ni en la sintaxis, ni huyan con horror de lo que de sus lecturas pudieran deslizarse en sus escritos vascos. Sin embargo, no llegan en ningún momento a los excesos cultistas y latinizantes de Leizarraga” (Mitxelena 1960, 69).

Esan gabe doa delako Eskola honen ingurukoek ireki eta itxiko duten garaia “urre-garai”-tzat hartua izango dela Lapurtera klasikoarentzat. Ezaugarrien artean bat da hemen bereziki gogorazi beharko litzatekeena: erabiliko den lapurtera mota, sortuko den literatur hizkuntza Leizarragarena baino “populista” izango da eta, ondorioz, kultismo gutxiagokoa; oro har, herri-kutsu gehiagokoa agertuko da, baina ez bakarrik lexiko edota gramatikaren ikuspuntutik.

#### 2.4.4.2.- Irakurleak

Irakurleen fenomeno aztertzeke kontutan hartu behar da liburuen produktzio-arena ere<sup>81</sup>, irakurleria gure artean, fenomeno bezala, egiten hasia baino ez delako. Izan ere, euskara ahoz bakarrik ezagutzen zuten irakurlegaiak baitzen zaletu nahi zena, edota, kasurik hoberenean, agian beste hizkuntza batean alfabetatua eta irakurtzen ohitua<sup>82</sup>.

Hortaz, irakurle bihurtu nahi izate horrek alfabetatze lanetan sartzeko premia<sup>83</sup> zekarkien idazleei berei, elizgizonei alegia, besteak beste liburuen hasieran beste hizkuntza batean irakurtzen zekitenei euskaraz egokiro irakurtzeko oharrak eginez (Leizarraga).

Ez dugu uste gehiegikeriarik esango genukeenik erreformak alfabetizazio mailaren areagotzea ekarri zuela euskal lurraldeetara esango bagenu, alfabetizazio elebakarra gainera, hots, euskaraz hutsez mintzatzen zirenei irakurtzeko gaitasuna eskaini ziena<sup>84</sup>, finean hori baitzuten kalbinistek Jainkoaren Hitzari zuzenean heltzeko bidea.

Edonola ere, alfabetatuak izan ala ez, hasi berria zen irakurletze prozesu horrek ezinbestean eskatzen zuen irakurria izateke elementua, hots, paper idatzia. Ildo horretatik, badirudi idatzizko euskarri horren ezaugarri nagusiak -eta, ondorioz, alfabetatze bideak- literatura erlijiosoaren esparrukoak zirela nagusiki, izan ere XVII. mendean erdialdean “las biblias, los libros de liturgia (horas, breviaros, oficios), los libros de devoción [...] y la literatura apologética son las adquisiciones más frecuentes de estos lectores de rango modesto, sean católicos o reformados” (Chartier 1993, 99).

81 - Berrogeita hamar orrialde baino gehiagoko liburuak 36 dira mende honetan; 32 nafarreraz-lapurteraz eta 4 zubereraz; horietatik Reedizioak ez diren obra argitaratuak: 16 nafar-lapurteraz eta 4 zubereraz. Euskaraz argitaratutako produktzio originala: 10 naf-lapurteraz eta 2 zubereraz (Sarasola 1975, 106)

82 - Herri xehea, gehienik ere, *colportage* izeneko literaturaren irakurlea izan ohi zen: “libritos de cuatro cuartos, toscamente impresos (almanaques, coplas, recetas, narraciones de prodigios o vidas de santos) que vendían por ferias y poblaciones rurales los comerciantes ambulantes” (Ginzburg 1991, 15)

83 - Baina ez beti, gogoratu behar baita ezen “en los siglos XVI y XVII, más que antes sin duda, la relación con lo escrito no implica forzosamente una lectura individual” (Chartier 1993, 100).

84 - Horrelako elebakar alfabetatuak ziren Axularrek “Irakurtzaileari” izeneko atalean gogoan zituen irakurlegaiak: “Eta on zatekeiela gauza hunetzaz liburu baten euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat egitea” (*Gero* 15 or.) (azpimarrak gureak dira).

Edozein gisaz, oso interesgarria da denbora gutxitan eta euskarazko obren argitalpenen ugaltzeari esker gertatu bide zen irakurle-areagotzea. Larramendik, esaterako, XVIII. mendearen erdialdean Axularren *Gero* liburuak zituen irakurleen kopuruari buruz egiten du konstatazio interesgarria:

“*Anda en manos de muchos*, y debiera en las de todos los Bascongados” (*Diccionario Trilingüe*, 1745, xxxv or.) (azpimarrak gureak dira)

Baina irakurleriaz, Axularren obrari dagokion irakurle-tipoarena beste euskal liburu erlijioso guztiei heda dakiekeen neurrian bederen, aurrerago ere mintzatuko gara zehatzago (ikus V. kapitulua).

#### 2.4.4.3.- Idazlanak

Testuinguru soziologiko eta erlijioso honetan ulertu behar da, beraz, aszetika eta aszetikaren bidez eliza katolikoak sortu nahi izango duen eta zabalduko den mezua. Esparru erlijiosoan aszetikaren inguruko gai horiek izango dira, sermoiekin batera, kontrarreforma katolikoak garbiki, hau da, jorratu ahal izateko zalantzarik gabe, utzi eta baimenduko dituen eremu bakarrak:

“REGLA VI: [...] no se prohiben los libros, que tratan de forma de bien vivir, si no contienen cosa contra la buena i sana doctrina; como tampoco los Sermones en la dicha lengua vulgar” (*Index librorum prohibitorum et expurgatorum*, 1612, 4 or.)

Halere, badirudi gotzai batzuk beste batzuk baino beranduago ibili zirela eredu horiek gauzatzeko. Esate baterako, Axular apaiz bihurtu zeneko hiriko gotzaiak, Tarbesekoak alegia, 1644an aginduko zuen bere elizbarrutian predikazioak eta katezismo-saioak herri hizkuntzan buru zitezen:

“Nous voulons [...] que vous fassiez le prosne et le catéchisme tous les dimanches en langue vulgaire, afin que le peuple puisse mieux comprendre les mystères et plus facilement les retenir pour son salut” (Cfr. Soulet 1974, 79)

Ageria denez, ordurako Baionakoak ibilaldi luzea zuen egina arlo honetan.

Horrezaz gain, argi esan genezake oso fenomeno zabaldua izan zirela eliz barruti guztietan gotzaiak argitaratzeko “arauak” edo “aholkuak”. Eta guztiak oso antzekoak gainera, Trentoko Kontzilioan (1545-1563) markatutako ildokoak baitziren beti ezinbestean. Horien bidez, besteak beste kateximak bertako hizkuntzetan argitaratzea ahalbidetuko zen.

Ezagunen eta adierazgarrietarikoan artean Kalahorra eta Iruñeako gotzaien *Sinodalak* deitutakoak izango genituzke. Kalahorrako 1602ko Sinodaletan, esaterako,

Pedro Manso gotzaiak urtero kateximak euskaraz argitara zitezen agindutakoa<sup>85</sup> ageri da: “*Cap. 4. que los Prelados hagan imprimir cada año doctrinas christianas en lenguaje acomodado a las prouincias*” (Urquijo 1923, 335).

Eta honela jarraitzen du:

“Y porque es conuiniente que cada Prouincia tenga la doctrina Christiana impressa en lengua paterna: y porque ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado diferencia en el Vazquence del señorío de Vizcaya, Prouincia de Guipuzcoa, y Alaba. Estatuymos y ordenamos, que los señores Obispos nuestros successores, hagan imprimir cada año Cartillas de la doctrina Christiana en Romance, y en Vazquence, segun el vso de las dichas Prouincias, para que los Curas tengan Cartillas en la lengua propia de cada Prouincia, que Nos assí lo hemos comenzado a hazer en nuestro tie(m)po. Y los Visitadores tengan quenta de executar lo que se les encarga en el capitulo antecedente. Y las que se imprimieren en Vazquence, tengan tambien la Doctrina en Romance” (Urquijo 1923, 335-336)

Honek garbi adieraziko luke Elizak argitalpen politika zehatza planteatua zuela hizkuntz berezia zuten lekuetarako. Oro har, begi bistakoa denez, XVI. mendearen bukaeran atzeman ahal izango da politika katoliko hori euskal eremuan, urte horietan hasiko baita argitalpen erlijioso kontrarreformisten aroa<sup>86</sup>.

Era berean, Lapurdin ematen den produkzio idatziak<sup>87</sup> ere horrelako plangintza edo aginduen ondorio dirudi, eta ez bakarrik argitaratutako obra gehienak maila-katuta eta urte diferentetan agertzen direlako (urte berean bat baino gehiago inoiz elkartzeko ez direlarik), ekonomia eredu desberdinak eta irakurleen *modus vivendi* direlakoak ere oso kontutan hartzen zituztelako baizik<sup>88</sup>.

85 - Euskarazko argitarapenez gain, dena den, oso garbi utzi zuen “*Que en la tierra Vazcongada los Sermones sean en Vazquence*” “Porque somos informados que en la tierra Vazcongada, y especial en algunos lugares, que la mayor parte dellos habla Vazquence, los Predicadores por autoridad predicán en Romãce, y no en Vazquence: de lo qual se sigue grãde daño, y q(ue) la gente q(ue) viene de las caserías a oyrlas como no sabe(n) Romance se salen ayunos del Sermon. Por tanto S.S.A. Ordenamos y mandamos, q(ue) en los tales lugares, los Sermones se hagan en Vazquence, y los Curas no nconsientan otra cosa, so pena que seran castigados, y lo mismo guarde(n) los dichos Curas quando declararen el Euangelio” (Cfr. Urquijo 1923, 339).

86 - Elsoren *Doctrina Christiana* (1561: galduta) eta Betolazaren *Doctrina Christiana* (1596) horren lehen erakusgarri genituzke.

87 - Materrerren *Dotrina Christiana*, (1617) (Axularren hitzak liburuaren onespenerako), Materrerren *Dotrina Christiana*, 2. argitalpena (1623), Etxeberri Ziburukoaren *Manual Devotionezcoa* (1627), *Noelak eta bertze canta espiritual berriac* (1631), Haranbururen *Debocino escuarra, miraila eta oracinotegua* (1635), Etxeberri Ziburukoaren *Eliçara erabiltecco liburua* (1636), Argaignarats, *Avisu eta Exortatione probetchosac bekhatorearentçat* (1641: galduta), Axularren *Gero* (1643), Hegoaldean Beriainen *Traüado de como se ha de oir Misa* (1621) eta *Doctrina Christiana* (1626) agertuko ziren XVII. mendearen lehenengo urte haietan.

88 - *Modus vivendi* horiek eragin zuzena erakutsiko dute erlijio eta moralaren esparruan eta, aldi berean, jokamolde berezia eskatuko. Arrantzaleen mundu “galgarriak”, esate baterako, nekazaritzakoak ez bezalako tratamendua behar bide zuen: Ternua eta Kanadatik neguan etxeratzean, aurretutako guztia jan-edanetan xahutu eta gero arrantzaleak berriro lehen bezain pobre itzuli ohi ziren itsas lanetara, familiak inolako errekurtsorik ez zutela geratzen zirelarik. Lancrek zioenez, “esto a la larga trae el desamor en los matrimonios y relajación de las costumbres” (Lancre, *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et demons...*, 1612, I. lib. II. disk., 38 or.; apud Caro Baroja 1985, 167). Horren aurrean, tratamendu bereziaren alderdi garrantzitsua liburu erlijiosoek berek bete zezaketen, Etxeberri Ziburukoaren obra lekuko.



Ustezko planifikazio horren aztarnak Materreren *Doctrina Christiana*-ren bigarren argitalpenaren ondoko hogei urteetan aurki litezke nagusiki (1623-1643). Izan ere, lehenengo obra kontrarreformista honen arrakastaren aurrean, eta literaturaren bidezko sistema Eliza eta elizgizonak iristen ez ziren pertsona, une, espazio eta medioetan oso erabilgarria izan zitekeela ikusirik nonbait, Baionako Elizbarrutiko arduradunek, Bertrand de Etxauz buru zelarrik, produkzio idatzia bultzatzea erabaki bide zuten.

Bestalde, maiz asko nabarmendua izan da euskaraz argitaratu liburuetatik gehienak Lapurdi aldekoak gertatu izana, merkatuari eta erabilitako euskalkiari oihartuz gero bereziki inguru haietako irakurleentzako eginak direla ikus baitaiteke. Baina berriro geundeke hemen ezin gehiago harro daitekeen ustezko desoreka horren arrazoiak esparrian<sup>89</sup>.

Edonola ere, nahita sinplifikatutako eskema honekin jarraituz, fenomeno esanguratsu bat adierazi nahi genuke lapurterazko literatura erlijioso honetan, obren taxuketan antzematen diren planteamendu desberdinei dagokiena hain zuzen. Hitz gutxiz esanik, badirudi produkzio guztia formalki bi multzotan bana daitekeela: multzo batean elementu "poetikoa" (bertsoz osatutako obra sorta) biltzen duena, ahozko fenomenoari zuzenean atxikia, eta bestean hitz lauzkoa (itzulpenak, batetik, eta sormenezkoak edo, behinik behin, sormenerako bidean daudenak, bestetik)<sup>90</sup>.

Lehenengo begiradan zalantza ezinezko dirudien banaketa hau, alabaina, zaildu egiten da arazoa ahozkotasanaren munduarekiko loturen arabera planteatzen bada, hau da, testuen barneko izaerari eta dinamikari behatzen bazaio. Izan ere, dugun literatur urritasun honetan, erabateko itzulpenak ez diren obrek, uste baino lotura estuagoak erakuts ditzakete aipatu mundu eta fenomeno horrekiko. Horietako bat Axularren liburua izan daiteke.

89 - Edozein modutan, arrazoi bide du Urkijok hegoaldeko egoera urriaz honako hau dioenean: "parece difícil admitir, dadas las buenas disposiciones de D. Pedro Manso, que en tan largo espacio de tiempo no salieran a luz otras ediciones de la Doctrina Christiana en dialecto vizcaíno" (Urquijo 1923, 337). Betolazaren *Doctrina Christiana* (Bilbao, 1596) liburuz gain, esan nahi du.

90 - Horren aurretiko eredu kontrastagarrienak Etxepare eta Leizarraga ditugu. 1545eko Etxepare ahozkotasanarekin zeharo loturiko poeta dugun bitartean, 1571ko Leizarraga guztiz kontrakoa dugu: letraren eta kultura idatziaren adierazlea da. Batengan antzematen den freskotasuna eta askatasuna, bestearengan herstuera eta elementu landua bilakatzen da. Bata bere bertsoak aldatuak izan daitezen prest agertzen den bitartean -ahozko munduaren ezaugarri-, bestea aldatezina den Jainkoaren Hitzari lotuta dago erabat -idatzizkoaren morrontza.

**III.- AXULAR ETA  
ERRETORIKA:  
HIPOTESI BATEN  
OINARRIAK**

“Por muy escépticos que seamos sobre la influencia del aprendizaje escolar en el poeta o ficcionista, hemos de admitir que la formación retórica [...] repercute en las modalidades de la historia, la oratoria, la novela, el teatro y la lírica del Siglo de Oro”

E. Asensio

### 3.1.- ATARIKOAK

1.- Ezaguna da Axularren garaian asko areagotu zela karrera erlijiosoa hautatu zutenen kopurua, Elizak eskaintzen zituen aukerez baliatu nahirik nonbait. Mende eskas batean, XVII.ean alegia, 100.000 eliz gizon eta emakume izatetik 150.000 baino gehiago izatera iritsi ziren. Horren arrazoia Elizak apaiz bihurtzen zirenei eskaintzen zien estatus sozial eta pribilegioetan bilatu beharko lirateke nagusiki, nahiz eta arrazoi izpiritualak zituztenak ere ezin ahaz daitezkeen.

Oro har, arrunt bihurtua zen urte haietan pertsona xeheak -nekazaritza mundukoak batik bat- eliz gizonen artean nagusi izatea, ez baitzen inorentzat zailegi gertatzen estamentu hartara iristea: “[...] al contrario que el estamento nobiliario, el eclesiástico permanecía abierto a todos los medios sociales con escasas restricciones, al menos en teoría” (Gómez-Centurión 1994, 260).

Kopuru areagotze ez-kontrolatu horrek, dena den, ondorio latzak ekarriko zizkion Elizaren bizitzari. Batetik, ohituretan eta moralean erlajazio nabarmena hedatuko zelako eliz partaideen artean, eta, bestetik, prestakuntza eta jakiturari dagokionez, apaizak eta predikariak normalean gizon ez ikasiak<sup>91</sup> eta, zenbaitetan, zentzun izpirik gabeak zirelako.

<sup>91</sup> - Burke-k gogorarazten duen bezala, XVI eta XVII. mendeetan “muchos nobles y clérigos no sabían leer ni escribir, o lo hacían con mucha dificultad” (Burke 1991, 67)

Sermoietan, esaterako, eta hau da guri hemen interesatzen zaigun puntua<sup>92</sup>, zitekeena zen ez jakitea "afektu" direlakoak bereizten, ezta berauek motibatuzko zer egin behar zen ere. Lekukotasunen arabera, predikariek ez bide zekiten hizkuntza maila egokia aukeratzen, ez eta diskurtso mota edo gaia bera hautatzen ere. Horrelakoetan, jakina, entzuleak lokartu edo iharrausika hasten omen ziren.

Baina apaiz eta predikarien prestakuntzarik ezaz aparte, arazoa areagotu egiten zen sermoietarako erabili behar izaten zuten metodo eskolastikoagatik: adibide eta irudi konkretu batzuk kenduta, sermoiak lehorrak eta astunak bilakatzen ziren, *Summa*-tik hartutako pasarteak baitziruditen: definizioak, sailkapenak, bereizketak, etab.

Trenton modu nabarmenean ohartuko ziren apaizen prestakuntza falta horretaz<sup>93</sup> eta, ondorioz, predikari egokien eskasiaz. Hori zela eta, murriztu egingo zitzaizkien elizgizonen eginkizuna: fedea modu teorikoan defendatzen eta fedearen aurkakoak gezurtatzen aritu beharrean, asetikaren eginkizunna -errazagoa nonbait- bizkarreratut zitzaizkien. Horrela, apaizen lana kontzientziatzailea eta bizioak deserrotzera eta bertuteak landatzera mugatuko zen.

Baina horretarako ere, gutxieneko prestakuntza beharko zen, hain zuzen ere orduko elizgizonen ez zutena. Ildo horretatik, ez da harritzekoa orduko predikazio-tratatu gehienetan arazo horretaz diharduen atal bat aurkitzea. Adibide gisa, Juan Bonifacioren *De Sapiente fructuoso* (Burgos, 1589) liburutik jasotako hau:

"No hay cosa más desagradable que un sermón sin doctrina, sin erudición y sin estilo. El tiempo que habfan de dedicar durante los estudios a la Filosofía, a la Teología, a la Escritura, lo dedican algunos a copiar sermones ajenos, y aunque sus maestros les dicen que acudan a las fuentes y se las señalan, ellos se hacen los sordos y siguen haciendo su pacotilla, y se tienen por dichosos si logran reunir unos cuantos sermones y comentarios para llevarlos consigo a todas partes. Si en vez de eso se dieran a estudiar la Escritura y los Padres, verían que cada día predicaban mejor y que no les faltaba materia de repuesto, y verían también que no hay cosa más fea que citar autores que no se han leído y fiarse de copistas y libreros, que es la gente más embustera en materia de textos" (Olmedo 1960: cxxxii-cxxxiii)

Baina ez zen horretan bukatzen predikarien prestakuntza. Apaizgaitegietan lor zezaketen maila (ikus Martín Hernández 1964) bestelako baliabideekin aberastu beharra zeukaten. Terrones del Cañok mende hartako sentsibilitatea jasoz ongi adierazten duen bezala, ezinbestekoa zuen predikariak erretorikaren laguntza sermoien arzetan xedea, *movere* delakoa hain zuzen, lortu ahal izateko: [...] de las letras humanas no puedo callar la necesidad que el predicador tiene de saber Retórica" (*Instrucción...*, 33)

Erretorika, noski, mezua egokiro zabaltzeko tresnatzat hartuko zen. Eta Elizak bere helburuetarako aproposagoa zen formula eklesiastikoa baliatuko zuen, betiere erretorika klasikoa oinarrian zuelarik.

92 - Aipatua dugu dagoeneko Trentoko Kontzilioaz geroztik predikuak zuen garrantzia, igande eta jai egun guztietan, eta bereziki Garizuma eta Adbentuan, derrigorrezko bihurtu baitzen eguneko Ebanjelioari buruzko sermoia.

93 - Estatu espainiarrean ez zen hain larria izan egoera hori, Cisneros eta Talaverak burututako berrikuntzan predikarien prestakuntzak garrantzi handia izan baitzuen. Horren kariaz, elizak txiki geratzen hasi bide ziren predikarien sermoiak entzutera joaten ziren guztiak hartzeko. Adibide gisa, ezaguna da Garizuman Tomás de Villanuevak Salamancan egindako sermoien arrakasta (jende uholdeak bihurtu ziren katedralerako kaleak) eta ondoko oihartzuna (asko izan omen ziren erlijioso sartu zirenak) (Olmedo 1960, lv).

2.- Jakina da Erretorika ez dela bat izan historian barrena eta aplikatu beharreko arau edo aholku erretorikoek ere aldaketak izan dituztela garai eta tradizioen arabera. Alabaina, arrazoi du Mortara Garavellik honako hau dioenean,

"La Edad Media hereda el conjunto de los sistemas retóricos y poéticos greco-romanos como un bloque único, sin advertir los hiatos, y, menos aún, el fin de una época, en la ininterrumpida transmisión de la cultura antigua" (Mortara Garavelli 1991, 43)

Agertzen diren desberdintasunek eredu erretoriko desberdinez edo mintzatzeraz bultzatuko gintuzkete. Hain zuzen ere, generoen erabileran bertan antzemango da denbora berriekiko egokitzapena. Apologistak, esaterako, apologetikarako genero judizial-dialektikoaren ildotik abiatuko diren bitartean, egokiagotzat baitzuten, tradizio berriaren adierazgarri bihurtuko den Agustin Hiponakoak *sermo humilis* delakoaren ikuspuntu antirretorikoa garatuko du, izan ere estilo apala, moderatua eta garaia aholkatuko baititu mezu kristaua zabaltzeko, hirurak batera baina xede diferentekin (predikazioaz ari zen nagusiki).

Erretorika klasiko bezala ezagutzen denak, beraz, Erdi Aroko autoreek antze-man ez zuten bilakaera/aldaketa izan zuen, eta erretorika errenazentistari utzi zion tokia, klasikoarekiko desberdintasunak gero eta ageriagoan gelditzen zirelarik.

Desberdintasunok, gehien bat, ukitzen diren arloei dagokienez agertuko dira: sistema monarkikoen (ez-demokratikoen) nagusitasuna dela eta, erretorika errenazentistak ez du aukera gehiegirik aurkituko, behialako mundu klasikoak ohi zuen bezala, diskurtso politikoetan eta judizialeetan. Ordea, predikazioetan eta gutunetan izango du berezko esparrua. Aldi berean, inprentaren ondorioz lortutako liburuaren "demokratizaazioarekin batera, kreazio mundua areagotu egingo da eta erretorikak espazio berriak edirenen ditu, bere arauak idatzizko obra guztietara zabalduko dituelarik, genero poetikoa barne. Hedapen horretarako arrazoiak, irakaskuntzari zor zaio nagusiki, erretorikari diziplina gisa, jakina den bezala, berebiziko lekua uzten baitzitzaien humanitate ikasketetan (gramatika, poetika, historia eta filosofiarekin batera, hain zuzen).

Ikasketetan zeukan presentzia horrek eragin handia izango zuen gero idazleen prestakuntzan eta, ondorioz, haien obra idatzietan. Eta idazleak aipatzen ditugunean, produkzio idatzirako kultur munduak duen garrantzia baino ez dugu azpimarratu nahi, ez baiden ahaztu behar erretorikan eta honekin zerikusi handia zuten hainbat diziplinatan trebatutako pertsona askok irakaskuntzan, erlijioan eta, maiz asko, esparru politikoan ere presentzia nabarmena (eta eragina) izango dutela.

### 3.2.- AXULARREN OINARRIZKO PRESTAKUNTZAZ

Azken urteotan, XVI. eta XVII. mendeetako oinarritzko heziketa sistema ezagutzeko historialariek ahalegin bereziak egin badituzte ere, Kagan-ek (1981, 31) onartzen duen bezala, "behin-betiko" lanak eginkizun izaten jarraitzen du.

Halaber, guri interesatzen zaigun arlo geografiko-kulturalean aztertze lanak azken bolada honetan oro har areagotuz joan diren arren -gero eta gehiago dira, esaterako, Nafarroako herri eta hiri batzuetako alfabetatze eta eskolaratze arazoaz burutzen ari diren ikerketak-, ez da aurrerapenik izan Axularren jaioterri izan zen Urdazubi ingurukoei buruz<sup>94</sup>.

Ezer gutxi esan daiteke, beraz, Axularren haurtzaroko ikasketek, ez bada bestek adierazi dituzten jeneralizazioen errepikatze hutsa.

Nolanahi ere, Axularren funtsezko biografia taxuz osaturik ez dagoenean, nekez has daiteke inor oinarritzko heziketaren garrantzia gehiegi azpimarratzen, besteak beste, etorkizunean burutuko zuen liburuaren moldaketan eragin gutxi izan baitzezaketan haurtzaroko irakurketa eta idazketa ikasteko eskolek.

Ikasketei dagokienez, historikoki dakigun gauza ziur bakarra Salamancako ikasketekin lotutakoa baino ez da, hots, Teologian ikasi eta lortutako batxilergoarena. Hori eta, nahi bada, Axularrek jakitun handiaren irudia isladatu zuela orduko gizartearen aurrean, herri tradizioan haren izaera eta ospeari buruz gelditu diren ipuinek (Barandiaran, 1956a, 1956b, 1974; Satrustegui 1974) erakusten duten bezala<sup>95</sup>.

Errealitatearekin zerikusiren bat zeukakeen zerbait azpimarratzekotan, gaztaroan jaso zukeen heziketaren inguruko hipotesiak lirakeke, berauek izango baitziren Axularren urratsak apaizgora (eta teologia-ikasketetara) zuzentzeko faktore erabakiorre-ntarikoak, inondik ere.

Badirudi XVI. mendean irakaskuntzaren prestigioarekin batera, letren demokratizatorako dinamika berri bat zabaldu zela herri xehearen artean. Kaganek oroitaratzen duen bezala,

"[...] el deseo municipal y popular existente en el XVI de contribuir a la educación secundaria produjo un brusco ascenso en el número de escuelas de latinidad, hazaña no repetida en España hasta el siglo XIX" (Kagan 1981, 86)

Izan ere, orduan handitzat jotzen ziren herri gehienetan (500 auzakide baino gehiagokoetan) sortu ziren horrelako eskolak, XVI. bukaeran eta XVII. mendearen hasi-

94 - Berau litzateke, guri dagokigunerako, bide emankor bakarra, izan ere "la organización de la enseñanza de primeras letras dependía directamente en aquel tiempo de los ayuntamientos y de las parroquias" (Laspalas Pérez 1989, 181).

95 - Ildo horretatik, haren jakituriaren adierazle diren ipuinek baieztatu baino ez dute egiten Burkek dakarren azalpena: "Todo aquello que estaba fuera de la experiencia normal de la gente corriente, tenía una explicación extraordinaria. Ser, por ejemplo, una persona instruida era algo anormal y por ello esa persona debía tener, cuando estudiaba, una cabeza de bronce que respondía a todas sus preguntas" (Burke 1991, 250). Axularren kasuan, egoera ez-normal haren arazoia Salamancan deabruarekin ikasitakoan edota egindako itunean aurkitzen da nagusiki. Era berean, Axularri buruzko "Xapela mintzatzen" izeneko ipuinean brontzeko buruaren pareko bertsioa izango genuke.

eran lau mila inguru eskola eta hirurogeita hamar mila ikasle izatera iritsi zirelarik. Eta mediorik ez zegoenean, herriko apaizak berak hartzen bide zuen gramatika irakasteko egitekoa.

Latina ikastetik aparte, ikasketok lehenengo hurbilketa bat ere suposa ziezaioketen erretorikaren eremura eta, nola ez, idazle klasikoan obretara<sup>96</sup>, beti ere parametro erretorikoak "hirutasun sainduaren" ildokoak zirelarik<sup>97</sup>.

Gauzak horrela, zinez pentsa daiteke hasierako ikasketetan bertan egon zela present erretorika klasikoa. Alabaina, balirudike haren obra modelatzeko jasoko zituen formazioa (erretorikoa gehienbat gure intereserako) eta informazioa (libururako oinarri teologikoen bibliografia eta garaiarai hartan argitaratzen ari zirena) unibertsitatekoak eta -dik atera ondokoak (predikari gisa, ziurrenik) izan zirela nagusiki.

Bestalde, ezin ahaz daiteke unibertsitari izan nahi zutenen oinarritzko prestakuntzan hizkuntzen irakaskuntzak zeukan garrantzia.

Oro har, eta edozein teologogaik bezalatsu, Axularrek ere ongi frogatuak izan beharko zituen unibertsitatean sartzeko beharrezkoak ziren hizkuntza biak, ikasketa-hizkuntza zirenak alegia:

"Los requisitos de entrada en la universidad [...], dos de ellos han perdurado excepcionalmente: el primero, aún vigente, es el dominio de la lengua vernácula; el segundo, [...] es el conocimiento del latín" (Kagan 1981, 45).

Hizkuntza bi horiek<sup>98</sup> eskaini zizkion prestakuntzak Urdazubiko monastegian izan bide zuen hasiera, oinarritzko letretan lehenengo eta gramatika-eskolan edo parekoren batean gero.

Printzipioz, dena den, ezin har daiteke prestakuntza hau ez-ohiko gauza bat bezala, medio ekonomiko gehiegirik ez zuten gazte xehe askok jasotzen zuten zerbait bezala baizik. Are gehiago, monastegietara bideratuak baldin baziren, urdazubiarraren kasuan gertatzen biden den bezala.

Oro har, ikasleak ez ziren egiteko hauetan hasten zortzi hamar urte izan arte, hau da, irakurtzen eta idazten jakin arte, eta, jakina, oinarritzko alfabetatze hau ezin zitekeen garai hartan euskaraz izan, gazteleraz baizik. Normalean, ikaskuntza honen iraupena lau-sei urtekoa ohi zen. Beraz, hipotesi gisa ez bada ere, pentsa liteke oinarritzko egiteko horiek zeharo gaintututa zituela Axularrek 1587an Iruñean ordena txikiak jaso zituenean<sup>99</sup>.

96 - Austriarren garaian oinarritzko irakaskuntzaz haratago jo nahi zuten ikasleen prestakuntzaren ikasgai garrantzitsuenak latina eta haren gramatika baziren ere, ez da gutxietekoa erretorika, filosofia eta historia ikasten jartzen zen arreta berezia.

97 - XVI. mendean hizkuntz eta erretorika ataletarako Antonio Nebrijak idatzitako *Artis Rhetoricae Compendiosa Coaptatio ex Aristotele, ex Cicerone et Quintiliano* erabili ohi zen testu-liburu gisa, izenburuak zioen bezala aipatu "hirutasunaren" dotrina erretorikoan oinarritua. Irakurtzeko testuak ere autore klasikoak izaten ziren: Zizeron, Zesar, T. Livio, etab.

98 - Axularren kasuan benetan pentsa daiteke "vernácula"-k ez bide zituen gaztelera eta latina izan zirela kozkortu ahala ikasi eta landu zituena.

99 - Ez genuke urdazubiarraren adinari buruz oinarririk gabeko hipotesi gehiegirik egin nahi. Ezer egitekotan, ikasketetarako ohiko adina atzeratzen ausartuko ginatke Axularren kasuan, logikoa baita pentsatzea haren zirkunstantziak (hizkuntza, giroa, etab.) ez zirela aproposenak eskolarizazio normala eramateko eta hamabost-hamasei urterekin irakaskuntza mota hau bukatua izateko (Kagan 1981, 74-hk.). Honek, seguraski, ±1570ean edo jarriko gintuzke urdazubiarraren jaioturtari dagokionez.

Hortaz, badirudi logikoena dela pentsatzea monastegi honetan eman zituela lehenengo saioak gero unibertsitateko joateko ezinbesteko baldintza ziren hizkuntza biak ikasteko. Arlo akademikoari dagokionez bederen, euskarak ezin eskaini ziezaikeen inolako "oraindirik" ez eta etorkizunik ere.

Harrezkero, kultur erreferentzia nagusiak orduan ikasitako hizkuntza bi horien bitartez jasoko ditu Axularrek. Honek guztiak garbi adieraziko digu Axularren kultur dependentziaren lehenengo faktorea, izan ere testu idatziekiko dependentzia latin eta gaztelaren esparrukoa izango baita nagusiki. Puntu honen garrantzia nabarmena gertatuko da erretorikari dagokionez eta, nola ez, testu-eragin desberdinez gain, sintaktikoki ere euskararen erabilpenaz eta hizkuntz trokelajeaz den bezainbatean.

### 3.3.- ERRETORIKA KLASIKOAN BARRENA: ARTEETAN BATXILERGOA

"Para decir bien dicho el sermón, es menester saber Retórica [...] lo forzoso e inexcusable es saber Dialéctica y Filosofía Natural, Moral y Metafísica, y sobre todo Teología escolástica, muy bien sabida, so pena de perderse a cada paso; y Sagrada Escritura, mayormente en sentido literal; lección de Santos y otros autores graves que escriben comentarios sobre la Sagrada Escritura, o tratados o sermones"  
Terrones del Caño

Biografia sendo eta orokorra burutzen ez den bitartean, anekdotikoa eman dezake ez dakigunaz mintzatzeak eta hipotesitan aritzeak. Edonola ere, argigarri suerta daiteke Axularren prestakuntza erretorikoaren urratsak nolakoak izan ziren eraikitzea.

Jakin badakigu Axularrek Salamancan eskuratu zuena Teologia batxilergoa. Hortaz, hango "ikasketa planei" kasu eginez gero, zinez pentsa liteke Axularrek egokiro bete zituela hartarako eskatzen zitzaizkion baldintzak. Atzekoz aurrera eginez gero, lehenengo baldintza, hots, Teologian batxilergoa lortzekoa, Covarrubiasen estatutuen arabera<sup>100</sup> Arteetan batxiler bihurtzea zen<sup>101</sup>. Orohar, Salamancan Arteetako batxilergoa erdiesteko aipatu estatuetan honako ikasketa hauek burutu behar izaten zirela agintzen da:

"Iten, que ninguno pueda hazer se bachiller en artes, sin que primero aya hecho tres cursos enteros de Summulas, Logica magna, y Philosophia en tres años distintos, por manera que el año primero oya Summulas mas de seys meses, y en lo restante no pueda cursar en Logica, ni en otra facultad, y el segundo, que oya Logica, sin que pueda cursar en Philosophia, y en el tercero, en Philosophia, y en el restante del año, no pueda cursar en Theologia ni en Medicina, ni en otra facultad, sino en Philosophia moral en que han de cursar, juntamente con la natural" (apud Mitxelena Mz. de Ilarduya 1977, 64).

100 - Diego de Covarrubias, *Estatutos hechos por la muy insigne Universidad de Salamanca*, Salamanca, Juan María de Terranova, 1561, in Mitxelena Mz. de Ilarduya 1977, 61-hk.)

101 - "Iten el que quisiere hazer se bachiller en Theologia, o en Medicina, ha de prouar auer hecho los cursos de aquella facultad despues de bachiller en artes, o tener cursos para ser lo, sin la qual prouança no sea admitido" (apud Mitxelena Mz. de Ilarduya 1977, 64)

Eta edozein modutan ere bi urte terdi pasatu behar izaten zituen ikasleak Arteetako batxilergoa eskuratzeko: "por manera que passen dos años y medio distintos del que comie[n]ça a oyr, hasta que se haga bachiller" (*Idem*, 64).

Jakina, Arteetako batxilergoaren aurretik

"El que ouiere de hazer se bachiller prueue delante del Rector co[n] dos testigos idoneos, y fidedignos, cada cosa de las siguientes: como para el grado que deman[d]a ha cursado sufficientemente, y leydo diez lecciones, cada una mas de media hora, conforme a las co[n]stituciones, y estatutos de esta vniuersidad cursando en Salamanca, o en otra vniuersidad. Y declaramos que los cursos que no ouiere hecho en otra, los supla en esta vniuersidad, conforme a las co[n]stitucio[n]es della, así en la q[ua]lidad, como en el numero d[e] los dichos cursos.

Iten ha de mostrar como es examinado en Grammatica, y tiene licencia del examinador para passar a la facultad en que se quiere hazer bachiller" (*Idem*, 63).

Gramatikako azterketa ezinbestekoa zen eta unibertsitateko irakasle batek egin ohi zuen<sup>102</sup>. Jakina, gramatikako azterketa prestatzerakoan hasten ziren Erretorika arloko lehen urrats sendoak, bai autore klasikoak sakonago irakurtzen zirelako, bai erretoriko garrantzitsuenak aztertzen zirelako. Artazaren hitzetan,

"dentro del proyecto de educación humanística, la retórica constituía una disciplina estrechamente relacionada con otras materias y actividades, entre las que se encuentran el estudio de la literatura clásica, la traducción e interpretación de sus textos y la composición de obras de carácter literario u oratorio tomando los clásicos como modelos" (Artaza 1988, 22)

Jakina, honek Axularrek erretorikaren klasikoekin izandako lehenengo kontaktu sistematikoaren berri emango liguke. Eta "klasiko" hitz horren barnean ohiko "hirutasuna" egon ohi zen: Aristotele, Zizeron eta Kintiliano.

Gutxi gorabehera, hamabi-hamahiru urterekin hasten ziren Gramatika ikas ten<sup>103</sup>.

Honek guztiak, Axularren ikasketa-prozesua Salamancan burutua eta kronologikoki arrunta izan balitz, 1587. edo 1588. urtea izan zitezkeen ikasketa-hasierako urteak. Zitezkeen aukeren artean geratzen da, beraz, Itziar Mitxelenak aurkeztutako hipotesia, hots, "pentsa dezakegu, bada, 1587-88atik 1591eraino Axular artista egiten ari zaigula" (Mitxelena Mz. de Ilarduya 1977, 58), Urdazubiko monasterioan ikasle gisa azaltzen denean hain zuzen: 1588an "estudiante al presente estante en el dicho monasterio" (ikus Aguirre Gaztambide 1980, 407) eta 1591n "estudiante residente en la granja de dicho monasterio" (*Idem*, 408).

102 - Halere, kanpotik etorri gero, "mandamos [...] que si algun estudiante ouiere oydo Grammatica en otra vniuersidad, y truxere testimonio suficiente de como ha sido examinado, y tiene licencia para passar a otra facultad, y ouiere cursado en otra facultad, que no sea examinado en esta vniuersidad: pero no trayendo curso, sino solo el testimonio del examen, que sea examinado en esta vniuersidad: por manera que el testimonio solo sin curso no le valga para que no sea examinado en esta vniuersidad: y que si viniere graduado en qualquiera facultad, que no sea examinado en esta vniuersidad" (apud Mitxelena Mz. de Ilarduya 1977, 63).

103 - 1592-93 ikasturteko matrikula liburuan (AUSA 307), esaterako, "Gramaticos rectoricos: y griegos, año 1592 a 1593" atalean matrikulatutako ondoan askotan azaltzen da "menor de 14 años" edota "menor" soilik.

Baina gure autorearen izena Salamancako matrikula liburuetan azaltzen ez denez<sup>104</sup>, agian beste nonbait bilatu beharko lirateke haren ibilbide akademikoaren urratsak.

Hori dela eta, Salamancako matrikulazio liburuetan azaltzen diren informazio desberdinen arabera, Axularrek teologiako batxilergoa egiteko ezinbestekoa zuen arte-etako batxilergoa non burutu zuen susmatzeko bidean jarri gitezke. Hain zuzen ere, 1592ko azaroaren 14ean, hau da, Axular matrikulatu baino sei egun lehenago Izkoko Joanes izeneko nafarra lehen kurtsoan matrikulatu zen. Izenaren ondoan batxilergoa Huescan egin zuela adierazten da (AUSA 307, 91 i.)<sup>105</sup>. Gure kasuan frogatu beharreko hipotesia bada ere, ez dago zalantzarik Huescak<sup>106</sup> hurbiltasun geografikoa eskaintzen ziela nafarrei.

Edozein modutan, badirudi, Salamancako unibertsitatean indarrean zeuden Covarrubiasen estatutuen arabera, Axularrek demostratu egin behar izango zuela edo Gramatikako azterketa gauditua zeukala (Salamanca edo beste nonbaiten), edo Arteetako batxilergoa hasia/egina zuela.

Eta ez hori bakarrik. 1591n "Arteetan" emandako batxilergo tituluen arabera (AUSA 741), garbi dago ikasleen maila baloratzeko egokitu zitzaizkien "epaileak" garrantzi handiko irakasleak zirela. Bizpahiru kasu baino ez aipatzearen, honako hauek ekarri nahi ditugu hona:

- Mendaroko Andres Etxaberi, Jokanoko Pedro Ortiz-i eta Iruñeko Pedro de Alcoz izenekoari Fco. Zumel ("catedrático de Filosofía Moral") egokitu zitzaizen epaile nagusi gisa.

- Labaiengo Fernando Labayen eta haren anaiaren epailea Juan Alonso Curiel ("catedrático de Biblia") izan zen.

- Gasteizko Pedro Ochoa de Ali eta Barasoaingo Martin Sanz ikasleei Fco. Sanchez "Brocense" ("catedrático de Rectorica, jubilado") ospetsuak eman zien batxilergoa.

Honek guztiak argi adierazten du Arteetan batxilergoa eskuratzen ari zen bitartean erretorika klasikoaren oinarri sendoak eskuratzen hasia zela urdazubiarra, Salamancako unibertsitatean sartzeko Brozasekoaren eragina -eta haren liburuen irakurketa seguraski- ziurtaturik geratzen uste zelarik.

104 - Guk ere ez dugu Axularren izena 1587-88ko (AUSA 305) eta 1588-89ko (AUSA 306) matrikulen artean aurkitu.

105 - Bitxikerien libururako utzi beharko da pertsonaia honen nortasun zalantza. 1592-93 ikasturteko matrikulazio liburuan honako ohar hau tartekatzen da 1593ko urtarrilaren 22an: "Esta matr(icula)do Joannes de izco n(atura)l de izco y [...] tiene presentada la carta de bachiller parecio ser natural de ciligueta de la dioc(esis) de Pamplona y el curso que alli tiene probado dice ser del mismo pueblo, y aora de nuevo se buelbe a matricular y se llama joannes de ciligueta n(atura)l de ciligueta de la dioc(esis) de Pamplona" (AUSA 307, 100 i.).

106 - Izkoko Joanes de Yzco bezala agertzen denak 1592ko azaroaren 14an egin zuen matrikula 92-93 ikasturtean Teologiako lehen kurtsoa egiteko. Matrikula-liburuan oso garbi adierazten da "b(achiller) ar(tista) por Huesca" (AUSA 307, 91b) zela, hau da, ez zuela Salamancako Unibertsitatean bestelako frogarik burutu behar. Esaterako San Agustín komentuan "elocuente por su religión, ya que continuamente se leían Artes y Teología" (San Juan Urmeneta 1957, 49). Bertako Unibertsitatean Fray Pedro Malón de Chaide ibili zen Teologian Lizentziatura eta Doktoretza eskuratu arte; gero Eskritoretako irakasle gisa aritu zen zenbait urtez (1580-1583).

### 3.4.- PRESTAKUNTZA EKLESIASTIKOA (SALAMANCA 1591-1595)

Aurrekoan baino itxaropen gehiago agertzen du ikerleak honelako atal baten aurrean, besteren artean baliabide, idazki eta bide aberatsagoak dituelako Axularren prestakuntza teologikoa eta erretorikoa ezagutzeko.

Baina Axularren ibilbide biografiko-akademikoaren iluntasunak direla medio, gehiegi argitu gabeko suposizio bihurtu da azken urteotan Axularren presentzia Salamancan 1591-1595 bitartean. Eta izatez, baztertu egin izan dira bestelako ikerkuntz lerroak, Huescara bidera zezakeena, besteren artean. Izan ere - eta berriro digou: honako hau adibide bat baino ez da-, Huesca ere oso hurbil zegoen nafarrentzat; gainera, handik gero matrikula-trasladoak egiteko zailtasunik gabeko aukera eskaintzen bide zitzaizen bertan ikasitakoei.

Badugu honetan, noski, aipatu aukera biak erabat posible zirela agerian uzten duen aztamarik.

Jakin badakigu Axular 1594ean Teologiako 4. kurtsoan matrikulatzen dena (AUSA 308, 106 i.). 1592ko azaroaren 26an matrikulatzen denean (AUSA 307, 96 i.), ordea, ez da azaltzen zein kurtsoan matrikulatzen den, gauza harrigarria, bestalde, go-goan hartzen bada ikasle guztien lerroetan kurtsoa konsignatzen zela<sup>107</sup>. Bakar-bakarrik dakigu egun berean lehen kurtsoa egin nahi zuen Sancho de Agorreta artista-batxilergo iruñarraren ondotik eta 4. kurtsoa (Teologian?) egin behar zuen Bernardo de Ychasu iruñarraren aurretik matrikulatu zela<sup>108</sup> gure idazlea. Kontuak atzekoz aurrera eginez gero, 1592-93 ikasturtean Axularrek 2. kurtsoa matrikula egin zuela ondorioztatu beharko da. Horrek, jakina, 1591-92 ikasturtea ere Salamancan egin zuela pentsatzera eramango gintuzke<sup>109</sup>.

Nolanahi ere den, Salamancako unibertsitatean sartzeko Axularrek erabilitako bideaz atera daitekeen konklusioa honako hau da: urdazubiarrarena ez zela izan arrunta, besteena bezalakoa. Halaz ere, gero ohiko bidea jarraitu bide zuen, urte haietako fruitutzat izango baitzuen handik urte batzutura batxilergo gradu teologian.

107 - Axularren kasuan, ulertzen ez den "m" antzeko zirriborro luze-zabal bat baino ez da ikusten kurtsoa eta "b(achiller) ar(tista)" laburdurak agertu ohi ziren lekuan. Matrikula apuntatzen zuenarentzat bazukeen esanahirik, inondik ere.

108 - Zinez suposa liteke nafarrak elkarrekin joan zirela Salamancara, eta zaharrenek berriari lagundu ziotela matrikulatzen, lehena berria eta azkena beteranoena izanik. Axular, bien artean.

109 - Tamalez, ez da 1589-90, 1590-91, 1591-92 ikasturteetako matrikula libururik azaldu. Halere, kronologia paralelo batez balia gaitzke guzti hau egokiro baloratzeko. 1594-95 ikasturtean, Axularrek laugarrena egiten duen bitartean, Santxo de Agorreta ustezko lagunak 3. kurtsoa egingo du. Batxilergo diploma ere Axularrek baino ikasturte bat beranduago jasoko du: 1596ko martxoaren 10ean (AUSA 742, 151 i.). Hortaz, Axularrek 1591-92 ikasturtea Salamancan egin zuela pentsatzeak ez bide du zalantza gehiegirik aurkezten.

Baina horretaz guztiaz aparte, presentzia horrek Axularren estrakzio sozialaz ere zerbait adieraz diezaguke, ezin baitzen edonor Salamancara joan ikastera. Irakas-kuntzak sortzen zituen gastu arruntetatik at (matrikula tasak, egoitza, lan tresnak, etab.), kontutan hartu beharrekoak dira garai hartako familia batentzat hain zuzenak ez ziren kostoak ere, hots, seme batek orduko sistema ekonomikoan etxean egonik bere lanaz sor zitzakeen irabazien galera, Cipollak (1983, 31) "coste-oportunidad" deritzana. Horrek inondik ere familiaren estatus ekonomiko sendoa edota mezenasgoaren babesa eskatzen zuen.

### 3.4.1.- PRESTAKUNTZA TEOLOGIKO-MORALA

Felipe II.a egokituko zaio Axularri errege Salamancako garaia bukatu arte. Jakina denez, 1556tik 1598ra bitartean errege izango den monarka hau Lurreko erregerik ahaltsuena bihurtuko da, eta ja bere erregegoaren hasieratik beretik erakutsiko du autokraziaren zaletasuna eta eremu guztiak kontrolatzeko grina. Errege izendatze urtean bertan, Paulo IV Aita Sainduak, errege gaztearen ustezko ahuleziaz edo baliatu nahirik, Frantziako Henri II. arekin bat egiten duenean Felipe Italiatik jaurtikitzeko, honek amorerik ez emateaz gain, erantzun gogorra igortzen dio Elizarenak ohizko ziren eremuak ere kontrolatuz eta bere menpean jarritz. Horren adibidea da, esaterako, Salamancako Unibertsitatearena. Espainiako unibertsitaterik garrantzitsuenaren kontrola erregearen eskuetaran pasatuko da eta ez inoiz adierazi den moduan:

"[...] hay una preocupación e intervención tanto monárquica como papal desde los primeros momentos del estudio salmantino, atravesando distintas fases hasta llegar al siglo de oro de la universidad, en el que disminuye la autoridad papal y se afirma la autoridad monárquica" (Alejo Montes 1990, 186).

Kezka baino gehiago zen Felipe II.ak unibertsitatearekiko zuena. Haren interbentzionismoa hertsia eta erabatekoa izango da. Ez du ezertan erreparatuko "bisitari eta erreformatzaileen" artean unibertsitatearen kontrolak ihes egin ez diezaion. "Erreformatariak" estatutuak eta konstituzioak ongi betetzen direla ziurtatzeko bidaltzen ditu Felipe II.ak.

XVI. mendean, Felipe II.a munduko erregerik ahaltsuena zelarik, eta zelako, Salamancako Unibertsitatea, Espainiako goi-ikasketen zentrurik garrantzitsuena izatez gain, erreferentzia gunea bihurtu zen Europa eta Ameriketarako arlo teologikoan, juridikoan eta humanistikoan nagusiki. Ezinbesteko zuen, beraz, erregeak haren erabateko kontrola.

Ordurarte monarkiak ia kontrolatzen ez zuen alor horrek<sup>110</sup> Felipe II. arekin beste egoera berri bat ezagutuko du. Etengabe agertuko dira bisitariak unibertsitatean<sup>111</sup> eta berehala gauzatuko dira lehenengo erreforma tinko biak: Diego de Covarrubias-en era-

110 - Errege-Erregina Katolikoek 1480an bidalitako Tello de Buendía bisitari eta erreformatzailea, edota Juana Erreginak 1512an bidalitako Diego Ramírez de Villaescusa bisitaria ez ziren ongi hartuak izan Salamancan. 1538ra arte itxoin beharko da idatzirik ezagutzen diren lehendabiziko estatutuak Juan de Córdoba bisitariaren eskutik osatu arte.

111 - Besteren artean, Cano (1557), Hernán Pérez (1557), Montalvo (1559), Anaya (1560), López de Arrieta (1562), Villagómez (1564), Simancas (1566) eta Pedro Velarde (1574).

ginez lehena (1561), eta Juan de Zúñiga-rena bigarrena (1594)<sup>112</sup>.

Badirudi Covarrubiasen estatutuak aldatzeko arrazoien artean, unibertsitatearen antolamenduari buruzkoek gain, arazo akademikoekin zerikusia zuten arrazioak ere bazeudela, besteak beste, ikasketa planak egokitze beharra eta ikasgaien diktaketaren arazoa gainditzeko nahia (Cfr. Alejo Montes, 1990).

Axularrek Covarrubiasen estatutuen ildotik burutuko ditu bere ikasketak, baina esan behar da azken urteetan Zúñigaren erreformaren lekuko ere suertatu zela, nahiz eta 1594eko estatutu berriek haren ikasketetako azken ikasturtean<sup>113</sup> eragin zuzenik ez izan<sup>114</sup>.

Halere, ikasketa plan berria ikasgaiak kurtsoa eta hilabeteka prestatzean Covarrubias-enean oinarritu bazen ere, Zúñigarena zehatzago, osatuago eta, Axular bezalako teologia-ikasle kanpotarrentzat, zailago agertu zen. Berrikuntzen artean, esaterako, honako hauek zeuden:

"En la facultad de cánones introdujo una cátedra nueva, la de clementinas, y cambió la estructura de algunos de los cursos. [...] En teología aumentó los años para explicar las materias. Así, por ejemplo, la *Summa teológica* de Santo Tomás que con Covarrubias se explicaba en nueve años, con Zúñiga se necesitaban dieciséis" (Alejo Montes 1990, 194)

Axularren batxilergoa, beraz, Covarrubiasen estatutuek araututakoaren barnean burutu zen. Oro har, ongi lotuta zegoen teologia arloko prestakuntzari zegokion ikasketa plana, irakurri beharreko obrak eta aztertze eskaini behar zitzaizkien denbora estu araututa zeudelarik. Esate baterako, Santo Tomasen liburuak sakonki aztertzen ziren Prima, Bezperak eta San Tomas izeneko katedretan<sup>115</sup>.

112 - Azken erreformaren garrantzia garbi ikus daiteke izan zuen iraupenean: 1771n Carlos III.ak egindako zenbait aldakuntza kendurik, Zúñigarena hemeretzigarren menderarte mantendu da indarrean.

113 - Gogoratu Axularrek 1594eko azaroaren 29an egin zuela 4. kurtsoko matrikulazioa (AUSA 308, 106 i.) eta batxilergo-agiria 1595eko apirilaren 22an eskuratu (*Libro de bachilleramientos 1594-98*, AUSA 742: 143 i.)

114 - Gainera, Alejo Montesek dioen bezala, "faltan [...] comprobar si toda esta reforma se llevó a la práctica, o si por el contrario se convirtió en una reforma más. Faltan aún por estudiar algunos aspectos del sistema docente, como son el tema de las disputas, las repeticiones, los exámenes, los cursos, los grados académicos de bachiller, licenciado y doctorado [...]" (Alejo Montes 1990, 195)

115 - Diego de Covarrubiasen estatutuetako XII. tituluaren arautzen zen bezala, "se han de leer los quatro libros de las sentencias del maestro, como ma[n]da la constitucion, desta manera. Que se lea[n] las partes de sancto Thomas el primero año, desde la primera question de la primera parte, hasta la question cinquenta de Angelis. El segundo año, desde la question cinquenta de la primera parte, hasta el fin de la primera parte, y veynte y una quæstiones de la prima secundæ. El tercero año desde la questio[n] vigesima prima de prima secunde, hasta el fin de prima secunde. El quarto año, desde la primera question de secu[n]da secundæ, hasta la question cinque[n]ta y siete de iustitia & iure. El quinto año, desde la questio[n] cinque[n]ta y siete de secunda secunde, hasta la questio[n], centesima vigesimatertia de fortitudine. El sexto año, desde la questio[n] ce[n]tesima vigesimatertia, hasta el fin de secu[n]da secunde. El septimo año, desde la primera question de la tercera parte, hasta la question sesenta de Sacramentis. El octauo año, desde la questio[n] sesenta, hasta el de sacramento poenitentiaie inclusiue. El nono año desde la poenite[n]tia, hasta el fin del quarto, o addiciones" (apud Mixelena Mz. de Ilarduya 1977, 61).



Axularren garaian Primako katedran Domingo Báñez ospetsua aritu zen irakasle gisa (1581-1600). Hiru katedretako ikasgaiak anarkikoki gainjar ez zitezten, haien arteko antolamendua ere egokiro pentsatua zegoen<sup>116</sup>.

Oro har, eta aipamenei bestelako iturririk inolaz ere prejuzgatu gabe, klase hauetako lekukotasuna etengabe agertuko da *Gero*-n. Santo Tomasen aipamenak denetara 38 dira liburuan barrena aurki daitezkeenak.

Beste horrenbeste esan genezake Bibliaren erabileraz, izan ere haren irakurketa-klaseei dagokienez,

“El cathedratico de Biblia ha de leer un año Testamento viejo, y otro Testamento nuevo, siempre alternando. Y que libro aya de ser, el Rector por sant Iuan los señale ad vota audientium, para el año siguiente. Y cerca delo que ha de ser obligado a passar, el Rector consulte a uno, o a dos maestros en Theologia, y segun su parescer señale los capitulos que ha de leer en aquel año” (apud Mitxelena Mz. de Ilarduya 1977, 62).

*Geron* zehar agertzen diren aipamenei kasu eginez gero, askoz ere gutxiago isladatu da Axularren liburuan Nominalen katedran<sup>117</sup> eta Scotorenean<sup>118</sup> isuritako enragina.

Bestalde, Axularrek irakasle aldaketa eta hautaketarako prozesu guztia ezagutzeko parada izan zuen katedra garrantzitsu honetan, izan ere Fr. Marcos de Sepúlveda izenekoaren ardurapean zegoen katedra hau hutsik geratu baitzen 1593ko urtarrilaren 11an. Urte berean izandako lehiaketan Márquez agustinoak 231 botu iritsi zituen bitartean, Pedro Herrerak 263 botu eskuratu zituen, Escotoren katedra azken honen ardurapera igaro zelarik.

### 3.4.2.- AXULAR, IRAKASLE OSPETSUEN IKASLE

Zuzen-zuzenean irakaslegoari dagokionez, honako hauek izan ziren Axularrek Moral eta Teologiako klaseetan ezagutu bide zituenak:

Primako katedran Domingo Báñez ospetsua aritu zen irakasle gisa (1581-1600).

<sup>116</sup> - “Ha de auer este orden entre los cathedraticos de Prima y Visperas, y Cathedra de sancto Thomas. Que el año que el Cathedratico de Prima come[n]çare la primera parte, el de Visperas ha de començar la secunda secundae. Y el cathedratico de sancto Thomas el principio de la tercera parte: de manera que perpetuamente vayan distantes tres años de lectura entre las tres cathedras. Y este orden jamas se pueda peruertir” (idem).

<sup>117</sup> - “[...] lea el Cathedratico un auctor nominal, como Gabriel, o Marsilio. Y permitimos pueda leer Durando, esto ad vota audientium. El primero año ha de leer todo el primero de las sentencias. El segundo año, todo el segundo libro. El tercero, todo el tercero libro. El cuarto año, desde la primera distincion del quarto, hasta la distincio[n] veynte y tres de extrema vnctione inclusiue. El quinto año, desde la distincion veynte y quatro. de Sacrame[n]to ordinis hasta el fin del quarto, explicando siempre la letra del auctor” (idem, 62).

<sup>118</sup> - Arratsaldeko hiruretatik laurak bitartean irakatsi ohi zen Scotoren katedrari zegokionez, “El Cathedratico de Scoto, lea por el mesmo orden que el Cathedratico de Nominal, acabando en cinco años el auctor, el qual lo declare. Y si quando el Rector visitare esta cathedra hallare que la letra del Scoto se lee en summa y co[n]clusiones, y lee otro auctor, en cada visita sea mulctado en quatro ducados: sino que extensame[n]te sea obligado a leer la lectura y doctrina de Scoto, aun que en la resolucio[n] de la quaestion, no quede en la determinacion de Scoto” (idem. 62).

Bezperetako katedrako irakasleen artean Fr. Alonso de Mendoza azalduko da irakasgaiaren arduradun bezala 1591-94 bitarteko *Libro de bachilleramientos* delakoan (AUSA 741, 95)<sup>119</sup>.

San Tomasen katedran Diego Rodríguez Lencina (1567-94) eta Fray Agustín Antolínez (1594-96) agertzen dira titular moduan.

Bibliako katedran Juan Alonso de Curiel (1591-1600 bitartean)<sup>120</sup>, Axularren batxilergo-agirian azaltzen den berbera. Aurretik Fray Luis de Leon aritu zen katedra honetan.

Scotoren katedra: Fray Marcos de Sepúlveda (1591-93) eta Pedro de Herrera (1593-1601). Nominalen katedra: Fray Alonso de Luna (1591-96). Hemen nominalismoa irakasten zen Petrus Lombardusen komentadoreak irakurtzen zirelarik (Durand de Saint-Pourçain, Marsilio de Inghem eta Gabriel de Biel). Durand nominalistatza hartua izan zen bitartean (mendearen erdi alderarte edo) katedra honek “De Durando” zuen ezizena; tomistatza hartu ondoren, Marsilio eta Gregorio ziren irakurgaiak.

Francisco Suarez (1548-1617) ospetsuak urte batez Teologia irakaslearen ordezkio edo izan zen 1593-97 bitartean, *Disputationes metaphysicae* liburua eta beste bi argitaratu zituelarik.

Axularrek aipatzen duen Zumel “escuela nabusia” (*Gero*, 103), 1580tik 1601era arte Arteetako irakaslea izan zen, Filosofia Moral delako ikasgaiarena hain zuzen, nahiz eta teologia arloan Primako katedrari zegozkion liburua argitaratu zituen. Ildo honetatik, Axularrek Arteetako batxilergoa Salamancan egin zuela egiaztatzen ez den bitartean, badirudi ontzat har daitekeela Mitxelena Mz. de Ilarduyak idatzitakoa: “Ez gaitu harritu behar Axular Zumelen eskoletara joatea nahiz eta bere profesore ez izan, Florencio Marcos jaunaren iritziz hau maiz gertatzen zen, irakaslea famatua zenean” (1977, 60).

### 3.4.3.- EZTABAIDA TEOLOGIKOEN LEKUKO

Baina zuzenean jasotako prestakuntza teologiko horretaz gain, urte haietan Salamanca irakiten egondako eltzeta izan zen, etengabeak izan baitziren teologia ikasgu ospetsuena eztabaida teologikoak XVI. eta XVII. mendeetan.

Handienetariko bat baino ez aipatzearen (Villasante 1972, 34-37), *De auxiliis* bezala ezagutuko zena<sup>121</sup>, baina oro har fedearen eta obra onen balioa, predestinazioa eta “libre albedrio” delakoa eztabaidagai jarri zituena ekarri beharko genuke hona.

Luis de Molina jesuitaren *Concordia Liberi Arbitrii cum Gratiae Donis, divina praescientia, providentia, praedestinatione et reprobatione* (Lisboa, 1588) liburua zela eta, dominikoen, Salamancan Axularren irakaslea zen Domingo Báñez buru, Inkisizioaren *Index* -ean sartzeko kanpaina bortitza antolatu zuten. Ezaguna da 1594eko ekainean Clemente VIII Aita Sainduak berak hartu zuela parte gatazka teologiko horretan.

<sup>119</sup> - Badugu Juan de Guevara (1518-1600) izeneko agustino baten erreferentzia. Santo Tomas katedra izan zuen 1556an, eta, gero, 1565ean Bezperetakoa. Ez dakigu noiz arte, dena den.

<sup>120</sup> - Unibertsitatean oso ezaguna, Bezperetako irakasle eta Primako opositor bezala ere agertuko baita urteetan zehar.

<sup>121</sup> - Jainkoaren graziari buruzko eztabaida: *Controversiae de auxiliis divinae gratiae*. Dominiko eta jesuiten arteko eztabaida honetan nagusiki arazo hauek agertu ziren: predestinazioarena, “libre albedrio” delakoarena eta Axularrek ere bere obran modu esplizito baina pragmatiko batean tratatuko duen fedearen eta obra onen balioarena.

Arazoa, ordea, ez da 1607ra arte bukatuko, hots, harik eta Paulo V.ak haien arteko borroka eta elkarri doktrinaren desbideraketa leporatzea debekatzen dien arte.

Axularren lekukotasunak, liskarrean zebiltzanen erdi-erdian geratuko zen Zumel mertzedarioaren ildotik<sup>122</sup>, *Gero*-n izango du islada. Villasantek dioen bezala, "toki horretan [Zumel-en aipamena agertzen den tokiaz ari da] Axularrek azaltzen duen guztia *controversiae* famatu haien oiartzuna eta funtsa baizik ez da" (Villasante 1972, 34).

### 3.4.4.- SALAMANCA, KULTUR GUNE ETA ARGITALTOKI

Salamancakoa "[...] con estudiantes de casi todas las partes del reino, era además la única universidad internacional de España, gracias al elevado número de portugueses que se matriculaban cada año" (Kagan 1981, 254)

Egiatzko kultur gune diren ohi bezala, horrek guztiak Salamanca argitaltoki garrantzitsu bihurtu zuen. Teologia arloan, esaterako, gogoratzekoa da Axularren irakaslea izan omen zen Francisco Zumel-ek honako liburu arrakastatsu hauek argitaratuak zituela bertan ikasle zein predikarien erabilerarako: *In Primam Secundae S. Thomae commentaria*, bi lib. (Salamanca, 1584) eta *De Deo ejusque Operibus, Commentaria in I.P.S. Thomae Aquinatis*, I (lehenengo 1588an eta gero, zuzendua eta gehitua, 1590ean) eta II (Salamanca, 1587). Honako hau, Villasanteren ustetan, Axularren obraren eragile edo izan zitekeen. Liburu hauetan agertzen diren kuestioak, oro har, Primako katedran erakusten ziren gai garrantzitsuenen ingurukoak dira.

Aszetika eta mistika arloko liburuetakoa *inventio* atalaren osaketari dagokionez, ezin da ahaztu 1563an Salamancan argitaratu zela *De locis Theologicis* liburu. Hiru urte lehenago hil zen Melchor Canoren obra honetan Errebelazio eta Tradizioaren barneko fede-iturriak salkatzen ziren zeukaten garrantzi erlijiosoaren arabera. Batzuentzat metodo teologikoaren egiazko iraultza ekarri zuen bitartean, beste batzuentzat Akinatearen *Summa*-ren parekoa zen liburu. Edonola ere, garai hartako elizgizon guztiak ezagutzen zuten liburu bilakatu zen.

Era berean, arrakasta handikoa izan bide zen 1589an Salamancan bertan argitaratu zen *Valeriu Maximi Dictorum factorum(ue) memorabilium exempla* liburu. Axularrek zuzenean ezagutzeko aukera izan zuela ematen duen arren, erreferentzia bakarra egingo du *Gero* guztian zehar.

Beherago aipatuko den Francisco Suarez-ek ere izan zuen argitalpen garrantzitsurik Salamancan, nahiz eta urdazubitarrak ordurako batxilergoa eskuratua zeukan: *De Sacramentis*, lehen tomoa (1595) eta, batik bat, *Metafisica* (1597) liburu mardul gorai-patua.

Horiez gain, eta ospe handiko beste idazle bat aipatzeko, erantsi dezagun Fray Luis de León-ek argitaraturikoak ere ezagunak izan zitzaizkela Axularrek. Honakoak izan ziren 1595erarte Salamancan argitaraturikoak: *In Cantica Cantorum explanatio* eta *In psalmum vigesimum sextum explanatio* (1580-82) eta *De utriusque Agni typici atque inmolationis legitimo tempore* (1590). Halere, orduan ere arrakastasuenak -edizio

122 - Egia esan, Bañezek berak ere Zumelen ideiak onartuko zituen, honek eztabaidaren argitasunerako idatzi zituenak gorai-patuko zituelarik.

kopuruari begiratzeko bazeaio behinik behin- honako hauek izan ziren: *De los Nombres de Cristo* (Salamanca, 1583, 1585, 1586, 1587) eta *La Perfecta Casada* (Salamanca, 1583, 1586, 1587, 1595).

Berdin esan genezake erretorika arloko bibliografiari dagokionez. Izan ere, Francisco Sanchez Brocenseak 1588an argitaratu zuen Salamancan *Organum Dialecticum et Rhetoricum cunctis disciplinis utilissimum ac necessarium* liburu<sup>123</sup>. Baina honetaz zehatzago mintzatuko gara beherago.

Bestalde, ezaguna da, gero zenbaitetan Axularren erreferentzia gisa agertuko zen Luis de Granadaren obra zatirik handiena Salamancan argitaratua izan zela urte haietan. Denetara 1579tik 1600era bitartean 164 inprimaketa egin baziren Granadaren obra desberdinenak, horietatik 71 Salamancan burutu ziren, besteak beste *Guía de pecadores* 3 aldiz, *Libro de la Oración y Meditación* 5 aldiz, *Introducción al Símbolo de la Fe* 14 aldiz, etab. (Ikus Sastre 1993, 68-69). Axularrentzat ezin eskuragarriago, beraz. Berdin haren *Sylva locorum qui frequenter in concionibus occurrere solent* liburuari dagokionez (Salamanca, 1584).

Aurreko guztiarekin, Axularrek *Gero* burutzeko ezagutu eta erabil zitzaizkeen liburu garrantzitsuenetarikoa eskura izateko aukera izan zuela azpimarratu nahi genuke, bai teologiari dagokionez nola erretorikari. Ezin bazter daiteke, bestalde, ondoko urteetan argitaratutakoak ere Axularrengana iritsi zitezkeela baieztatzen duen hipotesia. Halere, hori guztia eta bibliografia espezialduaren segimendua Axularren obran atzeman daitezkeen egileen eragina aztertzeke beste lan espezifiko batzuen eginkizuna izan beharko da.

### 3.4.5.- SALAMANCA, EUSKALKIEN BILTOKI

Salamanca, alabaina, ez zen bakarrik prestakuntza erretoriko eta eklesiastikoaren gunea izan. Axularrentzat Gaztelerriko hiriburua hura euskararen errealitate linguistikoaren erreferentzia ere bihurtu zen hango egonaldian ikaskide izan bide zituen euskaldunei esker.

Gaur egun dakigunagatik, euskalki guztietako hiztunak ezagutzeko parada izan zuen bertan. Izan ere, euskal lurralde gehienetako ikasleak biltzen ziren Salamancara urtero, matrikula erreferentzi gisa agertzen ziren sorterrak eta elizbarrutiak (Iruñea, Baiona zein Calahorra) erakusten duten bezala.

Baina bildu diogunean ez ditugu inolaz ere ahaztu nahi ikasleen artean, jatorrien arabera eta nolabaiteko "aire" propioa arnastu ahal izateko, sortzen ziren elkar-teak. "Kofradia nazional" izeneko horietatik zaharrena edo zaharretakoa "bizkaitarra" zen, hots, euskaldunena (ikus Rodríguez-San Pedro Bezares 1986, 573). Honek, zer esanik ez dago, euskalkien ezberdintasunez ohartzeko tresna suertatuko zen askorentzat.

Kofradia horien informazio zehatzagorik ezean, hona hemen, egoera orokor haren ideia bat izateko, Axularrekin batera Euskal Herritik Salamancara joanak agertzen zaizkigun zenbait lagun, batzuk beste kurtso batzuetakoak badira ere (ik. AUSA 307 eta 308<sup>124</sup>):

123 - Egia esan, ez zen lehen edizioa izan, lehenago ere publikatua baitzuen antza denez, Lyonen 1579an esaterako.

124 - AUSA 307 (1592-93 ikasturteko matrikula liburu) eta AUSA 308 (1594-95 matrikula liburu).



**Iruñeako elizbarrutia:**

Izena	Heria	1592-93	94-95
Joanes de Achega	Usurbil	1. kurtsoa	3. k.
Lazaro de Urquiza	Motriku	1. k.	
Pedro de Egurbe	Orbaizeta	1. k.	4. k.
Pedro de Ajular	Urdazubi	?? (= 2. k.) <sup>125</sup>	4. k.
Leon de Ustarroz	Tafalla		4. k.
Antonio de Garobe	Iruñea		
Felipe de Urbizu	Idiazabal	2. k.	3. k.
Fernando de Labayen	Labaien	2. k.	4. k. (entzule)
Pedro de Ortez	Villafranca	2. k.	4. k.
G. Fdz de Murugarren	Morentin	2. k.	
Miguel de Salinas	"Garisoayn"	2. k.	
Martin de Vergara	Elizondo	2. k.	
Bernardo de Ychasu <sup>126</sup>	Iruñea	4. k.	

**Calahorrako elizbarrutia:**

Izena	Heria	1592-93	94-95
Fco de Chavarria	Otxandio	1. k.	
Santiago de Ybarra	Elgoibar	1. k.	
Julian de Gortazar	Durango	1. k.	
J. de Garaondo	Urduña	1. k.	
Joan de Yurre	Markina	1. k.	
Manuel de Munain	Agurain	1. k.	3. k.
Joan Ortiz de Jocano	Jokano	1. k.	
Nicolas de Lustondo	Oñati	2. k.	
Fco. de Chavarria	Oñati	2. k.	
Joan de Urbina	Andagoia	3. k.	3. k.
A. Lpz. de Meñano	Urbina		

**Baionako elizbarrutia:**

Izena	Heria	1592-93	94-95
Joanes de Yurbide	Don. Lohitz.	1. k.	3. k.

Ildo beretik, Teologi-batxilergorako azterketa Axularrekin batera (egun berean esan nahi da, 1595eko apirilaren 22an alegia) burutu zuten euskaldun batzuk baino ez aipatzeagatik, Fco. de Chabarria oñatiarra eta Gregorio Fdz. de Murugarren morentindarra genituzke. Eta ez ditugu hona ekarriko beste ikasketetan matrikulatuak edota gra-

125 - Beste ikaslegai guztien ondoan kurtsoa eta ikasketak oso ondo adierazten diren arren (normalean "ba", "bachiller artista" alegia), ez dago bat ere garbi zer adierazten duen matrikula-liburuan Axularren ondoan jarritako zeinuak (lauzpabost hankako "m" antzeko bat). Beste nonbaitetik (unibertsitate batetik ziurrenik) etorritako ikaslea zela eta azterketaren zain geratzen zela agian?

126 - Kurtso desberdinetan izan arren, Bernardo de Ychasu eta Sancho de Agorreta Axularrekin batera matrikulatu ziren azaroaren 26an. Salamancara ere elkarrekin joan zirela pentsa liteke.

duatuak, euskaldunen presentzia ezinago handia izan zela adieraziko bailukete zenba kiek<sup>127</sup>.

Jakina, honek guztiak euskal hizkuntzaren errealitate anitza hurbildik ezagutzeko beta eskaini bide zion Urdazubikoari, nahiz eta ongitxo dakigun latina eta gaztelera izan zirela ikasketetako hizkuntzak.

**3.5.- ORATORIA SAKRATUAREN BIDEETAN**

Bestelako daturik ez den bitartean, Axularren prestakuntza oratorioaz esan daitekeena urte haietan argitaratu eta zabaldu egin ziren tratatuekin lotua joango litzateke nagusiki. Hori dela eta, esku-liburu horien artetik, bereziki bospasei autorerenak ekarri nahi genituzke hona Axularren egitekoa hobeto zentratzeko eta ulertu ahal izateko, eta zenbaitetan Axularren obrarekin erakusten dituzten antzengatik.

Alabaina, liburu hauen ustezko eragin praktikoa ez zen ezinbestez pentsa zitekeen bezain zuzena eta erabatekoa izaten. Longère-k dioen bezala, "il y a selon nous deux écueils à éviter quand on aborde ce sujet [...] Le second consisterait à exagérer l'influence des *Artes* et à croire que tous les prédicateurs obéissaient à leurs lois" (Longère 1983, 195-196). Horregatik, metodologikoki arreta handiz jokatu beharko litzateke eraginaren hipotesiak eta azaltzean. L.J. Bataillonek erantzen duen legez:

"[...] les manuels proprement dits de prédication, les *Artes Praedicandi* [...] ils ressortissent plus à la formation première du prédicateur qu'à son travail de composition proprement dit. On ne conduit pas avec son code de la toute ouvert sur son volant. Il y aurait d'ailleurs à étudier de plus près les rapports entre ces règles théoriques et leur application réelle" (Bataillon 1982, 217; azpimarrak gureak dira).

Nolanahi ere, badirudi Salamancako garaietakoak izan zirela Axularrek gaztelera eta latinez ezagutu zituzkeen erretorika sakratuko lehenengo liburuak, apaizen eta predikarien artean zebiltzan predikazio liburuskak eta tratatu antzekoak (inprimatuak zein inprimatu gabeak) barne<sup>128</sup>. Gehienak, ikusiko den bezala, ez urrutiegi elkarrengandik eta bai maiz asko elkarren osagarri.

Sarritan errepikatu izan da Salamancan irakasten zen erretorika erabat klasikoa zela, autore klasikoetan oinarritua. Izan ere, Trentoko garaietatik ezarria zegoen testu ofiziala Alfonso García Matamoros-ena zen (*De Ratione Dicendi*, 1548), hirutasun klasikoaren planteamenduetatik inolaz ere aldentzen ez zena. Geroago ere, Zizeronen eta Kintilianoren erretorikaren ildotik abiatuko da Alcalako unibertsitateko katedradunaren *De methodo concionandi* (1570) erretorika sakratuko liburua.

Bestalde, Matamorosen erretorikarekin lehian zebilen Fco. Sanchez Bro-

127 - Bestetan graduatutakoan artean, esaterako, zerrendak beterik daude euskal lurraldeetatik joandako ikasleekin. Oro har, argigarriak izan daitezke honako datu hauek: Salamancako Derecho Canónico Fakultatean bakarrik, 1570-1620 bitartean Iruñeako elizbarrutiak batuz beste 50-99 inguru ikasle izan zituen etengabe (Kagan 1981, 252-253).

128 - Normalean liburuei ezer berririk erantzen ez zioten apunte modukoak ziren. Bartolome de Carranzaren iritziz, baziren "tantos papeles sobre predicación como glosas sobre la bella malmaridada" (ik. Olmedo 1960, cxlv). Sermoiak egiteko aholkuak eta arauak izaten ziren esku artean zerabiltzaten dokumentu horien gaia, eta, dena esateko, ez beti onak.

zasekoa Erretorika katedraren arduraduna suertatu zen Axularrek Salamancan pasatutako urteetan. 1594rako Brozasekoa jubilatuta bezala agertzen den arren (AUSA 741, 157), horrek ez luke ezeztatuko Axularrek zuzenean -irakasle gisa agian?- ezagutzeko izan bide zuen paradaren hipotesia<sup>129</sup>.

Edonola ere, haren eragina Axularrenean zuzena izango ez balitz ere, bistan da garai hartan Salamancan erakutsi, ikasi eta, ondorioz, erabili egiten zen erretorikaren adierazlea zela. BBaina ba bide dira bestelako "adierazleak" ere erretorika arloan eta, plan teamendu erlijiosoetatik egiten diren neurrian, guri interesatzen zaigunetik hurbilago daudenak. Jakina, guztiek ez zuten agian eragin zuzenik izango saratarraren obran, baina hark bizi izan zuen aldi eta gizarte hartako gako erretoriko-asetetikoak argitzen lagun lezakete ziurrenik.

Zinez pentsa liteke, esaterako, Axularrek Diego de Estella eta Luis de Granadaren obrekin<sup>130</sup> aztertu eta ikas zuela erretorika eklesiastikoa, izan ere haien tratatuen argitaratze datak eta arrakastak berak hori pentsatzera eramango baikintuzkete zalan-tza gehiegirik gabe. Granadarenak, gainera, bestelako ziorik ere izango luke hipotesi horri tinkoago eusteko: Axularrek, demostratu den bezala -eta hemen ere demostrazio hori area-tingotzen saiatuko gara, eurrez erabili zituen Granadaren obrak, gustukoak zituelako non-bait; beraz, eta zeharka izan bazen ere, hau da, haren *Rhetorica Ecclesiastica* irakurri izan ez balu ere, garbi dago obrekin batera estiloa eta idaztanka ere xurgatu zizkiola hari. Honako hau nahiko izango litzateke Granadaren *Rhetorica* gogoan hartzeko eta urda-zubiarraren erretorika moduak argitzen hasteko.

Hortaz, eta labur bada ere, ikus ditzagun aipatu autore hauek eta garai hartako erretorikaren, predikazioaren eta idazki aszetikoen nondik norako nagusiak.

1.- Axular Salamancaratu zenerako, pertsonaia ospetsu eta erakargarri bihurtua zen Francisco Sanchez Brozasekoa. Haren izaera kritikaren kariaz, era guztietako arazoak jasan behar izan zituen urteetan barrena, ikasleen artean latina erabiltzearen aurkako jarraiek sortuak batik bat, baina baita erretorika klaseari zegozkionak ere<sup>131</sup>.

Unibertsitatean izandako presioak, alabaina, ohiko erretorikaren irakaskuntzaren bideetatik baneratu zuen Brozasekoa, horrek guztiak erretorika eklesiastikoan izan-zago zuen eraginarekin:

"Con la confesión y promesa de sumisión del Brocense ante el claustro se decidió el futuro

129 - Irakaslearen ospearean erakargarritasuna areagoturik aurkituko zen Inkisizioarekin izan zituen prozesuak zirela eta. 1593an hain zuzen heriotzaren ondoren jarraituko zuen bigarren prozesua ireki zion Inkisizioak Brozasekoari.

130 - Lanean zehar Granadaren Erretorikako liburutik hartutako aipamenak XVIII. mendean Jose Climent, Barcelonako gotzaiaren aginduz burututako gaztelarazko itzulpenaren argitalpen ezagunenaren arabera emango ditugu, hots, *Los seis libros de la retórica eclesiástica, o de la manera de predicar*, Madrid, Biblioteca de Autores Españoles, 1945, XI. vol., 488-642 or.

131 - 1571ean, Erretorikako katedra erdietsi baino lehen, esaterako, Unibertsitateko errektorordeak haren aurkako salaketa aurkeztu zuen: "El lic(encia)do Sanchez conviene que amoneste en público y aca en casa a los colegiales a que hablen latin, y que no murmure de los autores, ni de los otros maestros porque tomarán mal exemplo de los de casa y que en lugar de su retórica y toros libros de gramática les lea a Cicerón y a Quintiliano muy de propósito y que les tome cuenta de la lection de prima de Rhetorica, que no se la toma, y que no ande en opiniones contrarias a los modos de los estudios que tiene recibidos y usados de la universidad" (González Urbano de la Calle, Pedro, *Vida profesional y académica de Francisco Sánchez de las Brozas*, Madrid, 1922, 101 or.; apud Martí 1972, 67-68).

de la retórica sacra y forense, un futuro de estacionamiento con casi ningún esfuerzo serio para su renovación. Evidentemente esto iba a repercutir en la práctica de la predicación y en las defensas forales de los abogados y demás oradores, tanto para el resto del siglo como para el siglo XVII" (Martí 1972, 71)

*Organum Dialecticum et Rhetoricum cunctis disciplinis utilissimum ac necessarium* liburuarekin logika eta erretorika arloetan sakontzera etorriko zen Brozasekoa, nahiz eta beti arituko zen berezko izaera kritikoren ildotik<sup>132</sup>.

Brozasekoak ez du, jakina, erretorika berririk asmatzen; halere oso pertsonala da erretorikaren parte desberdinen tratamenduan eta jartzen dituen adibideetan. Ez dirudi, dena den, predikazioaren egokitzapenerako inspirazio iturriak behar zituztenengan eragin handiegia izan zuenik; ez beste batzuen bezain handia behinik behin.

Guztiarekin ere, badu Axularren obrarekin zuzenago uztartzeko baliagarria izan daitekeen aholku bat, espreski nabarmenduko baituu Brozasekoak beti pentsatu izan duela interes eta ardura handiagokoa dela besteren obrak imitatzen idaztea, nork bere obra ekoiztea baino<sup>133</sup>. Badirudi, eta horretaz ere esango da zerbait aurrerago, Axularrek moldaketaren alor hori ongitxo jorratu zuela.

2.- Garrantzi gehiagokoa dirudi teknika erretorikoa predikazio arlora zuzentzen ahalegindu zen Diego de Estella (Lizarrakoa zelako, baina izatez Diego San Cristobal izenekoa zen) frantziskar nafarrak. Inportantziaren arrazoiak bitara muga litezke: batetik erretorika eklesiastikoari buruzko liburu arrakastatsu bat argitaratu zuelako, orduko predikari gehienek ereduia izan zena, eta, bestetik -aurreko atalean tratatuarekin lotuz- Salamancan bertan plazaratu zuelako. Liburua *Modus concionandi* (1576) izenekoa zen eta ohartarazi beharrekoa da mundu erlijioso kultuan eta Salamancako Unibertsitatean liburu honek izan zuen garrantzia<sup>134</sup>.

Diego de Estellaren *Modus concionandi, et Explanatio in Psalm. CXXXVI* liburu hau Salamancan<sup>135</sup> agertu zen eta izan zuen arrakasta obrari ematen dion izaera praktikoa eta sakratuan datza nagusiki, hain zuzen ere predikariak behar eta eskatzen zutena eskaintzen baitzuen liburuak.

Obrak dituen berrogei kapituluetan barrena, predikariaren eta predikatze lan-bideari buruzko gogoeta, aholku eta aginduak eskaintzen dira, seermoiak nola egin jakiteko. Lizarrakoak ongi ezagutzen du kristauen errealtatea eta konponbide zehatzak eskaini nahi dizkio predikariari. Liburu praktikoa izango da, beraz. Oro har,

"Diego quiere establecer y afianzar el nuevo modo de predicar que no era más que una sincera simplificación del pesado método tradicional; simplificar y hacer el contenido agradable a los

132 - Horren lekuko izango da, esaterako, *inventioa* eta *dispositioa* Dialektikaren barnean kokatzea eta ez Erretorikaren parte bezala. Erretorika *elocutio* eta *actio* atalek osatuko lukete haren iritiz, eta horrela eskainiko ditu obraren hirugarren liburuan tratatzen dituenen. Ordurako, bere *De Arte Dicendi* liburuan argi utzia zuen erretorikan bide berria urratzeko asmoa zuela, metodo tradizionala, Kintilianorena eta beste hainbat klasikorena alegia, alboratuz.

133 - "Maiores semper credidi diligentiae aliena scripta retexere quam nova proprio Marte componere" (*De Arte*, 49 or., apud Martí 1972, 81)

134 - Lizarrakoaren ospea gaztelaraz argitaratu liburuetara ere hedatu zen, horren adibide bat *El libro de la vanidad del mundo* (Salamanca, 1581; bi liburukitan, hots, bi partetan banatua) izan zelarik.

135 - Idatzi, gaztelaraz idatzi bazuen ere, argitarapena latinez eman zuen. Gero erreinprimatua izango zen makina bat bider: Venecia, 1584; Köln 1586, 1587, 1594 eta 1611 (azken bi hauek Granadaren *Rethorica*-rekin batera); Salamanca, 1596, etc.

oyentes, únicamente aplicando las reglas más básicas de la retórica" (Martí 1972, 201)

Oinarri gisa, eta Luis de Granadaren ildotik, Diego Lizarrakoak garbi uzten du ezinbestekoa dela predikariaren etengabeko prestakuntza: "Quiere Dios que los predicadores estudien y no lo remitan todo a la oración"<sup>136</sup> (II. kap.; Cfr. Olmedo 1960, lxxxvi).

Estellak garbi du, beraz, predikariak ikasi egin behar dutela. Aldi berean, eta planteamenduari dagokionez, beharrezko ikusten du, Eliza katolikoak erakutsi eta batik bat frantziskarrek egiten zutenaren ildotik, bizio eta bertuteei buruz predikatzea, betiere Santo Tomasen gidaritzapean.

Oro har, liburua oso erabilgarria izan zen orduko predikarientzat denetarik eta modu errazean azaltzen zelako: sermoiak prestatzeko teknika (8. kap.), digresioak zer ziren eta nola puz zitezkeen (9-10. kap.), Eskriturako digresioak, konparazioak, autoritateak eta adibideak nola bilatu (11-14. kap.), digresioak bukatzeko erreprentzioak nolakoak eta nola egin behar ziren, hitzak eta zainduz, eta ez edozein modutan (15-16. kap.); digresioak edo kontsiderazioak gehitzeko, jarri beharreko kasuek kontutan har dezatela gaitzen erroak soberbia, abarizia eta lujuria direla; bertuteez aritzekotan, kasu errealek ekarri behar direla sermoira (17-18. kap.), etab.

Berbaldiaren formari dagokionez, Diego de Estellak argi uzten du gauza onak modu onean (estiloa eta konposizioa) esan behar direla jendeak ere atseginez har ditzan, baina inolaz ere ez txisteekin. Bide egoki gisara konparazioak, parabolak, alegoriak eta kolore erretorikoak aholkatzen dira. Horrekin batera, predikariak era erretorikoak erabili behar omenditu entzulearengana iristeko eta haren barnea hunkitzeko, besteak beste, bigarren pertsona batekin mintzatuko balitz bezala monologatuz (bere buruari esango balio bezala).

Era berean, dotorezia eskatzen dio predikariari hizkuntza erabiltzean, hots, erromantze ona eta hiztegi aberatsa behar da predikuan. Horretarako ona da "tratar con hombres bien hablados y cortesano y hurtarles su buen romance, y leer libros de buen estilo y romance. Y nótese que en este juego también se puede perder por carta de más como de menos, porque como es defecto ser avizcainado y corto en hablar, así es defecto muy grande ser charlatán y parlero" (Olmedo 1960, XCV).

Jakina, liburua izan zuen arrakasta, predikarientzat suposatu zuen lanen erraztean zetzan, teoriarekin batera adibide konkretuak ere agertzen ziren eta.

Hori zela eta, aurretik izandako beste edizio batzuek aparte, 1594ean Kolonian berrargitaratu ziren Estellaren hau eta ondoren ikusiko dugun Granadaren *Rethorica*, Lizarrakoarena Axularrek Salamancatik alde egin zenean berriro argitaratuko zelarik bertan, 1596an hain zuzen.

3.- Nolanahi ere den, Axularrengandik eta haren planteamenduetatik hurbilago gertatzen bide da Granadaren *Ecclesiasticae Rhetoricae* edo *Rhetorica Ecclesiastica* obra, hain zuzen ere frogatuago geratuko dira-eta sarartuak harenganako duen mirespena eta, aldi berean, zor testuala. Beraz, zeharka balitz ere, balirudike Luis de Granadaren erretorika eklesiastikoak present egon behar duela ezinbestez Axularren obran.

<sup>136</sup> - Gazteleraz ematen diren aipamen hauek Olmedok zeukan jatorrizko bertsiotik hartuak omen dira. Eskuizkribuak, alabaina, *Modus predicandi* omen du izenburu.

Granadakoak hasieratik beretik utziko du agerian erretorikako artearen beharra oratoria sakratuan: "tengo por cosa indignísima, que un empleo tan noble, tan necesario en la Iglesia, y el más difícil de todos, se ejerza sin ningún principio ni regla" (*De la Retórica eclesiástica* 494 or.). Horrela, liburua helburua predikariaren eskuetan erretorika egoki bat ipintzea izango da.

Granadaren obra erretorika klasikoa kristau bihurtzeko lehenengo saiakera izango da: "Fray Luis de Granada[...] tratará en su retórica de descubrir un camino intermedio fundiendo las teorías clásicas con lo que en la práctica se debe encontrar el predicador" (Martí 1972, 25-26).

Horretarako eta predikariaren prestakuntza egokia izan zedin, modu berezian azpimarratu zituen irizpide garrantzitsuenak, hots, egile probetxugarrienen irakurketa, nor bere esperientziaz baliatzea, dotorezia naturalez mintzatu eta idaztea eta lexikoa aukeratzea.

Planteamendu erretorikoari dagokionez, erretore klasikoen (Zizeron, Kornifizio, Kintiliano eta San Agustín) dotrinan oinarritzen da haren ekarpena oro har, hori bai predikaziora egokituz eta autore sailduen adibideak areagotuz. Izan ere Elizako Gurasoen aldeko jarrera erakutsiko du liburua zehar, ereduak honako saildu hauenak proposatzen dituelarik: Krisostomoa, San Basilio, San Gregorio Nazianzeno, San Jeronimo, San Zipriano eta, batez ere, San Agustín (*De la Retórica*, 496 or.).

4.- Gauzak horrela, aipamen berezia merezi du 1579an, Barcelonan, Tomas Trujillo fraide dominikarrak argitaratu *Thesauri concionatorum libri septem* liburua. Argi azalduko da bertan predikazioa bideratu behar dela kristauek bertuteak ikasi, ohiturak egokitu eta bizimodua zuzen dezaten, eta erabat aparte utzi behar direla diskisizioetan aritzea, jende xume eta letragabekoak ez baitu horrelakoetatik onik ateratzen, alderantziz baizik: zalantzak eta asaldurak areagotzea da sarritan lortzen dena.

Bestalde, argi uzten da predikariak *docere, movere, deleitare* helburuak lortu behar dituzenez, figurek, historiek (sermoi bakoitzeko bat edo bi, jendea aspertuxe dagoenean), profeziek (entzulegoa unkitzeko), Testamentu Berriak, kontzilioek (daukaten aginteagatik), sailduen dotrinak, filosofoen erranek, ... osatu behar dituztela sermoiak.

Obraren arrakastak bigarren liburuki bat ekarriko zuen 1583an, eta, harri-garriro, Axularrek erabilitako hitzak bezalakoak izango ziren Trujillok Barzelonako go-tzaia zen Juan Dimas de Loris-i egindako eskaintzan idatzitakoak<sup>137</sup>: "No me he dado prisa a publicarlo porque quería ver cómo era recibido el primero" (apud Olmedo 1960, cxvii).

5.- Orobat, Axularrengandik hurbil dagoen planteamendua erakusten du 1589an Jesusen Lagundiko Juan Bonifaciok kideei zuzendutako gutun sorta gisa osatu eta argitaratuko zuen *De sapiente fructuoso* (Burgos) liburua.

Haren iritziz, sermoia *docere, movere, deleitare* printzipioen inguruan mugitu behar da, ezin baita ona izan deleitatzen ez duen predikua. Halere, edergarriekin lortzen den "deleite" hori ondo neurtua izan behar da, gehiegikeriarik gabekoa, entzuleria ase ez dadin. Hori dela eta, paralelismoak, similikadentziak eta bestelako baliabide erretorikoak

<sup>137</sup> - "Hunec (lehen parteak) cer iragaiten den, cer beguitarte içaiten duen, eta nor nola mintço den, avisu eman diaçadan. Guero avisu haren arauaz, ethorquiçunerat governatceco: Eta bigarren partearen camporat atheratceco, edo barrenean guelditceco eta estaltceco" (*Gero*, 16)

zuhurki erabili behar dira. Fray Luis de Granadaren antzera burutu behar omen da predikua, armoniaz eta leuntasunez. Haren ustez, metaforak eta konparazioak bezalakorik ez dago deleitatu eta kordokatzeke.

Predikariak aipa ditzakeen autore profanoen artean, Platon, Aristotele, Seneka eta Plutarko jartzen ditu Bonifaziok; poetak oso bakanka baino ez omen dira aipatu behar (3. lib. 4. gutuna). "La historia es cosa más digna, y de ella se pueden sacar saludables enseñanzas" (apud Olmedo 1960: cxxxiii)

6.- Oso adierazgarria da, bestalde, Francisco Terrones del Caño doktore eta gotzainak idatzitako *Instrucción de predicadores* liburua. Kronologikoki 1605erako idatzirik bazegoen ere, 1617an argitaratuko zen. Zinez pentsa daiteke, hortaz, Axularrek nekez ezagutu zezakeela Granadan izenburu luze honekin argitaratutako hura: *Arte o Instrucción, y breve tratado, que dize las partes que á de tener el predicador Evangelico: como á de componer el Sermon: que cosas á de tratar en él, y en que manera las á de dezir*. Edonola ere, garai hartako oratoria sakratuaren erreferentzia zen heinean dakargu honetara.

Ez da Granadarena bezalako erretorika, aholku sorta bat baino ez baitirudi: "es un término medio entre una retórica y un tratado pastoral de predicación" (Martí 1972, 210).

Lau tratatuz osatzen den liburu honetan azpimarragarria da Erretorikari eskaintzen zaion garrantzia, espreski adierazten baita hasiera-hasieratik haren beharra: "Para decir bien dicho el sermón, es menester saber Retórica" (Terrones del Caño, *Instrucción*...., 18). Eta, Erretorikaren premia inori oharkabea pasa ez dakion, berriro azpimarratuko du aurrerago ere: "Solamente de las letras humanas no puedo callar la necesidad que el predicador tiene de saber Retórica" (Terrones del Caño, *Instrucción*...., 33).

Predikariaren prestakuntzaren oinarria, bestalde, honetan letzake:

"Lo forzoso e inexcusable es saber Dialéctica y Filosofía Natural, Moral y Metafísica, y sobre todo Teología escolástica, muy bien sabida, so pena de perderse a cada paso; y Sagrada Escritura, mayormente en sentido literal; lección de Santos y otros autores graves que escriben comentarios sobre la Sagrada Escritura, o tratados o sermones" (Terrones del Caño, *Instrucción*...., 19)

Erretorikaren erduez den bezainbatean, horrelakoetan ohikoak ziren Aristotele eta Kintilianoren presentziaren ordeztuak, Zizeronen *De Oratore*, Horazioren *Ad Pisones* agertuko zaizkigu. Horrezaz gain, ikasteko gidaliburu gisa Fco. Sánchez Brozasekoaren arte laburra eta Horazioren *Arte Poética* aholkatuko ditu, San Agustinen *De Doctrina Christiana*.-rekin batera.

### 3.6.- AXULAR, PREDIKARI

Panorama erretoriko honen azalpen orokorrak Axularren predikari lanbidea irudikatzea eta ulertaraztea zuen helburu konkretu. Izan ere, jakin badakigu Axularrek prediku eta sermoien munduan eman zituela lehenengo pausuak eta hartan hartu zuela "ofizioa", gero idazle moduan agertzean erakutsiko zuen ezagutza erretoriko teorikoaz gain, liburuaren moldaketa praktikoa ahalbidetuko zuena hain zuzen.

Predikari gisa agertutakoaren lekukotasuna Endrike IV.arena berarena izango da:

"Il nous a esté remonstré de la part de notre cher et bien aimé Pierre d'Achular pbre gradué en Théologie, natif du lieu d'Urdach de notre royaume de la Haute Navarre, qu'il y a environ cinq ans qu'il est résidant en France au bourg de Saint Jehan de Luz au bailliage de Labourt, où durant led. temps il a presché la parole de Dieu au gré et contentement de l'évesque et gens de bien dud. pays" (Urquijo 1911, 554) (azpimarrak gureak dira)

Azkueren eskutik ere iritsi zaigu Axular predikariaren berri ematen duen eskutitza. Lahetjusan apaizaren idazki honetan gure idazle predikariaren bizitzaren zenbait zertzeladaz aparte, sermoilari gisa izandako dedikazioaz ere mintzatzen zaigu, pasadizo umoretsurik falta ez delarik:

"Il prechoit le matin a S. Jean de Luz et le soir a Sare les fêtes et dimanches, a l'exemple de son predecesseur qui avoit été pareillement curé de S. Jean de Luz et de Sare. Comme il faisait après vèpres, a son ordinaire, une homilie sur le bon Pasteur, une femme lui cria du milieu de l'auditoire, jauna, arçain onac ardiac goyçetic alhaçen tu.

- Hemendic harat nic ere nereac hala eguinen ditinat.

Effectivement, il renonça a la curé de S. Jean en faveur du Cadet d'Urtubie son competeur" (Azkue 1925, 61).

Horrek erakutsitakoaren ildotik, eta hipotesi historiko gisara bada ere, zinez pentsa daiteke mendebaldean zegoen predikari egokien eskasia areagotu egiten zela erlijio katolikoaren aurkako kontrakarra egon zen tokietan. Ipar Euskal Herria konfrontazio-gune berezia izan zen heinean, predikariak ere mailakoak behar zuten izan. Ez da, bada, ziurrenik kasualitatea Axularrek Saran jarraitzea, nahiz eta Harostegik erretore izateko eskubide gehiago izan. Bestelako arrazoirik ukatu gabe, eta Sara konfrontazio-gunearen paradigma zen neurrian, predikaririk onena (jakituria eta euskalkiagatik, behinik behin<sup>138</sup>) eta trebeena behar zen harako. Axularrek Donibanen demostratua zuen dohaia, urte luzez erakusten jarraituko zuen gero Saran.

Haren hitzak berak ere -apaizetan duten topikotasuna ahaztu gabe- egiteko horren lekuko garbia lirateke:

"Zeren hark -Ioannes Baptistak, alegia- predikatzen zuen logea, fedea eta Iainkoa predikatzen eta eskiribatzen dugu guk ere" (Gero, 572).

Predikari lan horrek ezinbestean bideratu behar izan zuen geroagoko lana, idazteari ekitean burutuko zuena alegia, eta guztia, adierazia dugun bezala, tradizio konkretu batean txertatzen zelarik, gaztelarazko oratoria sakratuaren barnean garatu zen predikazio edo sermoien esparruan.

<sup>138</sup> - Ezin bestelako fideltasun eta zintzotasunei buruz hitzegin, ez baita susmatutako ildoko dokumentazioz aurkitu.

**IV.- GERO-REN HARI  
NAGUSIAK**

#### 4.1.- LIBURUAREN PROBLEMATIKA

Liburuaren problematikaz iharduteak duen funtzio nagusia aztertu nahi denaren testu-erreferentzia finkatu eta agertzean datza. Honako honetan ezin argiago dago zein izan behar zen erabil zitekeen testua. Obraren eskuizkriburik ez egotean, egilea bizirik zegoenean argitaratutako hartara bideratu behar da aztertzailerak, 1643kora, ondoko edizioa, bigarrena hain zuzen, prestatzeko aukerarik ez baitzuen izan 1644an zendutako egilea.

Baina erabili argitalpenaren dataz gainera, badira zenbait puntu liburu baten azterketan eta literaturaren historian oso garrantzitsuak direnak, hala nola testuaren finkapenarena, edizioaren ardurarena, ale-kopuruarena, etab.

Jakina, luze mintza liteke *Gero* liburuak erakusten dituen alde ilun eta argitu gabeko horiez. Halere, honako honetan bizpahiru puntu baino ez genuke azpimarratu nahi, nagusienetarikoa originaltasunari dagokiona delarik. Besteak, aurre-atzetik doazenak alegia (hala nola testuaren finkapenarena, edizioaren gora-beherena, ale kopuruarena, etab.), aipatu horren inguruan uztartzen eta ulertarazten saiatuko gara.

Edonola ere, argi gera bedi egun daukagun datu eskasia dela medio, nekez mintza daitekeela horretaz guztiaz hipotesien esparru irristakorra ukitu gabe.

##### 4.1.1.- ARGITALPENAZ

Asko izan dira joan den mendetik hona *Gero* liburuaren edizioez sortutako eztabaidak eta buruhaustekak, betiere normalizat jo daitekeenaren ildotik alabaina. Alde batetik, lehenengo edizioko ale gutxi kontserbatu zirelako, eta, bestetik, ia lehenengoa bezalako bigarren edizio bat datarik gabe kaleratu zelako.

Ezaguna da lehen eta bigarren edizioen datari buruzko errakuntza-nahasmendu garrantzitsuenek, Vinsonek argitu zuen bezala, Larramendiren hiztegia dutela iturri: "Larramendi, que tous les Bibliographes ont suivi, dit qu'elle est de 1642 «ainsi qu'il résulte des approbations et licences» (*Dicc. prol. t. I, p. XXXV*)" (Vinson 1891 [1983, 88]).

Badirudi Chahok ere nahikotxo nahasi zuela euskaltzaleen mundua ikusi omen zuen 1640ko edizioaren berria plazaratu zuenean: "M. Chaho, dans un petite notice sur Axular (*Voyage en Navarre, etc.*, chap. VIII, p. 313), dit que le *Gueroco guero* fut publié en 1640; aurait-il vu la première édition?" (Michel 1857: 1983, 474, oharra).



Baina nahasketa benetan "konfirmatzen" hasi zen, Axularren liburuaren bigarren edizioa, izatez datarik gabe kaleratua, Francisque Michel euskaltzaleak 1642ko datarekin eman zuenean. Gauzak diren bezala aitortzeko, Michelek eskaini zigun fitxa bibliografikoari bere baitatik ateratako emaitza kronologikoa erantsi ziola esan behar da, liburuan ez zetorrena hain zuzen: "... Bigarren edicionea corrigetua, eta emendatua, Borliburuan ez zetorrena hain zuzen: "... Bigarren edicionea corrigetua, eta emendatua, Borliburuan ez zetorrena hain zuzen: "... Bigarren edicionea corrigetua, eta emendatua, Borliburuan ez zetorrena hain zuzen: "... Bigarren edicionea corrigetua, eta emendatua, Borliburuan ez zetorrena hain zuzen: ..." (Michel 1857: 1983, 474, oharra) (azpimarra gurea da). Ba omen zen, beraz, 1642koa baino lehenagokorik.

Jakina, edizioaren arrarotasunak<sup>139</sup> ere adituek ziotenaz fidatzera eramaten zuen euskaltzaleen mundua.

Nolanahi ere den, joan zen mendearen bigarren erdialdean euskal letren arloko ikerketa hasberrien irristakortasunari bizkarra emanez, Vinson bera izango zen, bestetan bezalaxe eta arrazoiketa simple baten bidez, lehenengo edizioaren argitaratze data ongi bezain irmo finkatuko zuena:

"Larramendi, que tous les Bibliographes ont suivi, dit qu'elle est de 1642 «ainsi qu'il résulte des approbations et licences» (Dicc. prol. t. I, p. XXXV). Mais ces approbations sont de décembre 1642; elles devaient avoir été écrites, suivant l'usage, après la lecture du manuscrit, puisqu'elles étaient destinées à amener l'imprimatur; donc, le livre n'a pu matériellement être publié avant 1643. Or c'est incontestablement là la date de la première édition" (Vinson 1891: 1983, 88).

#### 4.1.2.- ARGITARATZE KONTUEZ

Interesgarria litzateke edizioaren aurretik eman ohi ziren urratsez bizpahiru hitz gogora ekartzea, tramiteak ez baitziren gaur egun iruditzen zaizkigun bezain errazak. Eta, hau da azpimarratzekoa, denbora luzea eskatzen zuten.

Espanian burutu behar zen lehenengo pausua, gaiaren arabera esleitzen zitzaizkion zentsoreen aprobazioa eta lizentzia lortzea izan ohi zen. Horretaz gain, behin testua onartu eta gero, vikario episkopalak ematen zuen lizentzia eklesiastikoa bilatu behar zuen egileak. Estatu frantsean berdintsu jokatzeko: "[...] ces approbations [...] devaient avoir été écrites, suivant l'usage, après la lecture du manuscrit, puisqu'elles étaient destinées à amener l'imprimatur" (Vinson 1891: 1984, 87).

Axularren obraren kasuan zentsoreak Salvat de Dissaneche eta Pedro d'Urthubie Teologian doktorea izan ziren, beti ere Baionako gotzaia zen François Foucquet-en aginduz. Lizentzia eklesiastikoa Perriquet bikario orokorrak (nagusiak?) luzatu zion.

Horrezaz gain, inprimatzeko behar ziren baimenak eskuan izan arren, egileak akordio batera iritsi behar izaten zuen inprimatzailearekin ere. Normalean, bidea honako hau ohi zen:

"[...] de no contar con el mecenazgo de algún potentado que, en recompensa de una dedicatoria elogiosa, ayude a cubrir los gastos de publicación, lo normal era que un librero aceptase editar la obra a su costa a cambio de la cesión de la exclusiva dada por el privilegio. Si consigue el dinero, pasa a concertar con el impresor las condiciones de edición de su obra mediante un contrato en el que se

139 - "Malheureusement on n'en a conservé que quelques rares exemplaires, et l'édition de 1642, la seule qui existe, est, comme nous l'avons dit, defectueuse et remplie de fautes" (Michel 1857: 1983, 474-475)

especifica la calidad del papel, el tamaño de la plana, su número de líneas, el tipo de letra con que se ha de componer, quién ha de encargarse de la corrección de pruebas, el tiempo máximo que se tardará en sacarla a la luz, el número de ejemplares de cada tirada y, por último, el precio definitivo de la edición" (Bouza Alvarez 1994, 239)

Ezin da ahaztu, halaber, egilearen eta inprimatzailearen arteko kontratu horiek argitalpenaren gainean egileak mantendu nahi zuen kontrol motaren erakusgarri ere bazirela. Chartier-ek dioen bezala, "al referirse a los caracteres, al papel, a las planchas y, a veces, al formato, estas convenciones atestiguan claramente la voluntad de los autores de establecer su autoridad sobre el modo de circulación de sus textos" (Chartier 1996, 64).

Gero-ri dagokion bezainbatean, une honetan edizioaren datu objektiboak baino ezin jakin ditzakegu, prezioa, tiradaren ale-kopurua, argitaratzeko erabili denbora eta frogen zuzentzailea ezkutaturik geratzen baitira.

Vinsonek besteren artean eskaintzen dituen ezaugarririk garrantzitsuenak honako hauek dira<sup>140</sup>:

"In-8° de 623 p. (chiffrés 621) eta (viii) p. n. ch.- Signatures de A à Rr; A n'a que 8 p., B est à la p. 9, C à la p. 25, D à la p. 41, etc.- Dimensions: hauteur des pages 130 mm 5 (titres courants compris et signatures non comprises); justification 70 mm (86, 5 avec les manchettes)" (Vinson 1891: 1983, 87).

Ildo honetatik, Euskaltzaindiak berriki faksimilean argitaratu liburuan (1988koan, alegia) ikus daitekeenez, zehatza da Vinsonen erreferentzia: liburuak 621 orrialde ditu ondozkaturik, baina orotara 623 dira idatzitakoak (439 eta 440 orrialdeak errepikaturik daude); horrez gain, orrialde zuri bat eta aurkibideko VIII orrialde zenbakirik gabek. Vinsonek adierazten ez duena da orrialde bakoitzak 30 lerroko testu luzera duela.

Nabarmentzekoa da lehen edizio honetan oinarrituta agertuko zela bigarrena ere. Bordelen eta inprimatzaile berarenean burututako datarik gabeko hau funtsean lehena bezalakoxea gertatu zen. Izenburu moldaketaz gain, dauden bestelako aldeak zuzentzeko eta hutsune betetzeak baino ez dira.

Bestalde, obraren inprimatze prozesuari buruz interesgarria da aipameneren erreferentzien azterketak eskaintzen duen datua, obra burutzeko moduz mintzatzen dena hain zuzen. S. Joan Krisostomoa egilearen izenak berak sortutako akatsa izango da pistak eskainiko dituenak: "Chry.", "Chrys.", "Chrysos.", "Chrysost.".

Liburuan barrena, testuaren jatorria adierazteko "hom.", "serm.", "concio." (= sermoia, homilia,...) laburdurak erabiltzen ditu Axularrek Krisostomoaren erreferentzia gehienetan. Lehenengo 49 orrialdeetan, aldiz, inprimatzaileak "hom." jarri beharrean, guztietan "to.", "tom." idatzi zuen, erreferentzian geroago zetorren egiazko "tomoa" izenarekin konfundituz eta Krisostomoaren izenarekin nolabaiteko lotura baileukan: "Chrysos. tom.", "Chrysost. tom.", "Chry. tom.", "Chrys. to.".

Alabaina, S. Joan Krisostomoaren erreferentzietan erabateko aldaketa antzematen da 50. orrialdeetik aurrera, handik aurrera ez baitziren konfundituko "hom." eta "tom." laburdurak eta aipameneren erreferentziak<sup>141</sup> (berrogei bat) egokiro emanak baitaue

140 - Lacombek ere lehenengo edizioak "623 + VIII pages non chiffrées" dituela esatean (ik. Lacombe 1943: 1956, 365), lehen edizioa ematen du aditzera.

141 - Behin bakarrik egingo dute huts "t" bat jarri (157 or.), nahiz eta beste behin "St" batekin "H" larria bihurtu dutela dirudien (ik. 420 or.)

de harrezkero.

Honek gauza asko adieraz lezake ziurrenik, baina batto da guk hemen azpimarratu nahi duguna, hots, Axularren obra erabat burututa ez bazegoen ere, lehenengo orriak inprimatzeari ekin zitzaioela. Egilea edo zuzenketen arduraduna inprimatutako akatsez ohartu arren, ezin izan zuten aldatu gaizki inprimatuta zegoena -plamak burututa baitzeuden ordurako-, baina bai handik aurrerakoa. Horren adibidea Krisostomoaren erreferentzietan gertatu aldaketa da. Liburua bukatutakoan eskuz egiteko utz zitzaketen zuzenketok, halere ez ziren ezagutzen ditugun edizioetan burutu.

#### 4.1.3.- ALE KOPURUAZ

Egun oraindik ezer gutxi dakigu garai hartan euskarazko liburuetan plazaratu ohi zen ale kopuruari dagokionez. Egia esan, liburuek berek eskaintzen dutenetik at zail da horretaz inolako informaziorik aurkitzen. Eta Axularren *Gero* liburuaren lehen edizioa ez da salbuespena.

Oro har, beraz, Europan barrena erakutsitako inprimatze jokabideak ditugu informazio iturri bakarrak.

Dena den, gurera nekez estrapola daitezkeen datuak badira ere, argigarri suerta daiteke Escarpitek mendebaleko Europan argitaratu ohi ziren aleei buruz dioena:

“La tirada de los primeros incunables fue de unas cuantas centenas de ejemplares. La tirada media de los libros no pasó de 1.000 ejemplares hasta mediados del siglo XVI. En el siglo XVII oscilaba entre 2.000 y 3.000, y a ese nivel siguió hasta fines del siglo XVIII. Salvo excepciones, con la prensa de mano era difícil rebasar esas cifras” (Escarpit 1968, 22)

Zehatzagoak dira -eta guretzako interesgarriagoak!- Chartierrek Frantziarako ematen dituen datuak:

“[...] se pudo establecer la escasez duradera del número de títulos impresos en el reino de Francia: entre 500 y 1.000 para los siglos XVI y XVII, sólo 2.000 al final del Antiguo Régimen” (Chartier 1993, 15).

Eta hori hiztun asko zuten hizkuntzetan gertatzen bazen, ezin espero zitekeen gehiago inguru hauetan, non alfabetizazio arazoaz gain liburuaren prezioari aurre egiteko ahalmenak ere txikiagotu egiten baitzuen irakurleen multzoa.

Orduko Lapurdiko aberastasun ekonomikoa gorabehera (XVII. mendeko loraldi ekonomikoa zela eta, agian hemen beste tokietan baino jende gehiagok eros zezakeen argitaratzen zen gutxitxo), frantsesen artean omen zegoen alfabetizazio tasa<sup>142</sup>

142 - Egia da garai hartako alfabetizazio datuak aski irristakorrak direla jeneralizatzen hasteko. Burkek berak, esaterako, toki batean honako hau esaten badu ere: “El actual departamento francés de los Altos Alpes daba, a finales del siglo XVII, un 45 por 100 de alfabetizados, el doble del promedio nacional” (Burke 1991, 72; azpimarrak gureak dira), aurrerago zera dio: “[...] sólo el 29 por ciento de los adultos sabía leer a finales del siglo XVII” (*idem*, 123). Nolanahi ere den, Burkeren hitz hauek ontzat hartuz gero, eta derrigorrezko aldeak ahaztu gabe, esan genezake % 22-29 bitartean zegoela helduen batz besteko alfabetizazio kopurua.

euskaldunontzat ere onartuz gero<sup>143</sup>, nekez espero zitekeen irakurleria konpaktu eta zabal-egirik, nekez, beraz, ale kopuru handiegirik argitalpenetan.

Horri, gorago esan bezala, liburuaren prezioa erantsi beharko litzaioke; irakurtzen zekiten askok eta askok *olporteur*-ek saltzen zituzten orri, paper eta almanakeak nekez ordain bazitzaketen, zenbatek ordain zezaketen 630 bat orrialdeko liburu bat?

Hortaz, aipatu errealitatea alboratu gabe, eta handik hirurogeita hamar urtera egin behar izan zuten edizio berria gogoan harturik, ez dirudi bidegabekeria denik *Gero*-ren lehen argitaldia chunkada gutxikoa izan zela pentsatzea.

Edonola ere, egia da erretorearen ospeak eta salmenten espektatibak berak nabarmenki areago zezakeela ohiko argitalpenei zegokien ale kopurua. Baina hori ere domestratzeko geratzen da.

#### 4.1.4.- BESTELAKO ARAZOEZ

Ezaguna den bezala, testu finkapenaren arazoa, Axularrek berak iragarri zuen bigarren parte ikertzaile askok *Gero* liburuaren lehen parte bakarrik izan nahi zuenaren banean sakabanaturik ikusi zutenean planteatu izan zen. Oro har, liburuaren koherentzia eskasak eta ustezko gai-nahasmenduak, parte biak elkarrekin eta obra bakarra osatzen ikustera eraman zituzten ikertzaileak.

Baina hori arazo gehiagoren abiapuntua baino ez zen izan, hipotesien esparrua zabaldu baitzen haren ondoren. Hurren-hurrengo obraren azken ardura (eta egiletza parte bat, noski) norena zitekeen planteatzea izan zen. Horrela, Axularren agindua ikusita (bigarren liburukia egingo zuela, alegia) eta haren osasun egoeraren aurrean<sup>144</sup>, plazaratzeke utzi nahi zuen bigarren parte osatzeko materialeak bestelako antolamendu batekin argitara ematea pentsatuko zuten ingurukoek. Beraz, edizioaren azken uneko ardura eta zuzenketa nork ote zuen planteatzera eraman zuen horrek, izan ere, edizioaren antolamendu “arraroa”-rekin batera, autorea derrigorrez izan behar ez zuen pertsona baten eskua nabaritu behar baitzen liburuaren apailatzean eta, gutxienez, testu jostura funtsezkoenak egitean.

Baina Manuel Lekuonak apailaketarena garbi ikusten bazuen ere, ez zen ausartu testuaren egiletza izpirik Axularri kentzen:

143 - Ezin ahaz daiteke tasak askoz ere urriagoak direla frantsesa hizkuntzatat ez zeukaten lurraldeetan. Morbihan-en, esaterako, XVII. mendearen bukaeran, “[...] el grado de alfabetización entre los varones adultos estaba por debajo del 10 por ciento y la lengua que se hablaba no era el francés, sino el bretón” (Burke 1991, 124).

Edozein modutan ere, Frantziako errealitatea ongisko ezagutzen bide zuen Materre harriturik edo gelditu zen Euskal Herrian euskara hutsez zegoen alfabetizazio mailarekin: “Ceren añhitz baita Euscal-herrian iracurtcen daquienic, baiña ez Euscara baicen bertce hitzcunçaric aditcen[...]” (Materre 1623, XXVI-XXVII)(azpimarrak gureak dira). Esaldiaren bigarren zatia lotura estua du 1639an (*Gero* argitaratzeaz zegoenean, beraz) Frantzia Luis XIII.ak Nafarroa Behereko Donapaleuko Seneskaliaren sortze-agirian aitortzen duen hizkuntz errealitatearekin: “[...] les pauvres gens qui ne scavent ni entendent que leur langue basque souffrent de grands frais et incommodité estant obliges aller a Pau et se faire assister d'interpretes [...]” (Cf. Cierbide 1994, 614).

144 - Haren “hemengo aldia eguin hurran baitut” (11 or.) perpausak bestelako ezintasunik ere adieraziko ote zuen?.

“Uste bait-degu zin-zinetan, argitalte au egin zuanak, Axular beraren esku-idatziak begi-aurrean euki zituala... Birrargitaratzaillea, egillearen illoba ber-bera -ots, Axular gaztea- ote-zan ere susmorik bai bait-degu...” (Lekuona 1954, xix)

Honela, Axular idazle perfektu gisara uzten zen eta ustezko apailatzeak nahastatzaile moduan. Era berean, konpondurik geratzen zen printzipioz koherentzi akatsik gabea behar bide zuen liburu bikainaren planteamenduaren “anabasa”.

Baina besteri egotzitako nahasmendu ardura orrialde zenbait lekuz aldatzea baino gehiagokoa da eskuarki. Logikaz, antolamendu berriaren arduraduna izan omen zenaren eskuhartze estilistikoaren arazoa ere planteatuko litzateke.

Hipotesi hori onartuko balitz ere, egun eskumenean ditugun bideek ez dute arazoa argitzeko itxaropen gehiegirik eskaintzen. Liburu batean atzeman daitekeen alderdi estilistikoa ezin da emankorregia izan, ez behintzat bestelako zenbait baliabide historiko-filologiko bezain emankor. Baina, jakina, horrelakorik ere ez dagoenean (eta hau da gure kasua: ez bide dugu bestelako erreferentziarik, ez dokumenturik ez eta itxaropenik ekar liezagukeen artxiborik ere), ikerkuntza estilistikora mugatu behar da lana. Eta lan hori, ezaguna da, oso erlatiboa eta, dagokion arlo estilistikotik at, irristakorregia eta kontu handiz baloratzeko modukoa da, izan ere

[...] todavía hay que delimitar con mayor precisión [eta gaztelarazko literaturaz ari da egilea] qué aspectos estilísticos, fórmulas, recurrencias temáticas, expresiones ingeniosas, etc. constituyen un fondo común en la amplia literatura aurisecular y no son, por tanto, distintivos de un determinado poeta; todavía faltan muchos estudios sobre la intertextualidad (imitaciones, parodias...) en el Siglo de Oro, que revelasen hasta qué punto elementos estilísticos, alusiones o adaptaciones de situaciones y frases de obras y escritores famosos se reiteran en otros, impidiendo, por tanto, utilizarlos como signo de autoría” (Arellano 1991, 566 or.)

#### 4.1.5.- ORIGINALTASUNAZ

Bestalde, obraren “bilduma” izaerak, hau da, obran agertzen diren pasarte “karriatu” anitzek, beste autore eta obretatik “mailegatuek” eta “bilduek” originaltasunaren galdera plantearazi izan dute arazo larri gisara.

Dena den, “originaltasuna”-ren arazoaren aurrean, lehendabizi azpimarratu behar dena originaltasun hitzaren bidez adierazten eta ulertzen dena da. Kontzeptua eta beronen bilakaera historikoa, alegia. Eta hitz hori erabili izan dutenen apriorismokeria.

Izan ere, gaur egun originaltasunaz daukagun kontzeptuak ez bide zuen tokirik beste garai batzuetan, idatzizko testuaren kulturarekin batera sortutakoa baita egungo esanahia; areago, erromantizismoaren ikuspuntuaren fruitua:

“La cultura del texto impreso dio origen a los conceptos románticos de «originalidad» y «espíritu creador», los cuales aíslan una obra individual aún más de las otras y perciben sus orígenes y significados como independientes de influencias exteriores, al menos en el caso ideal” (Ong 1982: 1987, 132)

Edonola ere, kontzeptuaren aplikazioaren egokitasuna zalantzakoa izan daitekeen arren, argi dago originaltasunak baduela zerikusirik obraren taxutze modu orokorrarekin eta ez sortze prozesuarekin bakarrik, maiz asko planteatu ohi den bezala.

Ez da salbuespen gertatu esku artean dugun *Gero* liburuarena, izan ere ikerkuntzen eremuan garrantzi ezin handiago eman baitzaio sortze-prozesuan egon zitekeen “inspirazio arrotzari”, aitortu zaion originaltasun bakarra normalean arlo linguistiko hutsera mugatu delarik.

Historikoki originaltasunaren inguruko kezka eta arazo bihurtzeak Schuchardt-enganaino atzera daitezkeen arren (Lacombe 1943; 1956, 367), Urkijok demostratu zuen testu-dependentsiarekin (1912) arazoa kezkarriago edo bihurtu zen hurrengo urteetan. Halaber, *inventio* ataleko erabateko garbitasun gabeziari aurre egiteko modu hedatuena ere aski defentsibo bilakatu zen euskaltzaleen artean<sup>145</sup>.

Zinez esan daiteke, alabaina, Mitxelena izan zela originaltasun tematikoaren arazoa egokiro zentratzen saiatu zen lehena:

“Con todo, se han emitido algunas dudas sobre su originalidad y se ha apuntado a fray Luis de Granada como fuente. Que Axular conocía a Granada es seguro y seguro también que en dos pasajes, y probablemente en otros, le siguió de cerca; conviene, sin embargo, no dar un alcance excesivo a lo que en esto haya de exacto, al menos hasta que dispongamos de un estudio más detallado. Es evidente que, dentro de lo relativo de la originalidad humana en general, no puede esperarse una gran originalidad en la doctrina de un libro ascético católico” (Mitxelena 1960, 73).

Ildo horretatik, beraz, *Gero* liburu euskaraz pentsatua edo “inspiratua” izan zen ala ez planteatzeak ez luke originaltasunaren arazoa erabat konponduko ziurrenik<sup>146</sup>. Izan ere, originaltasunaren arazoa gainditzeko planteamendu orokor gisa Mitxelenaren erantzuna errepikatu beharko litzateke, gure ustez: “El *Guero*, en la medida de lo posible, es personal, en el fondo y en la forma” (Mitxelena 1960, 73)(azpimarrak gureak dira).

Beraz, *Gero*-n ustezko iturriei hertsiegi jarraituko balitzaie ere -eta momentuz demostratzeke dago hau-, obraren moldaketak eta burutzapenak, hots, idazte-prozesuaren fruitua den testuak berak eskain lezake inspirazio arloan aurkitu ez den originaltasun maila goren-garbia. Eta ez litzateke hori gutxi izango eklektizismoa eta “karriaketa” etengabe -errukirik gabe, esango genuke- erabili duen esparru bateko literatur obra batean.

Oro har, bada, originaltasunaren planteamendua, egitekotan, honako koordenada hauen barnean burutu beharko litzateke: Axularren asmoa aszetika obra bat euskaraz ematea izan zen; gainera, berak zioen bezala, “liburu deboziozkoetarik [...] bildua” zen, hau da, erromantizismoaren eragina iritsi arte inolako balio kontzeptualik izango ez zuen “originaltasun” asmorik gabea.

<sup>145</sup> - Villasanteren erantzuna: “[...] si por original se entiende que el autor ha concebido y pensado su libro él mismo, lo ha sabido plasmar y realizar teniendo en cuenta los destinatarios a quienes lo dirige, aun cuando haya en él materiales de acarreo de la más varia procedencia, en este sentido sí que es original el *Gero*” (Villasante 1974a, 31-32)

Ez zen hain irmoa izan Villasanteren iritzia euskaraz mintzatu zenean: “Obra hau, beste aldetik, neurri batean originala ere bada, gure lurraren fruitu jatorra, nahiz eta bestetatik karriatutako gaiak ere badituen” (Villasante 1974a, 37)

<sup>146</sup> - *Inventio* atalari dagokionez, ezin originalagotzat bide zuten Axularren obra XIX. mendearen bukaerartekoek, Lacombe azpimarratzen duenez (data oker egon arren), “Jusqu’à la fin du 20 siècle, on croyait que le chef-d’oeuvre d’Axular avait été pensé directement en basque” (Lacombe 1943 [1956,366]). Modu berean, Lacombe hori esan eta hamahiru urte pasatu ondoren, haren artikulua berargitaratzen zuen aldizkari berean honelako baiezen borobilak egiten ziren: “Eskualduna zinez Axular, eskribatu dituen guziak eskualdunki pentsatu baititu” (Herritarra1956, 323) (lerropeko marrak gureak dira).

Ikusten denez, lan pragmatikoa erabat, eta, printzipioz, inongo asmo literariok bideratu ez zutena, burutzapenerako erabili ohi ziren erretorikako parametro estilistikoetatik at, jakina.

Hori argiturik, ez legoke arazorik ondoko galdera hauek planteatzeko: Axularrek aipu zuzenak, itzulpenak eta moldaketak baino ez zituen egin? Itzulpen-moldaketa literalak izan ziren harenak? Liburuaren egitura da benetan kopiatu zuena? Eta azken galdera: *Gero*-n agertzen diren kopiak eta itzulpenak baino garrantzitsuagoa (guztia erabat literalki kopiatua ez bada behintzat!) ez ote da liburuari taxuketan, egituran eta hizkuntzan bertan eman zaion tratamendu berezia?

Jakina, horien guztien artean, hizkuntza bera litzateke "el indicio principal de que el *Guero* es obra original" (Villasante 1962, 21). Baina ez Villasanteren hitzetan susmatzen uste den zentzu gramatikal hutsean. Gure ustez, *Gero* behar bezala baloratuko bada, Axularren originaltasuna fenomeno erretoriko orokor gisa ulertu behar da.

## 4.2.- LIBURUAREN PLANTEAMENDU DOKTRINALAZ

"El libro apunta siempre a instaurar un orden, sea el de su desciframiento, en el cual debe ser comprendido, sea el orden deseado por la autoridad que lo ha mandado ejecutar o que lo ha permitido"  
Chartier

Honelako lanetan ikertzaileari azaltzen zaion lehenengo eginkizuna oihanaren ikustea galerazi dezaketen elementu ez-pertinenteak alboratzean eta beste guztiak argitzean datza nagusiki, izan ere, esan, idatzi edota argitaratu den guztia ez baita beti aintzakotzat hartzeko modukoa.

Axularren liburuari buruz ere gauza asko eta ez beti behar bezain egokiak zabaldu dira, inoiz, saratarraren obraren orri guztiak ikusi gabe (eta bada adibiderik!), eta, maizago, bestek -ongi funtsaturik izan arren- idatzitakoaren ondorio hanpatuegi gisa.

Horregatik, uste eta iritzien baso honen aurrean, Mitxelenaren hitz lako-nikoak dira urdazubiarraren obra ongien definitzen dutenak, ezin garbiago eta trinkoago baita liburuaz esaten duena: "Se trata de un libro ascético, nada místico y nada especulativo" (Mitxelena 1960, 73)

Areagotu egingo du Villasantek iritzi hori erlijio-gizona den aldetik, nahiz eta haren hitzetan *Gero* liburuaren planteamendua, funtsean, oinarrizko -erakusten duen sinpletasunagatik, alegia-, oinarrizko, berririo diogu, aszeetikarena den

Un libro ascético, y de ascética, bastante elemental. Se propone inducir a la conversión. Está escrito para los vascos de su tiempo. Desde luego que éstos eran cristianos y creyentes. Pero en todo cristiano (claro que en distinto grado y proporción, según sea su entrega a Dios) coexisten como dos hombres: el hombre mundano que desconfía de Dios, que cree más en sí mismo y en los valores de este mundo y de esta vida, que en lo que Dios promete; y existe, por otra parte, el hombre creyente, que posee en su fe la semilla de un hombre nuevo, pero en muchos casos ete hombre queda como ahogado por el otro, que se le sobrepone. A este cristiano, bastante carnal y mundano, se dirige, pues, Axular. Con él

discute y entabla diálogo, haciéndole ver con razones bastante positivistas y adaptadas a sus alcances, las ventajas del servir a Dios y convertirse, y de hacerlo desde ahora, sin relegar este negocio para luego, para la hora de la muerte, como hacen los más (Villasante 1974a, 30-31)

Liburuaren planteamendua, beraz, oinarrizkoa, irakurle arrunt batzuei zuzendua eta, ondorioz, erabat pragmatikoa da; ezin bila daiteke bertan teologia arloan sakontasunik, ez baita haren helburua. Gainera, planteamenduak bestelako baldintza bat zeraman erantsirik: idazteko hizkuntza usatugabea, hau da, euskara. Granadakoari kasu eginez gero (eta Axularrek egiten bide zion!),

"[...] no se han de escribir en lengua vulgar ni cosas altas y oscuras, ni tampoco se han de referir los errores de los herejes, aunque sea para confundirlos, ni otras cosas semejantes, ni cuestiones de teología, las cuales ni en los sermones populares consiente Sant Agustín que se traten (Aug. lib.4 de Doct. Christ. t. III). Pues ¿cuánto menos se debe en esta lengua escribir lo que no conviene predicar?" ("Prólogo galeato", *Guía*, 6).

Ezer aurkitzekotan, bada, gnoseologikoki tomismoan txertaturiko teologia eta doktrina kontrarreformista bakuna, "etxetik ibiltzeko" modukoa alegia<sup>147</sup>, izango genituzke liburuaren ezaugarrien artean, eta, behar bada, bizitzaren eskolan "ikasía" den apaiz baten zuhurtziaren islada ere bai. Liburuaren eklektizismoak berak hori baino ez du erakusten: sinpletasuna eta zuhurtzia.

Gogoratu beharrekoa da, azkenik, Axularren *Gero* kristaui bizitzeko eta hiltzeko liburu aszetikoa dela eta espreski azpimarratzen dela bertan salbatzeko ez dela aski ongi hiltzearekin. Puntu garrantzitsua deritzogu honi, hain zuzen ere ordurarteko *Ars Moriendi* izeneko liburu gehienek tratamenduarekin hasi berria zen hausturaren ildokoa<sup>148</sup> zelako saratarraren obra. Esperientziak erakutsia baitzuen hiltzeko unea soil-soilik azpimarratzen zuten liburuek *carpe diem* delakoaren esparrura bidera zezaketela baldintza txarretan eta izurritez inguratutik bizi zen jendea.

### 4.2.1.- OHIKO ASZETIKAREN BIDEETATIK BARN

Jakina denez, aszetika izango da XVII. mendearen lehen erdialdean prosan idatzirik originaltza har daitezkeen obra bien esparrua: Axularrek jorratuko duen alorra aszetikoa da erabat, eta aszetika eremukoa bide zen orobat urte batzuk lehenago Argaignatsek *Avisu eta Exortatione probetchosac bekhatorearentzat* liburuan tratatzen zuen gaia.

Hitza grekerazko *askeo*-tik dator "aritu, ejerzitate", eta esanahi horretan datza XVI-XVII. mendeetako kontzeptua:

"es el período de la vida espiritual en que, por medio de *ejercicios* espirituales, mortificaciones y oración, logra el alma purificarse, purgarse o desprenderse del afecto de los placeres corporales y a los bienes terrenos" (Sainz Rodríguez 1928, 68).

Tradizio aszetikoaz den bezainbatean, badirudi egoki samar koka daitekeela Axularren obra gaztelaraz idatzitako aszetika-mistikak erakusten duen ibilbidearen parametroen barnean, dakigunagatik, Espainian XVII. mendeko aszetika-mistikaren ezaugarri

147 - "[...] pues no quiere que se prediquen cuestiones, sino doctrina que edifique" (Granada, "Prólogo galeato", *Guía*, 6).

148 - Savonarola eta Erasmo izango genituzke haustura honen aitzindariak, nahiz eta gero, autore horienak eta islada erasmianoa zuten bestelako obrak liburu debekatuen *Index*-era sartu zituztenean heriotzerako prestakuntzaren planteamendua berririo moldatu zen (ikus Morel d'Arleux 1993).

bihurtuko den konpilazio doktrinalean arituko baita Sarako erretorea. Berak liburuaren azalean bertan garbiki aitortzen duenez, biltzailea baino ez zen izan, *Gero* guztia "Escritura sainduti, Eliçaco Doctor etaric eta liburu debocinozco etaric (...) vildua" bezala ematen baitu. Eta ez da besterik gazteleraz garai hartan egiten dena.

Gaztelerazko uztartze honek bestelako paralelismorik ere erakutsiko du, batez ere hizkuntzaren erabilera mailan: estilo herritarra, lexiko ez landua, jendearentzako ulerterraza, irudiz beteriko hizkuntza, etab.

Tematikoki ere, eta tradizio aszetiko horren esparruan, literatura mota hau oso mugatua aurkituko da. Dámaso Alonsok idatzi zuen bezala, "literatura es ésta de temas muy limitados, que tiene, además, que dar de continuo las mismas vueltas en torno a autoridades conocidas, y siempre con refreno en la interpretación" (Alonso 1962, 95).

Hori dela eta, planteamendu teologiko orokorrari dagokionez, nekez etor gitezke bat inoiz inork Villasantek Axularrenaz idatzitako ondoko esaldi hau huts-hutsean aldarrikatu izan duenean: "Su doctrina teológica es siempre maciza y densa" (Villasante 1974a, 31). Villasantek ongi zehaztu eta azaldu zuen hori.

Izatez, Axularrek ez du planteamendu teologikorik egin nahi, nahiz eta gorputz teologiko aski konpakto baten barnean dabilela atzematen den<sup>149</sup>. Horregatik, liburuan isurtzen zaion teologia aszetika arloko garaikide gehientsuenen parekoa da, beraiena bezain sendoa eta tinkoa, ez gehiago eta ez gutxiago. Eta, dena esateko, inori ez zaio ahaztuko ustezko "sendotasun eta tinkotasun" horrek Inkisizioarekin nahi baino gorabehera gehiago ekarri ziola askori, argitaratu dotrina teologikoa ez bide zelako guzti-entzat pentsatu bezain "sendo eta tinko" hain zuzen. Eta, urrutiegi joan gabe, Luis de Granadarena genuke adibiderik adierazgarriena.

Baina, horrezaz guztiaz gainera, ez genuke ahaztu nahi Axularren liburuaren planteamenduari isurtzen zaion kutsu berezi bat, hots, ohiko *scala coeli* izenekoetako lehen mailekin erakusten duen antz -nolabait esateko- difuminatua, marguldua. Beste modu batez adierazteko, aszetika liburuek bekataria zerura bidean abiarazteko oinarritzko mailak<sup>150</sup> azpimarratzen dituzte, nagusiki konbertsioa (konfesioa barne), bekatuen aurkako gorrotoa eta bertuteen praktika direlarik; eta hori da hain zuzen *Gero*-ri, aszetika liburu den aldetik, antzematen zaion kutsu orokorra.

#### 4.2.2.- OBRAREN IZAERA

Garbi asko esan daiteke, aszetika liburu bezala planteatzen dela *Gero* eta planteamendu horretan irristakorrak eta ez-ziurrak diren gaiak sahiestu egiten direla modu zuzenean. Batetik, irakurlegoak diskisizio teologikoen beharrik ez zutelako, bai baitzekiten kristauak zirela eta horrek zer eska ziezaiekeen bizitza arruntean. Beraz, konbertsioa aszetika eta ekinaren bidez eta ez komentzimendu teologikoen bitartez.

149 - Jakina, Balentziagak (1990) *Gero*-n aurkitu uste duen planteamendu teologikoa ez da, ezta hurrik ere, aldutzen erlijio katolikoaren topikoetatik.

150 - Maila horien jasotzaileak, lortuta zeukaten perfekzio mailaren arabera, honela banatu ohi ziren: *incipientes*, *proficientes* eta *perfecti*. Hiru "eskalatzaile" mota hauek Philon Alexandriakoak egokitutako bereizketa platonianoa dute oinarri: bide purgatioa, iluminatioa eta unitioa. Ikusten denez, perfekzio eskala batean lehenengo atalari eta *incipientes* izenekoei legokieke Axularrek proposatzen duena.

Bestetik, ez da zalantzarik, planteamendu pragmatiko horrek gorago aipatu arriskuetaik babesten zuen egilea.

Ezaguna da, bestalde, tematikoki esku artean dugun testua batzuetan garbiegia eta gordinegia izatera iritsi izan dela kontrarreformaren ondotik sortutako sentsibilitate nonahi-bekatu-ikusleentzat (Intxausperentzat guretzat baino gehiago, esaterako). Eta, dirudienez, sentsibilitate-beratasun zenbait liburuaren irakurketa -edo pasarte batzuen- debekatzera ere iritsi direla<sup>151</sup>.

Ez da hori, halere, Axularrek liburu idatzi zueneko gizarte-mentalitatea. Liburuak ongiro betetzen zituen testu-egokitasunaren arau klasikoak, gorago aipatua izan den *aptum* arlokoak hain zuzen.

Horretan, arrazoi osoa izango luke Duvoisinek dakarren lekukotasunak:

"Sans me rapporter à mon jugement sur la question délicate qui à soulevé certaines répusions, j'ai soumis la difficulté à un theologien, plein de science et bon prédicateur, qui avait étudié à fond l'oeuvre d'Axular. Voici sa réponse textuelle: "La dédence de cette lecture est un puritanisme assez mal entendu. Le reproche le plus grave qu'on ait fait à Axular, c'est une expression trop crue quant à la question de *concupiscence*. Sa parole était probablement bienséante au temps où il vivait; aujourd'hui, elle peut blesser quelquefois certaines oreilles; jamais on n'est plus délicat sur ce point que lorsque les moeurs sont plus relâchées" (Duvoisin 1876, in Altuna 1987, 77).

Obraren ortodoxia doktrinalari buruz, dena den, pare bat ohar mahairatu nahi genuke, obraren izaeraren argigarri izango direlakoan.

Apaiz eta elizgizonez betetako Sara hartan eta inguruko herri txikietan<sup>152</sup> bekatua ongi sustraitua bazegoen ere, ikusi dugunez, Elizaren konfidantza erabatekoa izan zitekeen Euskal Herriko iparraldeko lurraldeetan 1610etik aurrera praktikatzen zen ortodoxia erlijiosoari dagokionean bederen.

Konfidantza hori Lancreko Rostegi jaunaren "lana"-rekin erabat ezarria geratu eta gero, elizaren bestelako kontrol mekanismoak beste tokietakoak bezain zorrotzak izaten ahalegindu ziren, hemen interesatzen zaigun produkzio idatziaren esparruan ondorioak hain zorrotzak izan ez ziren arren.

Trentoko izuak bere eraginak eredugarrikiro hedatuak zituela ahanzi gabe, Lapurdi bezalako gizarte batean idazlumak Elizaren menpekoen eskuetan ia eksklusiboki egoteak, lurraldearen txikitasunak berak, euskaraz mintzatzen ziren hiztunen kopuru urriak eta, edozein modutan, argitalpen ororako gaintitu beharreko kontrol eklesiastikoak praktikan bestelako kontrolik (argitaratu ondokorik, besteak beste) ez egitera eraman zuten beste lurraldeetan zoliki baino zolikiago "zaintzen" zegoen Eliza katolikoa. Ildo horretan, adierazgarria da euskal liburu katolikoekin *Index* bezalako liburuetan bat ere lerrorik bete ez izana.

151 - Horra hor, lekuko gisa, Lafittek Olhetako gizon hartaz kontatzen duena, hots, *Gero* zahar bat zuela gordeta "sorginkeriazko liburu bat" bailitzen eta hil aurretik horren aitortpena egin nahi izan ziola etxera zitzaion apaizari (Lafitte 1956, 341).

152 - Villasanteren hitzak dira honako hauek: "Lafittek jakinarazi didanez, Axularren garaian Saran baziren 23 apaiz. Sobera, noski. Eta denak ez bide ziren «mutiko onak». *Gero*-ko zenbait irakaspen hoiel begira ez ote diren eginik galdetzen du berak" (Villasante 1972, 50). Erreak izan zirenak eta: Caro Baroja 1985.

Egia da liburuen kontrol edo zentsuraz behinik behin, mekanismoak arruntak izan ohi zirela, dagokigun liburuaren hasieran ikusten den bezala<sup>153</sup>.

Baina horrekin guztiarekin ere, eta garbi utzirik Axularren liburua kontrarreformaren orduko ortodoxiaren barnean kokatu behar dela, badira zenbait puntu garaiko Inkisizioaren pareko zentsura batek, euskarazko testuak kontrolatu ahal izan balitu, onartuko ez zizkiokeenak. Adibide garbiena jaiotzez Donibane Garazikoa zen Huarteren *Examen de ingenios para las ciencias* liburuan aurkitu dugu.

Obraren katolikotasuna eta ortodoxia, fedearen onarpena eta jerarkiarekiko begirunea etengabe aitortzen zituen Huarte de San Juanen liburuan Axularren beste pasarte baten parekoa den honako hau agertzen zaigu zentsuratuturik:

“Y si Galeno considerara las sendas y caminos de la hormiga y contemplara su prudencia, su misericordia, su justicia y gobernación, se le acabara el juicio, viendo un animal tan pequeño con tanta sabiduría sin tener preceptor ni maestro que le enseñase. “*Vade ad formicam, o piger et considera viam eius, et discite sapientiam; quae, cum non habeat duces neque praeceptorem, praeparat in aestate cibum sibi et congregat in messe quod comedit*” Proverb., cap. VI” (Huarte de San Juan 1575: 1991, 89).

Inkisizioak, “su prudencia, su misericordia, su justicia” hitzak ezabarazi zizkion<sup>154</sup>, besteren artean. Axularri, ordea, inork ez bide zion oharrik ere egin testuinguru berean “zuhurtzia” animalien ezaugarri gisa<sup>155</sup> jo zuenean (ikus 36-37 or.).

Nolanahi ere, horrelako zenbait printza kenduta, garbi dago ez dela gai edota perpaus susmagarririk aurkitzen liburu guztian barrena. Hortaz, ez genuke oker handirik egingo teologi prestakuntza kontrarreformistak eta, aldi berean, zuhurtziak urdazubiarra arazo irrastakorak (teologia arlokoak behinik behin) alboratzera eramanez zutela aitortuko bagenu.

Ildo horretatik, bada, ozenki aitortu daiteke gai problematikorik ez dagoela liburu guztian zehar. Bertan azpimarratzen den aszetikak modu berezian baztertu zituen benetan arazoak ekar zitzaketan puntuak. Eta inoiz problematikoren batera hurbiltzen bada, Axularrek garbi asko joko du Granadarenak bezalako iturri -bere ustez- ziurretara, tartean Erasmorenik ere atepertatuko zaiolarik. Hortik, besteak beste, liburuaren eklektizismoa eta aipamen edota iturri piloa.

Ortodoxia doktrinalaren sustrai ideologikoei dagokienez, ezaguna da pentsamendu kristauaren oinarriak Bibliaren errebelaziotik sortuak izan direla. Autoreek, Eskrituratan oinarrituz, garatzen zuten bertan idatzitakoa, azken batean Itun Zaharreko zenbait autore berantiarrek erabilitako metodoaz baliatuz, handik aurrera *midrash* -iko izenez ezagutuko zena alegia<sup>156</sup>.

153 - Gogoratu Urtubi, Disanetxe eta Perriquet-en onespene edo aprobazioak.

154 - Ezaguna da Espainiako bost argitalpenen ondoren, eta Inkisizioaren onespeneak jasoak zituela, *Index* portugaldarrean sartu zutela dagokigun liburua. 1583an liburu debekatuen *Index* -ean agertuko da, eta hurrengo urtean garbitu edo expurgatu behar direnean, aipatu zuzenketan tartean zegoelarik.

155 - Pasarte zentsuratuen artean, garrantzi handikoak ohi ziren “aquellos en los que se equipara a los animales con el hombre, en cuanto seres naturales regidos por su temperamento, concediéndoles cierto tipo de inteligencia, que no diferiría de la de los hombres más que en grado” (Fresco Otero 1991, 27)

156 - Metodo arakatzaille edo sakontzaille honen bidez, eta helburu edota bitarteko desberdinak izanik, konposizio berriak sortzen ziren Eskriturarako pasarte edo datu zenbaitetan oinarrituz. Handik aurrera metodoa bera aberastuz joango den arren, etengabe erabiliko da tradizio kristauan. Itun Berriko idazki asko horrela burutu ziren eta Patristika guztia horren adibidea baino ez da.

Errenazimenduko idazkietan oraindik bizirik mantenduko da metodo honek Eskriturakin eskatzen duen lotura. Beranduago izan arren, Axularrek oraindik tinko eutsiko dio Erdi Aroko planteamendu exegetiko honi (ik. Spicq 1944, 10 or.), izan ere haren liburuaren oinarri gehienak *Biblia*-tik hartutako pasarteak edota pasarte horietaz Elizako Gurasoek egiten dituzten iruzkinak baitira. Horrezaz gainera, liburua laburbiltzen duen konbertsiorako gonbitea eta planteamendu tematikoaren hasiera bera pasarte bibliko zuzenak baino ez dira (ikus “*Gero-ren sorreraz*” diharduen kapitulua).

Aurreko guztiaz gain, ez dugu ohartarazi gabe utzi nahi Axularrek, neurri batean bederen, Luteroren irakurketen iturri izan zen *Theologia deustich* delakoaren bideetatik hurbil jo zuela bere liburua taituztean. Izan ere, erdiaroko mistikoen ildoko teologia hartan ez da sakramentuek mintzatzen, ez eta birjinaz eta sainduz ere. Axularren obran ere gutxitxo aurkituko da horrelakoetatik, elizaren jerarkiaz -protestantismoaren beste “diana” bat- ezer aurkituko ez den bezalatsu.

Honekin ez genuke esaten duguna baino gehiago adierazi nahi, inork ez bailezake ikus han protestantismoaren aztarnarik, batik bat Axularrek haren oinarririk sendoena zen fedearen bidezko justifikazioaren aurka hain garbiki borrokatzen duenean.

Guztiarekin, *Gero* -ren barrenean aurki daitekeen perspektiba honek zerikusia gehiago bide du idazleak ortodoxiaren barruan ibiltzeko erakusten duen ahaleginarekin eta, zalantzarik gabe, zaindu behar zituen *perspicuitas* eta *aptum* direlakoarekin (irakurle-entzuleengana iristeko argitasuna eta egokitzapena, haien interesen arabera jokatzeko) beste ezerekin baino, hori bai, liburuari tematikoki isurtzen zaion desoreka inpresioa inolaz ere ahaztu gabe. Jakina, honek guztiak ezin du saihestu garaiko predikazio liburuetan agertzen zen aholku nagusia, jadanik aipatua duguna eta Axularrek ondo gogoan zuena, hots, predikariaren eginkizuna (ahoz nahiz idatziz) egia katolikoak sustraitu eta sendotzean datzala eta faltsukeriak desagetean.

Edonola ere, Axularren planteamendu teologikoan eta liburu sailduen hermeneutikan ez bide dira zalantzak falta. Hori da, hain zuzen, juramentuaz mintzatzean sortzen dena. Juramentua “Jaingoaren ohoratzeke” baldin bada, zergatik debekatzen digute “orai legue berri” (252 or.)? Hortik sortuko dira gure autorearen “badirudi” horiek eta “egua da, hala dirudi eta hala da” (252 or.) hori.

Baina, edozein gisaz, *Gero*-k ez du bitarterik uzten Axularren zuzentasun doktrinalaren lerro orokorrez zalantza egiteko, haren ortodoxia ez baitzen garai hartan edonori eska zekioketena baino txikiagoa. Arlo honetan ere eredu konparagarri garbia izan daitezke Granada bera eta haren obra<sup>157</sup>.

#### 4.2.3.- EGINKIZUN PASTORALA ETA DOKTRINA LERROAK

Trentoko erreformaren ondorio gisa, Elizak areagotu nahi izango du bere presentzia eguneroko bizitzan eta ahalegin berezia egingo du Laburdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa bezalako herrialde erlijiosoki konfliktibo izandakoetan.

Ez da sekretu bat Elizak ia jaiotzaren unetik beretik hasten zela “babesten” gizakiaren bizitza, horren lekukoa bakoitzaren bizimoduaren une garrantzitsuenak eliza

157 - Beti ere ortodoxiaren barruan aritu nahi izan zuen arren, ez zitzaion gorabehera latzik falta erlijioaren kontrol ideologikoa zeramatenekin.

liburuetan jasotzea zelarik<sup>158</sup>.

Oro har, esan daiteke Trentokoaz geroztik Elizak bi hari nagusiren inguruan gauzatu nahi izan zuela bere eguneroko eginkizun pastoralak: "media"-rik gabeko gizarte-etan kolektiboa bideratzeko elementua predikazioa ohi zen bitartean, sakramentuak gizakien kontrol pertsonalizaturako faktore egokiak bilakatzen ziren, konfesioarena ideologikoki eraginkorra eta ziurra bihurtzen zelarik<sup>159</sup>. Modu batean zein bestean, elementu biak agertzen dira Axularren obran: lehena obraren planteamenduan eta bigarrena obraren atal desberdinetan.

#### 4.2.3.1.- Predikazioa

Jakinaenez, predikazioa eta predikazioarekin estu loturik zihoazen "misioak" modu berezian areagotu ziren Trentokoaz geroztik. Haien helburua, oro har eta betiere Ebanjelioaz eliza katolikoak egiten zuen interpretazioaren ikuspuntutik, gizakia perfekziora bideratzea izaten zen, honek sinesmen erlijiosoetan sakondu, betebeharrak erlijiosoekin konplitu eta ohitura okerrak hoba zitzaizkien. Hitz batez esateko, predikazio mota honek, bai ahozkoak zein idatzizkoak, herriaren heziketa moralak bilatuko du, hezibide horren ezaugarri literario-formalak eta dotrinalak ere kutsu hori erakutsiko dutelarik.

Horretarako, normalean Santo Tomasek diseinatutako eskema izango zen gizarte katolikoan erabiliko zena, izan ere, San Pablok erakutsitakoan oinarrituz, lau lan mota egotzi baitzizkien predikariei: fedearen egia erakutsi eta irakatsi, haien aurkako erroreak errefusatu, gizakia bekatutik atera eta on egiteko bidean jarri, onera bideratu.

Nolanahi ere den, fedearekin egon ziren eta egon zitezkeen erroreak eta desbideraketak ekiditeko, Trentoko kontzilioak bide errazera jo behar izan zuten predikariak egin behar ez zuten ez zezaten, ezaguna baita, gorago adierazi den bezala, predikarien parte handi bat prestatu gabekoa zela. Ildo horretatik, beraz, honako bi hauetara mugatu zituen predikarien lanak: bizioak, ajeak, hobena errotik kendu eta haien tokian bertuteak landatu.

Baina predikazioa diogunean "idatzizko predikazioa" ere hartzen dugu kon-

158 - "Ya desde la recepción del bautismo - o el «agua de socorro» que los padres o la comadrona administraban a los recién nacidos en caso de necesidad-, algunos de los momentos más importantes de la biografía de cada hombre y mujer quedaban fielmente registrados en los archivos parroquiales. Mediante la matrícula, el cura comprobaba que, a partir de los siete años, el niño cumplía con el precepto de la confesión, y desde los doce o trece años, con el de la comunión pascual. En los libros de la parroquia se registraban asimismo el matrimonio y la defunción de cada uno de los fieles" (Gómez-Centurión Jiménez 1994, 269)

159 - Axularrek garbi azalduko du konfesioaren premia: "Baldin skritura saindua ongi irakur eta konsidera badezagu, edirenen dugu, ezteza egundaino nehor salbatu, eta ez salbatuko ere, alde edo molde kofesatu gabe" (*Gero*, 523 or.)

tzeptu horren barruan<sup>160</sup>. Idatzizko predikazio honek bestelako kristauengana iristeko bidea eskaintzen zuen, eta ez bakarrik irakurtzen zekitenengana, izan ere, irakurketa kolektiboak zirela medio, mezu-hartzaileen kopurua etengabe areago baitzitezkeen instrukzio aszetikoa zabalduz.

Esaten genuen bezala, beraz, planteamentu orokorrean, eta aipamen zuzenik egon ez dagoen arren, Axularren obra idatzizko Santo Domingo eta San Franciscoren aginduetatik<sup>161</sup> hurbilago dirudi, bestetik baino, agienez, liburua bizio eta bertutei buruzko predikazio luze bat baita.

Zehatzago esateko, Diego de Estella frantziskarraren obraren planteamendu bezalako bat nabarmetzen da *Gero*-n. Alde batetik, oraintxe esan dugun bezala, gaia beragatik, eta bestetik, arlo horietan ezinbestekoa bihurtu den Santo Tomas-en presentziagatik alegia. Izan ere, gorago aipatu den *Modus concionandi...* liburuan (23 eta 24. kap.) Diego de Estellak garbi baino garbiago uzten du obra onak egitearen beharrezko predikatu behar dela (eta horrela tazitoki luteranoen printzipioa inpugnatzen da), bizio arruntaren aurka, mihi gaiztoen aurka, diruen kodiziaren aurka, ... novisimoei buruz eta Jainkoaren miseriak oinarriturik mehatxu eta bildurrak aipatu (eta gutxiago bigun-keriak eta miseriak). Predikariak birtutean dauden ontasunez hitzegin behar duela dio eta bizioek dakartzaten gaizkiez. Finean, Axularrek berak pasarte batean laburbiltzen duen bezala, "guztien buruan iccas ahal deçaquegu [...] erhoqueria handia dela, guc gure buruan daramaguna, eta erraiten duguna, beccatuen utzten eta obra onen eguiten guero hasico garel" (117 or.).

Aitzitik, arazo eskolastikoak, predestinaziozkoak, arimaren hilezkortasunari buruzkoak, herejia luteranoak eta bestelakoak ez dira, haren ustez, inolaz ere tratatu behar, are gutxiago beraien oinarriak eta arazoak, etab. Era berean, argi uzten zaio erlijioa zabalduzko ardura duenari egia esan behar denean, ez duela inolako iritzirik isuri behar.

Honenbestez, *Gero*-n atzematen diren eraginak direla eta, aurrera dezagun badirudiela ez zela egiteko honetan aitzindari zuzenik gabea izan Axular. Areago, zinez esan daiteke Axularrek beste ildo bat ere jorratu zuela, zehatz-mehatz bete baitzuten Luis de Granadak bere *Retórica Eclesiástica* liburuan predikatzaileentzat beharrezko ikusten zituen baldintzak:

"debe tener bien conocidas, y aun notadas en un papel, las costumbres de los hombres á quienes predica, y asimismo los pecados públicos de que mas adolece el pueblo, como tambien sus medicamentos y remedios, para que todo su sermón se enderece á esto mismo, y para que á cualquier lado que la fuerza del argumento le empujare predicando, se acuerde que debe volver otra vez á lo mismo,

160 - Granadaren ildotik baino ez gara abiatzen: "Movíme a tomar este poco de trabajo, porque algunos predicadores celosos de la honra de nuestro Señor y salud de las panimas, deseaban que hubiese algún pequeño volumen que tratase de todas estas cosas, el cual pudiesen envomendar en los pueblos donde predicasen; para que, pues la memoria de los hombres es tan flaca, y la voluntad tan tibia para lo bueno, pudiesen todos tener a la mano este pequeño despertador, para que ayudasen a la memoria con la escriptura, y a la tibieza ce la voluntad con el calor de la doctrina; y para que no sólo en presencia, sino también en ausencia del predicador, tuviesen este peculiar predicador en casa para todas las veces que le quisiesen oír" (*Guía de Pecadores*, 1556; 1953, 13; azpimarrak gureak dira).

161 - Ezaguna da bi saindu hauek fraideei predikazio arloan agindutakoa horretara mugatzen zela: bizio eta bertutei buruz bakarrik predikatzea. Ildo beretik abiatuko dira Trento ondoko urteetako predikaziorako aholkuak ere; ikus, esaterako, Terrones del Cañoren liburuan (1960) "De la materia o invención del sermón" izeneko atala, hirugarren kapitulua batik bat.

porque en vano parece que se dice todo cuanto de este fin se desvíá" (Granada, *Retórica*, 637b-638a).

Arlo honetan, ez genuke azpimarratu gabe utzi nahi predikariek, entzule-irakurleen afektuetan eragiteko zuten funtzioaz gainera, bere-berezko zuten aipatutako bigarren hori, hots, errealtatearekiko egokitzapena eta gauza partikularretarako jaistea. Honen bidez, predikaria mundu eta ekintza zehatzetara jaitsi behar da, jende xumeak ezagutzen dituenetara hain zuzen, bai kondenatu behar dituen bekatuetara nola laudatu beharreko bertuteetara.

Axularren liburua, hortaz, erabat tridentinoa, klasikoa eta "predikagarria" genuke. Urdazubiarrak euskal gizakiaren egoerara moldatuko du bere predikazio idatzi hori, herri mezu-hartzaileak zituen akatsak-eta kontutan harturik eta gehien hausten ziren manamenduak eta aginduak modu nabarmenean azpimarratuz. Zenbaitetan, gainera, egokitzapen gordinegiak eginez.

#### 4.2.3.2.- Sakramentuak

Ez da harrigarria Trentokoan sakramentuen konpliztea helburu eta lehentasunen artean azaltzea. Izan ere, konplizte horrek kristauaren, haren kontzientziaren eta, neurri handi batean, bizimodu sozialaren kontrola ziurtatzen zion Elizari. Adierazgarriak dira, esaterako, jai egun garrantzitsuetan gizartea kontrolatzeko erabiltzen ziren formak (horietariko zenbait oraintsura arte mantendu direnak, bestalde) eta estamentu desberdinen parte hartzea:

"[...] el cumplimiento pascual constituía una de las obligaciones de los fieles que se vigilaba con mayor cuidado: a los que cumplían el precepto se les entregaba una cédula como comprobante; se tomaban precauciones minuciosas para evitar las falsificaciones y para que los arrieros, los gitanos u otra población transeúnte no pudieran eludir su cumplimiento. Por su parte, los médicos tenían asimismo la obligación de avisar a los enfermos graves para que confesaran, y dejar de asistirlos si no lo hacían al tercer día" (Gómez-Centurión 1994, 270)

Doktrinaren *communis opinio* delako horren partaide gisa, Axularrentzat ere konfesioa izango zen azpimarratzeko sakramenturik inportanteena, liburuan erakusten duen bezala (ik. 51 eta 52. kap.). Inportanteena, besteak beste, ikuspuntu doktrinaletik Trentoko Kontzilioak Latrangoak<sup>162</sup> agintzen zuena baino maizago behar zela konfesatu (eta baita komulgatu ere) erabaki zuelako<sup>163</sup>. Ildo horretatik ulertu behar da, esaterako, *Gero*-ko 52. kapitulua, "maiz konfesatu" behar dela tratatzen denean.

<sup>162</sup> - Aintzinako sakramentua izan arren, Latrango Kontzilioak derrigorrezko bihurtu eta urtean behin finkatu zuen konfesioaren agindua. Axularrek adierazten duen bezala "[...] obligatu gara urtean behin cofesacera. Eta urtean behin cofesatce haur, eguiten ohi da comunzqui, bazco garçumacoz" (533-534 or.) Trentoko disposizioak, ordea, era honetan jasoko ditu saratarrak: "Aitcitic nahi luque guehiagotan eguin bacindecí. Eta halatan erraiten du: *Saltem semel in anno*. Urthean behin bedere. Bedere erraiten du: adicera emaitcagatic, nahi luqueyela, guehiagotan ere eguin baguindeci" (534 or.).

<sup>163</sup> - Ezin da ahaztu Latrangoaz geroztik sermoietan eta liburuetan oro har konfesioaren sakramentuari eman zitzaion garrantzia, etengabe aritu baitziren elizgizonak sakramentu horren garrantzia azpimarratzen (ikus Delumeau 1990).

Bestelako sakramentuak zeharka baino ez ditu tratatuko<sup>164</sup>. Eta egia esan, gogoratu beharrik ez dago, normalean (bataioarena salbu) konfesio eta penitentziaren bidez lortzen den graziaren ondotik etortzen diren sakramentuak dira horrela, zeharka, ukitzen dituen horiek.

Hori dela eta, liburuaren mezua bera graziaren lorpen horrekin lotua doa. Hortik, beraz, aszetika liburuaren pragmatismoa, eta, batik bat, liburu honena. Ildo horretatik, mezuak orokorra ematen badu ere ("konberti zaitetz"), oso praktikoa da bekatu konkretuetan, h.d., gehien egiten bide ziren bekatuetan eraginkorra izateko, orduan "konbertitze" hori kristau ona bihurtzearen enblema bailitzateke, egiatzko mezua finean.

#### 4.2.3.3.- Bekatuak

Mezua, hortaz, liburuan autoreak ezagutzen duen gizakiaren beharretara moldatua izango da, besteak beste haragiarena liburuan barrena toki gehien beteko duen bekatua izango delarik. Axularrek berak emango du horren arrazoiak:

Ceurc aithortuco duçu, mundu hunetan içatu ditutçun inçontru gaitz guztiac, edo behintçat guehienac, aldez edo moldez, emaztetaco beccatuacgatic, içan ditutçula (*Gero*, 514-515)

Izan ere, *Gero* liburuan esaten zaigunagatik, bekatuak hedatuena bide zen, baina ez, Axularren ustez, larriena. Gezurretan egindako juramentua, esate baterako, "lagunaren onaren ebastea" edota "edozein emazterekin parte izaitea" (254 or.) baino bekatu handiagozat zeukan urdazubiarrak; halere, kapitulu bat aski deritzo berori tratatzeko, haragiarena tratatzeko mordoxka bat behar duen bitartean<sup>165</sup>. Izan ere, Materreren lekukotasuna ere badu Axularrek arimaren etsaien artean batik bat haragiaren bildur izateko:

"Hetaric handiena da Haraguia: ceren Mundua eta Deabrua khien ditçaquegu gueureganic baiña ez Haraguia" (*Materre, Doctrina...*, 33-34)

Gainontzeko bekatuak, garrantzitsuak ("buruzagiak"; Materreren hitzetan) badira ere, askoz ere maila apalagoan tratatuak izango ziren. Gulaz denaz bezanbatean, esaterako, 408-409 orrialdeetan agertzen da Axularrek egiten duen aipamen bakarra, teorian XLIII. kapitulu guztia horretaz bada ere. Izatez, kapitulu horrek haragiaren bekatutik begiratzeko erremedioez dihardu eta edariari ematen dio garrantziarik gehiena.

<sup>164</sup> - *Gero*-ren zati luze batean, esaterako, haragiaren bekatuaren aurkako planteamendua agertzen da, hain zuzen ere, eta hau da azpimarragarriena, Elizak ezkontzaren sakramentuaren balioa aldarrikatzen ari zen bitartean nabarmendu egin zirelako mota horretako bekatuak. Aldi berean, Axularrek, Eliza tridentinoaren ildotik, modu berezian ukituko du apaizgoaren sakramentuaren gorentasuna zalantzan uzten haragi-bekatuak.

<sup>165</sup> - Zinez pentsa daiteke Axularrek, Elizaren arau estuei jarraituz, ikusmiran zuen jendearen araberako tratamendua eman ziola liburuari. Bestek bezalatsu, ordurako idatzia zuen Luis Granadakoak ere: "segun la diversidad ya de las personas, ya de los vicios que se cometen en el pueblo, debe variarse el sermon", eta aurrerago "el sermon se ha de variar segun la variedad de los oyentes" (Granada, *Retórica*, 600b).



## 4.2.3.4.- Azkenkiak edo Gerorengoak

Ezaguna da kristautasunak bizitzari adimenaz harantzago zentzu bat eman nahi izatean, eta gizakion *carpe diem* delakoarekiko ahuleziaren aurrean ezer lortuko badu, honako hau harako hartan gozatu edo pairatuko omen denaren arabera bideratu behar izan duela.

Azkenki bezala ezagutuko diren horiek izango dira, bada, sinesten duten gizakien izaera eta portaera moldatu beharko dituztenak. Azken fin nagusi horien funtzioa, beraz, etengabe gogoan izatea, haietaz hausnartzea eta, ondorioz, bizitza honetan bekatuak ez egitea litzateke.

Axularren garaikidea den Materren obran arakatzuz gero, honako sailkapen hau aurkituko dugu hausnartzeko gai horie dagokienez:

“Azquen finac bekatuak ez egiteko gogoan eduki behar direnac dira laur:

Lehenbicoa; Heriotzeco orena; Arimaren gorputzetan particean çanen den eguitecoa eta herstura.

Bigarrena, Azquen iudizioa, gueure bici guztian eguin ditugun bekatuek eman beharko dugun kontua.

Hirugarrena, ifernua: eta han gaixtoec seculacotz pairatu beharco duten pena eta dolorea.

Laugarrena (sic), Parabisua, onec eta Iustuec fin gabe goçatuco duten loria” (Materre, *Dotrina...*, 34-35)

Axularren obraren helburua “konbertitze” praktikoa izanik, benetan “praktikoenak” diren azkenkiak baino ez dira tratatuko, garai hartako tratadista gehientsuenek bezala. Izan ere, ditugun erreferentziak medio, garai historiko ilun haietan azkenkiekin predikazio zein liburuetan egin ohi zen erabileraren arabera dirudi Axularren tratamendua.

Saratarraren kasuan ere hirugarren azkenkia izango da nabarmenen agertuko dena konbertsioa lortzeko bide gisa, Elizaren perspektibatik garbi baitzegoen jazarpenak eta erretzeak zekartzaten prozesuak hain hurbildik ezagutu zituen gizatalde batean bukatu gabeko “sekula” hartako penen bildurra zela erarik efektiboena.

Laugarrena zeharka xamar tratatuko da liburuan, batik bat ifernuko bideraren zailtasuna eta *pena damni* izenekoak aurkeztean. Bigarren azkenkiari gagozkioarik, esan beharkekoa da ez duela tratamendurik, ez behintzat garaiko liburuetan ohi zuten bezalako. Aipamen hutsera mugatzen da dena.

Lehenari ere ez zaio ez kapitulu ez atal zehatzik eskaintzen, ez bada heriotzeko ordurarte arima alferrak atzeratzen duen penitentzia agertzean. Eta hau harrigarriagoa izan daiteke, zeren kristaukuntza prozesuan Elizak heriotza jarri izan baitu beti bere diskurtsoaren erdian, azken uneko larrialdiaren hausnarketa argudiorik eraginkorrena izan omen daitekeelako bekatuei uko egiteko.

Axularren aukera, beraz, aukera bildur-emailea da, infernuko penetan garaiko aszetikaren ildokoa baino zentratuagoa, baina, hori bai, ez bestea bezain ilunbetsua eta lazgarria. Ildo horretan Axularrek ez du zuzenean erakutsiko Barrokoan ohi den giro etsigarria. Gehienik ere, orduko irakurleari berari egokituko zaio errealitatearen irudikapena infernuaz esandakoan oinarrituz (ikus, esaterako, nola ez duen zuzenean tormenturik aipatzen, ez eta Granadak aipatzen badu ere: su gutxirekin erretzearena, etab., hain zuzen ere Axularren asmoetarako benetan “adibide didaktikoak”, Lapurdiko inguru haietan errealitatean erabiliak izan bide ziren-eta).

Nolanahi ere den, gogoratu beharkekoa da XVI eta XVII. mendeetako liburu eta predikazioetan azkenkiak tratatzeko moduak ez direla inprobisazioaren ondorioa:

“Clérigos, teólogos y moralistas utilizan el tema de manera calculada y precisa con el fin de ayudar a la doctrina oficial a asentar sólidamente sus bases en unos momentos graves de conflictos espirituales” (Morel d’Arleux 1993, 719)

## 4.2.3.5.- Bestelako elementu doktrinalak

Gorago adierazi den bezala, Axularrek zenbaitetan, eta batzuk zeharka xamar diren arren, disidentzia erlijiosoarekin trinko loturik doazen gai gatazkatsuak ere tratatzen ditu: luteritasuna, pelagianismoa, iluminismoa, obra onen beharra salbatzeko, miseriordia ez da gehiegi fidatu behar, fedearen bidezko salbazioa (gogoratu Agricolaen “*Pecca fortiter, sed crede fortius*” leloa), etab.

Egia da liburuaren tratamendu orokorraren barnean baino ezin direla ulertu puntu horiek guztiak, askotan aipatuak baino ez baitira izan. Halere, gorago formulatu den hipotesiaren arabera, badirudi liburuaren planteamenduak askotxo zor diela disidentzia erlijioso horietako zenbaiti.

Agian, egokiago litzateke disidentzia erlijioso horien presentzia *totum revolutum* bat bezala edo ulertzea. Izan ere, heresia bezala V. mendeko fenomenoaren zen pelagianismoa bera (“*da quod iubes, iube quod vis*”; Axularrek bi tokitan jasotzen ditu eztabaida pelagiarraren hitz deklaragarriak ziren horiek), grazia eta askatasunaren eztabaida guztietan agertuko zen XVI. mendean ere. Hortik, beraz, *Gero*-n heresia eta disidentzia horien ezaugarri nabarmenenak edota erreferentziak nahasirik agertzearena (Jainkoaren miseriordia aski da salbatzeko<sup>166</sup>; sortzeko bekatua ez zen Adanena bakarrik izan; gizakia ez da gai bera bakarrik salbatzeko, etab.).

Disidentzia edota heresia ezberdinen tratamendu zehatzari dagokionez, dena den, aski garbi atzematen da normalean Juan de Bonifacioaren (1589, *De sapiente fructuoso*) eta beste askoren<sup>167</sup> aholkuaren bidetik abiatzen dela saratarra: “*Las herejías debe refutarlas como de paso, con una sola frase, a poder ser, muy aguda*” (Olmedo 1960: cxxx-cxxxi).

Izan ere, modu horretan tratatzen ditu Axularrek orduko heresiak. Luterarrak izango dira presentzia gehien (nahiz eta oso txikia eta zeharkakoa den) izango duten disidentziak, eta beti ere aski kalifikatuak edota testuinguru kalifikatzaileetan (ikus, esaterako, 135 or.)

Ildo beretik ere hurrengo adibidea. Gaurko egunetan bekatutzat baino gehiago eliza katolikoak bertutetzat hartuko duen kalizetik edonork edatearena, Axularren garaian “*gutienean [...] luthertatun handia, gauça itsusia*” (*Gero*, 262 or.) izango da. Luterarrak, beraz, zeharka gaitzetsiak.

<sup>166</sup> - Horren aurka, Axularrek honako hau dio: “[...] eguia da, anhitz valio du fidantziac, indar handia du esperantçac. Ordea aditcen dela neurriz, soberania gabe. Ceren soberania guztiac dira gaixto [...]” (*Gero* 133 or.).

<sup>167</sup> - Gogoratu gorago aipatutakoa ere, hots, San Francisco de Borjarena

Zeharka izan arren, Erasmismoa ere ukitua aurkitzen da Axularrek infernuko suaren garrantzia aipatzen duenean<sup>168</sup>. Ezaguna da nola erdi ukatzen duen Erasmok<sup>169</sup> infernuko suaren errealitate materiala eta nola zentsuratu izan zitzaion hartatik. Axularrek, "aita Domingo Soto, Doctor handi hari iarraiqui" (ik. *Gero* 583 or.), errealitate materiala dela esateaz gainera, azpimarratu egingo du arimak eta gorputzak jasango duten errealitate material bakarra izango dela *poena sensus* delakoari dagokionez (583-hk). Alabaina, badirudi Granadaren teoria (infernuko hotz-beroak defendatzen dituena) dela erantzunaren piztaile zuzena.

Gogoratu, bestalde, eta zeharka bada ere, iluminismoaren beldurraren eraginari zor diola *Gero*-k bere planteamendu orokorra. Izan ere, *Gero*-ren ardatz edo hari gisakoa den "alferkeria" etengabe agertuko da XVI eta XVII. mendeetako aszetika liburuetan. Milhou-Roudié-ren hipotesiaren arabera,

[...] tal recurrence a la problemática de la pereza y el trabajo debe mucho a la obsesión de esta herejía multiforme, peligrosa para la institución religiosa y la sociedad civil: el iluminismo, con su abandono, su «dejamiento» a la gracia de dios y su consiguiente desprecio de las «obras» (Milhou-Roudié 1993, 687-688)

Ildo horretatik, bada, teologo kontrarreformistek -eta jesuitek bereziki- modu zehatzean azpimarratu zuten gizakia, egin zitzaieken obrekin, bere salbazioaren parte bihurtu zitekeela. Jakina, honek aurrez aurre jartzen zituen obra horien ukazioa edota erlatibizazioa aldarrikatzen zuten guztiak, batik bat aipatu "argituak" -*alumbrado* izenekoak<sup>170</sup>- eta protestantismoaren ildotik zihoazen luterararrak eta kalbinistak.

Axularrek ongi ezagutzen bide zuen arazoaren egoera, eta ez bakarrik Nafarroa Behereko lurraldeetan zabaldu zen kalbinismoaren planteamenduagatik. Pentsatzekoa da ezin urruti gera zekizkiokeela saratarrari jesuitek "Santo Oficio"-ko dominikoen izandako eztabaidak eta *alumbrado*-en jarrerak bultzatzen zituztela esaten zuten dominikoen salaketak. Ezaguna da salaketa horien aurrean jesuitak modu berezian ahalegindu zirela obra onen beharra aldarrikatzen<sup>171</sup>.

Axularrek penitentzia eta obra onak egitea salbaziorako ezinbestekotzat joko da. Alabaina, doktrinalki ezer berririk esaten ez badu ere (esparru kontrarreformistaren barnean zegoen bete-betean), gaiari eskaintzen dizkion ikuspuntu, luzera eta tratamendu-

168 - Ezin ahaz daiteke Axularren erreferentzia garrantzitsua izango zen Granadaren *Guía* -k (batez ere bigarren parteak) Erasmoren *Enchiridion* obrarekiko dituen loturak, antzak eta, neurri batean, filiazio erlazioa (Cfr. D. Alonso 1958: 1964, 218-225).

169 - Ikus *El Enchiridion o Manual del Caballero cristiano*, Madrid, S. Aguirre impresor, 1932, *Revista de Filología Española*. Anejo XVI (Dámaso Alonsoren edizioa; hitzaurrea Marcel Bataillon-ena. Liburu berean *La paraclésis o exhortación al estudio de las letras divinas*. D. Alonsoren edizioa eta hitzaurrea). Bukarera eranskinetan garbiki agertzen da infernuko suaren ukazioa Erasmoren testuan eta gaztelarazko testura pasatzerakoan egin zitzaion itzulpen "moldatua".

170 - "Hará algunos años pasados que en España se levantaron unos herejes que se llamaban alumbrados y dejados, porque decían que les alumbraba Dios desde el cielo y daba luz en sus particulares espíritus, de lo que debían hacer; y que no habían de hacer sus obras, dejándose del todo en las manos de Dios [...] ponían todo su negocio en la oración mental, diciendo mal de la vocal y de hacer buenas obras" (Jerónimo Gracian de la Madre de Dios: *Diez lamentaciones del miserable estado de los ateístas de nuestros tiempos* (1611), apud Alvaro Huerca 1978-1986)

171 - "... los jesuitas, con su ética de l esfuerzo personal, hacían un reproche fundamental a todos los heterodoxos que negaban las obras: el hacer la virtud fácil, so pretexto que se consideraban como justificados, o sea elegidos y salvados" (Milhou eta Milhou-Roudié 1993, 686)

agatik lasai asko pentsa dezakegu disidentzia erlijioso garrantzitsuenak bizi-bizirik zituela gogoan.

#### 4.2.3.6.- Gabeziak

Maiz adierazi den bezala, Axularren planteamendu aszetiko-doktrinalean badira zenbait puntu ohiko liburuetan agertzen direnak eta honako honetan tratatzen ez direnak. Ez ditugu denak aipatuko baina urrutiegi joan gabe Granadaren obrekin erkatuz gero, berehala atzemango dira barau, otoitz edota meditazioari eskaini ohi zitzaizkien atalen falta. Eta arruntenak baino ez ditugu ekarri.

Erraz uler zitekeen, beraz, Lafitteren kezka teologia eta aszetika katolikoan horren garrantzi handikoak ziren gai horien falta antzematen duenean: "Harritua nago zoin guti aipu duen Axular'ek othoitza, zoin guti komunionea, kasik batere ez grazia eta Izpiru-Sainduarekilako batasuna" (Lafitte 1956, 343). Izan ere, Granadaren berak aski garbi esaten zuen *Guía*-ren lehenengo edizioan bertan ezen gizona benetan ona eta bertutetsu bihurtzeko ezinbestekoa ziren gauzen artean "la más importante y necesaria" zela "declararle cómo alcanzará fuerzas y espíritu para vivir esta manera de vida" (1556:1953, 9), hots,

"declarando por qué medios se alcanza la gracia [...], exhortando a la humilde y devota frecuencia de los sacramentos; con los cuales se junta la oración[...]; porque así como los sacramentos tienen virtud para dar gracia, así la oración tiene por oficio pedirla, y así nos ayuda en esta misma demanda" (1556:1953, 11).

Baina gabezia doktrinal horren garrantzia gutxietsi gabe, badirudi urrutiegi joan zela Lafitte arrazoiak bilatzera, kasik protestanteen ildora desorekatuko baitzuen Axularren teologia azken batean: "Harek eta hura bezalakoek uste bide zuten gizonak bere baitharik hel zitakeela bertuterat, eta bertute horren gainerat Jainkoak gero hupatuko zuela saindutasuna" (Lafitte 1956, 343).

Ordea, hurbilago ere aurki zezakeen erantzun zuzen eta egokiagorik. Ez litzateke gutxienekoa ordurako inguru haietako euskaldunek bazutela otoitzetarako liburu egoki bat pentsatzea. Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotioezcoa* (Bordele, 1627) obraren bigarren parteak horretaz baino ez ziharduen hirurogeita hamar bat orrialdetan barrena, "errateco lituquen [...] othoitz guehienac" (azaleko hitzak dira) bilduz.

Beraz, argitaratuak zeuden liburuek (Materrenena barne) oinarritzko prestakuntza, argitasuna eta tresneria erlijioso eskaintzen zioten euskaraz baizik ez zekien euskaldunari. Besterik zen oraingoan behar zuena.

Bestalde, ez dirudi gutxiestekoa denik indarrean zeuden predikazio liburuetan barreiatu doktrina pragmatikoa. Ikus, esate baterako, San Francisco de Borjak bere *Tratado breve del modo de predicar el Santo Evangelio* liburuskatxoaren 7. kapituluaren dakarren aholkua:

"No trate de refutar herejías, sino de arraigar y fortificar las verdades católicas y deshacer la falsedad contraria por vías indirectas. No pretenda en auditorios populares tratar de grandes perfecciones de espíritu y de alta oración" (apud Olmedo 1960, cxliv; azpimarrak gureak dira).

Nolanahi ere, aipatu erreferentzia bi hauek liburuan atzematen diren hutsu-neak, eskasiak edota gabeziak<sup>172</sup> esplikagariago bihurtuko dituela iruditzen zaigun arren, ekar ditzagun hona aholku doktrinaleraz haratago doazkeen beste zenbait arrazoi ustez esplikatzaile.

Batetik, liburua erabat bukatua, hots, idazlearen asmoetan zegoen bezain taxutua eta borobildua egon izan balitz ("Bi partetan partitua eta berezia, lehenbicioan [...] Bigarrenean quidatzcen da..."), zikeena zen otoitza, komunioa eta sakramentuak<sup>173</sup> nabarmenago eta sakonago tratatuak izatea. Bestetik, dena den, azpimarratu beharrekoa liburua izan berak islada soziala duten elementu garrantzitsuenak agertzeraz darabala. Hori dela eta, esan genezake liburu aszetiko baten aurrean gaudela, baina, kontuz!, batik bat kanpora begira dagoen aszetika bat erakusten duena; izan ere, gizarte-oihartzuna izan zezakeen eta izan behar zuen aszetika baten aurrean geundeko, hots, XVI. mendearen bukaeran eta XVII. mendearen hasieran kontraerreforma katolikoak azaleko manifestazioengatik hain zigortua izan zuen giza-komunitatearen konbertsiorako aszetika -erredundantezia dirudien arren- pragmatikoago baten aurrean. Eta aszetika liburu honen izanera pragmatiko hori - Granadaren Guía baino askoz gehiago- azpimarratu nahi genuke hemen. Axularren dotrina elementu gutxierekin osatuko da, erabili beharrekoekin soil-soilik, eguneroko bizimoduaren konbertsioak eskatzen dituenekin bakarrik. Formalki ere hortik joko du Axularrek, "Kristo", gaztelarazko "Padre Eterno" eta horrelakoen erabilera minimoetara gutxituz (ikus paralelismoen ataleko "iturrien tratamendua")<sup>174</sup>, eta gatazkatsuak diren puntuak ahalik arinen eta zuzenen azalduz<sup>175</sup>.

Ikuspuntu horretatik, tratatzen diren puntu garrantzitsuenak konbertitzearen eta bertutera igtultzearen ingurukoak badira ere, liburua planteamendu orokorra bekatu kapital edo buruzagien inguruan burutzen da, bat ere falta ez delarik - sakontasun desberdinekin tratatuak, jakina-. Izan ere, bekatu horiek alferkeriaren (7.a) inguruan antolatzen dira: haragiarena (3.a), kolerarena (4.a), gula edo sabeldarraiotasuna (5.a) haragiarenaren erroetariko bat bezala tratatzen delarik eta inbidia (6.a) bekaizgo eta etsaigoarenaren nolabait nahasirik. Abariziarena (2.a) nor bere barnekoa duen bizioa den neurrian, ikusgarria den erremusinarekin beharra eta abantailak tratatzen planteatzen da. Urguiluaren bekatua (1.a), zeharka bada ere, sortzen dituen efektuetan, hau da, Jainkoaren aurkako juramenduetan eta etsaigoan antzeman liteke, eta ez, izaerazkoa den neurrian, barnean mantentzeko bekatu gisa.

Hortik, beraz, *Gero*, gorago aipatzen genuen gizarte-isladarako aszetika-liburu bezala karakterizatzearena.

Edonola ere, bekatu buruzagien aurkako bertuteak zuzen-zuzen emanak agertuko dira 48. kapituluaren, kateximatik ateratako pasarte dirudien honetan: "Gerla handia dute alkharren artean berthutèk eta bizioek. Urguilutasunak gerla handia egiten dio humiltasunari; Abariziak, liberaltasunari. Haragiak kastitateari; inbidia, karitateari; gula, abstinenteziari; kolerak, pazientziari; nagitasunak, dilijenteziari" (478 or.).

<sup>172</sup> - Ez dira faltako, arlo teologikokoez gainera, garaiko gizartearen islada falta nabarmen dutenak: erreforma protestantearen edota besteren (sorginak barne) tratamendua alegia (Irigarai, etab.)

<sup>173</sup> - "[...] los tres principales medios con que se alcanza la divina gracia, que son Confesión, Comunión y Oración" (Granada, *Guía de Pecadores*, 1556: 1953, 12 or.)

<sup>174</sup> - "Precursor de Cristo"-ren orde, "iondone Ioannes Baptista" (*Gero*, 571), etab.

<sup>175</sup> - XVI. mendearen bukaeratik aurrera De Auxiliis izeneko eztabaida gogorren ondorioz, 1611n Pio V.ak debekatu egingo zuen jendaurrean gai horretaz eztabaidatzea. Tartean jokatzen zena, grazia eta gizakiaren askatasunaz gainera, predestinazioaren arazoa zegoen. Axularren planteamendua XI. kapituluaren ikus daiteke.

Otoitzaren, hots, nork berea dagien otoitzaren tratamendu eskasak aipatu argudio sozial horretan izango luke arrazoia. Beste aldetik, ezin ahaz daiteke otoitzetan saiatzeak baino, praktikan etekin hobekoak lortu ohi dituela alferkerietarako (eta, ondorioz, otoitzetarako) astirik ez izateak. Lanean gogor diharduenak agian ez du elizako otoitzetarako betarik, baina, zalantzarik gabe, Axularrek hasiera-hasieratik isurtzen dituen hitzen arabera, bekatuetarako aukerarik ere ez (ikus, esaterako, *Gero*, lehen kapitulua).

Norberak egin dezakeen otoitza, bestalde, beste modu batez erregula zitekeen. Gogoratu, esate baterako, Etxeberri Ziburukoaren formula egun osoko lana otoitzaren inguruan moldatzeko.

Lafittek gogora ekartzen duen komunioaren tratamendurik ezak ere badu esplikaziorik aszetika pragmatiko honen ikuspuntutik. Komunioa konbertsio bidean eta, jakina, grazian dagoenak baino ezin du jaso. Axular horrainoko bidea azaltzen eta deskribatzen arituko da, ez besterik. Komunioa hartzeko gai denak ez du une horretan dago-kigun liburua beharrik.

Gabezien artean koka genezake, orobat, Sainduen kultuarena. Eredu onek zabaltze eta sakontze erlijiosoan lagun zezaketena medio, Trentoko Kontziliotik ateratako ondorioen arteko bat Sainduen kultua bultzatzea eta areagotzea izan zen. Izan ere,

"sus vidas ejemplares respaldaban el papel del mérito y de las buenas obras en la salvación eterna -frente a la doctrina herética de la justificación por la fe-, de manera que las biografías de santos - más o menos noveladas- se convirtieron en uno de los temas preferidos por la literatura religiosa del Barroco" (Gómez-Centurión 1994, 272)

Ez da izango Axularren liburu-eginkizunen artean horrelakorik, tematikoki sainduen presentzia zeharkakoa baino ez baita, eta beti ere arazorik ez bilatzeko eta ez sortzeko modukoa.

Berdintsu esan beharko litzateke Ama Birjinaren kasuz. "Inmaculada Concepción" delako dogmaren aurkako jokabide dominikoa eta hauek pairatu izan behar zituzten ondorioak<sup>176</sup> hain hurbildik azagutu zituen batentzat hanka-sarterik ez egiteko modu egokiena Mariaren irudia ez agertzea zen. Eta, agertzekotan, Eskrituraren lekukotasuna baino honatago, aipamen hutsarekin alegia; ez alderantziz.

Horrelakoetan badirudi "isiltasunak", "gabeziak", hots, liburua aipatu gabe uzteak hankasartzeak ekiditea izan dezakeela helburu, betiere teologikoki arriskutsua izan baitzitekeen mirakuluz, ikonoz, liburu sakratuen irakurketaz eta beste hainbat elementuz baliatzea eta mintzatzea.

<sup>176</sup> - Gogoratu domingotarrek horregatik, hots, arazo hartan gizartearen iritziaren aurka jotzeagatik, jasan behar izan zuten deskalabru handia

## 4.3.- LIBURUAREN GENERO ERRETORIKOAZ

*Gero* liburua erretorikak bereizten dituen genero moten artean kokatzen saiatuz gero, berehala ikusten da erretorika klasiko zein eklesiastikoetan deliberatibo bezala ezagutzen den genero horretakoa dela. Genero honetan konbentzitu, exhortatu, eskatu, aholkatu, ..., egiten da, eta horregatik deitu izan zaio pertsuasiboa, suasorioa edota disuasorio horretaz diharduen atalari.

Horago aipatutakoaren ildotik, liburu edota sermoi mota bezala ere hauxe izango da kontraerreformak nagusiki bultzatu eta bideratuko duen generoa. Granadak dioen bezala,

“Es pues tan propio del predicador este género, que en todos los sermones, ya sean de santos, ya de los beneficios de nuestra redencion, ó ya se versen en la calaracion de los Evangelios y demas libros sagrados, debemos proponernos por blanco de todo el sermon y de cada parte de él, exhortar á los hombres á la piedad y justicia, y hacerlos concebir horror á los vicios, que es lo que á este género pertenece” (Granada, *Retórica...*, 559b)

Ildo horretatik, bizioei aiherrizateko eta bertutearen bidea hartzeko gonbitea baino ez da funtsean Axularren liburua, obraren garapenean horretarako konbentzimendu bide egokienak erabiliko direlarik.

Granada bera ekar liteke baieztapen honen lekuko gisa, genero suasorioa dela eta, bere obrak aipatzen dituenean:

“Y para mayor enseñanza propondrémos algunos ejemplos de nuestros escritos. Al final del libro que escribimos De la oracion y meditacion, añadimos tres tratados en este género suasorio, de las tres partes de la satisfaccion: ez á saber, oracion, ayuno y limosna, los cuales con mas facilidad que los preceptos mismos indicarán lo que requiere este género de argumento. En el otro volumen que intitulamos en español Guia de pecadores, copiosamente tratamos en dos libros este mismo argumento, en los cuales exhortamos al amor de la virtud. Porque primeramente en el exordio nos conciliamos la atencion, asegurando que íbamos á hablar de la cosa mas necesaria de cuantas hay en la vida. Despues tratamos las partes de lo honesto, explicando la infinita bondad de Dios, y sus incomparables beneficios, que nos ejercitan y piden de justicia nuestra obediencia y amor. Luego se explicó cuán útil y deleitable sea el camino de la virtud, exponiendo doce insignes privilegios de que gozan los buenos en esta vida. Tras esto refutamos y deshucimos con la mayor claridad todas las excusas que los hombres viciosos suelen alegar para dar de mano á la virtud, mostrando cuán vanas y frívolas son. Y en el último capítulo de ese libro resumimos todos los argumentos, y con todas nuestras fuerzas movimos los afectos de temor y amor, para encender con ellos los ánimos flojos, al amor de la virtud, y miedo del divino númen. Esto en el primer libro. En el segundo tratamos del modo conque debe adquirirse (sic) y ejercitarse la virtud” (Granada, *Retórica...*, 561b)

Edozein modutan, azpimarratzekoa da Axularren genero suasorio hau ez dela erabat itxia eta purua, nolabait esateko. Agian antz gehiago izango luke zailagoa bide den modu nahastuarekin, eskritura sakratuen azalpenaz baliatu eta sententziak tartekatzen ere aberatsa denarekin.

Horrezaz gainera, azpimarratzekoa da genero guztiek, *aptum* bertutea dela eta, ez dutela elokuzio modu berdina eskatzen, izan ere gaien eta argumentuen arabera egokitu behar izaten baitira.

Oro har, Axularren mintzatzeko modu hori ez litzateke erretorika klasikoak definitzen duen maila apalenean edo baxuenean kokatuko, eta, egia esan, pasarte batzuk izan ezik, nekez koka genezake maila garai edo larrian ere (eta ez bakarrik berak espero zituen irakurleengatik).

Edonola ere, erretorika eklesiastikoak egindako egokitzapenaren arabera (San Agustinen *Doctrina Cristiana* -ren ildokoenera gehienbat), Axularren liburua tonua edo elokuzio modua, tenperatua izanik, maiz asko maila apalaren eta erdikoaren artean legoke: arruntkeriatik urrun baina herritartasunetik hurbil, ornatuan eta estiloan neurtua eta, askotan, justuegia, baina mezuaren ulergarritasuna ziurtatzen duena. Oro har, San Agustinen hitz hauei jarraiki zaiela ematen du:

“Pero nosotros ordenamos este fin á otro fin, de modo que intentemos conseguir con el estilo templado lo mismo que deseamos lograr con el sublime: es á saber, que los hombres amen las virtudes y aborrezan los vicios[...] Así usaremos del adorno del género templado con cordura y sin jactancia; no satisfaciéndonos con el fin de que se deleite el oyente, sino antes bien procurando que con esto mismo se mueva á hacer lo que deseamos persuadir” (S. Agustin *Doctrina Cristiana*, IV lib., apud Granada, *Retórica...*, 608b).

Izatez, genero hauek, eta batik bat genero garaiak, besteekin nahastuak agertzea eskatzen dute, predikazioaren mailak eta xedeak (entzule-irakurleak hunkitu, mugiarazi, ...) behar bezala bete daitezten:

“... debiéndo este maestro ser predicador de cosas grandes, no siempre debe decirlas magníficamente, sino sumisamente cuando algo se enseña, y templadamente cuando algo se vitupera ó aplaude. Mas cuando ha de hacerse algo, y hablamos con los que deben hacerlo y no quieren, entónces aquellas cosas que son grandes, deben decirse magníficamente, y á propósito para inclinar los ánimos” (S. Agustin *Doctrina Cristiana*, IV lib., apud Granada, *Retórica...*, 603b).

**V.- LIBURUAREN  
IRAKURLEA**

Mitxelenak gogorazten zuen bezala, liburuen maila eta estiloa beraiek "izan zitzaketen irakurleek ematen zieten, inork ez baitu bere neurria besterik gabe hautatzen, irakurleak ere kontuan eduki gabe" (Mitxelena 1981a, 274).

Autoreak ikusmiran duen irakurle "tipoa" oso garrantzitsua izango da *aptum* edo egokitasunaren bertute elokutiboa definitzen joateko. Nolako irakurlea, halakoa izango baita berbaldia eta obraren taxuketa orokorra bera ere: planteamendua, mezua, mezua dosifikatzeko modua, argumentazio era, hizkuntza mota, ornatua, irudi-adibideak, ..., Erretorikaren aipatu hiru atalek arautzen duten taxuketa, azken batean.

*A posteriori* bada ere, *Gero*-ren irakurketatik antzeman daitezkeen espektatibak ohiko tipologiaren bidetik doaz oro har. Izan ere, Axularrek "Irakurtzaileari" zuzendutako atalean "jakituria"-ren arabera taxutu zuen soslaiak ("letratu handiak" eta "deus ezakitenak" direlakoan artean zeudenekin osatuak, alegia) erdibideko irakurlearen irudikapena eskainiko luke batik bat.

### 5.1.- ERREALITATE ERLIJIOSOAREN BALDINTZAPEAN

Topikoa litzateke gogoratzea *Gero* liburua testuinguru konkretu batean sortu zela eta, horrezaz gainera, problematika zehatza zeukan gizarte baten barruan. Baina topikoa izanagatik ere, liburuak egokitu zitzaion errealitate horri erantzun behar izan zion.

Gorago adierazi bezala, errealitate horren alderdi erlijiosoak bazuen azpimarratzeko elementurik. Izan ere, idazle gisa Axularrek elementu desberdin askotako erlijiositate bat du begien aurrean, maiz asko kristautasunetik soilik ez datozen elementu zenbaitz osatutako erlijiositatea. Osagai erlijiosoa Lapurdin eta batik bat Sara aldean nolabaiteko mundu majiko baten eta pentsamendu pagano baten barnean murgiltzen zen, ahaztu gabe, jakina, inguru haietako disidentzia erlijioso kalbinistak erlijiositatearen forma konplexu haietara ekar zitzakeen faktoreak.

Errealitate haren aurrean eta errealitate hari erantzunez sortuko zen *Gero* liburua. Axularrek moldatuko zituen gero gaiak eta liburu atalak, kontutan izan beharko zituelarik, lana ondo burutuko bazuen, errealitate hartako protagonista zuzenak ziren gizakien ezaugarriak. Azentua fedearen esparruan jarriz, honela isladatu zuen Villasantek orduko errealitateari emandako erantzuna:

"Se propone inducir a la conversión. Está escrito para los vascos de su tiempo. Desde luego que éstos eran cristianos y creyentes. Pero en todo cristiano (claro que en distinto grado y proporción, según sea su entrega a Dios) coexisten como dos hombres: el hombre mundano que desconfía de Dios, que cree más en sí mismo y en los valores de este mundo y de esta vida, que en lo que Dios promete; y existe, por otra parte, el hombre creyente, que posee en su fe la semilla de un hombre nuevo, pero en muchos casos ete hombre queda como ahogado por el otro, que se le sobrepone. A este cristiano,

bastante carnal y mundano, se dirige, pues, Axular. Con él discute y entabla diálogo, haciéndole ver con razones bastante positivistas y adaptadas a sus alcances, las ventajas del servir a Dios y convertirse, y de hacerlo desde ahora, sin relegar este negocio para luego, para la hora de la muerte, como hacen los más" (Villasante 1974a, 30-31).

## 5.2.- "IRAKURLE" KONTZEPTUAREN ESPARRUA

Ezaguna da irakurketaren kontzeptua garatuz joan dela eta, aldi berean, indibidualizatuz. Izan ere, mendebaldeko Aintzinate klasikoan ez zen zalantzarik: idazki garrantzitsuak norberak irakur bazitzakeen ere, nagusiki ozenki irakurtzeko ziren, entzulea irakurketa prozesuaren parte bat zelarik. Ong-ek dioenez, "en la cultura del manuscrito y por lo tanto, en los albores de la cultura de la impresión, la lectura tendía a ser una actividad social, en la cual una persona leía a otras en un grupo" (Ong 1987, 129).

Irakurlea diogunean, beraz, zentzurik zabalenean hartu beharko genuke, hots, liburuaren mezu-hartzaile gisa, irakurle zein irakurritakoaren entzule huts. Gutxienez XVII. menderarte autoreek jende hori, hots, zitekeen irakurle-entzuleria hori, begien aurrean bailegoan idazten zuten. Ong-ek berak dioenez,

"[...]desde la Antigüedad hasta avanzado el siglo XVIII muchos textos literarios incluso cuando estuvieran por escrito, por lo general estaban destinados a la recitación pública, originalmente llevada a cabo por el autor mismo [...]. El leer en voz alta ante la familia y otros grupos pequeños era comun todavía a principios del siglo XX, hasta que la cultura electrónica reunió a tales grupos alrededor de los aparatos de radio y televisión, en lugar de, como se hacía antes, en torno a un miembro del grupo" (Ong 1987, 153) (azpimarrak gureak dira).

Geroago ikusiko den bezala, praktika hedatu horrek<sup>177</sup> eragin zuzena eta handia izango zuen literatur estiloan, batik bat parametro erretorikoetatik sortutako literaturarenean.

Horregatik, ez dakigu noraino den zehatza behin eta berriz esan izan dena, hots, "Axularren liburua, ordea, ez da buruz ikasteko eta kantatzeko, irakurtzeko baizik" (Mítxelena 1981a, 273).

Gure ustez, bada orduko egoera zehatzago adieraz dezakeen tarteko kontzepturik ere. Izatez, Axularren liburua ez da buruz ikasteko, ez; baina zenbait pasarte errazak dira buruz ikasteko, horretarako prestatuak bailirudikete; Axularren liburua irakurtzeko da, jakina, baina ez, ezinbestez, modu indibidualizatuan, nor berea eta berarentzat irakurtzeko; taldean irakurria izateko ere oso aproposa da *Gero*: batek irakurri eta besteek entzun. Izan ere, Axularren prosari isurtzen zaizkion formula erritmikoak eta ejemplifikazioak hori baino ez dute adierazten. Ez litzateke, bada, salbuespena Axularren obra, inolaz ere ez.

177 - Chartierrek oroitarazten duen moduan, bada, "De la diligencia a la taberna, del salón a la academia, del encuentro amistoso a la reunión doméstica, son muchas las circunstancias entre los siglos XVI y XIX en las que leer en voz alta, para los demás, es un gesto normal, esperado. La lectura no es, por tanto, solamente una figura de lo íntimo o de lo privado: también es cemento y expresión del vínculo social" (Chartier 1993, 34) (azpimarrak gureak dira).

## 5.3.- GERO-REN IRAKURLEEN EZAUGARRIAK

*Gero*-ren irakurle mota nolakoa izango zen ez jakinagatik ere, Axularrek oso garbi definitzen du liburuan barrena litekeen irakurle tipoa. Lehenik eta behin, jakina, irakurleak euskalduna izan behar du liburua ulertuko badu. Izan ere, euskaldunek ez bestek irakurria izateko jaio zen obra hau.

Halere, liburua euskaldunek irakurria izateko dela adieraztean pellokeria ez den zerbait ulertu beharko litzateke. Alegia, puntu honek erreferentzia gehiago egiten du hango (Lapurdikoa) eta orduko (XVII. mendearen lehen erdialdeko) egoera soziolinguistikoa pertsona bakoitzarena baino. Izan ere, gaur egun ere euskarazko obra baten irakurlea definizioz eta ezinbestez euskalduna behar bada ere, errealitate soziolinguistikoak erabat desberdinak dira: gaurkoa ez bezala, orduko gizartearen funtzionamendua monolinguea baitzen nagusiki (Cierbide 1994). Hori baino ez lukete erakutsiko garai hartan sorginen aurka burutu prozesuetatik jasotako aztarnek:

"Veut-on juger des Basques? Il est indispensable de recourir durant tout le procès à un interprète, avec tous les inconvénients que comporte une traduction orale simultanée. Le juge Pierre de Lancre note à propos de l'un d'entre eux: qu'encore qu'il entendist merveilleusement bien cette langue, néanmoins il ne pouvoit nous la rapporter avec la mesme intelligence et fidélité et la nous rendre en françois, veu que la langue basque a son idiome si pressant et significatif, qu'un fort suffisant et bien versé en la langue françoise seroit bien empesché à la tourner en mesmes sens que la basque" (Soulet 1974, 79; azpimarrak gureak dira).

Ibarrek "el rector de Sara escribió con el fin didáctico, objetivo, de instruir a su público euskaldun en la forma más apropiada" (Ibar 1935, 104) idatzi zuenean ez zuen arazoa mezu-hartzaile euskaldun konkretuaren esparrura mugatu. Areago, Axularren liburua euskaldunentzat, euskaraz eta adiskide euskaldunek eginarazia izan zela adieraziko du (ik. Urgell 1991, 907-908). Irakurleria bera ere ezin zitekeen bestelakoa izan, jakina.

Baina horren arabera, beste elementu garrantzitsu bat ere ondoriozta zitekeen, hots, liburuaren motibazioa, motorea, tresneria, egilea eta irakurlea, guztiak zirela euskal eremukoak, guztiak konformatuko zutela *Gero*-n agertzen den mundua, mezuaren alderdi erlijiosotik hasita azalean distiratzten duten hots eta erritmoen muturre-raino, eta barneko bestelako elementuetatik iraganda.

Bigarren ezaugarri gisa, euskalduna izateaz gain, irakurleak definizioz behar zuen alfabetatua izan (eta har bedi alfabetatzearen kontzeptua modurik zabalenean). Mítxelena gogoratzen zuen moduan, "ikasía edo erdi ikasía izateak gutxienez kondizio bat eskatzen zuen, irakurtzen aski ongi jakitea" (Mítxelena 1981a, 272).

Ez dugu hemen errepikatuko alfabetatzearen bidean Iparraldeko euskaldunei Elizak eskaini zien laguntza -esan beharrik ote dago?- interesatua. Alabaina, ez dago soberan euskal irakurleriaren prestakuntza eta formazioan zenbait zutari gogoraztea.

Ahozko tradizioa literatura idatziarekin uztartu zutenen lana eta meritua inolaz ere gutxiesteke (Etxepare, Etxegarai, Logras,...), ezaguna da eliza erreforma-tzaileari egokitu zitzaiola, zituen planteamendu erlijiosoen ondorioz, kode idatziaren

“demokratizazioa”<sup>178</sup>, batik bat Testamentu(ar)en hedapenaren bidez.

Lapurdi eta Nafarroa Behereko *hinterland*-en, dena den, eta beti ere garai hartako bibliografiaren esparru irristakor bezain ezezagunegian murgilduz, Leizarragaren saiola bukatu ondoren bilatu beharko da katolikoaren arteko alfabetizazio aski sistematikoaren (?) hasiera, Materrek idazteko agertzen dituen arrazoien artean honako argimategi hau baitator: “ikus dadin halaber nola behar den Euscara esquiribatu eta iracurtu” (Materre, *Dotrina...*, xiii or.). Hortaz, 1617rarte itxaron behar da Lapurdin produkzio idatzia (eta, berriro diogu, erlijiosoa) kronologikoki ere modu aski sistematikoan agertzen hasi arte (ikus Sarasola 1975): Materre 1617 eta 1623 (2. ed.); Etxeberrri Ziburukoak 1627, 1631 eta 1636; Haranburu 1635 eta 1642 (2. ed.); Argaignaratz 1641; Axular 1643,...

Horrezaz gain, badirudi orduko irakurlegoa -arazo ekonomiko larriegirik ez zuen irakurlegoa, alegia- liburu-erosle bihur zitekeela modu aski automatikoan, besteren artean elizgizone ziren liburugileen auctoritas (= derrigortasun moralala bilakatzen zena) delakoagatik. Marinelei, esaterako, garbi asko uzten zien Materrek liburua eskuratzekeo “beharra”: “[...] ceren estimatzen dut ez-tela iñanen bat-ere iracurtzen daquien marinelic liburu haur iñanen ez-tuenic” (Materre, *Dotrina...*, 328 or.).

Bestalde, *Gero*-ren irakurle tipoaren karakterizazioan luze mintzatu izan da Axularrek “Iracurtçailleari” eskainitako hitzaurrean idatzitakoez: “Eztut liburutto haur, letratu handientçat eguiten. Eta ez choil, deus eztaquitenentçat ere” (19 or.).

Luze mintzatu bai, baina ez beti egokiro. Mitxelena zioen legez:

“Batek baino gehiagok esan izan du eta esaten du, ez dakit idatzi ere ez ote den egin, Axularrek liburua bere elizgizon kideentzat egin zuela, horiek beren prediku eta sermoietan gaia ugari izan zezaten. Baina antiojorik gabe irakurri duenak berehala ikusten du liburu hori ez dela elizgizonentzat egina, laikoentzat baizik, munduan bizi den jendearentzat” (Mitxelena 1981a, 272).

Edonola ere, beti izan omen da Axularren hitzen interpretatzaileen artean nolabaiteko adostasuna lerro horiek esan bide dutenaz:

“Axularrek, hitzez-hitz hartzen badugu dioena, ez zuen “liburutto haur, letratu handientçat eguiten. Eta ez choil deus eztaquitenentçat ere”. Horien artea, ordea, *euscararic baicic* [sic] *etçiaquitenac* zituen begiz joak. Eta hona ondorioa: Axularrek irakurtzaileentzat idatzi zuen, irakurtzen zekitenentzat (holako egia biribilak ergelkeria badirudi ere), beren ahoz ez besterenez irakurtzen. Eta irakurtzaile horien artean baziren, bat baino gehiago, erdararik ez zekitenak. Bestalde, eta oro har egingo genuke aski ugari aurkitzen zela horrelako jendea XVII. mendeko Lapurdin, batez ere lurtean bizi ziren laikoaren artean. Begien bistan dagoela iruditzen baitzait ez zela Axular lehenbizikoz behintzat beretarrekin ari, otsoak eta otsokiak duten ezinikusi ezagun hargatik, behar bada” (Mitxelena 1981d: 1988, 121).

Alabaina, tesi-lan honetan defendatzen ari garen bezala, neurri handi batean elementu anitz eta ezberdinen konfluentziatik sortutako planteamenduaren islada baino ez dirudite Axularren hitz horiek. Axularri egokitu zitzaion errealitate konkretuarekin bat zetozen hitzak dira horiek, zalantzarik gabe, baina, azken finean, topos bihurturik agertzen direnak.

178 - “En Francia, durante los siglos XVII y XVIII, la separación entre un noreste alfabetizado y el relativamente analfabeto suroeste, seguía una línea diagonal que iba desde Mont-Saint Michel hasta el lago de Ginebra. Si tomamos Europa como un todo [...] Los protestantes, con un grado mayor de formación, contrastaban claramente con los católicos y, todavía más, con los cristianos ortodoxos” (Burke 1991, 104).

Erretorikan maisua zen Zizeron berdintsu mintzaten da *De Oratore* (II, 6) liburuan:

*Nam ut C. Lucilius, homo doctus et perurbanus, dicere solebat, et, quæ scriberet, neque ab indoctissimis se. neque ab doctissimis legi velle; quod alteri nihil intelligerent, alteri plus fortasse, quam ipse* <sup>179</sup> (azpimarrak gureak dira).

Ildo beretik joango zen beste hau ere, nahiz eta latina-grekerak bikotearen ordezkara-erdara jarriko bagenu egokiago ulertuko litzatekeen Axularrena:

“Viendo yo, dice Varron, segun escribe Tulio, diligentísimamente explicada la filosofía en lengua griega, fuí de parecer, que si algunos de los nuestros deseasen aprenderla, siendo peritos en la lengua griega, leerian antes las obras griegas que las nuestras. Y en caso de ser desafectos á las artes y ciencias de los griegos, no se cuidarian de lo que sin griega erudicion no puede entenderse. Así no quise escribir lo que ni los indoctos podrian entender, ni los doctos procurarian saber [...] Antes bien leerán los escritos latinos, los que no podrán los griegos; y los que podrán leer los griegos, no despreciarán los suyos” (Ciceron: *Acad. quaest.*, 1. lib., apud Granada, *Retórica*, 517b-518a or.).

Honako hau, dena den, idazle eta predikari guztien ohiko kezka bilakatua zen ordurako erretorikaz kanpoko arrazoiak zirela medio, batik bat Trentokkoaren ondoti etorritako urte ilun haietan.

Axularren garaikidea zen Terrones del Cañok zioen bezala, predikariek ezjakinei bezainbeste bildur zieten jakintsuei:

“Mira qué buen juicio el del vulgo, especialmente que tiene ojos de lince para ver las faltas y de topo para ver la excelencias del sermón [...] También se suele temer por otro extremo el auditorio lleno de sabios; porque no puede ir el sermón tan limado y peinado que no hallen que tachar” (*Instrucción de Predicadores*, 38-39 or.).

Eta bazuen jakintsuei bildur izateko motiborik gure saratarrak. Izan ere, liburuak teoriarik izan zezakeen erdi-mailako irakurlegoari begira sortzen eta moldatzen ziren testuei, tarteka-marteka edozein sasijakintsuren belarriak min zitzaketan anakronismo nabarmenegiak isurtzen baitzitzaizkien.

Horrezaz gainera, erdiko bidea aukeratzekoan bada beste arrazoi bat, hizkuntzarena alegia. Pentsatzekoa da jakintsuek bazutela latina gauza sakon eta teologikoki garrantzitsuetara iristekko eta hizkuntza “vulgar” direlakoak beste zerbaitetarak erabiltzen zirela. Ildo horretarik, adierazgarriak dira Granadakoaren hitzok: “[...] alguna personas graves que condenan los libros de buena doctrina, escriptos en lengua vulgar para el uso de los que no aprendieron latin [...] razon tienen, si entienden que no se han de escribir en lengua vulgar ni cosas altas y oscuras[...]” (Granada, “Prólogo galeato”, *Guía*, 6).

Gauzak hobeto ulertu ahal izateko, ezin ahaz genitzake Axularrek eta hura bezalakoek testuinguru historiko hartan jasan behar izan zituzten presioak: psikologikoak, sozialak, zenbaitetan barneratuak eta bestetan eragindakoak, etab. Besteren artean, ez ziren gutxiestekoak Inkisizioarena bezalakoak edota liburua bera *Index*-era pasatzeko arriskuarena.

179 - “Solía decir Cayo Lucilio, hombre docto y muy gracioso, que no quería que leyese sus escritos ni los muy ignorantes ni los muy doctos, porque los unos no entendían nada, y los otros querían entender más de lo que él había escrito” (*Diálogos del orador*, 79 or., in *Obras completas de Marco Tulio Ciceron*, II, M. Menéndez Pelayo latinetik itzulia).



Hortaz, aurreko guztiaren aurkako justifikazioa ere legoke famatua bihurtu den esaldi horretan. Axularri Cayo Luciliori bezain garrantzitsua irudi zekiokoen justifikazio beharra: "Era berean, gure ikasketa hauetaz mintzatu beharko banu, ez nuke nahi pertsona arruntek entzun liezadaten, baina are gutxiago besteez; nahiago dut nire berbaldia ulertua ez izatea, jazarria eta kritikatu izatea baino"<sup>180</sup>.

Topos-a, zuriketa eta errealtatea, azken finean. Errepresioaren eskua ondo-txo ezagutzen zuen Granadak berak, esaterako, Axularren obraren burutzapenerako laguntza baino zerbait gehiago izan zen *Guía de pecadores* liburuan finko azaldu zuen guztiontzat idazteko asmoa: "Procuraré en esta escriptura, como en todas las otras, de acomodarme á toda suerte de personas" (Granada, *Guía...*, 13 or.), ondorioak berdintsuak zirelarik, zeren eskuarki gutxien zekitenen mailakoak behar zuten izan idatzitakoak. Eta ondorioz, horretan zetzan liburu mota horien arrakastaren gakoa, Granadarenarenak eta Axularrena salbuespen izan ez zirelarik.

## 5.4.- IRAKURLE TIPOAREN KONFIGURAZIOA

Oro har, eraikitzen ari garen irakurle "tipo" horren enparauko ezaugarriak testuan barrena aurkitutako honako ñabardura hauen bitartez irudika genitzake:

\* Gorago esandakoaren ildotik, irakurle tipo horren alfabetatze maila irakurketa arlori mugatzen da. Axularrek zuzenean ezer esaten ez duen arren, espero dituen irakurle arruntek ("euskararik baizen etziakiten" horiek, alegia) ez dakite idazten<sup>181</sup>, ez behintzat testu arriskutsuak idazteko bezainbat. Eta horren frogara, Granadaren testu batekiko paralelotasuna erakusten duen pasarte batek eskainiko liguke.

Granadak haragiaren bekatutik begiratzeko ematen duen aholkua garbia da eta bekatarien alfabetatze-mailarekin zerikusia du: "Huye también los presentillos, visitas y cartas de mujeres" (*Guía*, 131a) (azpimarrak gureak dira)

Axularrek, aldiz, bekatu horretatik begiratzeko erremedioen artean ez du "gutun"-ena aipatu ere egiten, ez bide du-eta inolako arriskurik antzematen:

[...] behin abiatuz gero, adiskidetzuz gero, trebatuz gero, eta elkarrekin solhasean, hitzketan, elheketan, presentketan, gosalketan, eta bisitaketan hasiz gero, peril handia da arimako, eta exemplo gaixtoa munduko (*Gero*, 404) (azpimarrak gureak dira).

\* Azpimarratu beharrik ez dago: alfabetatze graduaren arabera, kultur maila bera ere oso apala izango da irakurleen artean, punturik nabarmenena agian Axularrek erabiltzen ez dituen erreferentzia kulturaletan antzeman daitekeelarik. Alegia, garai hartan

180 - Ciceron, *Diálogos del orador*, 79 or. (azpimarra gurea da).

181 - Ez gara hemen zehazten hasiko -hipotesitan arituko baikinake!- irakurle ziren askok zituzten trebetasunak noraino iristen ziren, ezaguna baita jende xehea gehienik ere doi-doi sinatzera -batzuk oinarritzko kontuak jakitera ere bai- hel zitekeela normalean.

predikari eta idazle askok<sup>182</sup> erabiltzen zituzten ereduak Axularren liburuaren pertsonaia bibliko eta historikoenetara mugatzen dira. Izan ere, autoreak begien aurrean duen irakurle mota horrek bideratuko du liburuaren erreferentzia mundua, "interesatuki" pobre eta bestelako literatur errekurtsorik gabeko bihurtuz. Hori dela eta, nekez aurkituko da *Gero*-n mitikoak edota literario hutsak diren pertsonaiak edo erreferentziak.

Adibide paralelo soil batzuk baino ez jartzeagatik, Herreros-ek *Sermonario Clásico* izeneko liburuak hautatu sermoiak ikus genitzake<sup>183</sup>. Bertan, eta *Gero*-n ere maiztxo ikusten diren Seneka, Platon, Marcial, Sokrates edota A. Gelio-ren ondoan, Penelope, Orestes, Circe, Medea, Semeles, Júpiter, Saturno, Ganimedes, Príamo, Orfeo, Ceres, Baco, etab. azalduko dira exempla gisa, hots, Axularrek inoiz liburututako ez dituen jainkoak, mitoak<sup>184</sup> eta pertsonaia literarioak. *Gero*-ratzen direnak besteren aipamenetan tartekatuak ohi dira (Venus, Marte, etab.), eta beti azalpen argitzaileraren batez lagundurik.

Gabezia horren esplikazioaren atal bat erreferentzia horiek fede eta Elizaren egiekiko ekar zezaketen paganizazio-arrisku objektiboan datzan arren -autorearentzako ondorio guztiekin, noski<sup>185</sup>, ezin ahaz daiteke irakurlearen kultur maila eskasak berak hutsal bihurtzeko erreferentzia horien presentzia, hutsal eta anabasarako gertuegi, inondik ere. Areago, XVII.ean mendebaldean arrunta zen "piramide" hitzaren beraren aurrean, Axularrek elementu ezezaguntzat jotzen du bere liburuan, eta, irakurleek ulertuko ez dutelakoan edo, haren deskribapena egin beharrean aurkitzen da (*Gero* 26 or.).

\* "Giristinosuna" izango da irakurle tipoaren beste ezaugarri bat, baina ez edozein giristinosun mota, irakurlea "legue Catolica saindua" (6 or.) delakoaren eremuko giristinosun hartuko du Axularrek, hots, katolikotzat. Inoiz besterik adierazi izan bada ere, egileak gogoan dituen irakurleak ez dira "eliciatic campoan" (8 or.) dabilzan jendeak; are gutxiago, Materren hitzez baliatuz (*Doctrina...*, 105 or.), "Paganoc, Hereticoec, Supersticiosec, eta guztiz-ere Sorguinec" osatzen duten multzoa, katoliko-enganetik hurbilen zeuden heretikoak, hau da, "Fedebat, leguebat, Eliçabat, eta Eliçaren 182 - Euskal esparruko autoreen urritasuna dela medio, ezinbestekoa dugu erdaraz hitzegiten eta idazten zuten autoreen erreferentzia.

183 - Fr. Diego de la Vega-ren "Sermon de San José" (1602) eta Fr. Hernando de Santiagoren "Sermon de San Juan Evangelista" (1603), Fr. Diego Murillo-ren "Sermon de San Esteban" (1604), Fr. Miguel Pérez de Heredia-ren "Sermon de San Miguel" (1605), Fr. Pedro de Valderrama-ren "Sermon de San Agustín" (1612), Fr. Angel Manrique-ren "Sermon de San Benito" (1613), Fr. Hortensio Félix Paravicino-ren "Sermon de Santa Teresa" (1625)

184 - Ez da gure artean Sánchez Romatek dioena ematen: "Los siglos de oro redescubren totalmente la mitología y sus usos literarios, y los cuadros y los libros se plagan de referencias, «vulgarizándose» además la cultura mitológica gracias a la publicación de manuales mitográficos" (Sánchez Romate 1993, 456). Lan erlijiosoaren izaeraren kariaz nagusiki, euskal autoreek ez dute mitologia klasikoaren isladarik erakusten, nahiz eta oso zinez pentsa daitekeen gure idazleek, formazioagatik zein (gutxiago, agian) irakurketengatik, ongi ezagutuko zituztela mitologia klasikoaren hari nagusiak. Izan ere, mitologia liburuak "figuraron, en los siglos XVI y XVII, en la biblioteca de todo hombre cultivado" (Seznec 1983, 260)

185 - Ezaguna da arrisku horietatik aske geratzeko ohiko formulak -formula errepikakorak, betiere- zertan zeutzan. Hona hemen, adibide gisa, haietariko bat: "[...] Pero sucedióle a esta águila (y séame lícito, para gloria de Cristo, hacer esta semejanza) lo que fingieron los poetas haber sucedido a su falso dios Júpiter en cierta ocasión [...]. Esto que fingió la antigüedad pasó verdaderamente en aquella Águila divina de quien agora íbamos hablando" (Fr. Diego Murillo-ren "Sermon de San Esteban", in *Sermonario Clásico* 63 or.) (azpimarrak gureak dira)

buruçaguibat baicen eztelariç (cein baita Erromaco Aita saindua) hec hura ukhaturic, fedea eta leguea bere ançu, bere borondatera eta libertatera behar ezten beçala” (Materre 1627, 108-109 or.) deklaratzten dituztenek ez bide dute zerikusirik Axularren obraren irakurlegoarekin, ondoko lerroetan ikus daitekeen bezala:

“Baldin iccus baceneça ecen guiçon batec, meça erraiteco Caliça aldaretic harturic hartan nori nahi den, agueri diren arlote, errumes eta bertice iende suerte guztiey emayten derauela cantoin guztietan edatera, cer othe cenerraque? Gutienean bacenerraque hura dela luthertasun handia, gauça itsusia eta eztaquiçula, cer gaztigu ordena halacoari” (262 or.; azpimarra gurea da).

Horiek guztiak “guiristino gaixto Deabruaren parte seguitcen dutenac” (505 or.) lirerateke eta ez bide zuten inolako loturarik inoiz bekatutan eroriak zebiltzan giristino konbertigarriekin.

\* Gizonezkoa da nagusiki. Garai hartako hezkuntza eta gizarte-baloreak medio, Axularrek, orduko beste idazle askok bezala, baztertu egiten du emakumea bere liburuaren ohiko irakurleen artetik<sup>186</sup>.

Premisa moduko gizarte-planteamendu horrezaz aparte, anekdotikoaren mailan geldi daiteke, liburuan barrera zenbait bekatu tratatzean, Axularrek emakumeak irakurlegotik esplizitoki baztertzea, besteak beste ez baiteritzo, antza denez, gertagarri emakumeak bekatu horietan ekimena eramateari. Edo, hobeto esanda, orokorrean ez badu kontutan hartzen emakumea ere izan daitekeela liburuaren irakurle, kapitulu konkretu horietan gizonari bbakarrik zuzentzen zaio, bere gainean jartzen duelarik bekatu horie burutzapenerako ekimena. Ildo horretatik, ez dira gutxi aurki daitezkeen adibideak:

“Emazte batequin beccatutan çaudenean [...]” (371 or.).

“Ethortcen da lubilio bat, edo besta-buru bat, edo gariçuma: Eta hetaric batetan, iccusiric ecen bertcela galdua çoacilla, eguiten duçu urriquimendu handi batequin cofessione general bat, ceure mendean eguin dituçun falta guztiez, harturic vorondate fin bat, ez guehiago emazte harengana, eta ez bertice halacotara bihurtceco. Eta handic harat hala complitcen duçu, etçara guehiago bihurtcen. Haur da erremedio ona, eta hartu behar den bidea, itsutua, eta beretacotua çaduçan, emaztearen utzteco” (371 or.).

“[...] baiña emazteac bere hitz leunaz, solhas garaciatsuz, eztiac eta emeaz, beretacotuco, çaitu, centçutic atheraco, liluratuco eta bertice aldera itçulico çaitu” (398 or.).

Eta beheraxeago, gauzak argi ez bazeuden, honako itzulpen edo moldaketa “bideratu” hau aurkeztuko du Axularrek Jondone Pauloren hitzez baliatuz:

“Halatan erraiten du Iondone Pauloc. *Fugite fornicationem*. Ihes eguiçue emaztétaric, haraguiaren beccatutic [...]” (398 or.).

\* Are gehiago, autoreak “hautatu” duen irakurlea adin konkretu batean dagoen gizona bide da oro har, hots, batik bat haragizko bekatuak “egiteko” gai den <sup>186</sup>- Aski izan bitez Burkeren hitzak XVII. mendeko emakumeen prestakuntza mailaz oharrezko: “Las mujeres tenían un grado de educación menor que el de los hombres. En 1630 en Amsterdam, el 32 por 100 de las esposas podían escribir su nombre, frente al 57 por 100 de sus maridos y en la totalidad de Francia, a finales del siglo XVII, la relación estaba entre un 14 y un 29 por 100, respectivamente. De este modo, la palabra escrita debe añadirse a la lista de los elementos culturales no compartidos por las mujeres, que comenzaron a sustituir a los hombres como guardianes de la tradición oral” (Burke 1991, 95; azpimarrak gureak dira).

gizona. Gainera, haragiaren bekatuarekin lortuta, zahartzarora bekatuarekin gabe iritsi behar den aro bat bezala erakusten da liburuan.

\* Lanbidez ere, balirudike “lehorreko” irakurlea dela nagusitzen dena, nahiz eta bestelakoak ere eroso sentitzen diren testuan. Horrezaz gain, zenbait momentutan ez-kondua eta seme-alabak dituen eta maila ekonomiko altu samarrekoa da Axularrek buruan duen irakurle prototipo hori, eta ez bakarrik eman ditzakeen edota eman behar omen dituen erremusinengatik:

“Ceure umea edo cerbitçaria, corrigitu, emendatu, eta centçatu nahi duçunean, anhitzetan ere cerori iartcen çara, cença beharreanago [...] non anhitz arnegu, eta iuramentu eguinic, azquenean, çure umearen, eta cerbitçariaren falta baiño, çurea handiago guerthatcen baita [...]” (278 or.).

Sorna-izpi batekin, antzeko zerbait adierazten zuen Mitxelenak (1981a, 273) hamazazpigarren mendean burjes izan zitekeen neurrian, Axularrengan burjes izpiritua agertzen zela zioenean, eta burjesen artean zabaldu zela haren liburu baiezatzean.

Horri, gorago adierazi den bezala, irakurle izateko beharrezkoa zen liburuaren prezioa ordaintzeko ahalmen ekonomikoa erantsi behar zaio. Escarpiten hitzetan,

“[...] el precio del libro en Europa occidental se mantuvo así a un nivel accesible para la burguesía acomodada, pero no para las clases medias y menos aún para los trabajadores” (Escarpit 1968, 22).

\* Apaiza edo gizon erlijiosoa ere izan zitekeen liburuaren mezu-hartzailea<sup>187</sup>. Esate baterako, 34. kapituluaren Axularrek irakurle tipo deitu dugun horri zuzenduko balitzazio bezala idazten badu ere, izatez zeharkako bidea hartu du “Eliçaguiçonari” (361 or.) zuzentzeko<sup>188</sup>:

“Bada eritasun hunez [amodio kontuez ari da] cutsatua guerthatcen den Eliça guiçona are da gauçiquiogo eta galduago. Peril da halacoac, ahaide probe guti ezconduco duen erremusinac bakhan eguinen dituen. Ceren amorantea eguinez guero, bere gogoa eta bihotza, haren baithan ibentcen baitu, eta bere onac ere harequin gastatcen eta hondatcen baititu” (361 or.).

Hobeto ulertuko da zeharkako bidearen aitzakia beherago datozen hitzen argitan. Izan ere, berdin zaio konbertitu behar den irakurleari apaizek zer egiten duten. Hori bai, liburu teoriarik konbertsio beharrik ez duen elizgizonak irakurtzen badu, berehala ikusiko ditu berari zeharka zuzendutako hitzak:

“Emaztetan eztabillan appeça, emaçu saindutçat: eta dabillana, hala dabillaiño emaçu galdutçat” (362 or.).

Horretan oinarriturik, eta mezu-hartzaileak hiru motatakoak izan daitezkeela kontutan harturik, honako hau idatziko du Axularrek zuzenean inori zuzendu gabe:

“Beraz hunelatan, principalqui Eliça guiçonac, eta presuna ezconduac, baiña guero beguira

<sup>187</sup> - Lafittek Villasanteri aipatu omen zizkionak, esate baterako: “Axularren garaian Saran baziren 23 apaiz. Sobera, noski. Eta denak ez bide ziren «mutiko onak». Gero-ko zenbait irakaspen hoiei begira ez ote diren egunik galdetzen du berak” (Villasante 1972, 50).

<sup>188</sup> - Fray Pablo de León-ek *Guía del Cielo* (1553) liburuan kritikatzten zuena ikusirik, ez dirudi elizgizonak ere salbuespen zirenik bekatu honetan: “A penas se verá la Iglesia catedral o colegial donde todos o la mayor parte no estén amancebados” (apud Sainz Rodríguez 1927, 194).

biteci bertce guztiac ere, haraguiaren lohian sartcetic, eta hidoiztatcetic” (362 or.).

Edozein gisaz, mezu-hartzaileak elizgizon ere bazirela dioen hipotesian areagotuz, bada Axularrek “Iracurtçailleari” idatzitakoan interesgarri deritzogun pasarte bat, irakurle arruntarekin zerikusi gutxi bide duena:

“Hunetçaz content ez paçara, eguiçu çuc ceure moldera, eta çure herrian usatcen eta seguitcen den beçala. [...] haur da nic nahi nuqueyen gaucetatic bat, ene enseiu appur hunec quilica cinitçan eta guticia, bertce enseiu hobeago baten eguitera eta ene hemengo falten erre erremediatcera. Ceren halatan, ezliçateque euscara hain labur, escas, eta ez hertsi, nola munduac uste baitu, eta baitaduca, dela” (19 or.).

Honen arabera, bi dira pasartean bereiz daitezkeen puntuak. Lehenengoa, zalantzarik gabe, espreski zuzentzen zaio gai “hunetçaz” dakienari, hots, elizgizonei zuzenean (“content ez paçara”) eta ezinbestean (nork horretaz jakingo, bestela? nork horretaz aritzeko asmoa?).

Azken zatia, aldiz, modu zabalago batean interpreta liteke, euskararen urritasun hori konpontzen hasteko gonbitea idazten (eta zer idatzi ere bai) dakien edonorentzat delako hain zuzen.

Nolanahi ere den, pasarte guztia datorren datorrenean hartuta, gonbiteak elizgizonentzat egina dirudi. Ondorioz, pentsatzekoa da “nahi nuqueyen [...] ene enseiu appur hunec quilica cinitçan eta guticia, bertce enseiu hobeago baten eguitera eta ene hemengo falten erre erremediatcera” esaldiak elizgizonak dimela litekeen irakurle modeloren ikusmiran.

Honela, eta gora-behera batzuekin bada ere, Axularrek “Irakurtzaileari” atalean irudikatutako irakurlea izango da nagusiki liburuan isladatuko dena.

Jakina, testua irakurle arruntarentzat prestatu nahi izate horren ondorioa liburuaren planteamendu erretoriko orokorrean eta erabilitako baliabideetan antzemango da: liburua taxutzeko modua, irudi eta exenpluetan oinarritu eta haien bidez garatuko dena, oinarritzko argumentazio mota, edergarriak eta haien ezaugarri erritmiko-fonetikoak -ahozkotasunaren mundutik datorren irakurle landu gabeko batek ongien bereiz ditzakeenak, alegia-, etab.

Elementu horiek guztiak irakurlearekiko testu-egokitasun mailaz mintzatuko dira eta, aldi berean, obraren izaera zeharo erretorikoa utziko dute agerian.

## II. PARTEA: PROSA ERRETORIKOA GERO-N

**VI.-GERO-REN  
SORRERAZ**

“Estudiemos lo común, los «topoi». Con tal de que sea precisamente para mirar a lo que no es «topos»: al prodigio creativo, a la unicidad, intacta y esquiva, de la crianza de arte”

D. Alonso

Ezaguna da Erretorika klasikoaren ohiko bost parte kanonikoetatik lehenengo bien eginkizuna dela diskurtsua planifikatzea eta antolatzea. Jakina, horrek ez du inolaz ere esan nahi adierazpen maila, hots, *elocutio* delakoari dagokiona, erabat aparte dagoenik, izan ere osotasun baten parteak baitira guztiak eta ezin handiagoa elkarren arteko lotura.

Hortaz, berbaldiaren planifikazioaz ihardungo du *inventio*-ak. Grekerazko tradizio erretorikotik datorren hitz latindar honek *Rethorica ad Herennium* liburuan aurkitu du ezagutzen den definiziorik hedatuena: “*Inventio est excogitatio rerum verarum aut veri similibus quae causam probabilem reddant*”<sup>189</sup>.

Ildo beretik abiatuko da Kintiliano eta klasiko guztien definizioa. Lausbergen hitzak erabiliz, *inventio*-a “es un proceso productivo-creador; consiste en extraer las posibilidades de desarrollo de las ideas contenidas más o menos ocultamente en la *res (excogitatio)*” (Lausberg 1990, 235).

Erretorika klasikoan *inventio* izenaren esanahi, bada, gehiago lotzen da argudio eta ideia egokien bilatze eta aurkitze lanekin, izenaren latinera etimologiak esan uste duen “asmatu” ariketarekin baino. Granadak gogoratzen duen moduan: “la

<sup>189</sup> - Menéndez Pelayoren itzulpenean, “invención es el hallazgo de argumentos verdaderos ó verosímiles que hagan probable la causa” (*Retórica á C. Herennio* I. lib., § 2, 3, in *Obras completas de Marco Tulio Cicerón*, 1913, 1. t., 108 or.)

primera virtud de la invencion es la eleccion [...] escoger principalmente para predicar, aquello que pide la naturaleza del argumento, la condicion y la necesidad de los oyentes” (Granada, *Retórica*, 637a).

Bilatze lan horiek modu askotara egin daitezkeen arren, normalena da erreto-rearen urratsak erretorika klasikoa urteetan barrena sortzen joan den esparru batera zuzentzea, argudioak eta ideiak eskain ditzakeen “leku” zehatz batzuetara alegia. *Loci* edo topoi horiek “consisten en fórmulas apropiadas de investigación y búsqueda que pueden llevar a descubrir las ideas que nos interesan” (Lausberg 1990, 236).

Curtiusen hitz laburbiltzaileak erabiliz, “lo que importa es que todo discurso (también el panegírico) haga aceptable la frase o el asunto tratado; para ello debe emplear argumentos que se dirijan al entendimiento o al corazón del oyente. Ahora bien, hay toda una serie de argumentos para los casos más variados; son temas ideológicos a propósito para cualquier desarrollo o variación; el griego se llaman koinoi topoi, en latín *loci communes*” (Curtius 1979, 108).

Bestalde, badute *inventio* eremuko “leku” hauek guri bereziki azpimarratzea interesatzen zaigun konnotazio berezi bat, erretorika klasikoak ahozkotasanarekin izan duen loturaren erakusgarri dena alegia. Momentuz azaletik baino ez aipatzeko, Ongen hitzak gogorazi nahi genituzke:

“La retórica conservaba gran parte de la antigua sensibilidad oral para el pensamiento y la expresión, como básicamente agonísticos y formularios. Esto se manifiesta claramente en la enseñanza retórica sobre los «tópicos» [...]. Con su herencia agonística, el aleccionamiento retórico suponía que el objetivo de casi todo discurso era probar o refutar un poco contra alguna opinión contraria. El desarrollo de un tema era considerado como un proceso de «invención», es decir, de hallar en los argumentos que otros habían explotado siempre, aquéllos que fueran aplicables en cuestión. Se suponía que estos argumentos se encontraban (según Quintiliano) en los «tópicos» (*topoi* en griego, *loci* en latín), y a menudo se designaban como los *loci communes* o lugares comunes, pues se creía que proporcionaban argumentos comunes para todo tipo de asuntos” (Ong 1987, 110).

## 6.1.- GAIAREN HARILKATZEA

Aipatua dugu jadanik Axularrek gaztelera izan zituela adierazten zuen hipotesia. Horretarako arrazoirik nagusia, ikusi denez, ikasketa eta prestakuntzarako hizkuntzan letzake batik bat, izan ere, “bere eskolak eta formazio guztia Espainia aldean eginik zuen Axularrek” (Villasante 1972, 48). Gainera, ordurako zaharkitzen hasia zen latinaren esparruko literatura alboraturik, ez dirudi frantses esparrukoarekin lotura gehiegi izan zuenik, besteak beste, Sarako eliza-agiri zenbaitek adierazten duten bezala (Urquijo 1912b, 7), gaztelera frantsesa baino aisago bide zerabilelako urdazubiarrak.

Edonola ere, horiek guztiak eta, bereziki, iturrien esparruarena konfirmatzen hasi ziren *Gero*-n tartetaku hainbat pasarteren jatorria Luis Granadakoaren gaztelera testuetan aurkitu zenean.

Mitxelena ere egokiro usnatu zuen Axularren iturriak “podrán hallarse, a poco que se rebusque, en las literaturas vecinas del siglo XVI, con toda probabilidad, a menos que me equivoque mucho, más bien del lado español que del francés” (Mitxelena 1971, 168; azpimarrak gureak dira)

Hipotesi horren ildotik abiatuz, badirudi tematikoki zein formalki ere *Gero*-n alor horretako literaturarekiko “dependentziak” eta kideetasunak aurki daitezkeela erraz.

Baina originaltasunaren dilema areagotzeko baino gehiago -dagoeneko ez da hori literaturari gehien interesa dakiokkeen arazoa-, iturri-eragin horien argitzeak sarartutaren eta garai hartako idazle-predikari euskaldunen *tekne* erretorikoa hobeto ezagutzeko balio lezake.

### 6.1.1.- LIBURUAREN ARDATZA ETA KIDETASUN TEMATIKOAK

Oro har mintzatuz, eta hitz jolas bat zilegizkoa izango balitzaigu, esan genezake Horazioren *delectare et docere* bikote erretorikoari eransten zaion San Agustinen *movere* delakoa (*De Doctrina Christiana*) bihurtuko dela Axularren liburuaren ardatza: mugitzen ez dena = alferra da, nagia.

Alferraren inguruan eraikitzen da, beraz, liburu, mugimendu ezaren arrazoiaren inguruan, alegia. Baina liburuak ez du alferkeriaz huts-hutsean tratatu nahi, konbertsiorako bidea hartzea egotzen duen alferkeriaz baizik. Ezaguna den bezala, *Gero* liburuaren hasiera eta bukaerako giltza izango da konbertsiorako gonbitea egiten duen aipamen biblikoa<sup>190</sup>: “Ne tardes converti ad Dominum, & ne differas de die in diem” (ik. liburuaren azala eta 620 or.). Obra guztia, bada, gonbite honen inguruan ardaztuko da, beronen garapena baino ez baita azken finean.

Bertan, konbertsioaz gainera, “presa”, “berehalakotasuna” da hitz gakoa, kontzeptualki alferkeriaren ondorioa den “utzikeria”-ren antonimoen sailean koka daitezkeena hain zuzen.

<sup>190</sup> - Aipamen kultu hori ahozkotasanaren kulturaren hain maiz entzun ohi direnen kide erlijiosoa genuke. Ezin ahaz daiteke, esaterako, gaztelera erretra den “No dejes para mañana lo que puedes hacer hoy” delakoa.

Honela, ohiko predikazioaren eta aszetika liburuen helburu dena<sup>191</sup>, aldi berean, gai bihurtzen da. Eta hemen legoke planteamenduaren originaltasunetarik bat non-bait. Hori eta bekatu buruzagien trataera hain zuzen. Izan ere, inoiz adierazi izan da Axularren beste alderdi originaletako bat bekatu buruzagiei buelta ematean datzala, eta haietako azkena (hots, alferkeria) guztien iturburutzat jartzean ohiko katalogo eta liburuei aurrea ateratzen diela. Halere, ez gaude ziur ea benetan Axularrenak, hots, bereak, originalak ote diren planteamendu horiek.

Historikoki planteaturik, zaharra da alfertasun / alferkeria eta nagitasunaren gaia, izatez mendealdeko literaturan topiko bihurtzera iritsiko baitzen literatura profanoan ere (Curtius 1976, 135-136 or.). Bibliaren lekukotasunaren aberastasunak ahaztu gabe<sup>192</sup>, eta Axularrek berak darabiltzan aipamenez baliatuz, honako adibide hauek genituzke "jentilen" literaturatik jasotako ospetsuenetariko batzuk: Ovidio<sup>193</sup>, Seneka<sup>194</sup>, Diogenes Laertzio<sup>195</sup>, etab.

Egia esan, literatura erlijiosoan maiztxo errepikatzen zen gaia dugu honako hau. Ezagunak ziren, esate baterako, San Agustinen *De vigilatione et otiositate vitanda*, Axularrek berak aipatzen duen *Ad Fratres in Eremo* agustindarra, eta beste hainbeste (Krisostomoaren sermoiak, etab.).

Alferkeria moralaren liburuen historiari erakitzeko betarik ez dugun arren, eta XVI. mendera etorri, alferkeriari atxikitzen zaizkion beste bizio batzuen alegoria antzeko bat ere aipa liteke opsetsuenen artean, Luis de Mejía y Ponce de León-ek idatzia, gainera Axularrek ezagututako eremuetan eurrez zabaldu zena. Salamancan ikasten ibili zen kanonigo honen obra hori *Diálogo de la Ociosidad y el Trabajo ó Labricio Portundo* (1546) izan zen, alferkeria eta lanaren arteko loturei buruzko nobela moral hain zuzen.

Alferkeria eta lanari buruzko tratamenduak xede desberdinak zituen, baina aipatu testuinguru espiritualetan lana normalean "como una ascesis, un esfuerzo personal penoso que es la herencia del pecado de Adán, siendo el mejor antídoto contra la ociosidad, madre de todos los vicios" (Milhou eta Milhou-Roudié 1993, 687) ikusten zen.

Konbertsiorako premia, presa eta lan egin beharrari buruzko planteamendu hori -alferkeriaren ukazioari buruzkoa, azken finean- gaiaren garapen puntu bat baino ez zen izan esparru erlijiosoan. Frai Luis de Granadak berak, esate baterako, bere idazlanekin oso zabaldua utzi zuen fede giristinoko eremuan laster *communis opinio* bilakatuko zen zutabe doktrinal hori, hain hedatua non Japonen bertan aurki baitaiteke

191 - Hori baino ez da predikari edo aszetikako idazle baten eginkizuna, "cuyo principal oficio, no tanto consiste en instruir, cuanto en mover los ánimos de los oyentes" (Granada, *Retórica...* 521a).

192 - "Multam malitiam docuit otiositas" (Si 33, 29)

193 - "Quæritur Ægisthus quare sit factus adulter; / causa est in promptu: desidiosus erat" (Ovidio: *Remedia amoris*, 161). Axularrek aldatu ematen du: "Quæritur, Aegistus quare sit factus adulter? / in promptu causa est, desidiosus erat" (*Gero* 381)

194 - "Otium sine litteris mors est et hominis vivi sepultura" (Seneka: *Epist.* 82, 3) eta "Pigritia est nutritrix egestatis" (Seneka: *De benef.*) (biak *Gero* 42 or.). Halere, lehenengo ere aldatu ematen du Axularrek: "Otium sine litteris, est vivi hominis sepultura".

195 - "Dum otio vacant un rem negotissimam incidunt" (Diogenes Laercio, *Vitae et placita clarorum philosophorum*, lib. 2.) (*Gero* 50 or.)

horren adierazlerik<sup>196</sup>.

Beraz, Axularren obra dela eta, alferkeriaren inguruko planteamendu originaltasunaren zalantza areagotu egiten da Granadarenean honelako aipamena aurkitzen denean, liburuan proposatzen denari ez heltzeko arrazoi guztien errekapitulazio modura<sup>197</sup>:

Si no, dime: ¿qué es la causa por que los hombres del mundo huyen tanto de la virtud? No es otra sino la dificultad que hallan en ella los cobardes y perezosos [...] Pues como no haya otra cosa que nos aparte de la virtud sino sola esta dificultad, teniendo fortaleza con que vencer, luego es conquistado el reino de las virtudes. Pues ¿quién no tomará aliento y se esforzará a conquistar esta fuerza, la cual ganada es ganado el reino de las virtudes y con él de los cielos, el cual no pueden ganar sino solos los esforzados?" (*Guía*, 169a).

Hemen diogunaren baliagarritasuna areagotu egiten uste da kontutan hartzen bada Granadaren liburuaren bukaeran dagoela alferkeriari buruzko aipamen hori<sup>198</sup>, konklusio gisa nahi bada. Zehatzago esanda, *Gero*-ren sorreran aipatu liburuari buruzko erreflexio zuzena planteatzen genezake lan hipotesi gisa, hain zuzen ere *Guía*-ren azken esaldi hori oso ondo uztartzen da *Gero*-ren hasierako "etçuela deusec ere hanbat calte eguiten arimaco, eta ez gorputzeco ere, nola eguitecoen, gueroce utzteac, egutetic egunera, biharretic biharrera luçatceac" (15 or.).

Lotura estuagorik nahi balitz -eta hemen dagoeneko aztergai dugun testuaren dependentziaren lehenengo urratsez ari gara-, ondoko pasarteak finkatuko luke, gure ustez, falta dena:

"Estos son los más comunes embaimientos y engaños con que el enemigo del linaje humano de tal manera trastorna los entendimientos de los hombres, que los tiene cuasi toda la vida captivos en sus pecados; para que en este miserable estado los saltee la muerte, tomándolos con el hurteo en las manos. Pues a estos engaños responderemos ahora en la postrera parte deste libro, y primero contra los que dilatan este negocio para adelante, que es el más general de todos éstos" (Granada, *Guía*, 91) (azpimarra gurea da)

196 - J. Orfanel dohatsua *Historia Ecclesiastica de la Christiandad de Japón (1602-1621)*, (Madrid, 1633) liburuan kontatzen duenez (16. kap., 33 or.), 1614an, Kyushu irlako familia kristauko gurasoen apostasiaren aurrean, semeetariko bat berehala aurkeztu zen agintari paganoen aurrean bere kristautasuna berretsiz, notifikazioarako presaren arrazoia honela azaldu zuen: "Porque leí ayer en el *Guía de pecadores* que el convertirse a Dios no se ha de dilatar para mañana (Eccles. 5, 8), y por esto me he dado tanta prisa" (ik. Delgado García 1993, 236-237).

197 - Arrazoi hau erredundantea izango da Granadaren obran barrena. *De la Oración y Consideración* izenekoan, esaterako, honako pasarte hau aurki daiteke: "Por esta causa nos es tantas veces en la Escritura encomendada la diligencia y la fortaleza, y tan condenada la pereza y negligencia, como dos raíces generales de todo nuestro mal y bien. Cosa es por cierto que me pone admiración ver la guerra que el Espíritu Sancto tiene con el perezoso en los libros de Salomon, en los cuales apénas hay capítulo en que no le tire una saeta, y le dé a entender el peligro en que está..." (Granada, *De la Oración y Consideración*, 100a). *Retórica*-n bertan ere honelako egoera hau aurkezten zaio predikariari: "Finja pues en su ánimo que hay allí muchos cojos, los cuales, si bien conocen el camino de la verdad, ó por pereza, por flojedad de ánimo, ó espantados con el miedo del trabajo, rehusan entrar en él: otros tan secos, que ningun jugo tienen de devocion, ningun sentimiento de humanidad y misericordia: otros ciegos, que no teniendo ninguna luz del conocimiento de las divinas letras, andan á obscuras y á cada paso tropiezan" (Granada, *Retórica...*, 524a). Axularren kasuan garbi dago ez zuela bere aurrean "itsu" edota "lehor" metaforikorik susmatu, "erren"-tzat hartu baitzituen bere mezuaren hartzaile guztiak.

198 - Ez dugu azpimarratu gabe utzi nahi ideia honen inguruan Granadak eta garaiko aszetika gehienak egiten duen tratamendu erredundantea, aurrerago ikusiko den bezala.

Baina, edonola ere, gauza bat da kide-tasun tematikoa eta beste bat askotan azpimarratu izan den *Gero*-ren testu-dependentsia. Harako hark *communis opinio* batean arnas zitekeen zerbait zen bitartean, testu dependentsiaren hipotesiak testu konkretuen erkaketaren ondorioak beharko litzuzke. Anartean, paralelismoen hipotesiaren egiantzekotasuna alderdi tematikora mugatu beharko da.

Halere, ideiarene iturburuaz ohar-tu arren, egia da Granadak ez diola bere lanari gero Axularrek bereari emango diona bezalako taiuketarik ematen, eta horrexegatik hain zuzen jo daiteke saratarrarena -bestelako argumenturik aurkitu arte bederen- original bezala.

Edozein modutan ere, ondoko ikerkuntzek adierazi beharko dute Axularren iturria Granadarena izan den ala besteren bat egon ote den tartean. Momentuz, aurrerago ikusiko den bezala, ezin hipotesirik baino jaulki.

Adierazi legez, alferkeriaren tematika askotan eta modu desberdinez ikutua izan da. Alferkeriaren gaia, izatez, erredundantea da literatura azetikoan (Milhou-Roudié 1985), eta normalean lana edo aktibitatearen kontzeptuari -"lana" eta "ariketa" zentzu zabalenean ulertuta- kontrajarria. Halere, autore askoren obran agertu izanak ez du esan nahi beti helburu berdinekin agertu denik. Zentzurik tradizionalenean "ari"-keta hori ahalegin izpiritualetan diharduenaren ahuleziaren aurkako erremedio gisa jotzen bada ere, aszetikaren historian arruntagoa izan da Axularrek berak erakusten duen planteamendua: "el trabajo como una ascesis, un esfuerzo personal penoso que es la herencia del pecado de Adán, siendo el mejor antídoto contra la ociosidad, madre de todos los vicios" (Milhou eta Milhou-Roudié 1993, 687)

Gure gaiari gagozkiorarik, Axularren "alferkeria" ez da lan falta soila izango, beste osagai garrantzitsuago bat ere erakutsiko baitu saratarrarenak: lanean eta aktibitatean aritzen den arren, gizakiak konbertsiorako alferkeria du berezko ezaugarri, asko kostatzen zaio, ez du aurrerapausurik egiten.

Beraz, *Gero*-ko alferkeriaz esan dadin guztia ikuspuntu honetatik ulertu beharko litzateke, alferkeria hitzaren barruan bi kontzeptu nagusi daudela ahaztu gabe. Bi-kiak nahasian agertuko dira liburuan barrena.

Mitxelena zenak ohar-tarazi zuen legez (Mitxelena 1971, 166-168), Alejo de Vanegas da planteamendu horretan hurbilenetarikoa bat. Bere *Agonía...* liburuaren 2. puntuko VII. kapitulu- an ("De la preparación a la muerte") alferkeriaren garrantziaz arituko zen, hain zuzen ere Axularren liburuaren tesia oinarritzen den puntuaz. Ez dugu pasarte guztia hona ekarriko, baina Axularrek irakurritako liburu- a izan zitekeenez, uste dugu merezi duela bekatuaren larritasunaz eta inportantziaz bertan egiten den kontsiderazioa ikustea:

"De aquí parece la gravedad del pecado de la pereza, en la cual se encastilla el diablo para hacer guerra ordinaria á los hombres; y aunque entre los pecados mortales se pone á la postre, no fue porque sea menor que los otros; mas pónese porque es la retaguarda de todos los vicios, así como la soberbia se pone en la delantera, porque [es] la vanguardia del escuadrón, entre los cuales dos discurren todos los vicios. Y pienso yo que, aunque en la gravedad es mayor el pecado de la soberbia, en extensión abarca más la pereza, porque muchos se libran de la soberbia [...]. Mas la pereza es tan corsaria que saltea por todas las edades, descuida á los singulares cuasi por todas las horas; y el mayor anzuelo con que la pereza pesca las ánimas descuidadas es el color de la recreación, con el escudo de la cual osa poner su brazo en las altas vigili- as de los varones perfectos. Y como hoy entra por poco, cresce mañana, y esotro día hace un portillo, hasta que de poco en poco se empodera en la torre del homenaje y pone en descuido las buenas costumbres, y sepulta la diligencia en el río Letheo, que es el olvido de la continuación y perseverancia de las virtudes.

[...] Desta manera la pereza, que es la misma rémora, porque detarda el curso de los buenos propósitos, hace parar no solamente á los novicios que no se ensayaron en los ejercicios de la virtud, mas aún á los anciano de la milicia cristiana hace tornar atrás de su largo camino.

Por esta rémora veréis misas, oraciones, visitaciones, limosnas, ayunos, consuelos, consejos y otras muchas obras de caridad de poco en poco dejadas y sepultadas en el olvido.

Por esta rémora veréis apostatar: á los niños; á los muchachos crescidos [...]; á los estudiantes [...]; á los mancebos [...]; á los hombres [...]; á los viejos [...]

Por esta rémora veréis apostatar: á los alguaciles [...]; á los alcaldes [...]; á los jurados [...]; á los regidores [...].

Por esta rémora veréis apostatar: á los barones [...]; á los mariscales [...]; á los condes [...]; á los marqueses [...]; á los duques [...]; á los reyes [...]; á los emperadores [...].

Por esta rémora veréis apostatar: á los casados [...]; á los clérigos [...]; á los frailes [...]; á las monjas [...]; á los curas [...]; á los obispos [...]; á los cardenales [...]; á los patriarcas [...]; á los papas [...].

Y desta manera se encastilla el diablo en la rémora para saltar dende allí á todos los estados del mundo; de la cual seremos seguros con la vigilia que Nuestro Redemptor Jesucristo con grande instancia nos amonesta, pues que no sabemos el día y la hora en que la muerte nos tomará" (Venegas, *Agonía...*, 2. p., VII. kap.).

#### 6.1.2.- BESTELAKO GAI-KIDETASUNAK

Testu- en arteko erkaketa egitean nabarmenduko den arren, aurrera dezagun Axularrek argitaratu zuen liburuak ez diola tematikoki itsu-itsuan Granadarenari segitzen, nahiz eta alde- z aurretik jakin ezen "Las materias tratadas en ambos libros son en parte las mismas: nada tiene, por lo tanto, de extraño que los títulos de algunos de los capítulos de ésta, parecieran percener á aquél" (Urquijo 1912, 8).

Alabaina, badira Axularrenean zenbait gai -Granadarenetik hartuak?- antzera edo berdintu planteatzen direnak eta, aldi berean, liburuaren "desoreka" erakusten dutenak *Guía* erreferentzia bakartzat<sup>199</sup> hartuz gero. Esan nahi baita, Granadarena euskal- dunarena baino modu zabalago batean planteaturik agertu zela, eta honenak tematikoki zor bide dizkionak ere, urdazubiarrak ezaugarri gisa erakutsiko duen teknika anplifikatzaileaz tratatuta egongo direla, honek sortarazten duen guztiarekin: pasarte batzuk baino aukeratu ez, testua areagotu, elkarren arteko loturak bilatu, logika hutsuneak, etab.

Tematikoki honelako zerbait aurki genezake Axularrek Granadarekin duen lotura horretan:

<sup>199</sup> - Liburuaren egituraz mintzatzean Granadaren beste obra batzuk ekarriko dira harira. Oraingoz, balia bekigu ikertzaile gehienek ikusmiran egon izan den honako hau erakutsi nahi dugunerako.



*Guía*-ren<sup>200</sup> lehen liburuko hirugarren parteko 24. kapituluak ("Contra la primera excusa de los que dilatan la mudanza de la vida y el estudio de la virtud para adelante") Axularren 1-9. eta 12. kapituluaren moldaketarako gaia eskaintzen bide du. Orobat, 25.a ("Contra los que dilatan la penitencia hasta la hora de la muerte") Axularren 13-15. kapitulu sortarako balio du.

Granadaren 26.a ("[...] esperanza en la divina misericordia") urdazubi-arraren 10-11. kapituluaren azpian bide dago, batez ere bigarrenarenean, lehenengoak gehiago baitirudi transiziozkoa edo loturazkoa beste ezer baino. Antzeko zerbait gertatzen da Axularren (48)-49-50. kapituluarekin, Granadaren *Guía*-ko 27. kapituluak ("Contra los que se excusan diciendo que es áspero y dificultoso el camino de la virtud") erakusten baitute erreferentzia tematiko gisa.

Axularrek *Gero*-n kapitulu askotan tratatzen dituen erremedio garrantzitsuenak<sup>201</sup>, Granadarenean askoz ere trinkoago ematen dira. Honen bigarren liburuko lehen parteko 6. kapituluak ("Remedios contra la lujuria", esaterako, Axularren 35-44. kapituluaren gaia tratatzen du, eta parte bereko 9. kapituluak ("Remedios contra la ira y contra los odios...") 21-27. kapituluena.

Lehen liburuaren bigarren parteko XVI. kapituluak ("[...] la alegría de la buena conciencia de que gozan los buenos, y del tormento y remordimiento interior que padescen los malos") Axularreneko 45-47. kapituluaren antzemango da oro har.

Bestalde, Granadarenean infermuko penak kapitulu batean tratatzen badira ere (1. lib., lehen parte, 10. kap), Axularrek 56-60. kapituluaren artean tratatuko ditu eta, edonola ere, *Guía*-n planteatzen diren etik urrun<sup>202</sup>.

200 - Behin betiko *Guía*-z ari gara, jakina, eta ez zentsuratua eta arazoz inguratua ibili zen lehenengoaz (1556). Halere, liburuaren arteko eraketak besterik esan ez baligu, azaleko begirada batean Axularrena zenbaitetan lehenengo *Guía*-ren taxuketa tematikotik hurbilago zegoela pentsa zitekeen, pragmatikoagoa ere baitirudi. 1556-57ko obra horretako (ikus 1953ko edizioa) lehenengo liburuan honela agertzen dira kapituluak:

1. kap.: "[...] de la conversión del pecador [...]"
2. kap.: "[...] consideración de la muerte"
3. kap.: "Del Juicio final"
4. kap.: "[...] de los bienaventurados"
5. kap.: "De las penas del infierno"
8. kap. § 2: "Contra los que dilatan la penitencia contra la muerte"
9. kap.: "[...] no debe el hombre dilatar para adelante su conversión [...]"
10. Kap.: "Conclusión [...]"

Bigarren liburuko ("en el cual se contienen reglas de bien vivir") lehen parteak "trata de los vicios y de sus remedios" eta bigarren partean "se trata del ejercicio y uso de las virtudes".

201 - Erremedioak garrantzi handia hartzen dute Axularren obran, besteak beste, kapitulu eta pasarte askok horretaz dihardutelako. Esan bakarrik garaiko aszetika-liburuaren derrigorrezko puntua bihurtu zela erremedioei buruzko atal hori. Tematikoki antz handia zeukan bat aipatzeko Antonio Delgado Torre Neyra-ren *Victoria de sí mismo* (Madrid, 1595) ("en el qual se enseña el conocimiento de todos los vicios capitales, y los remedios que ay contra ellos: con avisos que incitan y mueven el animo al amor de las virtudes" [barneko kontrazala]) ekarriko genuke hona.

202 - Gogoratu kapitulu horretan bertan esango dela "Y aunque desta materia tratamos en otros lugares" (*Guía*, 41b), erreferentziak *Oración y Meditación* liburuko ostiral gauekoa, *Memorial*-aren lehen parte eta *Vita Christi* izenekoaren 2. parte direlarik.

Esan behar da, dena den, kidesun tematiko horiek maiz ematen zirela bes-telako liburu aszetikoetan ere. Honek guztiak agerian utziko luke berriro ere garai hartako aszetikako liburuaren jokabide "bateratua". Testu konkretuen arteko eraketak konfirmatu beharko du norainokoak izan ziren paralelismo hutsak edota dependentzia tematikoak.

## 6.2.- TESTU DEPENDENTZIAZ

"[...] las relaciones directas de dependencia entre textos vascos, cuando no son abiertamente reconocidas [...], están muy mal estudiadas: algo más nos hemos ocupado de dependencias externas, de influencias de autores que escribieron en otra lengua, aunque tampoco esto se haya tratado ni mucho menos, de manera suficiente"

Mitxelena

### 6.2.1.- AXULARREN ITURRIAK DIRELA ETA

Esku artean dugun obraren inguruan sortu den arazorik handiena, hasierako gutunek sortutakoetik at, liburuaren mamia egokitu zaio nagusiki, sarri askotan haren originaltasunera eta Axularrenak izan zitzakeen iturri-eragineta mugatu delarik obrari buruzko eztabaida.

Arazoaren genesis zaharra bezain nahasia da gure artean. Mitxelenak gogorazten zuen bezala:

"El problema, que había interesado ya a Humboldt, fue suscitado sobre todo por Julio de Urquijo, siguiendo una indicación de Schuchardt, ingeniosa y un tanto irresponsable como muchos de los atisbos etimológicos de éste: baste con remitir a Fr. Luis Villasante, *Historia de la literatura vasca*, Bilbao 1961, p. 72 ss. Ahora bien creo que don Julio tenía ideas no del todo justas en dos puntos que tenían inevitablemente que desviar su juicio en este género de materias. En primer lugar, como dueño de una magnífica biblioteca y nudo de una amplia red de relaciones que le daban fácil acceso a otros fondos bibliográficos, no podía tener mayor conocimiento de los recursos de fortuna, de los trucos si se quiere, que han permitido a quienes no nos contábamos entre los *happy few*, desde los tiempos de Axular hasta los nuestros, hacer pequeños alardes de erudición a pesar de no disponer de materiales de primera mano. Y, en segundo, su concepto de originalidad me parece, por decirlo francamente, un tanto discutible, sobre todo cuando se trata de textos en lengua vasca, y bien sabe Dios que nunca me he hecho ilusiones desmedidas sobre la originalidad de esta literatura" (Mitxelena 1971, 166)

Halere, zaharra izan arren, lehen hartan segitzen du iturrien arazoak: serioski burutzeke eta zenbaitetan funtsik gabeko hipotesiak zabaltzeko aitzakia bihurtuz.

Oro har, iritzi-lerro desberdinak zabaldu dira gure artean Axularren iturri eta irakurketei buruz, maizegi iturriak eta irakurketak, kontzeptu desberdinak izan arren, urdazubiarrak egiten dituen aipamenekin nahasten direlarik. Ildo horretatik, anabasa areagotu egin ohi da Axularrek aipatu guztia ea irakurria eta aztertua zuen planteatzen denean edota, guztiak irakurri beharrean, ez ote zuen zenbait gauza baizik irakurri galdetzen denean. Egon zitekeen hirugarren aukera, gogorregia agian, zeharka baino ez da planteatu izan (obraren originaltasuna ukatzean hain zuzen): testua eta aipamen guztiak beste autore aitortugabeko batzuen liburuetatik atera zituen, eta ez erreferentzietan ematen

diren horietatik zuzenean.

Gaur egun nekez mantentzen liteke Axularrek liburua osatzeko erabili materiale guztiak lehen eskukoak zituela diogen iritzia. Halere, esan gabe doa, oraisurarte izan dira Axularren irakurketa erraldoietan sinetsi dutenak. Ildo honetako zen, esate baterako, Duvoisin-en ustea:

“Axular avait étudié, non seulement l'Écriture et les Pères de l'église, mais encore les philosophes de l'antiquité profane. Il citera, suivant l'occurrence, St. Paul et Ovide, Jérémie et Juvénal, St. Thomas et Sénèque, et beaucoup d'autres. Ce mélange du sacré et du profane fut le défaut de son siècle; on ne peut lui en faire un grief, sans adresser le même reproche aux auteurs ecclésiastiques de son temps, et même aux prédicateurs chargés de porter la parole de Dieu dans nos basiliques; témoin Abbon, cet abbé de Fleury, l'un des plus savants écrivains du Moyen-Age” (ikus Altuna 1987, 78).

Eta irizkide agertzen dira beste batzuk ere. Urkizuk, esaterako, honako hau idatzi zuen duela ez asko:

“[...] eta A. Irigarayek beste artikulua batean argitzen duenez, ez zituela ezagutzen bakarrik Aristoteles eta Seneka, Plauto, Plutarko, Marzial, Diogenes Laerzio, Juvenal, Jon Krisostomo, Agustin Hiponakoa, Martin Azpilikuetakoa eta beste autoreen zatiak itzulikatu baitzituen lerdengi, Fray Luis de Granadaz gain” (Urkizu 1989, 21-22).

Alabaina, Axularren liburu-konposaketaren errealitate hurbilago lirudike ziurrenik aipamenetako iturrien mediatizazioaren hipotesiak. Erretorikaren nondik-norakoak argitzeko, dena den, interesgarri bezain beharrezko litzateke alderdi hauek ahalik gehien argitzea, batik bat hemen burutu ezin buru daitekeen lan exhaustibo batek Axularren *tekne* delakoaren berri zehatza eman lezakeelako.

Edozelan ere, ondoko orriotan gauzak egokiago aztertzeke aukerak bideratuko du iturrien ikuspegi orokorra eta planteamendu erretorikoari dagokiona.

## 6.2.2.- ORIGINALITASUNA ETA TESTU-DEPENDENTZIA

“... hay un cierto tipo de crítico del cual yo me burlo con alguna ironía a veces: el crítico que en el fondo no está demasiado seguro de que exista eso que se llama la originalidad. Que piensa que todo lo que ha sido escrito está basado en algo ya escrito. Es el criterio de la crítica clásica, en la que inmediatamente, cuando un escritor inglés del siglo XVII publicaba un libro, se lanzaba a ver qué era lo que había de Ovidio, qué era lo que venía de Suetonio, qué era lo que venía de Horacio”  
Julio Cortázar

### 6.2.2.1.- “... Axular Sarako erretorak bildua”

“Los mayores ingenios son los que han imitado a todo el mundo”  
M. Menéndez y Pelayo

Erromantizismoaren izpirituarekin batera barreiatutako ideia da originaltasunaren balioarena literaturari dagokionez. Eta obraren originaltasunarekin batera erretoriko da autorearen prestigioaren ezagutza eta aitortzea. Honek, jakina, gaur egun ezagutzen dugun autorearekiko beagirunea hedatuko zuen

Ez zen horrela gertatzen aurreko mendeetan, are gutxiago edertasun asmoen aurretik arlo pragmatiko-morala landu nahi bazen. Axularren obran bertan ikusten denez, garaikideak dira gutxien aipatzen diren autoreak, nahiz eta nabaria izan haiekiko zorra. Villasantek aspaldisko ohartarazi zuen honetaz:

“Kidekoak edo mende hartakoak aipatzea ez zela ohitura esan dugu; hoiiek irakurri eta baliatu, bai, egiten zen gogotik. Eta Axularrek ere hala egingo zuela uste izateko da. Gai hauetan nehor ere ez da xoil orijinal. Gauza guztiak bere baitatik sortzen eta ateratzen dituen ez da jai” (Villasante 1972, 135)

Jokamolde honek, zer esanik ez, latzago eta ilunago uzten du testu-originaltasunaren arazoaren konponbidea, batez ere testua susmagarria denean. Ohi denez, beraz, ez dago horrelakoetan zitezkeen iturrien berri izateko erreferentzia zuzenik.

Metodologikoki geratzen den bide bakarra testuak erkatzea da, arlo bereko testuak banan-banan konparatzea. Baina oihan horretan abenturatzeko hutsak ez du derri-gorrez fruiturik agintzen; are gehiago, zenbaitetan exhaustiboki sakontze eta arakatzeharriak, horrelakoetan aritzeko asmotan dabilena geldiaraztea baino ez du lortzen.

Edozein modutan, gurea bezalako lan batean iturri guztiak finkatzea bezain (> baino) garrantzitsu(ago)a da joera orokorrak antzematea. Hori horrela, eta lan exhaustiboa burutu bitartean, iturriak somatzeko bide emankorragoa dirudi metodo hipotetiko-deduktiboak eskain dezakeenak (planteamendu orokorretatik obra konkretuetara doana), induktiboak baino (*loci* eta *silva* guztiak banan-banan aztertzeari ekingo liokeena, alegia).

Hortaz, ez gara gu aszetika liburuen konparazio luze bezain eskergaiztoko horretatik barrena abiatuko, ez baita gure asmoa testuaren “originala” aurkitzea. Izan ere, Axularrek aitortzen zuenaren ildotik, ez dugu uste aita edo ama bakarra denik.

Horregatik hain zuzen saiatuko gara, gaur dakigunagatik, Axularrentzat ezagunak ziren obretan kidetasunak eta maileguak bilatzen. Askotan zitezkeen Axularrek irakurri eta erabili zituenak, dudarik ez, baina guretzat aski litzateke gutxienez gaur egun ditugun azarnak, hark iturritzat izandako irakurketenak hain zuzen, finkatuago geratuko balira eta haren egiteko erretorikoaren berri izateko argitasunik eskainiko baligute.

### 6.2.2.2.- Ohar metodologikoa

Metodologikoki, iturrien arazo hau planteatzerakoan, maila desberdinak aurkitzen dira normalean: iturri zuzenak, zeharkakoak, *communis opinio* delakoari zor zaizkionak, etab. Horregatik, aztertzeke estrategian ere maila desberdinak bereiztu beharko liratekeela ematen du.

Ildo honetatik, eta arazo puntual bati erantzuteko bazen ere, interesgarriak izan lekizkiguke Mitxelenak behiala jasotzen zituen hitzak, azterketa hauetan egon izan den frankotiradoreen iritzi partzial mordoa gainditzen joan ahal izateko:

“Parece fuera de toda duda, sin embargo, que las analogías en la descripción y justificación de las penas del infierno provienen de la *communis opinio* reflejada en cualquier texto católico de aquella época e incluso de otras muy posteriores. Quedamos bastantes todavía que hemos sido testigos de su

pervivencia y de su reciente cambio" (Mitxelena 1971, 152; azpimarrak gureak dira)<sup>203</sup>.

Horrexegatik hain zuzen, baldin hipotesi frogatua izan bada ingurune haue-tako mistiko eta aszeta garaikideen idazlanetako iturri orokorrak, "se encuentran (además de la Escritura) en los escritos místicos de los Padres y de los autores medievales: San Agustín, el pseudo-Dionisio, los Victorianos, San Buenaventura, Santo Tomás, Gerson ..." (Cilveti 1974, 133), zinez pentsa liteke antzeko zerbait esan beharko litzatekeela esku artean dugun liburu aszetikoari buruz ere, hots, iturriak bide horietatik eta iturri horietaz baliatu direnen obretatik baina bilatu behar direla.

Baina Axularren jokabidea iturriekiko aske samarra balitz ere<sup>204</sup>, ez litzateke harriztekoa Axularrek Granadaren (edo bitartekari baten) obrak erreferentzia nagusi eta orokor gisa izatea eta artean testua osatu behar zen guztietan (edo horrela iruditzen zitzaionean) osagarri gisa bestelakoak erabiltzea. Inolaz ere, eta besterik demostratu bitar-tean, originala *inventio* atalari dagokionez.

Konplexutasun honek gauza bat baino ez du adierazten, hots, edozein obraren sorreran nolabaiteko sortze-gune kontziente edo inkontzienteak aurkitzen direla beti, obra guztiek dutela aurretiko erreferentziaren bat. Eta erretorikaren eginkizuna da gune horietaz arduratzea, *loci* izenekoaren eremuan hain zuzen. Alabaina, erretorika klasikoan

"[...] desde los tiempos de Quintiliano, los *loci communes* se interpretaban en dos sentidos distintos. En primer lugar, se referían a los «fundamentos» de la argumentación, que en la terminología de hoy se llamaría «divisiones principales», a saber: definición, causa, efecto, oposiciones, semejanzas, y así sucesivamente (la clasificación variaba en extensión según el autor). Si se quería una «demostración» -nosotros simplemente le llamaríamos elaboración del pensamiento- sobre cualquier tema, como la lealtad, el mal [...], la guerra o lo que fuera, siempre podía encontrarse algo que decir mediante la definición, la atención a las causas, los efectos, las oposiciones y todo lo demás. Estas divisiones principales pueden llamarse los «lugares comunes analíticos». En segundo lugar, los *loci communes* o lugares comunes se referían a colecciones de refranes (en realidad, fórmulas) sobre varios tópicos -como la lealtad, la decadencia, la amistad o lo que fuera- que podían integrarse en el propio discurso o escrito. En este sentido, los *loci communes* pueden llamarse «lugares comunes acumulativos». Tanto los lugares comunes analíticos como los acumulativos, claro está, mantenían viva la antigua sensibilidad oral para el pensamiento y la expresión esencialmente compuestos de materiales formularios, o bien convencionales, heredados del pasado" (Ong 1982:1987, 110-111)

Hortaz, metodologikoki ere egiteko erretorikoak bereizketa hori gogoan hartzea eskatuko luke. Nabarmetzekoa da, zentzu honetan, Mitxelenak arazo honetaz ziharduenean azpimarratu zuena:

"Aipamenen artean berezi behar genituzke, noski, erabateko eta nonnahiko *topica* edo *loci communes* direlakoak, Curtiusek hain astiro eta sakonki istudiatu dituenen antzekoak, edonon jasoak,

203 - Mitxelena, azken batean, Humboldték dokumentu batean idatzitakoaz ari zen: "Son texte et ses preuves sur les peines de l'enfer dans son GUERO sont les mêmes que ceux du Sermon de Bourdaloue sur le même sujet" (Humboldtén eskuizkribuak, apud Azkue 1925, 61). Beste zerbait adierazi nahi izan zuen Lacombek honako hau idatzi zuenean: "Par ailleurs, l'abbé R.-M. de Azkue étudient les manuscrits de Guillaume de Humboldt à la Bibliothèque d'Etat de Berlin, y découvrit l'indication que le texte axularien concernant l'enfer et ses peines est le même que celui de Bourdaloue sur le même sujet. Mais on ne saurait avancer qu'Axular copie Bourdaloue, car le Guero est de 1643, et Bourdaloue ne commença de prêcher qu'en 1659. Resterait l'hypothèse que les deux écrivains auraient puisé à une source commune" (Lacombe 1943, 21) (azpimarrak gureak dira).

204 - Ez da besterik Lafittek dioena: "Axular s'inspire d'ailleurs très librement de ses sources" (Lafitte 1943, 39; azpimarrak gureak dira).

entzunak edo ikasiak izan baitaitezke. Eta besteak, egiazko aipamenak, hitzez-hitz eta letraz-letrazkoak, iturburu izkutatatu beharrez ez dabilzanak" (Mitxelena 1981b, 285)

Are gehiago, Axularren obraren sorrera prozesua aztertzerakoan Mitxelenak proposatu sailkapen bikoitz hori zehatzago egin nahi izan dugu, hots, alde batetik beste autoreengandik karriatutako testuak edo maileguak aurkeztu nahi genituzke eta, bestetik, *inventio* liburuetan klasikoagoak diren atalak: *auctoritas* arloko "egiazko aipamenak", *exempla* eta "*topica* edo *loci communes* direlakoak". Ez genituzke konparazioak ahaztu nahi, are gutxiago horretarako liburu bereziak zeudela jakinik. Halaz ere, *elocutio*-a planteatzerakoan ikusiko dira konparazioei legokiekena.

### 6.3.- TESTU KIDETASUNAK ETA BESTE

Axularrek *loci* gisa hartutako pasarteak eta obrak baliatzeko eta itxuraldatzeko zerabilen maisutza bera erakutsi zuen aszetikako testuetan nola euskarazkoetan. Batzuetan ideiak eta irudiak jaso zituen jatorrizko testuetatik, bestetan testuinguruak eta mezuak, maiztxo hitzak edota esamoldeak bakarrik, ... Sarri asko, maileguok banan-banan hartuz gero, zalantzarokoak ez ote diren ere pentsa daiteke<sup>205</sup>, oso ondo menderatzen baitzuen Axularrek pasarteak aukeratzeko, "txikitzeko" eta erabiltzeko teknika erretorikoa. Alabaina, kidesun hutsak diruditen guztiak elkarrekin jarriz gero, ezin garbikiago mintzatzen zazikigu testuen jatorriaz.

Testuak erkatzerakoan ikusiko den bezala, badirudi bi motako iturriak erabili zituela segun eta zein atal burutu behar zuen liburuan. Oro har, eta salbuespenak ukatu gabe, idazle euskaldunen obrek hasierako testuetan dute islada, bai azalean nola "Gomendiozko karta"-n eta "Irakurtzaileari" eskainitakoan. Liburuaren osaketarako, aldiz, beste batzuk izango dira Axularrek erabiliko dituen erreferentziak, aszetika klasikoaren ildokoak eta, adierazia dugun legez, nagusiki gaztelarazko tradizioaren esparrukoak hain zuzen.

#### 6.3.1.- EUSKAL EREMUKO ITURRIAK

Euskaraz idatzi zutenen artean Axularrek erabili bide zituenak aipatzen hasiz gero, Materre litzateke zinez lehenengoetariko bat, haren obra eskuztatzeak aukera onak izan baitzuten urdazubiarrak, Axularrek berak 1616an emandako "aprobacione"-k erakusten duen bezala (euskaraz ere Axularrekin edo ikasi bide zuten). Jakina denez, Materre-ren *Doctrina Christiana* liburuaren lehen edizioa 1617koa da eta bigarrena, gaur egun eza-gutzen duguna alegia, 1623koa.

205 - Badira esamoldeei eta dagozkien antzak, baino eragin zuzen bati ezin egotz lekizkiokeenak ziurrenik. Adibide gisa, Granadaren erretorika liburuan "toda la vida juegan este juego" (*Retórica* 609a) agertzeak ez du ezinbestean paralelismorik adierazi behar Axularren "eta han bere iokoa iokatu zutela" (*Gero*, 351) perpausarekin.

Gauza bera esan beharko genuke autore bien obran sarritan agertzen diren aipamen edota enxemplu arruntei dagokionez. Bibliatik hartutako adibideak, besteak beste, nor bereak hartuak izan daitezke. Ildo horretatik, ez dugu uste Villasantek kidesunaren artean Granadaren batekin ikusten duena inolaz ere berak suposatzen duen "kidesun"-tzat har daitekeenik. Granadakoaren *Guía*-n honela agertzen da erreferentzia bibliko ezagun hau: "Seiscientos mil hombres sacó Dios de Egipto para llevar a la tierra de promisión, sin mujeres y niños que no se cuentan" (*Guía*, 103b). Villasantek Axularren "iragaiten baitziren seietan ehun milla presunatan" delakoaren paralelo gisa eskaintzen du (1972, 150-151), testuinguruari eta aipamenaren arruntasunari begiratu gabe.

Autore bien testuen arteko kidesunak zirela eta, aspaldian eman zuen Villasantek Materre eta Axularren hitzaurre gisako gutunen arteko kidesunen berri (ik. Villasante 1952, 264). Hitzaurrekoen gain, badakar Urgellek (1991, 913-914) beste pasarte bat ere idazle bien obretatik jasoa eta erkatua. Zehatzago ikusiko ditugu, dena den.

Bestalde, Leizarragaren obrak 1571koak zirela kontutan harturik, Axularrek, Materrek bezalatsu, ongi ezagutu zitzakeen harenak, eta testuen arteko konparazioa egitean azalduko dugunez, badirudi, aurkitu uste dugun kidesun zenbaiten arabera, zuzen-zuzenetik ezagutu zituela gainera (batez ere *Testamentu Berria*-ren hitzaurrea<sup>206</sup>).

Esaten dugunaren ebidentziarik nabarmenena atariko eskaintza-hitzaurreetan genuke. Garaiko literatura aszetiko gehiengan bezalatsu, *Gero*-n ere "Gomendiozco carta" eta "Iracurtçailleari" izeneko atalek ematen diote hasiera liburuari. Ohi bezala, sermoietan exordio arruntak betetzen zuen funtzioa betetzen dute horiek honako honetan: obraren eskaintza, garatuko den mezuaren eta liburuaren aurkezpena,... hori guztia ohiko elementu garrantzitsuenekin lagunduta (ikus "egitura" eta "elocutio" atalak).

Zitezkeen testu originaltasunaz den bezainbatean, bestalde, arazoa gutun horien *inventio*-rako iturri edo eredu desberdinak erabili ote zituen izango litzateke.

Ez dugu, egia esan, frogatzen (ez lekukotasun zuzenik, ez besterik), testuen arteko eraketak erakusten diguna baino, ez behintzat gauzak behin betiko erabat finkatuta uzteko modukorik. Inolaz ere, zitezkeen ereduak horietatik edo zirela pentsatzeko bidea eskaintzen du alderaketak.

Horretan oinarrituta, beraz, liburuaren lehen gutunaren *inventio*-an Materre eta, batez ere, ideologikoki urrunegi eta kontrakarrean zuen Leizarraga zeudela uste dugu, zein bere tokian, eta bakoitzak bere funtzioa eskaintzen<sup>207</sup>. Bigarreanean, aldiz, "Irakurtçailleari" eskaintakoa alegia, Materrearen presentzia beste inorena baino askoz ere nabarmenagoa da.

Oro har harturik, eta *Gero* liburuaren sarreran erabili banaketari gogokiolarik, badirudi Axularrek nahiago izan zuela aipatu autore bien hitzaurre testuen arteko bidea hautatzea. Ondorioz, haren aurretik euskaraz idatzi zuten prosalari biak erreferentzia gisa hartu eta gero, honela geratzen zen aukeratutako bidea: Leizarragak eskaintza bakarrean adierazten duen problematika guztia gutxietsiz, baina Materrearena bezalako sarrera hirukoitza (eskaintza + "Euscaldunei" + "Iracurtçailleari") askoetsirik, Axularren obraren sarrerako hitzak bi multzotan banatuta plazaratu ziren, "eskaintza" dena liburuaren irakurtzaile (euskaldun)ari zor dion informaziotik garbiki bereiztuz, Haranbururen antzera *Debocino ecurra, miraila eta oracionetequia* liburuan (Bordele, 1635).

206 - Nekez asma genezake noraino ezagutzen zuen Axularrek Leizarragaren lana. Edonola ere, adierazgarria izan daiteke eliza katolikoak lehenengo latinez argitaratutakoaren (Venezian, 1597an) ildoko gaztelarazko *Index* izenekoak dakarrena gogoratzea. Bertan oso garbi debekatzeko zaie guztiei Leizarragarena bezalako *Testamentu Berriak* izatea edota irakurtzea:

"REGLA III: Las versiones de la Biblia, assi del Viejo como del Nuevo Testamento, hechas por los dichos Autores (Index-ean kondenatuak, kalbinistak edota herejeak), generalmente se prohiben; mas con licencia nuestra *in scriptis* i no de otra manera, podran hombres doctos i pios tener i leer las Versiones del Viejo Testamento hechas por los dichos Autores, con que usen dellas como de elucidacion de la Edicion Vulgata, para entender la sagrada Escritura, i no como Texto sagrado, ni autentico. Pero no daremos la dicha licencia para tener, o leer las Versiones del Nuevo Testamento hecho por los dichos Autores, por el poco provecho, i mucho peligro, que de su lección suele resultar a los lectores" (*Index librorum ...*, 1612, 2 or.) (azpimarrak gureak dira).

207 - Ikus "Liburuaren egituraketa" atala.

Gainetik bada ere, merezi du banaketa-modu horretaz aparte, zeintzu izan diren Axularren ikusmiran egon zitezkeen erreferentziak aztertzea.

### 6.3.1.1.- Azal-atarikoak

Oro har esan genezake Materrearen erreferentzia dela hasierako testu hauetan gailentzen dena. Imaginatu baino elementu gehiago eskaintzen dizkio Materrek Axularri. Idazlearen testuen paralelismoa, printzipioz, honako puntu hauetan antzematen da:

1) Biak Bordelen, Millanges-en familiarenean eta formalki azaleko egitura berdintsuarekin, hala letra moten banaketari dagokionez nola testuaren distribuzioari. Edonola ere, egia da honako hau beti egotz lekiokela inprimatzailearen ardurari.

2) Hurrenez hurren, hiru eta bi partetan daude banatuak obra biak. Parte bakoitzean azalduko denaren berri ematean, hizkuntz egitura beretsua darabilte:

"Lehenbicoan"

"Bigarreanean"+ (indikatiibozko orainaldi ezburutua)+ X edo Y

Materre:

"Lehenbicoan ibenucen da Guiristinoac iaquin behar duen..."

"Bigarreanean ( ibenucen da ) Doctrina haen declaracinoa..."

Axular:

"Lehenbicoan emaiten da, aditcera, cenbat calte eguiten duen..."

"Bigarreanean quidatcen da, eta aitcinatcen..."

Esan gabe doa Etxeberri Ziburukoaren *Manual*-arekin *Gero*-k duen kidesun bat bi partetan banatua izatean datzala eta tituluaren ondoko azalpenetako "bi partetan bereçia" hura Axularren gogokoa izango zela, nahiz eta gero handitua -anplifikatua-emango zue: "bi partetan partitua eta bereçia".

Jakina, obra osatzeko materialeak "liburu debocinozcoetarik" ateratzearena egina zuen ordurako Haranburuk ere: "Obra debocinozcoetaric traçatua, eguileac berac ere bere baitharic debotqui aberaxtua eta pontualqui eguina"<sup>208</sup>.

### 6.3.1.2.- "Gomendiozko karta"

Gutun honetan, formalki bederen, Materrearen erreferentzia da hasieran nabarmentzen den bat. Agian puntu batzuk kasualitateari baino gehiago inprimatzaileari edota garaiko jokabideei egotzi badakizkieke ere, ez diote kidesun izateari uzten. Horrelako eskaintzetan tratatzen diren ohiko puntu komunez gain, eta gogoan harturik bata frantsesez idatzia dela eta bestea euskaraz, hona hemen nabarmenenak

Pertsonaiaren aurkezpenean, esaterako, Axularrek Materrek egiten duen aurkezpenaren antza agertzen du. Bai Materrearenean eta bai Axularreanean eskaintza bakoitzean agertzen diren paralelismoak ez dira, baina, pertsonaia bien karguetara<sup>209</sup> eta ondozkatzeko berdintsura mugatzen (elizgizon ospetsu, (artza)ipizpiku, Frantziako erremu-

208 - *Debocino ecurra...*, 1635 (azalean)

209 - Nabaria da hasierako "ENE IAUN" hori ere "MONSEIGNEUR" delakoaren moldaketa bat baino ez dela.

sinari, Erregearen kontseilari, etab.); liburu eskaintzeko arrazoiak ere, nork bereak, ildo berekoak dira bietan (nahiz eta adiskidetsuak diren Axularrenean eta erabat formalak Materrerean).

Badirudi, beraz, Axularrek begien aurrean izan zuela Materreren edizioa berea moldatzeko. Formalki agertzen diren elementu grafikoek ez dute horretan zalan-tzarik uzten<sup>210</sup>. Halere, barneko egitura eta edukiari buruzko hausnarketa puntu zenbait ekarri nahi genituzke hona, garrantzitsuagoak baitira gure ikuspuntu erretorikotik begi-ratuta.

Egituraz den bezanbatean, hortaz, esan genezake Axularrek "Gomendiozco Carta" atalean darabilen egituraketa aurrean Leizarraga izanik bakarrik uler daitekeela, liburuaren "eskaintza" hutsa den partean (hau da, hizkuntzari eta liburuaren burutzape-nerako izandako lanei dagozkien zatiak kendurik) gure kalbinistaren egitura bera era-biltzen baitu saratarak, argudioak eta bitartekoak ere berdintsuak direlarik (jakina, askoz ere asianikoagoa urdazubiarrarenak).

Liburu erlijiosoetan "Eskaintza" ataletako argumentazio-hariak, gorabehera txiki batzuk kenduta, oso antzekoak izan ohi ziren:

1) Liburu eskaintzen zaion pertsonaren izen-deiturak eta karguak

2) Haren laudorioak eta bertuteen aipamena:

- gizatasuna

- erlijiositatea

3) Liburuaren eskaintza eta "errezibi ezazu" delakoaren eskaria.

Halere, harrigarria egin daiteke Leizarragaren presentzia, batez ere, dis-kurtsu eta argudioen hariari dagokienez<sup>211</sup>.

Zalantzarik gabe Leizarragarekiko presentzia edo, hobe, kidesan hau obra-ren eskaintza-justifikazioaren eta laudorioen ataltxoan dugu nabarmenen, nahiz eta Leiza-rragaren hitzen kotzizioa Axularrenean pasatu ondoren, hizkuntz aberastasuna (erretorika) bihurtzen den. "Nabarmenena" diot baina ez harrigarria ziurrenik, orduko idazleek ez bai-tzuten euskaraz idazterakoan bestelako eredurik, hau da, eredu erretoriko teorikoak bai baina fruitu konkretuak, idatzizko patroiak ez.

Ohi bezala, formula erretoriko desberdinak erabiliz, bai Leizarragak eta bai Axularrek ere eskaintza-jasotzailei leporatzen diete obren "eginkidetz" (eragina, batean, eta aitatasuna, bestean)

<sup>210</sup> - Edizioaren azken arduraren moldatzaile-impimatzalearena bazen ere, gogoan hartu behar da autoreak berak aukeratu (kontratatu) ohi zituela formalki liburuak izan behar zituen ezaugarriak. Ildo horretatik, begi bistan da letra motak eta tamainak ere berdintsuak direla Axularrenean eta Materrerean: eskaintzaburua, hasieran letra larriak, gero minuskulak; "MONSEIGNEUR" larriak, "NEURE" ere bai (Leizarragaren "ANDREA" bezalatsu); hasierako "M" eta "N" horiek handiak eta estilo berekoak (eta bi-biak Leizarragaren "A"-ren familiakoak, itzal eta guztiz); hurrengoak, eskaintza alegia, letrakera etzan berberarekin argitaratua dago, nahiz eta batak hizkuntza frantsesa izan eta bestearena euskara.

<sup>211</sup> - Luze joko luke Leizarragak eta Axularrek darabiltzaten hitz eta esamolde berdina (alde baliatu, arrenkurak kontatu, arrenkuretatik ilki,..) eta paraleloen (Axularren Nafarroa Beherea vs Leizarragaren Bearn, Nafarroako erresuma, etab.) azterketa egiteak. Beraz, kidesan orokorrean mintzatuko gara hemen.

Hori onartu ondoren, gizatasunari buruzko laudorioak hedatuko dira testu-etan barrena: Leizarragaren kasuan bere buruarekiko ikusi eta "valiatu içan" (249 or.) zaion "humanitate"-az; Axularrenean -humanitatea areagotzeko errekurtsu erretorikoaz baliatuz-, Euskal Herriko biztanlego guztiarengana zabaldu omen zen Etxauztarrarenaz ("Nor da euskal-herrian alde edo moldez, çordun eta obligatu etçaitçunic?" [5 or.] eta "Çu içan çara, eta içanen çara, euscaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta cantabres fina, naturala eta eguijazcoa" [5-6 or.]).

Paralelismoa aragotu egiten da pertsonaien bertute erlijiosoak aipatzen hasten direnean. Testu biak elkarren ondoan jarriz gero, Ioannaren aurkako lehia ematen du Axu-larrek aurkezten duena, ezen baldin Albretarra "Iaincoaren templeco gauça gaizquituén dreçatzen" (Leizarraga, 250) aritu bazen, Etxauztarrak ez zitzaizkion atzean gelditu "legue Catolica saindua, iduriz flakatcera, cordocacera eta erotcera cihoanean", "eguijazco fede-aren eta leguearen deffendatçaille, eta aicinatçaille buruçaguiac ere" izan baitziren (Gero, 6), hori bai, erregina batek izan zuen botere politikoaren ondorioz lortu zuena "Tursco Arzipizpicu" batek ezin irits zezakeenez, Axularrek, gauzak behar bezala eta arlo guztietan parekatu ahal izateko, familiako "Bizkondeak eta seme guztiac" (Gero, 6) ekartzen dizkio errealitate terrenalean, "ezpata bilucia escuan harturic" (Gero, 6-7), laguntzera. Eta Ioannari esker, Jainkoaren tenploak "bere leheneco edertassun Apostoluén demborán ohi çuena" (Leizarraga, 250) berreskuratu bazuen, "Bearn gucian Iaincoaren hitza paisiblequi eta edificacione handitan predicatzen [...] baieta disciplina ecclesiasticoa eguijazqui eta bide beçala observatzen" (Leizarraga, 250) delarik, Bertrand-en aita Jaunak "bere herria eta in-guruneacoac ere, hetan sartcera cihoan eritasunetic beguiratu [bait]çituen" (Gero, 7).

Nolanahi ere, Ipizpikuak ere bete zuen botere terrenalekin bete zezakeena (Nafarroako hiru estatuak bildurik zeudelarik, Gortera joan zenean), nahiz eta benetan aitzinekoen "marra iragan" (Gero, 8) zuen "Echausco etchearen arropa gorriaz vestitceco bidetan içan" (Idem) zenean.

Atal honen bukatzerakoan, ezin harrigarriagoa bihurtzen da idazle bien arte-ko kidesan eta antza. Leizarragak honako hau dioenean:

"Baina cer? etzait niri eman çure laudorioén aipatzez hain aitzina avançatzea, hetango claretatea neure minçatzeo insufficientiaz ilhun ezteçadançat. Baina hunetan guelditzen naicela-ere, sportçu dut ecen, ahal liratequeen..." (Leizarraga, 250).

Axularrek aurretik gehiegi urruntzen ez den parafraasia darabil:

"Baiña certaco sartcen naiz ni itsas hondar gabe hunetan? Ecin athera naitequeyen oihanean? Çure laudorioen aipamenean? Berac dira bere buruz asco gora mintço: berac dira bere baithan asco clar eta ozen. Utz ditçadan beraz nic hec, hutsic eztaguidan. Eta iragaiten naicela aicina, derradan hutsic eguin gabe..." (Gero, 9).

Ordurako, dena den, Axularrek hain ongi menderatzen duen anplifikazio erretorikoa hemen ere erabilia ikusiko da Etxauzen bertuteak laudatzerakoan:

Aitzitik badirudi ezen zuk xedea aitzinatu duzula, marra iragan duzula, eta Echausco etxearen arropa gorriaz bestitzeko bidetan izan zarela. Zeren ezta eztakienik, ezen erregek hartarakotzat hautatu eta izendatu zintuela. Eta kolpea huts egin bada ere, ezteela zure faltaz edo zu hartako ez gai izanez, huts egin, zeren utzirik alde batetara zure merezimendu handiak: eta elizari, erregeri eta komun guztiari, anhitz okhasinotan egin derauztetzun zerbitzuak eta endrezuak, naturalezak berak ere anhitz donu, dohain, eta abantail suertez dotatu, hornitu eta konplitu baitzaitu. Adimendu eder bat, memoria handi bat, eta borondate onera, ohorera, eta prestutasunera erori bat, isuri bat, eta eman bat eman baiteratzu (Gero, 8-9).

Hurrengo atalean, liburu(ar)en eskaintzaren egokitasunaz mintzatzen direnean, alderdi ezberdinetatik hartuko dute gaia idazle biek. Bata bere burua, obra eta dedikazioa zurriz ahaleginduko da eta bestea, Axular, liburuaren aitapontekoa izan gogo duenaren horretarako egokitasunera mugatuko da (ikus testu erkaketa atala)

Ez du bukaerak elementu berririk eskaintzen kidetasunen aurkezpen honetarako, autore bienak, usantzaren ildotik berriro ere, liburuak onartuak ("errezibituak", nahi bada) izan daitezen eskatuz borobiltzen baitira (ikus testu erkaketa). Halaz ere, hitzegitura batzuetan Materrerena dirudi oihartzuna (ikus testu erkaketa atala).

Axularrek sinatzeko moduak, gorago esan bezala, badu ohiko formulekin kidetasunik, Leizarragak eskaintzaburuen jarritako formulak legez. Garaiko ohiturak medio, bukaerako agurrak ere berdinak dira bai forman eta bai esanahian autore gehienetan: "Vostre tres-humble & tres-obeyssant serviteur. F.E. MATERRE." eta "Çure cerbitçari ttipiena, eta obligatuen P. DE AXULAR.". Jakina denez, Materrek hitzaurrean frantsesez agurtzeko darabilen formula ere Leizarragarena bera da<sup>212</sup>:

"son tres humble & tres obeissant seruiteur" (Leizarraga, 243 or.)

"vostre tres-humble & tres-obeyssant seruiteur" (Materre, 8 or.)

Horregatik, Leizarragak frantseseko agurra "Bere cerbitzari gucizco chipiac eta gucizco obedientac, Ioannes..." (249 or.) formularen<sup>213</sup> egokitu zuen bezala, Axularrek ere ildo bereko egokitzapena burutu zuen: "Çure cerbitçari ttipiena, eta obligatuen P. DE AXULAR." (11 or.).

### 6.3.1.3.- "Irakurtzaileari"

Eskaintzaren ondoren, "Irakurtzaileari" izeneko atala ezarri zuen Axularrek, besteak beste Leizarragaren "Heuscalduney" eta Materreraren "Euscaldunei" atalak gogorazten dituenak.

Honako honetan, Euskal Literaturaren Historia eraikitzen aritu direnentzat gutxienez "Sarako Eskola" antolatzeke balio izan duen ohiko *captatio benevolentiae* delako formula horren ondotik, eta liburuaren gaia behin planteiatu, Axularren testuaren eskema oso zehatza da:

#### 1) Liburuak hartuko duen egituraz:

"bi partetan partituric" (16 or.)

<sup>212</sup> - Halere, hau azken batean garai hartako azturen barneko jokabidea baino ez bide da. Kasu franko aipa genitzake horretaz oharretzeko. Lehenengoa 1604an argitaratutako itzulpen batean aurkitua, hots, *Le tresor et abregé de toutes les oeuvres spirituelles du R.P.F. Louys de Granate... mis d'Espagnol, an François, par Gabriel Chappuis, Touengeau* (Lyonen argitaratua Pierre Rigaud-enean. Iruñeko B.G.; Sig.: 109-4-1/142) izenekoan honela da: "Vostre tres-humble, & obeissant serviteur".

Bigarrena, Granadaren *Guía*-ren itzulpena den *La grand Guide des pecheurs, pour les achemines a vertu...* liburuan (Lyon, Pierre Rigaud, 1603; itzultzailea: Paul du Mont. Iruñeko B.G.; Sig.: 109-4-1/141), 1570ean sinatutako "Epistre" delakoaren bukaeran agertuko da: "Tres-humble, & tres-obeyssant serviteur". Honetan, bada, nekez mintza gintezke euskaldunen arteko paralelismoez, idatzizko aztura hedatu batez baizik.

<sup>213</sup> - Azken honek Etxeparenenarekin ere badu kidetasunik: "haren cerbitzari chipiac" dio Etxeparek.

#### 2) Egileraren ustezko gaitasun faltaz

#### 3) Hizkuntz arazoez:

- Hizkuntza mintzatuaren dibertsitatea
- Hizkuntza idatziaren batasun falta
- Hizkuntz arazoetatik sor daitekeen ondorio onez:
  - hizkuntza bera aberastu
  - liburu gehiago euskaraz
    - . eskasiaren errudunak, euskaldunak

#### 4) Norentzat ez den liburuak.

#### 5) Itzulpen arazoaz:

- itzulpenak ez dira literalak izango
- arazoak:
  - . euskara diferentea da
  - . ez da beste hizkuntzak baino gaitxoago
  - . kutsatu gabe dago

#### 6) Liburuak irakurri eta dastatzeko gonbitea.

Gorago aipatu bezala, testu honetan ere bada Materreraren liburuaren presentziarik eta dagoeneko ez dugu gehiegi deskubritzen honako paralelismo edo kidetasun estu hauek hona ekartzean (ik. Villasante 1952: 264; Urgell 1991: 913):

a) "badaquit Euskal-herrian añhitz moldez minçatcen direla" (Materre, *Dotrina ...*, xiii-xiv or.).

a) "Badaquit halaber ecin heda naitequeyela [...] Ceren añhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian" (*Gero*, 17).

b) "eta nori bere herrico Euscarra çaicala hoberenic eta ederrenic: Eta handic gogoa emaitan deraut ene esquiribatceco molde haur etçayela guztieci ongui idurituco (...) ez naizela gaitz erraiteco, eta ez arbuyatceco" ((Materre, *Dotrina ...*, xiv-xv or.)

b) "nori berea iduritcen baitçaiça hoberenic eta ederrenic: eta ene haur ez paita çurea beçala: ez othoi hargatic arbuya eta ez gaitz erran" (*Gero*, 18).

d) "Eta Saraco Euscarra hunetçaz content eztenac ezquiriba beça bertce Euscarra hobeago batez eta hobequiago, ez naiz ni hargatic becaiztuc, eta ez imbidios içanen" ((Materre, *Dotrina ...*, xv-xvi or.).

d) "Hunetçaz content ez paçara, eguiçu çuc ceure moldera, eta çure herrian usatcen eta seguitcen den beçala. Ceren ez naiz ni hargatic becaiztuc, eta ez muttururic gaitzez iarrico" (*Gero*, 19).

e) "Guztiac dohaci borondate on batez eguinac: eguiçu beguitarte, eta errecebi itçaçu nic ceureric [sic] ba-lira errecebi nitçan nahi cenduqueyen beçala" (Materre, *Dotrina ...*, xxvii-xxviii or.).

e) "Har eçaçu, liburutto hunen fruitua, barreneco mamia [...] Baiña intencione on batequin, ceurea, ceurc eguina baitcendu beçala" (*Gero*, 20).

Badira Materrerekin antz eta paralelismo gehiago ere, I. Eranskinean ikusten den bezala. Eta, ez aipatuagatik ere, honekin ez ditugu ahaztu nahi Axularrek Materreraren obrari buruz "Irakurtzaileari" atalean eta gero liburuaren orrialdeetan barrena, erreferentzia

[orto]grafikoak direla eta, egiten dituen erreferentzia testualak

Bestalde, ez dirudi Leizarraga eta hark suposatzen zuen guztia ere urrunegi izan zuenik Axularrek sarrerako testu hau idatzi zuenean. Eta ez gara, berriro diogu, testuingurutik at leudekeen hitz eta esamolde berdinen bila ari<sup>214</sup>, ingurumari berdintsetan dauden testuen arteko parelismoak finkatu nahian baizik.

Ildo horretatik, Axularrek honako hau esaten duenean, "Ez eta, eztitut bethiere, escritura saindua eta doctoren erranac ere, hitzez hitz euscarara bihurtcen" (Axular 1643, 19), oso ondo daki Jainkoaren hitzari egin zekizkiokeen traizioak (*tradutore traditore* horren kontzientea) higonatek nola konpondu zituzten. Horrexegatik, hain zuzen, ematen du Leizarragaren hitz hauek zituela gogoan

"Haur bay erranen dut, ecen bethi orhoitic nola Iaincoaren manu expressa den haren hitzari deus edequi eztaquion ez eratchequi: hala eguin ahal dudan fidelquiena eguin ukan dudala" (Leizarraga, *Testamentu...*, 253).

Inpresio berdintsua gertatzen da lerro hauen erredakzioaren aurrean:

"...hala-ere consideratzen nuenean, nola gure demorán-ere anhitz personage iaquinsuric Testamentu berriaren translationean emplegatu içan den, hambat Latinez, Francesez, nola anhitz berce lengoage abratsez eta praticatuz [...] nacussanean hambatez ene empresa handiago, cembatez nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetatic eta diversenetatic: eta oraino, translationetan behinçat, usatu gabea. Alabaina segur içanez ecen Heuscaldunac berce natione gucién artean ezgarela hain bassa, non gure lengoagez ecin eçagut eta lauda deçagun gure Iainco Iauna[...] (Leizarraga, *Testamentu...*, 252).

Ez ote zuen Axularrek Leizarragaren testua aurrean zuela berea prestatu? Ondoko pasartean horren oihartzuna antzematen dela esango genuke, eta ez bakarrik hitz sorta berdinen orden berdinatik:

"Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe. Zeren are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur.

Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, franzeses, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berèk dute falta eta ez euskarak" (*Gero*, 19)

Jakina, gehiago ere luza genezake ustezko kidesun horien zerrenda, baina nahikoa izan daiteke honako hau: Leizarragaren aipatu testua bitan banatuz gero, banaketa Erreginari egindako dedikazio atalaren bukaeran koka liteke nonbait<sup>215</sup>, hots, egilea burua zuritzen eta *Testamentu Berria* itzultzeraz "incitatu ukan" dutenetariko batzuk aipatzen hastean. Hain zuzen ere, puntu horiekin ematen zaio hasiera Axularren "Irakurtzailleari".

Antz gehiegi agian inpresio hutsa izateko.

214 - Axularren aldaketa literarioetarako erraztasuna ikusirik, zailago litzateke agian Leizarragaren "bihotz eman", "sporçu hartu", etab., zein bere testuinguruan, saratarraren "Irakurtzailleari"-n ere bilatzea.

215 - Ideiak oso ondo graduatuta eta uztartuta dituen testua da Leizarragarena eta ezin hobeto gainjartzen ditu erreginaren laudorioen eta dedikazio beharraren pasartea, bere buruaren defentsarena eta lanerako bultzatzaile izan dituenen aipamenena.

### 6.3.2.- LIBURUAN BARRENA

#### 6.3.2.1.- Iturri eta eragin aszetikoak

Oro har, erratzeko inolako arriskurik gabe esan daiteke Axularren obraren iturriak Eskritura Sakratuetan eta Elizako Gurasoen idazkietan aurkitzen direla. Besteak beste, urdazubiarrak berak liburuaren azalean bertan aitortzen duelako, eta, jakina, horren ondorioz egiten dituen funtsezko aipamen guztiak ere esparru horretakoak direlako.

Halere, ebidentzia bat baino ez dirudien honek badu bestelako konnotaziorik ere, iturri orokor horien iragazpena eta aprobetxamendua egin duten liburuaren arazoa dakartena hain zuzen, berauek bailirateke, egotekotan, filologiak iturritzat jo ohi dituenen eremukoak.

Testuen arteko alderaketak erakusten duen bezala, gaztelerazko literatura aszetikoaren eremukoak dira Axularrek erabili bide zituen iturri horiek. Askok ziren, bada, balia zitzakeenak, eta, liburuan ezarritako aipamenei begiratuz gero, asko izan bide ziren ikuskatuak.

Nolanahi ere den, aipameneetako ustezko iturriak gutxietsi gabe, aspaldixko susmatu ziren zuzenagoak ziruditen beste iturri batzuen aztarnak. Urkijori zor zaio, esaterako, gaur arte ia eragile bakartzat hartu izan den autorearen froga, Luis de Granadaren eraginarena hain zuzen. Alabaina, Mitxelenak nabarmendu legez, atal batzuen jatorriari dagokion eragina bakarrik demostratu zuen:

"Urquijo demostró, y este es un mérito indiscutible, que en unos pocos pasajes el texto de Axular depende directamente de la *Guía de pecadores* de Fray Luis de Granada" (Mitxelena 1971, 166) (azpimarra gurea da)

Dependentzia hau harrigarregia suertatu ez bazen ere<sup>216</sup>, "lo que no probó [Urkijok, alegia] es que el *Guero*, en cuanto obra total, depende de la *Guía*" (Mitxelena, *idem*).

Badirudi, beraz, Axularrek liburu desberdinak erabili zituela berea osatzeko eta, hori horrela izanik, nekez aurki daitekeela liburu bakar bat harenaren iturri gisa. Ikertzaileek bat egin ohi dute Urkijoren hitzekin: "[...] jamás pensé que la obra de Axular fuese una mera traducción de un libro francés ó castellano" (Urquijo 1912, 7).

Horrezaz gain, iturrien arazo irristakor honetan ezin ikusmiratik kendu aszetikako liburu askoren artean dagoen "filiazio-lotura". Beste hitz batzuek esateko, horrelako obra anitz aurrekoen kalko modura burutu ohi ziren, betiere egile berriek tartekatutako berrikuntzekin. Ezin adibide hurbilagorik aurkitu Granadaren obrek haien artean duten jaiotze-harremanenak baino. Ildo horretatik, bukaezinak izan daitezke liburuaren arteko antzak, berdintasunak eta kidesunak, Axularrenak aurrekoekikoak bezainbat seguru asko.

Are gehiago, iturrien arazoa zailagotzeko, esan behar da garaiko literatura aszetikoak aski sistematizaturik utzi zuela hainbat arlo, hala nola bekatu kapitalen aurkako erremedio nagusien atala, infernuko penen kontsiderazioarena, etab. Horren adierazgarri, neurri handi batean, Granadaren liburuak berak dira berriro ere, bestelako autore zenbaitenak (Alvarado, Cano eta beste) ahaztu gabe.

216 - "[...] cosa nada sorprendente dado lo que sabemos del navarro" (Mitxelena 1971, 166)

Azpimarratu, beraz, esparru honetako literatura aszetikoa ugaria, erredundantea eta, askotan, galdu-ahaztua izango dela. Sáinz Rodríguez-ek garai honetako liburuez hitzegiten duela, honela dio: "En el inmenso bosque de nuestras tres mil obras de literatura místico-ascética es mucho lo que se repite y carece de interés histórico" (1928, 61). Hortik, beraz, ondorioak, eta ez bakarrik metodologikoa.

Guketz, Axularren planteamendu eta teknika erretorikoaz ohartu ahal izateko, modu aleatorio eta ez-sistematiko batean burutu dugu testuen arteko erkaketa -eta alde zuzen adierazi nahi dugu ez dela iturrien bilatze lan hori eskuartearen dugun honen xedea ez eta eginkizuna ere. Nahi genuerako, fruituak ez dira eskasak izan (ikus I. eranskina).

### 6.3.2.2.- Iturri-eraginen ildo nagusiak

#### 6.3.2.2.1.- Iturriak isiltzeko joera

Aipatu kidesunak aztertuta, ez dago zalantzarik Axularrek esku artean obra desberdinak izan zituela berea moldatzeko, baten bat, ziurrenik, aipamenetan aitortua, baina nagusiki *Gero*-n erreferentziatu gabeak eta "ezkutatuak", orduan ohi bezala.

Azken hauen artean, Granadaren obra da guztietan gehien nabarmentzen dena, etengabe errepikatua izan den legez. Pasarteen kidesun garbiek, zenbaitetan itzulpen edo moldaketa zuzenak ez dute besterik pentsatzeko biderik uzten. Urkijo, esaterako, berehala ohartu zen *Gero* eta *Guía*-ren arteko antzaz.

Are gehiago, horrekin batera, Axularrenak Granadaren *Libro de la oración y Meditación* eta *Memorial* izenekoekin zeuzkan beste kointzidentzia batzuk ere adierazi zituen Urkijok. Edozein modutan, ondorioa garbia ateratzen du Urkijok: "[...] coincidencias de este género podrían señalarse muchas en no pocos libros religiosos escritos en todas las lenguas" (Urkijo, 1912, 8).

Erakutsi den bezalaxe, Axularrek ez zuen bakarrik *Guía* delako hori<sup>217</sup> erabili, bestelakoak ere izan bide zituen aurrean bere obra burutzerakoan. Aukera guztien artean, ez litzateke bada harriztekoa Axularrek Granadaren obrak erreferentzia orokor gisa izatea eta tartean, testua osatu behar zen guztietan (edo horrela iruditzen zitzaionean), osagarri gisa bestelakoak erabiltzea.

Lafittek ere argi utzi zuen ezen "Axular possédait les *Oeuvres* de Luis de

<sup>217</sup> - Granadaren *Guía de pecadores* liburuari buruz mintzatzean ezinbestekoa da Mitxelena ohar metodologikoa gogoan izatea: "[...] no parece haberse tenido en cuenta que no puede hablarse sin más del texto de la *Guía*, libro que tiene una historia un tanto agitada" (Mitxelena 1971, 166). Izan ere, aurrerago ikusiko den moduan, domingotarraren liburuen edizio finkatuak ez bezalako bertsioen bat (Granadak berak egina edo bestek apailatua, alegia) ez ote zuen Axularrek erabili planteatu daiteke zenbaitetan.

Grenade. C'est indéniable" (39), zenbait pasarteren erreferentzia ematen digularik<sup>218</sup>: Ildo beretik ibilia zen Urkijo (1912) eta, beranduago, Villasante bera (1972) Granadaren zenbait pasarte identifikatu zutenean *Gero*-ko orrialdeetan.

Egia da eraginak ez direla beti zuzenak izaten, badela azpian, edo egon daitekeela bederen, etengabe toki guztietara zabaltzen ari den itsaso edo *fondo komun* bat. Eta agian bide honetatik ulertu behar dira zenbait antz eta berdintasun. Ez dirudi bestelakoa denik Mitxelena ohartarazi zuena:

"Mientras releía por razones de muy otro orden *Erasmus y España* de Marcel Bataillon en la versión española de A. Alatorre (México-Buenos Aires, 1950), en su estudio de la *Agonía del tránsito de la muerte* (1537) del toledano Alejo de Venegas, he encontrado (II, p. 162) el siguiente pasaje: "El error de los que dejan para más tarde el hacer penitencia se compara curiosamente con el parto del erizo, que mientras más se dilata es peor para la madre, a causa de las púas de su hijuelo, que cada día más se le paran más duras; y tanto se puede dilatar el parto, que mate a la madre. Sobre este mismo tema se incorpora una elocuente digresión sobre la pereza, en el estilo de Guevara"

Hoy Axular es autor demasiado conocido en una minoría no tan reducida [...] para que las palabras que acabo de copiar no traigan a la memoria inmediatamente lo que aquél escribe en la p. 78 s.: "Sagarroya, bere eguitez [testu guztia dakar] eta penaz ago erditzen da"

Sería temerario rechazar la hipótesis de una dependencia directa en el caso de una correspondencia tan precisa. El hecho mismo, no se si real o legendario, podría proceder de una fuente común. Esta, en todo caso, no es la *Praeparatio ad mortem* erasmiana ni el ejemplo debe de ser demasiado común en la literatura espiritual castellana de la primera mitad del siglo XVI, cuando Bataillon emplea el adverbio "curiosamente". Lo que a mi entender da fuerza a la coincidencia no es su misma materialidad, sino el contexto en que aparece, que es común a Venegas y a Axular, ya que el libro de éste trata expresamente, según los calificadores, de *non procrastinanda poenitentia* o de *poenitentia non differenda*, la materia precisa que en esa parte de su obra exponía Venegas. Y a la "elocuente digresión sobre la pereza" del toledano corresponden por lo menos, atendiéndonos tan sólo al tenor literal de los títulos que él mismo les puso, los capítulos primero y segundo del *Guero*, además del 28 [sic]<sup>219</sup> en que la lucha contra la pereza es el cuarto remedio para combatir la lujuria" (Mitxelena 1971, 166-167)

Bestalde, antz edota kidesun horiek liburuen egituratze mailan ere eman daitezke, eta eman ere ematen dira. Melchor Cano (1509-1560) ospetsuaren *Tratado de la victoria de sí mismo* (Toledo, 1551) liburu itzuli-moldatua dela eta, inork esan lezake Axularren idazlanaren egituraren eragina izan zuela. Izatez, Axularren liburuen zati handi batean Canoren aurkibidearen oihartzuna nabari daiteke<sup>220</sup>.

Horrezaz gain, urdazubiarraren liburuen *auctoritas* arloa, geroago ikusiko den bezala, haren irakaspenei jarraikiz moldaturik agertzen zaigu, hots, Cano-ren *De locis theologicis* liburuan (1563) -eskolastikatik urrunduz- garbi azaltzen da argumento teologikoen sailkapena, hain zuzen ere *Gero* -n erabili bezalakoa. Baina hori da dena. Gorago esan bezala, aszetiakaren *fondo komun* horren adarrak baino ez lirateke.

<sup>218</sup> - Luis de Granadaren obraren edizio batez baliatuz (Paris, Vives, 1862), pasarte hauek eskaini zituen:

<i>Oeuvres</i>	<i>Guero</i>
VIII. T, 3 or	35 or.
XIV. t., 66 or	99 or.
XVII. t, 114 or	87 or.
III. t., 496 or.	232 or.
XI. t., 479 eta 501 or.	501 or.

<sup>219</sup> - Ez da 28. kapitulu, 38.a baizik.

<sup>220</sup> - Guztia dira "Del vicio de la lujuria [eta beste bekatu buruzgiak, banan-banan]" eta horrelako kapitulu bakoitzaren gibelean "De los remedios contra la [...] [berrito bekatu buruzgiak, banan-banan]".



Eta gauza bera esan beharko genuke hurbiltasun geografikoaren ildotik aztertutako obrei dagokienez. 1608an Antonio Alvaradok argitaratu zuen *Arte de bien vivir y guía de los caminos del Cielo* ("En el Insigne Colegio, y Universidad de nuestra Señora la Real de Hirache, por Mathias Mares, Impresor del Reyno de Navarra") liburuak ere badu paralelismoren bat, garaiko edozein liburu aszetikok bezalaxe. Baina, bestelako loturarik ez badu ere, lau liburuz osatutako obra aszetiko honetan badira zenbait pasarte Axularrenak bezalakoak direnak, besteak beste, haragiaren bekatuaren aurkako erremedio lehenak eta nagusienak: lehenengoa orazioa eta bigarrena okasioei lekuri ez ematea.

Edonola ere, gogoratu baino ez aszetika liburu gehienak, neurri handi batean, erredundanteak direla planteamendu, gai, aipamen, exenplu, irudi, etab. askori dagokionez (bekatu buruzagiak, erremedioak, etab.)

### 6.3.2.2.2.- Oharkizun zenbait

1.- Granadaren liburu desberdinen erabilera dela eta, adierazi beharko genuke Granadak berak bidaltzen duela irakurlea liburu batetik bestera. Izan ere, *Guía*-n bertan Granadak infernuaz diharduenean, beste liburuetara bidaltzen du irakurlea honako hau esanez: "Y aunque desta materia tratamos en otros lugares, pero aquí la tratamos por otros medios diferentes [...]" (*Guía*, 41b), otros lugares horiek *Oración y Meditación* (ostiral gauekoa), *Memorial* (lehen parte) eta *Vita Christi* (2. partetik bukaeraraino) direlarik<sup>221</sup>. Berdintsu egiten du obra onak, erremusina eta miseriak tratatzean:

"Quien, demás de lo dicho, quisiere saber qué tan grande sea la virtud de la limosna u misericordia para con el prójimo, y cuántas las excelencias della, lea un tratado que desta materia hallará escrito al fin de nuestro libro de la *Oración y Meditación*" (*Guía*, 152b)

Hortaz, zinez pentsa daiteke *Guía* irakurtzen zuenak atal horietan sakontzeko irrika senti zezakeela eta hartara zuzenduko zituela bere pausuak, hots, liburuak eskuratzera eta erabiltzera, are gehiago predikari edo idazlea bazen.

Horren berrespena *Gero*-ren XVI. eta XVII. kapituluek agerian uzten duten iturritik letorke, hots, Granadaren *De la Oración y Consideración* (= *Oración y Meditación* izeneko) liburuaren isladatik hain zuzen.

Ohartua zen Urkijo horretaz:

"Continuando el estudio de las fuentes del libro de Axular, encontré igualmente algunos puntos de contacto entre el *Guero* y otra obra del mismo sabio dominico [...]. Me refiero á su magistral *Libro de la Oración y Meditación*" (Urkijo 1912, 9).

Eta horrelako anitz antzematen da *Gero*-n. Ez da ahaztu behar, halaz ere, Granadakoaren liburu honek izan zuen hedapenak<sup>222</sup> beste liburu askoren "iturri" bihurtzeko bidea ireki ziola denbora laburrean, Axularren obrarainoko ibilaldian bestelako "me-

<sup>221</sup> - Granadarenetan oinarritzen dela dirudien arren, doktrinalki Axularrek Granadak egiten ez duen bereizketa bitxia egiten du infernuko penen atalean. Axularrek poena sensus delakoaren barnean hiru motatako penak bereiztuko ditu: arimarenak, arimaren potentzienak, gorputzarenak (ik. *Gero*, 579 or. eta hk.).

<sup>222</sup> - Wardropper-ek Whinnom-en datuetan (1980) oinarriturik dioen bezala, argitaraldien eta berauen ale kopuruen arabera arrakasta-zerrendetan "el *Libro de la oración* de fray Luis de Granada [...] deja muy atrás en las listas de *best-sellers* a *La Celestina*, la *Diana* de Montemayor, el *Quijote* e incluso a la *Guía de pecadores* del mismo fray Luis" (Wardropper 1983, 25).

diatizazioak" ahalbide zitzakeelarik.

Edozein gisaz, Grandakoaren presentzia eta "eragina" ez bide dira agortzen aipatu obra horietan. Oro har, Granadak obretan zehar isurtzen duen estilo zehatza dela medio -urdazubiarrak etengabe jaso zuena-, Granadaren erretorika sakratua egiteko modua ere islaturik aurki daiteke neurri handi batean Axularrenean ere. Beraz, geroago dominigotarrak *Rethorica Ecclesiastica* liburuan teorizatuko zuen guztiak badu nolabaiteko presentzia zuzenik urdazubiarraren ere, batik bat obraren taxutze moduetan.

2.- *Guía*-ri gagozkiolarik, gogora dezagun lehenengo liburuaren lehen eta bigarren parteetatik azken honetako XVI. kapitulua bakarrik erabili zuela Axularrek berea burutzeko. Agian gaiaren izpiritualtasuna eta abstrakzioa gehiegizkoa edo zelako (Izpiritu Sainduaren grazia eta kontsolamenduak, barne bakea argi sobrenaturala, bertutearen bosgarren pribilegioaz bakarrik baliatu zen, hots, "que es la alegría de la buena conciencia de que gozan los buenos, y del tormento y remordimiento interior que padescen los malos" (*Guía*... 62b)<sup>223</sup>).

Gehiago erabili bide zuen hirugarren parte eta zertxobait bigarren liburua.

Halaber, azpimarratzekoa da Axularrek egiten duen erabilpen ez-zehatza. Hau da, obraren 13, 14 eta 15. kapituluetan aski garbi ikusten da, esterako, Axularrek *Guía* erabili duena, baina ez bete-betean eta testuaren hariari jarraituz. Pentsa daiteke Axularrek beste taxutze modu bat erabili duela *Gero*-rako, hots, liburuan inspiraturiko eskema susmatzen da, baina "testu-amarauna" jatorri desberdinetako pasarteekin osatua, askotan aipamenak eta Granadarenak baino zehatzagoak baitira.

Aurrekoa bezain argigarria izan daiteke XI. kapituluko 4. atalekoa. Aski garbi ikusten da bertan Axularrek berak asmatua eta garatua dela Granadaren jarraikako pasarte batzuk iturri gisa erabili ondoren eta ondorioz sortutako testuen artean (§3. eta §5. atalen artean alegia) kokatuz. Inspirazio iturri gisa erabilitako testua, Granadarena esan nahi baita, jarraian emanda dago.

Nolanahi ere, testuaren garapen mota hauekin batera "iturriekiko" etengabe antzematen diren ezaugarriak testuaren erraztasuna, egunerokotasuna eta pragmatikotasuna izango dira. Liburuaren xedeetatik urrun geratuko zaizkio Axularri abstrakzioak, zailtasun kontzeptualak eta izpiritualitate arloko faktoreak.

3.- Jokabide pragmatikoaren ildo horretatik, bai *Guía de pecadores*-en (136a) nola *Compendio y Explicación*... liburuan (130b or.) bada Axularrenean aurkitzen dugun pasarte luze baten paralelorik (*Gero*, 34-36 or.). Kidetasunaren ezaugarri gisa ideien gradazioa eta hitz eta kontzeptu zenbaiten berdintasuna izango genituzke.

Granadaren liburu bietan "Remedios contra la pereza" izeneko kapitulu baten barruan daude biak tartekatuta. Alabaina, kidetasuna nabarmena bada ere, harrigarria izan daiteke kapitulu berdintsu horien lehenengo zatia aztararik ez agertzea Axularrenean, izan ere, alferkeriaren aurkako erremedio gisa Kristo, apostolu eta aita sainduei buruz kontsideratzea aholkatzen denean. Ikusten denez, bakar-bakarrik "arrazoi naturalak" edo

<sup>223</sup> - Nabarmentzekoa da apailatzearen oker bategatik *Biblioteca de Autores Españoles* izenekoaren barnean egindako edizio honetan sortutako ondozkapen arazoa, izan ere XVII. kapitulu bezala agertzen baita izatez XVI.a dena. Horren ondorioz, lehen partean dauden gainerako kapitulu guztiak gaizki zenbaturik geratu dira.

izan daitezkeenak hartzen dira aintzakotzat.

Edonola ere, Granadaren testu biak oso antzekoak diren arren, badirudi hurbilago dagoela Axularrenetik C.y E. delakokoa *Guía*-koa baino, hitz gakoek adierazten duten bezala:

Considera tambien cómo ninguna de cuantas cosas Dios crió está ociosa; los ejércitos del cielo sin cesar cantan loores a Dios; el sol, y la luna, y las estrellas, y todos los cuerpos celestiales, cada día dan una vuelta al mundo para nuestro servicio; las yerbas y los árboles, de poco van creciendo hasta su justa grandeza, y dan cada año sus flores y frutos; las hormigas trabajan y juntan granos en el verano, con que se sustentan en el invierno; las abejas hacen sus panales de miel, y con grande diligencia matan los zánganos negligentes y perezosos; y hallarás lo mismo en todos los géneros de animales. Pues ¿cómo no habrás tu vergüenza, hombre capaz de razón, de tener pereza, la cual aborrescen todas las criaturas irracionales, por solo instinto de naturaleza? (Granada, *Compendio y Explicación*, 130b) (azpimarrak gureak dira).

4.- Granadaren testuak erruz erabiltzen diren arren, zenbaitetan, dena den, zalantza bat aurkezten zaio irakurleari: Granadarenetik zuzenean hartu zituen Axularrek testu horiek ala beste iturri batetik, hau da, Granadak berak har zezakeen beste iturri batetik? Ezaguna da Granadaren ekletizismoa arlo honetan, bere *Retorica* ikustea nahiko izan baitaiteke horretaz ohartzeko.

Eta aipatu zalantza adibide konkretuetatik dator, zer esanik ez dago. Esate baterako, Axularrek 83-85 bitarteko orrialdeetan ematen dituen testuak eta Granadarenak berdin-berdinak badira ere (ikus testuen arteko kidetasunak), printzipioz kopia baino izan behar ez zuen tartekaturiko aipamen bat erabat desberdina da testu bietan. Granadak "De vitis Patrum, p. 2, § 36" erreferentzia ematen duen bitartean, Axularrek "In vita Arsehij apud Suri, tom 4 pag. 257." eskaintzen du. Eta ez dira adibide bakarrik, berdintsu gertatzen baita 298 orrialdean ere; Granadak Plutarkoren ezpainetan jartzen duena Axularrek "Aurelius victor in vita Theod" delakotik hartua dela adierazten du. Eta antzera, baita ere, 437. orrialdean: Granadak Senekaren aipamena egiten du Axularrek Kintilianorena dela esaten duen esaldi berberarekin.

Beste honetan Granadak honela dio:

"También Hugo de Sant Víctor, en el segundo libro de los Sacramentos, [...] dice así: "[...] Porque fácil cosa es creer de sí el hombre que no quiere lo que no puede. Por donde la posibilidad declara muy bien la voluntad. Y por esto, si no haces penitencia cuando puedes, argumento es que no quieres" (*Guía*, 97a)

Eta Axularrek honela:

"Horretan emaiten duzu aditzera, eztuzula nehoiz ere penitenziarik egin nahi. Zeren osasunarekin zaudenean, ahala duzunean, ezpaituzu egiten.

Hala erraiten du doktor batek: *Si non facis dum potes, manifeste ostendis quod non vis* (Hugo. De Sacram. par. 4, cap. 5) [...]" (*Gero*, 202)

Aipamenen erreferentziak erabat desberdinak, ageri denez. Antzeko zerbait gertatzen da 208-209 orrialdeetan Axularrek ematen duen aipamen batekin. Honek san Agustinean dela dio eta erreferentzia ere eskainiko du ("Augus de vera & falsa poenitenti, Hom. 41"). Granadak, ordea, san Agustienegileta erabat ukatzen ez badu ere, zalantzan uzten du eta, edonola ere, san Ambrosiorena bailitzen emango du erreferentzia: "Sant Ambrosio también en el libro de la penitencia (aunque otros atribuyen este dicho al

mesmo Sant Agustín) trata copiosamente esta materia[...]" (*Guía*, 96a).

Bestetan, testuinguru berebean bada ere, eta aipamenak berdin-berdinak izan arren, *auctoritas* desberdinak ekartzen dituzte Granadak eta Axularrek:

Arazoiñekin erraiten du San Agustinek: *Nullae poenae graviores quam malae conscientiae, in qua cum non habetur Deus, consolatio non invenitur* (Aug. Sent. 191, Tom. 3). Ezta konzientzia gaixtoaren egitekoak eta penak baiño pena handiagorik. (*Gero*, 428-429)

64a) Sant Isidoro [...] dice [...]: "Ninguna pena hay mayor que la de la mala conciencia" (*Guía*,

Berdin Axularrek aipamen bat San Agustinen dela dioenean (*Gero* 340 or.) eta Granadak San Bernardorena (*Guía*, 129b).

Beste batzuetan Granadak ez du inolako erreferentziarik eskaintzen, jatorrizko testuak berekotu egiten baititu:

Guarda también tu lengua de cualquier palabra torpe; porque las buenas costumbres se corrompen con las pláticas malas. La lengua descubre las aficiones del hombre; porque cual se muestra la plática, tal se descubre el corazón; ca de lo que el corazón está lleno, habla la lengua (*Guía*, 130b-131a)

Axularrek, aldiz, iturriak bereiztuz<sup>224</sup> ematen du Granadak dioen gauza bera:

Zeren Iondone Paulok dioen bezala: *Corrumpunt bonos mores, colloquia mala* (1 Cor. 15). Solhas gaixtoek galtzen dituzte aztura onak. Eta erraiten dute filosofoek ere: *Voces sunt signa conceptuum*. Mihiak deklaritzen du zer dadukan bat bederak bere gogoan eta bihotzean. Nor nola mintzo baita kanpoan, hala ohi da barranean. Zer baitaduka gogoan, hura aipatu nahi du iendartean, mihia da bihotzaren mandataria, mihian da ezagun nor den bat bedera, eta bai nongo den ere. Iondone Petri ezagutu zen bezala (*Gero*, 396)

Inoiz gertatzen da Axularrek latinezko aipamen bakarrik ematen duela Granadak bi erreferentzia egiten dituen tokian, baina urdazubiarraren bertsio bakar horren itzulpenak argi erakusten du begien aurrean izan dituela haren (edo beste baten?) biak, itzulitakoak ez baitu zerikusirik latinezkoarekin eta bai aipatzen ez denarekin:

Ihardesten du errege Davitek: *Sacrificate sacrificium iustitiae & sperate in Domino*. Erran nahi du: Egizue ongi, ahalez obra onetan enplega zaitzete, eta gero orduan euzue Jauna baithan esperantza (*Gero*, 149).

*Espera en el Señor*, dice David, y haz buenas obras. Y en otro lugar: *sacrificad*, dice él, *sacrificio de justicia, y esperad en el Señor*. Esta es buena manera de esperar[...] (*Guía*, 105a).

Azken adibide argigarri bat 94-95 orrialdeetakoa izan daiteke. Bertan Axularrek ematen duen testua Granadarenaren parekoa da. Halere azken honek adierazten duena urdazubiarrak ezin egokiago datorren aipamen agustindar batekin uztartzen du; are gehiago, esan genezake Granadaren testuaren azpian, aipatu gabe bada ere (hirugarren pertsona erabiltzen du: "se dice"), Axularrek espreski dakarren aipamena dagoela. Konpara bitez bestela:

<sup>224</sup> - Juan Luis Vives-ek zehatzago eskainiko du iturria: "Menandro lo manifiesta con una expresión que el apóstol San Pablo consagró con su boca: *Corrompen las buenas costumbres los malos coloquios* ..." (*De las disciplinas*, *Obras completas*, II, Madrid, Aguilar-Generalitat Valenciana, 1992, 400 or.)

## Granadak:

[...] por lo cual se dice que duerme con él en la sepultura. Y la causa desto es porque por razón de la vieja costumbre, que está ya convertida en naturaleza, tienen los apetitos de los vicios tan íntimamente arraigados en los huesos y médulas de su ánima, como una calentura lenta de tísicos, que está allá metida en las entrañas del hombre, que no espera cura ni medicina (*Guía*, 93b)

## Axularrek:

Zeren nola baita hetika daritzan eritasun bat, zein egiten baita, sukharra denbora luzeaz, eta aphur bana bezurretan barrena sartzeaz: eta eritasun hark ezpaitu erremediorik, mirakuilluz edo baizen, eta izaitekotz ere xoil luzaro: hala da denbora luzeaz, gogoan, eta bihotzean barrena sarthurik dagoen aztura gaixtoa ere. Hura da hetika gaixto sarthua, atheratzen eta erremediatzen gaitza. Eta halakoagatik erraiten du San Augustinek thonban barrena sarthua, eta ehortzia dagoela: eta gairfeko harri-estalkia, iaikitera eta hats hartzera, utziten ezteuena, usantza gaixtoa dela. *Moles illa imposita sepulchro, ipsa est vis dura consuetudinis, qua premitur anima, nec respirare, nec resurgere permittitur.* (Aug. Serm. 44 de verbis Domini tom. 10) (*Gero*, 94-95)

5.- Baina sarri askotan aipamenetan Axularrek erreferentzia mota desberdinak eta aberatsagoak eskaintzen dituela diogunean, ez gara *Guía*, *Memorial* eta horrelakoak bezalako erreferentzia zuzeneko liburuez bakarrik ari. Soil-soilik Granadaren erreferentziak erabili zituela baieztatu lezakeen hipotesia aldeztatik aurreratik aldentzeko, esan dezagun bestelako liburuetan ere Granadaren datuak normalean urriagoak direla Axularrek ematen dituenak baino. Adibide batek argitu dezake egoera Granadak burutu *Sylva locorum* eta *Collectanea* direlakoei berei begiratuz gero<sup>225</sup>. Honek “[...] otiositas, mater nugarum, nouerca virtutum” delakoaren erreferentzia gisa “Bernar. de considerat.” ematen duen bitartean (*Sylva*, 355 or.). Axularrek “cap. 11” eransten du. Eta horrela gertatzen ere da Granadaren *Sylva* edota *Collectanea* izenekoetan eta *Gero*-n agertzen diren aipamen askotan.

Badirudi Axularrek erreferentzia gisa bestelako testurik (ere?) erabili zuela, eta ez bakarrik aipamenak bilatzeko edo osatzeko.

6.- Bestelako testuen erabilpena Axularrek egindako aitortpenean (“... liburu debozinozkoetarik ... bildua”) argi geratzen den arren, horren berrespena beste paralelismo batzuen bitartez erdietsiko da.

Huarte de San Juanek, esaterako, *Examen de ingenios para las ciencias* (Baeza, 1575) liburuaren lehen argitalpenean (eta azpimarratu nahi genuke lehen bertsioaren datu hau<sup>226</sup>) badu pasarte bat Axularrek idatzitako beste testu batekin paralelotasunik duena. Egia esan, Bibliatik jasotako pasarte batean (Esaera Zaharrak 6, 6-8) oinarritzen dira biak. Halere badute kideetasunik gutxienez pare bat puntutan.

225 - Berdin esanenez *Collectanea moralis philosophiae* (Olisipone, 1571) delakoari dagokionez (ezaguna denez, beste izenburu batekin agertuko zen handik urte batzuetara: *Loci communes philosophiae moralis*, Kolonia, 1604)

226 - Bertsio hori oinarritzat burutu zen 1578an Iruñean beste argitalpen garrantzitsu bat “de la que surgen las restantes castellanas, entre ellas seis apareidas en los Países Bajos tras el expurgo (que estas últimas no tienen en cuenta)” (Fresco Otero 1991, 33)

## Honela da Donibane-Garaziko Huarterena:

Y si Galeno considerara las sendas y caminos de la hormiga y contemplara su prudencia, su misericordia, su justicia y gobernación, se le acabara el juicio, viendo un animal tan pequeño con tanta sabiduría sin tener preceptor ni maestro que le enseñase. *Vade ad formicam, o piger, et considera vias eius, et disce sapientiam; quae, cum non habeat ducem neque praeceptorem, praeparat in aestate cibum sibi et congregat in messe quod comedat.* Proverb., cap. VI. (*Examen...*, 89)

## Axularrek, aldiz, honela dio:

Bada xinhaurriaren gobernuaz, zuhurtziaz, trabailuaz, ethorkizuneko egiten duen probisio-neaz, hornizoiñaz, eta biltzen duen mantenuaz, nork zer erranen du? Nork ez du miretsiko, eta gogoeta eginen? Spiritu Sainduak berak igortzen gaitu animalia tipitto humengana, zer egin behar dugun ikhastera, erraiten duela: *Vade ad formicam, o piger, et considera vias ejus, et disce sapientiam quae, cum non habeat ducem nec praeceptorem, parat in aestate cibum sibi* (Prov. 6). Zoaz, nagia, xinhaurriagana, eta konsidera itzatzu haren bideak eta bidexkak, ioan-ethorriak eta itzulinguruak, nekeak eta trabailuak, eta ikhasiko duzu zuk ere nola behar duzun aitzinerat eta bethiere bizi, ibili eta gobernatu. Hark erakuslerik eta kidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du udan, neguaren iragaiteko behar duen mantenua, bazka eta bihia. Eta bihi hura gordetzen du lurtean barrena, berak eginikako ganbaretan, eta bihi-tegietan. Eta hain da zuhur eta goithatu, ezen kanpoan deus ezin izanez, bere bilduetara bildu behar duenean, lehenik hozitu behar duen burutik hasten baitaika bihiari: zeren bertzela sor liteke bihi hura, buztan liteke, behar bihur liteke: eta gero handik harat, alfer-lan gertha lekidikaio bere leheneko zuhurtzia guztia. (*Gero*, 36)

Bien arteko kideetasuna animalia txikiaren bizimodutik ateratzen den ondorioan letzake lehendabizi, hots, pertsonen dagozkien ahalmenak egozten zaizkio inurriari. Huarterek “su prudencia, su misericordia, su justicia y gobernación” aitortzen dizkion bitartean, Axularrek “xinhaurriaren gobernuaz, zuhurtziaz, trabailuaz” hitzegingo digu, haren izaera “zuhur eta goithatu”-z.

Baina paralelotasun honen garrantzia areagotu egingo litzateke isuritako kontzeptuen balioaz ohartuz gero. Hain zuzen ere, Inkisizioak Huarteren liburua aztertu zuenean “su prudencia, su misericordia, su justicia” ezabatzeko agindu zion, eta horrela arindurik atera zen handik aurrera, 1594garrenaz geroztik, alegia.

## Axularrenak ez du horrelakorik.

Horrezaz gain, bada paralelotasuna formalki nabarmentzen duen elementu bat. Bai Huarterek eta bai Axularrek egiten duten itzulpen-moldaketan, bietan latinezko “considera vias eius” esamolde berdinarekin itzultzen da: Huarterek “considerara las sendas y caminos” eta Axularrek “konsidera itzatzu haren bideak eta bidexkak”, bietan sinonimo-bikotea erabiliz.

Gehiegi litzateke kasu honetan kointzidentzia hutsaz mintzatzea. Halaz ere, honek guztiak ez luke Huartere eta Axularren arteko dependentsia zuzenik ere adieraziko ziurrenik, honelako pasarte bakar baten paralelotasunak ez baitu ezer erakusten. Berritoren ere, agian beraiek erabilitako iturri komun batera eramango gintuzke hipotesiak.

7.- Esan bezala, kapitulu eta pasarte zehatzei buruzko erabilpenak hainbat oharkizunen beharra daukate, izan ere Granadaren presentzia nabarmena den arren, zenbaitetan tarteko obraren baten / batzuen beharra baitago arazoak egokiro esplikatzen ahal izateko.

Ildo honetatik esanguratsua izan liteke Urkijok behiala planteatu zuen galdera oraingoz erantzungabetik ondorioztatu beharko litzatekeena. *Guía de Pecadores*

liburuan izandako erredakzio desberdinak zirela medio, honela galdetzen zuen: “¿Cuál de las dos *Guías de Pecadores* utilizaría Axular?” (1912, 9).

Testuen arteko erkaketaren arabera, badirudi lehena ez zuela erabili, bertan zeuden hainbat pasarte ez baitzuen handik jaso. Horren adibide nabarmena da *Gero*-n 95-96 orrialdeetako pasarte Granadaren bigarren *Guía*-ren parekoa dena (ikus I. eranskina), eta lehen *Guía*-rekin (cf. Granadaren *Guía* horren edizioa: 1953, 76 or.) inolako zerikusirik ez duena.

Beste adibide bat urdazubiarraren 600. orrian ikusten dena genuke. *Guía*-ren lehenengo erredakzioak (1556) honela dakar pasarte hori: “Nada desto ha lugar que se diga, pues clama en su Evangelio aquella eterna Verdad [...]” (1556: 1953, 55; azpimarrak gureak dira).

Aurrekoaren kidea den testuan honela dio Axularrek: “Fedeak erraiten deraku [...]” (*Gero*, 600) (azpimarrak gureak dira).

Granadak bazuen testuinguru berean “fede” hitza erabiltzen zuen beste testu bat, guk behin-betiko *Guía* delakoan ez, baina *Memorial* liburuan aurkitu duguna: “pues de todo esto nos desengaña la fe” (*Memorial* 207) (azpimarrak gureak dira).

Beraz, lehenengo *Guía*-ren zuzenketa egina zegoen Axularrek erabilitako iturri aszetikoan. Horrezaz gainera, badirudi pasarte zenbait Granadak *Memorial*-era karriatuak zituela. Halere, dagokigun arazoa zailtzeko baina irtenbideari argi gehiago emateko, erantsi behar da lehenengo *Guía*-n agertzen den pasarte bat eta *Memorial*-era eramana izan ez zena Axularrenean agertzen dela, Isaias profetaren hitzak jasotzen eta moldatzen dituen hain zuzen:

¿Qué corazón no se despedazará con la continuación deste tormento? ¿Quién de vosotros, dice Dios por su profeta, podrá morar con aquel fuego tragador, y hacer vida con aquellos ardores eternos?” (1556: 1953, 55)

Axularrek:

Arrazoinekin galdegiten du Isaias Profetak: Quis habitabit de vobis cum igne devorante? Quis habitabit de vobis cum ardoribus sempiternis? (Isai. 33). Halako lekhuian, hain su beroan, gar etemlean, nor egonen da? Nor biziko da? Nork iraunen du? (*Gero*, 599)

Honenbestez, pentsa daiteke ez dela erabat zuzena Urkijok susmatu zuen harako hura: “Si no me engaño, ésta última es la *Guía* que manejó el párroco de Sara” (1912, 9), izan ere, ez bigarren *Guía* liburuak ez eta *Memorial* delakoak ere ez baitirudite pasarte horien guraso.

Hortaz, galdera orain beste hau litzateke: lehenengo *Guía*-ren eta *Memorial*-aren artean ba ote zuen Granadak bestelako ediziorik prestatu? 227. Testuak ere latinez eskaintzen zuen ediziorik bai? Axularren aipamenetara egokitzen den testua (+ latinezko bertsoia), alegia?

Edonola ere, arazoak argitu bitartean, bestelako hipotesirik ere planteatu liteke nonbait, hau da, Axularren “iturria” Granadaren obrak erabili zituen autoreren bat izan daitekeen galdetu beharko litzateke elementu guztiak egokiro kalibratu ahal izateko.

227 - Ez zuen horrelakorik susmatu Urkijok ondoko lerro hauek idaztean: “A no ser que se demuestre que los párrafos copiados del *Memorial* están, á su vez tomados de otra obra anterior, resulta evidente que Axular imitó á Granada” (Urquijo 1912, 14), horren arabera, Granada ez den beste “iturri” bat tartekatuko bailuke hipotesi gisa.

Honek, jakina, ez luke derrigorrez adieraziko hitzez-hitzezko itzulpen-moldaketa bat izan zenik Axularrena<sup>228</sup>; esan nahi dena honako hau da soil-soilik: beste liburu batzuk bezala, Granadaren obra ere zeharka ezagutu zezakeela urdazubiarrak, eta ez zuzenean. Eta Granadaren obra arrakasta, hedapena eta erabilera eskerga ikusirik, ez dirudi *a priori* alboratzeko hipotesia litzatekeenik.

8.- Nolanahi ere den, ezin da metodologikoki baztertu iturri antzeko gehiago ere aurki daitekeela *Gero*-n, besteak beste, liburuan bertan aipatzen direnak:

“Otras (kointzidentziak) podrán también hallarse, a poco que se rebusque en las literaturas vecinas del siglo XVI, con toda probabilidad, a menos que me equivoque mucho, más bien del lado español que del francés. *Las mismas fuentes confesadas*, cuya lista estableció Angel Irigaray (aunque creo que no está del todo completa) en la edición del *Guero* de 1954, preparada por don Manuel de Lecuona, no han sido consideradas en detalle” (Mitxelena 1971, 168)(azpimarrak gureak dira).

Horieta batzuek baliatuz, erraz konproba daiteke Axularrek liburuan barrena gehiago zor diela aszetikako testu klasikoei orain arte aitortu izan dena baino. Eta berriro diogu zorrak ez direla ezinbestean zuzenak izan behar, zeharkakoak ere izan baitaitezke, hots, eremu bereko literaturaren bidez iritsiak.

Adibide argigarria aukitzen dugu San Agustinen aipamen aitortu batzuk aztertuz gero.

Axularrek *De Vita Christiana* liburutik hartutako aipamen biak kapitulu berekoak dira (IV. kap.) eta ia jarraian doazenak, ikusiko den bezala. *Gero*-n 112 eta 125 orrialdeetako testuek honako transiziozko pasarte hau dute haien artean:

[...] Et quod unusquisque vel celerius vel tardius, prout peccatorum suorum modum expleverit, judicetur, evidentissime demonstratur, quando de Sodomorum et Gomorrhaeorum interitu atque incendio, qui sua jam peccata repleverant, ad Abraham Deus loquitur, dicens: *Clamor Sodomorum et Gomorrhaeorum repletus est, et peccata eorum magna vehementer repleta sunt* (Gen XVIII, 20). De Amorrhaeis vero quid dicit, qui sua nondum peccata finierant, quos post multos annos quam supra dictae civitates crematae sunt, constat esse deletos? *Nondum repleta sunt peccata Amorrhaeorum usque adhuc* (Id XV, 16) Quo exemplo...” (Migne, *Patrologia*, XL. tom., 1035-1036 zut.).

Nabarmena denez, transiziozkoa deitu dugun pasarte horrek *Gero*-ko 124-125 orrialdeetan du islada<sup>229</sup>:

Prometatu zerauen gure Iaungoikoak Abrahami eta haren ondokoei, emanen zerauela Iudeako erresuma on hura. Ordea etzerauen, prometatu eta berehala eman. Eta zergatik ez? Ihardesten du lainkoak berak: *Necdum enim completae sunt iniquitates Amorrhaeorum* (Gen. 15). Ezterauet emaiten berehala, zeren ezpaitira oraiño bethe eta konplitu Amorreoek bekhatuak, zeinek baitadukate herri hura. Hek neurria betha dezatenean, eta kontua konpli, orduan edekiko derauet hei, eta emanen Abrahami eta haren ondokoei.

Etzuen iduriz hala egin Sodomakoekin eta Gomorrakoekin: hek erran eta berehala, gehiago iguriki gabe, zerutik su bat igoririk erre zituen. Zeren ia ordukotzat neurria bethe baitzuten. Eta hunen gaiñean erraiten du San Agustinek: *Quo exemplo...*(124-125 or.).

228 - Hori bide zen Farinelliren hipotesi kontrastatu gabekoa.

229 - Adierazi bezala, honako hau ere ez da Axularrek San Agustini derrigorrez zuzenean hartutako testua izan behar.

Bada bestelakorik ere, eta nahiz eta bakarrik aipamenaren erreferentzia eman, Axularrek ia hitzez-hitzen ematen duena gainera:

[...] cogitantes quod quamdiu David exercitavit se in militia, non insultabit sibi luxuria; sed postquam in domo otiosus remansit, laborabit adulterio, et homicidium commisit. Samson dum cum Philistaeis pugnavit, non potuit capi ab hostibus; sed postquam dormivit in sinu feminae, et otiose cum ea remansit, mox capitur, et caecatur ab hostibus. Salomon dum occupatus esset in aedificatione templi, non sensit luxuriam; sed recedens ab opere, mox persensit insultum luxuriae, et deficiens, femina instigante ad idola, adoravit in thalamo virtutum aureum. Vigilate ergo, fratres mei, vigilate, et nolite deficere; uia nec sanctiores Davide nec fortiores Sansone, nec sapientiores Salomone vos esse cognovi (San Agustín, *Ad fratres in Eremo*, 17. sermoia; in Migne, XL. tom. 1262 zut.)

Axularrek honela ematen du pasarteak:

Errege Davitek, trabailatzen zenean, gerlan bere presunaz zebillanean, kontu guti egiten zuen emaztèz. Baiña astiari, eta aisiari iarririk, mandatariz eta bere ordaiñez egitekoen egiten hasi zenean, atzeman zen berehala, eta erori bertzeren emaztearekin. Salomon ere tenploaren egiten hari zen bitartean, eztugu edireiten enganatu zutela emaztèk, baiña tenploa akhabaturik, alferkeriari eman zeikanean, fite atrapatu zen.

Bada Sanson ere gerlan zebillaiño, ezin egundaiño garaitu zuten bere etsaiek, baiña egitekoak eta gerlak utzirik, emazte baten altzoan bere plazerera etzan zenean, emazte hark berak enganatu zuen, eta gero etsaiek hartzaz nahi zutena egin zuten.

*Vigilate ergo, fratres mei, quia nec sanctiores Davide nec fortiores Sansone, nec sapientiores Salomone vos esse video* (August. ad fratres in eremo. Sermo 17. T. 10). Zaudete beraz iratzarrik, ene anaia maiteak (dio San Agustinek), zeren eztakusat nik, zaretela zuek, David baiño sailduago, Sanson baiño balentago, eta ez Salomon baiño iakinsunago (*Gero*, 380-381).

Horrelakoetan, badirudi beste testu mota batzuk erabili izan zituela urdazubiarrak berea burutzeko eta, daitekeena da hark ezer ez jakitea aipamenaz gainera zegoenaren jatorriaz. Ildo horretatik, erraz aurki daitezke antzeko aipamen sortak dituzten aszetika liburuak, baita Axularrez geroztikakoetan ere.

**VII.-LIBURUAREN  
EGITURAKETA**

Historikoki ez da *dispositio* delakoa aski berandura arte aztertua izan eta, ondorioz, ez dauka erretorika klasikoan beste atalek daukaten teorizazio maila. Horrezaz gainera, ez dira beti argiegiak *inventio* ataletik bereizteko arrazoiak, metodologikoki bate-raturik eman izan baitira gehienetan. Lausberg-ek zioen bezala,

“Aunque la *dispositio*, como segunda fase del proceso elaborativo, hay que colocarla detrás de la *inventio*, en esa relación temporal de ambas fases del proceso de elaboración no se trata de una sucesión estrictamente separable y distinguible. Más bien, *inventio* y *dispositio* se hallan vinculadas una a otra de manera inseparable” (Lausberg 1990, 371)

Erretorika klasikoaren arabera, beraz, *dispositio* operazioa *inventio* delako-aren ondoren egin ohi zen eta argumentuen eta parteen banaketaz ziharduen. Kintilianoren planteamenduan diskurtso edo obra baten antolamenduan honako prozesu hauek burutu behar ziren: lehenengo, obraren eta atal bakoitzaren banaketa; ondoren, banaketa horren fruitu ziren zati bakoitzaren edukien antolamendua, eta, azkenik, hitzen antolamendua ideien azalpenean.

Lehenengo puntua, hots, *dispositio*-ari dagokion diskurtsoaren taxuketa *inventio* delakoarekin ere planteiatu ohi zen bitartean, edukien ordenamenduaren arduraz ez zegoen zalantzarik. Laburbilduz, “la *dispositio* es la que impide el caos de las ideas y de las palabras” (Lausberg 1990, 372).

Oro har, hiru ziren edukiak antolatzeko modu ortodoxoak: goranzkoa (hasieran indar gutxien duten argumentuak eta bukaeran sendoenak), beheranzkoa (argu-mentu sendoenak hasieran eta ahulenak bigarren maila batean) eta homerikoa (argumen-tazio sendoenak hasieran eta bukaeran eta ahulenak erdian). Halere, oratoria sakratuaren praktikan aipatu kanona ez zen hertsiki betetzen.

Orobat, ideien azalpenean antzeko hazte prozesu bati ematen zitzaion lehenetsuna: tamainaz osagai motzena zena luzeena baino lehenago jartzen zen; esanahiari zegokion heinean, goranzko hazte bat edota zabaltze semantikoen araberrako hazte bat eman ohi zen. Honek, jakina, garrantzi handia izango zuen *elocutio* arloko zenbait puntutan, batik bat hitz multzoetan eta sinonimian.

Hau guztia, dena den, *ordo naturalis* -ari zegokion; ordenamendu artifizialean (egoerak edota bestelako faktore batzuk eskatuta egin zitezkeen hartan) zilegizkoa zen *dispositio*-ak agindutakoa haustea.

Bestalde *inventio* -ren barnean aztertua izan bada ere<sup>230</sup>, izatez *dispositio*-rena denez gero, guk honen barruan aurkeztuko dugu berbaldiaren atalik garrantzitsuenen analisia (exordioa, azalpena edo narrazioa, argumentazioa eta epilogoia edo ondorioa).

Oro har, prolegomenei dagokienez, bat gentozke Mortara Garavelliren hitzekin:

“A partir de la invención de la imprenta, las partes preliminares de una obra escrita por el autor (que justifica y explica sus decisiones, descubre o esconde hábilmente sus cartas, polemiza con sus adversarios, se defiende de detractores, etc.) o por otros contemporáneos o sucesivos (...), han tenido funciones diversas y de notable importancia para la historia de las ideas” (Mortara Garavelli 1991, 75)

Eta eransten duen bezala, hasierako elementu horiek guztiek testuaren eta tradizioaren arteko erlazioak finkatzeko balio izaten dute (generoak, gaia, iturriak, kultur korranteak, etab.), ahaztu gabe testuak litekeen irakurlegoarekin izan ditzakeenak (nori eskaintzen zaion liburua, irakurle mota, etab.).

Axularren kasuan nabarmena da hau guztia bai “Gomendiozko karta” delakoan nola “Irakurtzaileari” eskainitakoan (aurrerago mintzatuko gara zehatzago hauetaz).

Honaino exordioari dagokion atala. Beste guztia, ikusiko den bezala, argumentazio eta garapen konkretu baten ereduari jarraituko zaio erretorikaren ikuspuntutik.

230 - “[...] aunque sean un fenómeno de la *dispositio* (como tales, de hecho, los había examinado Aristóteles), los tratados latinos principales analizan las partes del discurso en el ámbito de la *inventio*” (Mortara Garavelli 1991, 70).

## 7.1.- DISPOSITIO-A GERO-N

### 7.1.1.- AURRETIKOAK

Axularren liburua formalki, eta hipotesi gisa, egileak egituratutako obra koherentetzat hartu behar bada ere, esan beharrekoa da ez dituela atalak “sermoi ortodoxo” batean bezala betetzen, besteak beste erabat desberdinak direlako liburu baten egituraketa eta “sermoi eredu-garri” batena.

Sermoietan bezalaxe, predikarien obra gehientsuenetan, “en todos tiempos ha sido común que el tema [...] se divida en tres o más puntos principales” (Curtius 1976, 744: oharra 47), horietako formula errazena honako honetara mugatzen zelarik: sarrera, gorputza eta ondorioak.

Teoria erretorikoan, dena den, zehatzago ere izan liteke eskema nagusia: exordioa, narratioa, divisioa, confirmatioa, confutatioa eta conclusio delakoa.

Esku artean dugun liburuan erraz atzematen dira horietariko parte batzuk. *Exordioa*-ren funtzioa, esaterako, liburuaren hasierako hitzaurre biek edo osatuko lukete, lehenengoak eskaintzarena beteaz eta “Irakurtzaileari” izenekoak benetako exordioa eginez. Haien barnean, esan gabe doa, zati desberdinak bereiz daitezke. Ohiko *protasia* edo argumentuaren azalpena hasiera-hasieran agertuko da, hots, bai obraren eskaintza edo inbokazioa delakoan (Etxauzi eskainitako “Gomendiozko karta”-n, alegia) eta bai “Irakurtzaileari” delakoan. Eskaintzak, bestalde, dagokion izaerak horrela markatzen baitu, osagai panegiriko handia erakutsiko du (kasu honetan Etxauzi zuzendua), eta, gainerako eskaintzetan ohi bezala, liburuari eskaintzaren jasotzailearen araberrako ospea eta prestigioa kutsatu nahi zaio, irakurleek ongi har dezaten eta, finean, arrakastatsua izan dadin.

Zuzenean “Irakurtzaileari” luzatutako testuari egokituko zaio exordioaren funtzio nagusia, bertan azalduko obraren gaia edo haria zein den adierazi baino lehen, exordioei dagokien *captatio benevolentiae* delakoa planteatuko baita. Ildo horretatik, ezaguna da oratoria erlijiosoan -baina ez bakarrik hartan- exordioaren xedea entzule-irakurleak “benévolos, atentos, dóciles” (Granada, *Retórica*, 554a) bihurtzea zela. Ulergarria da, bada, Axularrek bi zatal hauetan jarri zuen arreta eta zehaztasuna.

Jakina, liburuaren gorputzari egokituko zaio erretorika klasikoak narratio, divisio, confirmatio, confutatio eta conclusio bezala definitzen dituen atalen garapena.

Liburuan zehar, mezu zehatz baten (= berehalako konbertsioaren beharra eta atzerapenaren ondorio gaitzak) inguruan planteatuko dira kapitulu eta kapitulu multzo desberdinak eta beraietan agertuko dira -gehiago edo gutxiago- berbaldiaren parteak. *Narratio* delakoa<sup>231</sup> baino askoz ere gehiago landuko da, esaterako, konfirmazioaren arloa, nahiz eta narrazioaren arlo bat ere (*exempla*-rekin lotua dagoena, hain zuzen) maiz agertuko den.

231 - Erretorika klasikoaren arabera, *narratio* edo dihghsiz delakoa ez da garrantzitsua diskurtsoan, ez bada genero judizialeko arazoetarako bederen, non guztia azaldu behar baita ahalik argien. Garrantzitsuagoak dira gorago aipatutako *propositio*-a eta *confirmatio*-a, planteamendua eta demostrazioa, finean.



Argumentazioaz diharduen atala izango da liburu honetan gailenduko dena, bertan *confirmatio* eta *confutatio* atalek demostrazioa bideratuko dutelarik. Kotsiderazio eta argumentuen frogatzeko mekanismoak honako hauek izango dira nagusiki: *auctoritas* delakoaren bidez (Eskriturena, Elizako Guraso eta doktoreena, filosofoena, ...), esenpluen bidez eta konparazioen bidez.

Horrelakoetan, bukaeran ezinbestekoa ohi zen *peroratio* -ak *petitio* delako bat eramaten zuen normalean, literaturan barrena *topos* bihurturikoa gainera, hau da, entzule-irakurleari tratatutakoaren komenigarritasuna eta erabilgarritasuna azpimarratzen zizkiona.

Hori guztia, adierazi bezala, *Gero* -n zehar atzeman daitekeena da. Halaz ere, egituraren aldetik erakusten bide dituen gorabeherak eta anabasa antzekoa kari, azterketa erretorikorako arazo gaitzak ekarri izan ditu zenbaitetan, izan ere, ea liburuak ba ote duen liburu bezala kontsistentziarik (koherentziarik, lotura logikorik,...) baita planteatzen den lehenengo arazoa. Bigarren arazoa, eta latzena nonbait, ea ez ote zen *Gero* hau bi liburutarako prestatu materialaren zitu aldrebestua izango da.

### 7.1.2.- EGITURA FINKATU NAHIAN

Luze eztabaidatu izan da Axularrek bere liburuari emandako *dispositio* -az. Liburuak hutsune nabarmenak erakusten ditu bai tematikoki eta bai formalki, ahaztu gabe liburuaren azalean bertan eta irakurtzaileari zuzendutako hitzaurrean agertu planteamendu-arekin sortzen den kontraesana, inondik inora ez baitira iragarritako bi parteak antzematen. Horreza gain, eta aldarrikatutako printzipioei uko eginez, tematikoki ere kapitulu zenbaiten artean etenketak bortitzeziak ematen dira: ez da beti jarraipen zuzenik eskaintzen, etab. Oro har, bada, esan beharrekoa da liburuaren planteamendu orokorra ez dagoela argi, aurkibidean bertan ohar daitekeenez.

Era berean, formalki kapitulu eta atal zenbaiten arteko konektoreen falta nabarmenega da, nahiz eta ezaguna den tematikoki loturarik ez duten atalen arteko sasikonexio formalak ere egin daitezkeela (definizioz konektore gramatikalak<sup>232</sup> direnak erabiliz, esaterako); hau guztia, aurreko eta ondoko kapitulu eta atal zenbaitekin konektatzeko lokailuen faltan antzematen da.

Jakina, honek guztiak ikuspegi nahaste-borastetsua ekartzen dio liburuari. Urkijoren hitzetan agertzen den bezala,

[...] con esta cuestión del orden en que están düpuestas [sic] las diversas materias de la obra maestra de la literatura vasca se relaciona otro punto oscuro, cuyo esclarecimiento no deja de ofrecer ciertas dificultades (Urquijo 1912, 11)

Ez da ahaztu behar itxura horretan oinarritu izan direla Axularren egiletza baino, editorearekin liburuaren apailatzeko azken ardura zalantzan jarri diotenen planteamenduak: Axularrek berak izendatutakoren bat izan ote zen?, haren iloba agian?, editorea?,...

<sup>232</sup> - Beste modu batez esanda, “[...] des morphèmes qui ont pour fonction de lier deux énoncés” (Maingueneau 1987, 117).

Baina puntu honetan, berriro ere diogu, argitalpena Axularrek prestatua izan zen ala beste batek, datu berririk ez den bitartean, aski antzua suertatuko litzateke eztabaida, ez bailuke orain arte esandakoa baino gehiago argituko.

Nolanahi ere den, zilegizkoa zaio ikertzaileari liburuaren egilearen asmoak eta metodoak finkatzen saiatzea eta, orobat, azken bertasio definitiboak moldatu zuenaren logika-ereduaz zenbait apunte egitea, liburuaren barne-koherentziaz azken finean.

Ildo horretatik, kezka hedatua bezain onetsia izan da liburuaren “logika” bilatu nahi izatearena. Ahalegin horiek medio, liburuaren “logikoago” bihurtzeko saiorik interesgarriena Intxausperena izan da beharbada, beranduago etorriko zen Lafitterenak asko zor baitio harenari.

Ezaguna da Inchauspek, bere ideologia erlijiosoak ezinbestean hartaratu, expurgaturik atera zuela Axularrena. Halere, zalantzakotzat antzematen zuen jatorrizko batasun haren antolamendu berria prestatzean, liburuaren barne logikaren lerro nagusiak utzi zituen agerian lehenbizikoz.

### 7.1.3.- INTXAUSPEREN BERRANTOLAMENDUA (1864)

Harek prestatu edizioaren “Aitzinsolhasa” izenekoan garbi asko plazaratu zituen bi arazo nagusi horiek, hots, apailatzearen arduradunaren kezka eta, horren ondorioz, liburuaren egituraketan sortutako “nahasteka”:

“Uste itateko da lehen ekhoiztea edo edicionea etçuela Axularec guidatu eta arthatu ahal. Liburuaren baimenduetan ikhusten dugu orducotz etcela Saraco erretor: *Nuper Rector de Sara...*, *Olim Rector de Sara*: Saraco erretor ohia, deithua da.

Horrec nabarrentzen du nola edicione hartan hainbertce huts eta narrio aurkhitzen den; urhatsca tratatcen baitute iracurçaillea, eta ecin comprenituz gueldi arazten.

Liburuaren çathi guztien batundetcean ere bada cerbait nahasteca, eztira behar litezquen seguidan ibeniac.

Badirudi Axularen guthun edo paperac emanac içan cirela imprimaçailleari ondozcatu gabe, ordenan eçarri gabe; eta hunec imprimatu dituela albeçala, escuen artean guerthatcen citçazcan ereduraz, lehena azquen, azquena lehen; etçuelacotz guidaric eta ez chuchençaileric” (Intxauspe 1864, vii-viii or.)

Baina Intxauspe ez zen arazoaren planteamendu hutsean geratu. Aitzitik, liburuaren haria finkatu, gaien arteko loturak bilatu eta, ondorioz, antolamendu berri bat (“bere baithaco ordena”, azalean bertan zioenez) eman zion liburuari. Faltan nabari zuen logika baino ez zen izan haren ahalegina.

Horretarako, Axularrek azalean esandakoaren bidetik abiatu zen, liburuaren bi partetan banatuz eta konklusio gisako “Azkentza” atala bereiztuz. Esan gabe doa banaketarako irizpideak ez zituela inon ere argitu. Edonola ere, edizio berriari ezarritako aurkibidearen bidez antzeman daitezke haren ahaleginaren ondorioak<sup>233</sup> :

<sup>233</sup> - Parentesi artean jarri dira *Gero* liburuaren lehenengo edizioari dagozkion kapitulu-zenbakiak.

**Lehen partea: GEROTIARRAK**

- I- Alferra (1, 2 eta 3. kap.)
- II- Gaztea (13. kap.)
- III- Zaharra (14. kap.)
- IV- Hiltzera doana (15. kap.)
- V- Arnegaria (19. kap.)
- VI- Haserrekorra eta herratsua (20-30. kap.)
- VII- Atsegalea (31-44. kap.)

**Bigarren partea: GEROTIARREN PIZGARRIAK**

- I- Geroa ez da geurea (4 eta 5. kap.)
- II- Geroago nekezago (6-8. kap.)
- III- Bekatuen neurria (9. kap.)
- IV- Jainkoaren atsekabea (53. kap.)
- V- Aingeruen atsekabea (54. kap.)
- VI- Guztien atsekabea (55. kap.)
- VII- Kontzientziaren aladura (45. kap.)
- VIII- Obra onen galtzea (16-18. kap.)
- IX- Denboraren galtzea (12. kap.)
- X- Jainkoaren miseriakordia (10 eta 11. kap.)
- XI- Jainkoaren justizia (56-60. kap.)
- XII- Bertutearen erraztasuna (48-50. kap.)
- XIII- Bertuteak dakarkeen bakea (46. kap.)

**AZKENTZA**

- I- Behar dela konfesatu (51 eta 52. kap.)
- II- Behar dela oniraun edo perseberatu (47. kap.)

Berehala soma daitekeen bezala, berrantolamendurako irizpideak tematiko-formalak izan ziren nagusiki, inoiz zenbait kapituluren arteko ustezko loturei muzin egiten zitzaizelarik.

Azpitarratzeko puntu interesgarria erakusten du Intxauspereen egituraketa honek: kalonjea ongi ohartu zen esku artean zerabilen liburuaren blokeez, nolabaiteko autonomia erakusten duten bloke tematikoez esan nahi baita. Oro har, beraz, ongi "zaitu" zuen Intxauspek liburua (ikus 7.3.2 atala: "Egituraren zantzuak").

Berrantolamendua, berriz, arazotsuagoa da, nahiz eta, oro har, lehenengo partean "bloke" moduan zalantzarik eskaintzen ez zuten atalak elkartu zituen Intxauspek "gerotiar" bide zirenen ildotik. Horrezaz gain, bigarren partean lortutako antolamendua ere ez zen izan *Gero* -ren lehen edizioarena baino hobeagoa, gure ustez.

Edozein modutan, antolamendu berriak ere ez zuen izan, geroago inspirazio-iturritzat hartua izan zen Granadaren *Guía de Pecadores* liburuaren kointzidentziarik ere: "De aquí la nueva disposición de materias de la edición de 1864. Sea de esto lo que quiera, lo que puedo asegurar es que el orden adoptado por M. Inchauspe tampoco coincide con el de Fr. Luis de Granada" (Urquijo 1912, 11)

Nabarmentzekoa da Intxauspek "ienden delicatutasunagatic" (Intxauspe 1864, viii or.) egin zuen taxuketa interesatuak sobera agerian uzten duela kalonjearen eskua. Adibide gisa, Axularrek Neroni eskainitako lerro zapoetsuek (32. kap.) gozotasunik gabeko bihurtzen dira Intxauspereanean, haren ama, "munduco emazterik prestuena" ez bide zena ia martirologio kristauean sartzeko moduan geratu zelarik.

**7.1.4.- LAFITTEREN BERRANTOLAMENDUA (1943)**

Anabasak eta logika tematikoaren faltak eraginda, badirudi Zünharreko kalonjearena bezalako kezka agertu zitzaizola Lafitteri ere: "Inchauspe zenarekin aitor dugu kapituluak guti-aski nahasiak direla. Ez bide ditu Axular-ek berak ordenu hortan ager-arazi" (Lafitte 1943a, 26).

Liburua irakurri ahala sortzen den inpresio horrek berdintsu jarraituko du handik hamahiru urtetara ere: "Liburua irakurtuz aise ageri ditake nor-nahiri, kapitulu guziak ez direla behar luketen lekuan. Nola behar litzaken ondozkatu eta elgarri jarrik-arazi, ez da argi-ere" (Lafitte 1956, 342).

Baina, hipotesi hori abiapuntutzat, Lafittek Intxauspek baino aurrerago egin zuen argitalpenaren arduradunen susmatze-kontuetan, izan ere Axularrek ez zuela argitaratze lanen erantzukizunik zabaldu baitzuen, ezta azken aipalaketarenik ere:

"[...] itchura askoren arabera, Axular-ek ez bide du berak (chaharregiz ala nik dakit-a?) bere liburua argitarat eman: ilobak ala bertze norbaitek hartu dituzke eskuz eginikako gai guziak, lehen partekoak eta bigarrenkoak, elgarretarik berechi gabe, eta nolazpait bildurik ager-arazi"(Lafitte 1943a, 28-29)

Era berean, urdazubiarrak liburuaren azalean agindutako bi parteen arazoari zegokionez, Lafittek honako hipotesi hau erantsi zuen:

"Beharritat erraren (sic) dautzugu, gure iduriko, bigarren zathia, parte segurik, ez dugula batere galdua [...] lehen partekoak eta bigarrenkoak (gaiak, alegia), elgarretarik berechi gabe eta nolazpait bildurik ager-arazi (zituzten).

Bekatu zailenak eman dauzku eskutan dugun liburu ederrean; bainan ez bide zen lau bekatu hoitan gelditzeakoa: ohointzaz bederen bazukeen kapitulu-alde on baten gaia.

Gure aburu osoa emaitetokoz, erran ginezake Axular-ek ez zuela bere bigarren parte hasi baizik: sail handiari lotua zen [...] Damurik ez baitzuen bururatu!" (Lafitte 1943a, 28-29).

Edozein modutan, eta esandakoak esan, badirudi Lafittek bukatugabetzat zuela liburua: "Itchuren arabera, Axular-ek bere lana bururatu balu, bertze jaidura gaixtoak ere jorratuko zituen -behinik behin, gezurra eta ohointza, - eta naski bertuteak ere goretsiko" (Lafitte 1956, 343)

Guztiarekin ere, ez bide zuen gustoko Intxauspereen kapitulu-ordenamendua: "Inchauspé zenak bere gisako segida batean ezarri zituen, bainan bertze arrimurik asma ditake" (Lafitte 1956, 342). Eta, egia esan, beste bat asmatu zuen.

Laburturik, Lafitteren bildumaren berrantolatze hariak honako hauek izan ziren:

"[...] lehen parte batean Axular-ek erakusten dauku zertako ez den luzamendutan ibili behar:

Lehenik, geroko uzten den konbertsioa mentura tcharrean delakotz; alabainan geroa ez da gure eskuko, geroago eta nekezago da oneratu itzultzea;

Bigarrenekorik, gure bekatuzko estatuak zeru-lurrak histen ditu; Hirugarrenekorik, bekatuan egoiteak dohakabe uzten gaitu; alabainan bihotza doluminez dauka bekatoreak; bekatuan higatu denbora galdua du; eternitatea galtzen du; ez du ezagutzen bertutearen gozorik.

Zathi hortarik jalgi ditaken chedea: kofesatu behar dela eta ongian iraun.

Bigarren zathian chehe-chehea ikertzen ditu lau bekatu nausi: alferkeria, zin egiteko usaia, haserrea eta lohikeria. Bakotzaz erraiten du nolako ondorioak dituen eta nola ditaken garait" (Lafitte 1956, 342-343)

Irizpide horiekin, beraz, *Gero* liburuan azaltzen diren kapituluak honela barreiatuko ziren Lafitteren antolamendu berrian (ik. Lafitte, 1943a)<sup>234</sup>:

**A) Zertako ez den luzamendutan ibili behar**

**I) Geroko uzten den konbertsionea mentura txarrean da**

- 1.- Geroa ez da gure eskuko (IV-V)
  - a) bizitzeko segurantzarik ez dugu
  - b) menturari ez ditake fida
- 2.- Geroago eta nekezago da oneratzea (VI-IX)
 

Jainkoaren miseriak ez ote ditake fida?

Ihardesten dio Axularrek (X-XI)

**II) Gure bekatzeko estatuko zeru-lurrak trixkatzen ditu**

- 1.- Zeruan (LIII-LIV)
- 2.- Lurrean (LV)

**III) Bekatun egoteak dohakabetzen gaitu**

- 1.- Bihotza dolu-minez dago (XLV)
- 2.- Bekatun higatu denbora galdua da (XII-XVI)
 

Bidenabar bi hitz justiziazko eta miseriakozko obrez (XVII-XVIII)
- 3.- Eternitatea galtzen du bekatoak (LVI-LVIII)
 

Artetik zuzen da ifernua betikoa izatea (LIX-LX)
- 4.- Bekatoak ez dazagu bertutearen gozoa (XLVI eta XLVIII-L)

**Xedea: Konfessatu behar da eta ongian iraun**

- 1.- Penitentzia ontasuna da (LI)
- 2.- Usu kofesatu (LII)
 

Iraupena (XLVII)

**B) Bekaturik zailenak**

- I) Alferkeria (I-III)
- II) Zin egiteko usaia (XIX)
- III) Haserrea eta herra (XX-XXX)
- IV) Lizunkeria (XXXI-XLIV)

Ikusten denez, Lafittek estu-estu jarraitzen du Intxausperen "partiketa"; ondoko berrantolamendurako, berriz, nolabaiteko egitura-iraulketa eragin zion kalonjearenari, hau da, azken honek hasieran jarritakoa harek bukaeran ondozkatu eta alde-rantziz. Baina, edozein modutan ere, berdintsu jaso zituzten bi-biek logikoenak eta koherenteenak ziruditen "blokeak" eta, ordenatu ondoren, koherentziarik gabe gelditzen ziren hutsuneak beste kapituluekin estaltzen saiatu ziren.

Oro har, blokeak edo diren horiek Intxauspek Lafittek baino hobeto zaitu zituen arren, Lafittek harako hark kontutan hartu ez zuen elementu berri bat tartekatu zuen berrantolamendurako irizpidetzat, hots, bigarren partearen lehenengoarekin nahasia bazen - eta horrela uste zuen berak -, liburuaren azalean Axularrek zioenaren araberrako bigarren parte-edo izan zitekeenaren bukaeran kokatu behar omen ziren ezinbestean "bere eguin bideari lotu nahi çaicana"-ri eskaini beharreko gidak eta erremedioak. Horretan oinarriturik, bada, Lafittek, bukaerara (bigarren partearen osatzen zuen "B" atalera, hain zuzen) pasatu zituen Intxauspek "Guerotiarac" izenburupean hasiera-hasieran, lehen

234 - Parentesi artean, zenbaki erromatarrez idatziak, dagokigun liburuaren lehen edizioan kapituluek daukaten kapitulu zenbakia jarriko da.

partearen osatuz, kokatuta zeuzkan kapitulu gehienak (13, 14 eta 15.a izan ezik): 1-3, 19, 20-30 eta 31-44, guztiak berdin-berdin ordenaturik.

Lafitteren lehen zatia osatzeko ere, bizpahiru aldaketa kenduta, Intxausperen ordena berbera erabiltzen da (ikus ondoko grafikoa).

Gure ustez, dena den, Lafittek oker larriagoak egin zituen bere ondozkapena burutzeko, besteak beste, liburuaren gaia zentratzen duten hasierako kapituluak (hasieran mantendu beharrekoak, alegia) lekuz kanpo jarri zituelako.

Eta berriro ere, antolatze-gida moduko honek, zehatza eta kapitulu kapitulu esplikatua izan arren, ez ditu kapituluaren artean daudekeen bestelako loturak aintzakotzat hartzen, hau da, tematikoki ondozkatzen saiatzen da baina beste hainbat faktoreri gehiegi begiratu gabe.

**INTXAUSPE**

Lehen parte: Gerotiarac

I) 1-3 kap.

II) 13 kap.

III) 14 kap.

IV) 15 kap.

V) 19 kap.

VI) 20-30 kap.

VII) 31-44 kap.

Bigarren parte: Gerotiarren pizgarriak

I) 4-5 kap.

II) 6-8 kap.

III) 9 kap.

IV) 53 kap.

V) 54 kap.

VI) 55 kap.

VII) 45 kap.

VIII) 16-18 kap.

IX) 12 kap.

X) 10-11 kap.

XI) 56-60 kap.

XII) 48-50 kap.

XIII) 46 kap.

Azkentza

I) 51-52 kap.

II) 47 kap.

**LAFITTE**

**A) Zertako ez den luzamendutan ibili behar**

**I) Geroko uzten den konbertsionea mentura txarra**

1.- 4-5 kap.

2.- 6-9 kap.

10-11 kap.

**II) Benturak zeru-lurrak trixkatu**

1.- 53-54 kap.

2.- 55 kap.

**III) Bekatun egoteak dohakabetzen gaitu**

1.- 45 kap.

2.- 12-16 kap.

17-18 kap.

3.- 56-58 kap.

59-60 kap.

4.- 46 kap.

48-50 kap.

Xedea

1.- 51 kap.

2.- 52 kap.

47 kap.

**B) Bekaturik zailenak**

I) 1-3 kap.

II) 19 kap.

III) 20-30 kap.

IV) 31-44 kap.

## 7.2.- GERO-REN ANTOLAMENDUAZ

Granadaren obrak maiz asko Axularren aurrean egon izan direla jakin badakigun arren, urdazubiarrak bere libururako proiektaturiko plan orokorrak urrun dirudi domingotarrarenetik. Urkijok zioen bezala, "[...] fácilmente se echa de ver [...] que el plan que se propuso seguir Axular, distaba mucho del que próximamente un siglo antes de él, había escogido Granada" (Urkijo 1912, 8).

Inchauspek, Lafittek eta Urkixok bereziki erakutsi duten kezkarerkin bat egiten dezakegun arren, ez dugu uste berrantolamendu saiakerak ziturik eman dezaketarik ez bada alde zuretik zenbait puntu garrantzitsu finkatzen.

Guketz, erretorikaren eta literaturaren ikuspuntutik interesgarriago iruditzen zaigu obran atzeman daitezkeen elementu pertinente ezberdinez jabetzea eta diren bezala azaltzea, balizko antolamenduaren arazoaren koordinadak dagokien lekuan kokatuz eta gainerako saiakera hipotetiko hutsetatik aldentuz.

### 7.2.1.- AXULARREN ASMOAK

Oro har, bi dira hemen nahasten diren arazoak: barne-koherentziarena, lehenengo, eta, honekin estuki lotua doana, liburu honen jatorrian bide zeuden bi parteen fruitua ez ote zen izan, gorabeherak-gorabehera, honako *Gero* hau. Biei erantzuten saiatuko garen arren, dagoeneko aurrera daiteke bigarrenak, bestelako daturik gabe, nekez izan dezakeela erantzun sendorik.

Edonola ere, bigarrenaren arlokoak dira ditugun lehenengo datuak. Izan ere, Axularrek bide zituen asmoen arazoa argitzen eta bideratzen joateko dauzkagun puntu zehatzenak honako hauek dira:

a) liburuaren azalean obra bi partetan banatuko dela esaten zaigu:

"[...] bi partetan partitua eta berezia, lehenbizikoan emaiten da aitzera[...] Bigarrenean kidatzen da eta aitzinatzen [...]."

b) "Irakurtzaileari" eskainitako atalean, bestalde, lehenengo parte bat benturatuko duela dio urdazubiarrak, eta gero, agian bigarrena:

"Eta nahi nituzqueyen bi parteac elcarrequin, eta batetan athera. Baiña iccussiric cein gauça guti edireiten den euscaraz esquiribaturic, gogoan behartu naiz eta veldurtu, eztiren bideac asco segur eta garbi, baden bitartean, cenbait trabu edo behaztopa harri. Eta halatan hartu dut gogo, lehenbicico parte hunen, lehenic venturatceco, eta berri iaquitera beçala aiticinerat igortceco. Hunec cer iragaiten den, cer beguitarte içaiten duen, eta nor nola mintço den, avisu eman diaçadan. Guero avisu haren arauaz, ethorquicunerat govatatceco: Eta bigarren partearen camporat atheratceco, edo barrenean guelditceco eta estaltceco" (16 or.).

d) Horiezaz gainera, exordio gisako hitzurreen ondoren, liburu hasten den lekuan bertan honako izenburu nagusiarekin adieraziko da (adierazten jarraituko da!) egin gogo duena:

"GUERO  
HASTEN DA GUE-  
ROTIC GUERORA  
dabilanaz, eguiten den, li-  
buruaren lehen parte" (21 or.)

Honekin guztiarekin, bada, argi utzi behar da lehenengo kapitulu(k) inprentara bidaltzean ere bi partetako asmoak irmo irauten zuela Axularrengan eta liburuaren lehenengo zatia argitaratzeari ekin ziola.

Halere, hiru lekuotan baieztatutakoa egia balitz ere, zalantzan geratzen zaio irakurleari ea nolako izango zen bigarren parte aitortu baina ezezagun hori, izan ere, tematikoki balizko bigarren liburukoa beharko zuena (edo beharko zuenaren zati garrantzitsua, bederen), Intxauspek eta Lafittek adierazi bezala, lehenengo honetan emana baitirudi.

Horren ondorioz, eta autorearen asmoak asmo, irakurleari geratzen zaion susmoa gorago aipatu berbera da: ea ez ote zen (Axularrek berak aginduta edo, ziurrago izan daitekeena -baldin eta horrelakoetan ziurtasunik bada, bederen-, bestek bultzatuta) bi liburutarako prestaturiko materialea bakar batean argitaratzeko apailatu eta bakar batean argitara eman.

Hipotesia areagotzeko, ez genuke azpimarratu gabe utzi nahi Axularrek bere obra adierazteko erabilitako hipokoristikoko baten kasua: "Eta hala deliberatu nuen, burueragotzkarri bezala, liburutto baten, bi partetan partiturik, gero hunen gainean egitera" (15-16; azpimarra gurea da).

Orain arte nabarmendua izan ez den atzizki txikigarri bat darabil, teoriarik -eta gutxienez!- seihun bat orrialdeko liburu izan behar zuen hura adierazteko. Jakina, argitaratutakoa Axularren asmoetan lehen parte baina izan behar ez bazen, nekez uler daiteke "liburutto" delakoaren erabilpen erredundante hori<sup>235</sup>. Atzizki txikigarrien zale ez zen autore batentzat (ez behintzat etengabe ikusmiran zuen Granadaren mailan) "liburutto" hitzak errealitate objektiboaz gain zebilen *humilitas* arloko topos hutsa erakutsiko luke? Ala benetako liburuska erabilgarriaren errealitatea (orrialde gutxiagokoa, alegia), gero bestek puztua eta apailatua?

Hemen egonik, eransteko datu adierazgarri izan daiteke lehenengo koadernotxoaren plametan sistematikoki agertzen den akatsa, hots, Krisostomoaren erreferentzia guztietan "hom." (=homilia) jarri beharrean inprimatzaileak "tom." jartzen du. Horrela 50. orrialderaino. Handik aurrera ondo agertuko dira guztiak.

Zer adieraziko luke honek? 16 plamako lehenengo koadernotxoak zuzendu gabe argitaratzen hasi ondoren egin zirela zuzenketok, eta bakarrik handik aurrerakoetarako? Antolamendu berria -egon izan bada besterik!- ez zen lehenago planteatu, inondik ere.

Honek guztiak, dena den, Intxauspe-Lafitteren hipotesiaren bidetik sakontzen jarraitzeko elementua lirudike ziurrenik.

<sup>235</sup> - Gehiagotan ere agertuko da: "liburutto hunen, kanporat atheratzeko, ausartziaren hartzera" (4 or.), "Liburutto haur da emazurtza" (4 or.), "Ediren bedi liburutto hunetan (10 or.), "Ezut liburutto haur letratu handientzat egiten" (19 or.).



7.2.2.- HIPOTESIAK GARATZEN

Aurreko galderak ez du oraingoz behin-betiko erantzunik izan. Eta, horrezaz gain, eman izan diren guztiak hipotesien erresumakoak gertatu dira.

Gehienik ere, zitekeen jatorrizko egituraren -baldin egon izan bada dugunaz besterik!- pista bakarrak obran bertan bilatu beharko lirakeke, ez baitago tamalez bestelako informazio-iturririk (eskuizkriburik, besteren erreferentziarik, ...). Aztarnok barne-koherentzian eta gaiaren taxuketan eta garapenean bilatu beharko lirakeke nagusiki, hau da, inon agertzekotan, horietan aurki liteke beharbada azalean iragarritako bi parteen arrastoak, azterketa estilistikoak sistema *elokutibo* koherente bakarra erakusten baitu obra guztian barrena<sup>236</sup>.

7.2.3.- GAI TAXUKETAZ

Tematikoki, goian adierazi den bezala (ik. 6.1.1 atala), egia da teorian bi partetan garbi bereizturik joan behar zuten kapituluak (zenbat kaltan egiten duen luzamendutan ibiltzeak, batetik, eta eginbidean bideratzeko gida, bestetik) nahasian agertzen direla (kapitulu bat bestearen atzetik normalean) eta, ondorioz, indarra hartzen duela "anabasa"-ren hipotesiak.

Honetan guztian, alabaina, badu Luis Granadakoaren obrak zerikusirik nonbait, haren irizpidearen parekoa baikenuke, iduriz, Axularrek izenburuan marraztu zuena. Izan ere, irizkidetasun hau Granadak landutako arlo teorikoan eta praktikokoan eman zela baieztatu daiteke. Arlo teorikoari dagokionez, aszetikaz ihardun zuten beste autore askok bezalatsu, garbi utzi zuen eginkizuna:

"Luego pues que hubiere apartado al pecador de las malas obras, debe tambien exhortarle á las buenas, esto es, á todos los ejercicios de las virtudes, principalmente habiéndose de vencer los vicios con los actos de las virtudes opuestas" (Granada, *Retórica*, 524b) (azpimarrak gureak dira)

Eta zehatzagoa dirudi aurrerago esandakoak, formalki, sermoietan bezalatsu, liburuetan ere bekatuen arbuizate bakoitzari bertutean jarraitzeko moduaren azalpenak segitu behar diola uler baitaiteke:

"[...] cuando hubiere exhortado al ejercicio de alguna virtud ó apartado de algun vicio, perorada la causa, muestre el modo con que deba practicarse la obra de la virtud, ó huirse la acción torpe" (*Retórica*, 561a).

1556ko *Guía de Pecadores* delakoan ere badu planteamendu horren gauzate praktikorik:

Tres cosas se requieren, cristiano lector, para hacer a un hombre verdaderamente bueno y virtuoso, que es el fin que la doctrina cristiana pretende. La primera es ganarle la voluntad y persuadirle que quiera y se determine a bien vivir. La segunda es enseñarle qué es lo que ha de hacer para bien vivir. La tercera, declararle cómo alcanzará fuerzas y espíritu para vivir esta manera de vida" (*Guía*, 1553:1953, 9)

<sup>236</sup> - Honekin azaleko konstatazio huts bat baino ez dugu egin nahi, azterketa estilistikoak honelakoetan eman dezakeena berez erlatibizatzen baita gure oharren beharrik gabe. Ez gara, beraz, egiletzaren arazoan sartzen. Edonola ere, ez legoke soberan Arellanok esandakoak gogora ekartzea: "muchas supuestas marcas de autor son rasgos comunes y generalizados de un fondo mostrenco; y los rasgos idiolectales o son poco relevantes o mucho; cuando son poco no son demasiado significativos; cuando son mucho resultan fácilmente imitables" (Arellano 1991, 566, oharra).

Ez da besterik Axularrek, azalean bertan adierazten duen bezala, bi liburutan burutu gogo duena:

"Lehenbicioan emaiten da, aditcera, cenbat calte eguiten duen, luçamendutan ibiltceac, eguitecoen gueroço utzteac. Bigarrenean quidatcen da, eta aitcinatcen, luçamenduac utciric, bere hala, bere eguinbideari lotu nahi çaicana"

Horrezaz gain, Granada oso zehatz mintzatzen zen "gidatze-lan" horretan tratatu behar zenaz<sup>237</sup>:

En primer lugar deberá estimular á aquellas que, á mas de ser virtudes insignes, sirven tambien muchísimo á excitar los deseos de las otras. En cuya clase señaladamente se colocan el continuo ejercicio de la oracion, la atenta meditacion de la pasion del Señor, y de los demas beneficios divinos, el frecuente uso de los sacramentos, la devota leccion de libros piadosos, la mortificacion de las pasiones, la guarda diligente y solícita del corazon, la afliccion de la carne, la moderacion de los sentidos exteriores, y mayormente de los ojos y de la lengua, con todas las obras de misericordia y humanidad, tanto corporales como espirituales, con que socorremos á nuestros prójimos" (Granada, *Retórica*, 524b).

Planteamenduaren eragin teoriko hori *Gero* honetan ere horrela gertatu izan balitz, urrun geundekeen Axularrek parte biak liburu bakar batean eman zituela esaten duen baieztapenetik.

Baina Granadakoaren alderdi teoriko hutsetik alde eginez, egiantzekotasun handikoa bide da honako hau ere, hots, metodologikoki Axularren obraren taxuketa zehatzean eragina izan zezakeela Granadaren aszetika libururik zabalduenak ere, harek bi liburutan banatu baitzuen bere *Guía*, bigarrenak Axularren bigarrena izan behar zuenarekin zerikusia izan zezakeelarik.

Granadak bere *Retórica* liburuan, eta *a posteriori* izan bazen ere, aski garbi gomendatzen zuen "que cuando hubiere exhortado - predikariak - al ejercicio de alguna virtud ó apartado de algun vicio, [...] muestre el modo con que deba practicarse la obra de la virtud, ó huirse la accion torpe. Porque dice muy bien Plutarco, «que los que convidan á la virtud, y no dan avisos para alcanzarla, son como los que atizan un candil, y no le echan aceite para que arda»" (Granada, *Retórica*, 561a)

Jakina, alde aurretik horixe bera egina zuen *Guía de pecadores* delakoan, obraren hasierako hitzaurrean:

"Y según esto, se repartirá este libro -*Guía* osoaz ari da- en dos partes principales -bi liburutan alegia-. En la primera se declararán las obligaciones grandes que tenemos a la virtud, e los frutos e bienes inestimables que se siguen della; y en la segunda trataremos de la vida virtuosa, y de los avisos y documentos que para ella se requieren. Porque dos cosas son necesarias para hacer a un hombre virtuoso: la una, que quiera de verdad serlo, y la otra, que sepa de la manera que lo ha de ser; para la primera de las cuales servirá el primer libro y para la otra el segundo" (Granada, *Guía*, 11)

Lehen liburuaren aurkezpenean argumentazio hori areagotuko da: "Este *Primero libro*, cristiano lector, contiene una larga exhortación a la virtud" (*Guía de pecadores*, 14).

<sup>237</sup> - Honen guztia adibide konkretua haren *Guía de Pecadores* obraren bigarren liburua izango genuke.

Berdintsu adieraziko da bigarren liburuaren hasieran<sup>238</sup> :

“Porque no basta persuadir a un hombre que quiera ser virtuoso, si no le enseñamos cómo lo haya de ser; por tanto, ya que en el libro pasado alegamos tantas y tan graves razones para mover nuestro corazón al amor de la virtud, será razón que agora descendamos a la práctica y uso della, dando diversos avisos y documentos que sirvan para hacer a un hombre verdaderamente virtuoso” (Granada, *Guía*, 121)

Halaz ere, garrantzitsuena lehenengo partea dela azpimarratuko du Granadakoak, hau da, Axularrek ere liburu gisa burutu zuen partea alegia:

“Mas con ser esta segunda parte tan necesaria, todavía lo es mucho más la primera; porque para conocer lo bueno y lo malo la misma lumbre y la ley natural que con nosotros nace nos ayuda; mas para amar lo uno e aborrescer lo otro hay grandes contradicciones y impedimentos, que nacieron del pecado, así dentro como fuera del hombre [...] Por lo cual, romper por todas estas contradicciones e dificultades, y a pesar de la carne y de todos sus aliados, desear de veras y de todo corazón la virtud, no se puede negar sino que es cosa de grande dificultad y que ha menester socorro” (Granada, *Guía*, 11 or.)

Ondorio gisa, eta Luis Granadakoak egiten duen antzeko planteamenduaren aurrean, badirudi obraren taxuketan ere nolabaiteko parekotasuna edo antza behar duela egon. Are gehiago kontutan hartzen bada pasarte asko haren obretatik hartuak izan bide direla (ik. I. eranskina).

Jakina, *Guía* bakarrik ez da aski Axularrena zeharo esplikatzeko, ez egituraren aldetik, ez eta, gorago erakutsi den bezala, gaiaren aldetik ere. Urkijok adierazi zuen bezala (cfr. Urquijo 1912), Granadaren *Guía*-n dagoena eta Axularrena ez dira erabat parekagarri, baina bai -eta hau geuk diogu- hainbatetan argigarri.

Egituraren argitze kontu hauetan ezin da ahaztu *Gero*-ren giltza (azaleko aipamena) eta bukaera den aipua ere (Siraken Jakinduria 5) Granadaren *Guía*-ren lehen liburuko hirugarren partearen hasierako atalaren bukaeran agertzen dela han esandakoaren laburpen garrantzitsu gisa:

“Y pues son tantos los que desta manera son castigados, muy mejor acuerdo será escarmentar en cabeza ajena y sacar de los peligros de los otros seguridad, tomando aquel tan sano consejo que nos da el Eclesiástico, diciendo (Eccli. 5): Hijo, no tardes en convertirte al Señor, y no lo dilates de día en día; porque súbitamente suele venir su ira, y destruirte ha en el tiempo de la venganza” (Granada, *Guía*, 92).

Axularrek Granadaren hitzok nagusiki modu literalean hartu zituela pentsa liteke -motiborik aski baitzeukan inondik ere harako gizatalde lapurtar osoak-, nahiz eta gero berak aipamenaren bigarren partea, bortitza eta mendekuzkoa benetan, isilpean gordetzen zuen. Azken batean, esaldi horren inguruan ardaztuko zuen urdazubiarrak bere liburua.

238 - Bigarren liburu honetan Granadak batetik bizio hedatuena eta erremedioak azalduko ditu eta, bestetik, bertuteak.

### 7.3.- LIBURUAREN ANTOLAMENDUAREN ERREALITATEA

Ikusiak ditugu dagoeneko Intxauspe eta Lafitteren iritziak; saia gaitzen, beraz, liburuaren kapituluaren antolamenduari logikotasuna bilatzen eta nolabaiteko irakurketa-sistema aurkitzen.

#### 7.3.1.- LINEALTASUN ETA LOGIKA TEMATIKOA

Liburuak hirurogei kapitulu ditu, “zenbaki borobila”, Schumann-ek dioen bezala, hirurogeia 5 eta 10 zenbakien multiploa baita (cfr. Curtius 1976, 705-706). Hau, ordea, konstatazio bat baino ez litzateke eta ez luke derrigorrez aparteko sinbologiarik izan behar. Hori bai, egia da zenbait kapitulu erraz asko txerta zitezkeela aurreko-ondokoetan (gaiagatik edota laburtasunagatik) eta beste batzuk, aldiz, bitan-edo banatu, horrek ekar zezakeen kapitulu-kopuruaren aldaketarekin. Ez zen horrela egin; borobildu egin nahi izan zuten kapitulu kopurua eta hala eman argitara.

Kapitulu horien garapen mailaketari dagokionez, eskaintza eta aurkezpeneko lehenengo atal biak alboratuz, eta kapituluaren tituluak kondentsaturik, oro har horrelako zerbaiteko aterako litzaziguke argitaratu liburuan:

- I-II: Alferkeria
  - ihes egiteko trabailatu behar da (I)
  - dagitza kalteak: handiena gerotik gerora ibiltze(II)
- III: Desirkunde utsetan iragaten zagi denbora
- IV: ez dugu geroko segurantzarik
- V-IX: geroan benturatzen gara eta
  - galtzen gara (V)
  - gaitzago dugu bekatutik ateratzeko (VI)
  - usantza gaixtoa hartzen dugu (VII)
  - honek ez antzietzen eta gogortzen gaitu (VIII)
  - bekatuen neurria bete daiteke (IX)
- X-XI: Jainkoaren miseriakordian
  - fidatu behar da (X)
  - ez da hargatik penitentzia geroko utzi behar (XI)
- XII-XV: Gerotik gerora ibiltzean
  - denbora galtzen da penitentzia egiteko (XII)
  - baina batzuk zahartzarorako uzten dute (XIII)
  - zahartzean ere ez dute penitentzia egiten (XIV)
  - heriotzeko orduan penitentzia egin gabe (XV)
- XVI-XVIII: Borondatezko eta obligaziozko obren probetxua
  - Borondatezkoa den erremusinarena (XVI)
  - orain egin behar, ez gero, eta zeuk (XVII)
  - Obligaziozkoak eta justiziazkoak, berdin (XVIII)
- XIX-XLIV: Bekatu buruzagi zenbait

- XLV-XLVI: Kontzientzia gaixtoa eta ona  
gaixtoaren liskarra (XLV)  
onaren bakea (XLVI)
- XLVII: Perseberatzea orain
- XLVIII-L: Zein da bide errazagoa  
paradisukoa ala infernukoa? (XLVIII)  
paradisukoa errazagoa (XLIX)  
infernukoa lan gehiago eta desatseginagoa (L)
- LI-LII: Konfesatzea  
lehen erremedioa (LI)  
maiz egitearen probetxua (LII)
- LIII-LV: Bekatutan jarraitzeak bidegabe egiten dio  
Jainkoari (LIII)  
Aingeruei (LIV)  
bere buruari, kristauei eta gauza guztiei (LV)
- LVI-LX: Infernuko penen kontsideratzea  
luzamenduak laburtzeko: pena damni (LVI)  
pena sensus (LVII)  
ilkitzeko esperantzarik eza (LVIII)  
sekulako gaztigua (LIX)  
barkamenik eza (LX)

Lehenengo begiradan harrigarri irudi lekigukeen arren, pizka bat sakonduz gero, Axularren liburuak nolabaiteko linealtasun tematiko bati jarraitzen diola ohar gaitzke. Hasierako nahaste-borrastearen inguruko laharrak garbiturik, beraz, aski garbi ikusten da urdazubiarraren norabidea, "Irakurtzaileari" zuzendutako hitzetan aitortu gaiarekin:

"Ez du(..) deusec ere hanbat calte eguiten arimaco, eta ez gorputzeco ere, nola eguitecoen, gueroco utzteac" (15 or.).

Izan ere, kapitulu horien antolamendu orokorrak ba bide du norabiderik: abiaburua Genesisean legoke, hots, kreaturen sortzean berean, eta sekula bukatuko ez den infernuaren hausnarketarekin bukaera. Edo bestela adierazi nahi bada, obra honen egituraketa aski nahasia bada ere, badira ohartarazteko hainbat puntu, azaletik antzematen ez den "koherentzia" antzeko bat ematen diotenak alegia:

\* Lehen kapituluak, hasierako hitzak *Genesis* liburitik hartutako pasarte batekoak dira, kristauen Jainkoak gizona eta emakumea egin zituela adierazten duen horretakoak, gizakiaren kreazioa, jaiotza. Sorrera horretan bertan kokatuko da gero gizakia kutsatuko duen alfertasuna/alferkeriaren arazo. Beste modu batez esateko, liburuari *Biblia* -ren hasierarekin ekiten zaio, honako *incipit* honekin, liburu guztian barrena azalduko den gaiaren aurkezpena egiteaz gain, alfertasuna kreaturen sorrerarekin lotutakoa delako hipotesia abiapuntu bezala hartzen delarik.

\* Modu berean, liburuaren bukaera eskatologikoan heriotza izango da gaia, benetako heriotza, infernura kondenatuta dagoenaren heriotza, "egiazko bizitza" lortzeko miseriordiarik izango ez duenarena.

\* Hasiera eta bukaera biologiko-teologiko horren bitartean garatuko da liburua, bertan azalduko direlarik gizakiaren ezaugarri lurtiarrak (bekataria da) eta Jainko-arengana bihurtzeko bidea erakutsiko zaiolarik. Horrek guztiak bekatariaren hausnarketarako eta bizitzaren norabidea aldarazteko balio beharko luke.

\* Liburuan barrena, beraz, aipatu arazo horrek eta berau gainditzeko bideak osatuko dute mamia, baina onbideratze edo konbertsiorako mezu honetan, aldagai kronologikoa ("orain" vs "gero") izango da liburuari originaltasun kutsua eskainiko diotenetatik bat.

Axularren izenpean argitaratutako liburuak, beraz, bere "logikaz" taxutu zituen atalak eta kapituluak. Tartean antzeman daitezkeen inkonexio-deskonezioak, logikotasun ezak, etab. garai hartako hainbat libururi egotz dakizkiokeen tamainakoak izan litezke nonbait.

Nolanahi ere den, antolamenduaren logika horretan sakontzen hasiz gero, eta kapituluetakoa idazpuruek berek adierazten duten informazioaz baliatuz, linealtasun edo logika tematiko-formala izan dezakeen irakurketa berezia egin liteke, inondik ere. Hona hemen tituluetan oinarrituz egin ahal izan dugun irakurketarik trinkoena<sup>239</sup>:

Munduko saindu, jakintsu eta gauza guztiek kondenatzen duten alferkeriatik ateratzeko trabailatu egin behar da (1. kap.). Eta arazoia da alferkeriak kalteak baino ez dituela berarekin ekartzen (gaixtakeria, pobrezia, ...), kalterik handiena gauza guztietan (baita arimarenetan ere) gerotik gerora ibiltzea delarik (2. kap.).

Egia da bekatore nagia horretaz ohartzen dela, baina, bere nagikeriaren ondorio zuzenez, denbora desirkunde hutsetan iragaiten zaio (3. kap.). Eta ematen du gerorako uzte horrekin ez dela benetan konturatzen inork ez duela geroko segurantzarik (4. kap.). Areago, pertsona alferra (gu geu, alegia) benturaren benturan benturatzen da, fidatu egiten da geroaz eta luzamenduz (5. kap.).

Eta, jakina, geroago gaitzago da bekatu egoeratik ilkitzea (6. kap.), horrela ibiltzearen ondorio gisa usantza gaixtoa hartzen baita (7. kap.). Eta, ez dago zalantzarik, usantza gaixtoaren indarrak gogortu, itsutu eta ez antsiatu egiten du bekatorea, hots, alferra (8. kap.).

Baina ez dira horiek gerotik gerora ibiltzearen kalte bakarrak: ezin da ahaztu Jainkoak norberari markatutako denboraren iraupena buka daitekeen bezala, bekatuen kontua eta neurria ere, bekatu-kopurua alegia, osatu eta bete egin daitekeela horrela (9. kap.).

Egoera honetatik ateratzeko, asko balio du Jainkoaren miseriordiak eta hartan fidatu behar da (10. kap.), baina beti ere fidatze horretan pasatu gabe<sup>240</sup> eta egin beharreko penitentzia (eta obra onak<sup>241</sup>) geroko uzten ez d(ir)elarik, ezen miseriordia justiziarekin orekatzen baitu Jainkoak (11. kap.).

Hau guztia (konbertitzea, penitentzia, obra onak) lehenbailehen egin behar da, "fite presenteon"<sup>242</sup>, denbora galdu baino ez da egiten gerotik gerora ibiltzeaz (12. kap.). Horrela, gazte-denboran ez da penitentzia zahartzeraino luzatu behar (13. kap.). Baina luzatu duenak gaizki egingo du zahartzean ere penitentziarik egiten ez badu, "hura

239 - Oro har, azpimarratutako hitzek kapituluetakoa tituluetakoa direla adierazten dute.

240 - Gogoratu protestanteen "fedearen bitartez, salbazioa" delako planteamendua. Hemen horren aurka egiten da, ikusten denez.

241 - 149 or.

242 - 154 or.

emaçu galdutçat”<sup>243</sup>, berandu baita aztura gaixtoak uzten hasteko (14. kap.). Halere, okerragoa da oraindik heriotzeko oreneraino bekatutan egon gogo duenaren egoera, nahiz eta itxaropenik ezin den galdu; izan ere, bekatua ezabatzeke aski diren Jainkoaren grazia eta bekatariaren borondatea, eta horiek guztiak “eguin ditezque laburzqui, heriotceco azquen articulan (...) heriotceco pontuan ere, azquen orenean ere”<sup>244</sup> bertan (15. kap.).

Halaber, gogoratu behar da penitentziarekin batera bestelako obra batzuk ere egin behar izaten direla arima salbatzeko. Borondatezko eta miserikordiazko obren artean probetxu handienetako bat da erremusina egitea (16. kap.). Hori bai, nork bere eskuz eta ondokoetara utzi gabe egin behar dira erremusinak eta beste obra on borondatezko guztiak baliagarriago izan daitezzen (17. kap.). Era berean, justiziazko obrak, obligaziozkoak, kontzientziaz zor direnak alegia, ondokoetara utzi gabe egin behar dira (18. kap.).

Bekatuen artean badira espreski aipatu beharreko batzuk, zeinetan luzamendutan ibiltzeak eta erremedioak geroko uzteak kalte larriagoak egiten baititu. Guztietatik lehenbailehen, geroko luzatu gabe, ateratzea aholkatzen du saratarak. Hona hemen bekatuok:

Juramentuak egin ohi dituen kalteak eta usantza horretatik ilkitzeko erremedioak (19. kap.).

Kolerak eta etsaigoak egiten dituzten kalteak (20. kap.) eta ez haserretzeko, mendekuak bertan behera uzteko eta kolera irauungitzeko erremedioak (21, 22, 23, 24, 25, 26 eta 27. kap.). Areago, etsaiari barkatu egin behar zaio eta amorio eduki, hots, onetsi eta maitatu (28, 29 eta 30. kap.).

Haragiaren bekatuak egin ohi dituen kalteak eta ematen dituen egitekoak (31, 32, 33, 34. kap.) eta bekatu horretatik begiratzeko bideak eta erremedioak (35, 36, 37, 38, 39, 40, 41, 42, 43 eta 44. kap.).

Ongi egitera bultzatu eta gaizki egitetik hastandu egiten gaituen beste bide bat ere -arrazoi naturala edo kontzientzia alegia- gaixtatu egiten da luzamendutan eta gerotik gerora ibiliz gero (45. kap.). Areago, kontzientzia onak mundu honetan bertan eskaintzen dituen bakea, sosegua eta arraitasuna bera ere galdu egiten dira kontzientziaren gaiztatzearekin, gerotik gerora ibiltzearen ondorioarekin hain zuzen (46. kap.).

Ildo horretatik, arimaren salbamendua eta parabisua erdiesteko perseberatzen saiatu behar da geroko begira egon gabe, hau da, bekatuak gabe egoten eta bertutean eta ontasuenan irauten (47. kap.).

Baina zaila ote da ontasun horretatik, hau da, bizitze on batetik hobeagora, parabisu honetatik sekulako loriara joatea?<sup>245</sup> Infernuko bidea parabisukoa baino errazago eta atseginagoa dirudien arren (48. kap.), frogatu egiten da nola parabisuko bidea den erraza (49. kap.) eta, gainera, nola den infernuko baina errazagoa (50. kap.).

Arima salbatzeko ezinbestekoa den konfesatzea ez da geroko luzatu behar probetxuak (52. kap.).

243 - 192 or.

244 - 199 or.

245 - Aurreko kapituluekiko lotura hau 522. orrialdeko ondorio gisako horretatik atera bide daiteke, nekez bada ere. Hori bai, 48. kapituluaren idazpurua ez dator bat kapituluarekin, alderantziz baizik (474 or.), ez eta “gerotik gerora ibiltzea” delakoa ere, behin ere ez baita testuan zehar honen erreferentziarik egiten, harik eta 522 orrira iritsi arte.

Gerotik gerora luzamendutan ibiltzea guztiei bidegabe egitea da: Jainkoari (53. kap.), Aingeruei (54. kap.), nork bere buruari, gristino lagunari eta bai munduko beste gauza guztiei ere (55. kap.).

Luzamendutan ibiltzeak egiten dituen kalteen artean handiena sekulako, hots, infernuko penitentiaren egoztez gero, erremediorik egokiena infernuko pena horiek beroiek kontsideratzea baino ez da. Horrela, infernuko beldurrak gerotik gerora ibiltzeko luzamenduak laburtzea ekar lezake (56. eta 57. kap.). Baina pena izugarri horiez gain, gogoan hartu behar da eta kontsideratu infernua daudenez ez dutela handik ilkitzeko esperantzarik (58. kap.) Era berean, hartaratzeko bekatua denbora apurrean eta laburrean egina izan den arren, badira arrazoiak hain gaztigu handia, luzea eta sekulakoa emateko (59. kap.), Jainko miserikordiosak infernua daudenei denboraren buruan ez barkatzeko badiren bezalaxe (60. kap.).

Ikusten denez, nabarmena da liburuan barrera agertzen diren bloke tematiko desberdinen presentzia eta, era berean, horietako zenbaiten artean agerian dagoen hausketena -edo sasi-hausketena, nahiago bada-. Izan ere, kapitulu eta kapitulu-sorta batzuen ondoren sortzen diren etenketak medio, kapitulu zenbaitek irizpide logikorik gabe pilatuta daudela dirudite.

Lehenengo begiradan, beraz, badirudi obra honek ez lukeela testuen koherentziaz testu linguistikak ulertzen duena zeharo beteko:

“Tendremos un texto coherente, si el referente de cada proposición tiene al menos una vinculación de posibilidad/probabilidad/necesidad de co-ocurrencia con el hecho denotado por la macroestructura” (A. Ferrara, 1976; apud Oleza, 1981, 181 or., 2. oh.)

Egia da alabaina posibilitate-probabilitate-premiazko loturaren kontzeptu horrek nahiko eremu zabala har dezakeela eta modu ez-hertsian interpreta litekeela, ez baita aszetika gaia eta arloa testu baten makrostrukturak gehiegi defini ditzakeen horietarikoak, testu narratibo edota poetiko baten kasuan gertatzen den bezala. Izan ere, aszetikaren helburu pragmatikoekin batera joan daiteke -horrela uler daiteke, bederen- gai baten inguruko ia etengabeko erredundantzia eta, zenbaitetan, logikotasun kartesiarretik at dagokeen gai-adarreztaketa bera ere.

Honelakoetan, metodologikoki eta gehien bat edizio kritikoen apailatze lanetarako azpimarratu ohi diren ideien haritik abiatu behar dela dirudi, hau da, koherentzia edota logikotasunaren erlatibizazioa onetsiz. Igancio Arellanok isladatzen duen bezala,

[...] es preciso estar en guardia ante el peligro de aplicar criterios de «coherencia» actual a textos del Siglo de Oro que estaban regidos por otras coherencias, las cuales podemos destruir en tanto no las capturemos con claridad (Arellano 1991, 570)

Berdintsu jokatu beharko genuke honako honetan ere ziurrenik.



## 7.3.2.- EGITURAREN ZANTZUAK

Orain arte arakatutakoaren arabera, zinez esan daiteke liburuaren irakurketa tematiko-formalak agerian uzten dituela desberdinak diren parteak, elkarren artean lotura gehiegirik gabekoak diruditenak, eta, areago dena, zenbaitetan kapitulu hutsten gaineko funtzionamendua dutenak. Izan ere, aipatutako parte horiek elementu aski autonomo bezala agertzen dira, besteak beste ez dagoelako bloke "autonomo" horien artean ez lotura hitzik ezta tematikoki erlaziona zezakeen esapiderik ere. Gainera, esan bezala, maiz kapituluaren nortasuna bera ere irensten dutela dirudi, parte bakoitzak bere bukaera propioa izatera iritsi baitaiteke.

Egitate horretan oinarriturik, hipotesi antzeko bat planteatu beharko litzateke liburuaren izaera esplikatua ahal izateko. Ildo horretatik, ez dirudi ausartegia litzatekeenik pentsatzea -eta horren demostrazioan saiatu beharko dugu orriotan- Axularrek sare, ehun edo eskema antzeko bat prestatu zuela inoren obran oinarrituta, eta gero eskema hori osatuz joan zela erretorikak eskaintzen zizkion bitartekoak erabiliz.

## 7.3.2.1.- Kapitulu multzo teorikoak

Kapitulu multzoak esatean, haien artean lotura estua (ez beti erabatekoa) dutenak adierazi nahi dira. Kapitulu-multzo moduan hartu ditugun bloke hauen ezaugarri nagusiak honako hiru hauetara laburbil litezke: alde batetik, gai berdintasuna izango da horrelakoetan agerian geratuko dena, bai gai bakar baten garapena egiten denean eta bai horren inguruko ikuspuntu desberdinen azalpena burutzean. Horrez gain, multzoa osatzen duten kapituluaren arteko loturak nabarmenak dira, hari tematikoak (ideiak, hitzak, ...) errepikatu egiten baitira aurrekoen bukaeran edo ondokoaren hasieran. Azkenik, nabaria da zenbaitetan kapitulu-multzoaren bukaera laburbiltzaile bakarra.

1.- Oro har, *Gero* liburua dagoen-dagoenean hartuta, honako hauek lirateke bereiztu beharko genituzkeen bloke autonomo nagusiak:

**I-XV. kap.:** Konbertsioaren (penitentziaren) atzeratzea, denbora galtzea faktorearekin loturik agertuko da. (21-218 or.)

**XVI-XVIII. kap.:** Konbertsio prozesurako lehen urratsak: borondatezko obrak eta obligaziozkoak. Borondatezko obra onak (erremusina, batik bat) eta justiziazkoak eta obligaziozkoak behar-beharrezkoak dira eta ez dira ondokoekin egin ditzaten utzi behar (219-249 or.).

**XIX-XLIV. kap.:** Bekatu buruzagi zenbaiten kalteak eta haien aurkako erremedioak (kolera, haragia, etab.) tratatzen dira (250-419 or.). Ohiko aszetika liburuetan elkarren ondoan joaten ez badira ere (ik. Granadakoaren *Guía*), honako honetan Axularrek jarraian eskaintzen ditu duten lotura tematikoagatik.

**XLV-XLVII. kap.:** Konbertsioaren atzeratzea kontzientzia faktorearekin loturik: kontzientzia gaixtoa vs ona-> pertseberatzeko beharra (419-473 or.).

**XLVIII-L. kap.:** Paradisura joatea errazago da infernuratzea baino (474-522 or.).

**LI-LV. kap.:** Penitentzia (eta haren praxia: konfesioa) ezinbestekoa da; bestela, atzeratzearekin bidegabe egiten zaie guztiei: Jainkoari, aingeruei eta kreatura guztiei (523-569 or.).

**LVI-LX. kap.:** Azkenkien kontsiderazioa, konbertsiorako bidea: infernuaz (569-621 or.).

Esan bezala, multzo bakoitzak bere autonomia du eta osotasun antzeko bat erakusten du: esanahi eta tematika zehatza, zenbaitetan hasiera-bukaera propioak, etab. Baina dena esatekotan, lotura logikoen arazoa ere multzo hauen artean legoke nagusiki.

2.- Halere, multzo bezala desberdinak izateaz gain, badirudi eraginetan ere iturri edo irakurketa desberdinetatik sortuak direla, izan ere, kapituluaren irakurketa sakonago bat eginez, berehala antzemango baita liburuaren *dispositio*-ak baduela zerikusirik *inventio* arloan ikusitako sortze prozesuarekin, paralelismoen atalean agertutako zenbait iturriekin hain zuzen.

Hari honetatik jarraituz, zinetan esan daiteke *Gero* obra desberdinetako ereduaren arabera sortutako materialez osatua dagoela, eta koherentzia orokorra Granadarena bezalako planteamendu batetik datorrela.

Begirada testu kidetasunen atalera zuzenduz gero, irakurlea berehala ohartuko da eragin eta kidetasunak honela banatzen direla nagusiki:

- Lehenengo kapitulu-multzotzat hartutakoan aurkitutako kidetasunek *Guía* dute iturri.

- Orobat, XVI-XVIII. kapituluetan *Oración y Meditación* liburua da paralelismo guztien artean biziki nabarmentzen dena, batik bat XVI. eta XVII. kapituluak dagokienez.

- XIX-XLIV. bitarteko kapituluak, zalantzarik gabe, askeenak dira kidetasun eta paralelismo kontuan. Bertan *Guía*-ren aztarna garrantzitsuak agertu arren, ohiko liburu aszetikoetatik jasotako material "topiko eta tipiko"-aren arabera moldatua dirudi. Horrez gain, metodologikoki ere, burutzeko zailtasun gutxien eskaintzen duena bide da, oso gai garatuak baitziren literatura mota honetan.

- Berdin adierazi beharko litzateke XLV. eta XLVI. kapituluak buruz. Halere, XLVII. kapituluaren *Memorial* delakoaren kidetasun bitxirik ere aurkitu izan dugu (*Gero*, 470-471 or.).

- Gutxi batzuk baino ez dira hurrengo kapitulu-multzoan (XLVIII-L. kap.) aurkitutako paralelismoak eta kidetasunak eta, ohi bezalaxe, denak *Guía* delakoarenak bezalakoak.

- Konfesioaren atalean (LI-LV. kap.) iturrien arazoa ez da argia; halaz ere, azken kapituluaren nabarmena dirudi San Agustinen testuen erabilera zuzenak.

- Azkenik, LVI-LVIII. kapituluetan azpimarratzekoa da *Memorial* delako liburuaren presentzia naroa. Ez horrela azken kapitulu bietan.

Baina paralelismo edota kidetasun erabakior hauek guztiez gain, ezin ahaz liteke Granadaren obrak Axularren kapitulu askoren taxuketarako erreferentzia orokor gisa suposatu uste duena.

Orain arte esan dugunaren ildotik, eta *Gero* liburuaren planteamendua ulerertzeko Granadaren aipatutako obrak argigarri badira ere, lehen kapitulu-multzoen ehunduraz oharrezko ezinbestekoa da *Guía de pecadores* delakoaren lehen liburuaren 3. parte-

aren hasieran dauden hitzak irakurtzea, bertan esaten denarekin esplikatzeko bide baita, neurri handi batean bederen, Axularren egituraketaren atal garrantzitsu bat. Luze samarra den arren, hona hemen pasartea:

“Ninguna duda hay sino que lo que hasta aquí hemos dicho bastaba y sobraba para el principal propósito que aquí pretendemos, que es inclinar los corazones de los hombres, supuesta la divina gracia, al amor y seguimiento de la virtud. Mas con ser todo esto verdad, no faltan a la malicia humana excusas y aparentes razones con que defenderse o consolarse en sus males, como afirma el Eclesiástico, diciendo [Eccli., 32.]: *El hombre pecador huirá de la corrección, y nunca le faltará para su mal propósito alguna aparente razón.* Y Salomón otrosí dice que anda buscando achaques y ocasiones el que se quiere apartar de su amigo; y así los buscan los malos para apartarse de Dios, alegando para esto cada uno su manera de excusa. Porque unos dilatan este negocio para adelante; otros le reservan para la hora de la muerte; otros dicen que recelan esta jornada, por parecerles trabajosa; y otros, que se consuelan con la esperanza de la divina misericordia, pareciéndoles que con sola la fe y esperanza, sin caridad, podrán salvarse y otros, finalmente, presos con el amor del mundo, no quieren dejar la felicidad que en él poseen, por la que les promete la palabra de Dios. Estos son los más comunes embaimientos y engaños con que el enemigo del linaje humano de tal manera trastorna los entendimientos de los hombres, que los tiene cuasi toda la vida captivos en sus pecados; para que en este miserable estado los saltee la muerte, tomándolos con el hurteo en las manos. Pues a estos engaños responderemos ahora en la postrera parte deste libro, y primero contra los que dilatan este negocio para adelante, que es el más general de todos éstos” (Granada, *Guía*, 91 or.) (azpimarrak gureak dira)

Garbi ikusten da testu honetan horretaz ihardun duela Axularrek berak ere, eskema berdintsua erabiliz: lehenengo, Granadaren hitzetan, “contra los que dilatan este negocio para adelante” arituko da (*Gero*, I-XIV kapituluak), tartean (X-XI kapituluak, hain zuzen) Jainkoaren miseriardiaren esperantzarekin kontsolatzen direnei zuzentzen zaielarik. Hauetako “con sola la fe y esperanza, sin caridad, podrán salvarse” iruditzen zaienez gero, XVI-XVIII. kapituluak eskaintzen dizkie oker horretatik ateratzeko. Era berean, aipatu “negozioa” heriotzeraino atzeratzen dutenentzat ere badago tokirik (XV. kap.). Liburuaren zatirik mardulena, dena den, Granadaren esanetan “presos con el amor del mundo” daudenei zuzenduko die Axularrek, hain zuzen ere “bekatu buruzagiak” izenekoei (Materreren izendapena erabiltzeko) atxikirik bizi direnei (XIX-XLIV kap.).

Nolanahi ere den, garbi bereiztu nahi genituzke hemen azpi-ehundura teorioa eta paralelismo zehatzak, izan ere, egitura aldetik antz handia erakuts dezaketen arren, kapitulu askok (erremedioei buruzkoak, besteak beste) tratamendu eta toki desberdina ager baitzekete Axularrenean eta Granadarenean.

Egia aitortuz, Granadaren behin-betiko *Guía*-ren taxuketa oso ondo pentsatua eta mugatua zegoen, esku artean darabilgun *Gero* delako hau baino gehiago ziurrenik, nahasiago eta ez hain orekatuta agertzen baitira Axularrenean gaiak<sup>246</sup>.

246 - Lehenengo liburuan, esaterako, hiru parte agertuko dira Granadakoarenean: bertutearen beharraz eta hartaratzeko arrazoiez arituko dena; azkenkiak ere lehenengo honetan tratatuko dira: heriotza, epaia, paradisua eta infernua. Bigarren partean beste arrazoi batzuk aurkeztuko dira: bizitza honetan bertutearen bitartez eskuratuko diren pribilegioak hain zuzen. Hirugarrenean “se responde a todas las excusas que los hombres viciosos suelen alegar para dar de mano a la virtud” (Granada, *Guía*, 14 or.). Axularrenean gai berdinek, bistan da, beste antolamendu bat izateaz gain, beste pisu eta tratamendu bat dute.

### 7.3.2.2.- Azpimultzoak

Edonola ere, goian marraztu diren kapitulu-multzo orokor horiek tematikoki autonomia eta mugikortasun gehiagoko bigarren mailaketa bat ere onartuko luketela dirudi. Gainera, azpimultzo gisa hartuko ditugun horiek izaera trinkoago erakutsiko dute barrenean, eta maiz asko kapitulu solte moduan baino egitura osoagoa dute elkarrekin jarrita eta bakar bat balira bezala kontsideraturik.

Azpimultzo horien adierazgarria, beraz, batasun tematikoa, elkarren arteko lotura formala eta garapen bakarra izango dira nagusiki.

Konparazio arrunt batek erakusten duenez, berauek izan ziren, irizpide arloko gora-behera zenbait keduta, Intxauspe eta Lafitteren berrantolamenduetan ondozkapena bideratzeko unitate garrantzitsuenak.

Honako hauek dira nabarmenenak<sup>247</sup>:

1. eta 2. kapituluak. Alferkeriatik ihes egiteko trabailatu egin behar da, bestela handik gerotik gerora ibiltzea sortu daitekeelako.

5. 6. 7 eta 8. kapituluak. Geroko benturan benturaturik, geroago gaitzago da bekatutik ilkitzea, usantza gaixtoa hartzen baita. Usantza honek gogortu eta ez-antsiatu egiten du bekatorea.

10 eta 11. kapituluak. Protestantismoak zabalduzako fedearen bidezko salbazioaren aurkako planteamendua: Jainkoaren miseriardiaren fidatu behar da (10. kap.) baina ez sobera, neurri baizik, hots, aztura gaixtoak utziz eta obra onak eta penitentzia eginez (11. kap.).

Unitate gisa hartzeko arrazoi nabarmenena tematika beraren bi ikuspunturen garapena izatean datza.

13. 14 eta 15. kapituluak. Penitentzia zahartzaroraino luzatzen dutenak, zahartzean ere egiten ez dutenak eta heriotzeko orduan bekatutan egon gogo dutenak erokeriatan ari dira, betirako galtzeko arrisku handia dute.

16. 17 eta 18. kapituluak (ikus kapitulu-multzoetan esandakoa).

19-44 bitarteko kapituluak (Ikus kapitulu-multzoan esandakoa).

45. eta 46. kapituluak. Gerotik gerora ibiltzeak kontzientziari dakartzkion kalteak: kontzientzia gaixtoa alatu egiten da eta kontzientzia onak bakea eta sosegua galtzen du.

48. 49 eta 50. kapituluak (ikus kapitulu-multzoei buruz esandakoa).

51. eta 52. kapituluak. Konfesatzearen premiaz eta handik sortzen diren probetxuek.

53. 54 eta 55. kapituluak. Gerotik gerora ibiltzean jainkoari, aingeruei eta kria-tura guzti-egiten zaien bidegabeaz.

56-60 bitarteko kapituluak (ikus kapitulu-multzoei buruz esandakoa).

247 - Ondoko zerrendan agertzen ez diren kapituluek berezko autonomia izango lukete haiek bakarrik, nahiz eta askotan nolabaiteko lotura tematikoa ere izan dezaketen aurreko-ondokoekin.

7.3.2.3.- Konektore tematikoak

Argumentazioaren garapenerako hain garrantzitsu diren gai konektore edo lotura hauek<sup>248</sup> (kapituluen artekoak, alegia) testuaren beraren koherentziaz eta taxutze-logikaz mintzatzen zaizkigu berez.

Esku artean dugun liburuan, "gerotik gerora" formularen bitartez egiten diren lotura tematikoez gain, bi motatako gai konektoreak ediren ditugu nagusiki:

1.- Obraren egituraketan atal desberdinak uztartzeko erabilitakoak. Interes-garrirenetarikoa bat honako hau genuke:

"Bethi ere, lehenbizitik hartu dugun xedeari, ahal bezanbat, authikitzen dioguela, hari iarraitzen gatzaitzala, hartara destatzen eta enkaratzen garela, edirenen dugu gure gero hunek presuna [...] artean ere baduela bere ostatua eta iarlekua, hetan ere kalte handiak egiten dituela" (270 or.)

Ikusten denez, lokarri honek bekatu buruzagi zehatz batzuetarako jarria bada ere, bekatu guztien txertaketa justifikatzeko ere balioko luke oro har.

2.- Kapituluen arteko lotura dagitenak, normalean ondoko gaia bideratzen duten aurretiko antzekoak. Kapituluen izenburuan bertan aurki daitezke edota kapituluen garapenean bertan, ondoren etorriko dena zein izan daitekeen adieraziz. Askotan ondoko kapituluan ere horren erreferentzia egin ohi da. Azken finean, gaiaren garapenean dagokeen logika areagotzera etorriko lirake "lokailu" hauek.

Luze joko luke gai konektore guztiak hona ekartzeak eta, arlo taxonomikoa areagotzeaz salbu, zerrendatzeak ez luke bestelako funtziorik. Esan, dena den, konektore tematikoen adibide argigarrienak azpimultzo gisa hartu diren horien artekoak ditugula, ondokootan ikusten den bezala:

5, 6, 7 eta 8. kapituluak

5. kap.-> 6. kap.:

5. kap.: bentura motak zer diren azaldu ondoren, txarrena baztertu eta konbertitzeko gonbitea, "beccatutaric iltqui çaiteci" (76 or.) mezua.

6. kap.: "... gueroago gaitzago, beccatutic ilquitcea" (77 or.) da kapituluen izenburua.

6. kap. -> 7. kap.:

6. kap.: bekatutik ilkitzea geroago gaitzago bide da, besteak beste "usantça gaixtoa" (84 or.) ere hartuaz doalako bekataria.

7. kap.: "guerotic guerora ibiltceaz, coberatcen den usantça gaixota" da kapituluen haria.

<sup>248</sup> - Mainguenearen konstatazioa abiapuntutzat ("En général, les théories de l'argumentation oscillente entre une conception «logiciste» et une conception «rhétorique»" [Maingueneau 1987, 116], begi bistakoa da konektoreen planteamendu honetan ikuspuntu logiko-erretorikoa uztartzen saiatu garela, zeharo gramatikalak direnen kaltetan.

7. kap. -> 8. kap.:

7. kap.: "Guerotic guerora coberatcen den usantça gaixtoa" (86 or.)

8. kap.: "usantça gaixtoac gogortcen eta ez ansiatcen du" (96 or.) bekataria.

Horrezaz gain, bada kapitulu biak tematikoki ere ongi uztartzen dituen pasarte bat VIII.aren bukaera-bukaeran, bien laburpena egiten duena alegia:

"Beraz hunelatan, ezta guerotic guerora, ibili behar. Ezta dembora luceaz beccatutan egon behar. Ceren egoite hura da gure galgarria. handic sortcen da usantça: usantçatic ederestea eder-estetic, ez ansiatcea: ez antsiatic ez sentitcea ez sentitceatic, itsutcea, gogortcea, eta azquenean, ahalquea galduric hartçaz preçatcea, loriatcea, eta sendagaila eriztea. Eta handic harat, hartaraz guero [...], gaizqui da hurran da, hillaren pare eguiten da" (110 or.)

10. eta 11. kapituluak:

10. kap.: "anhitz valio du esperantçac" (133 or.) eta Jainkoaren misericordiaz fidatzeak, baina kontuz!

11. kap.: "eztugu misericordiaren esperantçan beccaturic eguin behar, eta ez fidantcia hartan penitencia eguita, eta aztura gaixtoen utztea, gueroco luçatu behar" (151).

Kapitulu bi hauek banaezinezko unitate doktrinala osatuko lukete, logikaren ikuspuntutik mezu antitetikoak isurtzen badituzte ere.

Lotura tematiko horien kontraadibide bezala IX. kapitulu jar genezake, besteak beste (halaber, ikus XLVII. kap.). Kapitulu honek bere autonomia propioa du "guerotic guerora" ibiltze horretan sor daitezkeen kalteen artean, eta ez du loturarik ez aurreko kapituluarekin ezta ondokoarekin ere. Nolabaiteko gai-loturarik izatekotan, 2. kapitulutik sortuko litzatekeen adarrean koka genezake, hain zuzen ere alferkeriaren beste kalte bat bezala edo.

Baina konektore tematikoak kokaturik dauden lekuaren arabera (kapituluen hasiera-bukaerakoak, kapituluak hurrenez hurren lotzen dutenak, alegia) izan badaitezke ere, betetzen duten funtzioaren arabera ere sailka litezke. Hauen artean, arretaz berezi beharko lirake batik bat gai orokorrera itzularazten duten konektoreak, "gerotik gerora" formularen inguruan eratuta dauden estilokoak oro har.

Azken hauen eremukoak dira normalean azpimultzoen koherentzia lerroetatik at daudenak eta kapitulu solteetakoak. Dena den, liburuaren enborreko gaiarekin lotzen duten konektore hauek bukaeretako *peroratio* direlakoekin estuki lotuta aurkitzen ditugu gehienetan (ikus hurrengo kapitulu: "Jokamolde erretoriko-argumentatzailea").

7.3.3.- AZKEN OHARKIZUNAK GERO-REN EGITURAKETA OROKORRAZ

Esan bezala, liburuan barrera *Gero* izenburuaren arabera batasun antzeko bat somatzen bada ere, esan genezake tematikoki badirela atal desberdinak, sortze-prozesu "propioa" eta berezia izan bide dutenak.

Egia da, dena den, Axularrek berak aitortzen duela -azalean bertan baina zeharka, dena esateko- liburuak izan dezakeen batasun falta hori: "Escritura sainduti, Eliçaco Doctoretaric eta liburu debocinozcoetaric. Axular Saraco errotorac vildua"

"Bildu" hitzak, berez, ez luke derrigorrez antolamendu zehatzegirik adieraziko, eta, gainera, iturri desberdinetako testuei elkarren arteko koherentzia emateko ahaleginak erakutsiko lituzke. Jakina, ahaleginok ez zuten amaierako testuaren erabateko koherentzia ziurtatzen, ez eta hurrik eman ere. Baina, iturriak iturri, liburuak badu koherentziarik aski bere baitan, garaiko askok zutenaren pare bederen.

Beraz, demostraturik geratu uste da barne-koherentziarena baino hutsarte nabarmenagoa dela teoriarik bigarren liburu bezala proiektatutako harako hari eman behar zitzaiokeen edukiarena: ez ote zen zuen Axularrek balizko hartara honako honetan emandakotik ere eraman behar?

Izan ere, "bigarrenean kidatzen da, eta aitzinatzen, luzamenduak utzirik, berehala, bere eginbideari, lothu nahi zaikana" delako haren interpretazioa modu hertsiegian ez ote den burutu planteatzen zaio ikertzaileari.

## 7.4.- KAPITULUEN BARNE EGITURA

Printzipioz, *dispositio* delakoaren oinarrian dagoen *utilitas* irizpidearen arabera, liburuaren egituraketa ezezik, kapitulu guztiena ere, autoreak xedetzat dituenak lortzeko modurik egokienean atondu behar ditu. Irakurle konkretua ikusmiran duelarik, argumentazio mota bezainbeste zaindu behar ditu autoreak argumentatzen duen horren garapena eta aurkezpena, horretatik guztitik, normalean eta teorikoki bederen, nolabaiteko homogeneotasuna sortzen delarik.

Dena den, aitortu beharrekoa da *Gero*-ko kapituluak ez direla espero bezain homogeneoak disposizio alorrean, ez baitira denak berdinak oreka eta egituraketari dagokionez: batzuk bukatu(ago)ak dirudite, eskema klasikoaren arabera edo taxutuak; bestetsuk besterekin loturik doaz eta ez dira hain bukatuak egituraren aldetik, beste horien menpe baitaude<sup>249</sup>, etab.

Aurrekoaren ondorioz, azpimarratu beharrik ez dago, berariaz erabiliko da hemen "multzo" hitza, besteak beste orain hemen interesatzen zaizkigun unitate tematikoei maiztxo kapituluaren mugak gainditzen dituztelako eta inoiz kapitulu gisa agertzen direnak atal gisa ere joan litezkeelako<sup>250</sup>. Hortaz, zenbaitetan "kapitulu" erabili beharrean "multzo" hitza erabiltzen bada, osotasun tematiko-funtzionalaren zentzuan hartuko da.

Kapitulu huts edota multzo diren unitate hauek badituzte zenbait ezaugarri haien barneko egitura batez mintzatu ahal izateko. Hau da, badute hasierako formularen bat sarrera moduan eta gaia zentratzeko, inoiz *divisio* delakoa ere aplikatuko da arazo argiago uzteko, baina gai-multzo hauen elementurik garrantzitsuena argumentazioa izango da, bertan *confirmatio*-ak, tesiaren berretzaile gisa eratuko denak alegia, protagonismo

249 - Hau da, esaterako, "erremedio" izena daramaten kapitulu askoren kasua.

250 - Besteak beste, XXV. kapituluaren kasua: egia esan, hogeitaseigarrenaren barruan ere joan zitekeen, bai duen laburtasunagatik, bai erremedio motagatik ("ona da kontsideratzea...").

nagusia hartuko duelarik. Era berean inoiz *confutatio* delakoaren arloko funtzioa beteko duten elementuak ere aurkeztuko dira, baina, esan bezala, gehienetan exemplaren bidez baliatuko den konfirmazioa izango da gailenduko dena.

Laburturik eta trinkoturik bada ere, esan daiteke lehen kapituluaren bertan ikusten dela garaiko teologiaren metodologia berria eta eragina (ikus IX. atala). Batetik, dialektika eskolastikoa pisua eta indarra galtzen ari da jokabidezko pautak doktrinalen premiaren zabalkuntzaz diharduten obretan; bestetik, baina aurrekoarekin batera, argumentu arrazionalak tradiziozko argudioei eta *auctoritas* direlakoei uzten die tokia.

Planteamenduan aurreko guztiaren islada baino ez da izango Axularren obra; egituraren ere, noski, horren oihartzuna atzemango da kapitulu eta unitate tematikoetan zehar. Argumentatze mota "positibo" horien ereduak agerian utziko du sermoien egituraketa tipikoa.

Baina honetan, egia esan, susmatua zuen zerbait Manuel Lekuonak, Axularren sermoilari lana eta *Gero*-ren sorrera uztartzen hari zor baitzaizkio lehendabiziko hipotesiak:

"Eta, esan-da-egin, mai-bufeta-gañean sermoitarako pillaturik daukan gaiari bestelako jatzera-apur bat eman, eta orra or dana egiña... Zorionean, berri eta berriz ere!

Olaxe sortu-bide zan gure GERO" (Lekuona 1954, xviii) (azpimarra gurea da).

Aurrera doalarik honako hau erantsiko du Lekuonak: "Irakurtzaille arruntak [...] Elizako sermoi-antxa arkituko dio GERO-ren jardunari, gaiez eta eraz" (Lekuona 1954, xxi) (azpimarra gurea da).

Halaz ere, ez zuen zehaztuko zertan zetzan, objektiboki, *Gero*-ri aurkitzen omen zion "sermoi-antx" hori.

### 7.4.1.- SERMOI EGITURA EREDU

Esana dugu dagoeneko Axularren liburua modu *suasorioa* edo *disuasorioa* genukeela, jenero deliberatiboaren barnean hain zuzen. Modu honek xede zehatza bilatu nahi du beti: horren bitartez gizakiak bekatua arbuiatzera iritsi beharko luke eta justizia, pietate eta bertutera makurtu.

Horixe da hain zuzen *Gero*-k liburu bezala planteatzen duena eta bilatzen duena. Zernahi gisa ere, eta orekak/desorekak gora behera, Axularren liburuaren kapitulu edo unitate tematikoei ere oro har sermoietarako ohikoa zen egituraketari erantzuten diotela esango genuke. Halere, orokorrean horrela planteaturik dagoen arren, kapituluak banaka hartuz gero, erretorika sakratuko liburuetan desberdintzat hartzen ziren moduak nahasian usna genitzake zenbaitetan, besteak beste, Krisostomoak askotan erabilitakoaren ildokoak, hots, Ebanjelioaren azalpenerako baliatutakoak, etab.

Baina salbuespenak salbuespen, sermoien egituraketa tipiko horrek Axularren obran dituen ezaugarrien artean, argumentazio induktiboaz azpimarratuko genuke lehendabizi, ez "silogistikoa" hain zuzen, eta, bigarrenik, horren ondorioa den garapen mota, non argumentuen agerpenak orden zehatza gordeko baitu: gaiaren planteamendua, normalean pasarte biblikoek baliatuz; patristikaren lekukotasuna tesiaren interpretazio-konfirmaziorako, eta, azkenik, *auctoritas historiae humanae* delakoaren arloko *exempla*: historiagileak, filosofoak... Bukatzeko, argumentatutakoaren ondorioz irakurle-entzuleari egingo zaion eskari zehatza, *peroratio* edo epilogo moduko batek bernean hartuko duena.

Ondoko kapituluaren ikusiko den bezalaxe, egituraketaren parte batzuk (hasierak, *peroratio* atalekoak, ...) oso garbi atzeman eta azter daitezke eta horrela azaltzen saiatuko gara. Hain pertsonala izaten ez den argumentazioaren atalari gagozkolarik - *exempla* besteren zorretan baitago beti-, agertua dugu dagoeneko argumentuen hautaketa eta mailakatzeari buruz Axularrek erakusten duen jokabidea (ikus "VII.- Aipamenak eta exenpluak" atala).

#### 7.4.2.- KAPITULUEN BARNE DISTRIBUZIOA: ESKEMA GISAKOA

*Gero* aztertu ondoren, berehala antzematen da, egituraketa eta distribuzio estilo bat dagoen arren, homogeneousasuna ez dela gehien nabarmentzen den ezaugarria. Agian horregatik pentsatu izan da sarri askotan zailegia dela *Gero*-n erabiltzen den barne logika eta garapen hariak finkatzea. Oterminek zioenez, "sería muy difícil establecer los esquemas que él emplea en su argumentación y en la trabazón lógica de sus capítulos" (Otermin 1973, 59).

Edonola ere, berehala antzematen da konstante antzeko bat liburuan zehar. Izan ere, kapitulu ezberdinetako adibideek argi eta garbi adierazten dute sermoiari dagokion eskema baten aurrean gaudela, bizioen eta bekatuen aurkako gorrotoa eta bertutearen aldeko zaletasuna lortu nahi dituen sermoi tipikoaren aurrean hain zuzen.

Oro har, aztertzen ari garen liburuaren kapitulu edo unitate guztiak kontutan harturik, guztien azpian *ordo naturalis* delakoaren haria segitzen da, hots, exordioa-argumentazioa-konklusioa. Zinez esan liteke, beraz, ondoko eskema orokorrera laburbil daitekeela, beti zehatz-mehatz betetzen ez bada ere:

1.- *Lectio* edo gaiaren aurkezpena (ez beti modu zuzenean egina). Aipamen baten bidez egiten da (aipamen biblikoak batik bat) nagusiki. Zenbaitetan beste autore edo *auctoritates* batzuek baliatzen da urdazubiarra.

2.- *Tractatio* edo *dilatatio*. Gaiaren garapena behar diren elementuez baliatuz egiten da: *argumenta* (anplifikazioa barne); *exempla*, etab. Inoiz nolabaiteko *divisio* thematic ere eskaintzen da *tractatio* delakoa baino lehenago.

3.- *Peroratio* edo konklusioan, ohi bezala, gaia zein izan den oroitaraztea eta irakurlearen barnea hunkitzea izango dira xedeak. Elementu desberdinak antzeman daitezke bertan, bataren edo bestearen azentua kapituluaren arabera azpimarratuko delarik: laburbiltze edo *recapitulatio* delakoa, irakurleari zuzendutako galdetegi hunkigarri modukoa, bizimodua edo puntu konkreturen bat aldatzeko eta "konbertitzeko" eskaera, etab.

Ikusten denez, sermoiaren egituraketak berbaldiaren ohiko parte<sup>251</sup> egokitzapena ekarri izan du, predikuak batzuk soberan dituelako, besteak beste.

Ohiko genero suasorioari dagokion bezala, exordioaren funtzioa bi mailatan ematen da: alde batetik, liburuaren exordio orokorra, hitzaurrean doana, eta, bestetik, unitate bakoitzeko gaia aurkezteko sarrera edo aurkezpen modukoa.

Narrazioaren desagertzearen arrazoia, erretorika klasikoak bereizten dituen parteekin burutu beharreko egokitzapen horretan datza, narrazioak ez baitu tokirik hone-lako sermoiaren. Era berean, konfutazioa deitu duguna, hots, kontrargumentazioa, oso modu neurtu eta kontrolatua baino ez da erabiliko, eta gauzak garbi daudenean bakarrik,

<sup>251</sup> - Parte hauek, gogora bedi, honako hauek dira: exordioa, narrazioa, proposizioa, baieztapena, konfutazioa eta konklusioa.

izan ere irakurle-entzuleengan okerrak eta anabasak sor baitaitezke horrelakoetatik.

Elementurik konstanteenak, azpimarratu beharrik ez dago, *lectio* delakoa eta *peroratio* atalak ditugu, hots, hasierako exordio antzekoak eta bukaera laburbiltzaile eta hunkigarriak hain zuzen.

Hona hemen horien ezaugarriak nagusienak (*tractatio* delakoren tratamenduaz ikus argumentazioari buruzko kapitulu hurrengo hain zuzen).

#### 7.4.3.- KAPITULU HASIERAK

Zuzen edo zeharka, *Gero*-k dituen ezaugarrietariko bat kapituluak *auctoritas* bilbikoen bitartez hastea da. Esan daiteke kapitulu garrantzitsuenak literalki hasten direla Bibliatik hartutako aipamenekin (aipamenean jerarkizazioaz, ikus 7.3. atala).

Horretarako erabiliko den formulazio zabalduena honako hau izango da: "Erraiten du [...] -ek" + aipamena. Lehenengo begiradan ikusten den bezala, modu zuzen horrekin hasten dira 3, 7, 9, 10, 11, 13, 14, 15, 16, 45, 53 eta 54. kapituluak. Hain zuzenak ez diren kapitulu hasierak ere badira, hots, "erraiten du" delakoa iruzkin labur baten ondoren kokatzen dutenak (49. kap., etab.)

Normalean "errailea", lekukotasunaren balioak hala aginduta, Izpiritu Saindua ohi da. Formula desberdinez baliatzen da Axular: "Erraiten du Salomonek, edo Salomonen ahotik Spiritu Sainduak [...]" (45 or.), "Erraiten du Salomonek, Iainkoarekin mintzo dela [...]" (111 or.), "Erraiten du Spiritu Sainduak [...]" (170 or.), "Erraiten du eskritura sainduak [...]" (184 or.)

Dena den, gaia planteatzerakoan "errailea" zalantzarik sortzen ez duen *auctoritas* bat ere izan daiteke: "Erraiten du san Thomasek [...]" (419 or.), "Erraiten du San Thomas Doktor handi hark [...]" (548 or.). Ildo horretatik, sintomatikoa da Jainkoaren miserikoardiaren beharraz eta fidantzia horren soberaniaz tratatzean (10. eta 11. kapituluek osatutako azpimultzoan), Axularrek dakartzan lekukoak: "Erraiten du San Thomasek [...]" (127 or.) eta "Erraiten du San Agustinek [...]" (133 or.). Trentoko Kontzilioak ere badu ohorezko tokia, nahiz eta sarrera labur baten ondoren: "Hala erreiten du Konzillioak [...]" (454 or.). Seneka "kristauak" ere badu bere tokia kapitulu atari batean: "Erraiten du Senekak [...]" (194 or.).

Zeharkako bidea ere erabili izan da kapitulu hasieretan. Lehenengo kapituluaren, esate baterako, *Hasiera* liburutik jasotako pasarteak<sup>252</sup> -behar zenerako egokituta- zuzenean euskaraz ematen dira, sarrera moduan edo bailiren. Baina, aitortu beharrik ez da, gaia hobeto planteatu ahal izateko erabili da bide hori, zeren eta berehala ematen baita latinezko aipamen zuzena, eskritura sakratuetan hasierako pasartearen jarraipena dena.

Antzeko zerbait esan beharko litzateke VI. kapituluari dagokionez, Bibliako konparazio batez hasten baita: "Anhitzetan ere eskritura sainduan, konparatzen da bekhatorea, ardi errebelatuarekin [...]" (78-79 or.). Eta berdintsu XIX. kapituluari buruz ere, bertan konparazio bibliko batez ekiten batzaio kapituluari: "Nola gure lehenbiziko aita

<sup>252</sup> - Gogora dezagun *Gero* liburuaren lehen kapitulu hau paradigmatikoa izan daitekeela (argigarriena delako, hain zuzen) argumentuen mailaketari dagokionez: *Hasiera* izeneko liburu bibliotik hartutako pasarte bat abiapuntuzat, tradizio eta patristikaren argitan aztertzen da, *auctoritas historiae humane* delakoak ere bere adibide sorta eskaintzen duelarik.

hark, gure naturaleza haur, bere bekhatuaz narriatu [...]. Handik gara [...]" (250 or.).

Nolanahi ere den, sermoietan bezalaxe, kapituluaren hasieran ongi eta irmo gordetzen da erretorika eklesiastikoa garatzen saiatu zirenek eman ohi zuten aholkua: "nunca se comience con fábula, geroglífico ni poesía, porque esto es contra la gravedad de aquel acto sagrado darle tan ruin principio [...]. Sea, pues, el principio una autoridad de la Escritura o de un Santo o una buena razón" (Terrones del Caño 109).

Hasiera motei dagokienez, beste kapituluetan kasuistika anitza aurki badaiteke ere, badira batzuk esanguratsu eta aipagarri direnak.

Zenbaitetan gai-unitatearen dependentzia nabaria agertzen da. Adibidez, II. kapituluak (esana dugu jadanik lehenengoarekin nolabaiteko multzo tematikoa osatzen duela) lotura formala ere adieraziko luke lehenengoarekin, harekiko lotura bigarren honek hasieran bertan lehenaz egiten duen laburpen edo *recapitulatio* batean<sup>253</sup> finkatzen baita:

"Eskritura Sainduak, Elizako doktorek, lehenagoko ientilek, eta are zeruko, aireko, eta lurreko gauza guztiak ere kondenatzen dute alferra, eta emaiten aditzera behar dela trabailatu, eta nor bere aldetik bere eginbidearen egitera enseiatu. Zeren nola ardurako trabailuak, lan guztiak aitzinatzen baititu, hala alferkeriak gibelatzeintu" (37 or.)

Aipagarria da, bestalde, Axularrek maiz egiten dituen esplanazio antzekoak. Aurrekoen dependentzia tematikoaren pean dauden kapitulu zenbaitek areagotu egiten dute azaldu nahi dena, areagotu eta elementu berriak ekarri ere bai (*divisio* delakoren laguntzaz, esaterako). 16-18 multzoan, esaterako, hori baino ez da gertatzen. Sailkatze eskolastiko horren adibide zehatza 56-57. kapituluetan genuke; halaber, nahiz eta beste maila batekoak, 52. kapituluaren eta kalte-erremedioez dihardutenetan ere.

Ez dira gutxi, azkenik, modu dialogikoan planteaturik, egilearen hausnarketa, laburpen, azalpen edota *petitio* antzeko batez hasten diren kapituluak, horietako zenbait, gero, lekukotasun bibliokoaren arlora iristen badira ere. Normalean, gaia ahalik zehatzen zentratzea izan ohi da horrelakoen funtzioa (ikus bitez, besteak beste, honako kapitulu hauek: 4, 12, 17, 48, 55, etab.).

Bukatzeko, gogoratu baino ez, kapitulu hasierak gora behera, gai bakoitzaren garapenean erabiltzen den sistema induktibo-argumentala garaiko teologiak ezarritako ereduetatik abiatuko dela (ikus IX. kapituluak).

#### 7.4.4.- KAPITULU AMAIERAK

Ezaguna da genero suasorioko liburuak, sermoiak eta ildo horretako diskurtsuak bezalaxe, *peroratio* batez bukatzen direla. Formalki, barranean, bukaera iristerakoan, *peroratio* horrek entzule/irakurleari (haien gogorari, hobe) zuzendutako *petitio* edo eskaera bat eraman ohi du. Jakina, aszetikakoetan jainkoaren itzalpean jar dadin eskatzen zaio mezu-hartzaileari. Artazak oroitazten duen bezala, "la petición insta al alma a modificar su conducta hacia «lo útil» y «conveniente» -loci obligados en toda deliberación" (Artaza 1988, 316)

Axularren liburuan ere eskaera irakurlea konberti dadin egiten da. Baina ez behin bakarrik eta liburuaren amaieran, etengabeko modu errepikakorrean baizik. Liburuaren izaerarekin bat eginik, kapitulu-multzo, azpimultzo eta kapitulu solteen bukaeran ere errepikapenaren mailuak "berehala konbertitzera" gonbidatuko du, batzuetan 253 - Sarrera moduko hau, dena den, erraz asko joan zitekeen aurrekoaren bukaera gisara ere.

formula desberdinak erabiltzen badira ere (gerotik gerora ibiltzeari uzteko premia, etab.). Normalean, perorazio direlako hauek sententzia edo sententzia bezalako esaldi laburbiltzaileren bat<sup>254</sup> eraman ohi dute irakurlearen baitako hunkipena areagoturik gera dadin (ikus ondoko adibideetan).

Alabaina, *peroratio* horien gainazterketak erakusten duen bezala, beste funtzio garrantzitsu bat ere betetzen dute esku artean dugun liburuaren koherentziaren es-parruan, izan ere, bukaerok faltan dirudien koherentzia-emaile gisara erabiltzen baitira maiztxo. Horrela, *peroratio* errepikakor horiek liburuaren enbor tematikotik gerta daitezkeen (eta gertatzen diren) aldegiteak txertatzen ditu behin eta berriro "Gero" (liburua eta mezua) delakoaren inguruan.

Horrezaz gain, egia da gurearen kapitulu batzuk askoz ere modu borobilagoan bukatzen direla liburua bera (azken kapituluarena, alegia) baino eta horrek anabasaren hipotesia areagotu egin izan duela ikertzaile askorengan. Adibidez, honek berak markatu zuen, besteak beste, kapitulu batzuen kokapen berria Lafitte eta Intxauspere berrantolamenduetan. Azken honi, esaterako, liburua amaitzeko, tematikoki XLVII. kapituluak eta, formalki kapitulu horretako bukaera egokiagoak iruditu zitzaizkion, G. Milangesek inprimatuak baino:

"Fineraino eta finean perseberatzen duena, izanen da salbatua eta ongi zortheatua. *Qui autem perseveraverit usque in finem, hic salvus erit* (Mt. 10). Bertze guztiak deus guti dira, finak darama koroa, akhabatzean kantatzen da loria.

Beraz fin hari, eta akhabatzeko loria hari begia edukirik, hareraño, eta han, behar dugu, egun beretik, geroko begira egon gabe, bekhatuak gabe egoitera enseiatu. Hartarakotzat orai eskuen artean darabiltzagun bekhatuak urrikimendu handi batekin kofesaturik eta utzirik, aitzinerat gehiago egitetik begiratzen garela. Zeren halatan erdietsiko dugu orai perseberantziaren donua eta gero azken finean arimen salbamendua, sekulako loria" (474 or.)

*Peroratio* direlako hauetan konstante bat izango dira *petitio*-ei sarrera emateko ia salbuespenik gabe agertuko diren elementu formalak. Oro har, "beraz" lokailua izango da gehien agertuko dena, kapitulu gehienaren bukaeran hain zuzen. Alabaina, sarri askotan "beraz hunelatan" formulaziopean agertuko da: 8, 10, 11, 13, 15, 23, 29, 34, 38, 42, 45, 50, 53, 54, 55 eta 60. kapituluetan.

Baliabideen artean, ikus daitekeen bezala, ez da faltako frekuentazioa<sup>255</sup> bezalako pentsamendu irudia.

<sup>254</sup> - *Recapitulatio* delakoaren funtzioa beteko luketen esaldiak ohi dira hauek, irakurlearen oroimena freskatzeko prestatuak eta ondoren eskatuko zaienarekin lotzeko ezin hobeak -labur eta tinko kondetsatzen baitute esandakoa.

<sup>255</sup> - "[...] usar de esta figura en el fin del sermón, principalmente en los suasorios, cuando todos los argumentos que propusimos en el discurso del sermón los juntamos brevemente en uno, para que con todos ellos de un golpe asaltemos los ánimos del auditorio, y en cierto modo los violentemos. Y no solo en el fin del sermón será bueno refrescar la memoria de los oyentes con esta misma figura, sino también en sus partes, do quiera que se concluyere alguna disputa ó argumento largo" (Granada, *Retórica*, 588b) (lerropekoak gureak dira).

7.4.4.1.- Kapitulu-multzoetako bukaerak.

Lehendabizi kapitulu-multzoen bukaerak azpimarratu nahi genituzke, izan ere kapitulu bakoitzak normalean berea duen arren, batzuetan kapitulu-multzoek bukaera komuna agertzen baitute, multzoaren osotasuna erakutsiz. Horretaz aparte, irakurlea erraz ohar daitekeen bezala, hainbat bukaerak etenketak bortitza dakarkio testuaren koherentziari. Honako hauek lirateke horietatik adierazgarrienak:

**XLIV. kap.** (haragiaren bekatuaren aurkako erremedioen bukaeran):

“Hauk dira (eta Iainkoak aillioitsa liren asko) haragiaren bekatuan ez erortzeko eta eroriz gero ere iaikitze hartu behar diren erremedioirik prinzipalenak. Zein baldin egun beretik, geroko luzatu gabe hartzen eta kontsideratzen badituzu, iakizu ezen gorputzari aisia handi bat emanen diozula, eta arimari, are handiagoa. Eta halatan munduan duzun etsirik handiena eta perilosena, zein baita haragia, azpirako, garaituko eta errendatua ibeniko duzula” (419 or.).

**L. kap.:**

“Eta hala arrazoin hau guztiok ongi kontsideraturik bat bedera bere balantzan ibenirik, segur da parabisuko bidea errazago dela, ifernukoa baino; eta ifemurutzen denak, pena eta trailla gehiago iragan behar duela ifemuratzeko, ezen ez parabisuratzen denak, parabisuratzeko.

Beraz hunelatan parabisutik parabisura, bizitze on batetarik, hobeagora ioaiteagatik ere, behar genduke egun beretik, geroko begira egon gabe, Iainkoaren lege saindua, hain uztarri emea eta karga arina, geure gogo eta bihotz guztiaz hautatu, besarkatu eta halatan gero urrikirik ez tugegun bezala bizitzera enseiatu” (522 or.).

**LV. kap.:**

“Beraz hunelatan halako egitekotan ez erortzeagatik: eta hanbat bidegabe, hanbati, Iainkoari, geure buruari, Aingiruei, giristino lagunari, eta munduko bertze kreatura guztiei ere, ez egiteagatik, behar dugu ernatu, abiatu: eta luzamenduak utzirik, gero egin behar denaren, lehen baiño lehen egitera, bide onean iartzera, eta hartan egoitera deliberatu” (568-569 or.).

**LX. kap.:**

“Etzarela bada zerori zeuretzat horrein etsai handia, urrikal bekizu zeure burua. Non tardes converti ad Dominum et ne differas de die in diem. Eztezazula berant, etzezazula luzat: bihur zaitezi lehen baiño lehen zeure Iainkoagana: etzabiltzala gerotik gerora, egunetik biharrera. Eta ez hala ibiltzeko, kontsidera itzatzu ifernuko pena handi izigarri hek. Eta guztien gainetik sekula fingabe hura, behin ere ez akhabatze hura: eta akhabatzeko esperantzarik gabe, etsitua eta desesperatua egoite hura. Hartan pensa ezazu hartaz egizu pensamendu, has naur eta gogoeta. Eta gogoeta harekin lohatkar zaitezi arratsean, eta bai iratzar ere goizean.

Eta hala egiten duzula, eta hunen aitzineko kapituluetan eman zaizkitzun arrazoinak ere kontsideratzen dituzula, esperantza dut Iainkoa baithan, ongi edirenen zarela; egun beretik bide onean iarriko, edo iartzera enseiatuko zarela.

Eta halatan mundu hunetako itsaso hunen tormenta guztiak iraganik, azken finean salbamenduko portura, salborik helduko zarela” (620-621 or.).

7.4.4.2.- Azpimultzoetako bukaerak.

Kapitulu-multzoetan bezalatsu, azpimultzo hauetako zenbaitetan ere bukaera komunak agertzen dira ezaugarrien artean. Kapitulu bakoitzak normalean bere amaiera mota duen arren, batzuetan azpimultzo osoaren azkenak bukaera laburbiltzailea ager dezaket.

Era berean, eta gorago azaldutakoaren haritik, modu berezian azpimarratu nahi genduke azpimultzoetako amaierak betetzen duten koherentzia funtzioa, besteetan baino nabarmenago ikusten baita egiteko hori.

Hona hemen *peroratio* arloko bukaera horietatik garrantzitsuenak:

1. eta 2. kapituluak.

“[...] nagitasunetik eta alferkeriatik sortzen den gero haur, da gure galgarria, gure izurria, eta egundainotik gure etsai deabruak gure enganatzeko ediren ahal duen biderik eta arterik hoberena, finena

Beraz guk ere, Gero huni eduki behar diogu begia. Hunen geureganik khentzera, urruntzera eta etxetik atheratzera, behar dugu geure indar guztiaz eta antzeaz enseiatu, permatu, deliberatu, eta egun egin behar dugun gauzarik, eta ahal daidikegunik, ez biharko luzatu” (45 or.).

5. 6. 7 eta 8. kapituluak.

“Beraz hunelatan, ezta gerotik gerora ibili behar. Ezta denbora luzeaz bekatutan egon behar. Zeren egoite hura da gure galgarria. Handik sortzen da usantza: usantzatik ederestea, ederestetik ezansaitzea: ezansiatzetik ez sentitzea, ez sentitzetik itsutzea, gogortzea, eta azkenean, ahalkea galdurik hartaz prezatzea, loriatzea eta sendagailla eriztea. Eta handik harat, hartaraz gero, eztagizula hartaz konturik, gaizki da, hurran da, hillaren pare egiten da” (110 or.).

10 eta 11. kapituluak.

“Beraz hunelatan, eztugu miseriardiaren esperantzan bekhatu egin behar, eta ez fidantzia hartan penitentzia egitea, eta aztura gaixtoen utzte, geroko luzatu behar. Aitzitik, zeren Iainkoa den hain on, bihotz bera eta miseriardiak. Zeren hain maite gaituen: zeren bekhatu egin eta berehala ezkaituen gaztigatzen, zeren igurikitzen derakun; eta finean, zeren hanbat ongi eta ontasun egiten derakun, hartatik beragatik ere, hartarik okhasino harturik, behar genduke, are bertzela eginen genduen baiño hobekiago, haren borondatearen egitera enseiatu; eta zerere bekhatu, eta gaixtakeria oraiño koan erabili baitugu, hek guztiak utzirik, prestutasun batean iartzera deliberatu: eta halako molde, thailuz, eta suertez aitzinerat gobernatu, non azken finean, Iainkoaren miseriardiarekin batean erdiets dezagun guretzat ordenaturik eta prestaturik dagoen bozkarioa, zein baita zeruko loria” (151-152 or.).

13. 14 eta 15. kapituluak.

“Utazu beraz burutik buruan darabillazun erhokeria hori, egunetik egunera, heriotzeraño luzatuz eta ephe hartuz, orduan erremedianuko zarelako esperantzarekin, anarteraño bekhatutan egoite hori. Zeren badakizu tormenta handiarekin, kostan ioitera dohan unti kargatua, eztela peril gabe, aitzitik galdutzat dadukazu halako untzia.

Hala edukazu bada halaber zuk ere galdutzat zeure burua, bekhatuz betherik eta kargaturik, heriotzearen kosta ioiten duzunean: bethi ere gero onduko zarea erraiten duzula: eta bekhatu egiteko gogoan, eta borondatean zaudela, zeure azken eritasunak edireiten zaituenean. Zeren hartaraz gero, gutiak dira ongi libratzen direnak, galdu gabe eskapatzen direnak.

Beraz hunelatan, orai baituzu osasuna, indar, antze, adimendu eta zeure burua zeure eskuko: orai ezpaitzara oraiño eri, eta ez heriotzeko hersturan iarri: orai baitzara libre, eta nahi baduzu ongi, eta gaizki ere, daidikezun denboran. Orai bada, orai, men menea iarri gabe, sukharak nahasi gabe, eta eritasuna iaundu gabe, egintzatzu gero egin gogo ditutzun ongiak eta deskarguak. Eta orai diot. Zeren nola orai egiten duzun guztia, eritu gabe, heriotzeko hersturan iarri gabe, eta nehork bortxatu gabe, libreki eta borondatez egiten baituzu: hura izanen da gauza handia, estimatua, indartsua, botheretsua, baliosa, lainkoari eder izanen zaikana, eta merezient azken zeruko loriaren erdiesteko” (217-218 or.).

51. eta 52. kapituluak.

“Bada nork ere bere arimaz kontu ona eman nahi baitu, eta bere bekhatu iraganez barkhamendu erdietsirik, aitzinerat gehiago egin gabe egoiteko indar hartu, maiz kofesa bedi: gerotik gerora: egunetik biharrera luzatu gabe, urheko besta buruetan bedere, lainkoarekin mintza bedi: kontuan iar bedi: Zeren halatan emanen du orai presenteon kontu ona, eta gero azken finean erdietsiko du, bere arimaren salbamendua” (547-548 or.).

53. 54 eta 55. kapituluak. Axularrek ere multzotzat hartzen ditu, konklusioan batasun tematiko horren erreferentzia zuzena egiten baita:

“Beraz hunelatan halako egitekotan ez erortzeagatik: eta hanbat bidegabe, hanbati, lainkoari, geure buruari, Aingiruei, giristiino lagunari, eta munduko bertze kreatura guztiei ere, ez egiteagatik, behar dugu ernatu, abiatu; eta luzamenduaz utzirik...” (568 or.).

**7.4.4.3.-Kapitulu solteetako bukaerak**

Gorago azaldu bezala, kapitulu solteetan aurkitzen diren konektore tematikoak normalean “gerotik gerora” formularen inguruan eratuta daude eta liburuaren gai orokorrarekin uztartzen dute kapitulua, tituluko *Gero*-ri baitiote erreferentzia etengabe egiten. Konektore hauek, zer esanik ez dago, kapitulu amaieran (ez beti *peroratio*-an) txertatuta aurkitzen dira gehienetan:

3. kap.:

“Hala dira bada, gerotik gerora dabiltzanak ere, kheinatzen dira, eta eztute aurthikitzen: destatzen dira, eta eztute desarratzen. Erraiten dute: eginen dut; eta eztute behin ere egiten. Hala daudela denbora guztia iragaiten zaie, eta berak ere iragaiten, finatzen eta akhatzen dira” (54 or.).

4. kap.:

Hala da bada peril, gertha dakigun guri ere, gerotik gerora gabiltzanoi. Zeren hek zein guti zuten, are guk baitugu hek baiño segurantz gutiago; eta aitzinerat hobeki behatzen ezpadugu, galtzeko eta fin gaitz egiteko, iduri, arau eta molde gehiago (67 or.).

9. kap.:

“Konsiderazino haur beror, bertzerik gabe, asko behar lizateke, ez gehiago gerotik gerora ibiltzeko: edo bai behintzat bekhatu baten egitera zohazinean, haren egitetik itxitzeko eta gibelatzeko” (126 or.).

12. kap.:

“Halatan denbora iragana, hain gauza handia eta baliosa, gerotik gerora ibiltzeaz galdu duguna, erremedia ahal ditekeien moldean, erremediatuko, koberatuko eta erdietsiko dugu” (170 or.).

47. kap.:

“Beraz fin hari, eta akhabatzeko loria hari begia edukirik, hareraño, eta han, behar dugu, egun beretik, geroke begira egon gabe, bekhatu gabe egoitera enseiatu” (473 or.).



**VIII.- JOKAMOLDE  
ERRETORIKO-  
ARGUMENTATZAILEA**

Ikusi bezala, gure artean ezagun bezain ospetsu bihurtu da Granadaren eragina Axularren obran, inoiz, gorago esan den legez, azken honena harenaren itzulpentzat hartua ere izan delarik (ik. García del Moral eta Román de La Rosa 1993, 269). Alabaina, autore biek erakusten dituzten kidesunak aztertuta, eta Granadakoaren eragina onartuta ere, haien arteko distantziek luze izaten jarraitzen dute, orain arte ikertutakoak erakusten digunaren arabera behinik behin.

Beraz, eta urdazubiarraren planteamendu erretorikoa argitzea helburu dugula ahaztu gabe, egiazko arazoak paralelismo bide diren horien konformazio berriaz itaun egiterakoan etor litezke bereziki, hau da, horiek guztiak uztartzeko moduz eta Axularrek erabilitako teknikaz galdetzerakoan. Eta edonola ere, ustezko eragin horien argitzeak ez gintuzke horrelako arazoak planteatzenetik saihestu behar, haietara bideratu baizik.

Hori dela eta, Axularren egiteko erretorikoan gauzak argiago ikus daitezzen, gorago azaldu kidesun eta mailegu garbiez baino gehiago, egilearena dirudien testuaz baliatuko gara nagusiki. Horrela, haren prosak sortze-egituratze arloan izan zituen ezaugarri erretoriko orokorrak marraztu ahal izango ditugu eta haren tratamenduaren soslaiak (mamiari eta liburuaren fokatzearenari dagozkienak, hain zuzen) atzeman. Halere, teknika erretorikoa ulertzeko mota guztietako adibideak baliatuko ditugu, aipamenak eta exenpluak barne.

### 8.1.- PREDIKARIEN OHIKO LAN METODOAZ

Gorago adierazi den moduan, Axularren testuan nabarmen geratzen den ezaugarri bat haren predikari-izaera da, besteak beste urte askotan barrena izan bide zuen esperientzia praktikoan erdietsi zuena.

Tratadista gehienen arabera, ezinbestekoa zen predikarientzat filosofia moralean eta dotrina kristauan ondo ikasiak izatea, eta, dakigunagatik, zinez pentsa daiteke XVII. mendearen hasieran ongi betetzen zirela baldintzok.

Ikusia dugu gorago Axularren kasuan oinarri horiek Salamancako egonaldian eskuratu zituela. Hortik aurrerakoa, hots, akademikoki behar beste doktrina zein teknika ezagutu ondoren, predikarien eskuetan geratu ohi zen prestakuntzaren ardura, batik bat prediku konkretuei zegokienarena.

Egia da, dena den, horretan ziharduten prezeptistek aribide zehatzak proposatzen zizkietela predikariei sermoiak edota idazkiak prestatzeko orduan inprobisatu beharrik izan ez zezaten eta gaiak behar bezala gara zitzaten. Axularren kasuan, eta hark

idatzitako obra ikusi ondoren, haren jokamolde nagusia bide horretatik abiatu zela susma daiteke, hark egin eta erakutsitakoan ohiko liburuetan aholkaturiko puntuak isladatzen baitira ia salbuespenik gabe.

Funtsezkoenak honako hauetan zeutzan: argumentuak bilatzeko biderik garrantzitsuena irakurketa zen, bereziki eskritura saildunen irakurketa eta elizako gurasoen obrena. Edozein gisaz, irakurketarako ezinbestekoa zen liburuak ongi hautatzea eta gaiak ere ongi aukeratzea (arruntak baino lehenago ez-ohikoak, etab.).

Jakina, irakurketaz gainera, bestek esandakoak edo norberak hausnartutako gauza interesgarriak ere jaso behar ziren erabili ahal izateko. Hori guztia osatua izan behar zen honako hitz hauetan adierazten denarekin: "estudio, meditacion, continua leccion, mucho ejercicio é imitacion" (Granada, *Retórica*, 513b).

Zeharkakoa edo zuzenagoa, Axularren irakurketa-hausnarketek ezaugarri horiek berek erakusten bide dituzte: eskritura sakratuak eta elizako guraso garrantzitsuenen arteko hautaketa, batetik, eta bestelako elementu interesgarriak (klasikoen lekukotasunak, erretratuak, etab.).

Granadak azpimarratutako "imitazio" delakoari dagokionez, eta San Agustinen presentzia dagoeneko nabarmendua izan den arren, aurrera dezagun alderdi elokutiboa azaltzerakoan ere garbi antzemango dela saildu hark gogogokoen zituen teknik ere isladatuko direla urdazubiarrarenean.

Halaber, Axularren liburuaren atal zenbaiten antolamendu bereziarekin zerikusi handia izan zezakeen elementu teknikoaz ere ohartarazi beharko genuke. Izan ere, predikariaren lanerako beharrezkoa zen "que prevenido ántes un cuadernillo con los títulos de todas las cosas que suelen ser los asuntos de los sermones, ponga en sus lugares lo que hubiere hallado" (Granada, *Retórica*, 513a). Horrek ere esplikatu lezake<sup>256</sup>, neurri batean bederen, *Gero*-ko aipamen eta esenpluak sortaka eta ez modu orekatuegian agertzea<sup>257</sup>; predikariak aurkitutakoak gehiago ala gutxiago baziren, horren arabera agertzen ziren gero liburuan tartekaturik.

Oro har, predikariaren prestatze-lana laburtuz, honela mintzatzen da Granada eta honen arabera bide dihardu Axularrek:

"... porque así queda advertido el predicador, que cuando haya de probar alguna proposicion, debe buscar primero las razones de los lugares que mencionamos ántes [...] Averigüe despues las confirmaciones de las razones que nacen especialísimamente de los lugares extrínsecos. En tercer lugar, si la naturaleza de la cosa lo requiere, añadirá una exomacion, que no pertenece á la confirmacion sola, sino á cualquiera otra parte de la argumentacion. En cuarto lugar, bien atendida la naturaleza de las cosas de que predica, mire si le dan materia para mezclar los afectos, acomodamientos, sentencias y epifonemas" (Granada, *Retórica*, 529 or.)

Axularren kasuan ez dirudi metodologikoki proposamen honetatik urrunegi ibili zenik. Baina guztiarekin ere, haren jokamoldea zehatzago ikusteko aukera izango dugu hurrengo orrietan.

256 - Gogora bedi gorago adierazitako beste arrazoi garrantzitsu bat, hots, *exempla* atala gaiak berak ere bideratzen duela.

257 - Ezin ahaz daiteke, bestalde, esenpluen narotasun horrek eman ziezaiokeela liburu bati arrakastatsua izateko behar zuen "ukitua", erakargarritasuna alegia. Liburuak atseginak ziren -diren!- neurrian, irakurriak izateko probabilitateak ere gehiago ziren. Ez da zalantzarik, beraz, esenpluak erakargarritasun hura areagotzeko formula ere bazirela.

## 8.2.- AXULARREN JOKABIDE-LERROAK

Planteamendu orokor gisa, azpimarratu beharrezkoa da Euskal letretan enblematzat hartua izan den *de non procrastinanda poenitentia* liburu honek bi alderdi formalki erabat desberdin erakutsiko dituela: ohiko exordioaren funtzioa beteko duen atala (batez ere "irakurtzaileari" zuzendutako gutuna, "Gomendiozko karta" delakoak eskaintzarena betetzen baitu), batetik, eta "predikatu" nahi den tesiaren garapenez ihardungo duena, bestetik.

Jakina, tratamendu erretorikoa ere (topika, ornatua, etab.) desberdina izango da eta gogoan izan beharko da azaltzerakoan.

Liburuaren mamiaz diharduten hirurogei kapituluetan gauzatuko denari dagokionez, dena den, bizpahiru oharkizun genituzke egiteko.

Aszetika liburu gehienetan bezalatsu, eta bereziki eredu moduan izan bide zituenetan legez, genero suasorioak argumentatzeko modu desberdinak eskatzen ditu, harira ekarritako gaiaren arabera eta une hartan lortu nahi denarenera.

Axularren liburuaren kasuan ere, nagusiki hiru eratakioa izango da argumentuak garatzeko modua: *loci*-en bidez, amplifikazioaz eta, logikaren alderditik ikusita, eredu induktiboaren bitartez. Azken honek ahalbidetuko du tratatzen den gaia *exempla* arlokoen elementu desberdinekin uztartzea<sup>258</sup>: esenpluak, *auctoritas*, etab.

Ohiko planteamendu honek aszetikaren berezko didaktismoa isladatzen du, eta mezu-hartzaile izan behar duen herri xehearenganako hurbiltasuna areagotu, irudi eta esenpluen bidezko argumentazioa baita lehentasuna jasotzen duena<sup>259</sup>.

Ildo horretatik, Axularren jokabide "herritarra" agerian geratuko da iturri gisa erabilitako liburuetatik jasotakoa aztertzerakoan. Nabarmena denez, Axularrek aszetikarako elementu ideologiko zuzenak eta pragmatikoenak baino ez zituen jaso liburu haietatik guztietatik, bere obra eta asmoekin ongien ehun zitezkeenak eta kontraesan doktrinalik ezin sor zezaketenak alegia. Aitzaki gisara hartua izan Granadaren obrek ere beste horrenbeste egin zuen urdazubiarrak.

Ortodoxiaren barnean bada ere, begi bistakoa da, esate baterako, elementu izpiritualak, kontsiderazio abstraktuak eta horien arlokoak erabat baztertuta gelditzen direla Axularrek mailegutuz hartutakoetatik, guztietatik hain zuzen.

Adibide konkretu batera jaitsiaz, esan daiteke domingotarraren *Guía*-ren lehen liburuaren lehenbiziko parte biak, XVI. kapituluak salbuespena kenduta, erabiltzeko gelditzen direla urdazubiarrarenean. Horren arrazoiak goian aipatutakoaren bidetik doaz: parte horietan bertutera hurbiltzeko argudioak tratatzen dira baina era izpiritualegian nonbait Axularren xederako: Jainkoarekiko obligazioak, azkenkiak -baina teorikoegi planteatuta-, graziaren pribilegioak, ...

258 - "La inducción mueve el asenso de los oyentes en cosas que no admiten duda, y aun en lo dudoso, valiéndose de la semejanza" (Cicerón, *De la Invención retórica*, 26-27 or.).

259 - Hurrengo kapituluetan ikusiko den bezalaxe, lehentasun honek ez du inolaz ere ukatzen planteamendu estetikoaren garrantzia; are gehiago, balio estetikoa indarturik agertuko da didaktismo horren kariaz.

Hirugarren partea, berriz, askoz ere pragmatikoagoa da eta bertan "se responde a todas las excusas que los hombres viciosos suelen alegar para dar la mano á la virtud" (Granada, *Guía*, 14), hain zuzen ere Axularrek proiektatuta zeukan lehen parte-rako gaiaren zati garrantzitsua. Horregatik baliatzen bide da Axular zati honetaz horrenbeste.

Granadaren *Guía*-ren bigarren liburuaz Axularrek egiten duen erabilerak gai eta egitura mailakoa dirudi eta ez pasarte konkretuek hornitzeko. Hain zuzen ere, liburu honetako lehenengo hamasei kapituluek *Gero*-ren hainbat kapituluekin kidetasun edo berdintasun tematikoa erakusten duten arren, tratamendua ez da berdina eta ia ez dago Granadarenetik mailegatutako pasarterik. Horretarako bestelako materialea erakusten du urdazubiarrak, adibide eta exenplutan beteago gazteleraz idatzi zuenarena baino. Aldi berean, eta hau ezaugarri garrantzitsu bat izango da Axularrenean, jokamolde honek grafikotasun eta bizitasun handiagoa ekarriko dio testuari.

Bestalde, ortodoxia doktrinalean hutsarte nabarmenik sor ez dadin, inoiz ezinbestekoa zaio idazleari testu moldaketa zenbait burutzea. Garrantzitsuenen artean bada jatorrizko testuaren zentzua (ez beti esanahia) desbideratu egiten duenik.

Edo jatorrizko testuaren zentzua ideologikoki "bideratu" nahi delako edo mailegatutako testuak agian gaizki ulertu direlako -besteren bitartez hartu izanaren akatsa betiere?-, Axularrek batzuetan ez ditu pasarteak orijinalean diren bezala eskaintzen. Jakina, normalean interpretazio interesatuak izan ohi dira horretara bultzatzen dutenak: mezu-ideietan inolako zalantzarik sortu nahi ez izatea, anbiguotasunak ezabatu gura izatea, etab.

Ildo horretatik, klasiko eta idazle kristauekin bezala, Axularrek antzeko zerbait egiten du printzipioz ukitu ezina den Bibliako pasarte batzuekin ere. Hau da, mezuari hitzei baino garrantzi gehiago emanez, saratarrak maiz asko ez du zalantzarik izango jatorrizko testuari, interesaren arabera, zatiak moztu, isildu edota ezabatzeke. Horrez gain, inoiz, testu biblikoaren ordena aldatu emango du, hau da, aurrekoa bukaeran eta bukaerakoa hasieran. Adibiderik ez dugu faltan aipamen eta kidetasunen eranskinetan. Baina hori, berriro diogu, Axularrek argumentatzeko eta testuak garatzeko moduekin lotua dagoen teknika baino ez da normalean.

Benetako desbideraketa ideologikoen adibide gisa, Lais emagalduegana doan filosofoaren kasua ekar liteke hona (*Gero*, 388)<sup>260</sup>. Gelioren liburuaren arabera, Demostenes ezkutuan emagalduegana faboreak galdetzera hurbildu zenean, Laisek eskatu dirutzak atzerarazi bide zuen peripatetikoa eta ez bestek. Ondoren esan zituen hitzek, beraz, zerikusi gehiago zuten arrazoi krematistikoekin, arimaren osasunarekin baino. Kristau tradizioak, dena den, exenpluaz baliatu ahal izateko "moralizatu" eta "kristautu" egin behar izan zuen. Axularrek hori baino ez zuen erakutsi *Gero*-n.

Jakina, aurrekoa ez bezalakoa da San Agustinen bizitzaren gertaera batekin suertatzen dena. Aipamena pertsonak aldatu ematen ditu Axularrek eta protagonismoa sainduarengan pertsonalizaturik, hitzak honek esan izan balituen. *Aitorpenak* liburuan agertzen den errealitatea bestelakoa da baina: Pontizianok lagun batekin izandako esperientzia eta, gero, S. Agustín bera entzule zela, kontatutakoa jasotzen da liburuan, ez besterik.

260 - Ez dugu ikusmiratik alboratzen erlijio-tradizio konkretu batekoak diren desbideraketa hauek bestek eginak izan zitezkeelako hipotesia. Hemen, jakina, gorago aipatu den iturrien mediazioaren arazoa planteatzen da berriro ere. Hala eta guztiz, horrelakoen egiletza zalantzan egon daitekeen arren, bidezkoa litzateke pentsatzea berdintsu jokatuko zuela urdazubiarrak ere.

Honelako aldaketen arrazoia diskurtsoaren haria anabastu nahi ez izatean egon liteke nonbait. Edozein modutan, ezin ahaz daiteke bestelako arrazoiak ere egon izan direla gurea bezalako liburu mota hauetan (erabilitako testuak gaizki ulertu, besteren bitartez hartu izanaren akatsa,...).

Bestalde, Axularren jokamolde erretoriko-doktrinala dela eta, agian adierazgarriak izan daitezke inoiz tartekatuko desajusteak. Historia doktrinalen, esaterako, ez da falta anakronismoak Axularren testuan, baina, dena esateko, anakronismo bereziak. Esparru erlijiosokoren bat aipatzekotan Kristo jaio aurreko kristauek ekar genezake hona<sup>261</sup>.

Adierazi bezala, anakronismo "didaktikoak" direla esan genezake, hots, irakurleentzat arlo doktrinalean funtzio argitzailea izateko helburua dutenak. Esate baterako, S. Agustinen hitzak aipatzen ari delarik ("hunela dio san Agustinec"), "Luterac" ere agertuko dira (!) testuan, gainera, funtzio didaktikoa dela eta, historian zehar estigmatizaturiko gizatalde garrantzitsuenekin batera<sup>262</sup>:

"Ceren guiristinoric baicen ezta salbatcen, eta gutiac dira guiristinoac, guiristino ez tirenen aldean. Eta hala erraiten denean anhitz direla dituac, eta gutiac hautatuac, aditcen da lentialac, Mairuac, Turcoac, Iuduac Luterac, eta munduco bertce guztiac direla deituac: Baiña gutiac, guiristinoac berac hautatuac, eta ez bertceric" (*Gero*, 135 or.)

Dena den, inoiz autorearen zabarkeriagatik sortuak dirudite horrelako anakronismoek. Adibidez, Axularrek Salmoen bidez mintzaraziko du Salbatzailea zuzenean<sup>263</sup>:

"Ezen gure salbatzailea arrenkuratu ezpazen ere, bere heriotze penatuaz, eta desohorezkoaz, arrenkuratu eta sentikortu baitzen bidegabe hunetzaz, erraiten zuela: *Supra dorsum meum* [...] (Psalm. 128)" (*Gero*, 136 or.).

261 - Honela "itzuliko" du Axularrek Testamendu Zaharreko pasarte bat: "Eta badio Iob sainduak ere [...] Gristino gristino denak, gerlan dabilan soldaduak bezanbat brabailu iragan behar du" (*Gero*, 476 or.). Ildo berekoak dira Jainkoak bere diszipuluei esan omen zizkien hitzak ere: "Ene diszipuluak, ene gristino maiteak, badakusazue nola [...]" (328 or.). Anbiguotasuna mantenduko da Testamentu Zaharreko pasarte baten ondoko azalpenaren ere: "aditzera emaitagatik gristino on izanen denak [...]" (402 or.). Argiagoa da, aldiz, Jeremiasen hitzen itzulpenaren ondoren ematen duen azalpena: "Erran nahi du Gristino herrian, arimako eritasunaren sendatzeko [...]" (529 or.).

262 - Estigmatizazioaren beste seinale bat: "Baldin ikhus bazeneza ezen gizon batek meza erraiteko Kaliza aldaretik harturik hartan nori nahi den, ageri diren arrote, errumes eta bertze iende suerte guztiei emaiten derauela kantoin guztietan edatera, zer othe zenerrake? Gutienean bazenerrake hura dela luthertasun handia, gauza itsusia eta eztakizula zer gaztigu ordena halakoan" (262 or.).

263 - Jatorrizkoa edo dirudien testuan honela dio Granadak: "Más le dolió esto al Salvador que la mesma muerte que padescia, pues no quejándose della, se quejó deste agravio por su Profeta, diciendo: Sobre mis espaldas [...]" (Granada, *Guía*, 101a; azpimarrak gureak dira).

### 8.3.- AXULARREN ARIBIDE ERRETORIKOA

Oro har, eta jokabide teknikoari dagokionez, urdazubiarrak etengabe aplikatuko ditu obra guztian zehar erretorikak argumentuak ateratzeko aholkatzen dituen printzipioak.

Gorago esan den bezala, oratoria sakratuak ez du bereizketarik egiten idatzizkoak izango diren obren eta sermoien arteko tekniketari, berdintzat hartuko baitira normalean, edo, hobeto esanda, ahozko predikazioaren menpekotzat hartuko idatzitakoak.

Axularrek teknika horiek erabiltzen zituela ikusteko, aski izan bedi XI. kapituluaren egiten duenari begirada bat ematea. Haren ezaugarriak urte haietan oratoria sakratuaz arduratu ziren tratatuen ildokoak dira, eta, oro har, bat datoz Granadaren erretorika liburuan azaltzen direnekin.

#### 8.3.1.- ARGUMENTUEN SORTZE-ERATZEA

Curtiusek zioen legez, "en el antiguo sistema didáctico de la retórica, la tópicca hacía las veces de almacén de provisiones; en ella se podían encontrar las ideas más generales, a propósito para citarse en todos los discursos y en todos los escritos" (Curtius 1976, 122). *Inventio* atalean, beraz, *loci* edo "lekuak" izenekoak<sup>264</sup> erabiltzeko printzipio teorikoa sistematikoki baliatuko du Axularrek argumentuak eta gaiak erdiesteko. Eta printzipio teorikoa diogu zeren eta argumentuak eta ideia orokor horiek, ikusi den bezala, bestetatik zuzenean "karriatuak" edota kopiatuak ere izan baitaitezke, eta ez beti *auctoritas* formula argitzaile-berretzailearen pean. Besteak beste, Axularrek liburutzen dituen "kidetasunak" eta aipamenak horren guztiaren adierazle baino ez lirateke izango (ikus "Aipamenak eta exenpluak" atala).

Oro har, argumentuak bilatzeko teknikari buruz, zalantzarik gabe esan daiteke urdazubiarrak erretorika klasikoaren bideetatik abiatzen dela etengabe, bai komuntzat edo hartzen diren erabileran (gai zabalak, mugagabeak: bekatuak, bertuteak,...) nola pertsonen (pertsona konkretuen, alegia) ingurukoak eta haien zirkunstantzietatik sortuak direnengan. Jakina, ia ez da aszetika liburuetan azken honetako adibiderik, edota sarrera-eskaintzatan ez bada behintzat.

Dagokigun liburuan "Gomendiozko karta"-ko Etxauzen kasua horrelakoa litzateke. Pertsona haren zirkunstantzietatik ateratako gaiak ohiko eskema klasikoari jarraituz zaizkio (Quintiliano, *Inst. Orat.*, X. kap.; Granada, *Retórica*, 514). Axularrek nagusiki leinua, aberria, izaera eta egindakoak baliatzen ditu eskaintza horretarako.

Bete-betean agertuko da urdazubiarrarenean, esate baterako, Kintilianok pertsonaren leinuaz baliatzeko ematen duen aholkua:

"La primera circunstancia de persona de donde sacaremos la prueba es el linaje, porque comunmente los hijos suelen ser parecidos á quienes los engendraron, y aun de aquí suelen tomar, digamos así, las semillas primeras ó para la virtud, ó para el vicio" (*Inst. Orat.*, 256).

264 - "A estos atributos que sobrevienen á las cosas [...]. A estos atributos pues de todas las cosas llamaron lugares, tanto los dialécticos como los retóricos" (Granada, *Retórica*, 509b).

Axularrek hiru orrialdetan barrena garatuko du leinuaren formula:

Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinelan, eta begiraille bezala, iratzarrik, dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. Hango Bizkondeak eta seme guztiak izatu dira bethiere, egundaifioz gero, erregez enpleguak, estimatuak, fin eta leial frogatuak. Eta bai egiazko fedearen eta legearen defendatzaile, eta aitzinatzaile buruzagiak ere. Nafarroa beheko parte hetan, bertze anhitz lekhotan bezala, lege katolika saindua, iduriz flakatzera, kordokatzen eta erortzen zihonean, badaki munduak nola zure aita launa, bere etxeaz, onez eta biziare ere kontu guti eginik, ioan zen Donapalaia, non baitzen orduan Nafarroako Parlamenta. Eta han ausartzia handi batekin, bere bihotz giristino noblearekin, hasi zen, ezpata biluzia es kuan harturik, oihuz, Matatias bat bere denboran bezala, erraiten zuela: Omnis qui habet zelum legis, statuens testamentum exeat post me (2 Mach 2). «Ea giristinoak, giristino izenarekin, izana duzenak, bertze egiteko guztiak utzirik hurbil zakizkidate, iarraiki zakizkidate eta egiazko legearen eta fedearen mantentzen eta sostengatzen, lagun zakizkidate». Eta hanbat egin zuen, non bere herria eta inguruneak ere, hetan sartzen zihonan eritasunetik begiratu baitzuten. Eta gero handik hartako herraz eta mendekuz bere iauregi ederra erre zioten. Humelakoak ziren zure aita launa eta bai bertze aitzinekoak ere.

Bada eztuzu zuk ere zeure arrazaz ukhatu, etzara zeure leifutik eta ethorkitik hastandu, berezi eta ez aldaratu [...] Beraz etzara zu ere, zeure aitzinekoen giristinotasunaren gibelatzaile izatu.

Bada ez eta ohorearen iraungitzaile ere. Aitzitik badirudi ezen zuk xedea aitzinatu duzula, marra iragan duzula [...] (Gero, 6-8).

Maila apalagoan agertuko dira beste argumentu iturriak. Laudatu nahi den pertsonaiaren aberria edo giza-taldea, esaterako:

Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa (Gero, 5-6)

Orobat, izaerari dagokiona:

"Zeren ondotik ere, zure prestutasuna, ohorea eta fama ona, baliatuko baitzaitza.

Eta zure prestutasunaz, ohoreaz, eta aitzineko eta ondoko, fama on famatuaz, nork zer erranen du?

Nor da euskal-herrian alde edo molde, zordun eta obligatu etzaitzunik? Behartu eta enplegu etzaituenik? Eta baliatu etzaitzanik? Zure etxea, egon eta ibili zaren lekhu guztietan, bethiere izatu da, euskaldunen etxea, pausalekhua eta portua. Guztiek zuregana laster. Zuri bere arrenkurak, egitekoak, koaitak, eta ondikoak kontu. Eta zuk guztiak arraiki eta alegeraki errezibi. Zuhurki konseilla, kida, goberna eta burutan athera" (Gero, 5)

"[...] zeren utzirik alde batetara zure merezimendu handiak: eta elizari, erregeri eta komun guztiari, anhitz okhasinotan egin derauztetzun zerbitzuak eta endrezuak, naturalezak berak ere anhitz donu, dohain, eta abantail suertez dotatu, hornitu eta konplitu baitzaitu. Adimendu eder bat, memoria handi bat, eta borondate onera, ohorera, eta prestutasunera erori bat, isuri bat, eta eman bat eman baiteratzu" (Gero, 9).

Pertsonaiek egindakoak Zizeronek argumentuetarako sailkatu hamaika zirkunstantzia horietako bat dira. Behar dituenetan tartekatzen ditu Axularrek:

"Zeren zuk ere Baionako Ipizpiku zinean, eta bisitan zenenbiltzanean ikusirik ezen, elizatik kanpoan zebiltzan iende batzuek, nahi zituztela, bere azken finean, gorputza elizan sarthu eta ehortzi; zeure bisita hautsirik, Nafarroako hirur estatuak bildurik, ioan zinen Gorthera: eta han anhitz trabailu iraganik, kontrakarra izanik, ekharri zenden, gero ere, behar zen erremedioa, eta handik harat, halako desordenen debekatzeko ordenantza eta manamendua" (Gero, 7-8).

"[...] badirudi ezen zuk xedea aitzinatu duzula, marra iragan duzula, eta Echausko etxearen arropa gorriaz bestitzeko bidetan izan zarela. Zeren ezta eztaienik, ezen erregek hartarakotzat hautatu eta izendatu zinituela. Eta kolpea huts egin bada ere, eztela zure faltaz edo zu hartako ez gai izanez" (Gero, 8).

Baina "Gomendiozko karta" honetan pertsonen zirkunstantzien erabilpenak distira berezia hartzen du Axularrek egokitutako anplifikazio teknikei eskerrak. Baliabide horren bitartez, testuak behar bezalako ehundura izatera iristen dira Axularren eskuetan.

Nolanahi ere den, testu aszetikoetan askoz ere maizago aurkitzen dira komunak diren *loci* edo argumentu-biltegiak. Esan behar da horietan badirela argumentuen iturri desberdinen artean emankorrakoak direnak eta Axularrek bere buruari proposatu zion proiektuarekin estuago loturik zihoazenak. Axularren joera nagusia, beraz, bertute eta bizioei buruz tratatu duten klasiko (kristau, moralista edota jentil) gehienena bezala, bide honetatik barrena abiatuko da Gero liburuan:

"[...] entre estos lugares el mas fértil es el que se toma de los efectos y de los adjuntos, estén ellos juntos a la cosa necesaria ó innecesariamente[...] Porque, aunque es mejor conocer las cosas por sus causas y principios; con mas frecuencia y facilidad argüimos de las causas por sus efectos, siéndonos estos mas notorios que aquellas. Con el uso pues de este lugar de los efectos y adjuntos, alabamos por una parte las virtudes cuando explicamos sus frutos y efectos, y todo, cuando va unido á ellas; y por otra reprehendemos tambien los vicios, cuando acordamos y amplificamos los efectos, y todos los males que consigo traen" (Granada, *Retórica*, 511a) (azpimarrak gureak dira).

Ez dira besterik saratarraren obran bekatuek sortzen dituzten kalteei buruzko atalak eta kapituluak.

Baina argumentuen lehen iturria eta garrantzizkoena subjektu eta predikatuaren atribuetako hori den arren, Axularrek liburuaren planteamenduan eta erredakzioan bertan ere ez ditu baztertuko gauzen generoari dagozkionak, hots, erakutsi nahi den horren arloan dauden maila edo generoen arabekoak. Horrela, bekatutik atera ("konbertitu") nahi izateak genero-mailakatzeko gisako bat onartuko luke argumentuetarako, izan ere Gero-ren hasierako asmoetan planteatzen zen lehen partearen eskema orokorra bera ("cenbat calte eguiten duen luçamendutan ibilteac, eguitemoen gueroco utzteac" -> bekatu buruzagien kalteak) eredu horri baitzegokiokkeen nonbait:

"[...] podrá declarar primero cuánto peligro hay en permanecer mucho tiempo en pecado mortal, acordando todos los males que trae consigo el pecado; los que podrán colegirse de todos los lugares: esto es, de todas aquellas cosas que al pecado se atribuyen. Descendiendo después al género inmediato ó próximo [...] En tercer lugar llegará a tratar de los propios atributos [bekatu horrenak, alegia] [...] para argüir por las propiedades de la cosa, que es mucho mas oportuno" (Granada, *Retórica*, 512a).

Ezin ahaz daiteke, bestalde, Axularrek bekatu konkretuen tratamendurako argumentuak bilatzean darabilen metodo klasikoa, hots, "aurkakoena". Horren arabera, gauza bat (bertutea, Axularren kasuan) are erakargarriago bilakatuko da irakurle-entzulearentzat zenbat eta gaitzetsiago izan baita haren aurkakoa, arbuiatu nahi dena (bekatua) alegia. Gero liburuaren giltzetariko bat den "kalte" hitzak, adibidez, bekatuen arbuiagarritasuna areagotu luke eta, ondorioz, aurkako bertuteen aldeko jarrera bizkortuko.

Oro har, beraz, hauexek izango dira Axularrek argumentu eta gaien bilketa eta planteamendurako erakutsiko dituen teknika nagusiak eta obraren eredu gisa gauzatu duen jokabidea.

## 8.3.2.- TOPIKA

Esan berri dugu nagusiki argumentuen biltegi zirela erretorika klasikoko *loci* edo *topica* izenekoak, diskurtsoen burutzapenerako ezinbestekoak ziren elementu eta formulak eskaintzen zituztenak alegia.

Alabaina, jatorrizko norabidea eta xedeak galtzean (cfr. Curtius 1979, 109), erretorika literatur genero guztietan barneratu zen, haren sistema landua forma literario berrien oinarri eta altxor bihurtu zirelarik. Curtiusek berak azpimarratzen duen bezala,

"Este hecho fué el más rico en consecuencias de toda la historia de la antigua retórica; hizo que también los tópicos adquirieran una nueva función, que se convirtieran en clichés literarios aplicables a todos los casos y se extendieran por todos los ámbitos de la vida literariamente concebida y formada" (Curtius 1979, 109) (azpimarrak gureak dira).

Ondorioz, literatur erabilera berriarekin *loci* horiek denboran barrena "cristalizaron en modelos que podían ser introducidos en los «patrones» correspondientes" (Mortara Garavelli 19991, 98), exordioa bezalako patroietan alegia.

*Topos* kontzeptuaren literaturatze hori -esan bezala, Curtiusi dagokion merizua, izan ere berea izan baita topoi horien formalizazio teoriko-literarioa- honela definitu izan da:

"pensamiento infinito (formulado o no en su forma de expresión infinita) que, en un círculo de cultura, bien por formación escolar y tradición literaria o por la acción de instancias educativas análogas ha llegado a ser posesión común de ciertas capas de la sociedad y ahora es aplicado finitivamente por un escritor a su objeto finito de tratamiento ya sea de forma prolija, ya sea de forma breve" (ik. Lausberg 1983, 56).

Ildo horretatik, *topoi* direlakoek obra erretoriko-literarioetan dauden ohiko ataletako elementuak eskaintzen zituzten oro har: sarrera-bukaeratarako formulak, entzule-irakurlearen *captatio benevolentiae* delakoa lortzekoak, etab.

Topiko hauetatik interesgarrienak, Axularren kasuan, liburuaren atari bikoitzean agertzen dira sakabanaturik, "Gomendiozko karta" izenekoan eta "Irakurtzaileari" zuzendutako atalean hain zuzen. Ez dugu berriro errepikatuko liburuaren exordioaren funtzioa betetzen duela testu hauetako bigarrenak batik bat, eta, neurri handi batean, exordioei zegokien *topoi* izenekoak agertzen direla bertan. Lehenengo testuak, hau da, "Gomendiozko karta" delakoak bete-betean kokatuko litzateke eskaintzaren topos-ean. Hona hemen nabarmenenak:

## 8.3.2.1.- Gomendiozko karta

Eskaintzaren topikoaren arloan (Curtius, 1976, 132-133) sartzen den karta honetan badira zenbait elementu topoi desberdinen erabilera argi dezaketena.

Kasu honetan, idatzi zenerako hilda zegoen Bertran Etxauzkoari eskaintzen zaio "Gomendiozko karta", obraren "aitatasuna" hari egotziz eta bizirik balego bezala mintzatuz:

"Zeren iduritzen zait ezen oraiño bizi zarela, begien aitzinean zaitudala: eta halatan, hala baitzinitut bezala, mintzatu nahi natzaitzu" (Gero, 4).

Jakina, heriotzaren aurrean bilatzen den kontsolamenduaren topos-arekin zerikusirik duen argudioa aurkitzen dugu bertan:

“Bai ordea ioan zara: lekhuz aldatu zara: hemengo aldia egin duzu.

Egia da, hala da. Eta alde z damu dut, eta alde atsegin.[...]”

Atsegin. Zeren nola ezpaikara bi mendetako eta zuk zeurea, hain ongi, hain ohorezki eta dohatsuki iragan baitazu, esperantza baitut zeruko lorian, Iainkoaren konpainian, kredit handiarekin zaudela: eta hortik helduko zatzaizkidala, eskua emanen derautazula: eta arranoak, airean dohanean, bere umetara bezala, zuk ere enegana begia edukiko duzula. Eta gero nik ere (hemengo aldia egin hurran baitut), Iainkoaren garaziarekin eta zure arartekotasunarekin batean, zure zorthe ona erdietsiko dudala: eta orduan guztiez eskerrak errendatuko derauzkitzudala” (Gero, 10-11)

Topos mota baten erakusgarri gisa, ez dira faltako karta honetan eskaintza-jasotzailearen aldeko laudorioak. Horretarako, *überbietung* edo gorentze bidea erabiltzen da. Curtius-ek dioen bezala, “para probar la superioridad y unicidad del hombre o del objeto elogiados, se les compara con los casos famosos tradicionales” (1976, 235). Ez da besterik Axularrek Etxauzeekin egiten duena Euskal Herrian arlo erlijiosoan famatua zen Etxauzen aitarekin erkatzen duenean (ik. Gero, 6-7).

Bestalde, “cuando el elogio se refiere a un hombre, se ponderan con el mismo procedimiento su fuerza, su valor, su sabiduría y otras virtudes” (Curtius 1976, 236). Ez da horretan lerrorik falta, panegiriko bilakatzen baita kartaren zatirik handiena.

Aldi berean, pertsona bat goraiatzeko beste topos bat denek miresten zutela esatea zen. “Omnis sexus et aetas” eta ildo berekoa den “toto orbe cantabilis”, etab., kultur kosmos txiki-hertsia zeukan Axularrenean honako honetan laburbilduko lirateke:

“nor da Euskal herrian alde edo moldez zordun eta obligatu etzaitzunik...” (Gero, 5).

Guztiarekin ere, laudorioaren topos horren garrantzia areagotuta geratzen da Axularrek honako *incrementum* hau darabilenean:

“Baiña zertako sartzen naiz ni itsas hondar gabe hunetan? Ezin athera naitekeien oihanean? Zure laudorioen aiphamenean? Berak dira bere buruz asko gora mintzo: berak dira bere baithan asko klar eta ozen. Utz ditzadan beraz nik hek, hutsik eztagidan” (Gero, 6-7).

Ludorioen topiko honek, agerian denez, beste bi mota klasiko erakusten ditu: batetik, idazlearen “insufizientzia”, eta, bestetik, laudorioek berek bere burua gorentzen dute.

Horiezaz gainera, Axularrek liburuaren muinean egongo den “otiositas” delakoaren topikoa tartekatuko du, ekidin beharrekoa den alferkeriarena<sup>265</sup> hain zuzen:

“Heldu nintzen. Ezterautazu iguriki. Ordea eneak dira faltak, enea da hobena. Gerotik gerora ibili naiz, eta hala dabillanari gerthatzen ohi zaikana egin zait niri ere” (Gero, 3-4).

265 - Gorago ikusi den bezala, literatura klasikoan barrena agertzen den topiko mota honen adibide ezagunenak jasotzen ditu Axularrek bere liburuan: Senekaren *Otium sine litteris...*, Ovidioren *Quaeritur Aegistus...* eta *Otia si tollas*, etab.

### 8.3.2.2.- Irakurtzaileari

Exordioetarako bazen erretorika klasikoan eredu mota bat hiruzpalau topoi nagusi zituen: *captatio benevolentiae* delakoarena, idazlearen apaltasuna adieraziz, idazteko arrazoiak azaltzen zituen, etab.

Ildo horretatik, ez dira atal honetan horrelakorik falta. Curtiusek zioen bezala, “todo autor debía tratar de crear en el lector un estado de ánimo favorable; con este fin, se le recomendaba [...] presentarse con términos de modestia. En seguida, el autor debía atraer al lector hacia su tema” (Curtius, 1976, 123). Hori baino ez du egiten Axularrek atal honen hasieran.

Modestia faltsuaren topos-a zela medio<sup>266</sup>, idazle eta predikariek entzule-irakurleen arreta eta gogoia eskuratu behar zituzten berbaldia egokiro burutu ahal izateko. Horretarako nork bere ahulezia aipatu behar izaten zuen, bere prestakuntzarik eza edota zerabilen hizkuntzaren pobrezia eta apaltasuna. Ez ziren bakarrak baliabide horiek: sermoia egiteko orduan predikariak urduri zegoela esatea bezain eraginkortzat zuen erretorikak idazkietan lagunek bidalita edota bestek aginduta idazten zela aitortzea: “A menudo se vincula la fórmula de modestia con la afirmación de que el autor sólo se atreve a coger la pluma porque un amigo, protector o superior se lo ha sugerido, pedido o mandado” (Curtius 1976, 130).

Ildo horretatik, Axularrek “Irakurtzaileari” zuzendutako hitzetan bestek aginduta idazten duela “aitortzen” du, honela mintzo delarik:

“Egun batez, konpainia on batean, euskaldunik baizen etzen lekhuan nengoela, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela, deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko utzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak. Eta on zatekeiela, gauza hunetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea: eta hartan, gero dioenak bego dioela erakustea. Konpainia berean galdegin zen berehala, ea nori emanen zeikan liburuaren egiteko kargua. Eta bertze guztien artetik, hasi zeizkidan niri neroni aditzera emaiten, lehenbizian kheinuz eta aieruz, eta gero azkenean, klarki eta agerriz, nik behar nituela, egiteko hartan eskuak sarthu [...] hain zinez eta batetan lothu zeizkidan, non ezetz erraiteko bide guztiak hertsiki baitzerauzkidaten” (Gero, 15).

Honako baieztapen hau egia izan ala ez<sup>267</sup>, garbi dago Axular oso hedatua zegoen topiko batez baliatu zela. Curtiusek gogoratzen duen bezala, “muchísimos son los autores medievales que aseguran escribir por mandato de alguien; las historias de la literatura suelen considerar la afirmación como moneda contante y sonante, pero por lo general no es sino un tópico” (Curtius 1976, 130) (azpimarrak gureak dira).

266 - Granadak honela zehazten zuen modestiaren azalpena: “[...] que nada digan de que puedan con razon ofenderse los oyentes: esto es, que nada digan con insolencia, nada con arrogancia, nada con descaro, nada con desvergüenza, nada injurioso, nada soez, nada chocarreramente, nada baja, nada licenciada, indecente y viciosamente; sino que todo el carácter de la oracion represente modestia, humanidad, caridad, celo de la comun salvacion, y un deseo fervoroso de la verdadera piedad. Mas esta modestia que debe resplandecer en todas las partes del sermón, señaladamente conviene á los exordios, los cuales deben ser humildes y vergonzosos” (Granada, *Retorica*, 599b).

267 - Gogora bedi, topikoaren gainera, autore batzuek Sarako Eskolaren errealtatearen frogatik ikusi dutela aipatu pasartean (ik. Urgell 1991, 909-910). Bada horretarako arrazoirik, jakina, zinez pentsa baitaiteke letren esparruan erreformistek erakutsi zituzten antolamendua eta fruituak ikusita, kontrarreformismo katolikoak ezinbesteko joko zuela euskal letren esparruko adituen barne antolamenduaren beharra etsai erlijiosoan eraginari behar bezala aurre egiteko.

Jakina, exordioaren topikari jarraikiz, Axularrek ohiko bihurtua zen beste hau ere baliatuko zuen, hots, idazlea ez dela gai gauzak ganoraz edota egokitasunez esateko dioena:

“Ordea nola ezpainintzen neure buruaz fida [...]” (Gero, 15).

Areago, ba omen da horrelako lanetarako idazlea baino gaiago eta trebeago denik ere:

“[...] anhitz izan baita orainokoan, eta baita orai ere, ni ez bezalakorik, ni baiño hunetako gaiagorik, eta anzatsuagorik[...]” (Gero, 16)

Topikoa, bada, hedatuaz joan da besteren gaitasuna handiagoa dela aitortuz, baina egin beharrekoak eginkizun jarraitzen duela adieraziz. Topos honek bestelako *topoi*-ak ekarriko ditu ondorio gisa: inoiz idatzi ez diren materiak tratatuko direla azaldu, ezinbesteko izango da egilearen parte hartzea:

“[...] ezpaitute guztiarekin ere, orainokoan, hunelako materiatan, hunela ausartziarik eta eskudantziarik hartu. Baitirudi ezen asko behar lizatekeiela arrazoin haur ene gibelatzeko eta geldi arazitzeko ere. Baiña ene kontra dela dirudien arrazoin hunek beronek, ni esportzatzen eta aitzinatzen nau, hunek bihotz emaiten deraut, haur edireiten dut nik neure alde eta fabore, zeren enseiukarrean bezala egiten diren lehenbiziko obrek eta enseiuek, zenbait huts eta falta izanagatik ere, badirudi ezen, zeren lehenak diren, barkhakizun direla, eta bat bederak disimulatuzko, ez ikhusi iduri egiteko, eta are desenkusatzeko dituela” (Gero, 16-17)

Beste topos “modernoago” bat, inprentarekin ugalduko dena hain zuzen: obra baten bigarren parte, lehenengoari egingo zaion harreraren arabera argitaratuko dela (ala ez dela argitaratuko) dioena<sup>268</sup>.

“Eta halatan hartu dut gogo, lehenbiziko parte hunen, lehenik benturatzeko, eta berri iakitera bezala aitzinerat igortzeko. Hunek zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta nor nola mintzo den, abisu eman diazadan. Gero abisu haren arauaz ethorkizunerat gobernatzeko: eta bigarren partearen kanporat atheratzeko, edo barranean gelditzeko eta estaltzeko” (Gero, 16)

### 8.3.2.3.- Bestelakoak

Oro har, ez da *Gero* bestelako topikoak erraz onar ditzakeen liburua, haren ezaugarri tematikoez eta formalek zail egiten baitute testu narratibo edo poetikoetan samurrago ager daitezkeen topoi-en presentzia: *locus amoenus* bezalakoak, adibidez. Ez da gutxiestekoa, gainera, *Gero*-k besteren hitzekin duen “dependentzia”.

Topos ezagunen artean, bukaera laburbiltzekoa eta entzule/irakurleen sentimenduetan eragiteko eta jarrera aldaraztekoa genuke. Batik bat asmo didaktikoa zeukaten obretan (eta hori baino ez da gurea bezalako aszetika liburu bat) agertu ohi zen bukaeratako topikoa. Horren arabera, honako ezaugarri hauek ohi zituen: “[...] resumir los puntos principales y dirigirse después a los sentimientos de oyente, es decir, moverle a indignación o a compasión” (Curtius 1976, 136).

Horrelako iburuak, beraz, *peroratio* batez bukatzen dira. Barnean, eta bukatzeko, *peroratio* horrek entzule/irakurleari (haien gogorari, hobe) zuzendutako *petitio* bat daramalarik, borondatea Jainkoaren itzalpean jar dezan:

<sup>268</sup> - Horietariko bat genuke gorago aipatu den Trujilloren pasarte ere (1583): “No me he dado prisa a publicarlo porque quería ver cómo era recibido el primero” (apud Olmedo 1960, cxvii)

“La petición insta al alma a modificar su conducta hacia «lo útil» y «conveniente» -loci obligados en toda deliberación” (Artaza 1988, 316).

Axularren liburuan eskaera hori “konbertsio” premiara mugatzen da, Horrezaz gain, badira zenbait kapitulu *loci* direlako horiek beste batzuk baino nabarmenago dakartzatenak. Axularren obratik hona ekar litezkeen adibideak, nagusiki kapitulu batzuen bukaeretatik hartuak lirakeke<sup>269</sup>: VIII. kap., 110 or.; XV. kap., 218 or.; XVIII. kap., 249 or., etab.

### 8.3.3.- ARGUMENTAZIOA

Tematikoki, irakurle mota nolakoa den, horren arabera aukeratuko du autoreak argumentazioa eta arrazoitzeko modua. Granadaren hitzak gogoratu:

“... es de advertir que hay dos géneros ó calidades de hombres: uno ignorante y rústico, que siempre prefiere la conveniencia á la honestidad, otro bien instruido y civilizado, que antepone á todo la dignidad. Para con este tienen mayor nervio los argumentos de lo honesto, mas para con aquel los que se toman de lo útil” (Granada, *Retórica*, 561b).

Bi gizaki mota horien artean aukeratzean (eta honekin ez dugu arazoa sinplifikatu nahi), Axularrek lehenengoaren alde egiten du nabarmenago, nahiz eta nolabaiteko oreka mantentzen ere saiatuko den. Eta aukera hori ez da bakarrrik argumentazio motetan ikusiko; liburuan barrena erabiliko diren irudi eta erreferentziak -guztientzat ulergarri gerta zitezen- beti egongo dira hurbilago “ignorante y rústico” bezala irudikatutako horiengandik besteengandik baino.

Bestalde, ezaguna da edozein diskurtso edota berbaldi suasorioren gunea den argumentazioari dagokiola demostratu nahi denaren frogatzea (mota guztietako frogak ekarriz) eta aurkako iritzien deusestapena.

Honako liburu honetan, estilo bereko guztietan bezalatsu, frogatze moduak *teknikoak* ohi dira, hots, erretorikaren bidez eratuak, eta ez erretorikaren esparrutik at daudenak. Esku artean dugun *Gero* honetan, frogatzeko modu teknikoak indukzio eta *exempla* alorreko frogetara mugatuko dira nagusiki, beraiek izango baitira, ikusiko den legez, nabarmenki gailenduko diren elementuak. Beste modu batez adierazteko, demostratu beharreko “tesiak” analogikoki frogatuko dira, normalean hurbileko mundutik jaso daitekeen esperientzian oinarrituta. Oro har, garaiko teologiaren ibilbidetik beretik abiatutako agertuko da Axularren planteamendua:

“Bajo el influjo del humanismo, la teología aspira a una nueva motivación y a un nuevo método; pasa de los argumentos racionales a los de autoridad y tradición, de la dialéctica escolástica a la investigación de fuentes, del procedimiento especulativo al «positivo»[...]. En el lugar del sistema filosófico viene a colocarse la «tópica» teológica, esto es, la ciencia, no de los argumentos generales propios para la silogística, sino de las fuentes de la fe, contenidas en la Revelación y en la tradición” (Curtius 1976, 767).

<sup>269</sup> - *Dispositio* delakoan ikusi den bezala, liburuak ez du izango konklusio orokor borobilik baino. Hori bai, izaera propioa, autonomia duten kapituluak edo kapitulu-sortek konklusio propioak erakutsiko dituzte.



### 8.3.3.1.- Argumentazio mota

Honelako lanetan erabili ohi zen arrazonamendu analogikoaren ondorioz, beraz, aipamenak eta esenpluak izango dira gaia garatzeko eta argumentatzeko Axularrek erabiliko duen formula.

Ez da lan honetako helburua indukzioaren erabilpen zehatza aztertzea, baina argigarria izan daiteke oharkizunen bat egitea argumentazioaren ildoak zeintzuk eta nolakoak diren ezagutzeko.

Oro har, Aristoleleren erretorika liburutik aurrera erabat definituta geratu ziren dialektika eta erretorikaren arteko erlazioa eta haien arteko paralelismoak. Horrela, ezaguna da dialektikan indukzioa dena erretorikan esenplua dela. Estagirakoaren hitzak parafraseatuz, metodo honek honako hau ahalbidetuko luke: "zerbait modu batekoa dela demostratzea antzeko kasu desberdinetan oinarriturik" (*Ret.*, I, 2). Kasu horietaz hornitzea esenpluei egokitu litzazieke. Eta horixe da Axularrek nagusiki egiten duena.

Adibideak esenpluak bezainbeste liratekeenez gero, ekar dezagun hona horien guztien erakusgarri den bat, eta, ikurkorrago izan dadin, lehenengo kapitulutik bertatik aterako duguna.

Axularrek "nola [...] alfekeriatik ihes egiteagatik ere behar den trabailatu" (21 or.) tesia demostratu ahal izateko -eta behin kontzeptuak argitzeko derrigorrezko iruditzen zaizkion interpretazioak jaso edo egin ondoren-, berehala joko du tesia sustatzeko ezinbestekoak diren esenplu historikoen baliabidera, gertatutako antzeko kasuetara.

Gerta liteke, alabaina, horri guztiari ere irakurleak gutxi eriztea, eta horrexegatik hain zuzen areagotuko du urdazubiarrak indukzioaren karga filosofo "desbideratu" batzuen interpretazioarekin eta, garrantzitsuago dena, naturaren lekukotasunarekin<sup>270</sup>: "Munduko gauza guztiek kondenatzen dute alferra..." (34 or.). Ondoko adibideak, Axularrek defendatzen duen tesiaren alde naturak eskaintzen dituen elementuez osatuak izango dira: eguzkia, landareak (zuhaitzak) eta animaliak (erleak eta xinaurriak).

Baina demostrazioetarako argumentazio modu orokor horrezaz gainera, erantsi behar da Axularren ibiltzeko modua ere besteren interpretazioen, irudien eta esenpluen bitartez ere burutu izan dela.

Bestalde, eta gai desberdinen garapenerako argumentatzeko mota zehatzetara jaitsiaz, eredu klasikoak erakutsiko ditu. Halaz ere, esan genezake argumentatze-garatzeko mota tipikoa dela orain aipatuko duguna. Har dezagun, esaterako, 359-360 orrialdeeta agertzen den adibide hau.

Lehenengo aipatu egiten da garatu nahi den tesia ("arrazoiña", alegia), kasu honetan *auctoritas* bat dela medio (latinez eta euskaraz)

"Halaber bigarren arrazoiña emaiten du San Jeronimok bereak lekhu berean: Quod varietate dulce est, assiduitate vilescit. (Prov. 9). Bethierekoak, higuintza emaiten du, alda nahia ekhartzen du" (*Gero*, 359)

"Nola...hala(tan)..." konparatze formulak balioko du tesiaren hedapen konkreturako, haragiaren bekatuari egokitze

<sup>270</sup> - Horrelakoetan, ezin ahaz daiteke alde zurretik onartutako entimemaerretorikoak (edo silogismo dialektikoak) daudela eta horietaz baliatzen direla predikariak ere, Honako honetan naturaren jainkozkoko prefekzioa eta eredugarritasuna onartaraztea eraman duena genuke.

Nola gizon ezkonduak bethi ere baitu bere emaztea bere eskuko, bereaz frankia, eta bertzerenez eskasia, eta eskas den gauza maitaro eta iarraikiz izaiten dena, desiratzenago eta gozoago iduritzen baita, halatan presuna ezkondua berea utzirik, bertzerenera lehiatzen da, alda nahitzen da eta handik galtzen da (359-360).

Egoeraren ondorioak "zeren..." formularen bidez arrazoituak agertuko dira: familiari "gibela eman" -> agian "errumeztu"

Zeren amorantea egiñez gero, harengana egotzen du bere gogoa, harekin gastatzeintu bere onak; handik harat bere emazteari eta harenganik izan dituen haurrei gibela emaiten deraue. Eta baldin in handiak ezpaitu, ezin dateke errumeztu gabe (360).

Konparazio baten bidez, txirotze egoerara eramango duen amorantearen izaera definituko da, elementu konparatuari ekarritakoaren ezaugarriak egotziko zaizkiolarik:

Zeren amorantea, eta guztiz amorante miaia eta eskalea, huntzadarra bezala da.

Huntzak inguratzen du zuhaitza, besarkatzen du, edoskitzen du, eta azkenean ihartzen du. Hala bada amoranteak, biphiltzen du, larrutzen du, ariman eta gorputzean ihartzen du (360).

Egoeraren balorazioa eta zeharkako exhortatioa ere, bekatu horretara inor joan ez dadin

Urrikalkizun da halakoa: eta bai amoranteaganikako haurra ere. Zeren nola ezpaita lejitimo, nola baita bastart, bort, ezkontzaz kanpoan egina, ezin mintza diteke libreki iend'artean, ezin bururik ailtza dezake: berehala lehenbiziko liskarrean, puta seme deitzen dute (360).

Tesiaren berretzailea izango den *auctoritas* biblikoa eta anplifikazio-puntua:

Hargatik erraiten du Salomonek edo haren ahotik Spiritu Sainduak: *De patre impio quaeruntur filii, quoniam propter ipsum sunt in opprobrio* (Eccli. 41). Aita gaixtoaz errenkuratzen dira semeak, zeren hura dela kausa baitira desohorezko. Seme bastartak berak ezto hobenik, baiña bere aitarenagatik ekharri behar du burua behera (360-361).

Adibide honen bitartez, aski garbi ikus daiteke Axularrek darabilen formula argumentatiboaren eskema orokorra, elementu antitetikoa barne. Ezaguna denez, Zizeronek egokiro definitutako (*De inventione* 72, 40) *argumentatio bipertita* delakoaren aurrean geundeke nabarmenkiro: "A diot zeren B" litzateke eskema orokorra. Lázaro Carreter-ek dioen bezala, "es la estructura más simple del razonamiento, la *figura del vigor*" (Lázaro Carreter 1988, 112). Gaztelerazko idazle askok bezalatsu (Guevara ospe-tsua, besteak beste), Axularrek ere gehien erabiliko duen egitura argumentatiboa izango da hau. Irakurle arruntari obra bat helarazteko planteamendu erretoriko egokiena ziurrenik.

Aipatua dugun parametro antitetikoa ere argumentazio bipertita delako horren osagarri moduan agertuko da, betiere baieztutakoa indartzeko, behar denean elementu kontrastiboak azpimarratzeko eta nolabaiteko eragozpena suposa dezaketen elementuen bidez argumentazioaren garapena lortzeko.

Planteamendu orokor honekin, Axularrek ikusmiran zuen jende xehe eta arruntaren munduko pentsamenduaren mekanismo lauak isladatzea lortzen da, obrak eskatzen zuen *aptum* edo egokitasun maila ezin aproposago bihurtzen delarik.

Beraz, arrazoitzeko oinarri-oinarriko egitura bipertita honetan "zeren" lokailu honek protagonismorik handiena eramango duen arren, esan daiteke badirela

bestelako elementu batzuk testuaren garapenarekin batera agertuko direnak eta argumentazioa sustatuko dutenak. Edonola ere, arlo sintaktikoari dagokionez, konfigurazio erraza izango da Axularren argumentazioaren ezaugarri nagusia.

Oro har, testuan barrena argumentazioa modu argi, adierazgarri eta didaktikoan egiteko premia dela medio, honelako eskema aurki daiteke hedaturik, elementu bakoitzak juntagailu edo lokailu mota bat daramalarik:

- Baieztapena: "erraiten da" eta aipamenetarako formula ezberdinak<sup>271</sup>.
- Baieztapenaren arrazoia, azalpena: "zeren..."
- Eragozpenak, kontrargumentazioa,...: "baina...", "ordea...", etab.<sup>272</sup>
- Konklusioa: "beraz...", "halatan..", etab.

Eskema honetan, ikusi den bezala, elementu guztien atzean onar daiteke bigarren mailako esplikaziorik ere, normalean "zeren" lokailua erantsirik dutela.

Alabaina, azpimarratzekoa da testuan tartekatzen diren enxepluen eta kontakizunen ezaugarri sintaktikoen artean emendiozko juntagailuak direla areagotuko direnak. Haien artean, eta ahozko hizkuntzaren erraztasunaren bide ekonomikotik abiatuz, maiz agertuko da Axularren hizkera narratiboan "eta" juntagailua.

### 8.3.3.2.- Argumentazioaren egituratze formala

Argumentazioak, ezaguna da, lotura handia du berbaldi edota diskurtsoari ematen zaion dispozizioarekin, hartantxe hartzen baitu forma erretorearen aritzeko moduak. Gorago adierazi den bezala, beraz, Gero-ren atal edo kapitulu desberdinen egitura izango da argumentazioaren garapena eta jokabidea ongien erakutsiko dituen (ikus "Kapituluen barne egitura": 7.4 atala).

### 8.3.4.- ANPLIFIKAZIOA

Argumentuetan eta aszetika arloko autoreetatik jasotako aipamenen itzulpenetan nabarmenagoa den arren<sup>273</sup>, ohiko bihurtuko da Gero-n zehar amplifikazio teknikak eurrez erabiltzea, hots, ideiak garatzeko testu gehiketarako erantzea, batik bat azpimarratu nahi duen mezua biltzen duten perpausetan. Gogokoak ditu Axularrek mezu-zabaltze horiek esaldi adierazkorretan eta irakurlearen baitara iritsi eta hunki dezaketenetan (ez horrela pasarte narratiboetan, geroago ikusiko den bezala). Horietako arrazoi bat Ongek horrela pasarte narratiboetan, geroago ikusiko den bezala).

271 - "eta San Ambrosioco dioen beçala" (25), "...emaiten du bertze arraçoïn bat... erraiten duela" (22-23), "Contatcen du Casianoc" (23), "Declaratcen du Glosac, erraiten duela" (40), "Dio Oratioc, alferrez mintzo dela" (38), "Galdeguiten du San Crisostomoc" (38), etab.

272 - Besteren ideia antitetikoak azaltzeko honako formulazio hau erantsita ager daiteke: "Ihardesten du San Thomasec, erraiten duela" (22), "Ihardesten du doctor batec" (24), "Baiña San Crisostomoc emaiten du bertze arraçoïn bat, ni narraican pontuari, hobequi hurbiltcen çaicana, erraiten duela" (22-23), etab.

273 - Honela zehazten zuen Letamendiak amplifikazioaren erabilpena itzulpenetan: "La adición por amplificación consiste fundamentalmente en la proliferación de estructuras binarias y ternarias ordenadas paralelamente, en isocolon, conforme a las rimas de las similitudines" (Letamendia 1981, 231).

gogora dakarren hartan aurki liteke ziurrenik:

"Las culturas orales estimulan la fluidez, el exceso, la verbosidad. Los retóricos llamarían a esto *copia*. Siguieron alentándola, por una especie de inadvertencia, cuando habían modulado la retórica de un arte del discurso público a un arte de la escritura. Los primeros textos escritos, a través de la Edad Media y el Renacimiento, a menudo son rellenos con la «ampliación», exasperadamente redundantes según criterios modernos" (Ong 1987, 47).

Baina, dena aitortzeko, jokabide horren azpian oratoria sakratuan hedatua zegoen printzipio bat ere aurkitzen da: "[...] es propio de la amplificación, no solo vencer al entendimiento para que crea ser la cosa máxima en su género, sino inducir también a la voluntad al amor, ó al odio, ó á otro cualquier afecto" (Granada, *Retórica*, 530b) (gureak dira azpimarrak)

Izan ere, "por este medio abrimos camino para mover las pasiones, persuadir, disuadir, alabar ó vituperar; porque para estas tres cosas principalmente conduce la razon de amplificar" (Granada, *Retórica*, 530a).

Baina amplifikazioaren kontzeptua tinkotua geratuko da testua, espero den irakurleriaren ezaugarrien arabera moldatzean:

"Pues así como los oídos eruditos gustan de la brevedad y agudeza de las sentencias, y de un estilo sucinto; así los rudos é indoctos se mueven con la copia ó abundancia de razones. A esta copia pertenece que traingamos á la causa cuanto se puede decir apta y cómodamente, según el asunto lo pidiere, y no pasemos por alto nada de cuanto sea conducente á su defensa" (Granada, *Retórica*, 611a; azpimarrak gureak dira).

Jakina, horrek, kontzeptuen ugaritasunaz gain, hiztegi aberatsa ere eskatzen du, hain zuzen ere Axularrek etengabe demostratuko duena, askotan hain kritikatu izan zen asianismotik<sup>274</sup> hurbil egotera eramaten zuena.

*Genera amplificationis* direlakoetatik Axularrek konparazioen bidez egiten direnak<sup>275</sup> eta *congeries* izenekoaren ildoko plurimenbrazioak izango ditu gogokoena<sup>276</sup>, besteak beste sinonimo eta hitz multzoen bilketari dagozkionak (ikus 11.4.3 atala). Axularren obran azpimarragarria da *commoratio una in re* bezala ezagutzen den amplifikazio modua, hots, errepikapen kontzeptuala, hizkuntz forma desberdinak erabiliz. *Incrementum* delakoaren bidez egindako amplifikazioak ez dira asko. Halere, ongi taxutuak eta efektu ederrekoak dira. Honako honetan, adibidez, nolabaiteko gradazioa izan ondoren, goren gradura iristarazten da amplifikazio-gaia (=laudorioa), idazleak areagotu baino gehiago lardaskatu egin omen dezakeenera<sup>277</sup> hain zuzen:

"Baiña zertako sartzen naiz ni itsas hondar gabe hunetan? Ezin athera naitekeien oihanean? Zure laudorioen aipamenean? Berak dira bere buruz asko gora mintzo: berak dira bere baithan asko klar eta ozen. Utz ditzadan beraz nik hek, hutsik eztagidan" (*Gero*, 6-7).

Oro har, amplifikazio-modu hauek bai esaldi eta pasarte desberdinak gehitzeko erabiltzeaz gain, kapituluak puzteko ere balio izango dute. Kapitulu asko (gehie-  
274 - Granadak dioten legez, "usaban de oraciones muy prolijas é innecesarias, y se dilataban con un vano amontonamiento de palabras" (Granada, *Retórica*, 611a).

275 - "Así el que habla de este modo, se vale de ejemplos y símiles, en cuya comparacion la cosa que quiere alzar de punto parezca la mas excelsa" (Granada, *Retórica...*, 536b).

276 - "[...] acumulación [...] de sinónimos [...] o de miembros enumerativos [...]" (Lausberg 1983, 54).

277 - "[...] es este un género de aumentar: abultar tanto una cosa, que no pueda crecer más" (Granada, *Retórica...*, 536a).

nak!) anplifikazioaren fruitua dira. Horren adibide ikusgarri bat bekatu buruzagiei eta zegokien erremedioei eskainitako hogeita sei kapituluetan aurkitzen dugu (erka bedi hori guztia, garaiko liburuetan mezu bera zabaltzeko idatzi ziren liburuetakoa tratamendu laburragoekin).

Testuaren jatorriaren arabera, bestalde, bi modukoak dira nagusiki urdazu-biarrak burututako anplifikazioak, I. eta II. eranskinetan ohar daitekeenez: batetik, pasarte aitortuetan (hots, aipamen zuzenetan, latinez daudenetan alegia) itzulpen hutsa baino gehiago diren anplifikazio erredundante xamarrek egin ohi ditu<sup>278</sup>. Bestetik, aitortu gabeko testuak darabiltzanean askatasun gehiagorekin jokatzeko Axularrek, moldaketak edo itzulpen gisakoak ez ohi dira hain zuzenak eta berdin lotzen ditu pasarte desberdinetako atalak lerro beretsuetan, modernoagoak diren fitxa sistemen antzera hain zuzen, testu batetik zati zenbait jaso ondoren, nahi bezala antolatuta eta emanda baitirudite, beharrezkoak diren jostura-pasarteak tartekaturik. Edozein modutan, ez leudeke perifrasiatik zein parafrasi interpretatiboetatik urrunegi, bietakoak erabiltzen baititu urdazu-biarrak normalean esanahia ulertarazteko.

Ildo horretatik, sermoiak prestatzeko ohiko teknikaren aurrean gaudela esan liteke, izan ere, predikariak, argumentuak bilatu ondoren, elementu eta iruzkin propioak tartekatu behar izaten baitzituen gaia bideratzeko aukeratutako pasartearen artean. Axularrek, esaterako, horrelako zerbait egiten du hamaikagarren kapituluaren 4. atala tartekaturik dago iruzkin gisa, 3 eta 5. atalaren inspirazio-iturriak Granadaren *Guía* -n jarraian dauden bitartean (*Guía*, 105a; *Gero* 145-146; ikus I. eranskina). Beraz, testu bat "txikitu" ondoren, Axularrek beste berri bat osatzeko erabiltzen du, tartean bestelakoak (propioak zein besterenak) ezarriko dituelarik.

Modu berean, XII. kapituluaren 2. ataleko aipamenei jarraiki (*Gero*, 159-163 or.), garbi azaltzen da Senekaren lehen epistola aprobetxatzen duela Axularrek, diskurtsorik gehiena tartekaturik uzten delarik.

Horrelako zenbaitetan, *digressio* moduko irudi baten aurrean aurkitzen garaela esan liteke. "esta figura ha de ser muy rara" (Terrones del Caño, *Instrucción...*, 142 or.), eta beti ere ondo neurtua. Halere, digresioa luze ateratzen bada, harira itzultzeko diskulpatu egin behar da.

Azpimarratzekoa da Axularrek darabiltzan anplifikazio teknika hauek lotura handia dutela liburuaren aukeratutako generoarekin, suasioarekin alegia. Genero honek bereziki eskatzen du anplifikazioaren etengabeko erabilera, erretorikaz arduratu ziren tratadistek aholkatzen zuten bezala:

"... en este género parece deberse principalmente aconsejar, que [...] amplifiquemos cuanto nos sea posible los bienes y los males, las comodidades é incomodidades que proponemos en este asunto para persuadir ó disuadir. Porque cuanto mas las abultáremos, tanto con mayor vehemencia persuadirémos" (Granada, *Retórica...*, 561b)

<sup>278</sup> - Itzulpen eta moldaketetan antzematen diren gehikuntzek, Mitxelenak dioten bezala, Axularrenak dirudite: "La amplificación hay que cargarla en cuenta, sin duda, de Axular. Es bien sabido, en efecto, que éste nunca vierte uno de los muchos textos latinos que aduce en otras tantas palabras: el texto es siempre pretexto para una especie de glos o comentario que lo alarga y desmenuza para dejar al descubierto todas sus implicaciones. Esto nunca se convierte en una pura exhibición - aunque, por libre que estuviese de vanidades mundana, difícilmente pudo Axular dejar de darse cuenta de su hábil maestría en este ejercicio retórico-, sino que tiene muy en cuenta la capacidad y necesidades de sus posibles lectores. Pero, sea por lo que fuere, el hecho es que parafrasea más bien que traduce" (Mitxelena 1971, 167).

Bitxikeria gisara, liburuan zehar agertzen diren tartekatze eta digresioetako batzuetan gero harira itzulteko arazoak sortzen dituztenak ere badira. Bestetan, aldiz, Axularrek berak aitortuko du interesgarria dela horretaz baliatzea zerbait komentatzeko. Adierazgarria da zeharo 56. orrialdean horrelako batean barneratzeko darabilen formula:

"Baiña iragaitzaz bezala, gure heriotzera kondenaturik egoiteko puntu haur ukhi dezadan" (*Gero*, 56) (azpimarrak gureak dira).

### 8.3.5.- TESTUEN ITZULPEN-MOLDAKETAK

Ezaguna da Axularren itzulpen-moldaketei buruz esan izan direnak: laudioak gehienbat, baina laudorio funtsatuak, haren bertsiok euskararen zaporea galtzen ez dutelako. Hona hemen *Gero* sakon baino sakonago ezagutzen duen Villasantek dioena:

La doctrina que él debe enseñar ha sido vaciada y expresada en lenguas sabias muy distintas del euskara. ¿Cómo verterla a esta lengua? Es un problema serio, un obstáculo ante el que se descorazonaban y fracasaban muchos. Axular cree haber descubierto el camino: no atarse a la materialidad de los términos y construcciones de la lengua extraña, y coger el meollo o contenido y expresarlo con las categorías y giros usuales con los que se expresa habitualmente el euskaldun, el vasco parlante. Así, y por eso nos ha ofrecido tantas traducciones modélicas, por así decirlo, en su libro (Villasante 1974a, 31)

Egia esan, obraren oso zati garrantzitsua osatzen duten iturri moduko testuak (biblikoak zein bestelakoak) txertatzerakoan Axular tratamendu desberdinez baliatuko da, eta burutuko dituen moldaketak erretorika klasikoaren ohiko bideetatik joango dira beti.

Horietan guztietan, ezaugarri bezala aitortu behar da saratarra bai mezua eta bai mezuaren forma "etxekotzen" saiatu zela normalean, irakurleentzat egokiago egiten azken finean (*aptum* delakoaren ildotik). Ildo horretatik, Intxauspek nabarmentzen zuen ezaugarria testu guztiari zabal lekiok zurrerarik:

"Harc euscara euscaraz mintçatu du eta esquiribatu; euscara garbia mintçatcen den toquietan, Zugarramurdin bere sor lekhuian, eta Saran bere erretorian, erraiten den beçala" (Inchauspe 1864, x or.) (azpimarrak gureak dira).

Agerian da, baina, "etxekotze" lan horretan arrakasta handia izan zuen arren, sarritan hizkuntz kalkoak eta bestelako antz asko ere atzematen direla iturri bide ziren haiekin erkatuz gero.

#### 8.3.5.1.- Itzulpenak

Itzulpeni gagozkielarik -eta horretarako aipamenak eta kidetasunak azaldu diren ataletara jo daiteke-, Axularrek hizkuntzaren sena gordetzera joko du etengabe. Villasantek behiala zioen bezala, "esta traducción está hecha con tal galanura, genio vasco y aproximación al *ethos* del euskaldun concreto que él conocía, que no puede menos de cautivar y admirar" (Villasante 1974a, 31).

Halaz ere, jokabide horrek bazuen erretorika-liburuaren oinarri eta aholku teorikorik ere, beste hizkuntzetatik karriatutakoa ahalik egokien itzul zezaten euren hizkuntzetara aholkatzen baitzitzaien predikariei. Hemen ere Granadarena dugu erreferentziarik aproposena:

“[...] debe también mirarse que las sentencias que trajéremos ó de las sagradas letras, ó de los santos padres, de tal suerte las interpretemos, que conservando fiel é íntegramente el sentido de las sentencias, las virtamos con tan propio y agraciado estilo en nuestra lengua, que no parezcan traducidas de la latina, sino nacidas en la nuestra” (Granada, *Retórica*, 566a) (azpimarrak gureak dira).

Izan ere, hizkuntzaren erabilpen-moduari eman behar zitzaion garrantzia handia izan behar zuen predikazioek eta honelako liburuek helburua erdieste nahi bazen.

Granadak berak abisatzen du hor egiten diren akatsak handiak izan ohi direla:

“unos vierten los testimonios latinos de modo que guardan la propiedad de la lengua latina, y así quitan gran parte de gracia á las sentencias. Porque como cada lengua tenga su propio dialecto y modos de hablar, la habilidad y perfeccion de un traductor es convertir las propiedades de la lengua latina en las de otra lengua, que tengan igual valor. Otros, por huir de este defecto, gastan una ricícula retórica, y deleitándose en un estilo pomposo y redundante, ni conservan la gravedad ni la verdad de la sentencia que alegaron” (Granada, *Retórica*, 566a).

Oro har, beraz, itzulpentzat har daitezkeen testuetan Axularrek ohiko jokabidea erakutsiko du, guztietatik nabarmenena agian interpolazioen teknika izango delarik.

Interpolazio edo tartekatze horiek azalpen funtzioa duen hitz batez edo hitz sorta batez eginak izan daitezke. Zenbaitetan, dena den, pasarte luzeagoak ere aurkitzen dira bertan, gehienetan esandakoa argitzeko asmoarekin eginak. Edonola ere, Letamendiak gogoratzen duen bezala, “su conducta ante la cita latina puede variar desde un empleo como mero ornato, en que prácticamente ni la traduce, hasta detenerse en consideraciones gramaticales y etimológicas de ciertos términos latinos” (Letamendia 1981, 231).

Baina aipamenen itzulpenak alboratuz, garbi dago Axularrek maisutasunez darabilela bestelako testuak orokorrean itzultzeko teknika, jatorrizkoa iragazita eta moldaturik ematen baitu gehienetan. Batzuetan, alabaina katiximetako itzulpenetako eredu bortxatuaren inpresioa geratzen zaion irakurleari:

“Nola aditzen da bada haur?”

Aditzen da, galduak goazilla, ez zeren ikhusten dugun iguzki hunek egiten duen arratsaldean itzala handiago eta luzeago, baina zeren gure arratsaldean, zahartzean, adina irauliaz eta behehituaz dohanean eta dihoakunean [...]; hargatik erraiten du galduak goazilla” (Gero, 192-193).

Edonola ere, erdarazko bertsioa euskaratzerakoan euskal eredu gailentzen da nabarmenki, “jatortasuna” edo hizkuntzaren sena agerian utzirik. Ondoko adibidean, esate baterako, begi bistakoa da hori:

“Porque con el pecado se oscurece el entendimiento, [...] y se debilita más el libre albedrío, y se hace menos señor de sí y de sus obras” (Granada, *Guía*, 92b) (azpimarrak gureak dira)

Axularrek badaki euskaraz “menos señor de sí” esateko modurik ez dagoela eta erkaketari buelta ematen dio, pertsonaia berri bat sartuz baina esanahia mantenduz eta, nahi bada, aurkezten duen irudi praktikoa argiago eta bortitzago utziz:

“Hanbatenez deabrua jaunago eta nabusiago” (Gero, 83) (azpimarrak gureak dira)

Bestalde, bada azpimarratu nahi genukeen puntu bat ere. Testuetan nolabait teko maila narratibo-deskriptiboa ageri denean, badirudi Axularrek zuzen eta hitzez-hitz itzultzen duela jatorrizko testua, begien aurrean izan bide duena alegia. Aldiz, afektuen

hunkipenarekin zerikusia duten pasarteak badira, anplifikazio-teknikak hasten dira funtzionatzen. Ez dugu, tamalez, lehenengoetariko horien (testu deskriptibo-narratibo) adibide askorik Gero-n, are gutxiago horien artean jatorrizko testua identifikatuta ditugunetatik<sup>279</sup>. Halere, ondoko adibide honek argiago utz lezake hemen esaten ari garena.

San Martinen enxeplua ematen denean, alboan ez da inolako erreferentziarik ematen, ez eta Jainkoaren hitzak testualki latinez transkribatzean ere. Garbi dago, dena den, nonbaitetik hartua dela:

Iondone Marthiek bere kaparen erdia probeari eman zioenean abiatu zen lainkoa gau hartan berean, kapa hartaz estalirik, erraiten zuela sendagaillaz: *Martinus, hac me veste contextit*. (Gero, 226-227).

Alabaina, eta hauxe da azpimarratu nahi genuena, pasarte agertzen den narrazio zatiak, Axularren sormenak egoki zezakeenak hain zuzen, badu hitzez-hitzezko paralelorik literatura erlijiosoan, urdazubiarraren joera ezin garbikiago adierazten diguna:

Cum enim pallium medium egeno partitus fuisset, apparuit ei Christus in nocte, eadem veste inductus, dicens: Martinus adhuc catechumenus hac me veste contextit<sup>280</sup>.

Nabarmenezko modukoa da Axularrek daraman jokabide honek batzuetan lortu izan duen arrakasta, itzulpena erabat “etxekotua” bihurtzeraino hain zuzen<sup>281</sup>. Horren adibide moduko bat izan liteke betidanik euskal erretrau edo atsotitz bezala hartua izan den honako hau: “Dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen” (38 or.). Horren jatorria Axularrek zeharka baino ezagutzen ez bide zuen Publio Siro-ren *Sententziak* liburuan izango genuke, inondik ere<sup>282</sup>.

### 8.3.5.2.- Testu-ezabaketak

Iturri izan bide ziren aipatu testu horiek direla eta, ezin ahaz daiteke urdazubiarrak egiten zituen testu-ezabaketak. Ezabaketa hitza bi adieratan hartu nahi genuke. Perpaus edo hitzen bat jatorrizko testutik espreski ezabatzen denean litzateke lehen adiera. Horrelakoak ezabatzen dituen testua formarik neutroenean uzteko izan ohi da. Horietariko adibide harrigarri bat “Padre Eterno” ezabatzen duenean izan dezakegu:

“Pues ¿qué mayor locura que disponer un hombre por su autoridad lo que ha de ser adelante, como si tuviese en su mano la presidencia de los tiempos y momentos que el Padre Eterno tiene puestos en su poder?” (Granada, *Guía*, 92a).

279 - Ikus bitez eranskinetako testu-paralelismoak eta gorago emandako adibideak ere: Gero, 380-381, etab.

280 - Hildebertus Cenomanensis: *Sermones*, Migne: *Patrologia Latina* (PLD).

281 - Jakina, ez genuke hemen inolaz ere ahaztu nahi behiala Mitxelena Urkijori egindako kritika: “Una cosa es que muchos de estos proverbios -la mayoría si se quiere- tengan correspondencia precisa en lenguas vecinas y otra muy distinta que su editor haya sido, como él [Urkijo] se inclinaba a pensar, un traductor que, al menos en bastantes casos, se limitaba a fundir materia ajena en moldes propios. Esto es algo que un lingüista iniciado en la historia de la lengua vasca no podrá aceptar, sobre todo cuando ve que el traductor -es decir, el supuesto traductor de izquierda a derecha, de vascuence en romance- ya no es capaz de entender el texto vasco” (Mitxelena 1971, 166).

282 - “Piedra que rueda, no cría musgo” (*Sentencias* liburuan, eranskin gisa eta bestelako erreferentziarik gabe in Aulo Gelio-ren *Noches áticas*, Madrid, 1921, 326 or.).

Pasarte honela emango du Axularrek (jatorrizko testuaren inolako erreferentziarik gabe, jakina):

Zeren zer da erhokeria handiagorik, geroko denboraz, bertzeren eskuan eta benturaz dagoenaz, bere eskuan eta segurean baillu bezala ordenatzea baino? (*Gero*, 76)

Bigarren ezabatze-modua jatorrizko testuan zatiren bat espreski bazterten denean gertatuko litzateke. Hau da, esaterako, gorago aipatu den adibidearen kasua. Gutxienez Granadaren liburu bitan agertzen den "Remedios contra la pereza" izeneko kapitulu batetik hartua bide du Axularrek 34-37 orrialdeetarako materiala. Alabaina, kidetasuna nabarmena bada ere, kapitulu horretan dagoen lehenengo erremedioaren aztarnarik ez da agertzen Axularrenean, hain zuzen ere Kristo, apostolu eta aita sailduen buruz kontsideratzea aholkatzen duena<sup>283</sup>.

Ezabaketa hauek oinarri gehiago eskainiko ligukete Axularrek liburuari duen izaera pragmatikoa areagotu nahi izan ziola baieztatuzko, elementu horiek, liburu guztia orokorrean hartuta, ez baitirudite gabezia doktrinalen edota sinesmen dibergente baten ondorio. Ildo horretatik, "gabezia zenbait ulertzeko" atalean esandakoa baieztatu baino ez lukete egingo, beraz.

### 8.3.5.3.- Laburpenak eta testu-eraketak

Aipatu ezabaketa mota hauetatik hurbil, laburpen-tzat har daitezkeen pasarteak ere egin ohi ditu Axularrek. Jatorrizko testuan modu zabalean adierazitakoa, Axularrek hitz gutxitan ematen du maiz, gogoan duen irakurleari testua zail eta korapilatsu gerta ez dakion nonbait.

Adibideek garbi adierazten dute estilo sutsu-garaia duten pasarteetan, esate baterako, Axularrek estiloa apaldu egiten zuela eta hizkuntz maila erraztu, espero zuen irakurleari egokituz. Horrela, perpaus multzoak ere laburtu egiten zituen mezuak behar zituenerara. Hortik aurrera, behin pasartearen muina isolatuz gero, Axularrek bere tratamendu anplifikatzailea aplikatu ziezaiokeen testuari, itxura berri bat emanez (ikus I. eranskineko kidetasunak, besteak beste LVII. eta LVIII. kapituluetakoa).

Erraz burutzen ditu Axularrek testu eraketa berriak, hots, inoren testu bat moldatu nahi duenaren erreferentzia orokor gisa hartuta, beste autore baten pasarteak tartekatzea, testuari jarraipena eta osotasuna emanez. Normalean *exenpluak* tartekatuz egin ohi ditu osaketok urdazubiarrak. Horren adibide nabarmena *Gero* XVII. kap., 239 orrian gertatzen dena litzateke. Hango hartan, orrialdean garatzen ari den mezuaren haria Granadarena bide da, baina testua historia konkretu edo *exenplu* batez argitu dezakeela ikusten duenean, beste baten obrara jotzen du. Santa Luziaren *exenplua*, esaterako, Surioren obraren bitartez osatu bide da.

### 8.3.5.4.- Bestelakoak

Axularrek, orduko eta oraingo idazle gehienek bezalaxe, erraz asko atzeman daitezkeen bestelako erak erabiltzen zituen testuaren osaketarako. Batzuk baino ez aipatzearren, hona hemen ezagunenetarikoak.

<sup>283</sup> - Gorago adierazi da kontsiderazio mota hori, hots, izpiritualegia edota ez oso pragmatikoa iruditzen zitzaiola berriaz baztertua izan ohi dela Axularren planteamenduan.

Askotan inon aurkitutako gai edo ideia batez baliatuko da kapitulu(k) garatzen joateko. Esate baterako, "haragiaren bekatutik begiratzeko zazpigarren erremedioa" delakoaren hasieran, Granadan aurkitzen duen/dugun "portale"-aren irudiak balioko dio hurrengo kapitulu batzuen sarrera ere erredaktatzeko (ik. 41-42-43 kap.). Areago, antz gehiago izango dute jatorrizko ereduarekin geroago idatziek eta tematikoki urruntzen joan direnek, hau da, urdazubiarrak Granadaren testuan aurkitutakoa moldatua emango du puntu komun hori tratatzean eta askoz ere gehiago imitatuko du Granadakoaren eskema, jatorrizko puntutik aldentuz, beste bat tratatzen duenean (ik. eranskina).

Ildo horretatik, beraz, ohiko bihurtuko da materialeak bildu eta berriro antolatzearena. Ikus, adibidez, "mihiaz" mintzatzen denean (395-hk.), nola bereizten eta, aldi berean, nahasten dituen kapitulu berean mintzatzeko arazoa eta gularena (396 or.).

Berreraketa teknika horiek aski ondo ikus daitezke XI. kapituluan. Sermoiak prestatzerakoan bezalatsu, predikariak elementu eta iruzkin propioak tartekatu behar izaten zituen gaia bideratzeko aukeratutako pasarteetan. Axularrek, esaterako, horrelako zerbait egiten uste du aipatu kapituluan: 4. atala tartekaturik dago iruzkin gisa, 3. eta 5. atalaren inspirazio-iturriak Granadaren *Guía* -n jarraian dauden bitartean (Granada, *Guía*, 105a; *Gero* 145-146; ikus I. eranskina). Beraz, testu bat "txikitu" ondoren, Axularrek beste berri bat osatzeko erabiltzen du, tartean bestelakoak (propioak zein besterenak) ezarriko dituelarik.

Esan, bukatzeko, zenbaitetan beste liburu eta egile batzuen eraginaren susmoa hartzen zaiola Axularrenari, baina arazoa ez dela batere gardena, gorago aipatu den *fondo komun* horretatik edoskitakoa izan baitaiteke gurearen planteamendua, ideia edota esaldia. 402. orrialdeko atalaren sarrerak, esaterako, Granadaren *Memorial* liburuaren 216b-217a plametakoa inpresioa uzten badu ere, ezin gauza gehiegi baieztatu daiteke, ez bada 403. orrian dagoen "okhasino bekhatu eragiteko" horrek Granadaren "ocasiones de pecados" (Granada, *Memorial*, 217a) delakoaren pareko zuzena dirudiela.

Oro har, teknika klasiko horiek direla eta, argi esan genezake liburu hone-tako kapitulu askotan agertzen dela beste autoreren baten obra-zatirik (nahiz eta sarritan identifikatugabe egon). Halaz ere, guztietan antzematen da urdazubiarraren jostura edo berreraketa teknika pertsonala, maiz asko testu "txikitu"-ari antolamendu kuasi-kiastikoa aplikatzen zaiolarik (hasierakoa bukaeran eta alderantziz).

## 8.3.6.- ARGUMENTAZIO-BALIABIDEAK

### 8.3.6.1.- Exenpluak

Doktrinalki "ratiocinatio"-aren bidezko argumentazioak buruhaustek ekar zitzakeen neurrian (gaizki ulertuak-eta irakurle-entzuleen eta, askotan, predikarien beraien prestakuntza maila eskasagatik, etab.), *exenpluak* eurrez zerabiltzan formula inductibo-analogikoak -eta honekin ez dugu aipamenen garrantzia inolaz ere gutxietsi nahi, baina *exenpluena* grafikoagoa da hemen adierazi nahi dugunerako- mezua ortodoxia teologiko-doktrinalaren barnean mantentzea ziurtatzen zuen.

*Exenplua* egiakotzat hartutako gertaera baten azalpena da, haren xedea ber-baldian baieztan den proposizioaren egia unibertsala adibide zehatz eta praktikoa batera

biltzea baino ez delarik. *Exemplum*-ak, finean, transmititu nahi zen egia hori zalantzarik gabeko eredu praktikoa eta hurbiletan gauzatua aurkeztea bilatzen zuen (Brémond, Le Goff eta Schmitt 1982).

Axularren obran agertzen den esenplu sorta handia, besteak beste, horren guztiaren adibide garbia genuke.

Halaber, esenpluen ezaugarri horiek guztiek erakusten duten izaera horretan, zinez baieztatu daiteke gorago aipatu argumentazio "bipertita" delakoari *a posteriori* izenekoa erantsi dakiokela Axularren argumentatzeko moduaren ezaugarri bezala, gertaeren eta esenpluen bidez burutzen den argumentazioa hain zuzen<sup>284</sup>. Jakina, argumentazio mota honen funtzioa erabat proiektiboa da, berbaldiaren pautak eta jokamolde moral gisa, iraganaren esperientzia ereduari antzera aritzea aldarrikatzen baitu. Ildo horretatik, Axularren liburuaren izenburuarekin bat egingo luke planteamendu horrek.

Erabilpenaren ezaugarri gogozkielarik, Axularren *exemplum*-ak eskaintzen duen abantaila andana izango litzateke doktrinalki eta literarioki ohargarriena. Izan ere, oso laburrak dira normalean eta egiantzekotasun handikoak. Horrekin batera, fede eta doktrina arloan *auctoritas* delako baten babesa daukan neurrian, erantzun ezinezkoa bihurtzen da hartan esaten dena. Bestalde, zentzuari dagokionez, unibokoak direla esan daiteke, hots, ez dutela adierazten dutena baino irakurketa gehiago, irakurketa bakarria dutela azken finean.

Urdazubiarraren esklusibotasuneko ez den arren, Axularrek eskaintzen dituen esenpluen ezaugarri handiena, alabaina, agian bere ahozko izaera da. Beharbada erretorika klasiko guztian ohi den bezala, gurean ere ahozketasunarekiko lotura handia markatzen duen elementua da hau. *Gero* bezalako aszetika liburuetan tartekaturik edo liburu berezietan argitaratuta, esenpluak jende xeheak jasoko dituen kontakizunak dira, handik aurrera ahoz aho ibiliko direnak, "tradizionalizazio" prozesu batera makurtuz<sup>285</sup>. Cuevas dioen legez, "sus autores hacen lo posible por convertirlos en materia de conversación, para que, por vía oral, lleven su mensaje religioso a todo tipo de personas" (Cuevas 1989, 74-75). Ildo horretatik, predikari edo idazle erlijiosoari interesatzen zaiona alderdi moral eta dogmatiko garrantzitsuenak modurik eraginkorrenean bideratzea da. Prozesu honetan, "ahozketasunaren faktorea" bitarteko bat baino ez da izango.

Oro har, beraz, Axularren planteamendu erretorikoa baloratzeko orduan, bat egin liteke Cerdanek predikari eta sermoien ahozketasunari buruz luzatzen duen baieztapenarekin: "Es evidente que el predicador, al intercalar en su sermón un *exemplum*, adoptaba plenamente la postura y las técnicas del arte verbal" (Cerdan 1988, 63)<sup>286</sup>. Are gehiago, bestelako "herri-elementu" zenbaitekin uztartzen bada, Axularren kasuan gertatzen den bezala.

Horrelako adibide edota ereduarekin, jendearen identifikazioa bilatzen zen<sup>287</sup>

284 - "El argumento *a posteriori* consiste en tomar ejemplos, hechos, casos concretos y vívidos, fragmentos de realidad, experiencias, anécdotas" (Guitton 1981, 111).

285 - Aberatsa da Euskal Literatura "tradizionalizaturiko" elementu horietan. Gogoratu baino ez ahozko tradizioan eta baladetan bereziki geratu diren esenplu-erreferentziak eta irudiak: Santa Klara, etab.

286 - Beherago ikusiko den bezala, teknika horien artean ez dira gutxieneakoak estrategia linguistikoak, besteak beste horrelako narrazioetan erabiltzen ziren egitura sintaktiko sinpleak (emendiozko juntagailuak, juntagailu aurkariak antitesiak areagotzeko, etab.).

287 - Esenpluak, gorago oinarrituak den bezala, ereduari antzera aritzea, erakargarritasunaren faktorea ere erantsen zioten liburuari.

eta, aldi berean, zabaldu nahi ziren mezuak egoera edo pertsonaia batzuen inguruan uztartzea. Horrez gain, esenplu ahozko kulturetan mintzagai bihurtzen da -errepikatua izatera kondenatutako mintzagaia, alegia- eta nolabaiteko iraunkortasuna hartzen du giza-taldean, mezu-zabaltzaileak (predikari edo idazleak) nahi izaten zuen efektua lortuta geratzen zelarik. Ikusi den bezala, Axularren planteamenduan nabarmena baino nabarmenago da hori guztia.

Ildo honetatik, ezin ahaz daiteke narrazioek ahozko kulturetan izan zuten balio handia, hau da, munduaren eta baloreen konfiguratzailerak izatera iritsiko zena, pentsamendua batzeko eta koherente egiteko balioa. Esenplu bezala agertuko diren narrazio motzak ere izaera horren areagotzera etorriko dira errepikatua izateko ezaugarriarik hain zuzen. Chartierren hitzak gogoratu,

"La frecuentación intensa de los mismos textos leídos y releídos modela los espíritus habituados a las mismas referencias, habitados por las mismas citas" (Chartier 1993, 163).

### 8.3.6.2.- Sententziak, atsotitzak eta beste

Axularrek tartekatzen dituen atsotitzak, aforismoak, sententziak eta antzeko formulak esenpluak baino askoz ere motzagoak izango dira baina mezuaren iraunkortasuna ziurtatuko dute euren errepikatua izateko erraztasunagatik eta izaera formulistikoa dela medio.

Historikoki ez dakigu noraino baieztatu daitekeen gure artean erasmismoaren eta humanismoaren eragina ohiko sententzien erabilpenarekin<sup>288</sup>. Dena den, badirudi kultur eta erlijio-tradizio horiei eskerrak antzematen dela euskal letren esparruan erlaxazio nimoño bat Trentokoaz geroztik sortutako giro hertsia eta kontrolatzailearen barruan. Egia da, era berean, gaztelaren eremuan erasmismoari dagokiola neurri handi batean aldaketa horren arrazoia eta errefrauen erabilpenaren areagotzea.

Definizioz, sententzia "oracion tomada de la vida, la cual manifiesta brevemente lo que hay ó lo que conviene haber en la vida" (Granada, *Retórica*, 525a) litzateke. Hitz generiko horrek mota ezberdinetako elementuak adierazten ditu: maximak, aforismoak, ... eta, nola ez, atsotitz edo errefrau gisakoak, hau da, herri jakituriaren kondenatzaile moduko "erranak".

Funtzionalki, ohiko oradorekin gertatzen ez zen bezala, oratoria sakratuaren esparruan aritu behar zutenek maiz asko erabiltzen zituzten sententziak errealitatearekiko egokitzapena egin ahal izateko eta, bereziki, azturak eraberritzeko, horrelako esaldiak iltzaturik bezala geratzen baitziren irakurle-entzuleen oroimenean<sup>289</sup>. Baina ez zen hori erabilpenaren zio bakarria; bazegoen bestelako arrazoirik ere, zeren eta, zabaldua zenez, "las buenas sentencias daban autoridad a la doctrina, ornato al sermón y prestigio al orador" (Herrero Salgado 1993b, 292).

288 - Ezagunak dira, esaterako, Erasmoren zaletasuna eta itzulpenak, besteak beste, gero aipatuko den Publio Sirorenak ituli eta erabili baitzituen.

289 - "Pero el predicador, como no entiende en defender causas, sino en reformar las costumbres de los hombres, usa principalmente de estas dos virtudes de la oracion; y esto en tanto grado, que las exposiciones de los Santos Evangelios principalmente consisten en esto, para que cuando la ocasion lo pida, saquemos sentencias y epifonemas, con las cuales enderecemos las costumbres y la vida de los hombres" (Granada, *Retórica*, 525a).

Halere, erretorika eklesiastikoaren prezeptibaz arduratu zirenek etengabe jokatu zuten gehiegizko erabileraren aurka, sententziak ere egokiro eta zuhurtziaz erabilitzeko beharra azpimarratzen baitzuten.

Sententziak predikariak asmatuak izan bazitezkeen ere, liburuetan jasota koetara jotzen zenean, itzulpen egokiaren premia agerian uzten zen berehala, irakurle eta entzuleen mailara egokitzearena hain zuzen. Hori antzemango da, adibidez, Axularrek Bibliako *Esaera Zaharrak* liburutik jasotakoetan.

Baina irakurleei hurbilagotik edo aritzeko beharrak eta garaiko literaturan azaleratzen hasia den erlazio antzekoak gurean joera herritarrago bat ahalbidetzen duela dirudi. Ildo horretatik, Axularrek lasai asko erabiltzen ditu tradizio herrikoian txertaturik dauden elementuak, hala nola esakerak eta erretrauk.

Kintilianok *gnomas* deitutako hauek, bestalde, oso garrantzitsutzat zituzten zenbait erretorek. Granadak, adibidez, honela dio: “debe abundar el predicador en su lengua” (Granada, *Retórica*, 525b; azpimarrak gureak dira), hots, behar eta ahal den guztietan erabili eta beti bere hizkuntzatik eta mezu-hartzaileen hizkuntzatik zuzenean jasota.

Jakina, herri jakituriaren elementua den heinean (eskupilatuegia edota anfibologikoak zenbaitetan), erretoreak -eta zer esanik ez predikariak edo aszetikako idazleak- ongi bereizten eta aukeratzen jakin behar zuen diskurtsoak huts egin ez zezan, sententzia guztiak ez baitziren eginkizun horietarako egokiak.

Axularrek biziki ongi erakutsiko du hautatzeko eta erabiltzeko trebetasuna, darabiltzan erreferentzia kulturalak batzuetan gaztelaren esparrukoak diruditen arren.

Testuan barrena isuritako esaerak eta atsotitzak (edo behintzat guk horrelakotzat ditugunak) bi modutara eman ohi ditu Axularrek: batzuetan zuzenean testuan tartekatutako eta bestetan “erran komuna da” edo antzeko formularen bat erabiliz. Lehenengoek herri mentalitatean sustraituagoak dirudite bigarrenek baino, azken hauek normalean liburuetatik edo inoren *auctoritas* jasoak bailiren ematen baititu. Edozein modutan, multzo bietan atzematzen dira beste hizkuntzetako enragina.

“Erran komun” bezala agertzen diren sententzien artean interesgarrienak edo aipatzekotan, honako hauek ekar litezke:

“Erran komuna da ifernua desira onez bethea dagoela” (*Gero*, 49)<sup>290</sup>

“Erraiten ohi da: Nagientzat eta alferrentzat egun guztiak dira besta” (49)<sup>291</sup>

“Eztaquiçu, erran komuna den beçala, eztela heriotcea beçain gauça seguric, eta orena noiz içanen den beçain guti guerthuric?” (55)

“Comunzqui ahotan dabillan solhasa da. Eztugu gueroco segurantçaric, bethi gara periletan” (59)

“Fin gaitz eguinen duc choria, baldin gaztedanic azpadaguic cafia” (178 or.)

“Hura da, hurran hurran erran komuna den bezala: usoak ioan, sareak heda” (236)

“nola erran komuna den bezala, otsoak ian baitezake ardi kontatuetarik” (242)<sup>292</sup>

“Zeren erran komuna den bezala, otharre bat egiten duenak egin ditzake ehun ere” (266)<sup>293</sup>

290 - Gaztelaraz ere bada horrelakorik: “El infierno está lleno de buenos deseos” (Campos eta Barella 1995, 194).

291 - Latinetik hartutako baten itzulpena da bertan ikusten den bezala: Ignavis semper sunt feriae.

292 - Gaztelarazkoa Santillanako Markesak, Juan Valdesek eta Mateo Alemanek darabilte: “De lo contado come el lobo” (ik. Campos eta Barella 1995, 206).

293 - Gaztelaraz: “Quien hace un cesto, hará ciento”, Juan de Valdesek erabilia: *Diálogo de la Lengua*, 1535 (ik. Campos eta Barella 1995, 95)

“Gezur bat erraiten duenak, baderrake gehiago ere” (266)

“Zeren erran komuna den bezala, ikhusten eztuen begiak eztu miñik” (290)<sup>294</sup>

“Zeren erran komuna da, gezurrak zaiñak labur dituela” (514)<sup>295</sup>

“Erran komuna da, ezpatak ezpata sar arazitzen duela maginan” (570).

“Erran komuna da (...) eztiaziola nehork ere nehori, hanbat kalte eta bidegabe egin, nola berak bere buruari” (620)

Bestalde, badira “erran komunak” direla adierazi gabe Axularrek testuraten dituen sententziak ere. Hona hemen horietako batzuk:

Ezta konzientzia gaixtoaren egitekoak eta penak baiño pena handiagorik (429)<sup>296</sup>

*Quid est autem turpius quam senex vivere incipiens?*, dio halaber Senekak (Senec. epis. 13). Zer da gauza itsusiagorik, bizitzen hasten den zaharra baiño? (187)<sup>297</sup>

Iokoa ezta errenta (68)

Fin gaitz eginen duk xoria, baldin gaztedanic ezpadagik kafia (178)

Ezinak eztu legerik (243)

Eztu nehork iragan den uretik hartzen (156)<sup>298</sup>

No zen tho, emaztea gizon, oiloa oilar (343)

Gaitz da [...] errotan irinik ez lotzea (481)

Okher hobe, itsu baiño (347)

Egur hezeak egiten du gar, eta egiten du nigar (501)

Paralelismoaz baliaturik, honelakoak burutuko ditu Axularrek:

Dabillan harriari, etzaika goroldiorik lotzen (38)<sup>299</sup>

Ur irakinean eztu uliak pausatzen (38)<sup>300</sup>

Ardurako arropari, etzaika zerrenik egiten (38)

Zuhaitz bethakorra, eztu nehork ebakitzen (38)

Nahi eztuenak erraizunik, eztemala okhasinorik (403)

Nahi eztuenak dei dezaten otso, eztezala iauntz otso-larrurik (403)

Nahi eztuenak ilkhi dadin kherik, eztagiela surik (403)<sup>301</sup>

294 - Gaztelaraz: “Ojos que no ven corazón que no siente”

295 - Bada paralelorik gaztelaraz: “La mentira no tiene pies”, “La mentira presto es vencida”, etab.

296 - Publio Siro: “Nada hay más miserable que la mala conciencia” (328). Publio Siro K.a. lehen mendeko poeta latinoak dugu. Senekak, Aulo Geliok eta Macrobiok biziki laudatzen dituzte haren obra idatziak. Ez da, beraz, arraroa, haiek ere harenez baliatzen aurkitzea (ik. Senekarena in *Gero* 187 or.). Halere, obra guztietatik *sententzia* bilduma bat baino ez zaigu iritsi. Bertso bakoitzaren lehen letraren araberako ondozkapen alfabetikoa du. Badirudi Erasmok argitaratu zituela lehendabizikoz (Estrasburgo, 1516).

297 - Publio Sirok berdintsua dauka: “Nada más vergonzoso que un anciano que comienza a vivir” (329). Halere, Senekarena bailitzen eskaini izanak garbi demostratuko luke Axularrek ez zuela Sioren obra erabili, ez honetan ez besteetan ere. Senekaren obrak egindako erabilpenaz, ikus “Aipamenak eta

exenpluak” atala.

298 - “Agua pasada no muele molino” delakoaren parekoa.

299 - Badu Publio Sirok bere Sententzien artean honen parekoa den bat: “Piedra que rueda no cría musgo” (326 or.)

300 - Gaztelaraz badago horren antzekoa den erretraua: “A la olla que hierve, ninguna mosca se atreve”. (Campos eta Barella 1995, 259 or.)

301 - Oinarrian “Donde fuego se hace, humo sale” delakoa legoke.

Urkijok adierazi zuen bezala, badira zenbait esaldi eta perpausa erretrauen inguruan sortuak. Hau da, esaterako, honako honen kasua:

“Probea guezurti içaitea, ezta hain miresteco, ceren beharrac anhitz gauça eraguin deçaque” (Gero, 189-190 or.; letrakera etzana Urkijorena da)<sup>302</sup>.

Badira beste batzuk atsotitz edo esaera zaharren kutsua erakutsiko dutenak, baina berri samarrak diruditenak, Axularrek berak eratuak. Epifonema gisara ager daitezke horrelakoak<sup>303</sup>:

Dagigun ongi,  
eta eztezagula beha nori (224)<sup>304</sup>

Emazu beraz  
duzunaren arauaz (229)

Haserretzea eztago ez hanbat egitekoaren balioan,  
nola presunaren kondizinoan (287)

Azpimarratzeko ezaugarri bat deritzogu horrelako sententziak (ohikoak, herri tradizioaren bitartez jasoak eta asmatuak) Axularrek ahozko formulatara sartu nahi izateari, gehienetan homoioteleuton eta homioptotonaren bidez lortutako hoskidetasunaz baliatzen baita urdazubiarra. Horrezaz gain, ikusi den bezala, isokolonak ere garrantzi handia du aipatu sententzia gehienak taxutzean.

Alabaina, badira sententzia batzuk nolabaiteko eredu arrotza edo erakusten bide dutenak eta ahozko formulazio edo eredu horietara (homofonia eta neurrikidetasunera, batik bat) erabat biltzen ez direnak:

Halako ezteietan halako zopak (372)<sup>305</sup>

Iguzkiac berotzen du ezkoa, eta gogortzen lurra (109)<sup>306</sup>

Ildo beretik, ezin falta zitekeen multzo honetan beste hizkuntza batean bederen parekorik izango duen baliabide paremiologikorik. Hau da, esaterako, ondoko esaldi honen kasua:

302 - Garibayren 63 erretraua: “Beharrac bearra eraguiten du” (Urquijo 1919, 600). Duvoisinek Maian jasotako “Beharrac eginarazten du aunitz” (Rev. Euskara, 1878, 296 or., apud Urquijo 1919, 600) ere ildo berekoa dela dirudi.

303 - Definizioz, “todo lo que en las cláusulas hiere agudamente al oído, es epifonema” (Granada, Retórica, 527b) edo, bestela, “es una sentencia situada en la conclusión de un discurso” (Mortara 1991, 285).

304 - Gaztelerez: “Haz bien y no mires a quién”. Honako hau, esaterako, Baltasar Gracian-en *El Criticón*, 3. liburukian (1657) agertzen da (cfr. Campos eta Barella 1995, 45).

305 - Paralelismorik aurkitzeko paradarik izan ez dugun arren, oinarrian gaztelerezko hoskidetasun asonantea eta neurri berdina duten “boda(s)” eta “sopa(s)” hitzen oihartzuna antzematen dela pentsa liteke.

306 - Aurrekoan bezalatsu, hemen ere “cera” eta “tierra” hitzen oihartzuna genuke?

gizona eta emaztea, sua eta istupa bezala baitira (400or.)<sup>307</sup>

Gogoratu, bukatzeko, hauen guztien funtzioa ez dela Axularren argumentazioaren euskarri soila izatera mugatuko. Adibide desberdinetan ikusten den bezala, ahozko tekniketara lotuta dauden elementu hauek izaera, kolorea, tonalitatea eta grafikotasun-plastikotasuna eskainiko dizkiote lanari neurri handi batean.

### 8.3.6.3.- Konparazioak eta similak

Granadak zioen bezalaxe, konparazioak erabiltzea margolarien darabilten teknika imitatzea baino ez da: “cuando quieren que un color insigne resalte entre los demas, le ponen otro debajo que haga á aquel mas dividido” (Granada, Retórica, 536b). Horretarako idazlea “se vale de ejemplos y símiles, en cuya comparación la cosa que quiere alzar de punto parezca la mas excelsa” (Idem, 536b).

Axularrek eurrez darabilen bidea da konparazioarena<sup>308</sup>. Izan ere, baliabide estilistiko bezala, metafora baino askoz ere arrakastatsua da dirudi konparazioak, eta batez ere aszetika liburu batean. Entzule-irakurle izan daitekeenak ez du inolaz ere diskurtsoaren haria galduko, hobeto ulertuko du esango zaiona eta, jakina, hurbilago nabarituiko du testua bera

Konparazioa, jakina denez, pentsamenduzko irudien esparruko baliabidea da, eta oso xede pragmatikoa du, irakurle-entzuleari puntu desberdinak argitzea eta mezua errazago helaraztea, ahaztu gabe metaforak eta konparazioak bezalakorik ez zegoela irakurle-entzulea deleitatu eta kordokatu ahal izateko. Irudi argumentatiboa izateaz gain<sup>309</sup>, *amplificatio* izeneko bitarteko tekniko gisa erabilia izateko ere ezin aproposagoa da. Aldi berean, prosa narratibo-deskriptiboari ere malgutasun plastikoa eskaintzen dio.

Bestalde, konparazioek mezua edo azaldu nahi zena hobeto ulertarazten bazuten ere, adierazitakoa errazago gogoratzen laguntzen zien mezu-hartzaileei, irakurle edota entzuleei hain zuzen. Ildo horretatik zihoan Ebanjelioaren jokabide orokorra eta horixe zen, azken finean, oratoria sakratuan arituek konparazioak baloratzeko arrazoia.

Oro har, konparazioetan bi elementu desberdinen arteko antza<sup>310</sup> azpimarratzea da bilatzen dena. Harreman edo erkateta horren bidez elementu haietako baten ideia edo irudia adierazgarriago eta eragingarriago bihurtzea da helburua. Hain zuzen ere, oratoria eklesiastikoan faktore bi horiek derrigorrezkoak izango ziren bilatzen zen “konbertsioa” gerta zedin.

307 - Haragiaren bekatutik begiratzeko ihes egitearen lehenengo arrazoia jakituria gnomikoan oinarritzen du Axularrek, gaztelerezko sententzietan aurkitutako esaera paralelo honek erakusten duen bezala: “El hombre es fuego; la mujer, estopa; llega el diablo y sopla” (Junceda 1995, 258).

308 - Aitzitik, ez dirudi Terrones del Cañoren ildokoek joritasun hau hain gogokoegi zutenik: “tampoco se han de traer demasiadas comparaciones, que es de predicadores mozos, y la flor y hervor de la juventud se las ofrece. Bastarán siete u ocho comparaciones en un sermón, si son buenas y vivas; que, si son frías, mejor es dexarlas” (Terrones del Caño, Instrucción..., 87-88).

309 - “Los argumentos de comparación se basan en las relaciones de diferencia y de igualdad [...] [eta] comportan una valoración de los objetos a través de su comparación” (Mortara Garavelli 1991, 107).

310 - “Pero no es necesario que toda una cosa sea en todo semejante á otra, sino que debe tener semejanza en aquello mismo en que se compara” (Granada, Retórica, 594b).



Teorikoki konparazioetarako, Granadak gogorazten duen bezala, "no es necesario que toda una cosa sea en todo semejante á otra, sino que debe tener semejanza en aquello mismo en que se compara" (Granada, *Retórica*, 594b). Halere, konparazio desgokirik egiteko arriskua ez zen inoiz erabat gaitutuko.

Konparazioaren eraginkortasuna medio, oso erabilia izan zen liburu aszetiko-mistikoetan baliabide erretoriko gisara, batik bat kristauen bihotza eta borondatea ongien mugiarazten zituzten anplifikazioak burutzeko bide bezala.

Konparazioak, oro har, predikariak eta idazleek berek asmatuak izan daitezke errealitateak, baina betiere eguneroko bizimodutik jasotako erreferentzien bitartez eratuak. Eta horrela gertatzen bide zen neurri handi batean prediku arruntetan.

Halere, badirudi bestelako iturriak ere erabiltzen zela horretara dedikatzen zen eliz jendearen artean. Cerdanek dioenez, "todos los predicadores del siglo XVII tenían a su disposición el conocidísimo libro de Juan Pérez de Moya, *Comparaciones o símiles para los vicios y virtudes* (Alcalá, 1584), que ofrecía frases para todas las ocasiones" (Cerdan 1988, 64).

Axularren prosa, oroitarazi beharrik ez dago, erretorika eklesiastikoaren ildotik abiatuko da bete-betean. Alabaina, honek ez du erretorika klasikoko edergarri, irudi eta baliabide estilistikoak den bezainbatean, inolako bereizketarik suposatzen. Era berean, azpimarratzekoa da Axularren konparazioek errealitate hurbilarekin duten lotura irmoa, irakurleen eguneroko bizimodua, lanbidea, natura, pertsonak, etab. baitira beti eredu argumentatiboaren ardatza.

Bestalde, erkaketen erabilpenean bada nabarmendu beharreko puntu garrantzitsu bat, hots, Eskrituretako zentzu morala gorde behar denez gero, predikaria edo idazle erlijiosoak ezin has daiteke nahi duena egiten, beste askok egin izan duten bezala (sermonario zaharretan, etab.). Errakuntza hori gainditzeko Axularrek Diego de Estella fantziskarrak aholkatutakoari (Ik. *Modus concionandi*, VII. kap.) segitzen dio, alegia irudiak konparazio bihurtzen, batez ere Testamentu Zaharretik eta historia liburuetatik sor daitezkeen zentzu moral okerrekoak antzematen direnean. Eragozpen horiek *per modum similitudinis* delakoaren bidez gaitut ditzake predikariak edo, gure kasuan, idazleak. Horretarako eredu praktikoa "así como" formularekin (eta haren aldakiekin: "como... así...", etab.) burutuko da gaztelaraz. Euskarazkoa honako honetara bildu daiteke nagusiki: "Nola .... hala...". Esan gabe doa eredu honi jarraitzen zaizkion konparazioak agortezinak direla liburuan zehar geroago ikusiko den bezala<sup>311</sup>. Hona hemen horietako batzuk:

Nola hegaztinari emaiten baitzaitza hegala, airatzeko, eta hegaldatzeko: hala gizonari ere emaiten zaitza eskuak traibailatzeko (34).

Ordea nola Herkules hura, harriz, zurez edo kobrez egina baita, edo pintura bat baizen ezpaita, geldi dago, kheinatzea egiten du eta ez bertzerik. Hala dira bada, gerotik gerora dabilzanak ere, kheinatzen dira, eta ez tute aurthikitzen: destatzen dira, eta ez tute desarratzen. Erraiten dute: eginen dut; eta ez tute behin ere egiten (54).

Beraz nola, baldin bazendu anaia bat erhoa, eta adimendutik iaizia, eta hark anhitz gaizki egin, eta erran baliatzazu, eta bere buruari ere zenbait kolpe gaixto eman baliatza, damuago baitzendeke

311 - Konparazioak, gogoratu beharrik ez dago, ez dira beti konparaziozko egitura sintaktiko horien bidez burutzen. Aski da konparagarri iritzi den elementua azaltzea eta gero "hala" edo "halatan" sarrera-formula baten bidez aurkeztea elementu konparatua.

zeure anaia haren kalteaz, eta haren hala izaiteaz, egiten eta erraiten derauzkitzun bide gabe guztiez baiño; hala halaber behar duzu izan damuago zure etsai kolerak erauzirik dagoen hark bere buruari egiten derauztan kaltez, zuri egiten derauzkitzunez baiño (309-310).

Zenbaitetan elkarren ondoan joan ohi dira konparazioak, argumentazio ideiak garbiago utzi nahian eta anplifikazioa bera ere nabarmenki areagotuz.

Amak haurrari dithiaren emaita bezala da probeari emaita ere. Ama haurrari dithiaren emaita ez esnatzen da, ez emaita anutzten da. Halaber ereitea bezala da probeari emaita (232).

Gizon koleratua, sukharra duenaren polsua bezala da, kexo da, ez tu sosegurik. Halaber gau ilhuna bezala da (283).

Batzuetan, estiloa eta erritmoa arinagoa bihurtzeko, konparazio era desberdinetan ematen ditu Axularrek adibideak:

Presuna haserrekorrak, zuhaitz aranzetsuak bezala dira, ez tira ferekatzeko on; nehorik uki balitza zaurtzen dute. Harri mugerraren pare dira, barrenean dute sua, asko dute ukitzea. (290; azpimarrak gureak dira).

Nolanahi ere den, anplifikazioetarako erabili konparazioetan Axularrek badu Granadak aholkatzen duena<sup>312</sup> baliatzeko ohiturarik. Adibide bat dugu honako honetan:

Gezurrez iuramentu baten egitea, munduak hala ezbadaduka ere, bekhamu handiagoa da, lagunaren onaren ebastea baiño, eta bai edozein emazterekin parte izaitea baiño ere (Gero, 254).

312 - "De este mismo modo de amplificar solemos tambien usar, comparando las virtudes con las virtudes, y los vicios con los vicios por todas las circunstancias" (Granada, *Retórica*, 537a).

**IX.- AIPAMENAK ETA  
EXENPLUAK**

Atal honek funtzio garrantzitsua betezen du orain arte agertu izan den argumentazio arloan, izan ere, frogatze eskemek etengabe eskatzen duten baliabidea baita.

Oro har, autoritate argumentua bideratzeko tresnatzat hartu izan dira hauek guztiak erretorika klasikoan. Berauen bidez, inori gai batean aitortzen zaizkion jakituriak eta iritziek froga-balioa hartzen dute garatzen ari den diskurtsoan.

### 9.1.- AIPAMENEN PLANTEAMENDU OROKORRA

Argumentatzeko modu erretorikoa -dialektikoa ez bezala- edukiaz gain dau den elementuez ere arduratu izan da beti. Hain zuzen ere, argumentu motarik erabiliena eta, ziurrenik, osoena den bilduma edo kolekzio izenekoa horren adibide garbia da. Dituen bost partetatik (proposizioa, arrazoia, baieztapena, apaingarria eta ondorioa), lehenengo biak eta azkena dialektikak eskuarki jorratu ohi dituenak badira, erretorikak eta, batik bat, oratoria sakratuak oso kontutan hartzen dituzte onespren eta apaingarrien arloak

Demostratu nahi den arrazoiaren aldeko argumentuak areagotzeko baieztapen edo konfirmazio izeneko bidea erabiltzen da oratorian, hartako formarik ezagunenak exenpluak eta idazleen lekukotasunak direlarik. Elementu hauek diskurstoan zehar aipatzen den argumentu edota puntu bakoitza “frogatzeko” ekarriko dira. Sustatzeko frogak, hortaz, *auctoritas* arlokoak (Eskrituretakoak, Elizako guraso eta doktoreak, filosofoak,...) ohi dira nagusiki, bestelako arrazoiak, exenpluak eta konparazioak ahaztu gabe.

Bestalde, baieztapen horiek izango dira sermoiari edota obra bati dagozkien entzule-irakurlearekiko hurbiltasuna, errealitatearen zentzua, praktikotasuna eta, nola, ez, erudizio-kategoria ere emango dizkiotenak. Granadak dioen bezala,

“Señaladamente se diferencian los sermones eruditos de los que no lo son, en que estos solo están proveidos de proposiciones y razones, que cualquiera fácilmente halla; mas aquellos están ilustrados con escogidas máximas y testimonios de las divinas escrituras y santos padres” (Granada, *Retórica*, 519a) (azpimarrak gureak dira).

Aurrerago ere honako hau erantsiko du *elocutio* atalaz ari delarik:

“Primeramente pues debe juntarse mucho y vario caudal de cosas, que sugerirá la varia leccion, así de nuestros autores, como tambien de los gentiles. A lo cual ayudan maravillosamente, no solo las sentencias, sino tambien los ejemplos, los símiles, los apotegmas” (Granada *Retórica*, 611a).

Hauxe izango da, beraz, oratoria sakratuan ihardungo dutenek eramango duten jokabidea: aberastasuna aipamentean eta erreferentzietan luzatu nahi den mezua errazago finkatzeko eta xedeak hobeto erdiesteko.

Axularrek eurrez darabilen formula da aipamenena, bai gaiak ekartzeko (batik bat aipamen biblikoak eta kapitulu hasieran, ikusiko den bezala), bai garatzen ari den doktrinaren berresgarri moduan.

## 9.2.- AIPAMENAK GERO-N

“Aipamenen ehiztaritza ere ez da egiteko alferra, inork ez baitu deus ezerezetik ateratzen, beti behar izaten baitira gidariak eta sostenguak”  
(Mixelena 1981b, 285)

*Gero*-ko aipamenen arlora hurbilduz gero, luze mintza gintezke Axularrek erabilitakoez edota aipatutakoez, izan ere, liburuaren zati zabal bat aipamen-exenpluen “menpe” baitago. Halere, ezinbestekoa da aipatzea honetan ere Axular bere garaiaren semea dela, berak ezagututako eta ikasitako jokabidea antzematen dela bere obran bere garaikide adierazgarri gehienenean bezalatsu.

Aipamenen garrantziaz asko hitzegin den arren, betetzen duten funtzioa eta haietatik ondoriozta daitekeen jokabide erretorikoa dira guri gehien interesatzen zaizkigun arloak. Ezin ahaztu, bestalde, aztertu nahi den autorearen maila intelektuala eta prestakuntza erretorikoa (eta, bide batez, garaikideena) ezagutzeko bidea ere izan daitekeela. Alabaina, bada honetan ere arazorik. Martine De Reu-ren hitzek azpimarratzen duten bezala:

“Les citations ou paraphrases méritent également d’être étudiées, car elles nous fournissent des indices concernant l’horizon intellectuel du prédicateur. Or, les citations et paraphrases ne suffisent pas à cette fin; il reste notamment le problème des sources intermédiaires” (Reu 1993, 334)

Orobat, ildo horretatik doaz behiala Julio Urkijok honako aipamenen egoera honetarako gogorarazi nahi izan zuen pasarte, non Farinelliren hitzekin batera Bossuetenak ere agertzen baitira:

“Scrittori sacri e scrittori profani fanno a chi più cita nomi di illustri antichi. «Il y a bien des Auteurs qui apportent dans leurs Ouvrages des passages d’Homere, de Pindare, d’Aristote, de Ciceron, de Demosthenes, de Tite Live, quoiqu’ils ne les ayent jamais lûs; rien n’est plus ordinaire que cette conduite dans la République des Lettres»- *La Coterie des Anti-Façonnier*, Amsterdam, 1716, p. 143” (Farinelli 1908, 107-108).

Teknikoki, aipamen huts direnak<sup>313</sup> latinez ematen direnez gero, itzulpen batez lagundurik agertzen dira, itzulpen gehitu batez hain zuzen. Gehitze hori anplifikazioaren bidez egin ohi du urdazubiarrak. Tratamendu hori dela eta, zinez esan daiteke zortzi ehun aipamenetik gora dituen liburu honen erdia inguru aipamenen menpe dagoela, izan ere, kapitulu batzuk aipamen eta exenpluen arteko jostura baten fruitu egokitu baina ez baitira (ikus lehenengo kapitulu biak, esaterako).

313 - Aipamenen atalean sor zitekeen kasuistikak (aipamena: +, - ; erreferentzia: +, -) planteamendu erretorikoari dagokionez ezer gutxi argi zezakeenez, lan honetan ere erdiko bideak jotzea erabaki dugu. Argi dezagun, beraz, “aipamen” kontzeptuaren barnean bi eratako elementuak sartu ditugula, arrazoi praktikoko-didaktikoak zirela medio: batetik, identifikatu-erreferentziatu gabe agertu arren, “aipu”-tzat hartu beharrekoak ziren guztiak, testuan latinez emandakoak, hain zuzen (aipamena +; erreferentzia + eta erreferentzia -), eta, bestetik, zalantza-koagoak seguruenik, “aipamen zuzena” izan gabe, alboan erreferentziaren bat zeramatenak (aipamena -; erreferentzia +). Ez da aipatzat hartu, jakina, ez aipamenik ez erreferentziarik ez zutenak, ez eta testuan egokiro tartekatutakoak ziren “erran komunak” edota sententzia bezalakoak ere, nahiz eta kasu bietan maiz haien literatur jatorria ere garbi atzeman ahal izan dugun. “Aipamen” hauean, hortaz, *exempla* arlokoak diren bestelako “erreferentziak” ere aurkitu ahal izango dira inoiz (exenpluenak, batik bat).

## 9.3.- ESKRITURETATIK KLASIKOENGANAINO

Mixelenak zioen bezala, “aipamenak (eta aipamenen bidez seinalatzen diren iturburuak) giro baten fruitu dira, inondik ere. Giro horren barruan bizi denak adi ditzake; ez, ordea, arrotzak” (Mixelena 1981b, 287). Eta horixe baino ez dira Axularrenak ere.

Aski garbi esan daiteke bai teologikoki nola kronologikoki Axularren *loci*-ak eta, ondorioz, aipamenen sistema bera Melchor Canoren berrikuntza teologikoak (Bataillon 1979, 724-725) jaso zuenaren ondokoak direla. Haren arabera markatuko dira handik aurrera literatura erlijiosoan erabiliko den iturri eta aipamen jerarkia orokorra, Axularrek berak baliatuko duena.

Canoren liburuak Errebelazioan eta tradizioan aurki daitezkeen fede-iturrien katalogo moduko bat agertzen du hamar *loci* mota bereizten dituelarik:

1. Eskritura sainduen autoritateari dagozkionak
2. Kristo eta apostoluen tradizioarenak (ahoz aho etorriak)
3. Eliza katolikoarenak
4. Kontzilio orokorrenak
5. Eliza erromatar eta apostolikoarenak
6. “Santorum veterum” direlakoan
7. Teologo eskolastikoenak
8. Arrazoi naturalarenak
9. Filosofoenak (“qui naturam ducem sequuntur”)
10. Giza-historiarenak (“humanae actoritas historiae”)

Ikusten denez lehen bost iturriek Eskritura, tradizioa eta Elizaren magisterioa hobesten dituzte.

Planteamendu honek garrantzizko aldakuntzak ekarri zituen ordurarteko eskema orokorrera, besteak beste eskolastikoen nolabaiteko alboratze bat eta kristauak ez ziren autoreen erabilera. Horren arrazoiak, berriro ere, giroaren zitua izan ziren neurri handi batean.

Alde batetik, garaiko humanismoaren izpirituak estilo landua erabiltzera eta iturrien azterketara bultzatuko du Cano, escolastika berantiarraren sofisma eta argumentuei aihar izango dielarik. Era berean, Canok Elizako Gurasoen baliatzea joko du, zeren eta, Curtiusek dioen bezala, “la lectura de la literatura de la Reforma y las discusiones del concilio de Trento, en el cual participó Cano en 1551 por encargo de Carlos V, lo llevaron a la conclusión de que el método escolástico no era adecuado para la defensa de las verdades del dogma católico, y que había que volver a los más antiguos escritores de la Iglesia” (Curtius 1976, 768)

Bestalde, Canoren planteamenduen arabera, kristautasuna eta dogma indartzeko historia eta literatura profanoak (paganoa barne) aztertzea bultzatuko da. Izan ere, kultura errenazentistaren eraginez, arras zabaldua zegoen jakintza arlo guztiak (gehienak) ezagutzeko beharra. Jakina, honek irakurketa pagano eta profanoen erabileraren zilegitasuna planteatzera eramaten zuen bereziki ardura erlijiosoak zeukana. García Berriok adierazten duen bezala:



Axularrek ere parametro horren arabera moldatuko du *Gero* guztia. Bibliatik at jasotako aipamen, interpretazio, exenplu eta bestelakoek liburu sakratuaren menpe egongo dira etengabe, haren interpretaziorako txertatuak. Areago, lehenengo orrialdeetan alferkeriaren inguruan planteatu arazo biblikoarekin hasi eta azken orrialdeetako konbertsio premiaren ondorioaraino iritsi arte tartekatutako pasarte guztiek funtzio interpretatzaile eta argi-emaile hori baino ez dute izango.

Ugaria da Axularrek Bibliaz egin zuen erabilera -betiere zentzu literala gordeaz edota, gehienik ere, zentzu literal horrekin kontraesanean erortzeko arriskua saihestuz, jakina-, izan ere obran zehar ematen dituen aipamen guztietatik ia erdia Bibliatik jasoa da eta. Baina hau ez da inorentzat sekretua, Axularrek berak liburuaren azalean bertan aitortzen baitu "Escritura saindutik, Eliçaco Doctoretaric eta liburu deboci-nozcoetaric ... vilduac" direla *Gero*-n daudenak, aipamenak eta bestelakoak hain zuzen.

Lafittek 350 bat aipamen testu aurkitu uste zituen Axularren obran: "350 textes scripturaires, que généralement il paraphrase savoureusement, au lieu d'en donner une traduction littérale" (1943, 38).

Guk hogeita hamar bat gehiago zenbatu dugu denetara<sup>317</sup>. Hona hemen, *Itun Zaharra* eta *Itun Berria* bereizturik, *Gero* liburuan aurkitu ditugun aipamen guztien<sup>318</sup> erreferentzia eta zerrenda. Hauetan, jakina, *Biblia*-n dagokien erreferentzia zuzena bilatzen saiatu gara<sup>319</sup>.

#### 9.4.1.- AIPAMENAK

##### 9.4.1.1.- Testamentu Zaharra

Adierazgarria da oso zeintzu diren Axularrek aipamenetarako<sup>320</sup> gehien erabiltzen dituen liburuak ikustea, desoreka handia baitago, nolabait esateko, liburuen arteko erabileran.

- 317 - Askoz ere urriago izan zen Etxeberri aurkitu uste zuena: "Bibliako irakurgaiak dira geien darabilzkanak: 286 aldiz" (Etxeberria 1973, 76). Kopuru desberdintasun hauen arrazoia erreferentziarik gabeko aipamenetan eta gaizki erreferentziaturikoetan datza besteak beste.
- 318 - Iturrien arazoa dela eta, Axularrek egiten dituen aipamen guztiez gain, liburuen barrera *Biblia*-tik jasoak diren pasarteak ere identifikatzen saiatu gara.
- 319 - Erreferentziatarako *Vulgata* izenekoaren kapitulu eta bertsikulu zenbakiak erabiliko ditugu, huraxe izan baitzen Trentoko Kontzilioak onartu zuen bakarra: "Sólo el Concilio de trento declarará su traducción, «antigua y ampliamente divulgada» [uulgata], como la única auténtica [decreto del 8 de abril de 1546]" (Curtius 1976, 113). Baina hemen, zenbakietarako, 1592an argitaratutako testua -betidaniko *Vulgata* - erabiliko den arren, *Biblia* osatzen duten liburuen izenak eta laburdurak emateko *Elizen arteko Biblia* burutu berrian (1994) proposatzen direnez baliatu gara.
- 320 - Aipamentzat hartuko ditugu latinezko testua daramatenak edota alboan -"in margine" alegia- erreferentzia daramatenak. Bestelakoetarako ikus 9.4.1.3 atala.

Erabilienean artean honako hauek aurki daitezke<sup>321</sup>: *Salmoak* (39 aldiz)<sup>322</sup>, *Esaera Zaharrak* (37) eta *Siraken Jakinduria* edo *Eklesiastikoa* (34).

Beste maila apalago batean honako hauek ditugu: *Hasiera* edo *Genesia* (19 aldiz), *Job* (13), *Isaisasen Profezia* (9), *Jeremias*-ena (9), *Erregeak* (9) (hots, *I Samuel* 3 aldiz eta *2 Samuel* 6 aldiz), *Irteera* edo *Exodoa* (7), *Kohelet* edo *Eklesiastes* (6) eta *Deuteronomioa* (5).

Erabilera apalagoa da honako liburu hauena egiten dena: *Jakinduria* (4), *Daniel-en Profezia* (4), *Makabearrak* (4) (*I Makabearrak* eta *2 Makabearrak* bina aipamen), *Negar Kantak* edo *Jeremiasen Deitoeak* (3), *Ezekielen Profezia* (3), *Oseas*-ena (3) eta Salomonen *Kantarik Ederrena* (3)

Bestalde, ia erabat testimoniala da beste liburu hauen presentzia: *Jonasen Profezia* (2), *Malakias*-ena (2), *Mikeas*-ena (2), *Lebitarrena* (2), *Zenbakiak* (1), *Habakukuen Profezia* (1), *Sofoniasen Profezia* (1).

Vulgatan *Biblia*-tik at dauden *Esdras*-en 3. eta 4. liburuetatik Axularrek laugarrena baino ez du erabiltzen, eta behin bakarrik gainera.

Ez dira behin ere aipatzen: *Josue*, *Epaileak*, *Rut*, *Erregeak III* eta *IV* (hots, gaurko *Bibliako I Erregeak* eta *II Erregeak* hain zuzen), *Kronikak* edo *Paralipomenak I* eta *II*, *Nehemias*, *Tobias*, *Judit* eta *Ester*. Profeten artean baztertuta daude *Baruken Profezia*, *Joel*-ena, *Amos*-ena, *Abdias*-ena, *Nahumen*-ena, *Ageo*-rena eta *Zakarias*-ena.

Ikusten denez, nabarmena da liburu poetiko-jakinduriazkoen presentzia, batik bat *Salmoak*, *Esaera Zaharrak*, *Job*, *Kohelet*, *Jakinduria*, *Ben Sirak* eta *Kantarik Ederrena* izeneko liburuena. Denetara, *Itun Zaharrari* dagozkion 235 pasarte, erreferentzia edota aipamenen artean, 136 aipamen zuzen zenbatu ditugu jakinduriazkoen arlokoak<sup>323</sup>. Biziki atzerago geratzen dira liburu profetikoak eta Pentateukokoak (hogeita hamabosna aipamen inguru) eta liburu historikoak (14 aipamen).

Horren esplikagarri oratoria sakratuan aholkatzen dena izan daiteke neurri batean behintzat: "De la lición de las santas escrituras procuremos escoger los lugares más recónditos, que con su novedad y dignidad exciten á los oyentes: muchos de los cuales pueden recogerse de los libros de los profetas y de la Sabiduría" (Granada, *Retórica*, 513). Esan gabe doa: "Sabiduría" hitzak kasu honetan jakinduriazko liburuak adieraziko lituzke.

321 - Gorago esan bezala, hemen emango direnak baino nabarmen gutxiago aurkitu bide zituen Etxeberriak: "Ecclesiastes-Ecclesiasticus 36 aldiz (Gogoetak-Ikastuna); Proverbia 35 aldiz (Itzurak); Liber Psalmorum 32 aldiz (Eresiak); Matheus 31 aldiz (Matai); Epistolae Paulinae 29 aldiz (Erromarrei, Korintoarrei, Galatiarrei... eta abar); Luca 15 aldiz (Luka); Genesis 13 aldiz (Asiera); Johannis 12 aldiz (Yon); Job 12 aldiz (Yob); Hieremia 9 aldiz (Yeremi); Liber Regnum 8 aldiz (Samuel-Bakaldunena); Exodus 6 aldiz (Irtenera); Sapientia 5 aldiz (Yakintza); Deuteronomium 5 aldiz (Italdiak); eta beste gaierako liburuak bein edo beste" (Etxeberria 1973, 76).

322 - Salmoei dagokienez, *Vulgata*-ko kapitulu eta bertsikulu zenbakiak ezin daitezke bat etorri *Biblia* modernokoarekin, ezaguna baita *Vulgata*-k ez duela bertsio hebraitarren ondozkapena jarraitzen, hots, zenbaki bat atzeratuta doala 10. salmotik 147.era bitartean. Guk hemen Axularrek eta autore zaharrek erabilitako ondozkapenari segituko diogu, *Vulgata*-k daramanari alegia. Okerrik gerta ez dadin, berdintsu beste puntu honi buruz ere: *Vulgata*-n oinarritutako edizioetan *I Erregeak* eta *II Erregeak* liburuak gaur eguneko *Biblia*-n *I Samuel* eta *II Samuel* dira.

323 - "Zuzen" diogu 136 aipamen horietan ez direlako kontutan hartu beherago aipatuko diren zeharkako aipamen "izkutuak", ez eta, beste liburuetakoak izan arren, hurbileko ideiak ukitzen dituztenak ere. *Itun Zaharreko* berrehun eta hogeita hamabost erreferentzietan, ordea, bai, sartuta daude horiek guztiak. Portzentaiak, hortaz, jakinduriazko liburuen erabilpen kopurua areagotuko luke eta esandakoa berretsi.

Baina, horrezaz gainera, badirudi liburuaren mezu-hartzaile izan behar zuen herriko jendeak ongien uler zitzakeen liburuak zirela horiek, mamian eta mamizat duten planteamendu gnomikoagatik hain zuzen. Izan ere, liburu grafikoak dira gehien erabili diren horiek. Grafikotasun hori esaldi motzetan (atsotzitzen parekoak) eta irudi arinetan letzake nagusiki; horrelakoak dira *Salmoak*, *Esaera Zaharrak* eta *Siraken Jakinduria*. Areago, jakina denez topiko bihurtu da dagoeneko *Esaera Zaharrak* liburuak jakituria gnomikoa jasotzen duela, herri jakituriaren lehenengo maila dela nolabait esateko. Baieztapen honek badu oinarriarik, izan ere jakinduriatzko eremu bibliko hau, herri xehearengandik hurbilen dagoena hain zuzen, eguneroko giza-esperientzietatik aterea baitzen, naturarekiko harremanetatik jasoa.

Liburu mota horrek zuen helburua, hots, errealtatetik jokabide zuzen eta egoki baterako ikasgai praktikoak ateratzea, helburu hori bera izango da testu horietan oinarrituz Axularrek bilatuko duena bere lan aszetiko honetan. Didaktismoa, beraz, nagusi.

#### 9.4.1.2.- Testamentu Berria

Denetara, Itun Berriari dagozkion aipamenak ehun eta berrogeita sei dira, Itun Zaharrekoak baino biziki gutxiago, laurogeita hamar bat gutxiago.

Aurrekoan bezalaxe, honetan ere haundiak dira «desorekak». Batipat ebanjelioen artean nabaritutako da desorekarik handiena: *Mateo*-rena gehien aipatua da (46 aldiz) eta *Markos*-ena guxien erabiltzen dena (behin bakarrik), tartean *Lukas*-ena (19) eta *Joan*-ena (13) daudelarik.

Lukasena omen den *Apostoluen Eginak* liburua 4 aldiz erabiltzen da.

Era berean Gutunen artean *Erromatarrei* zuzendua da erlatiboki gailentzen dena (13 aldiz), atzetik *Korintoarrei* zuzendua (10 aldiz, hots, lehena 7 aldiz eta bigarrena 3 aldiz), *Galaziarrei* (4) *Efesoarrei* (4), *Filipoarrei* (1), *Kolosarrei* (1), *I Timoteori* (2), *II Timoteori* (3), *Hebertarrei* (2), *Santiago* (4), *II Pedro* (2) eta *I Joan* (2) aurkitzen direlarik. *Apokalipsia* liburutik 7 aipamen jasotzen dira.

Beste modu batez esateko, *Mateo*-ren gailentasunaz aparte, San Pauloren protagonismoa nabarmena da, haren gutunetatik 40 bat aipamen egiten dira. Ondoko hauek, aldiz, aipatzeke geratzen dira *Gero* guztian: *Tesalonikarrei*, *Titori* eta *Filemoni* zuzendutako gutunak eta *Judas*, *I Pedro* eta *II Joan* eta *III Joan*.

Edozein modutan, eta planteamendua gehiegi sinplifikatu nah gabe, garbi esan liteke hemen ere eredu didaktikoaren menpe dagoela Axularren aukera (aszetikak berez eskatzen duenaz gain, jakina), esparru horietakotzat hartu izan dira betidanik *Epistola* novotestamentarioak (hemen, berrogeita bost bat denetara)

#### 9.4.1.3.- Aipatu edota erreferentziatu gabekoak

Aurrekoetz gain, badira zenbait pasarte, normalean zati narratibo-esprikatiboak aberasteko testuan tartekatuak, Bibliaren erabilera aski zuzena (nahiz eta zeharkakoa ere egiten den) adierazten dutenak. Agi denez, ez dute inolako erreferentziarik alboan, narrazioan txertaturik bezala baitaude. Besteak beste, eta exhaustibotasun asmorik

gabe, hona hemen erabilienetariko batzuk: Testamentu Zaharreko *Hasiera* liburua<sup>324</sup>, *Irteera*<sup>325</sup>, *Erregeak*<sup>326</sup>, *Zenbakiak*<sup>327</sup>, *Lebitarrena*<sup>328</sup>, *Kohelet* 329, etab. Testamentu Berriari dagokionez, honako hauek dira aurkitu ditugun argienetariko zenbait: *Mateo*<sup>330</sup>, *Lukas*<sup>331</sup>, *Timoteori* 332, *Erromatarrei*<sup>333</sup> etab.

Hauek guztiak, adierazi bezala, tartekatuak izan dira liburuan bertan jasotzen diren gertaerak edota irudi desberdinak azaltzeko, eta, sarri askotan, geroago ikusiko den *exemplum* modura. Normalean aski pasarte ezagunak dira kristau arruntarrentzat eta ez bide dute, berez, erreferentzien beharrik. Orduko sinestunen ohiko irudi multzoko pasarteak ziren<sup>334</sup>.

#### 9.4.2.- AIPAMEN ETA ERREFERENTZIEN ZUZENTASUNAZ

Bibliako aipamenen artean ez dago oker handirik, normalean grafiari dagozkion akats txiki batzuk izan ezik (ikus eranskina).

Bestalde, argi da *Biblia*-tik jasotako aipamenen erreferentzia gehienak ondo eta zuzen daudela, 1. eta 2. tauletan ikus daitekeen bezala. Badira, dena den, agian inprimatzaileari testua konposatzerakoan isuritako akatsak. Akats hauek konstante batzuk zuzenak ohi dira<sup>335</sup>; hauxe da, zalantzarik gabe, akatsik hedatuena. Bestalde, betiko okerrak ere ez dira falta: 2 eta 7 zenbakien arteko konfusioa, 1 eta 2, eta 3 eta 5aren artekoa, etab. Honek, printzipioz, eskuz idatzitako testuaren irakurket gaiztoaren ondorioa dela adieraz lezake

Hipotesi bezala, beraz, zinez pentsa liteke *Biblia*-koak direnak bertatik hartutakoak direla oro har. Edonola ere, inoiz beste testu batetik hartua izan bada, Axularrek zuzenean konprobatzeko aukera izan zuela, eta horrela egingo zuela agian.

324 - Hona hemen erreferentziak eta *Gero*-n aurkitzeko orrialdea: Has 1, 26-27 (*Gero*, 21or.), Has 19, 26 (*Gero* 466 or.), Has 27, 42-45 (*Gero*, 290 or.), etab.

325 - Ir 12, 37 (*Gero*, 26 or.); Ir 28, 33-34 (*Gero*, 458 or.), etab.

326 - 1 Erg 17,50 (*Gero*, 89 or.), 1 Erg 17, 54 (*Gero*, 90 or.), 2 Erg 13, 1-15 (*Gero*, 388-389 or.), etab.

327 - Zen 21, 5 (*Gero*, 519 eta 601 or.),...

328 - Lb 1, 14 (*Gero*, 171 or.), ...

329 - Koh 12 (*Gero*, 182 or.), ...

330 - Mt 11, 30 (*Gero*, 483 or.),...

331 - Lk 2, 42-46 (*Gero*, 82 or.); 15, 4-5 (*Gero*, 554 or.); 15, 8-10 (*Gero*, 549-550 or.); 15, 11-32 (*Gero*, 554 or.); 16, 24 (*Gero*, 597 or.),...

332 - 1 Tm 1, 19 (*Gero*, 450 or.),...

333 - Erm 2, 5-11 (*Gero*, 574 or.),...

334 - Hona hemen, esaterako, ezagunenetako bat: "[...] eta dantzatic (Herodes baitan eguin çuen beçala) heriotcea atheratcen du" amorio desordenatuak" (*Gero*, 356 or.) (*Mk* 6, 22-28).

335 - Erreferentziak gaizki dituztenen artean adierazgarriak dira, esaterako, *Ben Siraken Jakinduria* liburuaren aipamenak (*Gero*, 336, 360 eta 415 or.) eta *Esaera Zaharrak* izenekoarenak (*Gero*, 49 eta 559 or.). Modu berean, ikus *Salmoak* (*Gero*, 509 or.), *Erregeak* (*Gero*, 61 eta 312 or.), *Isaias* (*Gero*, 119 or.), *Daniel* (*Gero*, 449 or.), *Ezekiel* (*Gero*, 196 eta 380 or.), *Job* (*Gero*, 94 or.), etab. Berdintsu gertatzen da Testamentu Berrikoetan: *Mateo* (*Gero*, 97, 103, 200, 231, 260, 494 eta 506 or.), *Lukas* (*Gero*, 247, 310 eta 548-549 or.), *Apostoluen Eginak* (*Gero*, 23 eta 128 or.), *Erromatarrei* (*Gero*, 294 or.), *Apokalipsia* (*Gero*, 581 or.), etab.

Azpirarratu behar da, halaber, zenbait pasartetan egileak zatiak moztu edota ezabatu egiten dituela, testuinguruak edo argumentazioak hala eskatzen dionean. Beste zenbaitetan, interes berdinek eramanda, jatorrizko aipamenaren hasiera bukaera jarrita agertuko da eta bukaerako pasartea hasieran. Edonola ere, erreferentziakin ongi lotuak egon ohi dira.

### 9.4.3.- BIBLIAKO AIPAMENEN ARAZOA

Eskuen artean dugun *Gero* liburua dela eta, zalantza sorta handitxoa planteatzen zaio ikertzaileari haren *inventio* prozesua aztertzen hasten denean. Izan ere, erabat kontrastatu eta konfirmatzeke geratzen zaigu aipamen horien iturri zuzenaren arazoa: Axularrek pasarte batzuk zuzenean jasoko zituen *Biblia*-tik, jakina, baina guztiak ote ziren bertatik zuzenean jasoak? Ezezkotan, zeintzuk bai eta zeintzuk ez? *Biblia*-tik jaso ez zituenak nondik jaso zituen: glosarioetatik?, konkordantzia biblikoak izenekoetatik? "Distinctiones" izeneko bildumetatik? Beste autore batzuk irakurtzean?...

Baina erantzuteke geratzen diren galderen esparru horren barnean, gogoan hartu behar da *Biblia* izango zela ziurrenik Axular bezalako elizgizon batek errazen erabil zezakeen liburua (*Vulgata* izeneko bertsoan, jakina), nahiz eta, gorago aipatu den bezala, zenbait urtetan erabilera arautua izan zen.

Hortaz, Eskritura Sainduko aipamenekin saratarrak egiten duena ikusirik, bidearen iluntasunak argitzen hasteko elementurik ere badagoela baieztatu genezake.

Horren ildotik, esate baterako, autoreak aipamenen jatorrizko testua baztertuz, tarteko iturriak erabili izan duenentz antzemateko, Fr. Dolbeau-k jorratutako hipotesietatik abia daiteke (Dolbeau 1986, 155). Haien arabera, tarteko iturria nabarmen gertatu litzateke baldintza hauek emango balira:

"a) la présence d'un commentaire un peu développé; b) des écarts importants entre la Vulgate et la version citée; c) l'association en chaîne de versets scripturaires empruntés à des livres différents" (apud Reu 1993, 334)

Edozein orrialdetan zabaldua ere, badirudi horko baldintza horiek, noiz gehiago, noiz gutxiago, eurrez ematen direla *Gero*-n: 55-56 or.; 111-113; 187-188; 211-213; 482; 499-502; 508-509; 568 or.; etab. Agian adibiderik adierazgarriena XLVII. kapituluaren lehen atalekoa genuke, dozena bat aipamen bibliko eskaintzen da elkarren segidan (*Gero*, 474-478). Hori bai, ez dago testuan akats edota alderik jatorrizko bertsiorekin, *Vulgata*-rekin alegia, konparatuta.

Bestalde, aipamenak erreferentziatzeko moduari dagokionez, aipatu beharko genuke Axularren jokabidea, garai hartako horrelako beste liburu askoren antzera, ez dela salbuespena. Zenbaitetan, adibidez, ez du testuaren erreferentziarik ematen. Horrezaz gain, maiztxo, erreferentziak ere, alboan agertu arren, gaizki emanda daude.

Eta hemen planteatzen zaigu akats, hutsune eta oker horien arazoia zertan datzan argitzeko arazoa: egilearen akatsak ote dira? tarteko beste iturri batzurenak ote? editorearenak agian? inprimatzailearenak? autoreak arreta gutxiarekin jasotzeagatik sor-tuak?.

Konklusioak ez dira, ikusten denez, "bere buruaz asko gora mintzo", ez "dira bere baitan asko klar eta ozen".

Testamentu Zaharra

HASIERA	ERREFERENTZIAK EDOTA LATINEZ EMANDAKO TESTUAK			BESTERIK
	KOPURUA	ONDO	GAIZKI	
HASIERA	19	17	2	-
IRTEZEA	7	5	-	3
LEHUARRENA	2	2	1	1
ZENBAKIAK	1	-	-	1
DEUTERONOMEOA	5	1	-	2
ERREGEAK (1, 2)	9	5	-	-
(1 Sam. u)				
(2 Sam. u)			3	3
4 ESDRAS	1	1	-	-
JOB	13	10	-	-
SALMOAK	39	33	1	2
ESAIERA ZAHAR.	37	29	3	3
KOHELET	6	5	5	2
KANT. EDERRENA	3	2	-	1
JAKINDURIA	4	3	1	-
SIRAKEN JAKIND.	34	26	1	-
ISAIAS	9	7	6	2
JEREMIAS	9	7	1	1
NEGAR KANTAK	4	7	-	2
EZEKIEL	3	4	-	-
DANIEL	4	1	2	-
OSEAS *	3	2	1	1
JONAS	2	2	1	-
MICHAAS	2	1	1	-
HABAKUK	1	2	-	-
SOFONIAS	1	1	-	-
MALAKIAS	2	1	-	-
MAKABEARRAK	4	2	1	-

Testamentu Berria

	ERREFERENTZIAK EDOTA LATINEZ EMANDAKO TESTUAK			BESTERIK
	KOPURUA	ONDO	GAIZKI	
MATEO	47	26	9	11
MARKOS	1	1	-	-
LUKAS	19	16	3	-
JOAN	13	11	-	5
APOST. EGINKAK	4	2	-	2
ERROMATARRAI	13	7	1	1
1 KORINTOARRAI	7	6	-	4
2 KORINTOARRAI	3	2	-	-
GALAZIARRAI	4	2	1	-
EFESOARRAI	4	3	1	-
FILIPOARRAI	1	-	1	-
KOLOSOARRAI	1	1	-	1
1 TIMOTEORI	2	1	1	-
2 TIMOTEORI	3	2	1	1
HEBERTARRAI	2	2	-	-
SANTIAGO	4	3	1	-
2 PEDRO	2	2	-	-
1 JOAN	2	2	-	-
APOKALIPSIA	7	5	2	-



## 9.5.- AIPAMEN EZ-BIBLIKOAK GERO-N

Esana dugu jadanik Axularren obran aipamenak etengabe agertzen direla orrialdeetan barna. Horietatik, egile kristauen esparrukoak izango dira gehienak, nahiz eta bestelakorik ere aurkitzen den.

Oro har, Bibliari dagozkion aipuak aparteko multzo batean utziko bagenu, Axularrek libururutzen dituen guztiak beste bi multzo orokorretan bereiz genitzake: autore kristauna, batetik, eta "jentilena" (hau da, kristauak ez diren klasikoenak), bestetik<sup>336</sup>.

Elizako Gurasoen eta Patristikaren eremuan Axularrek sailduaren izena tartekatu ohi du testuan, "erraiten du", "dio" edo antzekoez lagunduta. Inoiz gertatzen da testuan izenik ez tartekatzea, San Ambrosioren hiruzpalau aipamen egiten dituenean, adibidez (425 eta 429 or.; 472 or.); berdin San Agustinen aipamen batekin (428 or.) eta San Isidororenarekin (440 or.) Baina hori ez da normalena, gehienetan izena testuraten baitu. Patristikaren arlo horretan Joan Klimako birritan aipatua izango da obra guztian zehar (182 eta 411 or.) eta bietan "Climaco sailduac" formularekin, "san" aurretik ipintzea eskatuko zukeen sailduaren izena ezagutu ez bailuen.

Zenbait teologo bestelako erreferentziarik gabe ematen ditu Axularrek. Hau da, esaterako, Juan Casianoren kasua; beti agertuko da "Contatcen du Casianoc..." (23 or.), "... badio Casianoc ere..." (369), "... erraiten du Casianoc..." (380 or.).

Teologoen artean aipatutako garrantzitsu bat Zumel izango zen. Axularrek "Hala erraiten du ene escola nabusi batec" (103 or.) deskriptiboarekin adierazten du gero alboan egilearen izenarekin soilik identifikatuko duen erreferentzia bat.

Ezagunago bide zen Navarro doktorea: "Hala emaiten du aditcera doctor Navarroc..." (243 or.), eta "Guehiago dio Doctor Navarroc leccu berean" (244 or.).

Inoiz, ospetsua edota irakurleen artean ezezaguna suertatzen denean, aski du Axularrek alboan erreferentzia eta egilearen izena jartzearekin, testuan formula generikoa erabiliz: "Hala erraiten du doctor batec" (202 or.) eta alboan "Hugo..." edo "...ecen erraiten baitu Doctor batec..." eta alboan "Petrus Lomb" (567 or.). Batzuetan, dena den, azalpen orokorrik ere erabiltzen du: "Ezta puntu hunetara gaizqui heldu Pierres Damiano daritçan Doctor batec contatcen duena. Dio doctor hunec ecen..." (246 or.).

Inoiz, horrelako usadiorik ez duen arren, epitetoa aipamenari sendotasuna emateko erabiliko du Axularrek: "Puntu hunen gainean erraiten du Soto doctor handi harc..." (207 or.). Baina ez bakarrik sendotasuna, autorearekiko begirunea ere adierazte du urdazubiarrak, bigarren adibidean ikusten den bezala: "Baiña eguiteco huni ihardesteco, aita Domingo Soto, Doctor handi hari iarraiqui nahi natçaica. Eta haren erranaren eta iduriaren arauaz, diot ecen..." (583-584 or.).

Horazio, Seneka eta Ovidio bezalako autoreak agertzen direnean, esaterako, gehienez ere izena baino ez du jartzen Axularrek: "dio Oratioc" (38 or.), "dio Ovidioc" (41, 86, 379 or.), "dio Senecac" (42, 50, 66, 162, etab.), "erraiten du Aristotelec" (118 or., 354 or., 377 or.), "contatcen du Plutarcoc" (288 or.),...

Sarri askotan alboko erreferentzia izaten da lekukotasunaren identifikazio bakarra: "Ovid." (62, 350, 381 or.), "Orat" (87 or.), "Plaut." (97 or.), "Auson." (153

336 - Katoliko "onetsia"-k edota klasikoak ez diren autoreak ez ditu Axularrek aipatzen: ez Granadarenean hain garrantzitsua zen Erasmo bera ere; are gutxiago protestanteak eta ateoak.

or.), "Aelianus" (316 or.), "Cicero." (322 or.), "Ioseph." (343 or.), etab. Idazle kristauak ere tratamendu berdina jasotzen dute inoiz Axularren aldetik, IV. mendeko Lactancioren kasuan bezala (301 or.) edota Menandrorean (376 or.), alboan agertzen baita haien erreferentzia bakarra. Berdin beste hauekin ere: "Guidus Cartus." (393 or.), "Rhodig." (394 or.), "Aeneas Silv." (406 or.), "Alex. ab Alexandro" (406 or.), "Hilarius cano." (483 or.).

Halere, bada aposizio murrizgarri eta ez-murrizgarri ere giristino eta ez giristino diren autoreekin: "...Stacio Poetac dioen beçala..." (302 or.), "...Marcial Poetac erran ceraucan..." (414 or.) edota "...Eliano greciaco esquiribatçaille batec contatcen duen beçala..." (344 or.), "...erraiten du San Crisostomo urrezco mihi harc..." (437 or.).

"Jentil" kalifikazioa maila ideologikoaren menpe izan du normalean saratarrak eta dotrina eta bizimodu kontrasteak hanpatzeko erabili izan ditu beti. Adibide garbia Senekaren izenarekin doan hartan aurki daiteke: "Etçuen hala eguiten Senecac Ientil bacen ere..." (186 or.).

Aipamenetako adibiderik harrigarrietako bat Ovidiori eskaintzen zaion definizio anfibologikoa da (ironia agian Ovidio nor zen zekitenentzat, baina Axularrek bilatzen ez bide zuen laudorioa ere bilaka zitekeen kultura eta literatura ezagutzen ez zutenentzat): "materia hunetaco pilotu on" (350 or.)<sup>337</sup>.

Exenpluetako pertsonaiak direnean deskribatzaile-kalifikatzaile funtzioa duten aposizio murrizgarriak maizago aurkituko dira: "Antioco sophista deitcen cen harc..." (287 or.), "Livio Philosophoac bere discipulu Theodosio Emperadoreari..." (298 or.).

Badira, bestalde, autorearen izenik ez daramaten erreferentziak ere: "Historia montis ser" (353 or.), "Destructor. Vitorum." (385 or.), "Vita Thome Mori" (516 or.).

Aipamenen artean bada nolabaiteko pistarik ere ematen duenik, nahiz eta guk asmatu ez dugun. Hauxe da, esate baterako, honako honen kasua: "August. lib. 3. contra Perili. donatistae. Luter. T. 7." (444 or.). Argi dago aipamen bakar bati dagozkiola hitz horiek. Halere, "Luter." delako horrek ez du zentzurik San Agustinen liburu baten izenburuan. Arrazoa erreferentzia jaso den lekuan egon liteke, agian bi aipamen desberdinei zegozkien erreferentzia desberdinak zirelako.

Gerta daiteke aipamena "eliçac" esandakoetatik jaso izatea (502, 559, ... or.) edota "Concillioac" (454 or.).

Hogeita hiru alditan *vide* hitza erabiliko du irakurlea idazlan zehatz batera bidaltzeko: "Vide Chrysost..." (424 or.), "Vide S. Tom" (470 or.), "Vide Aug." (502 or.), etab. Horrelakoetan Axularrek ez du aipamen zuzenik eskaintzen, hau da, ez du latinezko esaldirik tartekatzen; joera da ideia azaltzea eta, inoiz, azalpen egokirako *distinctio* arloko elementuren bat edo beste latinez eskaintzea: *Poena inflictia* eta *poena assumpta* (158 or.), etab.

Testu horietakoren bat aipamen zuzena bihurtu nahi izan duenean, ohiko erreferentzia sistemara makurtu da (ikus 424 or.).

337 - Honetaz eta Axularrek Ovidioz zeukan ideiaz aurrerago ere mintzatuko gara, izan ere ez baiturdi-harriduraren harridura! Axularrek garbiegi zeukan Ovidioren ekarpen literarioaren. Horrek zeharka baino ez zuela ezagutzen haren obra adieraz lezake, hots, autore kristauak iragazia eta atalka baizik. Anbigutasun horren sustatzaile izango da gero aszetika obra baten izenburuaren antza duen liburuaren erreferentzia hiru aldiz ematen duenean: *De remedia amoris*. Bestalde, Platonen obran kokatzen duen aipamenak berak ideia hori baino ez luke berretsiko (ik. *Gero*, 352 or.).

Anekdotak gisa bada ere, azpimarratu erreferentzia hauek liburuan zehar agertzerakoan erakusten duten erregulartasuna, normalean hogeita-hogeita hamar orrialdeko tartekak baitaude haien artean. Salbuespen modura, ia-ia jarraian dauden *vide* horietako bi: "Vide Basil. de constit. monast. cap. 4." (397 or.) eta "Vide Aug. de honestate mulie. cap. 1" (398 or.), hirugarren bat ere kapitulu berean agertuko delarik, XLII.ean alegia: "Vide Chry. serm. contra concubi. Tom. 5." (403 or.).

Eskritura Sakratuetako exegesian erabilitako glosak Nikolas Lirakoarenak dira. Honek, jakina denez, zentzu literalari emango dio lehentasuna interpretazioan, Axular jarraitzaile duelarik.

Aipamen anonimoak ere agertuko zaizkigu, jakina, zenbaitetan oratoria sakratuko arauak agindu bezalaxe, hots, labor eta bestelako pistarik eman gabe: "Theologoc" (369 or.) "Ihenagoco Philosopho batçuec" (33 or.), antonomasiar "Poeta" omen dena (289 or.), etab. Behin edo behin, hauen artean kalifikatibo eta gradatzaileak ere egongo dira: filosofo jentila, filosofo, etab.

### 9.5.1.- ELIZAKO GURASO-DOKTOREAK ETA IDAZLE KRISTAUAK

Ezaguna da Bibliaren iturria ez dela inoiz nahi bezain gardena izan. Are gehiago, iluntasun eta zalantzek alor exegetikoa urratzera bulkatu zuten neurrian, badirudi erlijio edota dibergentzia erlijioso batzuen jaiotza testu eta pasarte zenbaiten interpretazio desberdinetan zetzala.

Jakina, erlijio katolikoak tinko eta estu bideratua zuten interpretazioen kanona (zer esanik ez Trentokoaz geroztik!), Eskritura Sainduen ondoren, Elizako Gurasoen multzoa osatzen zuten saindu -Jainkoaren inspirazioagatik- jakitunak zirelarik liburu sainduen interpretatzaileak eta argi-emaileak.

Oro har, Axularrek aipatzen dituen "Eliçaco Doctor" horien kontzeptuak Elizako Guraso direnak<sup>338</sup> eta benetan "Elizako Doktore" zirenak<sup>339</sup> barneratzen ditu zaku berean -inolako bereizketarik egin gabe, jakina-. Egia esan, eskolastika kanon patristikoa aberastera aspalditxo etorria zen.

"Con el Concilio de Trento empieza una nueva consolidación y una extensión del poderío de la Iglesia; se inicia entonces la costumbre de elevar a la dignidad de Doctores de la Iglesia a los grandes maestros cristianos de la modernidad, como Santo Tomás, San Anselmo, San Bernardo de Claravalle, San Alfonso de Ligorio, San Francisco de Sales[...] Los *Doctores Ecclesiae* forman una corporación santa en la que conviven amigablemente lo *antiqui* con los *moderni*" (Curtius 1976, 366).

Horren ondotik etorritako kanonak idazleen arabera ohi ziren. XVI. mendeko erretorika eklesiastikoz ziharduten liburuetan, esate baterako, oso zehatz aholkatzen zitzairen predikariei zeintzuk ziren kanon horretatik gehien erabili behar ziren autoreak. Honela zioen Fray Diego Valades-ek berean (*Rhetorica Christiana*, Perusa, 1579): "Aquel par sin par de verdaderos amigos, Gregorio y Basilio [...]. Y los santos Ambrosio, Crisóstomo, Agustino, Jerónimo, Cipriano [...]. Estos son los maestros que ha

338 - Ezaguna da Eliza kristauak kanon biblikoa osatzeko beharra nanbaritu zuenean ekin ziola idazle kristau zahar-klasikoen arteko hautaketa (=kanon teologiko berria) egiteari. Horietatik sortuko zen "Elizako Guraso" delako kontzeptua. Oro har, ekialdeko Elizak ezarritako San Basilio Magno, San Gregorio Naziantzokoa eta San Joan Krisostomoa eta mendebaldekoak aukeratutako S. Atanasio, S. Agustín, S. Anbrosio, S. Jeronimo, S. Gregorio Magno izan ziren hasierako "maisua" (cfr. Curtius, 1976, 366)

339 - "Elizako Doktoreak" ez dira "Guraso" ezinbestean.

de seguir y los modelos que ha de imitar el predicador evangélico" (apud Olmedo 1960, civ).

Esan bezala, beraz, gertu eta prest zuten prezeptista guztiak irakurri beharreko autoreen zerrendaren bat edo beste, luzeagoa edo motzagoa. Bide horretatik abiatuko zaio Terrones del Caño hasiberriari<sup>340</sup>, aholkatutako horietara jo behar baitzen doktrinaren garbitasuna mantendu ahal izateko

Garaiko aszetika-autore gehienek bezala, Axularrek ere bere egin bide zuten jarraitu beharreko autoritateen aholku nagusia, Trentokoaz geroztik autore batetik bestera ia aldaketarik ez zuena hain zuzen.

Erabilpenaren maiztasunari gagozkiolarik, honako hauek dira, oro har, *Gero*-n agertzen zaizkigun patristika arloko idazle garrantzitsuenak: San Agustín (84 aldiz), San Joan Krisostomoa (55 aldiz), San Isidoro (50), Santo Tomas (38), San Anbrosio (17), San Basilio (11), San Jeronimo (11), San Bernardo (4), San Gregorio (20), San Juan Climaco (2), San Zipriano (behin), San Pedro Damiano.

Prestakuntza unibertsitarioa zela eta, horietatik Axularrek ongien eta sakonen ezagutu behar zuten autorea Santo Tomas zen. Gorago adierazi den bezala, etengabe ihardun behar izan zuten orduko teologogaiak eskolastika ikasten. Horren ondorioz agian, Axularrek Akinatea testuraten duen erakusten duen aztertze prozedura bera ere Salamancako unibertsitateko estatutuen arabera klaseetan erabiltzen zena bezalakoa da:

"Los [...] dos Cathedricos de Prima y Visperas sean obligados en los principios de las questiones a leer la letra del maestro [Santo Tomasen sententzia liburuei buruz ari da] que a ellas corresponde, declarando las conclusiones y autoridades del Maestro, y de los Doctores que tratan aquella materia, y en que es comunmente aprouado, o no" (Mitzelena Mz. de Ilduya 1977, 62) (azpimarrak gureak dira).

Ildo horretakoa izango da ohiko glosak ere (*glossa ordinaria*) beteko duen funtzioa. Nabarmendu beharrik ez dago Erdi Aroan predikari eta elizako idazleen artean izan zuten arrakasta. Horrezaz gainera, gogora bedi, komentario patristikoetara iristeko bidea izan zen glosarena. Longèrek dioen bezala,

"La *glossa ordinaria* eut auprès des maîtres et des prédicateurs un succès durable et jouit peu à peu d'une autorité qu'on a pu comparer à celle du décret de Gratien ou des Sentences de Pierre Lombard" (Longère 1983, 186).

Arrakasta, dena den, apalduaz joan zen XVI. mendearan hasieran eta, batik bat, inprentaren bidez lortu zen liburu-demokratizazioagatik, bestelako testuak ere (patristikakoak, besteak beste) areagotu ziren predikari eta elizgizonen lan-mahaietan, ordurarte predikazio eta lan idatzietan glosak izandako lehen mailako garrantzia difuminatuaz joan zelarik.

340 - "Para comenzar a estudiar la Sagrada Escritura, en general son libros a propósito para principiantes: de los modernos las *Hypotyposes* del Cantapretense; *Bibliotheca Sancta Sixti Senensis*; *Regule Scripturæ* del Obispo de Osma; *Annotationes in Sacram Scripturam* de Pedro Antón Benter; *Phrases de Villavicencio*; *Aparato Sacro* de Arias Montano, y sus *Prolegómenos*, y del Padre Ribera sobre los Profetas Menores; Cano, *De Locis Theologicis*, 1.2. Con estos libros y otros así se sabe lo general de los libros y reglas de la Sagrada Escritura; pero en particular, cuanto al sentido literal, los libros a propósito son: San Jerónimo en todo lo que comentó; [...] y otros que van saliendo cada día, especialmente portugueses y otros extranjeros" (Terrones del Caño, *Instrucción de Predicadores*, 31-32).

Arrakasta apalduaz joan zen, era berean, Pedro Lombardoaren *Liber Sententiarum* izeneko obra garrantzitsuari dagokionez, XVI. mendearen erdi aldean Santo Tomasen *Summa* delakoak kendua baitzion Teologia fakultateetan ordurarte Lombardoarenak ikasketa eta prestakuntza erlijiosoa bete zuen leku pribilegiatua.

Bien adierazgarri izan daitezke Axularrenean ikusten diren aztarnak, Lombardoarenak aipamen bakarra jasotzen baitu.

Bestalde, glosaren eragina norainokoa izan den atzematea zail xamarra litzatekeen arren, zenbaitetan Axularrek klarki adieraziko du glosa erabili izana. Aipatzean, dena den, hiru modutako glosak aipatzen ditu: *glosa ordinaria* moduan (40 eta 384 or.), *glosa lirana* bezala (119, 220, 384, 475, 526 eta 529 or.) eta, hirugarrenik, *glosa interlineal* moduan (271 or.).

Bestelako autore erlijiosoz bezainbatean, Axularrek garaikideen ohiko joera erakusten du. Aurreko mendeetakoak direnean normalean aipatuak eta erreferentziatuak izango dira. Ezinbestekoa zuen, esaterako, P. Lombardiarraren *Libri quattuor sententiarum* liburua aipatzea, besteak beste honako hau zelako, hots, "sistema teológico en que se engloban las «decisiones» (sentencias) de los Padres de la Iglesia y de los autores más recientes, y que quedaría muy pronto constituido en texto escolar [...]” (Curtius 1989, 87). Halaz ere, hain ezaguna bide zen obra hari aipamen bat baino ez dio Axularrek aitortzen.

### 9.5.2.- AUTORE GARAİKIDEEZ

Axularren garaikide izandakoekin edo, bera bizirik zegoela, oraindik ere garaikide zituenen obrekin erakutsitako jokabidea ez da aurrekoekin izandakoa bezain "gardena". Frai Luis Granadakoari, ikusi den bezala, ez dio inolako aipamenik eskaintzen. Noski, zorra handiegia gerta zitekeelako, inondik ere.

Beste garaikide batzuekin, aldiz, zorrak -txikiagoak ziurrenik- kitatu egiten bide dira arazorik gabe. Hau da, esaterako, Zumelen kasua:

“Bere garaiko autoreetarik Zumel da Axularrek aipatzen dituenetako bat, bere eskola nabusitatzat aitortuaz, gainera (nº 69). Bekatari ostinatu, gogortu eta itsutuen kontua esplikatzen du hemen Axularrek, bere eskola-nabusia gidarizat hartuz. Seguru asko honen liburuak izango zituen bai Axularrek. Hemen, Arantzazuko liburutegian, badira Zumelen bi liburu: *De Deo ejusque operibus, Salamanca*[sic] 1590. Eta beste bat, aurreko orriak falta dituen, Salamancan 1585. urtean agertua. Biotan azaltzen da Axularren puntu hau: lehenbizikoa 659. orrialdean; bigarrenean 616. orrialdean. Eta Axularrek puntu honi buruz dakartzkien zitak (Bibliatik edo Eliz Gurasoetarik hartuak), ia denak Zumelen obretan datozen berberak dira. Zumelen beraren pasarte hitzez hitz Axularrek dakarren bezala ez dut aurkitu, baina bai antzera xamar” (Villasante 1972, 134-135)

Zumeli dagokionez, jakina da ospe handiko gizon hau Molinaren etsairik handiena izan zela XVI. mendearen azken urteetako eztabaida teologikoetan. Horrezaz gain, kontutan hartu behar da Salamancako unibertsitateko kantzelariordekoa eta Teologia Fakultateko dekanoa izandakoa Zumel aipatze hutsak berak, eta batez ere irakasle izan zuela esateak, prestigioa baino ez ziola ematen Axularri. Pérez Goyenak adierazten duen legez, XVII. mendeko teologoek “le alegaban bastante, ora en apoyo de sus opiniones, ora para impugnarle” (Pérez Goyena 1919, 37).

Berdintsu esan liteke “doktor Navarro” deitzen zuten Martin Azpilkuetari buruz (*Gero*, 243-244).

Domingo de Sotoren erreferentzia biak direla eta, *In Quartum Sententiarum commentaria* liburutik hartuak direla dio urdazubiarrak<sup>341</sup>. Sotoren testuak eta dotrina egile espainiar askoren obretan ere aurki daitezke. Maiztxo aipatu izan da Luis de Leon, Herrera, Suarez eta beste hainbatengan izandako eragina, hauetako batzuetan plajioraino iritsi zena. Hortaz, hain zabaldua eta ospetsua izan bazen haren obra, ez da harrizkoa Axularrek haren -zeharkako?- erreferentziak erabili izana.

Granadako Luisek biziki laudatua izan zen Ribadeneira Axularrek behin baino ez du aipatzen. Aipamena, gainera, exenplu gisara ekarria da eta inolako erreferentzia berezirik gabe, beste edonondik hartua izan bailitzen.

Garaikideen arteko gehienak, beraz, oso gutxitan eta ia erreferentziarik gabe agertuko dira *Gero*-n. Aurrekoenez gain, sintomatikoa da Osorio delako baten aipamen bakarra ere (*Gero*, 33 or.). Bertan ematen diren aztarnak direla medio<sup>342</sup> -“Indietako herri batzuetan”-, agian Mexikoko misioen berri jakiteko ezinbestekoa den Antonio Osorio de San Román izeneko agustindarrari buruz<sup>343</sup> diharduela pentsa daiteke; baina, edozein modutan, aipamen bakar horrek tarteko iturrien bidea edo planteiatzen duela dirudi.

Era berean, aipamen harrigarrietariko bat, Axularrek aipatu bai -behin bakarrik- baina izenburuaz gain bestelako erreferentziarik eskaintzen ez duen *Theatrum humanae vitae* liburuari deritzogu. Theodor Zwinger medikuarena bide den liburu honek (*Basileae*, 1565) ez dirudi bide zuzena izan zuenik *Gero*-ra iristeko. Baina berriro ere planteatzen zaigu aipamenera arazoa.

### 9.5.3.- LITERATURA ERLIJIOSOAREN ARLOKO AIPAMENEN ARAZOAZ

Nekez pentsa liteke, dena den, ez Axular ez beste predikari arruntak ere horrelako bibliografia luze-zabala ezagutzeraino iritsi zitezkeenik, modu zuzenean behinik behin. Ildo horretatik, garbi eta apalki planteiatu zuen Lacombek arazoa:

“On ne s’était pas demandé comment un ecclésiastique rural, travaillant loin de toute grande bibliothèque, pouvait citer tour-à-tour et abondamment Aristote, Sénèque, Plutarque, saint Augustin, saint Jean Chrysostome, saint Ambroise, saint Thomas, etc., etc...” (Lacombe 1943 [1956, 366])

Horren adibide gisara, Axularrek erabili bide zituen Eskritura Sainduz gain, bada *Gero*-n zehar zenbait pista liburuaren erreferentziak ematean behar bezala aztertu ez direnak eta arreta gehiagorekin aztertuak izatea eskatuko luketenak. Horietariko batzuk autore saildunen obrak zein tomatan dauden esaten digutenak dira. Elementu horren arabera, Axularrek ehundaka tomo kontsultatu izan zituen.

<sup>341</sup> - Liburu horren argitarapenerako baimena- bitxikeria baino gehiago- Trenton bertan onartu zen 1562an eta Tellecheak dioenez, “resulta un tanto misterioso el iter de la aprobación del *In quartum Sententiarum* (Salamanca 1557) de fray Domingo de Soto, fallecido hacía unos años, en noviembre de 1560. ¿Acaso fue acción cautelar de la Orden por miedo al inquisidor general Valdés, poco favorable a Domingo de Soto, al plegarse éste menos a sus deseos que Melchor Cano? El texto de la aprobación se titula «Licentia pro commentariis Dominici Soto, Ordinis Praedicatorum, imprimendis». Se trata, pues, de proteger una posible nueva edición en Venecia” (Tellechea 1993, 310).

<sup>342</sup> - Eskasa da alboan ezarritako erreferentzia: “Osor. lib. II.”

<sup>343</sup> - Inkisizioko kide izan zen autore honen liburu ospetsuenen artean *Consuelo de penitentes* (1583) eta *Mesa franca de espirituales manjares* (1585) aurkitzen dira.

Izan ere, S. Agustinen obren erreferentziak egitean 10. tomo baten aipamena lau bat aldiz egiten du, tomo horretan obra hau edo bestea dagoela adierazteko. Hiponakoaren obrak, beraz, gutxienez 10 tomotako bilduma batean zeuden. J. Krisostomorenak 7 tomotan gutxienez. S. Gregoriorenak 7 tomotan; Suriorenak 10 tomotan (10.a aipatzen baita). S. Basiliorenak ordea 25 tomotan. S. Anbrosiorenak 5 bat tomotan.

Ikusten denez, aipatu sei autore hauen lanak bakarrik batuko bagenu, tomo gehiegi aterako litzaiyuke garai hartan pertsona bakar baten etxean izateko: 64 tomo. Eta aipatzeke ditugu oraindik beste askoren obrak.

Horrezaz gainera, bada bestelako arazorik ere: obren eskuragarritasunarena hain zuzen. Krisostomoren adibideari (55 aldiz aipatua *Gero* guztian<sup>344</sup>) begirada bat emanaz honako hau ikusten da, hots, Axularrek aipatutako obra (8 tomotakoa) Eton-en argitaratutakoa izan zitekeela. Halere, XVII. mendean Ingalaterrak Euskal Herriarekin zeukan harreman ekonomikoa gora-behera, badirudi eskuragarriago izan behar zuela 1609-1624 bitartean Fronton du Duc-ek argitaratutako 6 tomotakoak<sup>345</sup>. Axularren 55 erreferentziei jarraikiz, bakarrik Krisostomoren obraren lehenengo 5 tomoak erabili zituen *Gero* idazterakoan (behin baino ez du aipatzen 7. tomoa<sup>346</sup>).

Beraz, predikarien eginkizuna egokiro betetzeko prestakuntza sendoa behar-beharrezkoa bazen ere, normalean bestelako bidezidor bibliografikoak erabil zitzakeen sermoia gertatu behar zuenak. Hortaz, gauza bat zen garrantzitsutzat jotzen zen prestakuntza teorikoa eta beste bat, errealitateki hurbilago zegoena eskuarki, elizgizonek zegitena. Izan ere, haien eginkizunetarako baziren sermoi prestatuak, ereduak, antologia modukoak, tematikoki antzekoak izan zitezkeen liburuak eta, guztien gainetik, *loci, sylva* eta bestelako *collectanea* izenekoak, erabilgarrienak eta hedatuena, inondik ere.

Edozelan, oso esanguratsu deritzogu Tomas Trujillo dominikarrak aholkatzen duenari, izan ere ezinbesteko jotzen du predikariak liburu asko izatea eta asko irakurtzea eta oso zerrrenda interesgarria eskaintzen dio<sup>347</sup>, hain zuzen ere Axularren iturri-aipamenetatik aurkitu dugun hurbilena. Zer esanik ez dago, Axularrek darabiltzan iturri eta aipamen sorta handi batek badu horretan bere tokia.

Aipamenen artean, eta Sarako erretoreak liburuan adierazten duenari jarraitu nahirik edo (testuok "Escritura saindutik, Eliçaco Doctoretaric eta liburu debo-cinozcoetaric" atereak direna alegia), Lafittek sailkapen moduko bat argitaratu zuen, nahiz eta ez beti ongi neurtua aipamenen maiztasun eta kopuruari dagokionez<sup>348</sup>.

344 - Eta Elizako Gurasoen artean aholkatuenetarikoa, ezbaierik gabe: "De entre los padres de la Iglesia, quien mas debe leerse es San Crisóstomo, por ser elocuentísimo, y tan acomodado á los oídos del pueblos" (Granada, *Retórica*, 513 b).

345 - Handik urte batzuetara, 1636an hain zuzen, obra osatzeko falta ziren azken 6 tomoak argitaratuko zituzten Morel eta Cramoisy-k.

346 - Bestalde, erreferentzia hori zuzena dela ziurtatu beharko litzateke, bestetan ikusi den bezala, zitekeena baitzen 7 zenbakia akatsa izatea.

347 - Trujillo, *Thesauri concionatorum libri septem*, Barcelona 1579 (Cfr. Olmedo 1960, cxii-cxii).

348 - Lafittek **Elizako Doctoreen** artean hamar aurkitu zituen liburuan barrera. Haren ustez, erabilienak honako hauek izan ziren hurrenez hurren: San Juan Crisostomo, San Agustin ("en ses Confessions") eta San Thomas Akinokoa. Horiezaz gain, gutxiagotan erabiliak honako hauek: San Jeronimo, San Gregorio, San Ambrosio, San Basilio, San Isidoro, San Bernardo, San Pedro Damians. **Idazle eklesiastiko** direlakoan artean hauek aurkitu omen zituen: sainduak (San Zipriano eta San Klimaco), teologoak [Hugo de San Victor, Soto eta "Navarrus, oncle de saint François-Xavier"]; bestelakoak (Suri hagiografoa. Casiano diakonoa eta Ludolphe le Saxon) (ik. Lafitte 1943, 38).

Aipamen biblikoen atalean bezalatsu, "patristiko"-tzat edo hartu ditugun hauetan Axularrek jatorrizkoak edota bestelako iturririk erabili izan zuen finkatzen hasteko zailtasunak handiak dira zeharo, ez baita hori jakiteko arau edo era zehatzik.

Horrezaz gainera, metodologikoki zailtasunak areagotu egin ohi dira, gurean bezala, testua bakarra denean: "Avec pour base un seul texte, il est quasi impossible de présumer l'utilisation d'une source intermédiaire" (Reu 1993, 334).

Edozein modutan, geroago klasikoan errezepzio mediatizatuari buruzko atalean tratatuko den bezalaxe (ik. 9.6.3 atala), honako honetan ere bada hainbat iturri tartekoren hipotesia argitzeko faktorerik. Besteak beste, kontutan hartzekoak dira:

a) liburuaren hasieran egileak berak egindako aitorpena, hots, "Escritura saindutik, Elizako Doctoretaric eta liburu debozinozkoetatik [...] bildua" dela adierazten duena. Horretan ez dago egilearen hitzaz zalantza egiteko motiburik, berak esan legez, hiru arloetakoak erabiltzen baititu Axularrek, eta beharbada gehiago hirugarren esparrukoak beste bietakoak baino.

b) Egileak espreski adierazi ez arren, argia da gorago zehaztu den dependentsia, zenbait pasartetan Granadaren obraren dependentsia alegia.

Garbi dago aipamen asko eta asko nonbaitetik (*silva* batetik?) hartuak direla. De Reu-k proposatzen duen irizpidea erabiliz, garbi dago zenbaitetan ez-ohiko aipamen pilaketak ere ematen direla Axularren obran (*Gero*, 353-354, 406, 474-477 or., etab.)

Baina, edonola ere, pilaketa horietan garbi asko ikusten da Axularrek ez zituela jatorrizko liburuak erabili, izan ere erreferentziez aparte ez baita inolako arretarik antzematen esaten dena nork esan edota nori dagokion bereizteko.

Kasu bat baino ez aipatzeagatik, Juan Casianoren hitz bezala aurkezten dizkigunak ditugu: *Mulierem ignoro et virgo non sum* (ik. *Gero*, 369 or.). Casianok jasotako hitzok, izatez, S. Basiliorenak badira ere, bost aipamen elkarren ondoan ematean garbi asko susma daiteke Axularrek bostak hartu zituela puntu horretaz (haragiaren bekatuan obratzeko gogo hutsaz, alegia) ziharduen *silva, collectanea, loci, addenda* edo antzeko batetik, eta ez testuingurua argi eta garbi erakusten duen Casianoren obra originaletik.

Jakina, San Basiliorenak izanda (eta hain ezagunak gainera; ikus bestela, S. Frantziskoo Saleskoaren *Filotea* bera -1609-, non luze aipatua agertzen baita eskuen artean dugun Casianoren hau), gero Axularrek S. Basilioren obrak aipatzen dituenean (orduana ere aurkitzeko zailak) zilegizko dirudi irakurriak izango ote zituen pentsatzeak.

Areago, Axularrek *Gero*-n egiten dituen Casianoren hiru aipamenak hain zehatz erreferentziatuta egon arren ("lib. 6, cap. 19", "lib. 18 cap. 14." eta "lib. 10 cap. 8"), ez da ikusten obraren erabilpen aztarna argirik, izan ere oso erabilia izan baitzen Casianoren obra XVI eta XVII. mendeetako aszetikako autoreen artean. Adibide gisa, eta S. Basilioren aipatu hitzez gainera, Axularrek 23 orrialdean dakarren *exemplum*-aren pareko bat Granadaren *Memorial*-ean ere agertzen da, nahiz eta erreferentzia desberdinarekin (10 lib., 24. kap.):

"Casiano escribe de aquellos padres del yermo, que tenían por tan importante cosa esta (alferkeriatan ez egotea), para perseverar en la observancia de la virtud y religion, que cuando algun monje vivia tan apartado de la compañía de los hombres que no le podia prestar para nada su trabajo, no por esto dejaba de trabajar, y al cabo del año pegaba fuego á sus trabajos, para desembarazar la celda, y comenzaba de nuevo a trabajar" (*Memorial*, 273 or.)

Erabilera handikoa da baita ere hirugarren aipamena, hots, *Mens otiosa nihil aliud novit nisi de escis atque ventre*

Granadak bere *Silva* delakoan honela eskainiko dio jaso nahi duenari<sup>349</sup>

*Mens otiosa nihil aliud cogitare novit, quam de escis, atque ventre* (355 or.; azpimarra gurea da).

Garbi dago Axularren bertsioan galdutako *cogitare* hura egilearen buruan eta euskarazko bertsioan ez dela inolaz ere galdu:

“Alferraren gogoetac, eta solhasac, ian-edanaz, eta sabelaz dira, eztu bertcetan pentsatcen ere” (380 or.)

Aipatu berri dugun tarteko iturrien hipotesia areagoturik agertzen da beste faktore batzuk gogoan izanez gero. Garrantzitsuenak baino ez ekartzearren, liburuan barrera gehien agertzen diren sainduen aipamenen lekukotasunaz, hots, San Agustinen eta Krisostomoarenaz baliatuz azalduko ditugu.

Ez San Agustín bezainbeste, baina bai berrogeita hamabost aldiz aipatua den San Joan Krisostomoaren lekukotasunari interesgarri deritzogu arazoak argitzen hasteko. Eta Krisostomoaren aipamenak ekarri nahi ditugu hona erregulartasun falta agertzen dutelako. Izan ere, liburu beretatik edoski duen autore baten aldetik espero dena, jasotzen duen guztia modu ahalik erregularren ematea bide da, hau da, formula tinkoen bitartez. Axularrek, aldiz, “urrezko ahoduna” delakoaren homiliak aipatzean era desberdinetan egiten du<sup>350</sup>. Besteak beste, maizen agertzen direnak “homil.” (272 or.), “hom.” (50 or.; 90 or., etab.), “ho.” (296 or.) bezalakoak ditugun arren, zenbaitetan honelako formulak ere erabiltzen dira liburuan: “serm.” (319 or.; 403 or.), “episto.” (296 or.) “conc.” (440 or.) / “concio” (424 or.; 437 or.). Azken hauek (Conc., concio) obra baten (Krisostomoaren obra guztiak jasotzen dituena, agian?) 2. tomoan bide dagoen “De Lazaro” izenekotik ateratakoetan bakarrik agertzen dira, eta ia jarraian emanak; bestalde, tomo beretik ateratako gainerakoak “hom.” bezala azalduko dira.

Guztiarekin ere, aipamenen tratamenduan askoz adierazgarriagoa da San Agustinen testuekin egindakoan ikusten dena. San Agustín Axularrek gehien aipatzen duen autore da (84 aldiz erreferentziaturik agertzen baita), eta horrexegatik izan daiteke, hain zuzen, Axularren jokabide orokorraren erakusgarri.

Egia esan, aipamenen erkaketak ez digu garbi utzi Axularrek haren testuak zuzenean erabili zituenentz. Areago, sarri asko susmoak ditugu aipamenak ez ote diren beste obratatik jasoak izan, gehiegi baitira akatsak eta hutsuneak, eta ez bakarrik testuen alboan jarritako erreferentzietatik dagokienez, aipamenetako testuetan ematen diren aldaketek berek (lexikoa, hiperbatonak, etab.) bestelako susmoak sortarazten dituzte. Eta ez da bakarra San Agustinen *De Disciplina Christiana* latinezko liburua aipatzen duenean honela ematea:

“August de disciplina Christiana libro unico” (Gero, 216) (azpimarra gurea da).

349 - Granadak ematen duen erreferentzia hau da: “Cassia. lib. 10. de Spiritu accidia”, Axularrek, aldiz, “lib. 10 cap. 8”. Horrelako erreferentzia diferenteak eta testuan antzematen diren aldaketak direla medio, badirudi baztertu egin daitekeela Granadaren *Silva* hau Axularrek erabiltako liburuen artean.

350 - Ez ditugu aipatuko “hom.”-en akats diren hasierako 40 orrialdeetako “tom.” guztiak.

Latinez idatzitako liburu baten erreferentzia euskarazko liburu baten barrenean gaztelerazko eranskin batekin. Kasu honetan, zalantzarik gabe, Axularren iturria ez da San Agustinen jatorrizko obra izan. Aipamena gazteleraz idatzitako liburu batetik jaso da.

Gainerakoan, hona hemen aipamenetan ematen diren bestelako alde eta desberdintasunen adibide zenbait:

- “fratres charissimi”, “sed tantum conscientiae puritas” (Gero, 439-440)
- “fratres dilectissimi”, “sed conscientiae puritas” (Migne XL, 1252 zut.).
- “Nec ira consilii est repletus capax” (Gero, 302)
- “Nec ira repletus, consilii potest esse capax” (Migne XL. tom., 1251 zut.).
- “vos esse video” (Gero, 381)
- “vos esse cognovi” (Migne XL. tom., 1264 zut.).
- “manifeste”, “consumatum” (Gero, 125)
- “manifestissime”, Ø (Migne XL. tom., 1036 zut.).
- “compleverit”, “completo”, etab. (Gero, 112)
- “repleverit”, “consummato”, etab. (Migne XL. tom., 1035 zut.).

Batzuetan itzuli (edo moldatu) egiten du urdazubiarrak jatorrizko aipamenean egon arren berak latinez ematen ez duena:

- “sicut venantium, aucupantium, piscantium” ekartzen du (Gero, 488), ondoren datorren “vindemiantium, negotiantium, ludo aliquo sese oblectantium” (Migne XL. tom., 448 zut.) (azpimarrak gureak dira) aipatu gabe uzten duelarik; hori bai, itzulpen-moldaketan honela dio: “ihiztariak, arranzaleak, pilotariak, dantzariak” (Gero, 488) (azpimarrak gureak dira).

- “Quo exemplo manifeste instruimur” (Gero, 125) dio Axularren aipamenak, San Agustinen testuak honela dioenean: “Quo exemplo manifestissime instruimur et docemur” (Migne XL. tom., 1036 zut.). Axularren itzulpenak ez du ahaztuko “docemur” delakoa: “Exemplo hunetzaz emaiten zaiku aditzera, eta erakusten klarki...” (Gero, 125).

Bestalde, anabasa handia dago erreferentziak ematerakoan. Horren adierazgarri gisa, liburu bereko adibideak ekar litezke hona. Horietatik, batzuetan sermoien zenbakia eta guzti eskaintzen da: “ad fratres in eremo. serm. 17. T. 10” (Gero, 381), “serm 17 ad fratres in eremo. tom 10” (202 or.); bestetan lakoniko samarrak dira informazioak: “ad fratres in Eremo” (Gero, 302 or.). Oker emanda daudenak ere badira: “ad fratres in eremo. serm. T. 10” dio (439-440 or.), baina izatez erreferentziak “10. sermoia” esan beharko luke.

Gogoratu behar da bost baino ez direla Axularrek *Ad Fratres in Eremo* liburutik hartutakoak (edo erreferentziatuak, nahi bada). Hain kopuru txikirako salbuespen kasuistika zabalegia lirudike zalantzarik gabe<sup>351</sup>.

Bestalde, erreferentzietarako S. Agustinen *De vera et falsa poenitentia* erabiltzen du maizkara; alabaina, ez du ematen Granadarenean horrenbeste aipamen aurkitzen denik, nahiz eta zenbaitetan azken honen testutik atereak diruditen aurre-atzeko

351 - Honi guztiari erantsi beharko litzaioke ondo erreferentziatutako aipamen batean (381 orrialdekoan hain zuzen) testuak baduela alderik Migne-k ematen duenarekin erkatuz gero (*Patrologia*, XL. tom., 1264 zut.). San Agustinen testuan “vigilate, et nolite deficere” tartekatua izateaz gainera, bukaerako aditza ez da “video”, Axularrenean bezala, “cognovi” baizik.

pasarte askok (ik. *Gero*, 183 or.). Aurrekoetan bezalatsu, hemen ere urdazubiarrak beste iturriren bat(zuk) erabili bide z(it)uen horretarako, aszetika agustindarrean garatutako iturriak edonola ere<sup>352</sup> (inoiz S. Agustinen liburua bera?).

## 9.6.- AUTORE KLASIKOAK

### 9.6.1.- AUTORE "JENTIL"-EN ERABILERA ORATORIA SAKRATUAN

Esana dugu jadanik Trentokoaz geroztik eliza katolikoak bultzatu zuen erreformak predikari eta elizgizonen prestakuntzan jarri zuela azentua, prestakuntza erlijiosoan eta erretorikoan hain zuzen. Horrek, besteak beste, erretorika klasikoaren arloko autore garrantzitsuenak ezagutarazi zituen eta, haiekin batera, hizkuntzaren eremuan eredu izan zitezkeen filosofoak eta poetak. Klasikoak, beraz, ezagunak eta irakurriak izan ziren, askotan erlijokide ez izan arren.

Hori zela eta, oratoria sakratuaz edota erretorika eklesiastikoari buruz ziharduten liburuetan ez zen beti aholkatzen haien irakurketa eta erabilera. Hori bai, horrelakoen aipamenik sermoietara ekartzekotan, espreski aipatzen zen "jentil" horien lekukotasunaz egokiro baliatzeko premia, zuhurtziaz eta betiere egiaren berretzaile eta ornatu edo aberasgarri gisara alegia. Oso arrakastasua izan zen Fray Diego Valadesen *Rhetorica Christiana* (Perusa, 1579) liburuan esaterako, honako aholku hauek aurki daitezke: "aprovéchese de la licencia que le dan San Jerónimo, San Agustín y San Basilio para leer los libros gentiles (1ª, VI), pero no tome de ellos sino lo que se acomoda a nuestra religión, y no se familiarice mucho con ellos, porque no pase de las palabras a las obras (1ª, VII)" (apud Olmedo 1960, cii-ciii).

Aipamen hauetarako aholku orokorra, beraz, "parce et raro" (Herrero Salgado 1993b, 283) izan ohi zen, autore jentilekiko inolako atxikimendurik erakus ez zedin. Valadesek berak dioen bezala, "a los poetas no conviene citarlos, si no es que se trata de una sentencia breve y muy notable. De los filósofos gentiles se puede citar lo que venga muy a cuento, teniendo cuidado de no parecer que se interpreta la Escritura al modo racionalista, sino conforme a la fe y tradiciones de la Iglesia, sin traspasar nunca, como dice el Sínodo Trulano, las fronteras de la fe ni las santas tradiciones de los Padres" (apud Olmedo 1960, cv-cvi).

Axularren garaikide gisa azaltzen den Terrones del Cañoren iritiz (eta planteamenduetan ere ildo beretsutik doaz bi-biak), egile profano zenbaitek idatzitakoaz balia daiteke bakarrik egiazko gauzak direnean (historia naturala, politikoa, etab.), eta ez asmatuak edo ustezkoak hain zuzen. Filosofoen artean aukera ere murrizta da:

"y lo mismo digo de dichos de filósofos, como Aristóteles, Plutarco, Sócrates, Diógenes y Séneca; aunque de Séneca nunca sobra nada, ni he leído autor que con menos palabras dixese mayores sentencias, y que más aprieten y tapen la boca a un entendimiento" (Terrones del Caño 1960, 85-86)

<sup>352</sup> - Hori baino ez lukete adieraziko Eranskinetako testu kidetasun zenbaitek, hala nola Axularrek 208-209 orrialdeetan San Agustinen bailitzen ematen duen testukoak. Granadaren testu kideak objektiboago edo utziko luke testuratzaren diren hitzen egiletzaren arazoa: "Sant Ambrosio también en el libro de la penitencia (aunque otros atribuyen este dicho al mismo Sant Agustín) trata copiosamente esta materia..." (Granada, *Guía*, 96a).

Besterik da errealitatea nolabait mozortzen edo denean:

"Pero, si la humanidad es fingida con jeroglíficos y fábulas, habemos de andar parcísimos. Lo de los jeroglíficos ha cundido de manera que hay predicadores que los componen de su cabeza [...] Un jeroglífico o dos, cuando más, en un sermón, si son de Alciato o Pierio Valeriano u otros autores simbólicos, pueden pasar" (Terrones del Caño 1960, 86).

Ildo beretik doaz alegiak:

"Una fabulilla de cuando en cuando es una perla; pero cuando se traigan estas cosas, particularmente si tocan en amores, hanse de decir sin preámbulo ni encarecimiento, sino antes con desdén, y como quien las arroja y menosprecia" (Terrones del Caño 1960, 86).

Poesiari dagokionez, irizpidea ere oso zehatza da:

"se han de traer pocas veces versos de poetas en el sermón, si no fuere algún versico muy a propósito, porque el exceso en esto enfría el auditorio, y no ganan nada los cascacos del predicador, especialmente si dixese alguna cosa de romance, que desto se ha de guardar, si no fuere tan grave que edifique [...] Pero otras coplas, aunque vengan a propósito, no se han de decir así trobadas como son, sino desleirlas casi en prosa, pero de manera que en alguna palabra se entienda que fué verso" (Terrones del Caño 1960, 87).

Areago:

"Sobre todo advierto que nunca se ha de citar el autor del verso, a lo menos Ovidio, Marcial [...] u otros así que trataron materias vanas y lascivas [...]; aunque, si fuesen Virgilio, Homero, Horacio, podríanse nombrar con algún encogimiento y un poco de desdén; y no enjaguándose la boca con ellos, como si citáramos a San Jerónimo" (Terrones del Caño 1960, 87).

Axularrek ere horrelaxe jokatu du oro har bere liburuan, nahiz eta Ovidio eta Martzialen kasuetan -ausardia ala ezagutza falta?- erreferentziak eta egokiegiak ez diruditen kalifikatiboak ere dedikatzen dizkien, geroago ikusiko den bezala.

### 9.6.2.- AIPAMEN KLASIKOAK GERO-N

#### 9.6.2.1.- Aipamen klasikoaren arazoa

Nabarmenena da autore klasikoaren presentzia *Gero* liburuan barrena. Eta honetan, korronte errenazentistak sortutako joera klasikozaleari dagokio horren erantzukizuna, izan ere ezin ahaz baitaiteke errenazimenduak klasikoaren hedapenean urte batzuk lehenago izandako eragina<sup>353</sup>.

<sup>353</sup> - "La corriente renacentista se inaugura con la difusión en gran escala de los textos clásicos latinos, así paganos como cristianos; las obras de Cicerón y Séneca, de Salustio y Tito Livio, de Virgilio y Ovidio, de Lactancio y San Jerónimo corren de mano en mano y son ávidamente leídas y comentadas. Sigue a esta primera fase del movimiento la difusión de las obras de los autores griegos antiguos a través de versiones latinas realizadas al estilo clásico; una selección de helenistas de gusto refinado vierten en latín pulcro las epopeyas de Homero y los diálogos de Platón, las historias de Jenofonte y los textos filosóficos de Aristóteles, las cartas de San Basilio y los tratados de orígenes, con el principal objeto de hacer accesibles sus bellezas literarias a todo el mundo culto" (Carreras y Artau - Carreras y Artau 1943, 612).

Ikusi bezala, klasiko zenbaiten (askotxoren!) aipuz zipriztundurik dago *Gero* guztia. Horrez gain, Axularrek sarri askotan aipatzen dituen pasarte batzuk beste autoreren obratan ere agertzen dira autoritate argumentu gisa. Seneka eta Plutarco, esaterako, elkarrekin aipatuak agertzen dira Erasmo, Vives edota Montaigneren obratan.

Hortaz, klasikoak eurrez eta garaikideen obratan bezalatsu agertzen dira Axularrenean ere.

Alabaina, aipamenen agerpen hori ikusita, horren konklusio gisara edo, badirudi ohikoa bihurtu zaigula Axularren aipua elkarrizketa-gai bezala aurkezterakoan, behiala Mitxelenak esandakoa:

“Axularren garaikoek - Pizkunde arokoek alegia, bera ere, berandu xamar jaiogatik, horietakoa baitzen- antzinako Greko eta Erromarrak hautu zituzten maisutzat, eta ez hizkuntza gaietan bakarrik. Autore zahar haiek norknahi bezain ongi ezagutzen zituen Axularrek, eta haiengandik hamaika gai, esaera, ipui eta gertakari hartu zituen eta euskaraz eman” (Mitxelena 1954: 1988, 40).

Edota Narbaitzek jaurtiketakoa: “Gain gaineratik eskolatua, [Axularrek] aintzineko idazlen lanak jakituz irakurtuak zituen eta beretuak” (Narbaitz 1956, 326)

Ildo beretik doaz berrikiago P. Urkizuk Juaristiren *Literatura Vasca* liburua zela eta, argitaratu zituen kritika hitzak:

[...] garbi aski agertzen baita [...] ez zituela ezagutzen bakarrik Aristoteles eta Seneka, Plauto, Plutarco, Marzial, Diogenes Laerzio, Juvenal, Jon Krisostomo, Agustin Hiponakoa, Martin Azpilikuetakoa eta beste autoreen zatiak itzulikatu baitzituen Ierdenki, Fray Luis de Granadaz gain” (Urkizu 1989, 21-22).

Edonola ere, Mitxelenak berak zuhurrago eta zehatzago jokatu zuen arazoa berriro planteatu zitzaionean:

“Tampoco puede esperarse, como es natural, que las abundantes citas de las Sagradas Escrituras, de los Santos Padres y de autores clásicos que contiene el libro de Axular sean todas de primera mano” (Mitxelena 1960, 73)

Gure ustez ere, zalantzan jarri beharko litzateke lehenengo baieztapenaren ildotik ibili diren iritzia, ez baitago bat ere garbi, Axularrek egile zahar / klasiko horiek ezagutzen zituenik. Edo hobeto esanda, zerbait garbi egotekotan, zeharkako ezagutza litzateke, hau da, Axularren kasuan aipamenak beste autore batzuren obratetik jasoak izango ziren. Eta horixe baino ez dirudi saratarrak berak baieztatu zuen harako hark, hots, testuok “Escritura saindutik, Eliçaco Doctoretaric eta liburu debocinozcoetaric” atereak direna zioenak alegia.

Luze joko luke liburuan agertzen diren autore klasiko guztiak aztertzeak edota Axularrek izan zuen errezeptibitate finkatzeak<sup>354</sup>. Edozein modutan, hasteko eta arazoa dagozkion parametroen barnean kokatzeko aski izan liteke *Gero*-n gehien aipatuak

354 - Aipamenen artean, Lafitte sailkapen moduko bat argitaratu zuen, antzinate klasikoko idazleei dagokienez honako haiek ematen dituelarik: Poeta kristau bakarra: Ausonio “dont il ne cite d'ailleurs qu'un vers”. Eskribau paganoen artean: poetak (aipatuenak: Ovidio eta Juvenal; gutxiago aipatuak: Horazio, Marzial eta Lukano. Haiein batera, Plauto eta Terencio). Anekdotak eta ateratzeko: Plutarco eta Herodoto batez ere. Eta bigarren maila batean honako haiek: Salustio, Eliano, Aurelio, Aulo Gelio eta Josefo. Historia naturaleko datuak Plinio Zaharraren liburuetatik. Filosofoak edo moralistak: Seneka batik bat. Ondoren Zizeron, Diogenes Laertzio eta Aristotele letozke. Zerrenda honi, dena den, izen batzuk falta zaizkio (Estazio, etab.).

diren bizpahiru autore klasiko garrantzitsuren kasua hona ekartzea<sup>355</sup>.

Guketx, eta autore klasikoaren erreferentzien adibide gisa, Axularrentzat eskuragarrienak edo bide zirenak (eta maizago eta zuzenago aipatuak direnak) baino ez ditugu hona ekarri nahi, hots, Plutarco, Ovidio, Horazio, etab. Inolaz ere, guztien gaineratik Seneka genuke, eta ez bakarrik Axularrek haren obraz egiten duen aipamen kopuruagatik. Hark garatu zuen filosofoak eta kristau aszetikaren esparruan izan zuen eraginkortasunak lehen eskuko lekuko bihurtzen dute estoikoa hemen planteatzen zaigun arazoa argitzen hasteko<sup>356</sup>.

### 9.6.2.2.- Senekaren lekukotasuna

1.- Senekaren aipamenak dira Axularrek autore klasikoaren artean maizen egiten dituenak. Horrez gain, beste guztietan ez bezala, honako egile honekin erreferentziak ere ematen dira, nahiz eta atal honetan mintzatu beharko dugun haien zuzentasunez.

Edonola ere, atal honetan Seneka genuke aipamenen ildoak aztertzeke autorerik egokiena, izan ere bereak baitira fidagarrienak, baten bat egotekotan, aipamenak jatorrizko iturrietatik hartutakoak izan direnentz jakin ahal izateko.

Gauza jakina da gure artean oraindik burutzeke dagoen pentsamenduaren historiak ezinbesteko duela idazle eta pentsalari klasikoaren eraginaren azterketa. Ildo horretatik, Axular izango genuke, ezpairik gabe, kanpoko eragin kultural eta filosofikoaren paradigma, bera baita iturri horiek esplizitoki aipatzen dituen lehenbiziko idazlea eta, hortaz, garrantzia minimoenekin aztertu daitekeen lehena.

Ezaguna da Axularren prestakuntza akademiko-kulturala estatu espainolean burutua izan zela, Salamancan bereziki. Hori dela eta, lan honetan, Senekaren obrari dagokionez, nolako paralelismoak dauden Espainian izandako errezepzioaren eta Axularrek egindakoaren artean aztertuko da. Bide batez, hipotesiren bat planteiatuko da jakin ahal izateko ea Axularrek zuzenean jaso zuen edota zeharkako irakurketaz baliatu zen bere liburua egiteko.

2.- Seneka autore ez-kristauen artean gehien aipatua da Axularren obran, hogeita hamar bat aldiz denetara. Nolanahi ere, Axularrek Senekaren irudi orokorrik eskaintzen ez badu ere, obran zehar erakusten duen joeragatik zinez pentsa daiteke “jentil” moduan baino gehiago haren ustezko “kristautasuna” onartuz baliatzen dela hartaz.

Senekaren obrez egiten den aipamen kopuru honek, berez, badirudi zerbait erakutsi beharko lukeela, ez baitira berdinak inoiz agertutako egile baten presentzia edota maizen agertzen denarena. Izan ere, presentzia jori horrek Axularrentzako interesgarrien eta aberatsen izan ziren egileak adieraziko liguke.

Bi mailatan azter liteke honako arazo hau, beraz. Batetik, interesgarria litzateke nola antzematen den Senekaren eragina *Gero* liburuaren planteamendu

355 - Axularrek aipatzen dituen autore klasikoak grekerazko eta latinezko literaturako ospetsuenak diren arren, nabarmena da Virgilio bezalako poeta baten falta *Gero* liburuan.

356 - Adibide bat baino ez den arren, esanguratsua da arras Axularren garaikide batek Senekaz zuen iritzia. Gurearen garaikide kultu gehienak bezalaxe, Baltasar Gracián-ek “[...] consideraba a Séneca [...] al lado de Homero, Esopo, Luciano, Apuleyo, Heliodoro, Ariosto, Boccacini y Barclay, como única autoridad filosófico-moral digna de mención, fuera de Plutarco” (Blüher 1983, 520).

orokorrean aztertzea, bereziki atal konkretu batzuetan. Bestetik, informazio erabakiorra eman lezake, Axularrek berak Senekaren hitzak ekarriz egiten dituen aipamenen bidez aztertzeak, klasikoen erabilpena norainokoa izan zen susmatzeko aztarnak jaso baikenitzake horretatik. Guk, erretorikaren *inventio* atalak horrela eskaturik, bigarren honi helduko diogu hemen.

3.- Probabilitate kalkuluen arabera, Axularrek *Gero* burutzeko autore zaharren libururik irakurri eta erabili izan balu, badirudi gehien aipatzen diren egileenak izan beharko zuketela, eta ez bakanka aipaturikoak (hauek beste edozein liburutatik har baitzitezkeen, inondik ere).

Probabilitate kalkulu horien arabera, beraz, Seneka izango genuke adibiderik fidagarriena, haren liburu garrantzitsuenak aipatzen baititu Axularrek:

*Epistolak*: 1.a (hirutan aipatua), 13.a, 18.a (bitan), 23.a, 24.a, 27.a, 43.a, 58.a (bitan), 61.a eta 82.a.

*De ira*: 7 aipamen

*De brevitae vitae*: 3 aipamen

*De benefic.*: bi aipamen

*Naturalis quaestiones*: aipamen bakarra

*De moribus*: (apokrifo) aipamen bakarra

*Proverb.*: (apokrifo) aipamen bi

#### a) *De ira*

Espero zitekeen bezalaxe, Kaligularen aurkako liburu honetatik jasotako aipamen guztiak (7 gehi zalantzazko bat, denetara) *Gero* liburuan kolera eta etsaigoaren kalte eta erremedioak tratatzen dituzten kapitulueta mugatzen dira, zehatzago esateko honako kapitulu hauek: 20 (bi aipu), 21, 23 (hiru aipu), 26, 27 eta 29.

*Gero*-n dauden aipamenen artean badira batzuk oso esanguratsuak eta Axularrek Senekarenetik zuzenean ez zituela atera adierazten digutenak<sup>357</sup>.

*Gero*, 281 or. (*De Ira*, 2. lib., 36): Axularrek Senekarena balitz bezala ematen digu *De ira*-n garbi asko Quinto Sextio-rena dela agertzen den aipamen bat. Gainera, Senekak berak garbi adierazten du hori. Testu erkaketan ere bada guk erabilitako edizioarekin aldaketaren bat:

*Quibusdam profuit aspexisse speculum, perturbavit eos tanta mutatio sui*

*Quibusdam, ut ait Sextius, iratis profuit aspexisse speculum. Perturbavit illos tanta mutatio sui.* (Seneca, *Opera omnia*, I, Lipsiae, 1832)

Horretaz aparte, ezin ahaz genitzake, hiru liburu baino ez duen *De ira* dela eta, Axularrek zazpi erreferentzietan egiten dituen hankasartzeak. Maizegi eta gehiegi, agian, liburua eskuartearen izan duen batentzat:

Orrialdea	Axularrek	Jatorrizkoa
299	lib. 2, cap. 34	2. lib., 29. kap.
313	lib. 2	3. lib.
316	lib.	2. lib., 28. kap.

<sup>357</sup> - Gerta zitekeen Axular Senekarenaz ez gogoratzea eta, horregatik, Firmiano Laktantziorenaz baliatu behar izatea. Baina bitxikeria eskerga zatekeen!

316 or.: Aelianus-en testu ezezagun batetik jasotzen omen du Axularrek koleraren kontrako erremedio musikala zerabilen Climas delako baten adibidea. Hurrengo aipamena Senekaren *De Ira* izanik, hobe eta egokiago zukeen aurrekoa ere liburu honetatik ateratzea. Hain zuzen ere, a) erremedio musikala baliatzen zen pertsonaia baten adibide bat ere badagoelako; b) Senekaren lekukotasuna Aelianusena baino garrantzitsuagoa zelako (nahiz azken hau "berriagoa" izan); d) aipamena zehatzago eman zezakeelako (*De Ira*--tik jasotako beste guztiak bezainbeste bederen), eta, bukatzeko definitiboagoa deritzogun argudioa, e) Senekaren aipameneko pertsonaia, inork ezagutzen ez bide zuen "Climas ceritçan" hori baino garrantzitsuago, hurbilago eta adierazkorragoa zelako: Pitagoras, alegia.

Testuak erkatuz gero, bada alderik ere:

*Poterit non irasci, statim utique [...]*

*Poterit non statim irasci: utique [...]* (Seneca, *Opera omnia*, I, Lipsiae, 1832)

Eta beste pasarteetan ere aldeak ez dira gutxi guk erabilitako edizioarekin konparaturik:

*Magnum remedium irae est mora* (*Gero*, 299)

*Maximum remedium est irae, mora* (*De Ira* 2, 28)

*Ergo ab ira abstinendum est, sive par est qui lacessendus est sive superior, sive inferior.*

*Nam cum pari contendere anceps, cum superiori furiosum et cum inferiori sordidum.* (*Gero*, 332)

*Ergo ira abstinendum est, sive par est qui lacessendus est, sive superior, sive inferior.*

*Cum pare contendere, anceps est: cum superiore, furiosum; cum inferiore, sordidum.* (*De Ira* 2, 34)

Etc, etc.

Kontrasteak areagotzeko, azpimarratzekoa da 301 orrialdean dagoen aipamenaren kasua. Axularrek Laktantzioren erreferentzia eginez ("Lact. de ira cap. 18"), Senekak berak ere dakarren adibidea ematen digu, baina desberdintasun batekin: Senekak Sokratesen ezpainetan jartzen duena, honako honetan Axularrek Platonen laguna zen Arkita (Arquitas) Tarentoko filosofo pitagorikoaren ahoan uzten du, Zizeronek (*Tusc.* IV, 78) eta Valerio Maximok (IV 1, Ext. 1) jasotakoaren ildotik.

Planteiatzen diren galderak, hortaz: Senekaren obra irakurri eta gero, materiale hori guztia kontrastatu egin ote zuen Axularrek eta datuak autore gehienek ikuspuntutik eman?, honelako txikikerien (azetika liburu batetarako ez-pertinentea baita datu hori) jakitun zen Axular? Aipamen horretarako bakarrik jo zuen Laktantzioren obrara? Ala, logikoagoa dena, Senekaren *De ira* eta Laktantziorena bera ere beste autorek esandakotik ezagutzen zituen soil soilik? Noski, badira honetaz pentsatzeko arrazoirik, ezen Arkita filosofoaren aipamenaren ondo-ondotik Senekak jasotzen duen (*De ira* III, 12 kap.) Platonen adibidea papereratzten batigu Axularrek, nondik hartu duen adierazi gabe. Ez dirudi normala denik liburu bakar batean jarraian datorrena bi liburutatik hartzen ibiltzea.

#### b) *Epistolak*: (=Epistola moralak Luziliori)

Salbuespenak albuespen, *Epistolak* orohar aski ongi erreferentziaturik agertzen direla esan genezake, hau da, epistolari dagokion zenbakia ondo ematen du Sarako erretorak.

Azpimarragarria da epistolen erabilera nagusiki liburuaren lehen herenera mugatu izana. Egia esan, 45. kapituluaren txertatutako aipamena kenduta, beste guztiak



honako kapitulu hauetan biltzen dira: 2, 4 (3 aipamen), 12 (bi aipu), 13, 14 (3 aipamen), 15, 20 eta 21. kapituluetan<sup>358</sup>.

Nolanahi ere den, aipamenak liburu erlijiosoetan usuen (topiko gisara, alegia) agertzen diren horietarikoak dira. Ikus ditzagun banan-banan:

Lehen Epistolaren 2. ahapalditik<sup>359</sup> jasoa den aipamen honek (*Gero*, 159-160 or.), Senekaren izenaz landa ez dakar inolako erreferentziarik.

Epistola beretik (*Ep.* 1, 3) jasoko da gutunak duen pasarterik garrantzitsuen eta, horregatik hain zuzen, ezagunena (*Gero*, 162 or.). Scarpat-en eritziz (1961, 27), esaldi honetara bilduko litzateke gutunaren mamia.

Denboraren balioaz eta aprobeixamenduaz diharduen epistola honetako lehenengo aipamen bi hauek 12. kapituluaren ematen ditu Axularrek bere liburuan, hots, "Nola guerotic guerora ibiltceaz, galtcen dugun dembora" izeneko kapituluaren.

Axularrek gaizki erreferentziatzen duen lehenengo epistola honen azken esaldia<sup>360</sup> (1, 5, alegia), berriz, XIII. kapituluaren txertatuko du, "Gaztetik çahartcera penitencia luçatcen duenaz" delakoan.

Gutunaren muina edota azken erreflexioa (ez derrigorrez azken lerroak!) jasotzeari ateratzen dion gustoa 13. eta 18. epistolan ere antzeman daiteke, hots, 13, 17an eta 18, 15ean. Modu berean jokatzeko du Axularrek 23, 11 eta 43, 4-5 epistolan ere.

Nabarmentzekoa da 58, 23 epistola zatian Axularrek egin duena, gorago ikusitako beste baten antzekoa (ik. *De Ira* 2. lib., 36) baita egiletza kontuan burutzen duen mutazioa. Izan ere, urdazubiarrak Senekarenak bailiren ematen ditu Senekak berak Heraklitoren ezpainetan ipintzen dituen hitzak: "In idem flumen bis non descendimus" delakoa. Egia da, dena den, ondoko esaldia Senekarena dela baina ez mezuaren muina laburbiltzen duena. Horrela agertzen da jatorrizkoan:

*Hoc est quod ait Heraclitus: "In idem flumen bis non descendimus" Manet idem fluminis nomen, aqua transmissa est* (Seneca, *Opera omnia*, III, Lipsiae, 1832)

Bestalde, ez dirudi jatorrizko testutik hartua denik Axularrek ematen duen "Otium sine litteris, est vivi hominis sepultura" = "Letra gabeco aisia, deus eztaquienaren alferqueria, guizon biciaren hobia da, eta sepultura" (42 or.).

Senekaren obretan horrela agertzen zaigu: *Otium sine literis mors est, et hominis vivi sepultura* (*Opera omnia*, III, Lipsiae, 1832)<sup>361</sup>.

Horretaz aparte, erreferentzia ere gaizki ematen da 28. epistola dela esaten denean, zenbakiak aldatu hain zuzen. Izan ere, 82. epistolaren 3. pasarte da

*Ep.* 24, 20 delakoak interes berezia du inguruko elizdorre zenbaitetan agertzen zen "vulnerant omnes, ultima necat" esaera famatua pasarte honen bukaerako

358 - Erabilera honek, aipatu kapituluaren arteko erlazio tematikoa adierazteaz gain, nolabaiteko filiazio lotura ere erakutsi lezake eta aski lotua bide doa *Gero*-ren egituraz esango denarekin.

359 - Ohi bezala, hemendik aurrera Epistola eta ahapaldien identifikaziorako zenbakiak honela emango dira: 1, 2 (lehen zenbakia epistolarenari dagokion bitartean, bigarrena ahapaldiarenari).

360 - *Gero* -n 2. Epistolatik hartua dela esaten da.

361 - "Otium sine litteris mors est et hominis vivi sepultura. Epist. 83" (Granada, *Collectanea*... 168 or.).

hitzekin zerikusirik duelako. Egia da baina, Trentoz geroztik erloju publikoetan lelo hori jartzeko ohitura hedatu honek ez duela Axularren irakurketen berririk ematen.

Ezer gutxi erantsi genezake ondoko pasarte hauei buruz: 27, 2; 58, 22; 61, 2.

Nolanahi ere den, badirudi beharrezkoa izan daitekeela gutxienez oharkizun bat pasarte hauetan gutzietan gertatzen diren aldaketetz:

*Quem mihi dabis qui aliquod praetium tempori ponat qui diem aestimet?* (*Gero*, 159-160)

*Quem mihi dabis, qui aliquod pretium tempori ponat? qui aestimat?* (*Ep.*, 1, 2)

*Omnia mi Lucile aliena sunt, tempus autem nostrum est* (*Gero*, 162)

*Omnia, mi Lucili, aliena sunt: tempus tantum nostrum est* (*Ep.*, 1, 3)

*Vitanda est ira, non solum moderationis causa, sed sanitatis* (*Gero*, 279)

*et ideo ira vitanda est, non moderationis causa, sed sanitatis* (*Ep.* 18, 15)

*Non enim tantum minimum in fundo, sed pessimum* (*Gero*, 181-182)

*Non enim tantum minimum in imo, sed pessimum remanet* (*Ep.* 1, 5)

*Non interest, hic affectus, ex quam magna causa nascatur, sed in qualem perveniat animum. Sicut ignis non refertur quam magnus, sed quo incidat: nam etiam maximum, solida non receperunt, rursus arida et corripit facilia, scintillam quoque fovit usque in incendium* (*Gero*, 286-287)

*Nec interest, ex quam magna causa nascatur, sed in qualem perveniat animum. Sic ignis non refertur quam magnus, sed quo incidat. Nam etiam maximum, solida non receperunt: rursus arida, et corripit facilia, scintillam quoque fovit usque in incendium* (*Ep.* 18, 15)

*Quidam vivere tunc incipiunt, quum desinendum est: si hoc iudicas mirum, adiiciam quod magis admireris: quidam ante vivere defecerunt, quam inciperent* (*Gero*, 185)

*Quidam tunc vivere incipiunt cum desinendum est: si hoc iudicas mirum, adiiciam quod magis admireris: quidam ante vivere desierunt quam inciperent* (*Ep.* 23, 11)

*Quid prodest recondere se et oculos hominum auresque vitare? Bona conscientia turbam advocat, mala autem in solitudine anxiosa est, atque sollicita. Si honesta sunt quae facis, omnes sciant, si autem turpia, quid prodest, neminem scire, cum tu scias?* (*Gero*, 435-436)

*Quid autem prodest recondere se, et oculos hominum auresque vitare? Bona conscientia turbam advocat, mala etiam in solitudine anxiosa atque sollicita est. Si honesta sunt, quae facis, omnes sciant: si turpia, quid refert neminem scire, quum tu scias?* (*Ep.* 43, 4)

*Ante senectutem curavi ut bene viverem in senectute ut bene morerer* (*Gero*, 186)

*Ante senectutem curavi, ut bene viverem: in senectute, ut bene moriar* (*Ep.* 61, 2)

Gogoratu, bestalde, batzuetan aipamenak ez direla osorik ematen, edo, hobeki esateko, Axularrek ematen dituen itzulpen-moldaketetan, latinez ez dakartzan jatorrizko testu zatiak ere itzultzen dituela. Hau da, adibidez, Senekaren aipamen batekin egiten duena (*Epistola* 24, 30):

Hala erraiten du Senekak: *Quotidie morimur, quotidie enim demitur aliqua pars vitae* (Senec. epist. 24). Egunoro hiltzen gara, zeren egun oro gure bizitzeari zenbait poxin eta parte gutitzen eta edekitzen baitzaika. Eta are hazten eta handitzen garenean ere, gure bizia tipitzen eta laburtzen da (*Gero*, 63 or.)<sup>362</sup>.

d) *De brevitae vitae* liburitik jasotako 3 aipamen hauek 3., 4. eta 12. kapituluaren tartekatu dira *Gero* -n. Hiru horietatik bi gaizki edo desegoki erreferentziatuta daude, ongi dagoen bakarra 9. kapituluak delarik (izatez, azken honen erreferentzia

362 - Latinezko aipamenean agertu ez arren, azken esaldia ere Senekarena da: "Morimos cada día; cada día, en efecto, se nos arrebatada una parte de la vida y aun en sus mismo período de crecimiento decrece la vida". Ik. Ismael Roca Meliá-ren itzulpenetik jasoa: *Epistolae morales a Lucilio*, Madrid, Gredos, 1986, 201-202 or.

zuzena hau litzateke: 9. kap., § 1) (ik. II. eranskina).

Gaizki dauden artean, *Gero* -n 50 orrialdean dagoen aipamenari 13. kap., §1 erreferentzia erantsi behar zaion bitartean, liburuan 13. kapitulutik hartua dela adierazten duen aipamena honela zuzendu behar da: 15. kap., § 5.

e) *De benefic.*: aipamen biak 2. eta 45. kapituluetan agertzen dira *Gero* -n. Liburu hau oso irakurria izan zen Erdi Aroan. Ezaguna da Abelardok, Vicente Beauvais-ek eta Dantek berak ere literatur florilegioetan tartekatu zituzten zenbait pasarte. Santo Tomasen kasuan, bestalde, ezaguna da Senekaren "maxima" asko karriatu zituela bere teologia moraleko liburuetara.

45. kapituluaz azaltzen den aipamenari dagokionez, erreferentzia ondo emanda dago (De Benef. 7. lib., 21. kap.) eta pasadizuak kapitulu guztia betetzen du. Edonola ere, aipamen hutsa baino zerbait gehiago da, hots, Senekak "exenplu"-tzat ematen du istorioa.

f) *De moribus*: liburutik jasotzen den aipamen bakarra *Gero* liburuan 45. kapituluaz kokatzen da. Ez bide da Senekarena liburu hau <sup>363</sup>.

g) *Naturalis quaestio*: aipamen bakarra *Gero* liburuan 12. kapituluaz tartekatu da. Badu gaur egun zabaldu den jatorrizko bertsiorekin alderik, hemen ikusten den bezala:

*Neque quod futurum est meum, neque quod fuit  
Nec quod futurum est meum est, nec quod fuit* (*Naturalis quaestio*. VI. lib., § 32, 10  
*Opera omnia*, editio stereotype, Lipsiae 1832, V. vol., 161 or.; berdin Codoñer Merino [ed.] 1979)

Bestalde, ez dirudi arrazoirik dagoenik Axular estudio fisikoetan barrena abiatzeko interesatuta egon zitekeela pentsatzeko. Aipamen bakar hau, hortaz, beste nonbaitetik hartua litzateke.

h) *Proverb.*: aipamen biak 23. kapituluaz txertatu dira *Gero* -n. Senekari egotzi zitzaion liburu hau gaztelaraz agertuko zen XV. mendean honako tituluarekin: *Proverbios de Séneca llamados vicios y virtudes*. Edozein modutan ere, badirudi obra hau ez dela Senekarena, nahiz eta "bajo el aval de su nombre (Senekarena, alegia) gozó a la sazón de extraordinario crédito" (Carreras y Artau - Carreras y Artau 1943, 620 or.; ikus, halaber, Bataillon 1979, 50 or. ).

### 9.6.2.3.- Beste autore klasiko zenbait

Horrezaz gainera, *Gero*, kultura klasikoko autore ospetsuenak zuzenean erabili eta eskuztatu gabe idatzi zuela adierazi dugun hipotesi hau areagoturik ikusiko genuke beste autore klasiko zenbaiti begirada bat emango bagenie. Denak azaltzeak luze bezain antzu joko lukeenez gero, hona hemen horietariko batzuk:

<sup>363</sup> - "[...] tratado *De moribus* atribuido por unos a Séneca y por otros a Martín Bracarense, y que tampoco pertenece a ninguno de los dos" (Carreras y Artau - Carreras y Artau 1943, 635 or.).

### 1.- OVIDIO

Ovidioren aipu aitortuak sei baino ez dira obran zehar, guztiak honela bana daitezkeelarik: *De remedia amoris*, *De tristis*, *Fasto*, *El*.

*De remedia amoris* liburutik hartutako hiru aipuak Erdi Aroko bibliografian ohiko bihurtuko diren topikoak dira. Are gehiago, horietariko bi bederen Curtius-ek (1976) tradizio latindarraren jarraipenaren ezaugarritzat hartzen ditu, literaturan etengabe errepikatuak izan direla adieraziz:

a) "Otia si tollas, periere cupidinis arcus" = "Baldin quen baitzatçu alferqueriac galdu dirateque Cupidoren arcuac, eztu nehor bere tragacéz çaurtuco?" (379 or.)

b) "Qæritur, Ægistus quare sit factus adulter? in promptu causa est, desidiosus erat" = "Galdeguiten da, cergatic cen Egisto adulterioan? Prest da arraçoïña; ceren alferra baitcen" (381 or.)

Azken aipamen honek, dena den, badu eragozpenik, zeren bigarren partea beste modu batean idatzi bide zuen Ovidiok: "causa est in promptu: desidiosus erat" (Curtius 1976, 135).

Bestalde, ezagun da *De remedia amoris* liburutik jasotako hirugarren aipua ("Qui non est hodie, cras minus aptus erit" = "Egun gai eztena, bihar gutiago içanen da") aski zabaldua izango zela ondoko mendeetan. Adibide gisa, behin baino gehiagotan Axularren lanarekin erkatzeko aipatua izan den Venegas-en *Agonia* izeneko liburuan ere gaztelaraz aurki daiteke Ovidioren:

"El que hoy no se apareja, más pereza tendrá mañana que hoy", erreferentzia gisa Venegasek honako hau dakarrelarik: "Ovid., II de Séneca" (*Agonia*... edizioa?, 125b)

Baina agian harrigarregia da aszetika liburu batean Ovidioren obra hain "axolagabeki" erabili izana. Axularrek Ovidioren liburuen mamia eta mezua ezagutu izan balu, askoz ere ezkutuago utziko zukeen aipamena Axularrek. Hark erreferentzia gisa ematen duen titularen (*De remedia amoris*) atzean dagoen liburua irakurri duenak badaki ez dela hain zuzen Axularren "erremedio"-en ildoko tratamendu aszetikoa.

Antzeko zerbai esan beharko genuke "E I.2" delakoaz (*Gero*, 350): *Epistolae* izenekoetan emakumezkoen psikologia azterketa azaltzen da, idazki erotiko samarrak nonbait aszetika liburu baterako.

Horiez guztiez gainera, bada erreferentziatugabeko aipamenik ere, harrigarriena Platoni eragotzitako bat delarik: haren *de amore* liburutik hartutakoa omen den bat (*Gero* 352 or.). Guk dakigularik, Platonek ez du izen horretako libururik (ik. Rodriguez de Yurre 1954). Aipamen horrek, bedi bistan dago, Ovidioren obratik jasoa da: *Amores* 3. lib., 3. kap.

"Ezkutatze" horren arrazoa ez dakigun arren, esplikaziorik inoxtena Axularrek aipua, erreferentzia akats eta guzti, beste nonbaitetik jasoa zuela genuke, eta ez modu zuzenean. Bihurriagoa litzateke pentsatzea Axularrek -Ovidioren obra irakurri ala ez, berdin dio!- nahita ezkutatatu zuela informazioa, izan ere bazuen motiborik urdazubiarrak haren obra batzuk -*Ars amandi* liburua, esaterako- zeharo debekatuta zeudela jakiteko. Edozein modutan, beti izan genezake errua editorearen edota zentsore lagunen bizkarrera eragozteko aukera -*De remedia amoris* delakoarekin ez bezala, honako

honen tituluak ez baitzuen burua zuritzeko ahaleginik eskatzen!.

Edonola ere, testuinguru honetan "aitortu" hitza darabilgunean berariaz uzten dira aparte agian bereak izan daitezkeenak baina erreferentziarik gabe datozen bestelako aipuak.

## 2.- HORAZIO

Horazioren pare bat aipamen baino ez du egiten Axularrek, eta biak oso ezagunak eta erabiliak, klasikoaz geroztikako literaturan topiko bihurtutako horietarikoak.

Bata honako hau da: "Nos numeri sumus, frugere consumere nati" = "Gu contu gara, gurequin contuz guehiago, baiña gafiñeracoan, ezcara deusetaco, lurreco fruituen, eta onen iateco baicen" (38 or.)

Alejo Venegasek bere *Agonia* ... delakoan (edizioa?, 174 or.) "nos numerus sumus" dio, eta honela itzultzen du: "no somos más los baldíos de para augmentar el número de los hombres y comer pan de balde".

Bistan da ezaguna eta erabilia zena.

Bigarrena ezagunagoa da: "Quo semel est imbuta recens, servabit odorem testa diu" = "Eltceac luçaro eduquitecen du, berrian hartcen duen usaiña eta cutsua" (87 or.)

Kintilianok berak dakar nondik hartua izan den adierazi gabe:

"Porque naturalmente conservamos lo que aprendimos en los primeros años, como las vasijas nuevas el primer olor del licor que recibieron" (Quintiliano, *Instituciones*, 12).

Erreferentzia ere ondo emanda dago *Gero* -n: 2. epistola. Lehen liburuko delata gehitu beharko litzateke, zehatzagoak izateko.

## 3.- PLUTARKO

Oro har, esan daiteke Plutarkoren presentzia 27. orrialdetik 32. eraino mugatzen dela nagusiki (13 aipamenetatik, 8 aipamen aitortuak).

Alabaina, badirudi "Etsaietaric atheratcen den probetchuaz" (27 or.) izeneko liburutik atereak direla horietako erreferentzia asko eta asko.

Horrezaz gain, erreferentzia guztiak ez daude beti ondo, hala nola 32. orrialdean "vita Cato Censor" delakotik hartua omen dena ez da Plutarkorenean inondik ere agertzen, baina bai hurrengo ahapaldikoa, nahiz eta garrantzizko aditza aldatu eman ("damutu zela" adierazi beharrean, "beguiratu cela" esaten du Axularrek).

Axularrek kontatzen dituen pasartearen zabalkundea handi izan da literatura guztian barrena, besteak beste, Likurgoren txakurren kasua. Nolanahi ere, hedapen horrek bestelako biderik ere izan zezakeen, ezaguna baita -Plutarkok berak aitortzen duela- Likurgoren biografia hasieran- bere obrak egiteko erabili iturri mordoa (Aristotele, Apolodoro, Tizino, Xenofanes, Erastotenes, Simonides, Aristokrates, Kritias, Teofrasto, Dioskorides, etab.).

Bestalde, ezin ahaz daiteke Axularrek behin bakarrik -eta oker, gainera!- aipatzen duen Zonaras autoreak (*Gero*, 318 or.) eurrez erabili zituela Plutarkoren obrak eta beste hainbat klasikorenak, eta Plutarkoren adibideak horrelakoetatik ere etor zekizkiokeela urdazubiarrari.

## 4.- AULO GELIO

Aulo Gelio behin bakarrik aipatua da *Gero* guztian. Horrezaz gainera, haren liburutik hartutako pasartearen erdian latinez agertzen den zatia Plutarkoren obratik jasoa da, alboan dagoen glosari kasu eginez gero (ik. *Gero*, 388 or.).

Egia esan, lehenengo begiradan, A. Gelioren erreferentzia egin ondoren ez dirudi Axularri beharrezkoa zitzaionik Plutarkorena ekartzea, A. Geliok badakarrelako latinezko esaldia eta, areago, grekerazko bertsioa lagun, zorrotzago baiteritzo kontalariak jatorrizko hizkuntzan esandakoari itzulpenari baino.

Geliok bere obra burutzeko Plutarkorenak ere erabiltzen dituela kontutan hartuz gero (ikus, esaterako, 20. lib. 8. kap.), aski garbi pentsa daiteke Axularrek (ala editoreak?) orrialde horretan erantsi zuen "Plutarc. in Aphohothe." hori soberan dagoela, hurrengo aipamenaren errepikapen hutsa baino ez dela. Hori, gainera, ahaztu gabe orrialde berean Bibliatik jasotako aipamen baten erreferentziaren falta nabari dela.

Bestalde, A. Geliok obra horretan bertan azaltzen duenez, pasadizo hau Sozion izeneko filosofo peripatetikoaren *Amaltearen adarra* liburutik hartua da.

Pasarte honen garrantzia eskaintzen dituen elementu bietan datza: latinezko aipu zuzena emateaz gain, egoeraren testuinguru guztia ere prestatzen da

Agian interesgarriena, Axularrenera iristean aipuak jaso duen moldaketa-aldaketa da. Axularren erreferentzia gisa jartzen den Gelioren liburuaren arabera, Demostenes ezkutuan joan zen Lais-engana honen faboreak eskatzera. Soilik Greziako aberatsik aberatsenik besarka zezaketen emazte eder honek eskatu zion dirutzak (talentu bat, hamar mila drakma) izutu eta konfunditu zuen peripatetiko eta ez bestek. Ondoren esan zituen hitzek zerikusi gehiago zuten xahu zezakeenarekin, ondoko ruinarekin, alegia, arimaren osasunarekin baino. Jakina, tradizio kristauak, Axular barne, etsenplua deskontestualizatu ("Demostenes Philosopho handi hura emazte haren aldetik iragaiten cela") eta Geliok emandako itzulpen anbigua erabiltzen du, zeinek, bide batez esateko, ez baitu grekerazko esaldi pragmatikoarekin lotura handirik: Ouk duoumai murion drachmon metameleian.

Ezin garbi jakin Axularrek irakurria zuenentz, ezta beste nonbaitetik hartua ote zuen ere. Badirudi, dena den, bere idazlanerako aipamen bakar bat baino askoz ere gehiago erabil zezakeela anekdota-baso honetan sartu izan balitz.

Edozein modutan ere, aipuaren erreferentzia gaizki emanda dago, ez baita I. liburuko 3. kapitulutik jasoa, 8. kapitulutik baizik. Horrelakoetan, beraz, beti pentsa daiteke autoreak jasotzean izandako konfusioa edo gaizki transkribatutako zenbakia edo editorearen irakurketa gaiztoa edo ... beste mila arrazoi dagoela anabasarako. Baina, honelakoetan, aipamena bakar bat baino ez denean eta honenbeste arazo dagoenean, zinez pentsa daiteke erreferentzia ematen duenak ez duela obraren erabilera zuzena egitean jaso, zeharkako obrak erabili dituela nonbait klasiko haren berri izateko eta haren aipamenez baliatzeko.

## 5.- JUVENAL

Juvenalen aipuak bi baino ez dira. Bata *Satira* izenekoetatik hartua eta bestea, orrialde bereko hurrengo lerroan dagoena, identifikatu gabe.

*Satirak* obratik jasoa ondo erreferentziaturik dago, hots, 6. liburutik jasoa baita aipamena eta Axularrek izen propiorik aipatzen ez duen arren, "Erromaco andre" hura Mesalina da, Klaudioren emaztea (ik. *Gero*, 385 or.).

Harrigarri gerta dakiok gaurko irakurleari erreferentzia hau osorik emanda aurkitzea eta ez, esaterako, "isildua". Kontutan hartzen bada seigarren satira honetan emakume biziotsuen irudikapenak (moralki edifikagarriak ziurrenik, baina irudietan gordinegiak) egiten direla hasieratik bukaeraraino, irakurketarako gonbidapen zuzen eta ausartegia zitekeen "konbertiarazi" nahi zen irakurlearentzat. Eta zer esanik ez Kontrarreformaren giroan murgildurik zegoen apaiz baten irakurgaia izan zela adierazten zuenagatik.

Beti pentsa liteke -eta ez gara errepikatzeaz aspertuko- horrelako obrak zeharka baino ez zituela ezagutzen Axularrek; edota -zergatik ez?- bestek egindako aipamen hutsen bitartez.

Jakina, mediatizazioaren hipotesi honen bidetik abiatzeak suposatuko luke Axularren irakurketa eta aipamenen mediatizazalea(k) bilatzen hastea, iturritzat hartutako Granadak, esate baterako, ez du hauen guztien esplikazioa ematen.

## 9.6.3.- KLASIKOEN ERREZEPZIO MEDIATIZATUAREN HIPOTESIA

Ikusten denez, askotxo dira okerrak aipamen-erreferentzietan, gehiegi beharbada Axularrek berak zuzenean jasoak izateko.

Euskaltzale zenbaitek diotena diotela<sup>364</sup>, honetatik guztitik ateratzen den ondorioz badirudi Axularrek bere liburua egitean ez zituela Senekaren obrak eta ez beste autore klasikoaren ere erabili. Zail da hori kasu guztietan demostratzen, baina liburu batzuetan oso ondo ikusten da bestelako iturriak -kultura klasikoa mediatizatua, beraz- erabili zituela Urdazubikoak.

Horrezaz gain, ez genuke aipatu gabe utzi nahi Axularrek berak liburuaren azalean egin zuen aitortpena, "topoi" bat baino gehiago dena. Gure ustez -eta orain arte adierazitakoak horixe bera demostratzen duelakoan gaude-, Axularrek bere liburua "Eskritura saindutik, Elizako Doktoretarik eta liburu debozinozkoetarik [...] bildua" zela zioenean, egia baino ez zuen esan.

Edonola ere, honek ez luke ukatuko urdazubiarrak izan zezakeen -eta izango zuen ziurrenik!- kultura klasikoaren ezagutza. Arteetako batxilergoa lortzeko beharrezkoa izan bazuen ere, liburua idaztean beste batzuren bitartekaritaz baliatu izan zela baieztatuko genuke.

Oro har, eta laburtzeko, Senekaren eta beste autore klasikoaren aipamenek honako ezaugarri hauek erakusten dituzte:

<sup>364</sup> - Baliagarri izan bedi Sarako Egunean P. Narbaitzek euskaltzale eta *Gero*-ren ikerlariari egindako sermoian esandakoa: "Gain gainetik eskolatua, [Axularrek] aintzineko idazlen lanak jakituz irakurtuak zituen eta beretuak" (Narbaitz 1956, 326).

- oro har, literatura unibertsaleko topiken saila osatzen duten aipamenak dira; hortaz, aski ezagunak eta *loci* gehienetan aurkitzeko modukoak.

- bestelakoak testuetan azaltzen den filosofia-mezuaren kondentsatzaileak ohi dira.

Hori dela eta, aipatzeko aukeratu pasarteak, Senekaren kasuan, *Epistolen* bukaeretakoa eta dira<sup>365</sup>. Beste modu batez, esateko, *silva* edo *loci* izenekoetan agertzeko modukoak izateaz gain, Senekaren kristautasunerako balioa aitzaki, Elizako Gurasoek, teologoek eta tratadistek beren obretan maiztxo aipatuak izan ohi ziren.

Beste autore klasiko gehienek kasuan ere, "fossilizatuegiak" dirudite haien "erranak", "debozinozko" edo in liburutan agertzeko modukoak normalean.

Horren arabera, beraz, badirudi *Gero* erredaktatu bitartean Axularrek bide guztiak irekita izan zituzkeela klasikoaren obrak zuzenean irakurri edota kontsultatzeko beharrik ez izateko. Hipotesi honek, jakina, ez luke baztertuko Senekaren eta beste autore klasikoaren obrarekin izandako kontakturik, irakurketa sistematikoa eta erabilpen zuzena baizik. Izan ere, Axularrek antologietatik jasotako pasarte eta aipamenez gain, ez zituzkeen zuzenean ezagutu. Ezagutza hori gaztetako klaseetan edota bestelako egileen bitartez egina izango zen.

Hipotesi horren egiantzekotasunaren arrazoirik nagusia "topikoetako" Seneka agertzean letzake, Seneka eta beste autore "jentil"-ak jakina. Senekari dagokionez -eta berau da jarraipen honetarako egilerik interesgarriena, ez bakarrik aipamen kopuruagatik, baizik eta kristauek sistematikoki aprobetxatzen zuten filosofia koherente bat ere luzatzen duelako-, *Gero* guztian eskaintzen zaigun ikuspegi estoikoa arrunta da, esku-liburuetakoa, esaldi eta ideia batzuetara mugatzen dena; zer esanik ez dago Ovidio eta bestelako autoreen ikuspuntu "vitalista"-z eskaintzen zaigunaz.

Ikusten den bezala, aipamenek ere horrelako zerbait erakutsiko lukete. Topikoegia da klasikoetatik datorkigun guztia eta, ondorioz, ezagunegia. Ez bide zen haiengana hurbildu beharrik haien berri izateko.

## 9.7.- EXENPLUAK

## 9.7.1.- DEFINIZIOAZ ETA ERABILPENAZ

Erretorika klasikoan *exemplum* bezala ezagutzen dena, Kintilianok honela definitzen du: "est autem id rei gestae, aut ut gestae, utilis ad persuadendum id quod intenderis commemoratio" (*Inst. Or.*, 5, 11, 1)<sup>366</sup>. Ildo berekoa, baina lakonikoagoa da Fr. Luis de Granadak ematen duen definizioa: "Ejemplos, esto es, dichos o hechos insignes" (Granada, *Retórica...*, 510a).

<sup>365</sup> - Berdintsu jokatzeko du *Naturalis Quaestiones* liburuaren aipamena egiten duenean, hots, elementu naturaletatik atera daitezkeen ondorio filosofiko-moraletatik -liburuaren bukaera aldetik, beraz- jasotzen du pasarte.

<sup>366</sup> - "Un hecho sucedido, o como sucedió, útil para probar lo que queremos". Aipamena eta itzulpena honako edizio honen bitartez: Madrid, Perlado Páez y C<sup>a</sup>, 1916, I. tom., 272 or.).

Le Goff-en hitzetan aurkitzen dugu gure liburuaren testuinguruan ongien xertatzen den definizioa: "un récit bref donné comme véridique et destiné à être inséré dans un discours (en général un sermon) pour convaincre un auditoire par une leçon salutaire" (Bremond, Le Goff, Schmitt 1982, 37-38 or.)

Izan ere, definizio honek *exemplum* izenekoaren ezaugarri garrantzitsuena uzten du agerian, hots, haren izaera narratiboa, betiere gizakiaren konbertsioaren lorpenera iritsi nahi duen pertusasioaren erretorikaren barnean kokaturik.

Cuevas-ek, *exemplum*-ak Barrokoan hartzen dituen ezaugarri formal, tematiko eta funtzionalak kontutan harturik, honako definizio hau proposatzen du: "un dicho o relato breve en prosa, que puede servir de prueba o ilustración a una doctrina religiosa, o de paréntesis a una conducta moral" (Cuevas 1989, 60).

Beraz, esan genezake *exemplum* bezala ezagutzen dena sermoi edota idazkietako ataletan tartekaturik azaldu ohi dela, helburu desberdinak izan ditzakeelarik. Halere, normalean, autoreak -idazleak zein predikariak- azaldu nahi duena arintzeko, frogatzeko edota argitzeko erabiltzen duen ipuin motz antzeko bat izaten da.

Historikoki *exemplum*-a erretorika klasikoaren jatorrian bertan zegoen; jakina, autore kristauak ere berehala jakin zuten hartaz baliatzen. San Ambrosio eta San Gregorio Handiaren eskutik hasiko zen *exemplum*-aren erabilera erlijioso arrakastatsua. Halere, predikazioetan ez da finkatuko haren erabilera sistematikoa XIII. menderarte.

Hurrengo mendeetan, eta batik bat XVI eta XVII. mendeetan, hau da, Trentokoaz geroztik sortutako giro ilunen ondorioz, esenpluak arrakasta handiagoa izango dute eta haien erabilpena askoz ere maizago gertatuko da idatzizko zein ahozko predikazioetan. Izan ere, denbora luzez zilegizko eta fede-zalantzarik gabe aurki zitekeen literatura bakarra bihurtu baitzen honako "eredugarri" hau.

### 9.7.2.- HEDAPEN MODUAK

Dagozkigun mende hauetan hiruzpalau izan dira *exemplum*-ak zabaltzeko baliatutako bideak. Alfabetatze maila sektore zabal batean oraindik apalegia zenean, sermoiak izan ziren entzule arruntengana iristeko lehenengo bidea eta garrantzitsuena. Horrekin batera, tratatu izpiritualak, esenpluak irakurtzen zekitenengana helarazteko balio izateaz gain, tresna egokiak izan ziren "bigarren mailako" predikazioan ere: ozenki eta jendaurrean (familiarrean batik bat) egindako irakurketaren bidezkoetan hain zuzen.

Horiez gain, etxe eta komentuetatik barrena eurrez irakurtzen ziren *Flos sanctorum* edo bilduma hagiografiko ospetsuek ere protagonismo nabarmena hartuko zuten *exemplum*-aren zabalkunde hartan. Eremita biotan, Cuevasek gogoratzen duen bezala, "el «ejemplo» aparece integrado orgánicamente en un contexto de prosa doctrinal o de relato biográfico" (Cuevas 1989, 62).

Ezin dira ahaztu, bestalde, predikari eta idazle erlijiosoen eskuetan egon ohi ziren esenplu-bildumak. Horretara dedikatzen zirentzako espreski prestatu liburuak ziren haiek, gaika ondozkatuak eta erabiltzeko gertu. Axularrek ezagutu zuen kultura espainiolean, esaterako, "prados espirituales" bezala azaltzen ziren bilduma horiek, izpirituek bertan bazka zezaten burutuak bitziren.

Edonola ere, *exemplum* delakoaren garrantziak normalean ezein libururen mugak gainditzen ditu nasaiki, obra jasotzen duen herriarengan izan dezakeen eraginagatik hain zuzen. Cuevasek dioen bezala, "su papel divulgador es decisivo. No se

trata ya de iluminar la inteligencia de unos pocos teólogos profesionales, sino de cimentar la vida religiosa de todo un pueblo" (Cuevas 1989, 75).

### 9.7.3.- EXENPLUAK GERO-N

Lehenik eta behin, esan behar da *Gero*-n barrena agertzen den esenplu multzoa ez dela orekatua, hau da, ez dela maiztasun orekatu batez ematen, lehenengo plama sortan (24-34 orrialdeen artean) mordoxka bat eskaini ondoren, urritu egiten baita *gero* orrialde anitzetan zehar. Tarte horretan *auctoritas* arloko aipamenak eta adibide biblikoak nagusituko dira, garatzen den gaiaren izaera teorikoarekin (?) bat eginez. Berrero helduko zaio esenpluen erabilera sistematiko horri bekatu buruzagien kalteak eta erremedioak tratatzerakoan, baina, hori bai, modu lasaiago batean eta hobeto dosifikatuz. Kapitulu horiek bukatzean, esenpluok ere bakanduaz joango dira.

Nolanahi ere den, liburuan antzematen diren esenplu horien aurrean, ezaguna da sailkapena irizpide desberdinen arabera egin daitekeela (cfr. Polo de Beaulieu 1993, 279): izan duten jatorriagatik eta informazio-bideagatik, *exempla* direlakoetan parte hartzen duten pertsonaien arabera (gizakiak, animaliak, etab.) edota esenpluak erakusten duten egitura formal eta logikoaren arabera (analogia edo metonimia).

Sailkapenaren problematika, ordea, areagotu egiten da irizpide izan daitezkeen faktore guztiak (jatorria, etab.) argiturik ez daudenean. *Gero*-n daudenak sailkatu beharko balira, beraz, modu eraginkorrean sailkatuak izatea eskatuko lukete, beraietan parte hartzen duten protagonisten arabera inondik ere.

Dena den, tesi lan honi dagokionez, sailkapen baten pertinentzia aztergai den egileraren planteamendu teoriko-erretorikoa agerian utz lezakeen neurrian justifikatuko litzateke.

Hori horrela, eta zaletasun taxonomiko hutsak alboratuz, Axularren esenpluak giza-protagonisten inguruan garatzen dira nagusiki, eta pertsonaia sailkatuak erlijiosoen bizitzaren pasarteak tartekatzen badira ere (Santa Luzia, San Martin, San Agustin, Paulo abadea, frai Gil, "Hugo Ipizpicu sailkatu" hura [393], etab.), garrantzi handiagoa izango dute Bibliatik jasotako ohiko esenpluak (Sanson, Salomon, etab.).

Halaz ere, gorago aipatu kapitulu "pragmatiko" horietan Historiaren lekukotasuna eta egiantzekotasuna izango dira Axularrek baliatutako dituenak. Horretan, batik bat aintzinasun klasikotik hartutako esenpluak izango dute protagonismoa. Ez dira faltako Grezia eta Erromako herri eta pertsonaiak<sup>367</sup>: Lazedemoniakoak (29, 87), espartarrak, korintiarrak (31, 406), Erromatarrak, "Lukano" izenekoak (33), etab. Garai-kideagoa bide den lekukotasunik ere bada Indietako herri batuk (33) aipatzen direnean.

Baina, oro har, pertsonaia historikoei egokituko zaie esenpluen protagonismoa: Egiptoko faraoia (25-26), "Pisistrato Atenasco tirano gaixtoa" (27), Espartako Kleomenes (29), Erromako Publio Nasika<sup>368</sup> (30), "Perikles famatua" (31), "Solon handia" (32, 405), "Caton Censorino" (32), "Cotys Traciaco erregue" (288), "Licurgo Thraciaco Erreguea" (408), Herodes ("lehenbicico Erregue Ientil" hura, 300 or.),

<sup>367</sup> - Erreferentzietan kasu eginez *gero*, Plutarkoren obretatik jasoak dira gehienak.

<sup>368</sup> - Gogoratu behar da lez batzuk beharago "Scipion Capitain famatu" bezala agertzen dena Publio Nasika bera dela. Axularrek jakingo zuen (?) pertsonaia berberaz ari zela, baina ez dirudi irakurle arruntek bakartzat har zitzaketarik. Areago, zalantza handiak izango genituzke Axular horretaz ohartu zela baieztatzeke orduan, izan ere, pasarte biak jarraian eman zituen arren, protagonista desberdintzat hartu zituela baitirudi.

Vespasiano enperadorea (313), Antigono erregea (313), Semiramis (344), katilina (354), "Lenilla ceritçan andre handi" hura (354), Lais eta Demostenes (388), "Erregue Lysimaco" (389), "Erregue Cyro" (393-394), "Alexandro handia" (394), Neron gaixto" hura (349-351).

Historikoki modernoagoak direnak ere badira: "Henrico [...] çortcigarren, Ingalaterraco Erreguea" (351), Federiko III.a, Alemaniako enperadoream (406-407), etab.

Bestalde, filosofoak ere izango dira bizitzaren nondik-norakoak markatzen: "gimnosofista" izenekoak (32), filosofoak (33-34), Dionisio filosofoa (296), Livio filosofoa (298), Zenon filosofoa (414), Antistenes filosofoa (446), Bias filosofoa (448), Diogenes filosofoa (458), filosofoaren eta zapatagilearen exenplua (430 or.), etab.

Luzeen eta narratiboki borobilenen artean honako hauek azpimarratu behar-ko genituzke: "Sesostri Egiptoco erreguea" delakoarena (409-411) Zaleuko "Greciaco parte batçuetaco Erregue" haren exenplua, hiru orrialdetako ipuin gisa emana baitago (346-348)

Aparteko erreferentzia mereziko lukete Historia Naturaletik hartutako exenpluek, hots, animalia eta landareen exenpluek, gatazkatsuak eta, zenbaitetan, gaitzetsiak izan baitziren doktrinan egin zezaketen kalteagatik.

Edonola ere, ez bide ditu Axularrek Historia Naturalaren aurka zeuden aurriritzi horiek kontutan hartzen. Areago, burutu nahi izan zuen lan aszetikorako interesgarriak bezain praktikoak iruditu bide zitzaizkion hango adibideak. Ildo horretatik, ikusmiran zeukan irakurlego/entzulegoaren izaera herritarra eta "landu"-gabea, eta horren arabera erabiliko zituen gure autoreak. Esate baterako, korronte "ortodoxo"-enari jarraikiz, Juan de Bonifaciok 1589an *De sapiente fructuoso* obran garbi kondenatzen du: "A veces entran por la historia natural, que es la más mentirosa que se conoce, y atribuyen a las bestias, a los reptiles, a las aves y a los peces instintos y propiedades que no les dió el autor de la naturaleza" [ 3. lib. 3. gutuna; apud Olmedo 1960, cxxx]

Axularrek, berriz, ez du inolako arazorik izango historia naturala ere baliatzeko, doktrinalki ondorio irristakorrenetarikoak baino ez aipatzearen erle eta txinaurrien adibideetatik sortuak genituzkeelarik (*Gero*, 34-37) -gogora bedi Inkisizioak espreski agindu ziola Donibane-Garaziko Huarteri atal hau beratu ezabatzeko. Ezin ahaztu, bestalde, sagarroiarena bera ere.

#### 9.7.4.- EXENPLUAK ERKATZEN

*Gero*-n bildutako aipamen horietatik askok (erreferentziatu gabekoak barne) Plutarkoren *Apotegma* -tik jasoak diruditen arren (ik. II. eranskina), garaiko liburu aszetikoetan barreiatuak aurkitzen ziren gehienak eta ez bide zen jatorrizko liburueta joan beharrik erreferentzia zuzenak izateko. Aipamenekin adierazi bezala, fondo amankomun ezagun batekoak bailiran agertzen dira normalean. Adibide bezala, hona hemen garaiko literatura hartatik jasotako paralelo antzeko batzuk.

Hemen J. B. Sanctoro-ren *Prado espiritual* izeneko liburutik hartu ditugun lehenengo bi hauek, esaterako, oso zabaldua zeuden gatzelerazko literatura aszetikoan.

Lehenbizikoa *Gero*-n aurkitzen da 378-379 orrialdeetan, S. Jeronimoren erreferentzia -jatorrizkoa, beraz- alboan duelarik:

*De como un Abad curó a un monge que andava encendido en amores*

Estava en un monasterio un monge de nacion Griego, mancebo, y de buenas partes y fue tan tentado de amores que en ninguna manera con todos sus ejercicios espirituales y de manos, no podía apagar las llamadas de la carne. Como alguno monges lo sintieron, lo dixeron al Abad, el qual le quiso sanar con una arte maravillosa, y fue que mando a un monge de los mas antiguos, grave y aspero que injuriasse con palabras de mucha deshonra al mancebo, y despues que lo huviesse tratado mal de palabra, el se viniessse a quejar como si huviera sido offendido del monge. El anciano hizo assi, y llevó a otros monges por testigos, los quales testificavan q(ue) el monge Griego avia sido el descomedido y desvergonçado. El Abad entonces reprehendió al monge y le dió penitencia como a culpado. Esto passava cada dia, y viendose el monge maltratado y contanto falso testimonio acuestas, llorava y solloçava, y cada momento derramava muchas lagrymas, y se estava tristissimo en su celda lleno de amargura, y viendose desamparado de todo favor, se echava a los pies de Iesu Christo, y le pedía que bolviesse por el. No se hazia mal recado en toda la casa que no dezian que el lo hazia y luego lo testificavan dos ó mas monges ser assi, y le davan penitencia y reprehensiones como a culpado. Desta manera passo un año, el qual acabado un otro monge le preguntó q(ue) como le yva de amores, y si insistia en sus pensamientos antiguos. Dixo a esto el monge Griego: Valgame Dios, aun vivir no puedo como tengo de andar con pensamientos de amores? De esta manera le cuó su padre espiritual, y el monge vencio sus malos pensamientos, y se salvò" (Sanctoro, *Prado...*, 67).

Ildo berekoa den bigarren exenplua ere *Gero*-n dago, 23 orrialdean. Axularrek ematen duen erreferentzia eta Sanctoroarena bat datoz jatorrizko testua Juan Casianori egoztean, saratarrarena askoz ere zehatzagoa delarik:

*Del Abad Pablo que cada año quemava quanto avia trabajado*

El Abad Pablo aprobadissimo monge, vivia en el yermo mayor llamado Porfirio, donde se sustentava con datiles y las hortalizas de un huerto q(ue) alli tenia y no tenia necesidad de otro alimento, ni aun de trabajar con sus manos, lo uno porque tenia lo que avia menester sin yr a otra parte, ni vender lo q(ue) hazia, y lo otro porque su celda estava metida en el yermo apartada siete jornadas y mas de lo poblado, y si llevara a vender lo que hazia, le costara mas el llevarlo a los pueblos mas cercanos que le darian por ello. Con todo esto por no estar ocioso, cogia hojas de palma, y se hazia muchas cosas della, y trabajava tanto como si huviera de comer del precio dellas. Y al cabo de cada año encendia un gran fuego, y las quemava todas, por que entiendiesen los monges y ermitañes que no avian de dexar de trabajar, aunque no tuviessen necesidad de lo q(ue) obravan, y q(ue) sin este trabajo no podian llegar a la cumbre de la perfeccion" (Sanctoro, *Prado...*, 106 or.)

Bestalde, exenpluen antzak eta paralelismoak ikusi ahal izateko, interesgarria izan daiteke iildo berekoa den beste hau ere aurkeztea. *Gero* erredaktatzean Axularren ikusmiran egon den Granadak, esterako, Casianoren 10 lib., 24. kap.-etik ateratzen du honako "informazio" hau:

"Casiano escribe de aquellos padres del yermo, que tenían por tan importante cosa esta (alferkeriatan ez egotea, alegia), para perseverar en la observancia de la virtud y religion, que cuando algun monje vivia tan apartado de la compañía de los hombres que no le podía prestar para nada su trabajo, no por esto dejaba de trabajar, y al cabo del año pegaba fuego á sus trabajos, para desembarazar la celda, y comenzaba de nuevo a trabajar" (Granada, *Memorial*, 273 or.).

Beste edozein hartu beharrean, gorago aipatua izan den Alvaradoren testua hartuz gero, argi antzematen da bertsioa hurbilagotzen hasiko zaiola Axularrenari:

Bien entendia esto aquel gran Pablo primer Ermitaño, el qual aunque no podía vender en el desierto todo lo que alli trabajava, puestos los ojos, no en la ganancia temporal, sino en el fruto, y provecho espiritual, trabajava muy de ordinario, y hinchia toda su cueva de cestillas y espuestas, las quales quemava al cabo del año" (Alvarado, *Arte de bien vivir...*, 1031 or.) (azpimarrak gureak dira)



Axularrek honela ematen du testua:

saski eta otharre egiten haritzen zela eta gero azkenean, egin ondoan, astearen buruan, guztiak erratzen eta desegiten zituela (*Gero*, 23) (azpimarrak gureak dira)

Honako honetan azpimarratzekoa da nola aldatzen duen Axularrek denborazko kontzeptua: "urtearen buruan" jarri beharrean -Casianok esaten omen zuen bezala-, abade zaharrak "astearen buruan" erretzen eta desegiten zituela egindakoak dio Axularrek. Baina, edozein modutan ere, garbi dago bertsoiak asko eta anitzak zirela aszetika obretan.

Sagarroiaren adibidea bera Axularrek eman bezala agertzen da Vanegasenean. Granadak ere badu horren erreferentzia zenbait (nahiz eta berdinak ez), haietako bat *Guía*-ren 63 orrialdean dagoelarik. Jakina, Granadak berak gogoraziko du Isaiasen liburutik (Is. 14) jasotako irudia dela sagarroiaren eztenena.

Jondone Martinen exenplua (*Gero*, 226-227) oso interesgarria da Axularrek erabili duen erreferentzia zuzen-zuzenean itzulita ematen duelako. Baina exenpluen barreiatzea dela eta, adierazi behar da patristikako liburuetan aurkitu izan dugula ohiko bihurtu ziren testu haietariko bat, Axularrenarekin ezin lotura handiago duena. Askok dira antzeko aipamena egiten dutenak: *Martinus adhuc catechumenus hac me veste contextit* (Rabanus Maurus: *Homiliae* ; Sulpicius Severus: *De vita beati Martini*, etab.). Edonola ere Axularren testuingurutik hurbilago geratzen da Hildebertus Cenomanensis-ek bere *Sermones* obran dakarrena:

Cum enim pallium medium egeno partitus fuisset, apparuit ei Christus in nocte, eadem veste inductus, dicens: Martinus adhuc catechumenus hac me veste contextit.

Axularren bertsoia ia hitzez-hitzezkoa da:

Iondone Marthiek bere kaparen erdia probeari eman zioenean abiatu zen Iainkoa gau hartan berean, kapa hartaz estalirik, erraiten zuela sendagaillaz: Martinus, hac me veste contextit. Iklusazue, ikhusazue zer balentia egin duen Martinek, nola kapa hunez estali nauen, zer eman derautan (*Gero*, 226-227).

Honen aurrean, beraz, badirudi Axularrek erabilitako exenpluak -beste autore gehienek bezalatsu- irakurketa aszetikoko liburuetan barreiatu egon ohi zirela. Autoreek gero, funtsezko narratioak mantenduz, irakurle-entzuleen egoeraren arabera egokitzen eta moldatzen zituzten exenpluak.

### 9.7.5.- BITARTEKARITZAREN HIPOTESIA

Orain arte adierazi den guztiarekin batera, eta aipamenei buruz esandakoan txertatuz, badira exenpluen erabilpenari buruz nabarmen utzi beharreko zenbait ezaugarri garrantzitsu Axularren obran zehar. Erabilpen praktikoaz ari gara, baliatzeko moduz hain zuzen. Ezaugarri horietako askok, gorago esandakoaren ildotik, autore klasikoan errezeptioan erakutsi uste dugun mediatizazio bera adieraziko lukete autore kristauen obra zenbaitetan ere. Azal ditzagun adierazgarrienak.

1.- Ikusia duguna ikusita, badirudi Axularrenean ohikoa bihurtu zela aipamenak edota exenpluak multzoka hartzearena. Axularrek ez ditu derrigorrez hartzen banan-banan eta gero testuan uztartu. Haren lan egiteko moduak eramaten zuen pasarte

luzeak transkribatzera eta gordeta izatera. Gero sermoian edo liburuan erabiltzerakoan ere multzoka erabiltzen bide zituen. Adibideak aipamen biblikoekin, autore klasikoekin eta patristika arloan ere aurki ditzakegu erraz.

Horiatariko nabarmen bat 48. orrialdean dugu. Axularrek *Esaera Zaharrak* liburutik hartutako aipamen bat egin ondoren Bedarena ekarriko du jarraian.

Patristikako testuetan konprobatu izan dugunez, behin baino gehiagotan agertzen dira pasarte horiek biak elkarrekin. Rabanus Maurus-ek *Expositio in Proverbia Salomonis* delakoan, XIII. kapitulu jarraian emango ditu aipamen biak. Antzeko zerbait egingo dute (nahiz eta testua zertxobait aldatua eman) Smaragdus S. Michelis-ek bere *Commentaria in Regula Sancti Benedicti* (38) eta haren kopia dagien Martene Edmundus-ek bere *Comentarius* liburuan.

Horrelako jokabideak ohikoak ziren Elizako Gurasoen artean eta era horretan iritsi izan ziren ondoko mendeetan idatzi liburuetara, batik bat doktrinalki ezer berri aportatu behar ez zuten aszetikakoetara.

Axularrena ez bide zen salbuespena izan jokatzeko modu horretan.

2.- Ildo bereko jokabidea litzateke autore klasikoan aipamen-exenpluetan antzematen dena. Multzoka hartutakoak ere eurrez aurkitu uste izan ditugu. *Gero*-ren lehenengo kapituluaren § 2 atalak, esaterako, garbi adierazten du Axularrek *Silva* edo *Loci* izeneko libururen bat erabili zuela eskuen artean.

Hipotesi honen inguruan areagotzeko ezaugarriak honako hauek genituzke oro har: Adibideak gai berari buruzkoak dira, denak jarraian emanak, aipatu liburuetan ohi zen bezala, bata bestearen segidan alegia, obra desberdinetatik jasoak bailiren, eta jatorrizko hitzkuntzan, hots, latinez, hitz edo perpaus garrantzitsuenak bakarrik azalduz. Guztiak, ikusten denez, *silva* eta *loci* direlakoetako ezaugarriak.

Agian asko arriskatuz, baina hipotesi gisa halere, adibide edo exenplu sorta horien guztien atzean Luis de Granadarena bezalako *Collectanea*-ren bat dagoela pentsa liteke. Honekin ez dugu inolaz ere baieztatu nahi Axularrek *Collectanea* hori<sup>369</sup> erabili zuela, beste arrazoiren artean Axularren eskuetatik ibilitako autoreek ere erabilia izan zekaketelako hain zuzen. Alabaina, ezaguna da Luis de Granadak Plutarkorenak tomo batean bildurik eman zituela bere *Collectanea moralis* hartan, eta hain zuzen ere hemen aipatzen direnak (*Gero*, 29-hk.) ia-ia elkarren segidan daude bertan.

Axularrek darabilen ondozkapenari jarraituz, honako hau aurki dezakegu Luis Granadakoarenean:

"Cum Lacedaemoniorum rex polliceretur se funditus eversurum civitatem quandam, quae saepenumero Lacedemonijs negotium exhibuerat, non permiserunt Ephori, dicentes, Nequamquam abolebis iuvenum cotem. Urbem infestam appellabant cotem iuventutis, eo quod hostibus semper praesentibus, ipsa iuventus acueretur ad bellandi peritiam. Plut. in Lacon" (*Collectanea*, 877 or.)

"Scipio Nasica, quibusdam dicentibus res Romanas iam in tuto esse, extinctis Carthaginiensibus, & Graecis in servitutem redactis: Imò, inquit, nunc demum summo in periculo sumus, posteaquam nulli supersunt, quos vel timeamus, vel revereamur. Sensit, inimicos per occasionem utiles esse nobis: per quos non licet impunè securèq; negligentes esse. Erasm. lib.8. Apoph"

369 - Hori edo *Collectanea* delakoaren hirugarren edizio hutsa izan behar zuen *Loci communes philosophiae moralis* (Kolonja, 1604) liburua, alegia.

(Collectanea, 890-891 or.)

Cato Sensor semper se harum rerum poenituisset dixit, Si mulieri arcana detextisset: aut si mari profectus esset, quò terrestri itinere eundi facultatem habebat: aut si per negligentiam diem frustra elabi permisisset. Plutarc. & Ful. lib. 7. cap.2" (Collectanea, 891 or.)<sup>370</sup>

Solonis lex praecipuè laudatur, quae quidem sancivit, filium nequaquam parenti necessaria vitae subsidia debere, à quo nullam artem accepisset. Ubi sup." (Collectanea, 893 or.)

Azterketa exhaustiboa egiteko ez beta ez asmorik izan ez dugun arren, aipatutako adibideekin garbi dago kointzidentzia hutsa baino gehiago dagoela pasarte hauetan. Izan ere, Axularrek erabili zuen ordenamenduak erabateko paralelotasuna erakusten du Granadarenarekin:

29. orrialdean: Lazedemonioen exenpluak

30. orrialdean: Publio Nasicarena<sup>371</sup>

32. orrialdean:

Solonena  
Cato Cesorinorena

Ezin bazter daiteke Granadak ere bere iturriak izan zituela eta aipamenak, agian, horrela ondozkatuak aurkitu zituela baieztatu lezakeen hipotesia. Inolaz ere, aipamenak multzoka hartu ohi zirela adierazten duen adibide nabarmena dugu Granadak bere (?) hitzekin esaten duen ondoko honetan ere:

Guarda también tu lengua de cualquier palabra torpe; porque las buenas costumbres se corrompen con las pláticas malas. La lengua descubre las aficiones del hombre; porque cual se muestra la plática, tal se descubre el corazón; ca de lo que el corazón está lleno, habla la lengua (Guía, 510)

Axularrek, Granadak ez bezala, iturriak bereiztuz ematen du erabat paraleloa dirudien pasarteak:

Zeren Iondone Paulok dioen bezala: *Corrumpunt bonos mores, colloquia mala* (1 Cor. 15). Solhas gaixtoek gaitzen dituzte aztura onak. Eta erraiten dute filosofoek ere: *Voces sunt signa conceptuum*. Mihiak deklaritzen du zer dadukan bat bederak bere gogoan eta bihotzean. Nor nola mintzo baita kanpoan, hala ohi da barrenean. Zer baitaduka gogoan, hura aipatu nahi du iendartean, mihia da bihotzaren mandataria, mihian da ezagun nor den bat bedera, eta bai nongo den ere. Iondone Petri ezagutu zen bezala (Gero, 396)

Horrelako amalgama eta iturri bereizketa gehiago izango genituzke honako hauetan ere (ikus testuen erkaketaz diharduen eranskina): *Es* 26, 11 eta 2 P 2, 22 (470-471 or.)

Garbi dago, beraz, horrelakoetan, aipamenak sortatan hartzeaz gainera, autore biek jo dutela erreferentzia horiek biak elkarrekin agertzen ziren toki batera, toki berera agian.

De Reuk oroitarazten duen bezala, ez bide da zalantzarik aipatu autoreen iturri zenbaiten amankomuntasunean:

370 - Plutarkoren bertsiok alde du Axularrek bere obran 32-33 orrialdeetako exenpluan egiten duen moldaketarekin. Adibide gisa, ikus gaztelarazko bertsiok: "Decia[...] que en toda su vida de tres cosas solamente habia tenido que arrepentirse: primera, de haber confiado un secreto a su mujer; segunda, de haberse embarcado para un viaje que pudiera haber hecho por tierra, y tercera, de haber pasado un día sin hacer nada" ("Marco Caton", *Vidas Paralelas*, II, 312).

371 - Kontutan hartu Granadak dakarren adibidea Erasmoren obratik jasoa dela.

"Le chercheur qui étudie deux textes indépendants ayant un choix commun de fragments patristiques peut conclure à l'existence d'une source intermédiaire. Si le chercheur se trouve devant deux textes dépendants, les conclusions s'avèreront d'autant plus faciles" (Reu 1993, 334)

3.- Aipamen eta exenpluen kasuistika zabalean, dena den, badira zenbait kasu hipotesi horren sustatzaile izan daitezkeenak. Batetik, behin baino gehiagotan gertatu izan da beste batzuenak balira bezala ematen dituela Axularrek aipamenak. Horietariko bat, esaterako, "Eta badio Casianok ere. *Mulierem ignoro, & virgo non sum*" da. Jakina denez -eta Axularrek ere ondo jakin behar zuen hori, besteak beste Frantzisko Salesekoaren *Filotea* (1609) liburu ospetsuan bertan agertzen baita-, esaldiaren "aita" San Basilio Magno zen, eta ez berak zioena.

Horrek aipamena beste nonbaitetik hartua zela adieraz lezake inondik ere, eta ez Kasianoren obratik zuzenean.

Bestalde, ikusia dugu Axularrek ez duela zalantzarik beste autoreen hitzak bere obraren izaerara moldatzeko eta, zenbaitetan, zentzua ere aldarazteko. Batzuetan, egia da, beharrezko du esplikazioa edota anplifikazioa baliatzea, besteak beste, aipua testuinguruan erraz, zuzen edo egoki sartzen ez delako.

Jakina, jokabide hau batik bat autore jentilekin gertatuko da, eta ez doktrina kristaua garbi eta zalantza izpirik gabe uzten duten egile kristauekin. Hori dela eta, Axularrek doktrina kristauera egokitzeko ukituak egin ohi ditu paganotzat dituen egileen exenplu-aipamenetan. Adierazgarria da, ikusi bezala, Demostenes filosofoak Lais emagaldurekin duen harremanaren "kristaukuntza-prozesua".

Egia aitortuz, saratarraren iturri izandako Luis Granadakoak ere joera beretsua erakutsi zuen: "Luis de Granada llevó a cabo esa adaptación, sin duda a ciencia y conciencia" (Blüher 1983, 350).

Baina planteatzen den arazoa da ea exenpluetan (eta aipamenetan) jatorrizkoekin konparatuta agertzen diren egokitzapenen ekimena berea den ala beste batzuenak. Eta badirudi orain arte izandako aztarnek bigarren aukera horretara garamatzatela zuzenki.

Ildo horretatik, onar bekigu honekin bukatzeko Axularren iturrien artean bide zegoen Granadari buruz esandakoa parafraseatzea eta -behar diren distantziak gordeaz- Axularren beraren planteamenduari egozteak:

"[...] presenta su doctrina en el molde de un humanismo ecléctico, de síntesis amplia y fluida de autores de la «devotio moderna», medievales, Padres de la Iglesia y clásicos" (Cilveti 1974, 184).

Urdazubiarraren planteamendua ere zabala izango litzateke eta,aldi berean, "laburbiltzailea", baina batez ere "devotio moderna" delako horren laburbiltzailea.



# **X.- TRATAMENDU ELOKUTIBOA**

“Axular s’inspire d’ailleurs très librement de ses sources et son oeuvre reste personnelle par la composition, le mouvement et le style”  
(Lafitte 1943, 39).

*Gero* liburuan daudekeen osagai edota faktore originalak biziki nabarmenak dira esparru elokutiboan. Izan ere, arlo horretakoa da liburuak duen elementurik originalena, hots, beste hizkuntzetako ereduak izan arren, euskararen barne-baliabide propioen erabilpen bikaina erakusten duena eta euskal prosaren historian lehendabiziko hikuntz egokitzapen ahalegin interesgarria izatera iritsiko zena. Metodologikoki ikuspuntu erretorikotik egina bada ere.

### 10.1.- *GERO*-REN ELOKUZIO-BIDERATZAILEAK. HIPOTESI ESPLIKATZAILE BAT EHUNTZEN

“Es probable que la mayoría de los escritores medievales a través de Europa continuara la práctica clásica de escribir sus obras literarias para ser leídas en voz alta [...] Esto ayuda a determinar el estilo siempre retórico así como la índole de la trama y la caracterización”

(Ong 1987, 153)

Planteamendu elokutiboak, berez, baditu betiere modu batekoa zein bestekoa izateko arrazoi konkretuak eta, aldi berean, baldintza gisakoak direnak ere. Horiek guztiak bereizteko funtzionalitate ezaren gaineratik iraganez, guk “bideratzaile” moduan azaldu nahi genituzke, irudiz -eta honetan datza hipotesi esplikatzailearen muina-, testuaren moldaketa formala ematen arituko diren faktorerik garrantzitsuenak.

Honako honetan, aszetikako lana den heinean, berezko diruditen bideratzaileak, batetik, eta “pragma”-tikoak edo direnak bereiztu beharko lirateke ziuurtenik.

Edozein predikarik berbaldia ederragotzeko izan ohi zituen asmo arruntez gainera, Axularren prosaren alderdi elokutiboak badu bat, berezko deitu duguna, aszetikaz diharduelako ezinbestean isladatu behar dena eta, neurri handi batean, testuaren bideratzaile bihurtuko dena: irakurlearen baita hunkitzeko premia. Bestalde, testuaren eraketak berak erakusten duenez, eta, neurri handi batean, ohiko predikarien “ofizio”-aren

ondorioz, bada Axularren elokuzioan ahozketasunaren fenomenoarekin hertsiki lotua dagoen bigarren bideratzaile berezi bat ere, ahaztu gabe, jakina, hizkuntzari berari zor bide dakiokena. Horiezaz mintzatuko gara ondoren.

### 10.1.1.- HUNKIGARRITASUNA

Kontzeptua adierazteko hitz egokiago baten faltan, aszetikako testuei dago-kienez, "hunkigarritasuna" irakurleen barnean eta afektuetan eragiteko premiarekin loturik legoke.

*Docere* eta *deleitare* edozein sermoiren helburuen artean bazegoen ere, azpimarratua dugu *movere* izango dela benetan predikariak bilatu behar duena, entzule-irakurleen "konbertsioa" azken finean. Jakina, helburu hori areagoturik azalduko da bereziki aszetikaz diharduen liburu batean.

Ezaguna denez, helburu horiek erdiesteko erretorika eklesiastikoak oso modu zehatzean zituen garatuak hainbat baliabide. Horiek guztiek, zer esanik ez dago, izaera zenbaitetan bortitza, zenbaitetan leunagoa, baina betiere "hunkigarria" eransten zioten testuari.

Formalki ere elementu nabarmenak dira eta garapen modu bereziak ekartzen dizioten obrari. Izan ere, argumentazioaren garapenean amplifikazioari eskaintzen zaion funtzioa areagotuta geratzen da hunkipenaren atal honetan hartzen duen egiteko berriarekin. Granadakoak zioen bezala, "es propio de la amplificación, no solo convencer al entendimiento para que crea ser la cosa máxima en su género, sino inducir también a la voluntad al amor, ó al odio, ó á otro cualquier afecto" (*Retórica*, 530a; azpimarrak gureak dira).

Baina, orokorrean mintzatuz, afektuetan hunkitzeko ohiko bidea amplifikazioarena den arren, bada zehatzago denik ere. Erretorika klasikoan figura edo irudi bezala agertzen ziren horien artean gomendatuena honako hauek ohi ziren: errepikapenak, jarraiangotza, harridura perpausak, apostrofeak, hiperboleak, etab.

Axularren liburuak, ikusi den bezala, faktore honi zor dio elementu "dramatikoa"-aren lantzea, eta ez bakarrik testuari hainbat pasartetan isurtzen zaion hunkigarritasunagatik, testuaren balizko predikazio baten "antzeppen"-ak inposatuko lukeen mimitismoagatik baizik. Are gehiago, egituraketa dialogikoak berak obraren barne-indarrak erakutsiko lituzke nabarmenkiro, irakurle-entzuleak tentsioan mantendu nahi dituen antzerki-formula bat iragarritz.

### 10.1.2.- PROSAREN BARNE-ESKAKIZUNAK

Ezaguna da edozein hizkuntzako literatur prosaren ereduaren eraketak dituen zailtasunak bertso edo neurtitzaren inguruko munduak dituenak baino biziki handiagoak direla. Azken honen ohiko egitura neurtuak (gehiago-gutxiago neurtuak, esan nahi baita) eskatzen dituen erritmoa eta musikaltasuna, esaterako, elementu erraztaile dira literatur hizkuntza sortzerakoan. Prosak, aldiz, antzeko ezaugarriak (oreka, erritmoa, etab.) behar dituen arren, ezaugarri horien tratamenduan bertsoaren eremutik alden du beharra du, harekin konfunditua izateko arriskurik gerta ez dadin.

Erretorika klasikoa ohartua zen horretaz eta bideak ere jarriak zituen prosaren hizkuntza, neurtu gabea izanik ere, erritmikoa suerta zedin. Eta gogoratu

beharrak ez dago, erritmoaren oinarritzko osagaia elementu errepikakorra da beti, testuaren azpian etengabe "jotzen" duena baina garbiegi antzeman ezinezko bihurtzen den errepikapena.

Hori lortzeko erretorika klasikoak aurrikusi zituen baliabideak, beraz, elementu errepikakorretan oinarritu ziren nagusiki. Geroago Axularrek egingo zuen bezala, azken finean.

Nabarmena da hori guztia *Gero*-n lexikoaren erabileran (sinonimia eta hitz multzoak, askotan neurri beretsukoak), perpausen egituraketan (paralelismoaren nagusitasuna), baliabide homofonikoetan eta, pentsamenduaren eremuari dagokionez, joera argumentatzaile errepikakorrean bertan (*commoratio* delakoa izango da Axularren ezaugarri amplifikatzaile gogokoenetariko bat). Baina honetaz guztiaz XI. kapituluaren ihardungo da zehatzago.

### 10.1.3.- AHOZKOTASUNA

"La escritura nunca puede prescindir de la oralidad"  
Ong

Esan izan da guri dagokigun garai honetan, eta modu berezian inguruko hizkuntzek ezagutu zuten Erdi Aro-Errenazimenduan, ahozketasunak ia literatur jenero guztietan izan duela eragina (cfr. Deyermond 1988).

Baina ez hori bakarrik; ezaguna baino ezagunagoa da gu hona bildu gaituen planteamendu erretorikoak hasiera-hasieratik zor diola ahozketasunari bere oinarrien konfigurazioa, ahozketasunean hartzen baitute nortasuna eredu erretoriko klasikoek eta ondokoek. Ildo beretik, idatzizko eta inprimatutako testuek ere zor hori agertuko dute, behinik behin erretorika abiapuntu duten artean.

Gurean ere ahozketasunaren eraginak ildo horretatik abiatu izan direla baieztatu daiteke. Gogoratu baino ez kantatzeko idatzi zuen Etxeparearen liburua edota, Axularrengandik edonondik ere hurbilago, Etxeberri Ziburukoaren obraren ahozko izaera.

Egia da demostratzeko dugula oraindik prosaz ezagutzen den lehen lan originalean<sup>372</sup> nolako eragina izan duen "ahozketasun" delako horrek. Halere, hipotesi gisa, bat egingo genuke Ongen hitzekin:

"[...] en todos los maravillosos mundos que descubre la escritura, todavía les es inherente y en ellos vive la palabra hablada. Todos los textos escritos tienen que estar relacionados de alguna manera, directa o indirectamente, con el mundo del sonido, el ambiente natural del lenguaje, para transmitir sus significados" (Ong 1987, 17).

<sup>372</sup> - Originala diogunean, ezin dira ahaztu aurreko ataletan egin diren oharrikizunak, izan ere ez itzulita eta egileak erretorikoki "inbentatua" eta antolatua dela adierazi nahi baitugu, ez besterik. Goago ere mintzatu gara liburuan aurki daitekeen testu-dependentsiaz.

Izan ere, horren guztiaren arrazoia honako konstatazio hauetan bailetzake:

“*Rhetorike*, o retórica, significaba básicamente el discurso público o la oratoria que, aun en las culturas tipográficas y con escritura, durante siglos siguió siendo irreflexivamente, en la mayoría de los casos, el paradigma de todo discurso, incluso el de la escritura [...] Así pues, desde el principio la escritura no redujo la oralidad sino que la intensificó, posibilitando la organización de los «principios» o componentes de la oratoria en un «arte» científico, un cuerpo de explicación ordenado en forma consecutiva que mostraba cómo y por qué la oratoria lograba y podía ser dirigida a obtener sus diversos efectos específicos” (Ong 1987, 19) (azpimarrak gureak dira)

Euskal gizartean etenik gabeko eragina izan duen ahoz-kotasunaren kontzeptu zabal horrek, dena den, baditu bi alderdi *Gero*-n beste hainbat faktorek baino zuzenago eragingo dutenak. Alde batetik, Axularren prosaren izaera alde guztietatik predikagarria genuke eta, bestetik, komunikazio-sistemaren hariaren beste muturrean dagoen mezu-hartzailea. Azken honen irakurketa moduak ezagutzeak prosaren eraketa biziki marka badezake ere, mezu-igorlearen predikatze-azturak erabateko konfigurazioa emango lioke prosari.

### 10.1.3.1.- Predikagarritasuna

*Gero*-ren egituraketaz mintzatzean adierazia dugu Axularren obran etengabe agertzen dela “predikagarritasuna” ezaugarri bezala, batik bat gaiaren garapenean, argumentazioa eratzeko orduan eta argumentuak emateko jerarkizazioan. Jakina, ez dira horiek predikagarritasunaren adierazle bakarrak, baina, edonola ere, bai orain arte ongien erakutsi dutenak Axularrek nolako eredia zeukan obra taxutzean.

Predikagarritasunaren kontzeptua, dena den, areagoturik azalduko da atal elokutiboari begirada bat ematean, bertan aurkituko baitira *pronuntiatio* delakoaren bidez ebaki zitezkeen elementu garrantzitsu gehienak. Izan ere, Burkek oroitarazten duen bezala,

“Los frailes se inspiraban en la cultura oral de su tiempo. Predicaban en estilo coloquial haciendo uso de juegos de palabras, rimas y aliteraciones, gritando y gesticulando, utilizando los cuentos populares para ilustrar su mensaje o componiendo canciones para que las cantasen sus feligreses” (Burke 1991, 120).

Idazle bihurtu predikariek ere sermoien prestakuntzan eta predikazio uanean berean hartutako esperientziak erabat markaturik utz zezakeen (uzten zuen!) idatzitakoa. Eta Axularren kasuan ere predikari-esperientziak “markaturik” utzi zuen liburuan isuritako prosa; idatzi izan ohi zituzten sermoi guztiak bezalatsu, beraz. Hori bera baino ez litzateke behiala Altunak aitorturikoa:

“[...] la docencia ejercida durante más de quince años, la práctica semanal de la predicación y los llamados «ejercicios de tonos» y lecturas públicas a lo largo de la formación religiosa, factores todos ellos que crean [...] un hábito de elocución y pronunciación [izango lirake]” (Altuna 1979, 146).

Honekin, esan beharrik ez dago, erretorika klasikoak oro har eta erretorika sakratuak bereziki erakusten zuten atalik “entzungarriena” baino ez da azaldu nahi, ahoz-kotasunarekin hautsi ezinezko lotura duena hain zuzen. Besteak beste, bada, predikagarritasunak elementu dokoratibo fonetiko-erritmikoak eransten zizkion kontatzen zen hari.

Baldin jeneralizatzea zilegi balitzaigu, zalantzarik gabe esango genuke honako honen antzekoa litzatekeela Axular bezalako predikarien planteamendua:

“los predicadores barrocos ponían especial atención en usar las figuras de mayor eficacia para facilitar la transmisión del mensaje, o sea, las que más integran al oyente, haciéndole partícipe activo del proceso de comunicación, como son, por ejemplo, la *apóstrofe* [...]; la *communicatio vel colloquium*[...]; la *addubitatio* y otras admiraciones en estilo directo o exclamaciones; la prosopopeya etc. O sea, que la oralidad desempeña aquí un papel muy importante” (Cerdan 1988, 65).

### 10.1.3.2.- Irakurketa moduak

Irakurketa modua deituko duguna izango da *elocutio* delakoaren ezaugarriak marka zitzakeen -eta markatu ohi zituen- azken faktorea, izan ere, Ongek oroitarazten duen bezala, “«leer» un texto quiere decir convertirlo en sonidos, en voz alta o en la imagnación, sílaba por sílaba en la lectura lenta o a grandes rasgos en la rápida, acostumbrada en las culturas altamente tecnológicas” (Ong 1987, 17)

Oro har, Axularren garaiari dagokion heinean, honako irakurketa modu ezberdinak azpimarratu nahi genituzke, denborarekin ohiko bihurtu den irakurketa isilaz gainera: batetik, apaiz eta erlijio-gizonek zegitena -horrela baitzuten aginduta-, testua ahoskatuz alegia; bestetik, jende arruntaren irakurketa motak edo, agian hobe eta zehatzago, testura iristeko moduak.

Azken hauen artean ere, jakina, irakurleriaren edo mezu-hartzaileen “irakurketa era” ezberdinak bereiz litezke, betiere irakurleen gaitasunarekin lotuta zihoazenak eta autoreek, hala nahi izanez gero, kontutan har zitzaketenak.

Lehendabizi, bada, nolabaiteko planteamendu komunitario-kolektiboa eskatzen zuen irakurketa mota hedatua<sup>373</sup> genuke, jendaurrean partaideren batek ozenki burutzen zuena eta nolabaiteko gizarte-funtzioak betetzera ere iristen zena<sup>374</sup>; eta, bigarrenik, irakurle arruntaren irakurketa modua, indibiduala izan arren, ahoskatuz eta hitzak ebakiz edota ozenki egiten zena.

Ildo honetatik, eta bestela planteatuz bada ere, García de Enterría (1993) ere hiru multzo “tipo” nagusi -bakoitzari zegokion irakurketa moduarekin- bereizten ditu irakurleen artean:

“[...] había un grupo que era capaz de leer desde el libro más refinado al pliego más humilde [...] es decir, lectores que tenían capacidad para transitar cómodamente de un extremo al otro del abanico de lecturas que se les ofrecía. Otro grupo, más numeroso, no sería capaz más que de leer un tipo menor de lecturas, aquellas que afectaban de una manera más directa a sus intereses y preocupaciones, a su sensibilidad y a su mentalidad. Otro grupo aún tendría que recurrir al apoyo de la lectura colectiva [...]” (García de Enterría 1993, 126).

Lehen eta bigarren multzokoen gaitasunak irakurketa isilera eramanez zitzakeen arren -ez ezinbestean, jakina, eta, edonola ere, nekez bigarren multzokoen artean-, beti zeukaten irakurketa ozenaren aukera, erritmoaz eta maila fonetikoaz

373 - Irakurketa mota honen maiztasuna nolakoa zen jakiteko arazo latzak dauden arren, bat egingo genuke Salomonek idazten zuenarekin: “por lo que hace a la lectura colectiva, creo yo, en efecto, que se practicó mucho más de lo que parece” (Salomon eta Chevalier 1983, 81; azpimarrak gureak dira). Erabatekoagoak dira Margit Frenk-en hitzak: “Todavía en el siglo XVII la lectura solía identificarse con la audición” (Frenk 1982, 110).

374 - “[...] la lectura en voz alta, para los otros, sigue siendo durante un tiempo considerable uno de los cimientos de la sociabilidad de la élite y, a la inversa, la penetración de lo impreso en el corazón mismo de las intimidades populares” (Chartier 1996, 39).

ohartzeko irakurketa isilak baino parada gehiago eskaintzen zuena alegia. Bigarren multzokoen ezaugarria ohi da, dena den, ezpainen bidezko irakurketa, irakurketa ahoskatua hain zuzen, trebetasun ezak errazen eta gogokoen bihurtzen baitzuen era hori. Chartier-ek gogorazten duen bezala,

“Para [...] aquellos que proceden de medios que acceden con lentitud al dominio de la lectura y para quienes el libro sigue siendo un objeto inusitado, extraño, raramente utilizado, la antigua manera de obrar continúa siendo, sin duda alguna, una necesidad; y, hasta el siglo XIX, los lectores neófitos y torpes se distinguirán de los demás por su incapacidad para leer en silencio” (Chartier 1991, 126).

Irakurketa komunitarioak -besteren aurrean eta ozenki egin ohi zen irakurketa mota, alegia- familia eta multzo integratuen bidez burutzen ziren, horrela jende alfabetatugabea ere “irakurle” izan zitekeelarik<sup>375</sup>. Edozein modutan, bistan da irakurle “trebatuago” bat behar zela hartarako. Dakigunagatik, ahozkoaren nagusitasuna zuen mundu hartan, normalean beila eta neguko arratsalde luzeetako “aisialdi” antzekoak zirenak (mintzatzeko eragozpena zuten lanak barne) baliatzen ziren horretarako. Horiek bezain aproposak, dena den, mahai ondokoak, bidaiak, etab.:

“Miguel Giginta, basado en esta práctica de la lectura grupal, indica que en las casas de trabajo deberá haber personas que «les lean durante el trabajo cada mañana historias verdaderas [...] y después de comer libros de sentencias, dichos y preguntas y respuestas, comenzando en lo de las historias por las más antiguas que se hallaren en romance: y las postreras sean de las propias provincias». Continúa señalando que a la hora de la comida deberán leerles vidas de santos y en invierno o verano fábulas morales” (*Tratado de remedio de pobres*. Coimbra, 1579, 15 or. itz., apud Campbell 1993, 212).

Bada garai hartako euskal testuen artean honetaz argibiderik eman dezakeen lekukotasunik ere. Materrek marinelei aholkatzen dienagatik, zinez pentsa daiteke gai erlijiosoen irakurketa publikoak itsasoan ere egin ohi zirela goizez eta arratsalde, hori bai, lehorrean ez bezala, apaizaren bideratze-eginkizuna haietako batek hartzen zuelarik:

“Goicean demborac hala emaiten duenean, çuec itsasoan çabiltzaten Marineloc bil çaitzte elkar gana, iar çaitzte belhaurico, eta ceuen gogoac laincoa gana ailtchatuic, eta ceñaturic, erran eçaque: *Pater noster: Ave Maria: eta Credo*, latinez edo euskaraz.

Eta hauquen ondoan erran beça çuetaric batec appur bat gora eta haguiz orai hemen ibenico duðan ohoitza: Eta bitartean eduqui beçate bertec ere hartan gogoa. ençun beçate, edo norc bere liburuetan ixilic iracur beçate” (Materre, *Doctrina...*, 327-328 or.; lerropekoak gureak dira).

Etxeberri Ziburukoaren liburuek ere -bertan erabilitako eskema metrikoak batik batik- hipotesi honen berma lirudikete.

Ildo horretatik, *topos*-aren kutsua ukatu gabe, Axularrek “Eztu liburutto haur letratu handientzat egiten. Eta ez xoil, deus eztakitenentzat ere” (*Gero*, 19 or.) idazten duenean badirudi alde aurretik fokatzen duela kulturalki nekez zebilen eremura, eta, praktikan, doi-doi irakurtzen zekitenen gizarre-geruzara.

Zinez pentsa daiteke, beraz, -baina ez horregatik bakarrik, noski-, Axular predikariak liburua idatzi bitartean gogoan hartutako errealitatea izan zela “ahozko irakurketa”-rena.

Nelsonek erakutsi bezala, XVI-XVII. mendeetako autoreek jendea, hots, litekeen irakurle-entzuleria, begien aurrean bailegoen idazten zuten: “la práctica de la lectura oral hace a los autores expresarse «como si en realidad hubiera gente ... 375 - “[...] muchos «lectores» no aprehenden los textos más que gracias a la mediación de una voz que se los lee” (Chartier 1996, 38; azpimarrak gureak dira).

escuchando» y no sólo «hipótesis» a las cuales normalmente se dirigen los autores actuales” (apud Ong 1982:1987, 153)

Bestalde, -eta honako puntu hau garrantzi handikoa da egilearen esperimentari zuzenean doakiolako- ezaguna da apaizen irakurketa mota. Egunero egin zitzaketen irakurketetatik portzentaia altu batean ahoskatu egin behar izaten zituzten (jendaurreko kultu erlijiosoko ohiko irakurketak eta, nola ez, haien bakarka egin arren, ahoskatu egin behar izaten zituztenak). Ondorioz, esan genezake ohituegi zeudela irakurtzen zutena belarrien bidez ere dastatzen eta formula erritmikoak baloratzen.

Honek guztiak ezinbestean bideratzen zuen gero predikatze (ahoskatze, alegia) idatziz prestatzen zuten oro ahozko parametroen bidez buru zezaten.

Berbaldiaren edergailuen erabileran ikusten den bezala, ez dirudi bestelakoa izan zenik Axularrek egin zuena.

## 10.2.- ELOKUZIO-EZAUGARRIAK

Argi dezagun, aurrera baino lehenago, hizkuntz planteamendua aipatzean erretorikaren ikuspuntua azpimarratu nahi dela hemen, hain zuzen ere *Gero* liburuan isuriko den hizkuntz jarioaren “bertutea”, *elocutio* atalekoak direnena alegia.

Axularrek ongi barneratua bide zuen erretorikaren prezeptiba, eta hau liburuan barrena ikusten denagatik baieztatzen dugu hemen.

Saratartuaren lana, bada, bertute erretorikoak, idatzeko ia usatu gabea zen herriko euskararen barnean txertatzea izango da nagusiki, klasikoaren arauak garbi adierazten baitzuten nolakoa izan behar zuen hizkuntzak, testuak xedea lortuko bazuen.

Esana dugu jadanik garai honetan erretorika eklesiastikoa garatzen saiatu zirenek etengabe jo zutela “hirutasun saindua” osatzen zuten haien obretara, hurbiltze hau batik batik *elocutio*-an ikusiko delarik. Hain zuzen ere, horretaz teorizatuko den gehiena haien obretatik jasoa izango da. Horrela, Curtiusek gogorarazten duen bezalaxe, “los medios de la retórica antigua entran aquí al servicio del nuevo mundo espiritual cristiano” (Curtius 1976, 115).

Ohikoa da erretorika klasikoan aipatzen diren lau espresio-ezaugarriak erretorika liburu guztietan errepikatuta aurkitzea, zenbaitetan beste izendapenekin bada ere. Honako hauek izango genituzke laurok: *puritas* (hizkuntz garbitasuna edo zuzentasuna), *perspicuitas* (argitasuna), *ornatus* (edertasuna) eta *aptum* (egokitasuna).

Elementu hauek guztiak izango dira obran barrena erabiliko den hizkuntzaren eta mezuaren egiazko egituratzaileak. Nolakoa den haien tratamendua, horren araberakoa izango da liburua bera eta alde aurretik planteaturiko helburuak lortzeko aukera.

Halere, espresioaren ezaugarri hauek tratatzean ez genuke ahaztu nahi etengabe ibili beharko dugula argumentazio atalari eta estiloarenari erreferentzia egiten. Mortara Garavellik azpimarratzen duen bezala “el tema de las *virtutes elocutionis* obliga a remitirse, continuamente, a la eficacia argumentativa, por un lado, y, por otro, a la

función ornamental de los medios por los que el discurso se construye de modo correcto, claro y elegante” (Mortara Garavelli 1991, 132).

### 10.2.1.- AXULARREN HIZKERAZ

Mitxelenak behiala baieztu bezala (“Axularren azalaz, hizkeraz, nahikoa eta gehiago esan da”, Mitxelena 1954: 1988, 41), askotxo izan dira gure artean Axularren hizkeraz iharduten aritu direnak, betiere, Urgellek (1991, 910-hk.) ohartarazi zuen legez, arazoa modu batean (hizkuntza jasoa erabili zueneko) zein bestean (herri hizkuntza zerabileneko) mitifikatuz.

Arazoa planteatu den bakoitzean, mutur batetik bestera ibili izan dira autoreak, *a priori* gisako erabakien ondorioak bilatu nahian gehienetan. Herri hizkuntzarena bazen *a priori*-smoa, argudio guztiak horretara, hori demostratzeraz bideratzen ziren. Beste aldetik hizkuntza landua zerabilela agertuko ziren, normalean erdibiderik onartu ere gabe.

Baina Axularren hizkuntzaren inguruko mintzagaia ez da beti laudorioen ildotik abiatu. Zenbaitetan, Axularren hizkera dastatu baino gehiago, kritikatu eta gaitzetsi egin izan da.

Ezagunak dira idazle zaharrak arbuia dituzten askoren iritziak. Zerrenda exhaustiboa edota luzeegia egiteko asmorik gabe, argumentu garrantzitsuena baino ez dugu hona ekarriko.

Arazoa gehiegi pertsonalizatu nahi ez bada ere, kritikoen artean kokatu beharko genituzke hogeitaz Euskaltzaindiko idazkaria izandako Nazario Oleaga bezalakoak. Honek, Villasantek dioenez, honela ikusten zuen Axularren idazkera (eta hizkera):

Bein, Axular goraiatzaren genduela entzunez, auxe esan zigun: Zer ari zerate Axular goraiatzaren! Ara, emen danok idazten degu arek baiño askoz obeto. Zuk, eta nik, eta ark, eta danak ...” (Villasante 1967, 29)

Horrelakoen arrazoiak batik bat harako hark eta hura bezalakoek erakusten bide zuten erdal kutsuan zeutzan. Axularren hizkerarekin kritikoa izan zen Plazido Mujikak honela aitortzen zion arrazoiak Mitxelenari:

“Axularren ugaritasuna eta bizitasuna, esate baterako, arrigarriak dira. Alare ordea pitxi eder askoren artean, erdal kutsua darioten joskera nabarmenak geiegi ageri dira Axular en liburuetan (sic)” (Mitxelena 1957, 133).

Oro har, *puritas* edo zuzentasunaren alderditik, hots, alderdi gramatikaletik (morfosintaktikotik eta lexikotik, zehatzago nahi bada) ikusi izan da normalean Axularrek darabilen hizkuntzaren balioa, eta horrela baloratu izan da gehienetan<sup>376</sup>.

Alabaina, Axularren hizkuntza eta haren inguruko planteamendua ezin balora daiteke “bertute” gramatikaren ikuspuntu hutsetik, *puritas* delakoarenetik alegia. Honako honetan, balorazioak -egokia izango bada behinik behin- ikuskera erretoriko zabalaren laguntza beharko du, hiru “bertute erretorikoen” laguntza hain zuzen.

376 - Betiere honelakoak izan dira argumentuak: “Su lenguaje es rico en modismos, giros, idiotismos; en fin, una cantera inagotable” (Villasante 1974a, 32), “Prosa aberats-jori eta ongi trenpatua” (*Idem*, 37), etab.

### 10.2.2.- HIZKUNTZ ADIERAZPENAREN TASUNAK

#### 10.2.2.1.- Zuzentasuna

1.- Gorago esan legez, “bertute” elokutibo honen oinarria gramatika bera da eta hizkuntzaren sena gordetzean letzake haren ezaugarririk garrantzitsuena. Edozein autorearen hizkuntz planteamendurako kriterio objektiboa litzateke. Hortaz, parametro gramatikaletatik egin beharko litzateke azterketa ere.

*Gero*-ri dagokionez, gogoratu beharrik ez dago, ikerkuntza eta balorazio gehienak atal honetan burutu izan dira normalean. Horren ondorio zuzenez, asko izan dira azken mendean Axularri leporatu eta txalotu zaizkionak, bereziki arlo morfosintaktikoan eta lexikoan.

Edonola ere, azterketa linguistiko eta dialektologikoen Axularren ekarpenak onartzen eta baloratzen esku zabal jokatu duten bitartean, ikuspuntu ideologiko batzuetatik egindako balorazioek, ikusi den bezala, zeharo arbuia dute Axularren hizkuntza eta, ondorioz, haren obra bera ere. Egia esan, erretorika klasikoarentzat barbarismo-solezismoen arlokoak ziren zenbait “aje” modu desberdinez jaso izan dira gure artean hartzailearen posizionamendu ideologiko edo zientifikoaren arabera.

Mitxelenaren hitzek, ordea, zegokien tokian utzi zituzten Urdazubikoaren hizkeraren gaitzespenak, *Gero*-ren laugarren argitaraldiaz ziharduela, obra gutxietsi zeza-ketenei “garbitasuna antzua da” idatzi zienean (Mitxelena 1954: 1988, 40)<sup>377</sup>.

2.- Kritika garratzenak, dena dela, sintaxiaren esparrutik etorri izan dira gehienetan. Batzuen ustez (besteak beste, Lekuona 1954, xxii-xxvi), handiegia da Axularren hizkeran erromantzearen eragina, etengabe agertzen diren “zeren...”, “ezen...”, “nola...hala...” eta horrelakoak bezalako partikulekin sorturiko perpausek erakusten duten bezala<sup>378</sup>.

Alabaina, ez dakigu noraino ohartu izan den kritika hori hizkuntza estilo horren azpian dagoen arazoaz. Ezaguna da XVI. mendeko humanistek Zizeronen esiloa hobetsi egin zutela eta prosa idatzirako zerabilten latina ere haren arabera moldatzen saiatzen zirela. Guztiarekin, ez zen horretan geratu imitazio ahalegina, izan ere, denbora aurrera joan ahala, “este tipo de expresión [...] se adaptó asimismo a todas las lenguas vernáculas de Europa” (Wardropper 1983, 8), neurri handi batean Axularren eredu izango zen gaztelera mota bera (Luis Granadakoarena, besteak beste) barne. Egokitzapen hori, dena den, artifizializat hartua izan zen hasiera-hasieratik, gizarteari arrotz egiten baitzitzaion. Era berean, pentsatzekoa da Axularrek moldatu zuen estilo edo adierazpen mota hau ere artifizial samarra suertatuko zitzaioala kulturalki landu gabeko hizkuntza kolokialera ohitua zegoen gizarteari.

Bestalde, arlo praktikotik begiratuta, *Gero* liburuan garatu nahi zen argumentazio motak ere baluke zerikusirik. Hein handi batean, aipamen eta testuen

377 - Hemen, ikuspuntu erretorikoa proposatzen dugun neurrian, ez gara sartuko berez gramatikalariei dagozkien balorazioetan, zuzentasunarena elokuzioak dituen bertuteetatik bat baino ez baita.

378 - “Eragin” horren adibide gisa, ikus gorago, argumentazioari buruzko atalean, “zeren” lokailuaren maiztasunaz esandakoa.

azalpen-beharrak eskatutako formulazioa bera izango zen egilea hartaratu zuena, autoreak mezua graduaturik eta inolako iluntasunik gabe azaltzeko zeukan premiaren garrantzia ahaztu gabe. Gorago aztertutako argumentazio moduek erakutsi legez, eraketa hipotaktikoa duten azalpenen egituraketak berez dakarren konposizio mota da Axularrek sarri askotan erabiltzen duen hori, bai konparazioetan nola perpaus esplikatioetan eta bestelakoetan<sup>379</sup>.

Eta horren baiezpenerako kontradibideak ere ez dira falta. Izan ere, latinezko aipamenean itzulpenetan Axular euskararen egitura sintaktikoa -“jatorra”, ez kutsatua, erantsiko genuke guk<sup>380</sup>- modu nabarmenean gordetzen saiatu izan da beti. Eta horretarako arrazoia haren hitzetan bertan aurkituko genuke:

“Ez eta, eztitut bethiere, eskritura saindua eta doktoren erranak ere, hitzez hitz euskarara bihurtzen. Zeren euskara eta bertze hitzkuntzak diferent baitira” (*Gero*, 19-20)

Hizkuntz kezkak ildo beretik eraman eta esanarazi zion Luis Granadakoari ere prezeptibaren arlo honetan:

“... es de advertir, que cuando citamos algun testimonio de la Escritura, de ninguna suerte nos contentemos con la mera interpretacion que se hace en lengua vulgar, como lo hacen aquellos que traducen palabra por palabra el latin en lengua materna, sino que se ha de procurar, que en el testimonio alegado ponderemos algo digno de reparo. [...] A veces dilatamos ó amplificamos tambien una sentencia abreviada” (*Granada, Retórica*, 566a) (azpimarrak gureak dira).

Halaber, itzulpen hutsetan ezezik, antzeko zerbait esan beharko litzateke gorago aurkeztu diren testu kidetasunei dagokienetan ere: jatorrizko testuak euskarara iragaziak izan direla erakusten du beti, gehiago baitira moldaketak edo “bertsioak” (anplifikazioak barne) hitzez hitzeko itzulpenak baino.

Prosa klasikoaren araberrako moldaketa kritikatu horiek, beraz, testuak ahalik ongien eta argien azaltzeko premiak bideratu izan ditu nagusiki. Ezin ahaztu, bestalde, gero hortik idazleari sortu bide zitzaion eta egiatan hedatu zuen aztura “gaixtoa”, izan ere aurre-ondoko berbalde edo diskurtso “jatorrizkoetan” ere jokamolde berdinsua mantentzen baitu urdazubiarrak.

Dena den, eta sakoneko eragin sintaktiko horrezaz gainera, erabiltzen duen prosa bere euskalkiaren barranean eraikitzen da, kanpoko hitz edo esapide gehiegirik gabe. Hizkuntz kalko hutsak beharrean, zinezko egokitzapenak dira *Gero*-n atzematen direnak, herri jakituria edo isladatzen duten puntu zenbaitetan batik bat. Hor ditugu, esaterako, erretrau batzuen moldaketa egokia -beste egile batena edo herriak berak egina izan zitekeena, bestalde. Aski izan bedi pare bat adibide horretaz ohartzeko:

*Dabillan harriari, etçaica goroldioric lotcen* (38 or.) delakoa Publio Siroren gaztelarazko bertsioan honela azalduko da: “Piedra que rueda no cría musgo”.

*Ur iraquinean eztu uliac pausatcen* (38 or.). Gaztelarazko erretraua: “A la olla que hierva, nunguna mosca se atreve”.

379 - “Zeren” lokailuarekin sortutako perpausak bederatzehun inguru direla kontutan hartuta, berehala ohar daiteke *exempla* arloko aipamen eta exenpluekin duten paralelismoaz -proporzio estadistikoan behinik behin-, honako hauek ere zortzihun baino gehiago baitira *Gero* gutzian barrena.

380 - Manuel Lekuonak zioen moduan, “Beste askoren artean, atsegiña da benetan, Sara’ko gure Erretoreak tarteka bere liburuan sartzen dituan latinezko testuak euskeraldu eta komentatzekoan, aren luma zorrotzak darion grazi errikoi jatorra...” (*Lekuona* 1954, xxvii, oharra).

Dena dela, hizkuntz senaren aldetik aurrekoak baino lortuago deritzogu esanahia, forma eta hoskidetasuna mantentzen dituen honi:

*Daguigun ongui,*  
*eta ezteçagula beha nori* (224 or.)

Axularren garaikidea zen Baltasar Gracián-ek honela ematen du (1657):  
“Haz bien y no mires a quién”

3.- Berdintsu esan beharko litzateke hiztegiari dagokionez<sup>381</sup>. Erretorikak aholkatu legez, hitzak ohikoak behar dute izan, egunerokoak edo “ahalik egunerokoenak” bederen, eta horretan saiatuko da Sarako erretorea, nahiz eta zenbaitetan tratatu behar den gaiak lexikoa aukeratua eta ohi baino zehatzagoa izatea eska dezakeen.

Haren asmoa mezu zehatza irakurle konkretu batzuei igortzea zen. Hori oztopa zezakeena ia-ia automatikoki alboraturik geratzen zen liburuan, eta inoiz horrelakoren bat erabiltzen dela susmatzen bada, baliabide erretoriko bezala agertuko da normalean, bestelako arrazoiek aholkatu alegia. Azaltzen diren hitz multzoak edota sinonimoak azken eremu honetakoak baino ez lirateke izango<sup>382</sup>.

Bestalde, lexikoak ohikoa behar duela esaten denean, jendeak, irakurle arruntak ulertzeko modukoa adierazi nahi da. Eta, horren bitartez, proposatzen den hizkuntz eredia ere ildo berekoa izango da, inolaz ere ez jendeak ulertuko ez dituen kultismoz edota neologismoz bete.

Erdarakaden<sup>383</sup> alorrean, esaterako, Axularrek inoiz latinetik hartutako hitzak erabiltzen baditu ere (*synderesis*, ...), alboan beti jarri izan du itzulpena. Horrelakoak gehienetan atalen gaia adierazteko jarriak diren arren (ikus, esaterako, 391 orrialdeetik 417ra bitartean, non *visus*, *gustus*, *auditus*, *odoratus* eta *tactus* agertzen baitira edota 588-589 orrialdeetako *auditus*, *odoratus*, *gustus* eta *tactus*), bada latinez dakienari testua ulertarazteko zuzendutakorik ere<sup>384</sup>: “uli-farfailla” agertzen den lerroaren parean *papillio* idatzita dago (390 or.). Edonola ere, hitz kultuaren erabilera neurtua baino ez litzateke honako hau.

Modu berean, balegoke zer mintzaturik lexikografiaren esparruan obran zehar agertzen diratekeen neologismoei buruz, zeren logikoa bailirudike Axularrek, eguneroko hizkuntzak aszetika arloan ezin bete zezakeen zenbait kontzeptu eta ideia behar bezala azaltzeko herri hizkuntzak eskaintzen ez zizkion bideetara jo behar izateak: berak

381 - Ez ditugu hona ekarriko lexikoarekin loturik doazen bestelako arazo interesgarriak, besteren artean izenen “har-emetasuna”-ri dagozkionak. Mitxelena behiala ohartarazi zuen bezala (Mitxelena 1964, 182-183), nabarmena da honelakoetan ere Axularren jokamolde erdalzalea.

382 - Axularri aberastasun linguistiko huts bezala baloratu izan zaio baliabide perisologikoa. Perisologia sinonimian eta hitz multzoetan agertu ohi den irudia da eta, jakina denez, esan daiteke *Gero*-n etengabe atzematen den baliabidea da. Esan beharrekoa da, dena den, Axularren prosaren kasuan amplifikazio estilistiko-semanticoko gisara hartu behar dela nagusiki (ikus sinonimiari eskaini atala).

383 - Har bedi kontzeptu hau zentzurik zabalenean, hots, atzeritik etorritako edozein hitz bezala.

384 - Axularrek baditu jakintsuei zuzendutako gehiago ere. Esaterako, testuaren ondoko hogeit eta hiru erreferentziatan *vide* hitza erabiliko du irakurlea obra konkretuetara igortzeko: “Vide Nico. de Lyra” (566 or.), “Vide S. Th.” (617 or.), etab. Horrelakoetan normalean ez da aipamen zuzenik eskaintzen, hau da, ez da latinezko esaldirik tartekatzen. Beste behin *adagium* hitza agertuko da alboan, testuan emandako latinezko esaldia zer den adierazteko (49 or.).

asmatu-moldatuetara<sup>385</sup>, besteren liburueta<sup>386</sup>, etab.

Halere, ikerketa filologikoen arazo hau gehiago argitu bitartean, orain arte burututako lanek ez bide dituzte erretorika eklesiastikoaren arauak arbuaitzen<sup>387</sup>. Izan ere, entzuleak eta irakurleak sermoia-liburua ulertu gabe gera ez zitezten edo, larriagoa izan zitekeena, gaizki uler ez zezaten, Terrones del Cañoren aholkuak garbi uzten zuen "que no se ha de tomar libertad [...] para forjar vocablos nuevos, ni usar de los muy recientes" (Terrones del Caño, *Instrucción de Predicadores*, 132).

Printzipioz, dena den, badirudi Axularrek inoiz hitz berriren bat (bere irakurleen ikuspuntutik berria, esan nahi baita) erabili izan bazuen<sup>388</sup>, sinonimo edota azalpen egokien laguntzaz erabili zuela. Eta hau baieztean, badakigu lexikoari buruzko azterketak ez duela oraingoz azken hitza eskaini, baina Axularren joera erretoriko-erlijioso orokorra ikusirik, ezinezko egiten da bestelako aukeratan pentsatzea.

Mailebuen bidea Leizarragak ongi, berariaz eta zuzenki urratua bada ere, Axularren aukera zeharkakoa izango da, hots, ez du mailebuak erabiltzeko eragozpenik izango baldin eta ordurako herriak erabiliak eta aski sustraituak badira<sup>389</sup>.

Halaber, barbarismoen eremuan jarraituz, *Gero*-ren irakurleentzat berriak - eta hizkera aszetikoaren garapenean ez premiazoak edota arruntak<sup>390</sup>- izan zitezkeen hitzak badirudi automatikoki ekiditeko joera izan zuela Axularrek. Eta badakigu, jakin, agertzen ez direnez mintzatzeak gehiegizko ausardia erakuts dezakeela.

Era berean, beste euskalkietakoak izanda ere, hitzok berritatz hartu eta horrela tratatzen bide zituen Axularrek liburuan, berehala "ezagun" bihurtu zitezten. Erretorikak agintu bezala.

Axularrek, ikusi den bezala, beste euskalkiak ezagutzeko aukera egokia izan zuen, Salamanca garaiko ikaskideengatik besteak beste. Hortaz, bazekien nola adierazten zen zenbait gauza ondoko lurraldeetan eta hortik ulertze-arazoak sor zekizkiokeela euskaldunari (ikus Axularren "Irakurtzaileari"). Halaz ere, gutxitan erabiliko du horrelakorik testuan zehar, eta, erabiltzekotan, betiere hurbileko euskalkietatik jasoak eta esa-

385 - Irizpide etimologikoa isladatzen zutenak ere (*arintki*, *finiki*, etab.) horrelakoen artean sartu beharko lirateke? Honek, ezer erakustekotan, badirudi ahozko planteamenduarekiko erlazioa erakutsiko lukeela.

386 - Zenbaterainokoa izan zen aurretik idatzitakoetatik Axularrek jaso zuena, lexikografiaz dihardutenek oraindik argitu ez duten beste puntu bat da.

387 - Lakarrak (1985, 22) berritatz edo eman zituen hitzak ez ziren ezinbestez berriak izan behar Axularren garaikideentzat, sarartuaren testuetan lehendabizikoz agertzen badira ere.

388 - Ordurarteko testuen arteko konparaketaren arabera, ez bide lirateke pare bat dozena baino gehiago (Urgell 1991, 913).

389 - Villasantek zioen bezala, "su vocabulario tiene una ingente cantidad de voces románicas, pero no introducidas por vía culta y conservadas con su grafía originaria al modo como lo hace Leizarraga, sino popularizadas, y por lo general se trata de voces usuales o asimiladas por el habla real" (Villasante 1979, 80).

390 - Esate baterako, erlijio hizkuntzan arrunt eta beharrezko lirudikete orrialde beretsuetatik jasotako hauek bezalakoak: "orazinotan eta othoiztetan" (500), "oferenda eta sakrifizio" (526, 527), "deklaratu eta eman aditzera" (525), "garazia eta faborea" (527, 528), "debot eta saindu" (536), "sinhestea eta fidantzia" (538), "finak eta leialak" (538), "hildu eta iraungi" (541), "konsideratu, gogoan erabili" (570), etab.

nahia argi zezaketen sinonimoz lagunduta<sup>391</sup>. Esan liteke espreski<sup>392</sup> alboratu zituela horrelakoak. Konstatazio huts bat egitearren, Axularrek lexiko aniztasunaz egiten duen oharrean transkribatutako bederatz hitz "arrotzetatik"<sup>393</sup> (*Gero*, 17 or.), *Zalduna* izango da obran zehar berriro erabiliko duen bakarra (behin bakarrik) eta sarreran adierazitako sinonimoarekin batera, aipatu hitzaren esanguraz inolako zalantzarik sor ez zedin: "Bi aitonen semek edo zaldunek elkarren artean..." (*Gero*, 205).

Aurreko guztia kontutan harturik, nekez mintza liteke, erretorika klasikoak ulertzen duen esanahiarekin bederen, barbarolexia hedatu batez *Gero* liburuaren lexikoan.

Arrazoi desberdinak kari (euskal literaturaren urriak sortarazten duen ezintasunagatik, besteak beste), egia da ezin balora daitekeela objektiboki orduan ohikoak ez ziren arkaismoekin Axularrek zeraman jokamoldea. Badirudi, alabaina, mezua garbi ulertarazteko premiak berak agerian uzten duela urdazubiarraren aribide orokorra.

#### 10.2.2.2.- Argitasuna

Diskurtsoaren ezaugarri erretoriko garrantzitsuenetako bat den argitasuna edo *perspicuitas* delakoari gagozkiorik, aurrera dezagun mezu-hartzailearen ikuspuntutik baino ezin balora daitekeen elementua dela: testu bat argia izango da entzulea edo, kasu honetan bezala, irakurlea ulertzeko gai denean. Aurrekoan ez bezala, honako honetan irizpide subjektibo baten aurrean geundeke, beraz. Perelman-ek eta Olbrechts-Tyteca-k diotenez,

"La claridad de un texto, o de una noción, nunca puede garantizarse de modo absoluto, a no ser de forma convencional, limitando voluntariamente el contexto en el que se tienen motivos para interpretarlo" (Perelman & Olbrechts-Tyteca 1989, 206)

Horretaz oharturik, erretorika klasikoak "argitasun" delako horren barnean gradazio antzeko bat egitea proposatu izan du, testu edo diskurtsoaren erabateko iluntasunetik benetako argitasunera zihoana hain zuzen.

Egia da, alabaina, Axularren testuari dagokionez -eta garai hartako edozein idazleren testuei dagokielarik ere-, nekez finka dezakegula orduko irakurleentzat egokia

391 - Egia da testuan barrena azaldutako hitz batzuk beste euskalkietakoak - eta ez Sarako azpieuskalkikoak - bailiren eman izan direla hiztegietan. Hauxe genuke, esaterako, *harri-muger* hitzaren kasua. Bitan agertzen da *Gero*-n: "Harri mugerraren pare dira, barrenean dute sua, asko dute ukitzea" (290 or.) eta "Iainkoak heken premia ikhusirik, eman baitzerauen, harri-muger batetarik atherarik, ithur-ur fresko bat" (511 or.). Azkuek hiztegiaren gipuzkerarena dela dioen bitartean, Barandiaranek "Saran ez da [...] esaten" (1974, 91) idazten du. Esaten ari garenaren ildotik, printzipioz badirudi nekez onar litekeela hipotesi hori, batik bat testuan beste inolako erreferentzia argi-emailerik ematen ez denetan. Edo kasurik txarrean, irakurleak horrelako hitzak ezagunak izan behar zituela pentsatu behar zuen idazleak. Arraroezia izango zen berrogei bat urte leku berean pasatutako autore bat horretaz ez ohartzea eta sistematikoki huts egitea. Edozein modutan Sara inguruko hizkeran hitz arrotza izan bazen ere, beti zegoen hiztunen artean "ohiko" bihurtzeko bide eklesiastikoa, predikazioaren bitartez ehundaka aldiz entzundako hitzak izan baitzitezkeen horrelakoak. Horrez gain, ezin da ahaztu aurretik argitaratutako obra erlijiosoei esker "ohiko" bilakatzen joan zirenak (ikus Urgell 1991).

392 - Zer besterik pentsa daiteke "Irakurtzaileari" eskainitako atalean beste euskalkietako hitzak direla eta, gero testuan zehar berriro aipatzen ez ditenean?

393 - Hitzak, jakina denez, honako hauek dira: *bortha*, *ialgitea*, *so egitea*, *samurtzea*, *esatea*, *zalduna*, *leitzea*, *ahakartzea* eta *barridea*.



ote zen testua ala ez, hots, benetan ulergarria eta irakurlegoari egokitua zenentz azken finean.

Nolanahi ere den, gaurko perspektibatik aztertzen dugula ahaztu gabe, *virtus* edo tasun hau zuzen eta egoki betetzen dela esan genezake. Hau da, mezua tematikoki garbia da, zehatza, abstrakzio eta anbiguotasunik gabea eta irakurlearengan inolako kezka edo dibergentziarik sortuko ez duena. Argumentazio moduaren aldetik ere didaktikoa dela esan liteke eta ikuspuntu erlijiosoarenetik pragmatikoa arras; finean, liburua idazleak proposatzen duenaren ildokoa eta tematikak berak eskatu bezalakoa.

Halere, teorikoki beti kontrajar lekiok argitasunaren kontzeptuari Perelman eta Olbrechts-Tyteca bikoteak nabarmendutakoa: "La mayoría de la veces, la impresión de claridad [...] procede de la ignorancia o de la falta de imaginación" (Perelman & Olbrechts-Tyteca 1989, 205). Halere, testu artistiko eta narratibo-poetikoetan gogoan hartzeko iradokizuna den arren, zinez pentsa daiteke aszetika alor pragmatikoari lotua dela zeharo eta ezin garbiagoa izan behar duela beti bertan esaten den guztiak, are gehiago Trentokoaz geroztik. *Gero* bezalako liburu batean mezu aszetikoaren beste irakurketa bat baino gehiago, egitekotan, bertan dagoenaz eta esaten denaz, ez dagoenaz eta isiltzen denaz, horretarako arrazoiez eta guztia adierazteko moduez burutu beharko litzateke; inolaz ere ez mezuaren iluntasunaz, berau baita helburu eta bitarteko aldi berean: helburu, doktrinaren oinarri zenbait garbi azaldu nahi -eta behar- duelako, eta bitarteko, konbertsiorako gonbite eta gida modukoa delako.

Argitasun premiak<sup>394</sup>, jakina denez, bi mailatako alorra zaindu beharra dakar eremu elokutiboan: pentsamenduena eta hizkuntz kodetzearena. Helburu gisa jarritakoa lortuko bada, ezinbestekoa du autoreak pentsamendu eta hizkuntz formulazioaren gardentasuna bereziki begiratzea, batik bat elementu biak irakurle edo entzule izango dituenen mailakoak izan daitezten.

*Gero*-n begi bistakoa da pentsamenduen atalean Axularrek ez duela aparteko irudirik erabiltzen, ezohikoek mezuaren iluntzea ekar baitzezaketan inondik ere. Areago, pentsamenduen argitasuna nabarmenagoa izan zedin, hizkuntza metaforikoa bera espresio minimoetara mugaturik dago, normalean entzule-irakurleak ohi zuen metafora mailatik aurrera egin gabe, izan ere, metaforen gaizki ulertzeak, doktrinalki lortu nahi ziren xedeak erabat zapuz baitzitzakeen. Aszetikako liburu batean, jakina, maila hori esparru erlijiosoak ezarria da. Horrela, metaforak ere, daudenean, entzuleek predikazioetan igandero entzuten zituztenen ildokoak izango dira (biblikoak, gehienbat). Metaforen ordez, similitudo edo konparazioen bidea beti zen teologikoki ziurragoa eta, gainera, erakutsi nahi ziren jokatimoldeetan ere "eredugarriago".

Honetatik erraz ondoriozta daitekeenez, pentsamenduen argitasunak zerikusi handia zuen dispozizioan bertan eta argumentuen garapenean, pentsamendu "argi eta zuzen"-en anabasa batek erabat ilun edo aldrebes zezakeelako mezua.

Axularren jokabidea, oro har, argitasunarena izango da beti, *perspicuitas* zaintzearena, baita besteren testuez baliatzen denean ere. Horrelakoetan, gorago ikusi bezala, Axularrek modu berezian baztertuko ditu abstrakzioak, intelektualismoak, ulertzeko zailtasunik ñimiñoena ekar zezaketan ereduak. Beraz, besterenekin hori egiten badu, are gehiago testua berak osatzen duenean.

<sup>394</sup> - Ezagunak dira garaiko kulteranismoaren ildotik doazen predikariek jasan behar izan zituzten kritika sakonak, ilun bezain ulertezinak bihurtzen baitzitzazkion herri arruntari apaizek sermoietan zerabiltzaten hizkuntza eta estiloa. Baina gizakien kritikaz gain, Jainkoaren zigorra ere egokitu omen zitzaizen horrelako prediku motatan zihardutenei: minbizia ezpainetan, deabrua azaldu, purgatorioan egon beharra, etab. (cfr. Herrero Salgado 1993, 505).

Argi dago, beraz, urdazubiarraren testuak ez duela inolako iluntasunik hizkuntzatik kanpo dagoen arlo tematikoan. Behin eta berriro azpimarratu den bezala, Axularrek darabiltzan gaiak eta arazoak errazak dira beti, korapiloric gabekoak, eta, teorikoki behinik behin, ezin zuten inolako eragozpenik suposatuta irakurle "tipoe" liburua goitik behera uler zezaten.

Testuaren iluntasuna, dena dela, gehiago antzemango litzateke testuinguruan eta diskurtsuaren garapenean hitzetan eta mezuan baino. Hori ekiditera zetozen erretorika liburuetako aholkua: "que ni sea tan largo el razonamiento, que no pueda la atención seguirle, ni en la transposición tan tarde, que al fin venga á parar en hipérbaton" (Granada, *Retórica*, 570b).

Alderdi gramatikaletik begiraturik, hitz eta perpausen gainean eroriko da testuaren argitasunaren eta iluntasunaren arteko gradazioa finkatzeko irizpidea, egitura sintaktiko zuzen eta zehatzen eta ohiko lexiko<sup>395</sup> egokiaren araberakoa izango baita argitasuna. Esparru honetan Axularrek erakutsiko duen planteamendua Terrones del Caño bere obran defendatzen duenarekin bat datorrela esan liteke:

"...el lenguaje no ha de ser curioso, poético, profano, afectado, muy compuesto y numeroso, sino, de los vocablos del vulgo, los mejores y más propios; pero, al fin, del vulgo, pues los ha de entender el vulgo" (Terrones del Caño 130)

Sinonimia eta hitz multzoen joritasunak berak argitasunaren kezka ere azalduko lukete, nahiz eta haien funtzioa horretara bakarrik mugatzen ez den (ezin baita ahaztu anplifikazioaren teknikei dagokiena).

Sintaxiaz den bezainbatean, Axularrek -esana dugu dagoeneko- egitura sintaktiko garbiak eta gardenak erabili ohi ditu normalean, eragozpenik gabekoak, bai perpaus bakunetan nola konposatuetan. Mitxelenak zioen bezala, "Axular [...] cuidaba mucho la gramática y no solamente el estilo" (Mitxelena 1974, 113).

Horrezaz gainera, ezin da ahaztu, argumentazio bipertitoaren ondorioz, pentsamenduen garapena baiezko perpausetan eta jarraiangoa kausal-esplikatiozkoetan burutuko dela nagusiki.

Izan ere, inoiz anastroferik eta hiperbatonik antzeman daitekeen arren<sup>396</sup>, badirudi erabilpena estilo kontuagatik dela (esaldien erritmoa, isokolona edota bestelakoak nabarmen zeagatik), eta inolaz ere ez sinkisi mailako akatsagatik. Honelako hiperbatonak, esaterako, esaldiaren erritmo beharrari eta paralelismo ereduari egotz lezikizkie:

<sup>395</sup> - Ohiko lexikoa diogunean ez genuke ahaztu nahi lexiko berria ere izan zitekeena, hipotesi batzuk aurreratu duten bezala (ikus Lakarra 1985). Halaz ere, testuinguru argiak, sinonimiak edota hitz multzotan bilduta agerzeak nolabaiteko "familiaritasuna" eskaintzen zioten ustezko lexiko berri horri eta, edozein modutan ere, erabateko normaltasun itxura hitz guztiei.

<sup>396</sup> - Erretorika klasikoan *anastrofe* bi edo hitz gehiagoren ohiko egituratzat ordenaren aurka egindako eraketari deitzen zaio, "ohikotasun" delako hori usadioak, hizkuntz erabilpenak berak ematen duelarik. Jakina, erabilpena ezberdina izan daiteke euskalkien artean edota diakronikoki ere. Hori dela eta, egun anastrofetzat har dezakeguna ez zen ezinbestean horrela izan behar han eta orduan. Bestalde, oinarrian SOV egitura "beharko" luketen perpausen erreferentziarekin egindako "transgresioa" hartu da *hiperbaton*-tzat kontsiderazio hauetan.

“dezadan atsegin har,  
dezadan mundua zerbitza:  
nakion goza:  
nakion behin, berriz bihurtzeko desirarik ez tukedan bezala,

ase,  
eta  
asper” (174 or.)

Badira inoiz, dena den, itzulpen edo moldaketei egotz bide dakizkiekeen arrazoiengatik sortutako *mixtura*-k. Halere, horrelakoek ere ez dute testuaren argitasuna iluntzen. Hona hemen, adibide gisa, itzulpen-moldaketaren zitua dirudien bat:

“Ez dio bat ere gertha dakion egitek kalterik eginen bat ere bekhatunik ezuenari” (*Gero*, 442 or.) (azpimarrak gureak dira)<sup>397</sup>

Halaber, tematika eta egileak aurrakusten duen irakurlegoa bera direla eta, ezin esan daiteke inolaz ere testu anfibologiko baten aurrean gaudenik, izan ere, anbiguotasuna baita *Gero*-ri gutxien leporatu dakioken ezaugarria.

Esan beharrik ez dago: puntu hau ere oso zehatz arautua dute erretorika klasikoak eta haren ildokoa zen eklesiastikoak ere: “también ha de evitarse la ambigüedad, no solo la que hace un sentido incierto [...] sino también aquella, que aunque no pueda turbar el sentido, incurre sin embargo en el propio vicio de palabras” (Granada, *Retórica*, 570b)

*Gero*-n nolabaiteko anbiguotasunik egotekotan, esaten ez direnetan legoke, testuan faltan dauden pasarte, ideia edo hitzetan. Gogoratu, esate baterako, *poena sensus* tratatzean, *visus* delakoari egokituko zaion zigorra, Axularren hitzetan, ezer ez ikustea izango dela, garai hartako horrelako testu gehienetan zentzu horrek izango duen egiazko zigorra “deabrua ikustea” izango denean.

Oro har, *perspicuitas*-en aurkako ajerik antzematekotan, larregiko esplizitazioetan bilatu beharko litzateke nonbait. Baina hau, jakina, tematika eta irakurleriaren faktoreekin lotuta doa. Bekatuak, bertuteak eta erremedioak garbi utzi nahi izan zituen Axularrek, konbertitzeko premia bide zuen irakurle bekataria inolako zalan-tzarik izan ez zezan. Hori zela eta, ez zuen eragozpenik agertu testua *garbiegi* uzteko. “Zerbait dakienarentzat”, aldiz, erredundantea eta sinonimiaz gehiegi kutsatua gerta lekieke *Gero* liburua, Duvoisini iruditu zitzaion bezala: “La parole d’Axular est abondant jusqu’à l’excès; elle n’est pas toujours d’un très bon goût” (Duvoisin 1876, in Altuna 1987, 77).

### 10.2.2.3.- Diskurtsoaren egokitasuna

Egokitasuna edo *aptum* delakoa funtsezkoa da diskurtsorako, “es la parte mas principal de la locucion adornada” (Granada, *Retórica*, 599a)

*Virtus dispositionis* den heinean, *aptum* delakoak diskurtsoaren egokitasunaz ihardungo du funtsean, gai, entzule, denbora eta beste faktore zenbaiten arabera ezberdinak izango baitira idazteko eta hitzegiteko moduak ere. Berbaldua elementu

397 - Ez dirudi Axularrek latinetik egindako itzulpena denik: “Hunen arauaz erraiten du Elizak ere. *Nulla nocebit ei adversitas, si nulla dominetur ei iniquitas*. Eztio bat ere gertha dakion egitek kalterik eginen...”. Ez ote da gaztelerazko testu identifikatugabekoren batetik egindako itzulpena? “A aquel que no tenga ningún pecado nada que le ocurra le producirá ningún perjuicio” bezalako baten itzulpena adibidez?

horiei guztiei egokitzean datza *aptum* -aren egitekoa. Horretarako, gogoan hartu behar ditu testuaren elementu guztiak (hots eta silabetatik hasita pentsamendu eta perpaus multzoetaraino) eta entzule-irakurleei (eta haien izaera eta interesei, jakina) egokien datorkien moduan antolatu, bilatzen den helburua ahalik “lorgarrien” bihur dadin.

Egokitasunaren tratamenduak ezinbesteko egiten du, beraz, irakurlearen ezaugarriak kontutan hartzea. Halaber, liburuan garatu nahi izango den gaiak eta haren ezaugarriak (ikus liburuaren planteamendu tematikoaz adierazitakoa) modu batean edo bestean bideratuko dute diskurtsoaren moldaketa eta egituraketa. Baina ez horrek bakarrik, garrantzi ezin handiagoa izan ohi du gaia garatzeko moduak ere, Axularren kasuan, lehen adierazi den bezala, argumentazio era laua eta indartsua delarik.

Ildo horretatik, predikariei sutsuki aholkatzen zitzairen zegokien gizartea sakon ezagutzea, eta aurkitzen zituzten zuzendu-beharreko ohiturak apuntatzen joatea:

“... el predicador [...] debe tener conocidas, y aun notadas en un papel, las costumbres de los hombres á quienes predica, y asimismo los pecados públicos de que mas adolece el pueblo, como tambien sus medicamenteos y remedios, para que todo su sermón se enderece á esto mismo [...]”

Y el conocimiento de esta opiniones ó vicios hace que prediquemos aptísimamente, y que tengamos tambien mas atentos á los oyentes, siendo cierto que oyen con mayor atencion los hombres, lo que llegan á entender que mas les importa” (Granada, *Retórica*, 637b-638a).

Bestalde, esana da jadanik oratoria sakratuan, hizkuntzaren tratamenduan ere Eskritura Sainduak agertzen direla eredu gisa, batik bat Jainkoaren hitza direlako eta aldi berean sinesleengana iristeko duten hunkigarritasun bertuteagatik.

Horretan oinarriturik, beraz, hizkuntza larriaren erabilpen orokorra aholkatu eta eskatuko da, gaiari egokitua, eta inolaz ere ez umoretsua, poetikoa edo landuegiaren inpresioa uzten duena, nahiz eta inoiz lizentziaren bat egon daitekeen<sup>398</sup>. Jakina landua izan behar da hizkuntza, landua, pentsatua eta erretorikak eskaini laguntza estilistikoetan oinarritua, baina betiere hori guztia naturaltasunez tratatua, hizkuntzaren artifizialtasun eta lanketa hori disimulatuz azken finean.

Ildo berean, eta hizkuntz egokitasunarekin tinko lotua, gogora dezagun lexikoa zaintzeari ere garrantzi handia ematen zitzaiola beti, erretorika eklesiastikoan “evitar las palabras obscenas, sórdida y bajas” (Granada, *Retórica*, 570b) ezinbestekoa gertatuko delarik.

Zalantzarik gabe, Axularrek bere prosari aplikatzen dion tratamendu erretoriko orokorra egokitasun horren menpe egongo da nagusiki, aztertzen ari garen elementu ezberdinek erakusten duten bezala. Horren adierazgarriak, gogoratu beharrik ez dago, argumentuen erabilera eta eraketan ezezik, ornatuaren eta egitura beraren

398 - Gehienik ere bizioak eta erridikulan uzteko.

planteamenduan ere aurkitzen dira<sup>399</sup>.

### 10.3.- ESTILOAREN EZAUGARRIAK

Estiloa eta haren kontzeptualizazioari buruzko arazoa idazleak eta oradoreak betidanik kezkatu dituen elementu garrantzitsu bezala azaltzen da literaturaren historian.

Era berean, kezkarekin batera planteatu galderek galdera izaten jarraitu ohi dute zenbaitetan: zer da estiloa?, zertan dautza haren ezaugarriak?, lexikoan, agian?, sintaxiaren erabileran?, ..., zertan?.

Garbi dago estiloa ez dela arlo horietako bakar batera mugatzen, izan ere gerta daitekeena da lexiko aberatsa duen idazle batek estilo korapilotsua izatea ("hiztegi" bat izatea, finean), edo, alderantziz, sintaxi gardena eta zehatza dutenak ezin estilo dei dakiokkeen zerbaiten jabe izatea.

Definitzen saiatu direnen artean, esanguratsu deritzegu gaztelerazko literaturaren esparruan antonomasiar estilista den autorearen hitzei:

"El estilo no es nada. El estilo es escribir de tal modo que quien lee piense: «Esto no es nada». Que piense: «Esto lo hago yo». Y que, sin embargo, no pueda hacer eso tan sencillo; y que eso que no es nada, sea lo más difícil, lo más trabajado, lo más complicado" (Azorin 1939, 52).

Gaur egungo estilistikak, alabaina, interes berezia du estiloaren azterketan, nahiz eta askotan nekez sistematizatzea daitezkeen intuizioaren esparruko elementuekin ere jokatu behar duen. Baina horren guztiaren aurrean, ikerkuntza estilistikoa "estudia y procura descubrir [...] el funcionamiento de los medios lingüísticos como expresión de una actitud" (Kayser 1992, 399).

Historikoki Erretorika izan da estiloaren finkapenaz ihardun duena, "estiloa" kontzeptualizatzeko ahaleginak beti koherenteak izan ez badira ere. Dena den, estiloaren definitzaile garrantzizkoenak egitura periodiko orekatu eta erritmikoetan kokatu izan dira normalean, haren "borobiltasuna" tropo eta irudien baliabideekin osatzen zelarik.

399 - Testuaren egokitzapenaren seinale baino ez lirateke izango Villasantek aspaldian idatzitako artikulu batean (1962) originaltasunaren oinarri kontsideratzen zituenak. Hark zioenez, euskal ingurugiroan eta ingurugirorako moldatua da liburu guztia, nekazariak eta itsas-mundua lekuko direlarik. Era berean, adibideak garaiko eta bertako errealtatearekin lotuta datoz liburuan: usoak eta aztorea (Etxalarreko ehiza mota kontutan hartuz), erleak, txindurriak, euskaraz bakarrik egin daitezkeen hitz jolasak, erretratuak, aipamen batzuen "euskaratzean" (San Agustinen aipu batean pilotariak eta dantzariak sartzen ditu Axularrek),... Bestalde, liburuak ez da gaiak dirudien bezain hits eta tristeak, umore ona agertzen baita maiz asko. Edonola ere, ez da ahaztu behar egokitzapen horretan zenbait elementu itsas eta nekazal girokoak direla oro har (erleak, txindurriak,...) eta, planteatzen den "originaltasunari" dagokionez, hurbilegi egon daitezkeela -eta badaudela!- inurrietatik.

#### 10.3.1.- EGITURA PERIODIKOAZ

Jakina denez, berbaldiaren eduki argumentalaren banaketa perpaus gramatikalen esparrua gaintu dezaketen unitateen arabera burutzen da erretorika klasikoan. Unitate horiek periodo izena hartu ohi dute eta bi unetan garatzen dira: protasian (tentsioaren sorrera) eta apodosian (pentsamenduaren ixtea, perpausaren lasaitasuna eta osotasuna zekarrena hain zuzen). Ideia nagusia lehen zatian gertatuz gero, periodoa behe-ranzkoa izaten zen; alderantziz, hau da, ideia tentsio-sortzailea bukaeran egonik, periodoa goranzkoa izan ohi zen.

Egitura mota hauek luzera ezberdinetakoak izan ohi dira eta osagarriak, gogoratu beharrik ez dago, ohikoak diren pentsamendu-elementu txikiago batzuekin konformatzen dira (*kolon* eta *komma*).

Periodoaren elementu erritmikoa, hura armonikoki bukatzeko prestatzen zena alegia<sup>400</sup>, *kadentzia* izenekoaren bidez burutzen zen<sup>401</sup>. Erretorika klasikoan bizpahiru oinetako sekuentzia ohi zen amaierako klausula hori.

Alabaina, kadentziak bilakaera berezia izan zuen historikoki. Oradore greziar eta erromatarren kadentzia mota silaben luze-laburtasunaren bidez egiten bazen ere, kantitatearen ezaugarria galdu ahala, erritmoak ere azentuaren neurria hartzen hasi zen eta kadentzia kuantitatiboak, ondorioz, kadentzia toniko bilakatu ziren, harrezkero zeharo hedatuko zen *cursus* erritmikoaren kontzeptua zabalduko zelarik.

Nahi izan balu ere, euskararen ezaugarriak medio, Axularrek ezin aplika zezakeen modu zuzenean latinezko testuetan (bokale luze-laburren sistemagatik) antzematen zen kadentzia eta inguruko erdaretan azentuagatik<sup>402</sup> egin ohi zen *cursus* -a.

Beraz, euskararen bokaleen kantitate-batasunak (ez dago luze-laburrik bereizterik) eta hitzen azentu trinko ezak ezinbestean bultzatzen dute idazlea, izandako prestakuntza erretorikoaz baliatu nahi duen idazlea beste bide batzuk bilatzera, urratzera eta, konpentsazioaren legeagatik, ordurarteakoak ere beste modu batez planteatzera.

Badirudi Axular izango dela bide horiek espreski eta kontzienteki aztertuko dituen lehen idazlea, idazle ezaguna, behinik behin (eta neurri horretan, prosaren sortzailea ere bai<sup>403</sup>).

400 - "[...] Los oídos esperan siempre el final, y en él descansan; pero desde el principio debe reinar la armonía, difundiendo desde la cabeza hasta las extremidades" (Cicerón, *El Orador*, 378).

401 - "Y no sólo ha de atenderse á la composición de las palabras, sino también al modo de terminar los períodos, ya por la composición misma y como espontáneamente, ya por casos semejantes, ya por corresponderse palabras iguales ó contrarias, todo lo cual produce una cláusula numerosa, aunque la armonía no se busque de propósito" (Cicerón, *El Orador*, 369).

402 - Jakina da kadentzia edo klausula erritmikoa izango dela periodoak eta periodoen atalak armonikoki itxiko dutenak, eta normalean gutxienez bi hitz hartzen dituen barnean, berezko azentua dutenak hain zuzen. Azken unitate lexikoak, beraz, hiruzpalau silaba izan behar ditu. Ereduak honako hauek ziren: planus (óo / oóo), velox (óoo / oóoo), tardus edo ecclesiasticus (óo / oóoo) eta trispondaicus (oóo / oóoo).

403 - Argaignaratzek ezin ezer esan, ez baita haren hitz lauzko *Abisu*-aren aztamarik

Bideak, oro har, erretorikak eskaintzen dituenak izango dira, baina garaiko kulturaren ezaugarri zenbait<sup>404</sup>, baldintza eta eragozpen baino gehiago, *cursus* delakoaren arazoa gainditzeko laguntza suertatu ziren planteamendu erretorikoko testua gauzatzarakoan, eta, aldi berean, bide konkretu batzuetara eraman zuten idazle erretorikoa: testuaren ezaugarri fono-erritmikoak<sup>405</sup> areagotzera eta nabarmentzera, eta erretorikak eskaini "ahozko" baliabideak<sup>406</sup> hobestera. Horietako zenbaitzuk (isokolonak, homofoniak, ...) egitura erritmiko berezia eskainiko diote Axularren berbaldiari, luzeraneurtua eta *doinuduna* hein handi batean.

### 10.3.2.- PROSAREN ERRITMOA

Maiz aitorturiko egia da prosak erakusten duen erritmoa haren egitura-ketarako dituen baliabideei esker lortzen duela (Kayser 1992, 346). Poesian ez bezala, prosan nekez gertatu ohi da aurretik prestatutako ereduaren barnean idaztea, hau da, hitzak, autoreak aldeztu aurretik buru-egzainetan darabilen musika edo erritmo mota zehatz bati egokitzea. Horrexegatik, baliabideak ere bestelakoak ohi dira, batzuei besteei baino garrantzi gehiago emango zaielarik, autorearen aukeraren eta hizkuntza bakoitzaren separen arabera.

Axularren kasuan, obraren erritmo nagusia gaiak, argumentazio motak eta prediku-egituraketak eskainiko dute bereziki. Jakina, horretan ezin bazter daiteke autoreak egiten duen "hautaketa" erretorikoa, aurreko faktoreekin bat dagiena, eta ohiko baliabide fono-erritmikoak.

Oro har, bi izango dira Axularren prosak erakutsiko dituen erritmo motak: batetik, *Gero*-n garatzen den argumentazioaren eredu inductiboarekin bat datorren erritmoa eta, bestetik, predikazioaren helburua den *movere* delakoarekin lotua dagoen erritmo hunkikorra.

Orri kopuru eskergagatik bakarrik ez bada ere, Axularren prosan antzematen den erritmo nagusia *argumentatzaile* deiturikoa izango da. Argumentazioaz mintzatu garenan adierazi bezala, eredu inductiboak arrazonamendu logikoaren bidez baino gehiago konparazioaren bidezkoa eskatuko du ideien garapena.

Horrelakoetan, jakina, periodoen egituraketa da formalki isladatzen dena, protasi eta apodosiaren oinarritzko eskemaren gainean eratu. Honetan oinarriturik idatzi zuen Villasantek ezen "el período a base de oración principal y subordinadas, procedimiento típicamente indoeuropeo, está plenamente logrado en Axular" (Villasante 1979, 80).

Oro har, atal edo menbruko kopuru desberdina egon daiteke batean zein bes-

404 - Besteren artean, gizarte alfabetatugabekoetan burutzen ziren irakurketa kolektiboak (batek irakurri, besteek entzun). Horrezaz gain, idatzizko kulturaren barnean gehiegi garatu gabeko irakurleen irakurketa era, nahiz eta pertsonala izan, ahoskatua izan ohi zen, beste arazoai batzuegatik Eliza katolikoak apaizen artean duela gutxirarte iraunarazi duena bezalakoa, hots, ezpainak erabiliz eta ebaki ahala entzun ere egiten zena (ikus "Elokuzioaren faktore bideratzaileak")

405 - "Dos son las cosas que halagan los oídos: el sonido y el número (edo, greziarren hitzetan, *ritmo* delakoa) [...] Han de elegirse palabras bien sonantes, pero no buscadas con exquisito esmero como los poetas, sino tomadas del habla común" (Ciceron, *El Orador*, 369 or.)

406 - "Ahozko" diogunean ez genuke ahaztu nahi "ahozkotasunak" "herri-kultura"-tzat hartu izan den fenomenoarekin mende haietan oraindik zuen lotura hautsi ezina (ik. Burke 1991). Ildo honetatik, "herri izaera" horrek ere erakutsiko du zenbait baliabideren aukeraketan eragina.

tean, eta, gainera, barneko adarrezaketarik ere gerta daiteke (plurimenbrazioak sortuz).

Nolanahi ere, elementuak ez dira bizpahiru atal edo *kola* izatetik igarotzen, normalean konparazio, baldintza edota denborazko perpausen egitura bikoitzaren arabera:

"Ikusten duzunean bere mende guztian gaixto izatu den bat eritu denean, eta ia hiltzera etsitu duenean, hasten dela batari eta bertzeari barkhamendu eskatzen, beharrei bere haziendaren partitzen, eta hats-beherapen handi batzuekin, begiak zerura iraulirik, lainkoari gomendatzen, ezteazula ez hargatik pensa, segur duela halakoak bere salbamendua" (207 or.)

"Nola harri bati, edo sentimendurik ez tuten bertze gauza bati, kolpeka darauntsanak, egiten baitio bere buruari kalte gehiago, eta hartan probetxu gabe unhatzen eta zathitzen baita: hala antsiarik ez tuten bati edo konturik egiten ez tutenari bere maliziaz darauntsanak ere, emaiten dio bere buruari gaitz gehiago" (297)

"Baldin enzuten ezpanauzue, eta ene manamendu guztiak konplitzen ezpaituzue, iakizue ezen, nehoen peril gabe eta nehor iarraiki gabe, emanen diozuela ihesari, eta ikhara handi bat eginen zaitzuela" (433-434 or.)

"Eta baldin oraiño, pena heken nehoiz akhabatzeko, arintzeko, laburtzeko edo gutitzeko esperantzarik baliz ere: badirudi balizatekeiela zenbait konsolamendu" (596 or.).

Halaz ere, ez dira faltako barneko adarrezaketak modukoa garatuko dutenak, plurimenbrazioak sortuz eta, ondorioz, egitura sintaktikoak berak aberastuz:

"Zeren nola baitira eritasun batzuk, hain handiak, gorputz guztia flakaturia, benzutua, eta ezindua ibentzen dutenak, eta eriarri hain iauntzen zaitzanak, non bere izanez, eta egitez ezpaitute erremediorik, ezpaitira sendakizun; hala ostinatuaren, gogortuaren, itsutuaren, eta ezansiatuaren bekhatua, eta eritasuna ere hain da handia, non berenez ezpaita sendakizun, eta ez barkhakizun" (99 or.)

"Baldin obra miserikordiazkoak, nola baitira probeen faboratzea, biluzen bezitzea, gose, eta egarri denari, iatera, eta edatera emaita, bat bederak berak bere eskuz, bizi dela, irabazi handirik egitekotz, egin behar baditu: zenbatenez berak bere eskuz ondokoetara utzi gabe, egin beharkoitu obra obligazinozkoak, iustiziazkoak, eta konzientziaz zor dituenak?" (241-242 or.)

Hain da gauza hatsa, likitsa, higuñia eta nardagarria, or baten bere okha eginaren eta ahotik egotziaren berriz iretsten ikhustea, non baldin Spiritu Sainduak berak usatu ezpalu konparazio hunez, ezpainintzen ni aiphatzera ere ausartuko (471 or.)

Bada nola bere nabusiari kontuak ongi eman nahi derautzan muthila, ezpaita urthearen bururairiño, kontuak ikhusi gabe, eta bere nabusiarekin mintzatu gabe egoiten; hala guk ere, baldin geure arimako kontuak eman nahi baditugu ongi, eta zorrik pagatu, eztugu urthe guztian, garizumarairiño, kofesatu gabe egon behar. (545-546 or.)

Sarri askotan nabarmenkiro erabiliko da paralelismoa periodoen barnean, mugimendu erritmikoa biziki areagotuz. Aurrerago azalduko den legez, anafora izango da paralelismoaren formulen artean gehien erabiltzen direnetariko bat:

"Begirantzue orduan zabartzetik, nagitzetik eta ezantsiatzetik, zeren orduan da mena, orduan da mina, orduan da azken adina eta peril guztien gaineko perila" (188 or.) (letrakera etzana gurea da).

Elementu anaforiko berberarekin jarraituz, garbi ikusten da periodo naturalen mugak gainturik gera daitezkeela zenbaitetan:

“Herioa hurbiltzen zaitzunean, nola athaka hertsian, eta pausu gaitzean iragan behar baituzu: eta bitarteko doloreak ere handiak baitira, *orduan zeure* onez kontu guti egiten duzu: zeren handiagoak ahantzarazitzen baiterauzkitzu. *Orduan zeure* ondokoei, eta han presentean edireiten direnei, zer ere nahi baitute, eta nola behar dela ikhusiko baitute, hala dagitela utzten derauezu. Hain nekez eta penaz bildu zinituen onak eta onhasunak, eta hain zuhurtki eta maiteki begiratzen zinituenak gero, hain laxoki eta antsikabeki largatzeintuzu: lehen zein hertsia eta itxekin baitzinen, gero hain franko eta liberal egiten zara. *Orduan* nork zer erraiten baiteratzu, hura laudatzen duzu: eta anhitzetan ere, zer erraiten duzun eztakizula, baietz erraiten duzu” (238 or.; letrakera etzana gurea da).

Honekin guztiarekin batera, azpimarratzekoa da honelako periodoak eratzeko orduan Axularrek erakusten duen orekaren zentzu klasiko bezain berezia euskal literaturan, ondoko adibide honetan ikus daitekeen bezala. Izan ere, konparazio suertatuko denaren lehen partearen hiru atalak hedatuz joango dira motzenetik luzenera, tentsio erritmikoa sortzen joango bailiren:

“Arraiña alha denean,  
bazkari datzekanean,  
eta  
bere ustez hobekienik dagoenean      atrapatzen du arrantzaleak,  
eta bai  
hegaztina ere ihiztariak” (60 or.; azpimarrak gureak).

Atal paraleloen luzerak berak markatzen du konparazioaren bidezko tentsioa. Gero, bigarren partean, konparatua izan denaren egoera egitura sintaktiko paraleloetan ere burutuko da, baina atalen luzera, aurrekoetan ez bezala, luzenetik motzenera joango delarik, periodoa poliki-poliki ahulduz eta erremediarik gabe garatuko bailitzen:

“Hala atrapatzen du bada bekhatoea ere heriotzeak  
bere bekhatuerei bere gogarenik datxetenean,  
gozokienik alha zaienean,  
eta  
gutien ustie duenean” (60 or.; azpimarrak gureak)

Formula erritmiko horrezaz gainera, *ecclesiastica consuetudo* delakoak ohi-ko zuen mugimendu “latza” deitutakoa izango da Axularren prosan atzemango den dinamika mota, arritmiko samarra baino benetan sarkorra, hunkikorra eta pertsuasiboa.

Predikazio kristauaren bitartez eraturako estilo solte honek Axularren obran zehar presentzia nabarmena izango du kapituluetako une konkretuetan, hala nola exhortazioetan eta irakurleari zuzendutako pasarteetan. Ezaugarri gisa enumerazioak, pilaketak, paralelismoak eta antitesiak agertuko ditu. Ez dira faltako irakurlea inplikatzeko galdera eta harridurazko formulak ere (ikus “Afektuak lantzeko baliabideak” atala). Erritmo bortitza izatera iristen den mugimendu honetan, gehiago azpimarratuko da ideien indarra, prosaren oreka baino, ondorio gisa dinamika bizia agertuko delarik.

Hona hemen horietako adibide batzuk<sup>407</sup>:

“Zer da haur?  
Non da zentzua?  
Non da akhordua?  
Zer egin da adimendua?”

407 - Egitura garbiago ikus dadin, jatorrizko testuan ez bezala emango dugu puntuaketa mota.

Zeure salbamendua, nahbat dihoatzun gauza, sekulakotzat ongi edo gaizki izaite, iben dezazula benturan?  
Eztuzu pensatzen bentura horrek, benturaz, bentura gaixtoa emenen deratzula?  
Eta nork bere duen guztiaren benturatzea, erhokeria handia dela?” (73 or.)

“Zertan pensatzen othe duzu zuk, orainkokoan ere, buruan ille duzun baiño bekhatu gehiago egin duzunorrek?  
Zer dakizu hurran lehenbiziko eginen duzunaz, zuk zeure neurria bethatzen duzunaz?  
Kontua konplitzen duzunaz?  
Zer dakizu lehenbiziko eginen duzun bekhaturen begira dagoenz Iainkoa, zure egunen akhabatzeko, eta mundutik atheratzeko?” (125 or.)

“Gogortasunaren handia!  
Iustiziaren bortitza!  
Zuk diozu miseriak dela Iainkoa.  
Baiña hunetan badirudi, isutiziatiago dela; eta iustiziak garaitzen duela miseriak.  
Eta arrazoinekin dirudi hala. Zeren ezpaita bertze munduan izanen gaixtoentzat miseriak dirarik” (141 or.)

“Zer egin gogo duzu bada?  
Zertan pensatzen duzu?  
Zeren begira zaude?  
Zahartzearen?  
Han zara?  
Ephearen?  
Konplitu da.  
Konpli ezazu bada zuk ere, zeure hitza eta promesa, zahar zindeziñeko eman zenuena” (193 or.)

Dena den, Axularrek erritmo moduko “mugimendu latz” honetan burutzen duen pasarterik luzeena Luis Granadakoaren obrari zor bide dio (ikus Eranskina):

“Bada baldin hemengo erriari, hemengo gaua, hain fite iragaiten dena, hain luze iduritzen bazaika:  
Zer idurituko zaika ifernuan dagoenari, hango gau luze eterno, fin gabeko hura?  
Ha gau luzea, gau beltz, ilhun, izigarria, art-urratze gabea, oillariterik izanen eztena, sekulan argituko eztena, eta ez akhabatuko!  
Zer pena, zer dolore, eta ondiko izanen da, argituko ezten gau hartan, ez hemengo erriak bezala, ohe bero onean, baiña labe gori beroan, sugina gogorrean sekulakotzat, etzatea, eta egoitea?”

Arrazoinekin galdegiten du Isaias Profetak: [...].  
Halako lekhuari, hain su beroan, gar eternalean, nor egonen da?  
Nor biziko da?  
Nork iraunen du?  
Nork izanen du sorbaldarik sostengatzeko? indarrak iasaiteko? Eta pairurik, eta pazientziarik sofritzeko?  
Orain hemen, den penarik tipiena, su ihar batek, kilikatzen zaitu, asaldatzen zaitu, zer izanen da bada, suz eta kharrez, kanpoan eta barranean, ariman eta gorputzean hartua, ingurata, eta burdin goritua bezala, goritua, eta sutua zaudenean?  
Eta sekulakotzat hala egon beharko duzunean?  
Othe dugu zentzurik?  
Othe dugu adimendurik?  
Aia elheak, ametsak, edo gezurrak, othe dira hauek?  
Edo gurekin mintzo othe dira?”

Guri othe dagozkigu, ala bertzeri?

Fedeak erraiten deraku guri dagozkigula, gurekin mintzo direla, gureak, eta guretzat direla.

Eta eztirela ez elheak, ez ametsak, eta ez gezurrak: baiña egiak, eta egiazki (baldin hobeki gobernatzan ezpagara) iragan beharko ditugunak direla.

Edo hobeki minzatzera: behin ere iragan gabe, bethiere egoitzaz, gurekin egonen direnak direla” (599-600 or.).

Axularren prosa, laburbilduz, erretorika klasikoaren elementu periodikoa erabat galdu gabe duen estiloa eta predikazio kristauaren ezaugarri den eredu arritmiko-  
emotiboa uztartze ahaleginaren fruitua dela esan genezake, nahiz eta, egia da, bide erre-  
toriko klasikoetatik etenik gabe aldentzen eta, aldi berean, finkatzen doan saio bezala ere  
plantea daitekeen, prosak erakusten dituen baliabide estilistiko “herritarak” (para-  
lelismoak, antitesiak, hoskidetasunak, aliterazioak, etab.) horren lekuko hobezina dire-  
larik. Eta hori guztia, alabaina, ia idatzizko tradizioz ez duen hizkuntza batean.

### 10.3.3.- EGITURA SINTAKTIKOAK

Oro har, egitura sintaktikoak prosan atzematen den erritmoarekin tinko lotuta joan ohi dira, erritmoaren erantzukizunaren alderdi garrantzitsua, finean, egitura sintaktikoek berek baitaramate berekin<sup>408</sup>; eta normalean -ezin baitzen beste modu batean izan- Axularrek lortu nahi dituen xede eta efektuen menpe azalduko dira.

Hori dela eta, obraren planteamendu argumentatzaileak forma periodikoen erabilera ziurtatuko du, oinarritzko eskema -protasia edo osagai tentsio sortzaileak eta apodiosia edo tentsioaren bukaera- modu desberdinetan emango delarik. Egitura sintaktiko erabilienak kausazkoak eta konparatiboak<sup>409</sup> diren arren, bestelakoak ere agertuko dira ideien eta argumentuen garapenean barrena.

Baina, edozein modutan, testuan zehar juntaduren eta mendeko perpausen nagusitasuna ia erabatekoa bada ere, testuaren erritmoa dela eta, ohargarri deritzogu lotura asindetikoaz baliatzen den alborakuntza edo justaposizio egituraren presentziari, paralelismoak areagotuko duen egiturarenari hain zuzen. Ondokoen estilo hautsi modukoak izango dira horietako gehienak:

“Ordea eneak dira faltak, enea da hobena” (3-4 or.)

“Maingu da, oiñak ditu eri, gogoa erbal eta flako” (48 or.)

“Garzelean sarzen zaituztenean, sarthu berri hartan, usna on duzu, kiratsa aditzen duzu, erraiak nahasten zaizkizu, sentikor zara” (91-92 or.)

“Bekhatu bat zaizen ez tuena minbera da, sentikor da, beldur da, ezin sosega daiteke” [...] (106 or.)

“Itasoko untxiak, barkha handiak, anhitz daduka, karga handia iasaiten du” (115 or.).

[...] sendoenak edo anzatsuenak garaitzen du bertzea, bere meneratzen du, azpiratzen du, lurrera

408 - Ildo horretatik zihoazen Zizeronen hitzak ere: “Hay ciertas formas de estilo que inevitablemente traen el ritmo consigo. Así las comparaciones y las antítesis. Todo esto ofrece variedad de recursos, para no terminar siempre del mismo modo” (Ciceron, *El Orador*, 383).

409 - Granadako Luisek zioen bezala, “sirven corrientemente para semejantes períodos las conjunciones [...] comparativas: “así, así como, al modo que, etc.,” porque donde median estas partículas no se perficiona el sentido de la oracion, hasta el fin de ella, lo cual es propio de este período en que hablamos redundamente” (Granada, *Retórica*, 598b).

egotzten du, ezpataz iragaitera darama” (205 or.)

“Egia da, hala izanen da [...]” (610 or.)

Mota honetakoak izango dira, halaber, testuaren kutsu antitetikoa areagotzeko erabiliko diren sententzia modukoak ere:

“Gaiñak, pikaiñak eta hautuak bertzeren, hondarrak eta arbuioak lainkoaren” (181 or.)

Esan beharrik ez dago: lotura hipotaktikoak eta parataktikoak izango dira testuan maizen baliatuko direnak, lehenengoak hobetsirik gertatuko badira ere. Jakina, horren arazoia testuaren izaeran bertan letzake:

“La construcción hipotáctica es la construcción argumentativa por excelencia [...]. La hipotaxis establece unos límites, significa adoptar una posición. Ordena al lector, le obliga a ver ciertas relaciones, reduce las interpretaciones que podría tener en consideración, se inspira en el razonamiento jurídico bien construido” (Perelman eta Olbrechts-Tyteca 1989, 254 or.).

Bestelakoa da lotura parataktikoek eskaintzen duten izaera, izan ere “la parataxis deja más libertad, no parece que quiera imponer ningún punto de vista” (Perelman eta Olbrechts-Tyteca 1989, 254 or.).

#### 10.3.3.1.- Egitura parataktikoak

Lotura parataktikoen bidez buruturiko juntaduren artean bada bat pasarte narratiboetan, hau da, esenplu eta adibideenetan batik bat, erabilera oso nabarmena izango duena. Ahozko teknika narratiboetatik hurbil, “eta” emendiozko juntagailuarekin koordinatutako egiturak izango dira hedatuak:

“Eta hetan trabaiilla arazitzen zituen faraonek bere azpiko iende hek, seiñalaturik bat bederari, bere eguneko lana eta sailla.

Eta eskuaren ibentzea bera asko bazuketen ere, ordea, lanhabesak, tresnak, eta obraren egiteko gai guztiak ere, berek bilhatu eta hornitu behar zituzten.

Eta halarik ere, ezin ausart zitezkeien arrenkuratzera, halako moldez ezen [...]

Eta halatan aitzinerat kargatuago zituen, lana berretu zerauen.

Eta hura guztia egiten zuen, baldin bat ere astirik bazuten, edo alfer bazeuden, handik zerbait ethor zekion gogan beharrez eta beldurrez” (26-27 or.; letrakera etzana gurea da).

“Hartu zuen ainguru hark gizon baten iduria

eta ioan zen mendietako saildu hetarik batengana,

eta eskutik harturik, eraman zuen oihanean barrena,

eta han erakutsi zeraukan gizon bat, hari zela egur egiten.

Eta zama bat eginik, lothu zuenean, hasi zen enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz” (84 or.; letrakera etzana gurea da).

“Eta orduan hek guztiak infernura ziren.

Eta orai ere infernuratzen dira giristino eztirenak.

Eta beldur naiz giristinoetarik ere, gehienek, bide hura hartzen duten.

Eta erraiten denean anhitz direla deituak, eta gutiak hautatuka, giristinoez ere orobat aditzen den” (141 or.; letrakera etzana gurea da).

Egitura polisindetiko hauek berbaldiari eskaintzen dioten erritmo motari dagokionez, agerian dago konfigurazio anaforikoaren kasu konkretuak baino ez direla.

Bestalde, testuaren argumentazio mota antitetikoa biziki areagotarik geratuko da juntagailu aurkariekin eraturako juntaduretan<sup>410</sup>. Horietako batzuk baino ez aipatzearren (letrakera etzana gurea da):

“Neure iaun maitea, ioan zataizkit lurretik, *baiña* ez gogotik, eta ez bihotzetik” (3 or.)

“Hunetakotzat, egia hunen frogatzeko, anhitz exenplo ediren ahal diteke, *baiña* nik orai presenteon ezta bat baizen ekharriko” (221 or.)

“Hargatik erraiten zuen Iondone Paulok, etzebillala behin ere triste, triste bezala bai, *baiña* bethi alegera” (440b or.)

“Presuna ederrak, gorputza bere eskuko eta ongi egina duenak, ezta kanpoko edergarriren beharrik, zeren bera baita bere baitan eder asko. *Baiña* itsusiak, marketsak, behar du anhitz estalki, anhitz bernizadura eta aphaindura, eta hekin guztiekin ere, etxean legoke ederkienik” (513 or.)

### 10.3.3.2.- Egitura hipotaktikoak

Menderakuntzari dagokionez, Axularrek era guztietako egiturak darabiltza. Alabaina, gorago adierazitako argumentazio garapenaren ildotik jarraituz, kausazko egiturak eta konparazioak ahalbidetzen dituztenak nabarmendu beharko lirake batik bat. Eta bestelako egiturek prosaren erritmo erretorikoan ere garrantzi handia duten arren, argumentazioaren ikuspuntutik ez dira ondoko hauek bezain emankorrak.

#### 10.3.3.2.1.- Kausazkoak

“Zeren” lokailuaren bidez osatutako egitura kausalak dira maizenik agertzen direnak esku artean dugun liburuan zehar. Izan ere, “zeren” partikularen erabilera eten-gabekoa da *Gero*-n<sup>411</sup>, inoiz kapitulu berean 45 aldiz azaltzera iristen delarik (XV. kap.). Dena den harrigarria da atal honetan dagoen fluktuazioa, ez beti kapituluaren orri kopuruarekin lotua.

410 - Ezaguna denez, juntagailu honek maizkara ahalbidetzen du ezabaketa edo elipsi fenomenorik bigarren perpausaren osagaien artean.

411 - Hona hemen kapituluz kapitulu “zeren” lokailuak erakusten duen maiztasunaren taula:

1. kap.: 24 aldiz	16. kap.: 31 aldiz	31. kap.: 11 aldiz	46. kap.: 21 aldiz
2. kap.: 13	17. kap.: 8	32. kap.: 4	47. kap.: 23
3. kap.: 8	18. kap.: 11	33. kap.: 4	48. kap.: 12
4. kap.: 22	19. kap.: 37	34. kap.: 13	49. kap.: 31
5. kap.: 15	20. kap.: 21	35. kap.: 4	50. kap.: 38
6. kap.: 11	21. kap.: 5	36. kap.: 4	51. kap.: 17
7. kap.: 17	22. kap.: 12	37. kap.: 9	52. kap.: 37
8. kap.: 21	23. kap.: 15	38. kap.: 7	53. kap.: 12
9. kap.: 18	24. kap.: 16	39. kap.: 9	54. kap.: 10
10. kap.: 10	25. kap.: 3	40. kap.: 3	55. kap.: 14
11. kap.: 28	26. kap.: 2	41. kap.: 8	56. kap.: 9
12. kap.: 25	27. kap.: 12	42. kap.: 13	57. kap.: 31
13. kap.: 21	28. kap.: 17	43. kap.: 17	58. kap.: 16
14. kap.: 21	29. kap.: 7	44. kap.: 17	59. kap.: 13
15. kap.: 45	30. kap.: 13	45. kap.: 30	60. kap.: 7

Esan beharrik ez dago, kausazko perpausen maiztasun honek testuaren izaera erakusten du modu nabarmenean, hots, zerbait baieztatu edo adierazi ondoren, azalpena edo arrazoia izango da Axularrek testuraturako duena. Adibide argigarriak izan daitezke honako hauek:

“Bat bederak behar du konbertitu eta egin laster Iainkoagana, ahala duenean. *Zeren* ahala duenean, nahia eztauenak, benturaz gero, nahia duenean, ezta ahala izanen: behintzat iartzen bedere bada, ez izaiteko perilean.

Beraz hunelatan lehen behar da prestatu. *Zeren* gaitz izanen da, heriotzeko orenean, eritasunez eta oihhazez kargatua zaudenean, penitentzia egitea, behar den fintasunarekin eta berotasunarekin Iainkoari gomendatzea. *Zeren* orduan, bertzeak bertze direla, eritasunak berak, emanen baiteratzu egitekorik asko” (202 or.; letrakera etzana gurea da).

“Hurbil dagote Iainkoa zinez eta egiaz gomendatzen eta fabore eskatzen zaizkon guztiei. Eta nahi du eska gakitzen [...]. Eta orobat da noiznahi den, gauaren erdian ere, eskatzea. *Zeren* Iainkoa baitan ezta ez orenik, eta ez aldarte gaitzik, munduko iendetan ohi den bezala. Haren baitan muga guztiak eta oren guztiak dira bat, bethi da nehor ongi ethorria. Beraz hunelatan zintki eta fintki, maiz eta lehiatuki, behar gatzaitza azken fineko iraupenaren eta perseberatzeko donuaren eskatu: eta hunetan geure ahal guztiaz permatu eta bulharka iari. *Zeren* azken fineko perseberantzia da gakhua, hura da gora behera guztia, hartan dago garaita eta biktoria. Hura gabe leheneko obra onek deus guti balio dute. *Zeren* iraganak iragan, azken finean nolako garen behatzen du Iainkoak: eta orduan edireiten gaituen arauaz, emaiten deraku sekulako zorthea, ona edo gaixtoa.

Eta ontasunean iraute haur, perseberatzea, oraidanik behar da hartu eta eduki, eta ez geroko esperantzan utzi eta largatu. *Zeren* azken fineko aitzin hartan irauten eta perseberatzen duenak, perseberatzen ohi du komunzki azken finean berean ere” (459-460 or.; letrakera etzana gurea da).

Egitura kausal hauetan periodoak ez dira beti multzo autonomo gisa atzematen, zenbaitetan erabat itxita ez baileuden ager baitaitezke, ondokoekin lotura egiteko gertu, finean. Esan beharrik ez dago, arrazoiak argumentazioan bilatu behar dira, azalpenak etengabe emateko beharrean hain zuzen:

“Ezta gaitz ihardesten. *Zeren* batatz, lehen erran den bezala, orduan eritasunak berak, bere gorputzeko gaitzak, emaiten baitio bat bederari egitekorik asko: eta berriz bertzea *zeren* peril baita orduko orhoitzea, orhoitzen bada ere, ez orhoitzea bezala, beldurrezkoa, edo borxazkoa izanen den, eta ez behar bezalakoa. *Zeren* San Agustinek dioen bezala: [...] Bizi deiño Iainkoaz ahantzirik egon denak, merezi du, berari ere hiltzerakoan, ahantz dakion bere burua, eta orhoitzen bada ere, orhoitze hura, eztakion deus balia. Eta iduri ere badu etzaikala deus baliatzen. *Zeren* komunzki halakoa, eritasunetik eskapatzen denean, leheneko bekhanuetara bihurtzen ohi da” (204 or.) (gurea da letrakera etzana).

Kausazko egituren erabilera hau, beraz, argumentatze moduak bideratua da: zerbait baieztatu ondoren, baieztatze haren arrazoia eman beharra zegoen, eta, horrela, autoreak askiesten zuen arte.

#### 10.3.3.2.2.- Konparaziozkoak

Argumentatzeko bezainbeste, formula sintaktiko honek anplifikatzeko funtzio nabarmena hartzen du Axularren *Gero*-n. Baina horrezaz gainera, konparazioak elementu praktikoa eta argigarria eskaintzen dio argumentazioari, haren bidez irakurleak ulerterrazago duen mundu errealean uztar dezake planteamendu erlijiosoaren mezua

Formalki konparazioetarako formulak asko izan badaitezke ere<sup>412</sup>, Axularrek gehien erabiliko duen eredu konfigurazio luzekoa gertatuko da, batik bat "Nola ... hala..." formularekin osatua. Horrezaz gainera, bada bestelakorik ere.

Formulazio laburreko konparazioen artean, "bezala"<sup>413</sup>, "pare", "pare tsu"<sup>414</sup>, ... ereduakin osatutakoak leudeke. Normalean, bestelako garapenik ere eraman ohi dute ondoren.

Konfigurazio laburrekoak gertatuko dira baita ere "Hala...nola" bezalakoak:

hala eskiribatzea, nola minzatzea (18), hala bata, nola bertzea (49), hala onean nola gaixtoan (90), hala onekin nola gaixtoekin (120), hala Davitek nola Susanak (146), hala zahartzean nola gaztean (166), Hala borondatezko obrak nola obligazinozkoak berak (247), hala mihiaz eta minzatzeaz, nola ianaz eta edanaz (396)...

Inoiz agertuko dira joku erretoriko gehiago eskaintzen dutenak ere: "Zeren emazte ezkondua eztu deusek ere hala giharran ukitzen, krozkan erauzten, eta ez bere tentutik eta pazientziatik atheratzen, nola bere senharra bertzerekin diabilkola iakiteak" (358-359).

Edozein gisaz, "Nola... hala" moduko eredu luzeari jarraikitzen zaizkion konparaziozkoak dira liburuan zehar zinez agortezin diruditenak (adibide motzena, dena den, 214. orrialdean dago: "nola bizi hala hil"):

"Nola baldin gizon bati, erraiten dituen hitz guztietan nehor kontra balekio, eta erran baliatote; «etzaitugu sinhesten, ekhartzu zenbait lekhuko», desohore eman bailliazaoite. Hala hitz guztiaz iuramentu egiten duenak: eta iuramentuez bere erranak frogatu nahi dituenak ere, emaiten dio bere buruari desohore. Zeren ikhusirik[...]" (264-265)

Nola gorputzeko medikuek, anhitz midizina eta erremedio bilhatu baitute eta ediren, gorputzeko eritasunen sendatzeko: hala arimako midikuek ere, zer den kolera, eta koleraren ondorea dakitenek, zein baita arimako eritasuna, bilhatu dute, eta eman anhitz abisu, eta erremedio, arimako eritasun hunen sendatzeko, kolerak piztzen duen suaren hiltzeko, eta bai piztetik, eta iratxekizetik ere begiratzeko (285-286)

Beraz nola, baldin bazendu anaia bat erhoa, eta adimendutik iaizia, eta hark anhitz gaizki egin, eta erran baliazazu, eta bere buruari ere zenbait kolpe gaixto eman baliatze, damuago baitzenduke zeure anaia haren kalteaz, eta haren hala izaitzez, egiten eta erraiten derauzkitzun bide gabe guztiez baiño; hala halaber behar duzu izan damuago zure etsai kolerak erauzirik dagoen hark bere buruari egiten derautzan kaltez, zuri egiten derauzkitzunez baiño (309-310)

Gorago adierazi bezala, eredu argumentatzailearekin ongien ezkontzen diren konparazioak izango dira hauek. Horrela, gai aszetikoaren lehorra irakurlearen eguneroko errealitate biziarekin uztartzeko eta, beronen bidez, zailtasunak eta argitzeko erabiliko dira gehienetan:

412 - Egungo gramatikekin dagokeen aldeaz ohartuta bagaude ere, Erretorika klasikoan erabili kontzeptuak eta terminologia direla eta, egokiago iritzi izan diogu atal honetako zenbait elementu Lafitteren *Grammaire Basque* izenekoaren arabera izendatzeari. "Propositions comparatives" bezala agertzen direnak ditugu horietako batzuk.

413 - "zeren hek azala eta lorea bezala baitira" (20), "usatu behar da iuramentuaz, purgaz bezala" (255), "erho batek bezala" (280), ...

414 - "beirakiaren pare gara" (60), "uraren pare gara" (61), "deabruaren paretu egiten da" (98), "hillaren pare egiten da" (110), "suaren pare da kolera", (285), "emaztetako bekhatua izurriaren pare da" (398), ...

Nola ardia otsoaren ikhustez latzen, larritzen, asaldatzen, izitzen eta ikharatzen baita: hala egiten gara gu ere etsaiarekin batzeaz eta inkontratzeaz (271)

Nola ikhatz biziak elkarganaten ditutzunean, sua piztzen eta egiten baitute: hala etsaia baithan ere, egiten derautatzun ongiek eta zerbitzuek piztzen dute eta egiten amorioaren sua, bakea, adiskidetasuna (294)

Eta nola anhitzetan ere, aita batek bere semea zehatu duenean, zathitzen baitu zigorra eta egotzen sura: hala zure etsaia, zure zehatzailea, eta penatzailea ere zathituko du Iainkoak, eta azkenean egotziko ifernuko sura (333)

Eredu honen emankortasuna forma desberdinetan antzeman daiteke testuan zehar: "nola ... halatan", "nola ... orduan", "nola ... handik", etab. (ondoko adibideotako azpimarrak gureak dira):

Nola bekhatuaren arimatik kentzeko eta atheratzeko, bi gauza behar baitira: bata Iainkoaren aldetik, haren garazia eta faborea, eta bertzea guretik, gure nahia eta borondatea, eta gauza hauk guztiok, are gure aldetik behar direnak ere, prinzipalki Iainkoak egiten baititu: halatan Iainkoak bere garaziaren emaita eta gure garazia haren errezibitzeko, eta harekin batean bekhatuaren kentzeko prestatzea ere, egin ditezke laburki, heriotzeko azken artikuluan (198-199)

Herioa hurbiltzen zaitzunean, nola athaka hertsian, eta pausu gaitzean iragan behar baituzu: eta bitarteko doloreak ere handiak baitira, orduan zeure onez kontu guti egiten duzu: zeren handiagoak ahantzarazitzen baiterauzkitzu. Orduan zeure ondokoei, eta han presentean edireiten direnei, zer ere nahi baitute, eta nola behar dela ikhusiko baitute, hala dagitela utzten deraezu. Hain nekez eta penaz bildu zinituen onak eta onhasunak, eta hain zuhurtzi eta maiteki begiratzen zinituenak gero, hain laxoki eta antsikabeki largatzeintuzu: lehen zein hertsia eta itxekin baitzinen, gero hain franko eta liberal egiten zara. Orduan nork zer erraiten baiteratu, hura laudatzen duzu: eta anhitzetan ere, zer erraiten duzun eztakizula, baietz erraiten duzu. (238)

Nola gure lehenbiziko aita hark, gure naturaleza haur, bere bekhatuaz narriatu, arrazatu, eta eritokitu baitzuen, handik gara hain arenkuratsu, inzirinatsu, eta on behar. Handik gara, ontasunera baiño gaixtatasunera eroriagoak, isuriagoak eta emanagoak. Handik dugu adimenduan itsutasuna, borondatean malizia eta memorian flakotasuna. Handik heldu da halaber, gezur erraitea, elkharren ez sinhestea, eta fidantzia gabe, bethi gogan behartsu ibiltzea (250)

Funtzionalki, konparazio mota hauetako asko gorago aipatu argumentazio "bipertita" izenekoaren osagaia den "zeren" esplikatio-kausalararen ondoren joan ohi da:

Zeren nola baitira eritasun batzuk, hain handiak, gorputz guztia flakama, benzutua, eta ezindua ibentzen dutenak, eta eriarri hain iauntzen zaitzanak, non bere izanez, eta egitez ezpaitute erremediorik, ezpaitira sendakizun; hala ostinatuaren, gogortuaren, itsutuaren, eta ezansiatuaren bekhatua, eta eritasuna ere hain da handia, non berenez ezpaita sendakizun, eta ez barkhakizun (99)

Zeren nola ohoiñak desiratzen baitu gau ilhuna eta haizetsua ebasteko. Otsoak denbora gaitza, uritsua, eta igorziritsua, artaldeari oldartzeko: eta arranzaleak ur uherra arraiñaren atzemaiteko: hala deabruak ere, ohoin finak, otso goseak, eta arrantzale iakinsunak bezala, bilhatzeintu eta bere gaixtakerien egiteko, zelataturik edukitzeintu, koleraren, haserreduraren eta diferentzien ilhunbeak, tormentak, uherdurak, eta okhasinoak.(283-284)

Zeren nola mindegian bir landatzeko landareak sortzen, eta hazten baitira, hala ian edanean ere, haragiaren plazer hartzeko gutuziak, orhoitzapenak, eta kilikadurak piztzen eta egiten dira(409)



10.3.4.- KADENTZIAK

Lehenago ere adierazia dugu fenomeno erritmikoa ezin dela alderdi semantikotik bereiztu, honek bideratzen baitu neurri handi batean testu guztiaren dinamika.

Axularren prosaren kasuan planteamendu erritmikoak lotura hautsiezina du kontatzen denarekin. Mezua, oro har, era askotara errepikatzen da, eta pasarte gehienetan mailuaren funtzioa betetzen du irakurle-entzuleen bihotzen gogortasuna apur dadin, bigun dadin. Mezu errepikakortasun hori bera areagoturik edota apalduarik -eta ez da hau gure kasua<sup>415</sup>- agertuko da prosari eskaintzen zaion erritmoaren arabera.

Faktore erritmiko horretan, dena den, garrantzi erabakiorra izango du periodo eta esaldien bukaera motak. Nola bukatzen den testu segmentua, horren arabera izango da irakurleak (edota entzuleak) kate mintzatuaren linealtasun horretatik jasoko duen azken inpresioa, besterik ez dagoenean ere, adimenean ongien iltzaturik geratzen dena hain zuzen.

Esaldi edo periodo bukaera horiek, klasula izeneko horiek alegia, Kayser-ek idazten zuen bezala, "no las inventaron los antiguos, ni se enseñaron y usaron a través de los siglos simplemente en atención a ellos. Por el contrario, son soluciones óptimas -sólo "a posteriori" aceptadas dogmáticamente- para determinadas empresas oratorias, y siempre pueden surgir de nuevo con espontaneidad, sin imitación consciente" (Kayser 1992, 348; azpimarrak gureak dira).

Garbi dago, beraz, idazle predikariaren eginkizunean haren prestakuntzak, erabilitako hizkuntzak, berau bizitzeko moduak eta, finean, sena estilistikoak berak moldatzen dutela prosaren erritmoa oro har, eta, klausulei dagokienez, "soluzio hobezin" konkretuen bidea.

Axularren soluzioa paralelismoan, luzapen kuantitatiboan (unitate lexikoena edota silabena) eta similikadentzian datza nagusiki, beroriek izango baititu ezaugarri nagusi<sup>416</sup>.

Bukaeretako luzapenaren soluzioa oso lotuta dago Axularrek predikari bezala bukaeratzat ulertzen duenarekin. Horrela, etenketaren aurrean, predikazioan erraz asko berbaldiak eskatuko duen edozein etenketaren aurrean alegia (periodo, perpaus edota esaldien bukaeran), urdazubiarrak erritmoa pausatzeko joera erakutsiko du, pentsamendua lasaituaz joango bailitzen.

415 - Jakina, hemendik ezin ondoriozta liteke erritmo horren premia genero guztietarako, are gutxiago narrazioan oinarritzen direnetarako, baina prosa erlijiosoaren esparruko genero suasorioan egoki baino egokiagoa da. Baietik, mailuaren etengabeko danbadak dakartzalako bamera, baina bestetik, eta hau ere ahaztu ezinezko elementua da, prosa erritmiko horrek mezuen oroitzapen errazerako bideak eskain ditzakeelako.

416 - Ez ditugu hona ekarriko erretorika klasikoan zeharo araututa zeuden bestelako faktoreak. Horietako bat, esaterako, Kintilianok dakarrena dugu: "Cosa bellísima es cerrar el sentido de la oración con el verbo si lo permite la composición, porque en los verbos está la fuerza del razonamiento" (Quintiliano, 9, III, 121 or.). Euskararen senak, zer esanik ez dago, errazki onartuko duen formulazioa da honako hau. Adibideak ere eurrez aurki daitezke *Gero*-n.

Teknikoki pausatze hori paralelismoen bitartez burutuko du gehienetan, betiere paralelismoaren azken osagaia silabikoki luzeena den hitzarekin edota kolonarekin bukatuko duelarik (aditz laguntzaileak ere badu luzapen horretan tokirik, bukaerarako utz baitezake). Areago, grafikoki jarritz gero, nolabaiteko aurreratze kuantitatiboa ematen dela ikusiko genuke (lehenengo hitzak edota unitateak motzagoak bukaerakoak baino):

Paga bezate beraz	iragan duten	aisia, eta alferkeria, presenteko	penaz eta trabailuaz,
	leheneko	asea eta soberania, oraiko	goseaz eta eskasiaz (44 or.)
Nolatan	zahartzean hain denbora laburrean eta adin	flakoan eta erbalean,	pagatuko eta satisfatuko du,
			hanbat bekhaturen
			zorra eta obligazinoa? (183)

Jakina, gerta daiteke elementu kuantitatiboa gradazio logiko edota denborazkoarekin bat ez etortzea (zahartzaroa gaztaroaren ondotik dator, esaterako). Horrelakoetan halabeharrez erabakitzen du Axularrek elementu logikoaren alde:

Eztezazula pentsa, eztakizula iduri, baldin	bizi zareño sendo eta osasunarekin zabiltzareño,	ezkerrekat	makhurtua eta alderditua bazaude,
	eritasunean eta heriotzean	eskuinerat	iarriko eta xutxenduko zarela (214 or.)

Pasarte narratiboetan ere, pasartearen erdian etenketaren beharra denean hain zuzen, berehala nabaritutako irakurleak pausatze desberdinen "abisuak":

Eta gero handitu zirenean eraman zituen biak treilla batetan Lazedemoniako iende heken aitzinera eta han laxatu eta largatu zituen, eta largatzearekin batean, egotzi zerauzten bere aitzinera, erbi bat eta haragi puska bat(87)

Berdintsu jokatu du bestelako pasarteetan ere, ondoko orritik jasotako adibide honetan ikusten denez:

Denbora luzeaz bekhatutan egoitez eta usatzeaz, bertze kalterik ethor ezpaledi ere, pleguaren eta aztura gaixtoaren hartzea baizen ere, hura bera behar lizateke asko, bekhatutan pausatzetik begiratzeko, eta lehen baiño lehen bide onean iben arazitzeke (88 or.).

Edozein modutan, Axularren jokamolde orokor horrek badu salbuespen baino gehiago, erritmo orekatzaileak izan daitezkeen aldakiak. Horietako bat da ondoko adibidean ikusten dena:

Arraiña	alha denean, bazkari datxekanean eta bere ustez hobekienik dagoenean,	atrapatzen du arrantzaleak,
eta bai hegatzina ere ihiztariak Hala atrapatzen du bada bekhatorea ere heriotzeak		bere gogarenik datxetenean, gozokienik alha zaienean, eta gutien uste duenean (60 or.).

Ispilu moduko paralelismo hirukoitza erakusten duen adibide honetan<sup>417</sup> azpimarragarria da idazleak gogoan izan duen faktore orekatzailea. Horrela, hasiera emateko, perpaus zirkunstanzialei dagozkien elementu motzenetatik luzeenetara abiatzen da lehendabizi, gero, konparazioaren bigarren unean alderantzizko prozesuari ekingo diolarik, hots, perpaus luzeenetik motzenera, pentsamendua bukatuaz joango bailitzen.

Nolanahi ere, ez dira horretan geratzen Axularrek bukaeretako kadentziak lortzeko darabiltzan konfigurazio nagusien ezaugarriak. Irakurleak berehala somatzen duen bezala, urdazubiarrak klausulen bukaera kuantitatibo hori bestelako edergarrit hornituko du beti, horietan paralelismoek eta elementu homofonikoez garrantzi ezin handiagoa dutelarik.

Orain arte ikusitako adibideek besterik erakusten ez badute ere, ondoko orriotan zehatzago azalduko da elementu horien funtzioa, garrantzia eta erabilpena.

417 - Hiru elementu dira hemengo egitura honetako osagaiak: arraina-hegatzina-bekatorea; arrantzalea-ihiztaria-heriotza; eta zirkunstanzialak ere hiru izango dira.

**XI.- BERBALDIAREN  
EDERGARRIAK**

Aski litzateke erretorikako edozein eskulibururi begirada bat ematea *Gero*-n azaltzen diren berbaldiaren edergarriak bide klasikoetatik doazela ohartzen hasi ahal izateko. Erretorika eklesiastikoaren bide klasikoetatik, zehatzago nahi bada, baina osagai zenbait ohi baino areagotuta erakusten ditu Axularren prosak, ondoko orrietan ikusiko den bezala.

### 11.1.- ORNATUA ERRETORIKA SAKRATUAN

Berbaldiaren edergarri den “ornatu” delakoa, sarritan gogoratzen den legez, “es uno de los conceptos de mayor valor y trascendencia en la doctrina retórica y poética heredada del pensamiento clásico” (Mayoral 1994, 23). Haren bidez eman ohi zitzaion berbaldiari zegokion (“egokia” zen, esan nahi baita) forma, bai prosa artistikoan nola bestelakoan. Jakina, “bestelako” prosa horren barruan helburu gisa irakurlearen baita, irakurlearen sentimentuak hunkitu eta jokamoldeak aldaraztea zuenak bereziki jakin behar zuen *tekne* erretorikoak eskainitako baliabideak erabiltzen.

Hori zela eta, Axularren garaian erretorika eklesiastikoaz ziharduten liburu guztietan etengabe adieraziko zen predikariek baliabide estilistikoak ezagutzeko zuten premia. Baliabide horien erabilpen zuzenaren bitartez, sermoiak -eta, jakina, idatz zitezkeen liburuak ere- egokiago moldatu ahal izango ziren, haien iturri ziren testu sakratuak hobeto interpretatu ahal izango zituzten eta, horren guztiaren ondorioz, “prediku”-an planteatutako helburuak errazago lortuko.

Oro har, Terrones del Caño gogoratu legez, “no se han de echar a mal algunos tropos y figuras que adornan y ilustran mucho el razonar”, baina garbi izanik ezen “estas figuras se han de hacer casi naturalmente” (Terrones del Caño, *Instrucción...*, 138), hots, modu naturalean, baliabideei zuten garrantzia baino gehiago eman gabe eta edertasun bide horiek larregi planifikatu gabe.

Baliabideen artean ezaguna da nolabaiteko mailakatze edo jerarkizazioak egin ohi zirela, betiere *aptum* delakoa begiratu. Oro har, baliabide gomendagarrienen artean aurkakotasunaz baliatzen zen hizkuntza azaltzen zen eta, gaiaren eta entzule-irakurle motaren arabera, elementu metaforikoaren erabilpen neurtua. Bestalde, erretorikaren edergailu klasikoek aholkatuko dira beti, baliagarri guztien erreferentzia egokienak Eskritura Sainduetan eta Elizako Gurasoen obretan zeudela ahaztu gabe. Horiekin batera, aszetika arloan biziki gomendatzen zen irudien esparrua egokiro lantzea, exenpluak eta konparazioak ere berbaldiaren edergarritzat hartzen zirelarik.

## 11.2.- ORNATUAREN ERABILERA GERO-N

Oro har, liburuaren izaera aszetikoak berak bideratuko dituela obraren edergarriak esan daiteke. Jakina, aszetikako ohiko liburuen ornatua honako honetan "egokitua" azalduko da, gorago aipatu den *aptum* delakoaren arabera.

Bestalde, estilo bakoitzak ornatu mota berezia erakusten badu ere, Axularrean badirudi *ornatus facilis* delakoa nabarmentzen dela eta ez *dificilis* arlokoa<sup>418</sup>. Honako honek tropoen erabilera landua egiten duen bitartean, *facilis* delakoa koloreetan oinarritzen da nagusiki, hots, irudietan, bai hitzekoetan nola pentsamenduzkoetan.

Ildo horretatik, esate baterako, argi dago Axularrek espero duen irakurle motak eta egilearen xede pastoral-pragmatiko zuzenak ahalbidetutako ezaugarriak ez direla inolaz ere metafora landuaren arlokoak izango. *Gero* -n aurki daitezkeen metaforak -ezen ez hizkuntza metaforikoa, ez baita horren aztarnarik- Eskritura sakratuak, aipamenetakoak edota, gehienik ere, berauen eraginagatik sortuak izango dira, ez urdazubiarrak besterik gabe asmatuak<sup>419</sup>. Eta edozein modutan ere, elipsiak gora-behera, konparazioetatik eta haien eskemetatik oso hurbil daude beti horrelako tropoak:

"Thiztari handiak dira begiak" (392)

"Eta tentatzailea ere ez tatz behin ere lo: hark erakitzen du erbia, pizten du sua, gogortzen du bekhatua, iratzartzen du haragia" (403)

"Nigar hek, arrosak dira elhorrien artean" (501)

Izan ere, Axularrenak izan daitezkeen testu eta testuen arteko transizio-pasarteak oso hizkuntza pragmatiko eta arruntan idatzirik daude, ikusmiran zuen irakurleak inolako ahalegin berezirik egin beharrik izan ez zezan.

Jakina, hizkuntza metaforikoaren falta hori konparazioen bidezko hizkuntzarekin asetzen da. Konparazioa izango da Axularrek etengabe erabiliko duen baliabidea.

Oro har, erretorikak eskaintzen dizkion baliabide askotatik hartuko du Axularrek. Halere, testuaren xede-izaerak behartuta, badira batzuk modu nabarmenagoan agertuko direnak beste batzuk baino, guztien konfluentziatik nolabaiteko *egitura erretoriko* bereziak sortuko direlarik<sup>420</sup>.

*Gero*-ren prosaren lerro elokutiboak definitzeko baliabide azpimarragarriena aipatzekotan, "errepikapenaren printzipioa" nabarmenduko genuke ezaugarri gisa, haren aldaki guztiekin: paralelismoa, similikadentzia, etab. Era berean, elementu guztiak inte-

418 - Axularrek ez bezala, eta hau isuri diren iritzi zenbaiten aurkako kontrabide bat baino ez litzateke, kulteranoek erakutiko duten eredu barrokoa neurri handi batean *delectare* hitzaren inguruan garatu diskurtsoaren baliabideen gainean eratuta aurkitzen da: metaforak, alegoriak, ...

419 - Eta metaforei buruz dioguna beste tropei (metonimia, sinekdokea, etab.) ere aplika lekieke, normalean hizkuntza arruntekoak, aipamenetatik zuzenean itzuliak edo, bestela, arlo izpiritualetik isuritakoak baitira. Dena den, badu Axularrek tropo propiorik ere; esate baterako, horietako bat dirudi ironia kutsua isurtzen duen formulazio sinestesiko honek: "Zeren hala ibiltzeak ez zu usain ona" (412 or.).

420 - "Sólo podremos hablar de estructuras especiales [...] cuando se da una cierta *regularidad* convencionalmente determinada y, por lo tanto, no casual" (Dijk 1983, 130).

gratzen saiatuko bagina, ondorio gisa ahozkoasunarekin zerikusia duten elementuak liriteke nagusi, liburuaren konformazio dialogikoa barne. Izan ere, neurri handi batean bederen, sermocinatio luze baten parekoa dirudi Axularrenak, irakurleari zuzenean mintzatzen zaion liburua, irakurlearen baitan eragin erabakiorra izan nahi baitu liburuak.

Beraz, elkarrizketa luze moduko horretan baliabide fonon-eritmiko errepi-kakorrak izango dira gailenduko diren elementuak. Bestelako baliabideak irudi marko hori osatzera agertuko dira.

Ikusten denez, erretorika klasikoaren ildoan zeharo txertaturiko erretorika eklesiastikokoa den obra baten aurrean geundeko. Alderdi askotatik begiraturik, San Agustinen eskemetatik xurgatu<sup>421</sup> eta Luis Granadakoarenganaino iristen den hari leun-ezkutuarekin ehundutako estiloa lirudike Axularrenak.

## 11.3.- AFEKTUAK LANTZEKO BALIABIDEAK

Esana dugu jadanik predikariaren eginkizun nagusia ez dela erakuste hutsa, entzule-irakurleen mugiaraztea baizik, hau da, bekatariaren barnean hunkitu eta bertuterantz abiaraztea hain zuzen. Izan ere, eta begi bistakoa denez, Barrokoan zehar eten-gabe eta nabarmenkiro agertuko den "Pertsuasioa-mugiaraztea" bikote ezaugarri hau<sup>422</sup> areagoturik azaldu behar zen ezinbestez esparru erlijiosoan.

Horretarako, afektuak pizteko helburuarekin alegia, teknika bezala planifikatu ohi zen oratoria sakratuaren esparrua, baliabideak mota ezberdinetakoak izan zitezkeelarik.

Batzuetan besterenetik zuzenean jasoak edo haien eredu gisara burutuak eta besteetan bere-bereak izanik, Axularrek ere ez du alboratuko aszetikan hain garrantzitsua den atal hau eta etengabe isladatuko du hori bere prosan.

Axularren obran lantzen diren afektuak, tematikoki garaiko aszetikan ohi bezala, bildurraren arlokoak izango dira nagusiki: Jainkoaren bildurra sortzeko, infernuko penen bildurra izateko eta bekatuen aurkako gorrotoa pizteko, alegia. Teknikoki ere ohiko bide erretorikoak agertuko dira *Gero*-n. Granadak dioen moduan,

"Pues á este modo nosotros, luego que hubiéremos amplificado la gravedad del pecado mortal, ó la atrocidad y eternidad de las penas que padecen los condenados en el infierno, podremos enardecernos poderosamente contra aquellos que con tanta facilidad, y sin ningun temor ni remordimiento de conciencia cometen tantos pecados mortales por cosas de nonada" (Granada, *Retórica*... 522).

Bestalde, afektu positiboak edo izan daitezkeenak, Jainkoarenganako maitasuna esaterako, ia ez dira planteatu ere egiten. Baina hau guztiau, gorago esan dugun bezala, liburuaren izaera aszetikoaren pragmatismoarekin lotua dago, bizioak errotik atera

421 - "San Agustín emplea principalmente tres de los recursos que recomendaba Cicerón (*De oratore*, III, 173-198; *Orator*, 164-236): el *isocolon* (enlace de dos o más miembros de la oración de longitud igual), el *antitheton* (unión de dos miembros que contienen ideas contrarias), y el *homoioteleuton* (isocolon con rima en el final del colon)" (Curtius 1976, 115).

422 - "La eficacia en afectar, esto es, en despertar y mover los afectos, es la gran razón del Barroco" (Maravall 1973: 1983, 171).

eta, haien orde, bertuteak lantzeko planteamenduekin lotua hain zuzen.

### 11.3.1.- HUNKIPENERAKO BALIABIDE ERRETORIKO NAGUSIAK

Anplifikazioa izango da erretore eta predikari katolikoek gizakien baitara iristeko eta hunkitzeko erabilitako teknika garrantzitsuenetariko bat. Erretorika klasikoa horretaz ongi jabetua bazegoen ere, oratoria sakratuan ihardungo dutenek modu berezian azpimarratuko dute errekurso honen balioa afektuetan eragiteko eta bekataria bekatutik ilkiarazi eta bertutera hurbilazteko<sup>423</sup> (ikus gorago esandako).

Horrezaz gain, ohiko baliabideak erabiliko ditu Axularrek honako honetan ere. Horietatik guztietatik, alabaina, badira batzuk erraztasun eta maiztasun gehiagorekin erabiltzen direnak eta *Gero*-ri ere izaera berezia edo ematen diotenak. Xede taxonomikorik ez dugularik, hona hemen obran zehar garrantzitsuen bilakatu direnak.

#### 11.3.1.1.- Taxuketa dialogikoaz

Pseudodiskurtso zuzen bezala (Perelman eta Olbrechts-Tyteca 1989, 285) hartua izan den forma honek garrantzi handia du Axularren obran. Honen bitartez, liburuan azaltzen diren arazo, kezka eta mezuaren presentzia areagotzen da eta hurbilago egiten zaio hartzaileari (irakurle zein entzule).

Baliabide estilistikotzat hartu behar da honelako obretan maiz asko agertzen den elkarrizketa antzeko taxuketa hau. Horren bitartez, ezaguna da, testuak irakurlearekiko hurbiltasuna bilatzen da, liburu edo berbaldia eguneroko bizitza arruntean zuzenean ukitzen dituen zerbait bezala sentitzea, irakurlearen inplikazioa, azken finean, haren "testuraketa"<sup>424</sup>.

Jakina, horren atzean oso asmo pragmatiko zehatza ereinda dute predikari-idazle (edo, nahi bada, idazle predikari) guztiek, irakurlearen "konbertsioa". Hori dela eta, testuaren taxuketa dialogikoa irakurlearengana iristeko bide zuzenenetariko bat suertatuko da eta, ondorioz, afektuen esparrua hunkitzeko eta mugiarazteko biderik egokiena.

*Gero*-ri gagozkioalarik, elkarrizketa moduko tratamendu hau era nahiko sistematikoa planteatzen da kapitulu gehienetan, batik bat estiloa bortitzago bilakatzen denean, galdetegiaren forma hartzen denean, irakurlearenganako eraso izpirituala lortu nahi denean. Horrelakoetan, hausnarketa metodo bat da autoreak planteatu galdetegi zuzenarena, ordurarte tratatutakoaz irakurleari zuzen-zuzen galdetzearena. Azpimarratu beharrik ez dago: oratoria sakratuak sistematikoki erabiltzen duen baliabide erretorikoa baino ez da hau.

Ildo horretatik, ezaguna da erretorika klasikoak eta oratoria sakratuak ere errekurso honetaz baliatzeko aholku zenbait ematen dutela. Ez ditugu, dena den, hona aldatuko. Azpimarratu bakarrik baliabide horrek erakusten duen balio didaktikoa.

423 - "[...] es propio de la amplificación [...] inducir también a la voluntad al amor, ó al odio, ó á otro cualquier afecto" (Granada, *Retórica*, 530b) (gureak dira azpimarrak).

424 - Komenigarría litzateke teknika honen erabilpenak Barrokoaren kulturaren funtzio garrantzitsua perspektiba orokorretik ez galtzea. Maravallek zioen bezala, [...] frente a su destinatario, la cultura barroca se propone moverlo [...] Uno de los recursos de los que se vale [...] consiste en introducir o implicar y, en cierto modo, hacer partícipe de la obra al mismo espectador. Con ello se consigue algo así como hacerle cómplice de la misma" (Maravall 1975: 1983, 169).

*Gero* bezalako liburu erlijioso-asetikoak elkarrizketa moduan taxututzea, Platon eta Zizeron bezalako idazle klasikoen ildotik, erretorikaz baliatzen ziren idazle erlijioso askok zegitena zen<sup>425</sup>. Baliabide erabiliaren irudimenezko arrazonamendu edo *sermocinatio* arloko aldakiak izango dira nagusiki, batik bat *dialogismo* bezala ezagutzen dena, hots, elkarrizketa baten fikzioa sortarazten duena, nahiz eta bakarrizketa antzera ere taxu daitekeen. Irudi hau, Granadak dioen bezala, "no sé yo si hay cosa que mas pertenezca al oficio del predicador, que esta" (Granada, *Retórica*, 544a).

Honako baliabide hauek, beraz, maiz erabiltzen dira Axularren *Gero*-n ere, berbaldia errealtaterara egokitzeko modu apropos bat baitira besteak beste. Alabaina, erantsi behar da ez garela eredu dialogiko huts, puru eta garbiaz mintzatzen ari, hartan oinarritutako formulazio zabal bateaz baizik, testuari zenbaitetan elkarrizketa kutsua isurtzen dionaz hain zuzen. Eredu horren bitartez, liburuan esandakoa irakurlearen errealtaterara hurbiltzeko ahalegina erakusten du egileak. Orobat, xedetzat izan ohi du mezu-hartzailea gaiaren harian sartzea eta zuzenean inplikatzeko. Eta hori guztia, alabaina, ez ahalegin idatzi huts gisara, elkarrizketaren dinamikan oinarritua bailitzen baizik.

Baliabidea, beraz, igorle-hartzaile bikotea behar duen elkarrizketa edota galdetegi moduan planteatutako pasarteetan atzemango da, aditzaren erabilera bera ere batean egokiturik agertuko delarik, hirugarren pertsonatik pluraleko lehenera edota singularreko lehen edo bigarrenera.

Oro har, esan genezake Axularren liburuaren zati asko direla horrela taxututa daudenak, lehenengo begiradan ematen duena baino askozaz pasarte luzeago osatuko luketenak alegia. Betiere, pasarte hauek kapituluetan tartekaturik agertuko dira: zenbaitetan argumentazioan, baina bereziki perorazioan. Axularren liburuak dituen helburuak (konbertsioa, bertuteak landu, bekatuak alboratu,...) eta atalak kontutan hartu arren, nekez bereiz liteke multzo nagusirik: alde batetik, eredu argumentatibo-narratiboari dagokiona eta, bestetik, eredu dialogikoa. Tartekaturik egotean zaildu egiten da bereizketa, baina, edozein modutan ere, pasarte bakoitzak bere ezaugarriak izango ditu, batik bat aditzari eta elementu sintaktikoei dagokienez.

Liburuan barrena tartekaturik agertzen den dialogismoaren irudi honek beste guztiek baino garrantzi gehiago iango du liburuaren beraren egituraketan parte hartzen duelako, eta ez delako irudi huts solte bat bezala geratzen. Gogoan hartu beharkekoa da dialogismoaren garrantzia pentsamenduzko irudien artean, irudi horretaz baliatuz egileak elkarrizketa baten fikzioa sortzen baitu. Era berean, irakurlea (edota, dagokionean, entzulea) inplikatuago sentituko da irakurtzen (edo entzuten) ari den obra horretan.

Asko liriteke liburuko adibideak. Guk halaz ere garrantzitsuenetariko batzuk baino ez ditugu orrialde hauetara ekarriko eta aipatu ezaugarri batzuen inguruan paraturik.

#### 11.3.1.2.- Konfigurazio dialogikoaren erabilera

Obraren atari edo exordio moduan hartu ditugun lehenengo ataletan Axularrek liburuan barrena egingo duena prefiguratu du hein handi batean.

Etxauzi egindako eskaintzan, esaterako, modu dialogikoa da atal guztia konfiguratu duena. Etxauzi bizirik balego bezala zuzenduko zaio eta harekiko elkarrizketa gisa (bakarrizketa, praktikan) eratuko du eskaintza guztia, lehenengo hitzetatik

425 - "Y por el mismo fin quise escribir en diálogo, siguiendo en ello el ejemplo de los escritores antiguos, así sagrados como profanos, que más grave y más elocuentemente escribieron" (Luis de León, *Los Nombres de Cristo*, apud Dill Goode 1969, 28).

beretik ("Neure Iaun maitea, joan zataizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ezterautazu iguriki..." [3 or.]) azkenetaraino ("[...] eta orduan guztiez eskerrak errendatuko derauzkitzudala. Iainkoak hala nahi duela" [11 or.]).

Baina *sermocinatio* baliabideaz gainera, testu honetan irakurlearengana iristeko *evidentia* arloko baliabideak agertuko dira, horrela testuaren hunkigarritasuna *Gero* guztian ematen den handiena gertatuko delarik.

Ezaguna da ebidentzia izeneko baliabidea oso eraginkorra izan ohi dela beti pertsonen deskribapenerako eta haien jokamoldeenentarako (karakterizazioa). Eskaintza honetan, laudorioak agertu nahi diren neurrian, Etxauzen karakterizazioak alde onak baino ez ditu erakutsiko, betiere eredugarri izan diren besteren jokamolde eta bertuteen itzalpean.

Hizkuntzaren ikuspuntutik, irakurlearekiko gertutasun afektiboa nagusiki orainaldiaren erabilerak bideratuko du hemen. Orainaldia izango da autorearen berbaaldi enmarkatuko duena eta heriotzak eramana izan den pertsonaia joan berria bailitzen kontsideraraziko duena, *translatio temporum* delakoa ahalbidetuz. Elementu dialogikoak erantsiko dio gero honako honi falta dakiokena.

Guztiarekin ere, ezin ahaz daiteke elementu topografikoak berak duen garrantzia, izan ere afektiboki irakurleari hurbiltasun geografikoa erakusten dion elementu horren erabilpena ere ez baita faltako testu honetan<sup>426</sup>.

Afektiboki askoz ere neutroagoa den "Irakurtzaileari" atala gertatutakoaren narrazio moduan planteatuta dago, autorearen kontsiderazioak (neurri batean, bederen, bakarrizketaren parekoak edota irakurleari egindako aitorten gisakoak) tartekatzen direlarik: "nahi nituzkeien..." (16 or.), "hartu dut gogo..." (16 or.), "badakit..." (16 or., 17 or.), "eztut [...] egiten" (19 or.), etab. Irakurlearekiko fikziozko elkarrizketa modukoak lirareteke hari zuzenean zuzendutakoak, batik bat 18. orrialdetik aurrera: "eta ene haur ezpaita zurea bezala, ez othoi hargatik arguya [...] Hunetzaz kontent ezpazara, egizu zuk zeure moldera[...]" esaldietatik azken erreguetaraino ("hari eskerrak errenda iatzotzu, eta nitzaz ere othoitz egiteaz, arren othoi, orhoit zaitez" [20 or.]).

Liburuan barrena, baliabide dialogikoak bere une zehatzak izango ditu agertzeko eta eman nahi zaion funtzioa betetzeko. Jakina, argumentazioan baino intentsitate handiagorekin agertuko da perorazio zatietan; argumentazioan zehar azaltzen direnak gehiago izan daitezke exenpluetakoak (hots, exenpluetan erakusten diren pasarten barneko elkarrizketak) eta prosopopeiaren eremukoak<sup>427</sup>.

Edozein modutan, fenomeno dialogiko konkretuak aurkitu ahal izango dira liburuaren *corpus* delakoan ere, hain zuzen pertsona gramatikalen agerpenarekin lotura ezin estuago duena. Ezaugarri bezala, egituratze dialogiko horrek etengabe erabiliko ditu ni-gu-zu izenordainak irakurlearen inplikazioa areagotzeko.

426 - Oso zehatzak eta gertuak egiten dira, esate baterako, "mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan" (6 or.), "Nafarroa beheko parte hetan [...]" (6 or.), "ioan zen Donapalaira, non baitzen orduan Nafarroako Parlamenta [...]" (6 or.), "Baionako Ipizpiku zinenan [...]" (7 or.), "Nafarroako hirur estatuak bildurik, ioan zinen Gorthera [...]" (8 or.), etab.

427 - Bizitzarik ez duten elementuei ematen zaien pertsonifikazioa maiztxo agertzen da *Gero*-n. Estilo zuzeneko hizketa motza bezain polita da, esate baterako, eguzki-zuhaitzek alferrari hitz egiten diotenekoa (34-35 or.).

### 11.3.1.3.- Pertsona gramatikalen agerpena

Elementu dialogikoaren presentzia nabarmen honetan pertsona gramatikalekin egiten den erabileraren aurrean, ezin ahaz daiteke Axularrek enalagearen iruditik hurbil dauden pertsona trukaketak burutzen dituela zenbaitetan.

#### *Lehen pertsona*

Obra guztian barrena Axularrek pluraleko lehen pertsonarekin egiten duen erabilerak zerikusi handia du doktrinalki kristautasunak sortzen duen bekatari kontzientziarekin. Kontzientzia honen arabera guztiak dira bekatari eta, ondorioz, guztiak dute konbertsioaren premia. Multzo bakar bat osatzen dute; ez dago kontatzen denaren beharrik ez duen idazlerik. Agian Axularrek berak dakarren pasarte batek adierazten du ongien pertsona eta mezuaren arteko lotura hori:

"Gure lehenbiziko aitaren bekhata dela kasua, harengatik, haren kariaz, guztiok gaude preso, guztiok gaude mundu hunetako garzele hunetan, heriotzera kondenatuak" (56 or.)

Horrezaz gain, Axularrek behin baino gehiagotan tartekatuko du argumentazioan bertan pluraleko lehen pertsona (gu) idazle-irakurlea multzo berekoak eginez:

"Adiskiden artean garenean laxo gara, ezta dukagu deus ez ere konturik; eztugu gaizki mintzatuagatik, eta mila erokeria eginagatik ere antsiarik. Zeren baitakigu, ezen adizkide direnaz geroz, [...]" (28 or.)

Jakina, zenbaitetan, aipamenean itzulpen zuzenak eskatutako kontestualizatze hutsetik sortutako ondorioa baino ez da<sup>428</sup> izango pluraleko lehen pertsona horren erabilera.

Pluraleko lehen pertsonaren erabilerak, hortaz, multzo berean hartzen ditu mezu-igorlea eta mezu-hartzailea, mezuari dagokionez igorlea ezin baita haren muinetik urrundu. Izan ere, perorazio atalean, maiz agertuko da formula orobiltzaile hori: "beraz, gauden erne" (59 or.), "behar dugu egun[...] enseiatu [...]" (440 or.),

Baina horrezaz gainera, erretorikoki elementu hau izan daiteke irakurlearekiko elkarrizketa planteatzeko lehen urratsa, urrats egokiena ez bairik gabe. Axularrek "gu-gure" bikotea erabiltzean, igorlea eta hartzailea argumentazioan sartzean, formalki "zu-zure" eta "ni-nire" elementuak deskonposatzeko oinarriak jartzen ditu berbaldian.

Handik aurrera, komunikazioaren bi polo hauek behar bezainbeste erabiliko ditu, normalean irakurlea mezura hurbilarazteko eta, nola, ez, haren baitan ahalik sakonen hunkitzeko. Beste pertsona gramatikalen erabilerak, azken finean, nolabaiteko forma dialogikoa baino ez diote emango testuari.

Edonola ere, pasarte eta kapitulu bukaeretan errekapitulazio edota perorazio moduan erabiliko da nagusiki pluraleko formula hau. Baina, kontuz, ez da beti horrela gertatuko: iharduera, bekatu edota akats batzuetan barneago eta erosoago senti daiteke autorea besteetan baino gehiago. Horrela, Axularrek ez du arazorik izanen "Beraz guk ere, Gero huni eguki behar diogu begia[...]" (45 or.), "Erraiten ohi dugu: benturaz egun hillen gara, benturaz bihar[...]" (64 or.), "Ezkaitezilla beraz gu ere gerokoan fida" (77 or.), edo "Beraz, dagoigun Iainkoari othoitz eta orazino, emaiten diogula ararteko bere ama Birjina" (366 or.) esateko, baina kontu handiz ibiliko da haragiaren bekatua bezalakoetan:

428 - Ikus, esaterako, 28. orrialdeko Krisostomoaren hitzen euskaratzea eta azalpena eta beheagoko "gure laungoikoak".

“Begirautzu, etzaudela emaztetan pensatzen. Zeren pensatze hartarik ethorriko zaitzu atsegin hartzea [...]” (370 or.), “Zeren halatan zeure buruari sosegamendu handi bat emanen diozu eta haragiaren bekhatutik begiratzeko ere birzgarren erremedioa edirenen duzu” (387 or.), eta “Halako hitzetarik behar duzu eskusatu zeure mihia, baldin nahi baduzu begiratu emaztetarik zeure burua” (396 or.).

Singularreko lehen pertsonaren erabilerak, bestalde, inoiz adierazi denaren aurka, ez du derrigorrez Axularren presentzia zuzena erakusten. Edo beste modu batez esateko, “ni” delakoaren inguruko formulazioen bat egoteak ez dio ezinbestez subjektibitatek eta orijinaltasun-kutsurik eskaintzen testuari<sup>429</sup>.

Dena den, egia da lehen pertsona gramatikal hori, testuaren hurbiltasuna lortzeko erabilia izateaz gain, doktrina arazoetan irristakor izan daitezkeen eremuetan nola-baiteko subjektibitatea eta, ondorioz, dogmatikarik eza, markatzeko erabili izan dela liburu erlijioso-aszetikoetan.

Axularren jokamoldea ez da salbuespena izango. “Uste”, “ikus”, “sinhetsi” eta horrelako aditzen erabilera subjektibotasun horren adierazle genuke. Hona hemen, esaterako, *subiectio* arloko galdera batzuen ondoren haren erantzuna:

“Othe lizateke nehor ere, heken artean, bizitze luzearen esperantza luenik? Edo zeren eztuten lehena atheratzen, askena izanen dela segur lizenik? Eztut uzte” (59 or.)

Oro har, lehen pertsonaren erabilpenaren kutsu subjektiboa formula ezberdinekin gauzatzen da, batez ere “jakin”, “uste” eta, gutxiagotan, “iruditu” aditzekin osatuak:

“uste dut ezen...” (294 or., 358, 390, 561, etab.)

“eztut uste ...” (339, 390, 519, ...)

“eztakit...” (324, 563, 614, ...)

“Haur nahi nuke iakin, hunen nago galdez, haur da ene gogoeta” (474)

“iduritzen zait ezen...” (474)

### Bigarren pertsona

Bigarren pertsona honen bidez, areagotu egiten da mezu-hartzailearen inplikazioa testuarekiko, berari zuzentzen baitzaio zuzenean mezua. Nabarmena da nola ez den agertzen taxuketa dialogiko honetan “zuek” formulazioa. Fikziozko elkarriketa singularrekotzat hartua izan den “zu” pertsonifikatu batekin burutzen da eta ez askorekin.

Sematikoki singularreko bigarren pertsona den horrek, esan beharrik ez dago, solaskide fiktizio baten tipologia hartzen du, edo, hobe esan, autoreak liburua taxuzterakoan aurrakusi duen irakurle/entzule teorikoaren irudi tipoa.

Normalean bigarren pertsona gramatikalaren erabilpena erretorikoa da erabat eta ustezko irakule tipoiari zuzentzean edozein irakurleri gerta dakiokiena pertsonifikatzen da “zu” horretan:

“Eskiribatzen hasten zarenean, ezin higi ditzatkezu erhiak, lothuak bezala daude [...] Baiña gero eta gero [...] azkenean bertze alderat beha zaudela ere, hitzen erdiak eskiribatzen baitituztu. Hala 429 - Eranskinetan ikus daitekeenez, horrelakoak dituzten pasarte zenbait zuzenean itzuliak izan ziren beste testu batzuetatik, askotan Axularren subjektibotasun delako hori zalantza nabarmenean geratzen delarik. Horietako bat dirudi honako honek: “Segur bezala dadukat, ifernura ioaiten diren gehienak [...]” (*Gero*, 75 or.). Granadarenean honela aurkituko dugu: “Creo verdaderamente que son innumerables las ánimas[...]” (Ikus eranskina).

ikhusiko duzu dendari baten etxean ere [...]. Garzelean sartzen zaituztenean, sarhu berri hartan, usna on duzu, kiratsa aditzen duzu, erraiak nahasten zaizkitzu, sentikor zara [...]” (91 or.).

Bigarren pertsonaren erabilera horretan gailentzen den aditz forma eta denborarik ez dagoen arren (testuak eskatu ahala agertuko dira orain-geroak), esan beharrik ez dago perorazioetan, atal bukaeretan alegia, nabarmenena eta irakurlearen baitara iristeko zuzenean agintera dela, exhortaziorako ohikoena alegia: “kotsidera ezazu”, etab.

Alabaina ez da faltako testuan zehar bat-batean argumentazioan darabilen pertsonaren hausketa eta irakurlea inplikatzeko bigarrena agertzea. Hori baino ez du egiten, esaterako, aztoarearen adibide hurbila testura dakarrenean: “Aztoarea eskuan *dadukazunean*, higitzen da, iharosten da, hegaldatzera apoderatzen eta oldartzen da [...]” (46 or.). Handik aurrera testuak hirugarren pertsonan jarraituko du berriro ere pertsona aldaketa egin arte, oraingoan pluraleko lehena delarik: “Hartzen dugu gogo, hartzen dugu borondate, obra onak egin behar ditugula [...]” (47 or.).

Axularrek edozein une baliatuko du (bai argumentazioan bertan nola peroratio delakoan) irakurlearengana iristen saiatzeko. Batetik, haren arreta jasotzea izango da bilatuko duena, baina, gainera, horrek etengabe ahalbidetuko dio exenplu-aipamenenn erreferentziak irakurleari bizkarreratzea, handik honek bere ondorio praktikoak atera ditzan. Hori baino ez da egiten honako honetan ere:

“Alferrak xoil dira hitztun eder, solhasturi handi, heken konpafiñan zarenean, ezta zure aldirik, zu baiña hek hobeki enzunak dira, hekentzat da audientzia guztia [...]. Ordea gero azkenean hek eskale, eta zu emaile” (44 or.)

Pertsona aldaketa hori ondo baino hobeto antzematen da San Agustinena den aipamen bat itzultzean hirugarren pertsonan ematen duenean: “Zahar gaixtoak, zahartuagatik, badu gogoa, indarra zaika falta” (93 or.). Eta, ohiko anplifikazioari ekinez, honela jarraitzen du: “Ahoa doi idekitzen du [...]”, berehala irakurlearen inplikazioa bilatu eta lortuko duelarik: “Ahoa doi idekitzen du eta idekitzen duzu” (93-94 or.) (lerropetuak gureak dira). Harez gero, testua bigarren pertsona “hurbilean” mantenduko da: “[...] eta guztiarekin ere arnegu eta iuramentu egiten hari zara, gorputza ezin jasan dezakezu, eta alabaiña amuruziaz mintzo zara [...]” (94 or.).

Berdintsu jokatu da liburu guztian zehar. Zertxobait aurrerago ere (50-51 or.) honelako formulazioa dugu: lehenengo egiazko fedearen deklarazioa (3. perts.). Baieztapenaren ondoan autore-irakurleen inplikazioa: “haur da egia, eta egia haur girstino garen guztiok sinhesten dugu” (50 or.). *Esaera Zaharrak* liburuko aipamenak egin ondoren, hirugarren pertsonarekin jarraituko da: “hala edireiten ditugu bada guc ere[...]” (51 or.). Baina bat-batean, lerro aldaketarekin batera pertsona aldaketa planteatuko du idazleak atalari bukaera ematen hasteko: “Nehorc ontasunera hersten zaituenean, eta gibela zaudenean, ihardesten diozu hala hersten zaituenari [...]” (51 or.).

Pertsona txandakatze honek etangabeko harremana eta hurbiltasuna sortaraziko du autore eta irakurlearen artean, liburuan tratatzen dena “guztiona” bailitzen, ezinbestean sartuta bageunde bezala, finean:

“Baiña guk eztugu hala egiten, egunetik egunera gabiltza [...]” (53 or.)

eta aurrerago, baina jarraian, berriro gezi zuzena irakurleari:

“Ikusiko duzu iende handi batzuen etxetan [...]” (54 or.)

Jakina, horrekin lortzen dena erritmo bizia baino ez da izango, irakurlea etengabe pentsatzera gonbidatzen duen erritmo arina.



Ohar moduan bada ere, azpimarratzekoa da singularreko bigarren pertsonaren erabilera *sermocinatio* formulen barnean. Horietako bat aipatzekotan, 560. orrialdekua aipatuko genuke. Bertan zukako tratamenduaren ondoren hitanoa agertuko da aingeru begiratzaillearen ezpainetan, segun eta nori zuzentzen zaion, Jainkoari ala arima galduari:

“Eta gero hartzen du arima hura, besarkatzen du, Iainkoaren aitzinera eramaiten du, erraiten dioela Iainkoari: Iauna huna non den zuk gomendiotan eman zenerautan arima; manatu nenduzun begira nezala; begiratu dut, sendorik, eta salborik bihurtzen deratzut. Errezibi ezazu bada, eta emozu huni zeure loria, eta niri ere, neure traillauren golardoa, eta pagamendua.

Ordea baldin arima hura, ilkitzen bada, bekhatutan dagoela, gorputzetik, baldin kondentzen bada, orduan, usten du bere Ainguru begiratzailleak, apartatzen zaika, eta apartatze hartan, erraite dio: Ha gaiztoa, ene nekharria, ala nik gaizki enplegan baitut hirekiko denbora. Amaren sabeletik iltki intzen pontutik, puntu hunetaraiño, bethi ere iarraiki natzain, ez natzain behin ere apartatu. Anhitz enseiu egin dinat, hire horretarik begiratzeko, eta orai daramanan bide gaixtoaren huts eragiteko. Baiña alferrik guztiak. Zeren nola baituen libertatea eta heure burua heure eskuko, hala egin dun heure plazera eta borondatea; garaitu naun, eztun nitzaz konturik egin; ez aiz nitzaz gobernatu. Galdu dinat nik neure trailla, eta bai hik ere, sekula fin gabekotzat heure burua” (560-561).

#### Hirugarren pertsona

Testu neutroan, hots, argumentazioan eta nolabaiteko egitura narratiboetan hirugarren pertsona izango da agertuko dena. Egitura narratiboa diogunean, zentzu zabalenean hartu nahi dugu, izan ere *Gero* liburuak ez baitu inolaz ere klasikoki narrazioz hartu izan den paramatza betetzen. Egitura “narratibo” horietan, ezer sartzekotan, exenpluetako narrazioak sartuko lirateke, ahaztu gabe horiek guztiak argumentazioaren parte garrantzitsu direla. Halere, hauek ere onartuko lukete gero haien barnean pertsona aldaketarik eta elementu dialogikorik.

Ildo horretatik, hirugarren pertsona hori baliatuz osatzen diren *sermocinatio* edo ustezko elkarrizketek oso adibide ederrak eskaintzen dituzte Axularrek testuratuak exenpluetan, non elkarrizketak bizitasuna eskaintzen baitio berez buztintusegi izan zitekeenari. Bizitasun horren adibide bat 84-85 orrialdeetakoan dugu. Bertan *sermocinatio* delakoa egokiro gauzatu agertzen da, taxuzko elkarrizketa gisa hain zuzen. Exenplua, gainera, Granadaren pasarte “paralelo” batekin erka daiteke. Halere, azken honenak, zeharkako estiloan idatzirik dagoenez, ez du inolaz ere lortzen Axularrenak duen arintasuna eta bizitasuna (erkaketarako ikus eranskina).

Edonola ere, pasarte horietako guztietako ezaugarri nabarmenena aditz “nagusiaren” (ekintzaren markatzailearen) hirugarren pertsonaren erabilera genuke. Estilo “neutroa” bilatuko luke egileak, argumentazioaren tonua eta exenpluen eredugarritasuna, neurri batean bederen, “objektibo” bihurtuko lituzkeena, zalantza doktrinalei inolako zirrikiturik uzteke.

#### 11.3.2.- BESTELAKO BALIABIDE ERRETORIKO HUNKIGARRIAK

Elementu dialogikoarekin batera, garrantzi handia hartuko du argumentazio aszetiko-erlijiosoan exenpluekin lotura estua duten irudien atalak. Besteak beste, prosopopeiari dagozkion baliabideak ditugu ikusmiran.

Prosopopeiaren arabera<sup>430</sup>, “no hablamos á cosas mudas é inanimadas, sino que á ellas mismas les atribuimos palabras y afectos humanos” (Granada, *Retórica*, 551b). Horretan oinarriturik, maiz asko idazle eta predikariek munduko kreaturei eskaintzen zieten hitza, berriro ere elkarrizketaren egituran sartzen zirelarik. Axular horietariko bat izango da.

Erabilpenari dagokionez, honela mintzatzen ziren erretoreak: “advíertase mucho que el usar esta figura sea pocas veces, y mírese muy mirado la persona que se induce, para que se le den sus palabras a su modo; que, si no se acierta en la propiedad, mejor es dejarlo” (Terrones del Caño, *Instrucción...*, 140). Izan ere, testuiguru teologiko-doktrinaletan arrisku egoerak sor zitezkeen oharkabea eta, lekukoen arabera, sortu egiten ziren maiztxo, besteren artean, predikaria Kristoren hitzak asmatzen hasten denean: amarekin dagoenean mintzatzen dena, etab. Horrelakoetan, prosopopeia erabiltzeko aholkua garbia zen: “en pocas palabra, muy propias, muy medidas, devotas y graves, y que salgan de corazón caliente; o callar” (Terrones del Caño, *Instrucción...*, 141).

Ez da *Gero*-n maizegi agertzen baliabide hau, eta agertzen denean ere ezin har daiteke guztietan Axularrenak bereak bailiren, irudiok modu beretsuan agertuak direlako beste idazle zenbaiten testuetan, eta ez bakarrik aipamen zuzenetatik jasoak direnetan.

Alabaina, interesgarria da Axularrek dagiena gogoratzea. Ildo horretatik, interesgarrienetako da seigarren kapituluaren eraikitzen duen prosopopeia anitza “munduko gauza guztiek kondentzen dute alferra” (34 or.) dioenean. Baiezpenaren ondoren, elementu desberdinen pertsonifikazioa agertuko zaigu, eredu gisa edo izandako Granadakoaren testutik modu ederrean aldentzen delarik. Izan ere, azpimarragarria da prosopopeia horietan gauzatzen diren mintzaldietako hizkuntz sena (besteak beste, hikako formarekin lotua dena). Hona hemen prosopopeia horietako bi:

“Igzukiak arrazoiñekin erran ahal diazaio beranduraino ohean datzanari: «Zerk aratza hor alfer-naghia? Nik atzo, hik baiño bide gehiago iragan nian, inguratu bainuen mundu guztia, eta orai ere, hi baiño goizago iaiki nauk»” (34 or.)

“Zuhaitzek ere erral ahal dezakete: «Eztakusazue nola gu ezkauden behin ere geldirik eta ez alferri? Nola hazten, handitzen, loratzen eta geure demboretan eta sasoiñetan fruituz bethatzen garen?»” (34-35 or.)

*Apostrofe* bezala ezagutzen den baliabideak entzuleria berbaldian sartzeko elementu gramatikalak erabiltzen ditu, agintera eta bokatihoa batik bat. Alabaina bokatihoa ez da izango Axularrek erabiliko duen forma; aginterak bideratzen du normalean testua eta bokatihoa edo behar zen tokian, aginterak betetzen du bokatihoaren hutsunea.

Edonola ere, apostrofea kontu handiz eta oso neurtuta erabiltzea aholkatzen da erretorika eklesiastikoan: “es menester no usar della, sino cuando el mismo sentimiento del corazón la arroja por los labios” (Terrones del Caño, *Instrucción...*, 139).

430 - Inoiz, erretoreen arabera, “prosopopeya es cuando se inducen otras personas como que ellas hablan en el sermón” (Terrones del Caño, *Instrucción...*, 140). Ez da ohikoena zentzu hau.

Ildo horretatik, bakanka baino ez da azalduko apostrofea alokuzio formapean, eta agertzen denean, testuari nolabaiteko aktualizazioa edo eskaintzeko erabiliko da. Alokuzioaren eremukoak genituzke “Zu izan zara, Etxauz, mendi Pirinioetan [...] (6 or.), etab.

Testuaren barne logikagatik beragatik esan daiteke ez dagoela hemen apostrofearen arloko zinegiterik (arrazoirik gabe zin egitearen aurka agertu baita Axular XIX. kapituluan). Bestalde, testuaren izaerak berak eramango du inbokaziorik eta exekraziorik ez erabiltzera.

Obsekrazio delakoa, berriz, oso egokia zen predikuetan: “despues de probado y amplificado el asunto cae muy bien la obsecracion, por la cual pedimos algo con ahinco á los oyentes” (Granada, *Retórica...*, 552a). Ez zen horrenbeste, irudiz, testu idatzietan, gutxiago agertuko baita XVII. mendeko literaturan, batik bat literatura kutsu eskatologiko-dramatikoa galtzen hasten denean. Axularrek ere gutxi du obsekrazio mailan, agian ezagunena “irakurtzaileari” zuzendutako atalaren bukaerakoa delarik: “[...] nitzaz ere ohoitz egiteaz, arren othoi, orhoit zaitezi” (20 or.).

Orobat, aginduen arloko adibidez beteta daude berbaldiaren perorazio gehienak, gorago kapituluaren barne egitura azaltzean ikusi den bezala. Adibideak normalean perpaus laburrez osatuak agertzen dira, mezua ezin sarkorrago bihurtzen delarik. Esan beharrik ez da, aditzak agintera forma hartu ohi du:

Zaren prestu, euzu konzientzia ona. Zaren konzientzia onarekin, ez etsairen, ez inkontruren, ez fortunaren, eta ez munduan den bertze perilen ere, etzara beldur izanen.(449)

Nolanahi ere den, afektuen mugiarazteko irudirik egokienak eta eredu dialogikoarekin ongien ezkontzen direnak esklamazioak eta galderak direla esan daiteke. Hauek biak izan dira literatura aszetiko-erlijiosoak maizen erabili dituenak eta irakurleak hunkitzera iristeko dramatismoa lortzen hobekien laguntzen dutenak. Horrexegatik, hain zuzen, erabili izan dira bi-biak berbaldi gutzian bukaera aldean, “konbertsioa” erdiesteko azken hitzak jaurtikitzen direnean.

Esklamazioa, oro har, sutua bada ere, kutsu bortitz hori areagotu egiten da jarraian bat baino gehiago eransten direnean: “es vehementísima aquella que consta de muchas exclamaciones” (Granada, *Retórica*, 551a).

Axularrek baditu horrelako zenbait. Hona hemen horietariko bizpahiru adibide:

“Itsutasunaren itsua! erhokeriaren erhoa! uste baituzu ezen gero, hemendik urthe baten edo biaren buruan, orai baiño bekhatu gehiago duzunean, hosinean barrenago zaudenean, eta orai baiño flakoago zarenean, aisekiago, eta errazkiago ilkitko zarela. Iltki bekizu erhokeria hori burutik! egotz ezazu zeure gogotik! eta sinhets ezazu geroago gaitzago izanen dela” (86 or.).

“Pontuaren latza! Pausuaren gaitza! Egitekoaren handia! Hersturare hertsia eta izigarria!” (559).

“Ha gau luzea, gau beltz, ilhun, izigarria, art-urratze gabea, oillariterik izanen eztena, sekulan argituko eztena, eta ez akhabatuko!” (599).

*Figurae sententiae* direlakoan artean, maizago darabil Axularrek *repetitio interrogationum* edo galderak bata bestearen ondoan jarririk. Galderak, Granadakoak zioen bezala, “tiene tambien fuerza y acrimonia, y es muy poderosa, no solo para mover los afectos, sino tambien para variar la oracion. Y es mas vehemente y elegante, cuando

en una misma serie de oracion fluyen muchos interrogantes distinguidos con ciertos incisivos ó miembros” (Granada, *Retórica*, 552a).

Bestetan baino gehiago, horretan emango du Axularrek pasarte luze asko. Hona hemen, *Gero-n* garrantzi handia duen irudi honen zenbait adierazgarri:

Kanpoan etsaiak, perilik eta asalduek dituenak, laster egiten du etxera, pausatzeraz eta bere buruaren seguratzera, ordea etxean ere etsaiak, atsekabeak, ithaizura, khea eta emazte gaixtoa dituenak zer egiten du? Non pausatuko du? Zer konsolamendu izanen du? Kanpoan etsaiak, etxean gerla, non edirenen du bakea? Non? Bere barreneko ganbaran, bere konzientzian, han behar du pausatu, han behar du konsolatu eta bere burua arindu eta alegeratu. Ordea baldin bere barreneko ganbara hartan ere, bere konzientzian ere edireiten badu etsaia, bekhatuaren ithaizura, khea eta eranzutea, zer egiten du orduan? Norako da? (428 or.)

Batek egin eta batek desegin, zer probetxu, trailla baizen? Bada halaber zer probetxu da, behin iaikitzeaz, baldin berriz erortzen bada, eta eroririk dagoela eta datzala, gelditzen bada? Zer probetxu da bide luzeari lotzeaz, gogo duen lekhura heltzen ezpada? Zer probetxu, untiak betherik eta kargaturik bela ongi egiteaz, baldin portura baiño lehen edo portuan galtzen bada? Zer probetxu etxearen hasteaz, akhabatzen ezpada? (466 or.)

Nolatan ahal daidiket nik hori? Garbituitut neure oiñak, nola bada likitstukoit? Erauntzi dut behin athorra lohia, nola bada berriz iauntziko dut? Biluzi naiz behin aztura gaixto guztietarik, nola bada berriz beztituko naiz? Utzi ditut behin, nola bada berriz hartukoit? Edo berriz hartzekotz, zertako utzi behar nituen? (471-472 or.)

Zer erranen dugu bada, emazte baten ondoan dabillanaz? Harekin hartzen den atsegin hura, guztiak ongi kontatzera, atsegin othe da, ala atsekabe? Iklusiko duzu gizon gazte bat; eta batzutan, are gaixtoago baita, zenbait zahar ere bai, gauak galdurik, onak gastaturik, gorputza deseginik, bere ohorea eta eginbidea gibelat utzirik, emazte bati darraikala. Eta berriz iklusiko duzu halaber bertze bat, emaztèz kontu guti eginik, dabillan bat. Orai bada hetarik bietarik, zein othe da aiseago, eta bere gogorago? Zeinek iragaiten othe ditu gau egunak geldiago eta malenkonkia gutirekinago? (514 or.)

Ordea zer da haur? Nolatan galdu da arima haur? Etzuen lainkoak hunen salbatzeagatik odol isuri, eta heriotze errezi bitu? Eta etzituen halaber eritzen zeneko medizinarik, eta erremedioak, Sakramendu sainduak ordenatu? Eta etzeratzun zuri ere, Ainguru saindua, begiratzeko kargua eman? Nolatan bada galdu da? Nolatan kondenatu da? (561-562 or.)

Galderen errepikapenak, ikus daitekeenez, mezua dramatismoaren azken punturaino eramatea izango du helburu zenbait pasartetan. Infermukoa, esaterako, horietako bat izango da Axularren liburuan:

Bada baldin hemengo erriari, hemengo gaua, hain fite iragaiten dena, hain luze iduritzen bazaika: Zer idurituko zaika ifernuan dagoenari, hango gau luze eterno, fin gabeko hura? Ha gau luzea, gau beltz, ilhun, izigarria, art-urratze gabea, oillariterik izanen eztena, sekulan argituko eztena, eta ez akhabatuko! Zer pena, zer dolore, eta ondiko izanen da, argituko ezten gau hartan, ez hemengo eriak bezala, ohe bero onean, baiña labe gori beroan, sugina gogorrean sekulakotzat, etzatea, eta egoitea? Arrazoinekin galdegiten du Isaias Profetak: *Quis habitabit de vobis cum igne devorante? Quis habitabit de vobis cum ardoribus sempiternis?* (Ia. 33). Halako lekhuari, hain su beroan, gar etemlean, nor egonen da? Nor biziko da? Nork iraunen du? Nork izanen du sorbaldarik sostengatzeko? indarrak isaiteko? Eta pairurik, eta pazientziarik sofrizteko? Orai hemen, den penarik ttipiena, su ihar batek, kilikatzen zaitu, asaldatzen zaitu, zer izanen da bada, suz eta kharrez, kanpoan eta barrenean, ariman eta gorputzean hartua, inguratua, eta burdin goritua bezala, goritua, eta sutua zaudenean? eta sekulakotzat hala egon beharko duzunean? Othe dugu zentzurik? Othe dugu adimendurik? Ala elheak, ametsak, edo gezurrak, othe dira hauk? Edo gurekin mintzo othe dira? Guri othe dagozkigu, ala bertzeri? (599-600 or.)<sup>431</sup>.

431 - Hain zuzen dramatismo ikaragarria lortzen duten lerro hauek Granadaren obran dute iturria (ikus eranskina)

Zenbaitetan diskurtsoaren bortiztasuna galderak eta esklamazio edo harridurazko esaldiak tartekatzen lortuko da:

Pontu hartan ethortzen zaitza arima tristeari gogora egundaino egin dituen falta guztiak: eta hanbat eta hain handiak direla ikhusririk, bihotza hersten zaika, hiltzen zaika: eta iartzen da bere buruarekin gogoetan, erraiten duela: Zer izanen da orai nitzaz? Zer bide hartuko othe dut? Salbatuko othe naiz? Pontuaren latza. Pausuaren gaitza; egitekoaren handia: hersturaren hertsia, eta izigarria. Zer egingen du orduan arima izi hark? Nor deituko du bere faboretan? Nork eskua emanen dio? Nor helduko? Nor lagunduko zaika? Nor bada? (558-559 or.)

Zabaldu nahi zuten mezuaren arrakasta lortzeko bestelako irudiak ere erabiltzen ziren oratoria sakratuan, hala nola galderak eta erantzunak jarraian barnehartzen dituen *subjectio* arlokoak:

Zer diozu Kain? Noren zara beldur? Nork hillen zaitu? Ez Adanek, ez Ebak. Zeren horiek zure aita-amak dira, eta oraino ezta munduan bertzerik. Noren zara bada beldur?

Adanek bekhatu egin zuenean, eta sentitu Iainkoak deitu nahi zuela, ihes egin zuen, gorde zen. Eta zergatik gorde zen? Othe ziakien zer nahi zioen Iainkoak? Bai baziakien (dio San Agustinek). Eta nondik ziakien? (434 or.)

Ohoiña zerk gibelatzen du, gibelatzen denean, ebastetik? Ez ahalkeak, ez neheregana dadukan amorioak. Zerk bada? Beldurrak (570-571).

Deskribapenei dagokienez, Axularrek aurkezten dituenak situazionalak izango dira gehienbat (objektu konkretuenak nekez aurkitzen dira bertan, ohikoak baitira testuratzaren direnak<sup>432</sup>) eta zerikusi handia erakutsiko dute lortu nahi den efektu hunkigarriarekin. Infernuarekin lotutakoak (besteak beste, sufrimenduen zehaztasunen argazkia, infernuko hotza ala beroa arazoari buruzko dilema, etab.) izango dira irudi orokor eraginkorrenak. Edonola ere, irudi hauek exenpluen arloan gertatuko dira maizen.

## 11.4.- BALIABIDE FONIKO-ERRITMIKOAK

Berbaldi suasorioak dituen berezko baliabide hunkigarriekin batera, prosaren eraketa formala bestelako baliabideekin ere osatzen dela azpimarratu behar da, prosari eta prosa mota horren xedeei beste modu batez izango ez luketen ezaugarriak eskainiko dizkien baliabideekin hain zuzen.

Baliabide guztien artean, lehenik eta behin -obraren izaerak aginduta- testuari nabarmenki isurtzen zaion hunkigarritasun-premiaren areagotzaileak agertzen badira ere, erritmikoki eta fonetikoki ere funtzionamendu berezia ekarriko diote prosa guztiari, eta, jakina, horrek izaera propioa obrari.

Mintzatu gara dagoeneko *Gero*-k berezko duen afektuen arloa nabarmentzeko Axularrek erabili bitartekoei buruz eta hauek prosari eskaintzen dizkioten ezaugarriez. Azal ditzagun orain alderdi fono-erritmikoari legozkiokeenak.

432 - Horietako elementu konkretuak bilatu nahi izanez gero, orduko euskaldunentzat erabat ezezagunak ziren piramideen deskribapena (ikus 26 or.) bezalakoak izango genituzke nagusienak. Dena den, normalean ez da horrela gertatzen. Elefanteak ere ezezagunak bide ziren eta egiten den deskribapen parentetikoa funtzional hutsa da, hots, testuaren beharrei begiratuz: "Elefantak (animalia handi bat baita)" (180 or.).

Metodologikoki, urdazubiarrak erabiltzen dituen baliabide edo edergarri fono-erritmikoen artean sailkapen franko egin badaitezke ere, horietako interesgarriena "errepikapen" printzipioan oinarritutakoa litzateke ziurrenik. Haren arabera, erraz asko egitura genitzake prosan azaltzen diren fenomeno nabarmenenak.

Alabaina, argitasunaren irizpidea eta proposatzen den ereduaren ahalmen analitiko-integratzailea hobetsiz (ik. Mayoral 1994, 36-37), bestelakoa izango da hemen azalpenerako erabiliko dugun sailkapena. Izan ere, "las estructuras retóricas se basan [...] en estructuras gramaticales, por lo que resulta apropiado basar su sistemática en los diferentes niveles habituales como la fonología, la morfología, el léxico, la sintaxis y la semántica" (Dijk 1983, 128). Hori dela eta, hizkuntz maila ezberdinen arabera eratuko da eredu hau, betiere ardatz gisa aipatu errepikapenaren printzipioa erakutsiko badu ere.

Hortaz, Axularrek darabiltzan baliabide edo edergarri fono-erritmikoak irudi<sup>433</sup> multzo hauen inguruan sailkatuko dira: batetik, irudi sintaktikoak, bigarrenik irudi morfo-fonologikoak eta, azkenik, esparru semantikoko irudiak.

### 11.4.1.- PARALELISMOAK

Maiz asko ulertze arazoak sortu izan ditu hitz honek, besteak beste literatura espezializatua erretorika klasikoan ez bezalako definizioak hartuz joan delako azken urteotan. Nolanahi ere, gaur egun irudi isotaktikoen artean kokatzen den arren<sup>434</sup>, terminologia arazoak ahalik gehien ekidin ahal izateko, *paralelismoa* ondoko definizio honen arabera erabiliko da hemen: "es la colocación «en paralelo» de sonidos, de palabras, de formas gramaticales, de estructuras sintácticas, de cadencias rítmicas: de los componentes, en suma, de todos los niveles de la organización del discurso" (Mortara Garavelli 1991, 233).

Ondorioz, paralelismoen konfigurazioak isokolon eta homoioteleuton izeneko irudiak hartuko ditu barnean ezaugarri nagusi gisa. Edonola ere, ezin da ahaztu anaforak, epiforak eta bestek eskema paralelo horietaz baliatuz betetzen duten funtzioa eta, hortaz, paralelismoen esparruaren barnean kokatu behar direla irudi erretorikoez ihardutean.

Formalki, paralelismo egiturek, hau da, eskema berdintasuna edota antzekotasuna dutenek ("berdintasun" kontzeptuaren oinarritzko premisa, alegia) gutxienez bi osagai edo atal dituzte, osagai horien arteko lotura elokutiboa errepikapen printzipioan oinarritzen delarik.

Ildo horretatik, eta funtzionalki paralelismoaren erabilerak mezuaren intentsifikazioa lortzea bilatzen badu ere, ikuspuntu estilistikotik parametro erritmiko bereziz tindatzen du prosa.

Hau guztia *Gero*-n atzematen da, zalantzarik gabe esan baitaiteke paralelismoa dela Axularren prosak estiloaren aldetik duen ezaugarri nabarmenena. Testuan barrena ikus daitekeenez, eurrez baino gehiago, etengabe darabilen formula da paralelismoen hau eta, normalean, antitesiaren inguruan eratu.

433 - Gogoan hartu *Irudi* hitzak, gaurko analisi erretorikoen ildotik, edergarrien ohiko fenomeno guztiak hartuko dituela barnean, ohiko tropo eta irudi klasikoaren artean inolako bereizketa metodologikorik egin gabe.

434 - Batzuetan isokolonarekin identifikatuz, bestetan isokolonetik bereiztuz baina honen sinonimotzat eman den parisosiaren sinonimo gisa, etab.

Erabilpenaz den bezainbatean, halere, Erdi Aroko "ecclesiastica consuetudo" delakoaren bidez ihardutea du gogoko Axularrek. Horrela, inoiz erritmo argumentatiboa bidera zezaketen ereduaren aurrean, berak erabateko egokitzapena egiten du, testuaren izaera zeharo aldatuz. Adibide bat genuke honako honetan:

"Y así como el que se está ahogando en la mar, sumido ya debajo las aguas, sin hallar sobre qué hacer pié, tiende muchas veces las manos á todas partes en vano, porque todo lo que aprieta es agua líquida y deleznable que le burla y engaña, / así acaecerá allí á los malaventurados cuando estén ahogándose en aquel piélago de tantas miserias, agonizando y batallando siempre con la muerte, sin tener arrimo ni consuelo sobre que puedan estribar" (Granada, *Memorial...*, 206b).

Axularrek honela eskainiko du pasarte:

"Itsas zabalean erortzen denak, badarabiltza zerbaiti lothu nahiz eskuak, hersteintu: baiña alferrik. Zeren eztu linburtzen, eta itzurtzen zaikan ur enganagarririk baizen edireiten.// Hala gerthatzen zaie bada, ifernu zabal, hondar gabean, erortzen direnei ere. Eztute edireiten non oiña fintka; eztute edireiten zeri lot; eztute edireiten girthaiñik, esku-tokirik, sostengurik eta ez esperantzarik" (*Gero*, 598)

Granadarena inolaz ere gutxietsi gabe, *Gero* liburuan zehar Axularrek erakutsiko duen ereduak honako honetan nagusitu den paralelismoaren teknikaren ildo beretik jarraituko duela baiezia daiteke.

## 11.4.2.- ARLO SINTAKTIKOA

### 11.4.2.1.- Isokolona

Isokolonaren definizioaren arabera, bi edo testu segmentu gehiagoren artean luzera eta egitura sintaktiko berdintasuna ulertu ohi da. Ikusten denez, bada, arlo sintaktikoko irudi baten aurrean gaude.

Erabilera handiko irudia da hau bai literatura idatzian zein ahozko tradizioan, baina batik bat esparru erretorikoan eta, honen barruan, oratoria erlijiosoan bereziki. Zer esanik ez dago, beraz, Axularren kasuari dagokionez.

Honelako irudi batek ezinbesteko duen plurimenbrazio egituraz mintzatzean, eredu bi dira *Gero*-n beste guztiei nagusitzen zaizkienak: bi eta hiru atalekoak hain zuzen. Hortaz, bimenbrazioak eta trimenbrazioak izango dira Axularrek gehien erabiliko dituenak. Kortazarrek argitaratzean duen obra batean dioenez, "el estilo de Axular se basa en la importancia concedida a dos rasgos básicos de la prosa barroca, que provienen del renacimiento: el uso de las bimenbraciones y, sobre todo, de las trimembraciones" (Kortazar, prentsan).

Atalbikoak, esaterako, formulazio ezberdinak hartuko dituzte, maiz asko eredu parataktikoetan zein asindetikoetan oinarriturik agertuko direlarik (ikus egitura sintaktiko erabilienei gogoko eskainitako atala):

"Hala bada lainkoaren zerbitzuan ibili nahi dena ere lehenbizian  
horzki da,  
zurrun da,  
hotz  
eta  
nagi da" (490 or.)

Formulazio epiforikoa hartzen duten eredu hauezaz gain, bereziki azpimarratu nahi genuke egitura asindetikoetan Axularrek egin ohi dituen lotura anaforikoak, horrelakoak sarritan agertzen baitira obran barrena erritmoaren zentzazioa areagotuz:

"Ordea eneak dira faltak, enea da hobena" (3 or.)

"Orai hamar bekatuekin dihardukazu, gero ehunekin iharduko beharko duzu. Orai urthe baten edo biaren usantza gaixtoa duzu, gero hobeiena edo berrogeiena izanen duzu" (84 or.).

"Onek, on guztiak, gaixtoek gaitz guztiak.  
Onak bethi ongui, gaixtoak bethi gaizki" (574 or.)

Bi ataleko isokolona erakusten duten egitura ez-narratibo parataktikoak gogoko ditu Axularrek antitesiak burutzeko:

"Iustizia min da, eta garratz, eta miserikordia gozo eta ezti" (137 or.)

Bestalde, gorago aipatu konparaziozko egitura sintaktikoaren arabera isokolonak sarritan agertuko dira obran zehar:

"Eta nola bertze harrietarik baita preziatuik baiño frankoago,  
hala dela halaber kondenatuetarik ere salbatuetarik baiño gehiago" (142)

"Nolako baita ehaiten den ehuna, eta oihala,  
halako izanen da oihalaren albenia, eta bazterra ere" (215)

Bimenbrazioetan luzera guztietako perpausak aurki daitezke oro har. Edonola ere, egitura berdintasuna erabatekoa izan arren, atal bat bestea baino luzeago gerta daiteke betiere konplexutasunaren arabera, hots, atal luzeak besteak ez dituen hainbat elementu barnehar ditzakeelako hain zuzen (erlatibozkoak, etab.):

"Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa.

Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinelan, eta begiraille bezala, iratzarrik, dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme" (5-6 or.)

Edonola ere, bimenbrazioez gain, testuan ez da bestelako plurimenbraziorik ere faltako, Granadakoak zioen bezala, "iienen mas gracia cuando son de tres ó tambien de cuatro miembros" (Granada, *Retórica*, 598a). Horrelakoak elipsi kontestualen (*zeugma*-z, alegia) baliatzen dira maiz asko, aditzaren ezabaketaz batik bat:

"Zen ederrera, egin zen itsusienik / bere gogarena gaizkienik / Onhetsiena, gaitzetsienik / etagorena behehenik" (140 or.)

"Zaharra ezin barur diteke, / belhauniko orazinotan ezin dagoke, / erromerian ezin dabilke, / Finean zaharrak, bere zahartasuneko eritasunekin eta arrazadurekin, penitenziatzko obrarik ezin daidike" (180 or.)

"Zahartzean begietako bista laburtzen da, / beharrietan gorreria egiten da; / belhaunetan hezueria iartzen da, / indarra gutitzen da, / apheetitua galtzen da, / loa ioaiten da, / fikhara ethortzen da, / larrua zimurtzen da, / ilea urdintze da, / burua karsoiltzen da, / hatsa kharasten da" (182 or.)

Era berean, honelako plurimenbrazioetan beherago ikusiko den egitura anaforikoak garrantzi handia izan ohi du atalen arteko lotura gisara:

“Ezta gutzitzerik eta ez berretzerik;  
ezta soberainiarik eta ez eskasiarik;  
ezta inorantziarik eta ez ez nuen usterik” (111 or.)

“Nahi baduzu geldi dadin etsaia, geldi zaitzei;  
nahi baduzu ixil dadin, ixil zaitzei.  
Nahi baduzu sua iraungi dadin, egurrak edeki iatzotzu” (293 or.)

Guztiarekin, erabateko paralelismoa gauza ohikoegia ez bada ere, badu Axularrek horren adibide gehiagorik, besteren artean sarri aipatua izanagatik testu antologietakoa dirudien trikoton hau:

“Zamaria, gazte deino hezten da.  
Haragia berri deino gazitzen da.  
Zuhaitza tipi deino birlandatzen da” (87 or.)

Oro har, begi bistakoa da, paralelismoa sintaktiko hauetan paralelismo lexiko-semantikoa gertatu ohi da, maila bereko berdintasuna ere eman daitekeelarik (elementu zenbaiten errepikapenaren bidez: aditza bera, etab.).

Adierazia dugu dagoeneko egitura berdintasunak berezko baliabideak erakusten dituela horrelakoetan ere. Orotara, elementu errepikakorak izango dira gailenduko direnak: batzuetan lexikoa bera, anaforak eta epiforak eta, ezaugarri nagusi bezala, elementu homofonikoa, hots, homoioteleutona.

Inoiz, paralelismo lexiko-semantiko hauek azken muturreraino eramaten dira eta ia errepikapen huts bilakatzen. Horrela, baliabide erretoriko hau kapitulu hasieran esandakoa berriro ere gogorazteko eta mezua irakurlearen gogoan iltzaturik ixteko erabili ohi du Axularrek. Hona hemen horietako bat kapitulu hasierako testuinguruan kokatua:

“itsutcea, gogortcea, ez ansiatcea: eta ahalquea [...] galduric, doillorqueriaz preçatcea loriatcea eta sendagailla eguitea” (96)

eta kapituluaren amaieran:

“itsutcea, gogortcea, eta azquenean, ahalquea galduric hartçaz preçatcea, loriatcea, eta sendagailla eriztea” (110)

Erretorikak aholkatzen duenari ezer kendu gabe, begi bistakoa da horrelakoak ahozko tradizioaren edo, nahi bada, kate mintzatuaren (=berbaldiaren) errekurtso laburbiltzaile eta oroitarazle nabarmena direla. Axularren lanbidean erabili behar ziren horietakoak, hain zuzen ere.

### 11.4.3.- ARLO SEMANTIKOA

“La retórica clásica se ocupaba sobre todo de la palabra y del grupo de palabras y dedicaba una atención mucho menor a la sintaxis y a la semántica de oraciones y secuencias enteras”

(Dijk 1983, 128)

Aurrekoarekin estuki loturik, arlo semantikoko irudiak genituzke aipagarri, batik bat planteamendu antitetikoei eta hitz multzoei orokorrean eta sinonimiari bereziki dagozkienak.

Egia esan, asko mintzatu izan da Axularren hizkuntz joritasunaz, nahiz eta ez horrenbeste aberastasun horrek zuen funtzioaz. Sinonimoen erabilera oparoak, esaterako, hizkuntza normalizatuetakoa idazlanetan ez bezalako garrantzia hartu bide du Axularren obran, baina zenbaitetan erraz pentsa daiteke autore ezberdinek egotzitako asmoak baino ez direla urdazubiarraren liburuan ikusten bide dituzten funtzioak.

Hizkuntz normalduetan helburu erretorikoa eta aberastasun eta zehaztasun asmoak badaude ere, Axularrenean ez omen da horrela suertatzen, beste ezer baino gehiago euskalkietatik barna zabaldu nahia edo agertzen delako haien ustez; muga dialektalen gainetik ulertua izateko gogo hutsa omen.

Inolaz ere, analisi zehatz batek beste zerbait adieraziko liguke. Izatez, ez dirudi funtzio bakar batez hitz egin litekeenik, anitzez baizik. Edonola ere, zinez pentsa daiteke anitztasun horretan badela nolabaiteko lehentasunik eta, era berean, funtzio batzuk beste batzuen aurretik agertzen direla, betiere balorazioen arabera.

Oro har, funtzio nagusi horiek hirutara muga uste litezke. Batetik, testua behar bezala ulertarazteak eskatzen zuen argitasuna eskaintzea genuke. Irakurle xeheari mezua inolako zalantza edo anabasarik gabe hel zekion, idazleak testua ahalik argien utzi beharra zuen. Funtzio honek bat egiten zuen erretorikaren ohiko baliabide klasiko batekin, aplikazioarekin hain zuzen. Testuari argitasuna emateko ezezik, perpaus puztutze errepikakor horrek irakurlearengana xede desberdinekin iristeko ere balio zuen. Liburu aszetiko batean mezua buruan “iltzatzea” ezinbestekoa bada, zer esanik ez dago irakurlearen bihotza hunkitzeko eta mugiarazteko (*movere*) premiaz.

Pentsamenduen eta perpausen aberastasun erredundanteak eta, zenbaitetan antitetikoak ere funtzio nagusi horiek lituzke.

Alabaina, pentsamenduen alboraturik, letra hutsaren esparrura jaistean, funtzio horiek aberastuta agertzen dira benetan XVII. menderaino iritsia zen planteamendu klasiko orekatzaileekin.

Iadanik adierazia dugun bezala, baliabide metriko zehatzik ezean -ez baikara bertsogintzan edo poesian ari-, prosak bestelako elementuen beharra du erritmoa lortzeko, nolabaiteko zentzazio erritmikoa eman dezaketen egituren premia hain zuzen: egitura errepikakorrena.

Aurreko atalean ikusi legez, eredu sintaktiko paraleloak dira horretarako elementu erabiliena. Baina, era berean, aitortu beharrekoa da ohiko bihurtuko dela prosaren historian zehar kategoria bereko hitz multzok (sinonimo zein antonimo, normalean; sintagma osoak zenbaitetan) ahalbidetzen dituzten barne-paralelismoen esparrura jotzea.

Planteamendu horren arabera, beraz, berbaldiaren erritmoa bera izango da hizkuntz joritasuna eskatuko duena. Horrela, paralelismoak berbaldiaren erregulatzaile erritmiko nagusi gisa agertuko dira eta hitz multzoak (sinonimoak edota arlo semantiko bereko hitz multzoak, batik bat) perpausen erritmoaren orekatzaile modura.

#### 11.4.3.1.- Sinonimiaz

Semantikak sinonimiaren inguruan daraman eztabaida teorikoari -ba ote da egiazko sinonimiarik?- erantzun praktikoa emanez, erretorikak esanahien “kidetasunez” eta hurbiltasunez mintzatzea nahiago du erabateko egokitzapenez eta identitateaz baino. Beraz, argi da modu zabal eta ez-mugatuan ere mintza daitekeela sinonimiaz ihardutean.

Hemen erretorikaren zentzu ireki horretan ulertu eta tratatuko da sinonimiaren irudia.

Erabilpenari dagokionez, ezaguna da ezen "es quizá uno de los artificios de más arraigada tradición y difusión en toda suerte de manifestaciones textuales y a lo largo de todas las épocas y tradiciones literarias" (Mayoral 1994, 257). Areago, "el fenómeno en cuestión -darraio- se presenta como uno de los artificios de mayor generalidad, intensidad y difusión de todas las manifestaciones textuales del periodo áureo, tanto en prosa como en verso". Agian horrexegatik, hain zuzen, ez zen sinonimia erretorika eklesiastikoaz arduratu ziren prezeptu-emaileek -Trentokoaz geroztikakoek, batik bat- gogokoegi zuten irudia, akuilatzekoa baino gehiago balaztarazi beharreko fenomeno gertatzen baitzen haren bidez sortu hizkuntza puztua.

Luis Granadakoak, esaterako, garbiki mintzo zen sinonimoen gehiegizko erabilpenaren aurka: "conviene advertir al predicador, que no cargue á una misma sentencia de muchas voces sinónimas, sino es que haya de ponderar una cosa, ó explicar alguna sentencia obscura, que no puede bastantemente expresarse sino de esta manera" (Granada, *Retórica*, 584-585).

Areago, sinonimoak eurrez zerabiltzatenek euren kalterako egiten omen zuten: "Lo que con poca advertencia hacen algunos, que juntan temerariamente muchos vocablos de igual valor: cosa con que el mismo predicador se desacredita, dando muestras manifiestas de vanidad y afectacion" (Granada, *Retórica*, 585a).

Maiz asko, beraz, bertute bat baino gehiago bekatu larria izan zitekeen, Granadak berak gogorazten duen bezalaxe: "Ni pecan ménos los que, deseando lograr fama de elocuentes, amontonan sin discreción muchísimos vocablos, que significan lo mismo; para hacerse admirar del imperito vulgo y necio auditorio, con esta facilidad de hablar y lijereza de lengua, siendo así que nada puede haber mas contrario á la elocuencia" (Granada, *Retórica*, 600).

Bide beretik doaz Terrones-en hitzak. Izan ere, haren ustez neurtu egin behar da hiztegia; gauzak, argumentuak, azalpenak behar den argitasunaz eskaini behar dira, ez gutxiago ez gehiago; gutxi mintzatzeagatik gauzak argitu gabe uztea bezain kaltegarria litzateke gehiegikeria bera. Terrones del Cañok zioen bezala, "que no se han de decir muchos sinónimos; basta un vocablo o dos para una cosa" (Terrones del Caño, *Instrucción*, 130 or.).

Oro har, eta ahal zen neurrian bederen, hitz eta kontzeptuen arteko erlazio biunibokoa bulkatu nahi izango zuten erretoreek obra erlijiosoetan, inolako nahasketarik -fedezkorik, behinik behin- eta behar ez zen hanpadurarik ez gehiegikeriarik ere sor ez zedin.

Badirudi, halaz guztiz, urdazubiarra ohiko bide klasikoetatik abiatu zela bere prosa taxutzean. Oro har, bada, egitura paraleloen errepikapena suposatzen zuen ereduak izan zen Axularrek oraingoan ere onetsitakoa.

#### 11.4.3.2.- Sinonimiaren erabilera

Joera zabala atzematen da *Gero*-n: erabateko -erlatiboki hartuta, goian adierazi bezala- sinonimia egiten duten bikoteetatik hasita intentsifikazio semantikoa dagiten egitura plurimenbre desberdinetako osagaietaraino, betiere tartean geratzen diren bimenbrazio ez-sinonimikoegiak eta plurimenbrazio sinonimiko estuagoetatik iraganik.

Egia esan, Axularren sinonimia-zaletasuna liburuaren izenburu luzean bertan antzematen da. Ez bide zuen askietsi, esaterako, Etxeberri Ziburukoak liburuaren banaketarako erabili formula motza ("[...] guztia bi partetan bereçia"). Horretan Axularrek beharrezko nabaritu zuen hitz bikotearen beharra: "bi partetan partitua eta bereçia", aurrerago ere antzeko zerbait gertatu zelarik: "Bigarrenean quidatcen da, eta aicitnatcen [...]", etab.

Zenbaitek mantendu izan du Axularrek liburuaren xede transdialektalak - "badakit [...] ezin heda naitekeiela euskarako mintzatze molde guztietara" delakoan oinarrituz- areagotzeko hartu zuela sinonimiaren aldeko jokamolde "adierazgarri" hori. Haren praktika erretorikoak, aldiz, garbi asko erakusten du gakoa ez datzala horretan, ez baitzen hori, itxuraz, Axularrek bilatzen zuena. Izan ere, euskalki aniztasunaz ohartuta egoteak ez zekarren berez eta ezinbestez, ondorio gisa, ahalik gehien irakurketarako baliagarri izan zitekeen hizkuntz planteamendu oro-hartzailerik, nahiz eta arlo horretan ere lagun zezakeen. Adibideetako interesgarrienak "Irakurtzaileari" zuzendutako hitzaurrean aipatzen dituen sinonimia kasuak lirateke: "mintzatze molde" desberdin haietatik guztietatik bikote bat bakarrik erabiliko du gero obran zehar: aitonon semea - zalduna (ik. 10.2.2.1 atala).

Badirudi, beraz, Axularrek ez duela sinonimia aholku, arau eta bide erretorikoetatik at planteiatzen eta, *Gero*-ko fenomeno sinonimikoaren aurrean, agian aplikagarri gerta litzatekeela Mitxelena Mendibururenean ikusi zuena:

"Euskalkiei dagokienez, ez dakit noraino Mendibururen *bikoteek* bazter batzuetako eta besteetako euskararen arteko osina gainditu nahi luketen edo, horren premia lehen bezain nabarmena izanik orain, zenbaitek ahaztua daukan arren, erretorikari zor diogun hitzen parekatzea..." (Mitxelena 1982, LXXXII) (azpimarrak gureak dira).

Hortaz, sinonimia erretorikaren baliabide hedatu bat baino ez; normalean mezua hobeto ulertaraz zezakeena, baina nagusiki aplikazioerako tresna. Horrezaz gainera, jakina, orekarri ezin egokiagoa eritmoaren finkapenean.

Horrela, eskura zuen lexikoaren aberastasuna erakutsiz, serie sinonimiko bitarrak eta hirutarrak -hauek maizago, ohi bezala- nagusituko dira haren obran. Ondorioz, hiru elementu semantikoki berdintsuz (izen, adjektibo, aditz,...) osatutako multzoek markatuko dute prosaren oinarriko eritmoa. Paralelismo sintaktikoetan agertzen duen joera bezalakoa hain zuzen, baina hemengo hauetan, azken osagai bien artean *eta* emendiozko juntagailuaren presentzia konstateago edo izanik.

Jakina, honekin Axularrek ez zuen ezer berririk asmatzen; errekurtsio klasiko erabili baino ez zuen egin, erretorika latindarrak gogoko zuen ereduak eta XVI. mendeko inguruko hizkuntzetako prosa nabarmenkiro karakterizatzen zuen baliabidea<sup>435</sup> hain zuzen.

Adibideen kasuistikan murgilduz gero, urdazubiarraren prosan nekez aurkitu ahal izango dira elementu erritmikoki esanguratsuak bakanka, plurimenbrazioak osatzen baizik. Eta horien artean, esan bezala, hirukoek lirudikete Axularrentzat orekatuenak, mezua azpimarratzeko eta esaldia erritmikoki ongien ehuntzeko balio dutenak, batik bat bukaeretan:

<sup>435</sup> "Este curso lento de la palabra, este deleite moroso que se entretiene a cada paso en la yuxtaposición de sinónimos, es sin duda, el carácter más saliente de la lengua de casi todo el siglo XVI. Tiene de humanismo el apoyarse en el estilo de Cicerón y de otros oradores latinos, que también gustaron de esta repetición de sinónimos y otras tautologías; y tiene de hispanismo el responder a la natural facundia española" (Menéndez Pidal 1947, 67).

“Zeren nola bat bedera bakearekin lohakartzen, ez-ansiatzen eta gorputzaren plazeretara emaiten baita,

hala gerlekin, etsaiekin eta kontrastekin ematen, iratzartzen eta axolduritzen da” (27)

“Eta halatan da gure Iainkoa ere hetarik gutiziosago, desirosago eta zaleago” (171)

Zentzu zabalean ulertutako sinonimia arloko elementu asko elkartzen direnetan ere, Axularrek bortxatu egin ohi du arlo semantikoa perpausaren orekaren faboretan eta erritmo hirutarra mantendu ahal izateko:

“Gaiñerako guztia, Iainkoak bertze munduan, denboraren buruan, bere miserikordiaz, gaixtoen alderakotzat usatuko duela erraitea, gogoratzea eta uste izaitea da erhokeria, enganamendua eta iende galduen desirkundea, kontua eta pensua” (619)

Alabaina, hiru atalez osatutako plurimenbrazioen nagusitasunak ez du kentzen testuan zehar arrunt bilakatzen diren bikoien presentzia, oso gogoko baititu horiek ere Axularrek, haien presentziaren maiztasunak adierazten duen bezala:

“[...] baiña gainerakoan, ezkara deusetako, lurreko fruituen eta onen iateko baizen” (39)

“Beraz [...] arrazoiekin edukiko dugu guk ere fidantzia handia eta esperantza beroa, geure Iainkoa baithan eta haren miserikordian” (127)

“Zeren orduan da Iainkoaren faborearen eta laguntzaren sasoiña eta puntada” (129)

Bikoteka eratzearen arrazoa, dena den, sinonimia estuan<sup>436</sup> letzake nagusiki, izan ere aurkitu ditugun adibiderik gehienak erabateko -“erabatekotasun” hori erlatiboki hartuta bada ere- sinonimiaren alorrekoak dira ehuneko handi batean. XII. kapitulua erakusgarri gisara harturik, esate baterako, honelakoak izango genituzke etengabe, ia bestelakoren tartekatzerik gabe: “onduko eta prestatuko”, “irabazia eta aitzinamendua”, “obra on [...] eta [...] meritu”, “bekhatu eta gaixtakeria”, “ezta bihurtzerik eta ez erdiesterik”, “illetsu [...] eta xerlotsu”, “eztu esku-tokirik eta ez lotzeko girthainik”, “higatzea eta akhabatzea”, “iuntatzen eta iosten”, “lothurik eta bat eginik”, “orhoitzapenik eta pensatzerik”, “preziatua eta baliosa”, “estimatzekoa eta ezertan edukitzekoa”, etab.

Nolanahi ere den, badira *Gero*-n barrena lau osagaiz eraturakoak ere, nahiz eta bakanka baino ez agertu. Inoiz -ez, beraz, ohiko- elementu gehiagorik ere ediren ahal izango da, sei elementuz osatutako esaldi hau bezala:

“Ordea gelditzen den seiñalea, marka, notha, kulpa, zorra eta obligazinoa sekulakotz gelditzen da” (613).

Halere, testu-segmentu edo esaldi berean plurimenbrazioen arteko konbinaketak ematen direnean, normalean hiru elementukoa izan ohi da besteei gailentzen zaiena, honako adibide honetan ikusten den bezala:

“Eta nola zuhaitzak bere dauden lekhetarik higitu gabe eta trabailatu ere gabe, bere azpiko lurraren gozoa eta gizentasuna,

beregana, bere erroez thiratur eta edoskiz, hazten, handitzen eta mantentzen baitira” (24)

“Guztietan zabilta eta gabiltza nahasiak, errebelatuak eta huts eginak” (149).

436 - Batik bat bi osagaik osatutako multzoetan gertatu ohi da erabateko sinonimia hau. Printzipioz eta praktikan, zeharo berdina dirudi hitzek eskaintzen duten informazioak, ez baita ezer berririk eransten: “erhoturik eta zoraturik” (537), “nekhatu eta unhatu” (553), “izitu eta ikaratu” (572, 573), “kulpan eta hobenean” (592), “etsitua eta desesperatua” (620), etab.

“Eta geldinuko dira alde guztiz

dolutuak,  
etsituak,  
deskonsolatuak  
eta

nehondikan ere

desesperatuak,  
erremediorik,  
konsolamendurik  
eta

esperantzarik ez tuen bat gelditzen den bezala” (607)

Orobat hiru elementuetako multzoekin osatuko dira gero urdazubiarraren prosa nabarmenduko duten “jauzi” ezagunenak. Adibide bezala honako hau genuke hitz jauzien artean argigarrienerako bat:

“[...] naturalezak berak ere anhitz

donu,  
dohain,  
eta  
abantail suertez

dotatu,  
hornitu  
eta  
konplitu baitzaitu,

adimendu eder bat,  
memorio handi bat,  
eta

borondate

onera,  
ohorera,  
eta  
prestutasunera

erori bat,  
isuri bat,  
eta

eman bat eman baiteratzu” (9 or.)<sup>437</sup>

Azpimarragarria da hotsen jolasarekin batera, eta testu-segmentuaren erritmoaren barnean isosilabismoa nagusitzen ez denetan, hitzen luzerari, hots, silaba kopuruari Axularrek jartzen dion arreta, katearen hitz motzenak hasieran eta luzeagoak ondoren doazelarik:

“Errespueta haur hunein

hotza,  
motza  
eta

gogorra entzun dezatenean [...]” (606)

“[...] gu gara lainkoaren lur

landua,  
aphaindua  
eta

trabailatua” (172)

Jakina denez, erretorikak *ordo naturalis* delakorako arautzen duen “ley de los miembros crecientes” izenekoaren aurrean geundeke, besterik gabe (ik. Mortara Garavelli 1991, 122-hk). Eskuarki lege honek ez luke salbuespenik, ez bada, noski, arlo semantikoan.

437 - Gramatikalki, bigarrena (“adimendu...baiteratzu”) aurrekoaren esplizitaziotzat eta menpekotzat hartzen da. Beste modu batez ere har zitekeen, hots, bigarrena aurrekoaren mailakotzat. Dena den “jauzia” hobe ikusten da modu honetan.

tikoarekin loturik doan irizpideren batengatik, hau da, osagaien esanahiaren intentsitateagatik. Horrelakoetan, konkretutik abstraktura, partikularretik generalizaziora,... (edota alderantziz) doazen hitz serietan esanahiak izan dezake lehentasuna eta ez hitzaren luzerak.

Era berean, interesgarria da aurreratzea egiturotako kidetasun morfosintaktikoak direla medio, Axularrek eurrez darabilela hitz bukaeretakoa homofonia. Horrela, homioptotonaren errepikakortasun fonikoaz baliatu ahal izateko, multzokideei, guztiei, kasu atzizkia edota dagokien modifikatzailea erantsi ohi die: “elhorriz, arantzez eta belhar gaixtoz” (568), etab. (ikus 11.4.4 atala).

#### 11.4.3.3.- Ditologia sinonimikoa

Gorago aurreratu bezala, hitz bikoteek garrantzi berezia izango dute bimenbrazioetako elementurik oinarritzkoena diren heinean. Ezaugarri gisa, azpimarratu behar da oso loturik doazela perpausen egitura bimenbreekin, hauen menpe baleude bezalaxe. Bestalde, morfologiari dagokion bezanbatean, atalbiko egitura hauek izenez, adjektiboz eta aditez osatuak daude nagusiki.

Baina guri hemen interesatzen zaigunerako, benetan ohargarria da hitz bikote horien bitartez antzeman eta ondoriozta uste daitekeena, izan ere zenbait bikote fosildurik bezala edo agertzen baitira testuinguru eta orrialde desberdinetan, sinonimia estatikoaren ezaugarri gisa. Aldi berean, kideek elkarren osatzaile edo dirudien adiera erakutsiko lukete.

Ondorioz, Erretorika klasikoak bere kanonean identifikatu ez zuen ditologia sinonimikoa hau ezin garbikiago mintzatuko litzaiguke Axularrek horien bidez bilatzen duen efektuaz, hots, anplifikazio erredundanteaz. Jakina, horrek beste ezer baino lehenago eta gehiago (ez hizkuntz batasunik, asmo transdialektalik edota bestelako xede ideologikorik) testuaren tratamendu erretorikoa erakutsiko liguke nabarmenkiro. Liburuaren hasierako “bere imaginara eta idurira” ditologia bibliko klasikoa (*Gero*, 21 or.) baliagarria izan liteke ondoko beste gehienek (guztien?) argitasunerako ere:

urliak eta sandiak (312)

fermo eta fintko (453)

berretgarri eta fintkagarri (554-555)

sendatzeko eta erremediatzeko (570)

konparatibatik eta adiskidetasunetik (578)

argi [...] eta klar (568,...)

irautez eta iraupez (605 eta 608)

sainduki eta prestuki (477-478), justuki eta zuzentki (608)

erhoturik eta zoraturik (537), gorderik eta estalirik (537), sendorik eta salborik (560)

Horrelakoetan hitzak berak eskatzen bide dio idazleari bigarren sinonimo baten laguntza, biek esapide finkoa osatuko bailuten. “Ixtitu” hitza, esaterako, birritan baino ez da azalduko obra guztian zehar, bietan “gibelatu” aditzak lagunduta: “ordea han ixtitcen eta guibelatcen gara” (47) eta “haren eguitetic ixtitceco eta guibelatceco” (126).

Gehien errepikatzen diren fosilizatu horietakoen artean, “atseginak eta plazerak” bikotea legoke, besteak beste honako orrialde hauetan: 470, 500, 502, 503, 504, 505 (birritan), 507, 508 (hirutan), 509, 510, 512 (birritan), 520 (hirutan), 554, 560, 581, etab.<sup>438</sup>. Berdintsu geundeke horrelako askoren aurrean ziurrenik: “pena eta

438 - Ez dira kontutan hartu singularrean edota alderantzi emanda, hots, “plazent eta atsegin” in 498, 509, 574 or., etab.



gaztigua" edota, alderantziz, "gaztigua eta pena" (574, 575, 578, 579, 581, 611, 612, etab.), kasu desberdinetan jarritako "pena eta atsekabe" (574, 577, 578, etab.), "kalte eta atsekabe (561, ...), "damu eta atsekabe" (562,...), "falta [...], hobena" (3-4, 485, 583, etab.), etab. Ondoko honek ere erraz labur bilduko luke orain artekoa: "damu eta atsekabe, pena eta dolore, min eta oiñhaze" (589).

Egia da, dena den, sinonimia hori ez dela beti erabatekoa edo egonkorra<sup>439</sup>, askotan nolabaiteko dinamikotasun semantiko edo aurrerapena antzematen baita hitzen esanahian; badirudi maiz asko bigarren elementuak<sup>440</sup> areagotu eta zehaztu egiten duela esanahia, bertan dagoela kutsu semantiko handiena: "ustelduak eta khirastuak" (529), "justuago eta sainduago" (551, 552), "gaixto eta bekhatore" (552), "medizinar eta erremedioak" (561), "goibeldu [...] eta ilhundu" (567-568), etab.

Oro har, azken elementua, aurrekoaren argitzaile modukoa edo izango litzateke, lehen atalak dioenaren berretzaile, finkatzaile edo azpimarratzaile, nahi bada. Baina, edonola ere, nagusiki aplikaziorako zein prosaren eritimoaren erregulatzeko funtzioa duen teknika erretoriko baten aurrean geundeke. Funtzio erretoriko hori ezin nabarmenago genuke liburuaren azken orrialdeetako esaldi honetan:

"Harian pensa ezazu, hartaz egizu pensamendu, hasnaur eta gogoeta" (620-621).

#### 11.4.3.4.- Antitesiaz

Zinez baiezia daiteke Axularren liburu planteamendu antitetiko baten inguruan ardazten dela oro har, horietako elementu garrantzitsuena izenburuan bertan azaltzen delarik: GERO. Horrek berak eta antonimo gisako funtzionamendua duen ORAIN hitzak osatuko dute liburuaren izaera antitetiko hori. Hau da, ORAIN bereon egiten ez dena, probabilitate askorekin ez da GERO egingo: "[...] gero dioenak bego dio[...]" (*Gero*, 15)<sup>441</sup>.

Alabaina, nolabaiteko aurkakotasun semantikoan oinarritzen den irudi honek irudi izateko, Mortarak dioten bezala, "requiere la construcción simétrica de los miembros contrapuestos" (Mortara Garavelli 1991, 277).

Liburuan zehar, ideien kontrajartze hauek nabarmenki azalduko dira antonimoen erabileraren alorrean, unitate lexiko hauek izango baitira arteko gatazka kontrajarria garbienik azalduko dutenak eta antitesiak moldatuko dituztenak.

439 - Gorago adierazi legez, "erabateko sinonimia" eta "estatiko-egonkor" hitzak urruntasun dialektalak eta kronologikoak aholkatzen duten zuhurtasunaz hartu beharreko hitzak dira. Semantikoki osagaien artean alderik balego ere, aitortu behar da zenbaitetan nekez mintza gaitezkeela erabateko sinonimiaz ez eta desberdintasun semantikoaz ere, izan ere aipatu urruntasunak eta konparazio egokirako elementu sendoagoen urritasunak eragotzi egiten baitute alor semantikoan nahi bezainbat tinko irutea.

440 - Hitz bikoteetarako baieztatzen dugun hau osagai gehiago duten hitz multzoei ere zabal lekietan normalean, bigarren edota hirugarren hitzen esanahian nolabaiteko intentsifikazioa sortzen baita semantikoki egonkorrek ez direnean, orrialde beretik hartutako hiru hauek agertzen duten bezala: "sentimendu, damu eta urriki", "itsutuak, ostinatuak, gogortuak", "gogortuak, harrituak eta finkatuak" (616).

441 - Oro har, planteamendu hori antitetiko moduan ulertzen den neurrian bakarrik erdietsiko da idazlearen xedea, hau da, egungo bekataria oraingo egoera berean tematzen bada, "konbertsioa" gerorako uzten segitzen badu (egoera antitetikorik suertatzen ez bada, alegia), liburuak ez du nahi zuena lortuko, egoera kontrajarri horietaz ohartu behar duen irakurleari zuzentzen baitzaio obra, finean.

Azpimarratu beharrik ez dago: irudi hau esparru bibliko eta erlijioso-asetikotik jasoa da. Orobat, antitesiek ohiko formak hartzen dituzte Axularren prosan, kontraste nabarmenenak antonimo klasikoaren bidez datozelarik. Bizpahiru baino ez aipatzearen, hona hemen errepikatuenetariko batzuk: gaiztoak-onak, infernua-zerua, bertutea-bekata, eder-itsusi, triste-alegera<sup>442</sup>, pobre-aberats, etab.

"Presuna ederrak, gorputza bere eskuko eta ongi egina duenak, eztu kanpoko edergarriaren beharrik, zeren bera baita bere baitan eder asko. Baiña itsusiak, marketsak, behar du anhitz estalki, anhitz bernizadura eta aphaindura, eta hekin guztiakin ere, etxean legoke ederkienik" (513 or.)

"Hargatik erraiten zuen Iondone Paulok, etzebillala behin ere triste, triste bezala bai, baiña bethi alegera" (440b or.).

"Eztute konsideratzen, probeari emaitak, ez probetzen baiña aberatsten, ez gutitzen baiña berretzen duela" (231 or.)

Interesgarrienak, dena den, gorago aipatutako sinonimiaren esparrukoekin loturik doazenak dira. Hauetan, paralelismoaz baliatuz, oihartzunaren efektu antitetikoa edo bilatzen dela ikusten da:

"Bekhatu egiten duenarentzat dadukazu Iainkoa  
handi,  
zabal,  
franko,  
liberal;

eta

bekhatu egin gabe, prestuki bizitzen denarentzat, estimatzen duzu dela

hertsi,  
mehar,  
eskas  
eta  
abarizios" (149).

Egitura kiasmikoa ere loturik doa testuan nabarmentzen den planteamendu antitetikoarekin, izatez testu segmentuen ispilu eraketa erakutsi ohi baitu irudi honek (Mortara Garavelli 1991, 282; Mayoral 1994, 273).

"Zahar gaixtoak, zahartuagatik, badu gogoa,  
indarra zaika falta" (93 or.)

442 - "Triste" vs "alegera" bezalako antonimoek ahalbidetuko dituzten antitesiek presentzia handia izango dute *Gero* guztian, izan ere bekatuaren egoera animikoaren aurkakoa baita konbertsioarena: "Beraz bere konzientziaren arauaz, haren buruz eta konseilluz gobermatzen eta kidatzen dena ongi da, alegera da, kontent eta pagu da. Baiña bertela, bere konzientziaren kontra dabilana gaizki da, beltz, ilhun, goibel eta triste da" (422 or.).

"Ikusten duzunean presunba bat bere bekhatuen dolore hutsez, nigarrez dagoela, uste duzu ezen presuna hura triste dela, baiña enganatzen zara: zeren alegera da, eta alegeraz nigar hek egiteintu" (501 or.).

"Hala haren zerbitzariak ere bere iaunari iarraitzen zaitzala, dirudite kanpoan deus guti, eta triste, baiña barrenean dira alegera eta konsolamenduz betheak" (509 or.).

#### 11.4.4.- ARLO MORFOLOGIKOA

Arlo morfologikoko irudiak, ondoren ikusiko diren fonologikoak bezalatsu, testuaren garapenean elementu ezberdinen errepikapenaren bidez sortuak izango dira eta mezuaren efektuen gehiketa bilatzeaz gain, erritmoren mantentzea eta, aldi berean, hotsen areagotzea ekarriko dizkiote berbaldiari <sup>443</sup>.

Jakina denez, eta testu linguistikak agerian utzi legez, irudi hauen garrantzia berebizikoa da berbaldiaren gauzatzean, maiz adierazi den moduan, beraiek duten izaera errepikakorrean baitatza "una de las relaciones sintácticas en las que reside la cohesión del discurso" (Mortara Garavelli 1991, 212). Are gehiago, zinez baieztatu daiteke errepikakortasuna berbaldi poetikoaren berezko ezaugarria dela izatez.

Axularren obran ere errepikakortasun hedatu hori izango da prosa barne muineraino tindatuko duena, egitura anaforikoen esparruko irudiez gain, nagusiki hoskidetasuna eta kadentzia erritmikoak izango baitira berbaldia nortuko dutenak, nor bihurtuko dutenak.

Formal eta funtzionalki bereizten hasiz gero, batetik elementu morfologikoan oinarritutako irudiak genituzke eta, bestetik, osagai fonologikoetakoak. Horietako zenbait garrantzitsu, alabaina, kategorizazio bietan sar litezke, hau da, bietatik edoskitzen dutela esan genezake (similikadentzia sortzeko morfema flexiboak, esaterako).

##### 11.4.4.1.- Anafora

Jakina denez, jarraikako esapideen hasierako hitzaren edo hitz multzoen errepikapenean datza anafora edo, hobeki, egitura anaforikoa.

Alabaina, erretorika klasikoaren sailkapen eta definizio estuetan onartzen ez zaion literatur ezaugarri gisa, nabarmentzekoa da berbaldiaren irudien artean anaforak hartzen duen funtzioa, izan ere "asume la condición de estructura-modelo de la repetición" (Mortara Garavelli 1991, 234). Ondorioz, zinetan baieztatu daiteke egitura anaforikoak direla prosa erretorikoaren baliabide ohikoak.

Erritmoaren zentzuzkoa areagotzeko agertzen da irudi hauen bitartez, izan ere anaforaren eredu errepikagarriak erritmiko bihurtzen baitu berbaldia.

Bestalde, eta honetan ohartarazi beharrik ez dago, konfigurazio anaforikoak lotura estua izango du idazleak azpimarratu nahi duenaren garrantziarekin. Ideia edo mezu bat irakurle-entzulearen barnean tinko atxikirik gera dadila nahi denean, anaforak sarrera funtzioa edota eginkizun azpimarratzailea beteko du berbaldian:

<sup>443</sup> - Irudi hauen erabilpen naturala aholkatu ohi zen erretorika erlijiosoan, oharkabean eta afektaziorik gabe: "Todas las demás figuras, que consisten [...] en jugar de las palabras o trovas de manera que cada coma de la cláusula se comience en la misma palabra, o demedie, o acabe, y así otras maneras de correspondencias de palabras, ellas se hacen sin pensar. No hay que advertir en ello, sino saber todas las figuras y tropos de la retórica y usarlas pocas veces, cuando se vinieren nacidas, y sin afectación, guardándonos siempre de decir consonantes, sino en caso muy a pelo y muy gravemente" (Terrones del Caño, *Instrucción...*, 144).

"Orai bada,  
orai behar dugu permatu;  
orai behar derauegu eskuei eragin.  
Orai nori berea errenda,  
orai etsaigoatik iltki.  
Orai ethorkizunean pensa.  
Orai zin zinez, [...] osoki, eta egiazki kofesa" (169 or.)

Erabilpenaz den bezanbatean, Axularrek maiz baliatzen duen errepikapen irudia da hau, sarritan bestelako osagai errepikakorrez erantsirik testuratu bada ere. Adibide guztien zerrenda egiteko asmorik ez dugun arren, hona hemen horietako batzuk:

"[...] ezta arrazoin dagoen Iudas nehoiz ere zeruko lorian [...]  
Ezta arrazoin diren gaixtoak hain ongi zortheatuak nola onak.  
Ezta arrazoin lainkoaren kontra ibili direnak, eta haren zerbitzuan enplegatutako direnak [...]  
diren berdin" (614 or.)

"Handik, hala egoitetik, itsutzen eta gogortzen da bekhatoea:  
handik ontasunera baiño gaixtatasunera eroriagoa, isuriagoa, eta emanagoa gelditzen da.  
Handik erroak egiteintu.  
Finean handik, bekhataua beretaketzen, eta natural bezala errendatzen du [...]" (106 or.)

Adibideen artean, oso ezaguna da Etxauzi eskainitako sarrera-atalean bigarren pertsonaren errepikapen anaforikoarekin egiten duen jolas luzea:

"Eta zure prestutasunaz [...]  
Zure etxea, egon [...]  
Zuri bere [...]  
Eta zuk guztiak arraiki [...]  
Zu izan zara, eta izanen zara [...]  
Zu izan zara Echaus [...]" (5-6 or.)

Anaforaren errepikapen formula ezin egokiago bihurtzen da argumentazioaren garapenean, batik bat idazlea arrazoiak eskaini beharrean aurkitzen denean:

"[...] zeren lainkoa den hain on, bihotz bera eta miserikordios.  
Zeren hain maite gaituen;  
zeren bekhatu egin eta berehala ezkaituen gaztigatzen;  
zeren igurikitzen derakun, eta finean,  
zeren hanbat ongi eta ontasun egiten derakun [...]" (151-152 or.)

Jakina, argumentazioaren linealtasunean oinarriturik, Axularrek zenbaitetan kate anaforikoak osatzen ditu, hots, serie ezberdinez osatutakoak eta aurretik aipatutakoei nolabaiteko jarraipen argumentala eskainiz. Nabarmena da hori honako adibide honetan:

Iakin dezazun, bertze erremedio guztiak ahitu direnean, harenak hasten direla.  
Iakin dezazun bertze guztiak deus ezin eginez [...] orduan faboratzen zaituela.  
Hala faboratu zuen Ionas profeta [...]  
Hala faboratu eta begiratu zituen Israeleko semeak ere itsasbatterean [...]  
Hala faboratu zuen Susana [...]  
Finean hala faboratu zuen Daniel profeta [...]  
Nork erran zukeien, gizon bat hirur egunez eta gauzez balearen sabelean ibiliz gero [...]  
Nork sinhetsi zukeien Israeleko semeak, itsas-batterean [...]  
Nork pensatu zukeien Susana [...]  
Finean, nori gogora zitzaikaion Daniel bezalakoa [...] (130-131 or.)

Egitura anaforiko baten barnean, eta berez dagokion paralelismoa gutxi bailitzen, beste elementu batzuen errepikapena ere tartekatu ohi du maiz asko urdubiarrak (egitura polisindetikoa, besteak beste<sup>444</sup>):

Egiten dituzu hogoi bekhatu mortal, eta oraiño bizi zara, igurikitzen deratzu Iainkoak.  
 Egiten dituzu berrogoi, eta oraiño ere utzten zaitu.  
 Egiten dituzu hirurogoi, eta guztiarekin ere badu pazientzia, pairatzen derauzkitzu.  
 Egiten dituzu lauretan hogoi, eta orduan bethatzen da neurria,  
 orduan mukurutzen da,  
 orduan gainez eginik [...] zu ere infermuko zolara erortzen zara  
 (115-116)

Egitura anaforikoak direla eta, ez dira faltako esapidearen barruan nola-baiteko gradazio edo mailakatzea sortuko duten ereduak ere:

Orduan bai,  
 orduan onduko naiz:  
 orduan munduari gibela emanen diot, eta [...]. Baiña anarteraiñoan  
 dezadan atsegin har,  
 dezadan mundua zerbitza:  
 nakion goza:  
 nakion behin [...] ase, eta asper.  
 Haur da oraiko presuna gazten deliberamendua,  
 haur da hekhen gogoa: eta  
 haur da adinean bezala, gaineraoan ere [...] (173-174 or.)

Era berean, ohargarria da nola Axularrek darabiltzan elementu anaforikoa eta paralelismoa pentsamenduen antitesiak markatzeko. Jakina, honek areagotu egingo du prosaren izaera antitetikoa. Adibideak anitz badira ere, Axularrek idatzitako luzeen eta ederretariko bat ekarri nahi genuke hona adierazi dugunaren erakusgarri gisara:

*Plazer da* mihiaren anhitz arnegu eta iuramentu egiten duela, nahi duen bezala minzatzera utzte.  
*Plazer da* igandetan eta bertze bestètan, solhasean, ian edanean, iokoan eta atsegin hartzen, mezaz, bezperaz eta orazinoz konturik egin gabe, denboraren iragaitea.  
*Plazer da* haragiak kilikatzen zaituenean, berehala zeure desiraren konplitea.  
*Plazer da* bidegabe bat egiten deratzutenean, mendekatzea, ordaiñez ordain, moneda berean pagatzea.  
*Plazer da*, bere edo bertzeren eskuen artean, zerbait erabiltzea, eta alfer eta aise, ebatsiz izanen bada ere egoitea.  
*Plazer da* ohe onean eta garbian etzatea.  
*Plazer da* ez barurtzea, ongi iatea, hobeki edatea, eta barazkari onagatik, afari hobearen ez utzte.  
*Finean plazer, plazer eta atsegin da*, bere gogoak eta apheetituak diotsan bezala, bide zabalaz ibiltzea.  
*Ez ordea ezta plazer eta ez atsegin, baiña gaitz eta penos da*, parabisuko bide meharraren edukitzea; manamendurik hautsi gabe, bethi artez ibiltzea eta bizitzea.  
*Gaitz da* mihiaren ongi gobernatzea, linburtzetik begiratzea, eta bertzeak zutzaz mintza litezin, nahi zendukeyen bezala, zu ere hetzaz minzatea.  
*Gaitz da* bidegabe bat egiten deratzutenean, barkhatzea: gaizki erraiten deratzunari ez ihardestea, zeure eskuan duzularik, ez mendekatzea.  
*Gaitz da*, haragiak tentatzen zaituenean, gaietan eta okhasinoetan zarelarik, zeure buruaren bortxatzea, desiraren ez konplitea.  
*Gaitz da* tratuetan eta salerosietan, bethi egiaz ibiltzea; bertzerena eskuan darabillazularik, ez kutsatzea, errotan irinik ez lotzea.

*Gaitz da zur baten gainean, zeure ohe ona utzirik, eta larru arras zilizio bat, zerdazko gerriko bat harturik*  
 444 - Ez ditugu hona ekarriko konfigurazio anaforikoaren aldaki bat baino ez den egitura *polisindetikoa*-ren adibide ezberdinak, dagoeneko gorago azaldu baitira egitura sintaktikoak tratatzean.

etzatea eta ibiltzea.  
*Gaitz da* barurtzea, ianhari ona, edari hobea, eta apheetitu ere duzularik, guztien Iainkoagatik utzte.  
*Finean gaitz da eta penos da* munduan garelarik munduan ezpaikina bezala, munduaz konturik egin gabe, Iainkoaren borondateari errendaturik egoitea; haren manamenduen arauaz, haragiz ezpaikina bezala, bethi spiritualki bizitzea” (480-481 or.) (Azpillerrotuak eta letrakera etzana gureak dira).

#### 11.4.4.2.- Bestelako errepikapen-irudiak

Anaforaren alderantzizko egitura (...X / ...X) erakusten duen irudi epiforikoak ere badu bere tokia Axularren prosan, nahiz eta, maiztasunari dagokionez, egitura anaforikoa baino gutxiagotan. Hala ere, adierazi behar da egitura epiforikoa aditz laguntzailearen errepikapenagatik burutzen dela normalean, ez bestegatik:

Ea giristinoak, [...] bertze egiteko guztiak utzirik  
 hurbil *zakizkide*,  
 iarraiki *zakizkide*  
 eta  
 [...] lagun *zakizkide* (7 or.)

[...] hura berehala harrapatzen dute,  
 eta are batzutan berreturik, airatzen eta kanpatzen dute (28 or.)

Zahartzean  
 begietako bista laburtzen da,  
 beharrietan gorriera egiten da;  
 belhaunetan hezueria iartzen da,  
 indarra gutitzen da,  
 apheetitua galtzen da,  
 loa ioaiten da,  
 ikhara ethortzen da,  
 larrua zimurtzen da,  
 illea urdintze da,  
 burua karsoiltzen da,  
 hatsa khirastan da (182 or.)

Anafora eta epiforaren arteko uztartzetik sortzen den sinploke edo *complexio* irudia, zer esanik ez dago, aurreko paralelismo formak baino gutxiagotan agertzen da Axularren prosan.

*Behar ez denean* fidatzen zara eta ez *behar denean*.

*Behar ez denean* iduritzen zaitzu Iainkoaren miserikordia handi, eta ez *behar denean*” (148 or.)

Berdintsu esan beharko litzateke testu segmentu baten hasieran eta bukaeran hitz edo hitz multzo baten errepikapena (X...X) adierazten duen epanadiplosiari buruz, errepikapenean oinarritu arren, ez baita maiztasun handiko irudia.

“Aditzen da, *galduak goazilla*, ez zeren ikhusten dugun iguzki hunek egiten duen, arratsaldean, itzala handiago eta luzeago, baina zeren gure arratsaldean, zahartzean, adina irauliaz, e ta behehituaz dohanean, eta dihoakunean, mendekatze, enganatzeko, eta are bizitzeko nahia, eta desira ere, berretzenago eta luzatzenago zaikun; zeren zaharrago eta gaixtoago egiten garen: hargatik erraiten du *galduak goazilla*” (192-193 or.) (azpimarrak gureak dira).

*Gradatio* edo *klimax* delakoak, aldiz, interes berezia eskaintzen du Axularren prosan.

Izatez, gradazio izenekoa jarraikako anadiplosia baino ez da, hots, unitate sintaktiko bateko bukaeraren errepikapena ondoko unitatearen hasieran (...X / X...Y / Y...). Oro har, mailakako eskemaren arabera eratua da, berbaldia maila bakoitzean pausatuko bailitzen. Ikusten denez, errepikapena da oinarria.

Lehenik hiltzen da haurtasuna;  
haurtasunaren ondoan hiltzen da morrointasuna;  
morrointasunaren ondoan hiltzen da gaztetasuna;  
gaztetasunaren ondoan hiltzen da zahartasuna;  
zahartasunaren ondoan hiltzen da sentontasuna (63 or.)

Handik sortzen da usantza:  
usantzatik ederestea,  
ederestetik ezansiatzea:  
ezansiatzetik ez sentitzea,  
ez sentitzetik itsutzea, gogortzea, eta azkenean, ahalkea galdurik hartzaz prezatzea, loriatzea eta sendagaiila eriztea (110 or.)

Axularrek darabilen eredu konparatibo-argumentatzailean irudi honek estrategia aldaketa suposatzen du, hots, nolabaiteko planteamendu logiko-silogistikoa suposatzen baitu irakurlearentzat. Alabaina, ez da gehiegitan baliatuko duen irudia.

Irudi morfologiko gisa sailkatu ohi direnen artean ez dira faltako Axularren prosan erretorika klasikoan *derivatio* bezala ezagutzen zirenak (erro beretik datozen hitz desberdinak), XVII. mendean ohi legez, horrelakoak oso gogoko baititu urdazubiarrak:

“Zeren hain da gauza galdua eta galgarria alferkeria” (34 or.)

“Gero hunen orai, orairatzeko, sendatzeko eta erremediatzeko” (570)

Era berean, klasikoak bihurtu dira “bentura” hitzaren inguruan eraturiko honako hauek:

“Nola geroko benturaren benturan benturaturik galtzen garen” (68 or.)

“Eztuzu pensatzen bentura horrek, benturaz, bentura gaixtoa emanen deratzula?” (73 or.)

*Derivatio* guztietatik esanguratsuena, dena den, honako hau litzateke ziurrenik:

“San Agustinek eztu konturik egiten, aizineko perseberantziak eta irauteaz, finera baiño lehen, edo fincan berean, fin finatu gabe finatzen denaz” (457 or.)

Errepikapen irudiekin bukatzeko, gogora ditzagun badirela zenbaitzuk errepikatutako hitzen artean nolabaiteko desberdintasun formala erakusten dutenak. “Hitz jolasak” deitu izan diren hauek maiztxo agertuko dira Axularren testuan barrena.

Oro har, esan daiteke unitate lexikoen arteko homonimia edota polisemia erlazioetan oinarritzen direla irudi hauek, eta guztietatik paronomasia arlokoak direla nagusi. Era berean, ez dira faltako obran *antanaklasia* izeneko aldaki homofonikoetan

(baina ez homografikoetan) oinarrituako irudiak ere. Ondoren, eta taxonomia hutsetan galtzeko arriskua ekidin ahal izateko<sup>445</sup>, erretorika liburuetan hitz jolas bezala sailkatuak agertzen diren horietako adibide batzuk baino ez ditugu emango:

“izenarekin, izana duzuenak” (7 or.), “arren othoi, orhoit zaitezi” (20), “hitz mitzti” (538), “fits-mits” (540), “zinak eta minak” (426, 427, 558), “erran-merranak” (312, 358, 372, 443,...), “zintki eta fintki”<sup>446</sup> (460, 552), “gor eta sor” (555), “Herra errabiatu” (586), “iarriko dira harrituak” (588), “sorthu eta berehala hurtu” (593), “hotza, motza” (606), “irautez eta iraupez” (608), “onhest, modest” (177), “zinez zinateke” (590).

Ezaugarri bezala, ikusten denez, hitzen eta hotsen arteko paralelismo efektu-sortzailea azpimarratuko genuke. Halaber, nabarmena da jolas horietako askoren oinarrian bi silabako hitzak aurkitzea, estilistikaren ikuspuntutik malgutasun eta plastikotasun gehien erakusten duten multzoak ziurrenik.

#### 11.4.5.- ARLO FONOLOGIKOA

Aurrekoetan bezalatsu, arlo honetako irudiek ere errepikapenaren printzipioan dute haien funtsa, zein bere modura eta gisara. Axularren prosan, alabaina, similkadentziarena izango da osagai fonologikoaren inguruan ardaztutako baliabide garrantzitsuena. Edonola ere, ezin ahaz liteke aliterazioa bezalako irudien presentzia afektu eta efektu-sortzailea.

##### 11.4.5.1.- Aliterazioa

Ezaguna denez, aliterazio hitzaren egungo erabilpenak nasaiki gaintitzen du erretorika klasikoaren kategorizazio hertsia (ik. Lázaro Carreter 1990, 232-hk.). Halere, esan beharrekoa da irudi hori elkarren ondoko hitzen hasierako kontsonantearen edo silaben errepikapenera mugatzen zela zioen kontzepzioa bera lasaitasunez hartua izan ohi zela idazte orduko praktika konkretuan, aliterazioa eskuarki kategorizazio bezala baino gehiago baliabide gisa hartzen baitzen idazleen artean. Horrela, testuan isuritako mezuaren izaerarekin estuki lotuta agertzen zen baliabide hau, efektu afektibo-psikologikoak lortzeko asmoarekin hain zuzen.

Ildo horretatik, eta kasuistika luze-zabalaren barnean, nabarmentzekoa da, esaterako, honako pasarte honetan erakusten den aliterazio jolasa, egileak irakurle-entzuleen inplikazio zuzena (“z-uek”) eta larria (infernuaz ari da) gogorazi nahi duela ematen baitu:

“Galdez zaudete zer izanen den zuetzaz, noiz ilkitko zareten hortik [...]” (606).

Edota, koleraren unerik latzenak adieraztean kontsonante dardarkariaz urdazubiarrak egiten duen erabilera “izugarria”, isladatu baino gehiago “rr”-aren aliterazioak areagotu egiten baitu egoeraren dramatismoa:

“Orduan erreko da bere baithan barrena, despitatuko da, tristetuko da, malenkoniatuko da. Eta guztiz ere, baldin bere haserre hartan kolperik egin badu, barber beharlean nehor ezarri badu, edo bere hitzetan, nehork bahirik hartu badio” (282)

<sup>445</sup> - Ezaguna da horietako irudi gehienak morfologi arlokozat hartu ahal badira ere, ezin dutela osagai fonologikoa galdu, ez eta, ondorioz, arlo fonologikoko irudien artean kokatuak izateko “eskubidea” ere.

<sup>446</sup> - Eta hauetatik sortuak: “zintkienic eta fintkienic” (175 or.), “zintkiago eta fintkiago” (333, 477 or.).

Ez da faltako bestelakorik ere: “zeren hain da gauza galdua eta galgarria” (34), “ernatuko eta erdutuko” (35), “hortz karrask hots hura, hotzetik [...]” (585), etab. Dena den, arlo honetan pasarte ezagunenetakoa genuke liburuaren hasierakoa, eta ez bakarrik “do-” silabaren aliterazio klasikoagatik:

“Gure Iaungoikoak, munduko bertze gauza guztien ondoan, gizona bera, bere gainki, bere imaginara eta idurira, bat ere bekhatirik eta bekhaturen kutsurik ere gabe, anhitz donu, dohain, eta abantail suertez dotaturik, egin zuenean, ibeni zuen berehala, lurrak zuen parterik, eta aurkientzarik hobereanean, lurreko parabisuan, lekhu plazerez bethean. Eta manatu zuen lant zezala, labora zezala, eta begira ongi parabisu hura” (21-22)

#### 11.4.5.2.- Similikadentzia

Axularren prosak, lehen irakurraldian somatzen den legez, errepikapen fonologikoa du etengabeko ezaugarri. Beherago ustezko poesi hoskidetasunaz edo errimaz ihardungu denez gero, har dezagun oraingoan similikadentzia bezala ulertzen den hitz edota sintagma paraleloen bukaeretakoa fenomeno homofoniko zabala.

Definizioz “[...] recurrencias fónicas localizadas en las sílabas o fonemas finales de dos o más palabras situadas en posiciones comparables en la cadena del discurso” (Mayoral 1994, 63) diren fenomeno hauek *homoioteleuton* eta *homioptoton* irudietan oinarritzen dira, bataren zein bestearen erabilpena hizkuntzen kasu-sistemak markatu duelarik.

Inguruko hizkuntzetan ez bezala, euskararen deklinabideak, latinaren antzera, homioptotona baliatzeko aukera ezin hobea eskaini zion urdazubiarrari. Horregatik, elementu errepikakor legez, testuinguru guztietan azalduko den fenomeno izango da bukaera flexiboen hau. Jakina, honek ez du inolaz ere ukatzen homoioteleutonaren erabilera naroa.

Adibideak, zer esanik ez dago, jarraian eta etengabe agertzen dira *Gero* guztian, ez baitago bertan orrialderik sorta bat kasu adierazgarri ez duenik. Kasuistika, beraz, zabala da eta deklinabidearen kasuetara eta aditz flexio guztietara iristen da. Horrexegatik hain zuzen ez da hemen sailkapenik aurkeztuko. Aski bedi liburua zabaltzea.

Maiztasunean biziki apalagoa izan arren, berdintsu esan genezake homoioteleuton irudiaren erabilpenari dagokionez, Axular prosaren kolorea nabarmenaraz dezaket hitz bukaerakideen bila dabilela susmatzen baita berehala. “Habea, iabea” (5), “bethi nahi, bethi nagi” (54) eta “onhest, modest” (177) paronomasikoak, “pairamendua, begiramendua” (177), “hatsa, likitsa, kiratsa” (471), “Iainkoaren laguntza, ethorkizuneko esperantza, pagamenduaren segurantza” (484), “egiten du gar, eta egiten du nigar” (501), etab. hona testura genitzakeen adibide guztietatik batzuk baino ez dira.

Homofoniak areagotu nahirik nonbait, Axularren prosan ez da faltatuko homioptoton eta homoioteleutonaren bilketarik ere: “ausartziarik eta eskudantziarik” (16), “itsutasun haren eta gogortasunaren” (105), “gaiñak, pikaiñak” (182), etab.

Edonola ere, eta homioptotonarena gehien eta modu sistematikoen erabiltzen den baliabide fonologikoa dela esan baliteke ere, paralelismoak eta errepikapenak daude beti urdazubiarraren prosaren oinarrian erritmo berezia markatuz. Honako honetan, ikus daitekeenez, ez da aliterazio klasikorik ere falta:

Zer esker uste duzu izanen duela,  
edo  
irabazi egingen duela  
zahar ezinduak etsaiari bidera harmaturik ez ilkitzeaz?  
Arratsean etxerat goiz biltzeaz  
eta  
bihurtzeaz?  
Amorantiara gaztean bezala ez ioaiteaz?  
Dantzan  
eta  
iauzian ez ibiltzeaz? (177)

Guztiarekin ere, zenbaitetan badirudi Axularrek gogokoa duela hitz bukaeretakoa fenomeno homofonikoa bikoteka edo hirukoteka jartzea, hitz jarioarekin jolasean balego bezala eta nolabaiteko jauzi homofonikoak eginez.

Ildo horretatik, ohargarri deritzogu prosaren mugimendu latza edo izan daitekeena azaltzen duten pasarte luzeetan Axularrek erakusten duen similikadentziaren premiari. Badirudi baliabide morfologiko-testualen faltaren aurrean, testuaren dinamikak beste zerbait eskatzen diola urdazubiarraren senari. Horrelakoetan, irudi homofonikoak baliatuko ditu sarri askotan, bertsoetako hoskidetasun librearen antzo:

Nork edirenen du ene baithan faltarik?  
Nork erranen du nik badudala bekhaturik?  
Galdez nagotzue.  
Deus badakizue, errazue.  
—Zer diozu, Iaungoikoa?  
Zer hari zara?  
Nolatan egiten derauezu galde hori zeure etsaiei?  
Zutaz gaizki erraiteko okhasino bilha dabilzane? (448-449)

Similikadentzia hertsiairen sailatik aldentuz, zenbaitetan Axular asonantzia bezala ezagutzen diren homofonia bokaliko hutsak erabiltzera makurtzen da:

Ordea guztiarekin ere ur hetarik batzuk dira gazi,  
eta  
bertzeak geza;  
batzuk gogor,  
bertzeak bera (215)

Horrelakoetan, hots, mezu eta baiezen kategorikoetan, argi dago autoreak homofonia desberdinen beharra sentitzen duela. Esaldia edo testua egokia eta orekatua idatziko badu, nabarmenki premiazkoa du egileak, paralelismoaz eta isosilabismoaz gainera, aliterazioa eta bestelako homofoniak baliatzea.

### 11.4.5.3.- Hoskidetasuna

Harrigarria bada ere, prosazko obra honetan teorian bertsoei -neurkera erakusten dutenei, jakina- legokiekeen nolabaiteko errima edo hoskidetasuna ere atzeman uste daiteke zenbait pasarteetan. Poesiaren esparrutik zipriztindutako aztarnez eta ereduari gara.

Taxonomikoki fenomeno hau gorago aipatutako similikadentzia irudien barnean sartzeak arazorik ekarriko ez balu ere, guk beste zerbait gehiago ikusi nahi genuke horrelakoetan. Hots, Axularrek gogoan zeuzkan neurri eta musika eredu konkretuen arabera moldatu eta egokitu bide zituen pasarte horiek, kadentzia erritmiko jakin batzuen arabera eratu hain zuzen.

Hemen tratatzen diren hoskidetasunak, bada, nolabaiteko poesi ereduari jarraitzen dioten sekuentzien bukaeretako fenomeno homofonikoak lirateke. Hortaz, honela uler liteke hoskidetasuna: “[...] regulación estricta en el discurso en verso de los fenómenos de *Similicadencia* (*Homeotéleuton* y *Homeóptoton*), cuya realización queda restringida a unos lugares precisos de las secuencias versales: las correspondientes a la o las sílabas finales de verso o hemistiquio” (Mayoral 1994, 68).

Edergailu poetiko honen prosaratzea, izatez, ez da harritzekoa, ezaguna baita edozein garaitako hiztunen artean sistema formulistiko bezala edo defini daitezkeen hauek izan ohi duten arrakasta eta nola lortu duten berbaldi arruntenean ere urteaz<sup>447</sup>, besteak beste -eta gure autorearen erabilpen erlijiosoaren arrazoen artean ez litzateke hau meheena- mezuaren memorizazioa eta errepentizazio automatikoak errazten zituztelako.

Arrazoiak arrazoi, garbi dago Axularrek nagusiki -baina ez eskusiboki- ahozkotatunaren munduko erreferentzia poetikoen esparrukoak ohi diren ereduak baliatzen dituela *Gero*-n barrena, normalean formula sistemari atxikirik eta mezua tinko, labur eta “poetikoki” neurtu-errimatua aurkeztuz.

Horrela bakarrik uler daiteke ahozkotatunaren fenomenotik ezin hurbilago diruditen tankera hauetakoen ekoizpena:

Permititzen du lainkoak,	5 + 3
munduan diren probeak,	5 + 3
hey ongi eguinez,	6
salba ditezin aberatsak <sup>448</sup> (225)	5 + 3

Erregulartasun metrikoa, esan gabe doa, ez da beti estuki betetzen den ezaugarria, batik bat formula antza hartzen dutenen artean. Horregatik, horrelakoetan neurkeraz baino gehiago pautaz mintzatu beharko genuke, “erregulartasuna” autoreak berbaldiarekiko duen izpiritu edo zentzu musikalak bideratuko bailuke hein handi batean, eta ez silaba kopuru zehatzak.

Honelako ereduak erakusten dituzten hoskidetasunak aski arruntak dira eskuarki, batez ere buruz edota ongi ikasteko mezua daramatenak:

447 - Oinarrian poesi ereduak elementu funtsezkoenak agertzen dituzten behialako erretrauetatik egungo eslogan gisakoetarainoko saila, inkontzienteki bederen, “prosaraturik” dugun bezalaxe.

448 - Ez dirudi ahozko tradizioetik at litzatekeenik “aberatsac” hiru silabatan ebakitzea: a-b(e)ra-tsac.

Probeari emanen diozuna, guti edo anhitz, emozu berehala (229)	3 + 4
	3 + 4

Garrantzitsuena, ikus daitekeenez, mezuari egokiro eusten dion parametro erritmiko eta homofonikoa litzateke.

Ohargarria da nola egileak azpimarratzen duen zenbaitetan mezua - irakurlearen gogoan hobeto iltzatu nahian nonbait- atalak aldatuz baina elementu foniko-erritmikoak iraunaraziz:

anhitz balio du esperantzak, indar handia du fidantziak (133)	6 + 4
	6 + 4

eta, orrialde berean, lerro batzuk beheraxeago:

anhitz balio du fidantziak, indar handia du esperantzak	
---	--

Era berean, arestian aipatu gnomikarekin lotuta, sail honetan badira atsoitiz edo esaera zaharren kutsua erakusten duten ereduak ere, betiere hoskidetasuna eta pautametrikoa bezalako konstanteak mantentzen dituztelarik:

Dagigun ongi, eta eztezagula beha nori (224)	3 + 2
--	-------

Emazu beraz duzunaren arauaz (229)	3 + 2
------------------------------------	-------

Isosilabismoaz gainera, homofonia ere ia erabatekoa izan daiteke horrelakoetan, hitz eta hots jolasa azken muturreraino eramana gerta daitekeelarik:

Pontuaren latza; Pausuaren gaitza (559)	4 + 2
	4 + 2

Neurri handi batean behintzat, eslogan modernoek teknikaren aurrean gaudela lirudike, haietan bezalatsu, hauetan ere etengabe erabiltzen baita hoskidetasunaren -euskaraz homioptotonaren irudipean eskuarki, baina baita homioptotonaren eta aliterazioarenean ere- eta kadentzia erritmikoen paralelismo errepikakorra (Mortara Garavelli 1991, 267).

Edozein modutan, ez du ematen erdi aroko erretrau ereduetatik urrunegi izango ginatkeenik, ez eta orduko poesia neurkeratik ere, ondoko atalean ikusiko den bezala.

### 11.4.6.- ERRITMOAREN AREAGOTZAILEAK

Ohi bezala, eta erretorikak agindu moduan, tempus diferenteak atzematen dira Axularren obran zehar, desberdinak baitira exordioak eta exhortazioak, edota azalpenak, sailkapenak eta narrazioak, etab. Ikusi den bezala, batzuk lauagoak edo lirateke (narrazio eta argumentazio arlokoak) eta beste batzuk “latzagoak” (aholkuen esparrukoak, batik bat).

Edonola ere, Axularren obran lehenengo lerroak irakurtzen hasi orduko, balirudike idazleak nolabaiteko eskema metrikoa izan duela eredu. Edo, bestela nahi bada, idatzitako lerrook belarran zerabilkion konpas edo musika akonpasatu antzeko batek bideratu zizkiola, agian hitzegiteko ohitura batek edo sermoiak egiteko moduak,...; edonola ere, ahozkotasanaren fenomenoarekin eta kulturarekin lotutako zerbaitek dirudi Axularren prosan antzematen den "metro"-aren arduraduna, ez behintzat idatzizkoaren planteamendu hutsak.

Zenbaitetan, beraz, perpaus neurtuen inpresioa ematen du Axularren prosak. Eta ez gara homosilabismo estu-estuaz mintzatzen ari, aski garbi utzia baitzuen erretorika eklesiastikoak silaba-kontaktaren infantilismoa<sup>449</sup>, ohiturak eta beste hainbat faktorek (ikus elokuzioaren ezaugarriei buruz esandakoa) sortutako neurkera mekanismoaz baizik, nolabaiteko isosilabismoa ahalbidetzen zuenaz hain zuzen.

Arrazoi du Kayser-ek honako hau dioenean: "En una palabra, el que proclama en vez de narrar, tiene pleno derecho a utilizar en su prosa estructuras métricamente reguladas" (Kayser 1992, 351). Baina, egia esan, ez da soil-soilik egilearen eskubide hutsen arazoa; transmititu nahi den pentsamenduak eta mezuak ere badute horretan zer esanik, batik bat ahozkotasanaren kulturarekin tinko lotuta daudenean, honako liburu honetakoak bezala. Ildo horretatik, ezaguna da bertsoaren eta eskema metrikoen egokitasuna elementuak gogoratzeko eta euskal literaturan egin izan den erabilpena.

Horretan eta ahozkotasanean murgildutako gizarteak zituen erreferentzietan bilatu beharko genituzke, hortaz, prosaren erritmo beharra azaltzeko beste elementuak, izan ere Ongek berak oroitarazten duen moduan, "el pensamiento extenso de bases orales, aunque no en verso formal, tiende a ser sumamente rítmico, pues el ritmo ayuda a la memoria, incluso fisiológicamente" (Ong 1987, 41).

Atal honetan Etxepareren, Ziburuko Etxeberriren eta garai hartako ahozko poesiaren ezaugarria edo den neurkera ereduaren oihartzuna oso nabarmena da Axularren prosan ere. Eta "neurkera" hitza bortitzegia balitz prosaren esparruko erritmoa definitzeko, agian Terrones del Caño darabilen "musika proportzioa" adiera<sup>450</sup> erabil genezake guk ere oihartzun eta zentzazio proportzionatu hori adierazteko.

Oro har, lau silabako multzoak izango dira obran zehar antzemango diren oinarritzko "neurri-unitate" edo proportzioak, Zizeronek bestetarako ohi zuen bezalatsu:

"...para que también la acentuación y el ritmo contribuyan a realzar el tono armónico del pensamiento vertido en la sintaxis, Cicerón se vale de *elementos métricos* que concluyan y cierren el final de la cláusula. Así evitará ordinariamente terminar sus frases con palabras muy largas o demasiado cortas. Sus preferencias se inclinan por las palabras de tres o cuatro sílabas" (Terrones del Caño, *Instrucción*, 240)

Horrela, Axularren liburuaren izenburu ondoko lerro deskribatzaileetan beretan neurkera edo musikaltasun horren oihartzuna aurki daiteke:

Bi par-te-tan / par-ti-tu-a / (eta) be-re-zi-a  
[...] e-mai-ten da / a-di-tze-ra / zen-bat kal-te [...]

449 - "[...] no se ha de hacer con la enumeración de las sílabas, que sería cosa pueril, sino con el uso y el ejercicio que facilitan, que por cierto sentimiento y gusto del entendimiento, percibido por el oído, se haga un miembro igual al antecedente" (Granada, *Retórica*, 596b).

450 - "[...] se procura que todas las palabras [...] estén distribuidas con cierta proporcion musical" (Terrones del Caño, *Instrucción*, 245).

Ikusten den bezala, Axularrek unitate horien luzerara erraz egokitzen diren hitzetarako<sup>451</sup> joera du:

"ki-da-tzen da / (eta) ai-tzi-na-tzen [...]"

Ildo beretik abiatuko dira pasarte landuenetako ereduak<sup>452</sup>, betiere 3. orrialdean puntu artean -ezin nabarmenago, beraz- dagoen "Hel-du nin-tzen" harako haren neurriaren arabera taxutuak, hots, lau silabatako unitate horiek nagusi izanik. Etxauzi egindako laudorioen atalean, guztien laburbiltze prosopopeiko erritmikoa (anaforikoa eta neurtua) aurkeztean, eredu nabarmena da:

Be-rak di-ra / be-re bu-ruz / as-ko go-ra / min-tzo:  
be-rak di-ra / be-re bai-than / as-ko klar / e-ta o-zen.  
Utz di-tza-dan / be-raz nik hek / hu-tsik / ez-ta-gi-dan (9 or.)

Berdintsu esan liteke "Irakurtzaileari" izeneko gutunaren hasierako lehenengo lerroei buruz (15 or.), lau silabakoak baitira oinarritzko erritmoan agertzen diren unitateak:

"E-gun ba-tez / kon-pa-ñi-a / on ba-te-an / eus-kal-du-nik /  
bai-zen e-tzen / lekhu-an / nen-go-e-la [...]"

"e-tzu-e-la, / deu-sek e-re / han-bat kal-te / egiten"

"e-gu-ne-tik / e-gu-ne-ra, / bi-ha-rre-tik / bi-ha-rre-ra / lu-za-tze-ak"

Halaber, eta neurriari dagokionez, aipagarriak dira zazpi silabatako neurkerak, parametro horietaz baliatzen baita Axular zenbait tokitan, batik bat exhortazioetan.

Erraz asko identifika litezke testu segmentuak -gehiago ala gutxiago bortxatuz edota *anacrusia* delakoaren bidez- zazpikotan banaturik (maiz aski 4 + 3 egitura nabarmen gelditzen delarik):

"ioan za-tzaiz-kit / lu-rre-tik" (3 or.)

Alabaina, ez da faltako Etxepareren neurkeraren eredukorik ere:

"e-tzu-e-la, / deu-sek e-re / han-bat kal-te / e-gi-ten" (15)

Orobat, formulen kasuan oso konstantea izango da erregulartasun metrikoa:

No-la bi-ci / ha-la hil (214)

Ongui bici, ongui hil,  
gaizqui bici, gaizqui hil (215)

Formula batzuk bereziki erabiliak izango dira exhortazioetan, irakurle-entzulearen nolabaiteko inplikazioa bilatzen dutenak. Horietan ere paralelismoa eta isosilabismoa nabarmena izango da, ondoko hauetan ikusten den bezala:

451 - Honako adibide hauetara ez dugu azentu edota ebakera arazorik sor lezakeen hitz multzorik ekarriko, nahiz eta sarritan horietako zenbait (silaba bat luzeagoak diren batzuk, besteak beste) samurkiro -eta tradizioarekin bat eginez- sar litezkeela dirudien. Adibide bezala, "Ez-t[e]rau-ta-zu / i-gu-ri-ki" (3 or.) jar liteke.

452 - Pasarte hauek ageriago suertatuko dira egileak nolabaiteko afektuak agertzen dituen ataletan (lehenengo gutunetan, exhortazioetan, ...).

ez-te-ça-çu-la pen-sa,  
ez-ta-qui-çu-la i-du-ri<sup>453</sup> (214 eta 248 or.)

ez-te-ça-çu-la be-rant,  
ez-te-ça-çu-la lu-çat (620)

Azken adibide honetako aditzek, ordea, ba bide dute beste neurri eta erregulartasunik ondoren datozen aditzekin konparatzen baditugu:

ezteçaçula ...  
ezteçaçula ...  
bihurçaiteci ....  
eçabiltçala... (620)

Gorago esan den bezala, hitz kopuruaren berdintasuna da erabateko paralelismoaren oinarria. Isosilabismoak areagotu baino ez du egiten printzipioz egituraren aldetik berdinak diren atalen erritmoaren indarra. Zenbaitetan elementu anaforikoak ere laguntzen du egiteko horretan:

(Ordea) eneak dira faltak,	7
enea da hobena (3 or.)	4 + 3
Zen ederrena, (egin zen) itsusienik	5 + 5
bere gogarena / gaizkienik	6 + 4
Onhetsiena / gaitzetsienik	5 + 5
eta gorena / beherenik (140 or.)	5 + 5

Azken adibide honetan, esan gabe doa hoskidetasun bikoitza burutzen dela, hots, segmentu bakoitzaren bukaerakoaz gainera (-enik), barneko hoskidetasuna dago (-ena).

Baina barneko hoskidetasunak eta similikadentziak alboratu gabe, azpimarragarria da Axularrek daraman jokamolde luzagarria, hau da, esaldiaren luzagarria, silabikoki hitzik luzeenak azkenerako utziz:

Zamaria, gazte deino hezten da.	4 + 4 + 3
Haragia berri deino gazitzen da.	4 + 4 + 4
Zuhaitza ttipi deino birlandatzen da (87 or.)	4 + 4 + 5

Neurkera edo proportzioaren jokamolde klasiko hau, ikusten denez, pro-saren erritmoaren ezaugarri garrantzitsu bihurtuko da Axularrenean ere.

453 - Esangabe doa sinalefa egin behar dela zazpikoa lortzeko.



## **XII.- ONDORIOAK**

Ikerlan honen emaitza ahalik tinkoen nabarmendurik gera dadin -eta ahaztu gabe horrelakoetan gerta daitekeen sinplifikazio-arriskua handia dela berez-, interesgarri bezain garrantzitsu deritzogu lanean barrena aztertutakoa ondorio gisako bospasei punturen inguruan laburbiltzeari.

1.- Konstatatu behar da, lehenik eta behin, lanaren hasieran planteatzen zen hipotesia bete-betean atzematen dela Axularren *Gero* guztian, izan ere formalki planteamendu eta tratamendu erretorikoa baita urdazubiarraren prosan gailentzen den faktore nagusia.

Ildo horretatik, garbi geratu uste da sarartatuak darabilen formulazio erretorikoa, XVI. mendearen bigarren erdialdean eta XVII. mendearen lehen urteetan gaztelararen esparruko oratoria eklesiastikoan teorizatzen denarekin tinko lotua dagoela eredu nagusietan.

Era berean, erretorika eklesiastikoak indarrean zituen baliabideak jasotzen jakin izan zuen Axularrek eta behar zuenerako iragazten, egokitzen eta erabiltzen.

Azpimarratu beharrik ez dago ez dela tropo eta irudi hutsen esparruan agortzen Aintzinetik datorren kultur tradizio erretorikoa Axularren *Gero*-n. Aitzitik, eta zeharka bada ere, Erretorika Klasikoa deritzonetik eurrez jasotzen du gure idazleak eta maila guztietan. Salamancan egindako ikasketak (ikasketa erretorikoak barne), kultur mailan izandako eragin intelektual-estilistikoak eta bere obraren burutzapenerako izan zituen "inspirazio" testualak aski iruditzen zaizkigu obraren garapena nondik norakoa eta nolakoa izango den ulertzen hasteko. Hemen aurkeztu dugun analisiak demostratu nahi izan du Axularren prosa erretorikaren kanon klasiko ortodoxoen barnean garatu zela, gure hizkuntza ez-latindar honek estiloan eta erritmo mailan "permititzen" zuen heinean bederen.

Hortaz, eta laburtuz, hona hemen nabarmenki bereiz daitezkeen puntu orokorrak:

a) Erretorika klasikoaren planteamenduak agertzen dira *Gero*-n, baina batik bat erretorika eklesiastikoaren iragazkitik iragandako elementu erretorikoez osatuak.

b) Aldi berean, oinarrizkoak eta intelektualki ez landuegiak izango dira erabilitako baliabide erretorikoak, betiere espero diren irakurleen arabera hautatuak eta egokituak.

d) Guztietatik, ahozketasunaren fenomenotik hurbil dauden baliabideak izango dira *Gero*-n nabarmenenak: parisosia edo isokolona, homofoniak, etab. Elementu erritmiko-musikal horiek ezin aproposago bihurtzen dira honelako testu aszetiko batean, batik bat irakurlea ahozketasunaren parametroetara ohitua denean.

2.- Esan bezala, ezin garbikiago azaltzen da planteamendu eta baliabide erretoriko nagusien presentzia obra guztian barrena.

Eta logikoa egiten da presentzia hori euskal prosaren hasieretan, hain zuzen ahozketasuna fenomeno sozio-literario bezala nagusia zen esparruan ere latindar eta erromantzearen mundu landutik datozelako garai horretan erabiltzen diren errekurto estilistiko gehienak. Fenomeno normala, bestalde, kontutan hartzen bada herri xehearen kultura landuaren bide bakarrek Elizan eta beronen parafermalia guztian dutela erroa (gurea bezalako herri txiki eta itxietan eredu bezala hartuko eta agertuko direnak, alegia). Hori dela eta, Biblia (eta, beronen barnean, Testamentu Berria modu berezian) izango da erreferentzia kultural ia bakarra: bizitza guztian barrena igande eta jai egunetako irakurgaiak eta haien esplanazioak eta sermoiak izango baitira beste errealtate batera, hau da, "fikziozko" mundura igarotzeko tresna garrantzitsuenetarik bat, are garrantzitsuagoa, eliza gizakien "orduak" ere kontrolatzen hasten denean. Jakina, bertan isurtzen diren baloreak (ez ahaztu garai haietako larritasuna, estutasuna eta arriskua pentsamenduaren eta kreentzien arloan!), mezuak eta, noski, bitartekoak (kulturalak, estilistiko-literarioak zein irudimenezkoak) sorkuntzarako baliabide eta bide ziur bakar bilakatuko dira ezinbestez. Etengabe agertuko diren erreferentzia "ez-susmagarriak" (herri mentalitatean elementu "fosilduak" ez badira bederen) erlijio mundukoak izango dira<sup>454</sup> eta, horrexegatik hain zuzen, ohiko bihurtzen joango dira. Mentalitate horretako irakurlearengana iritsi ahal izateko ere bitarteko horietaz baliatu beharko du idazleak.

Baina bereziki beste puntu batean bilatu behar da planteamendu eta baliabide erretorikoen presentziaren arazoia. Izan ere, *Gero* obra garai bateko ekoizpen interesatua da, garai trazeendente batean egina, Elizaren plangintza erlijioso orokorraren barnean xede konkretu batekin burutua, hizkuntza konkretu batean idatzia eta irakurle-entzule zehatz batzuei zuzendua. Eta horrezaz gainera, autorearen aldetik zuzenean tradizio ideologiko-kultural konkretu batetik datorkigu, hots, esparru erlijiosotik eta erromantzea eta latina bakarrik garatzen dituen medio batetik hartzen ditu planteamenduak, eta ingurune hori bera hartzen du erreferente bezala.

Baldin eta erreferente horretatik aldentzen diren, edo, hobe, erreferente horretakoak ez diren elementuak<sup>455</sup> badira (eta gogoan izan ditzakegu pilotarien erreferentzia eta ildo horretakoak), inolaz ere ez dira obra taxutzeko edo bideratzeko modukoak ez eta adinakoak ere izango: normalean anekdota mailan geratuko dira, obrari *aptum* -ak eskatu "herri kutsu" delako hori emateko edo.

3.- Literario bihurtuaz joango den prosaren finkapen prozesua poesi hizkuntzarena baino latzago eta zailago gertatuko da, zalantzarik gabe. Ikuspuntu klasiko-tradizionaletik, poesiak baditu berezko jo daitezkeen elementuak (neurria, hoskidetasuna,

454 - Ezin ahaztu, esaterako, ahozko literatur munduan azaltzen diren errekurto eta irudi biblikoak edota erlijioagatik zabaldukoak sinbologiak: "hiru" zenbakiarena, erlijioaren zutabe nagusien presentzia (gurutzeta, "bazko gaiardi-ondua", ...), etab.

455 - Garai hartako euskal mundukotzat har daitezkeelako edota orduko euskal tradiziokotzat jo daitezkeelako hain zuzen.

erritmoa, etab.), errazkiro hartaritzen dutenak. Prosak, berriz, beste ezaugarri batzuk izango ditu, benetako irizpideak, horretan aritutako beste hizkuntzetako ereduak eta oreka beharrak sortaraziko dituztelarik.

Ildo horretatik, Axularrek ez du bilatuko hizkuntza "poetiko"-rik; areago, prosaren ohiko planteamenduaren barnean ere ez du "literatura" hitzaz ezagutzen dena bilatu nahi izango, besteak beste haren asmoak didaktiko-pragmatiko hutsak izan zirelako.

Beraz, Axularri dagozkion erronka eta balioa ondoko honetan dautza nagusiki: euskaraz burutu zuen prosa-saioa bete-betean irakurle garaikideen ezaugarrietara egokitzean hain zuzen, horrekin, garai hartan beste hizkuntzetan (=hizkuntza kultuetan) egiten zen prosarekiko parekotasuna lortu zuelarik. Alabaina, Axular euskal prosaren finkapenean aitzindarien artean ezartzean, ezinbestekoa da eranstea haren benetako ekarpena prosa erretorikoaren gauzatzean datzala bereziki, egun dagikunagarik horretan baita urdazubiarra hizkuntz egokitzailerik, moldatzaile eta, finean, egiazko sortzaile.

Parametro erretoriko horien barnean diharduela, Axularren obrari ezaugarri zehatzak isuriko zaizkio, liburuari izaera propioa eskainiko diotenak hain zuzen.

Batetik, Axularren obrak dakarren tematika berria ez bada ere (Axularren eta besteren predikuetan ez bide zen besterik azalduko, esaterako), egia da euskaraz bizi zen gizarte haren barnean, idatziz "usatu gabea" zela aszetika tridentinar garbiaren prosazko planteamentu hau. Euskal literaturan agertutako produktuen aurrean, beraz, *Gero* liburuak "mezua" itxura berrian dakar.

Horrela, mundu-ikuskerak "egokiago" bat zabaldu nahiak irakurle eta mezu-hartzaileen balore-sistema aldarazteko asmoa adieraziko du. Baina, era berean, mundu-ikuskerak aldarazi nahi izatearekin batera, aldatu nahi den munduak darabiltzan tresnez baliatu behar da idazlea. Horrek mezu egokituaren prestaketara bulkatuko du autorea, *aptum* arloko eginkizun erretorikoa zinez azpimarragarri bihurtuko delarik.

Ondorioz, eta bitarteko erretoriko egokiak erabiliz, prosa "berezi" baten sor-keta etorriko da Axularren eskutik. Berezia, darabilen hizkuntza laua, arazorik gabekoa, "aruntasunetik" hurbila, sintaktikoki zuzena eta lexikoaren aldetik ere argia eta ez polisemikoa delako. Edergarriei gagozkielarik ere, ornatu erraza izango da gailenduko dena, mezua ongi ulertaraztea ahalbidetuko duena, nahiz eta betiere idazlearen "ez-ohiko jakituria" azpimarraturik geratuko den. Bestalde, ezin ahaztu irakurlearen hunkipena eta jarrera aldaketa bilatuko dituen prosa izango dela *Gero*-n plazaratua.

4.- Arlo zehatzagoetara jaitsiz, eta erretorikak obra baten sortze-eratzeko pozesuan bereizten dituen mailen arabera, badira aztertutako liburuan oroitarazi beharreko zenbati puntu zehatz.

Liburuaren sorreraz den bezainbatean, planteamendua Axularrek azalean bertan aitortzen duenaren ildotik ("...etarik bildua" dioenetik, alegia) doa bete-betean, *Gero* obraren aniztasun tematiko-argumentala hasierako premisa horren ondorio hutsa baino izango ez delarik.

- Tamizey de Larroque, J., 1874, "De la date de la 1<sup>è</sup>. édition du Guero", *Revue de Gascogne XV*, 340 or.
- Taylor, R., 1987, *El Arte de la Memoria en el Nuevo Mundo*, Madrid, Swan.
- Tellechea, J. I., 1993, "Aprobación por el Concilio de Trento de la obra de fray Luis de Granada (1 diciembre 1563)", A.A.: *Fray Luis de Granada. Su obra y su tiempo*, Granada,...301-319.
- Todorov, T., 1967, *Littérature et signification*, Paris, Librairie Larousse.
- Torrealdai, J.M. - Azurmendi, J., 1985, "La literatura vasca a través de los siglos", in Intxausti, Joseba (zuzen.): *Euskal Herria. I. Historia eta Gizartea*, Donostia, Lan Kide Aurrezkoa, 478-489.
- Túrriz, I., 1990, "Aproximación lingüístico-retórica a los textos del Siglo de Oro", in *Investigaciones semióticas III*, Madrid, UNED, II, 437-445.
- Urgell, Blanka, 1991, "Axular eta Larramendi", *ASJU XXV-3*, 901-928.
- Urkizu, Patri, 1989, "Jon Juaristi, Literatura Vasca, «Historia Crítica de la Literatura Hispánica» 29, (Taurus, Madrid 1987)", *Hegats, Literatur aldizkaria 1*, 1989, 19-24.
- Urquijo, Julio de, 1907, "Una observación de M. Dubarat", *RIEV I*, 37 or.
- \_\_\_\_\_, 1911, "Axular y su libro", *RIEV V*, 538-555.
- \_\_\_\_\_, 1912a, "Axular y su libro (continuación)", *RIEV VI*, 292-303 eta 547-551.
- \_\_\_\_\_, 1912b, *Una fuente del Guero (Axular imitador de Fr. Luis de Granada)*, 12 orrialdetakoa, Saint Jean de Luz: J. Dargains.
- \_\_\_\_\_, 1919, *El Refranero Vasco. Tomo I. Los refranes de Garibay*, San Sebastián, (hemen erabili dena: *RIEV XXVII*, 493-624)
- \_\_\_\_\_, 1922, "Arturo Farinelli, *Prensa Bilbaína*, 1922-III-29, in J. Urkijo Hondoa, 10.663 zkia.
- \_\_\_\_\_, 1923, "Cosas de Antaño. Las Sinodales de Calahorra (1602-1700)", *RIEV XIV*, 335-352.
- \_\_\_\_\_, f.g., "Las citas del Guero", eskuizkribua, J. Urkijo Hondoa, ("Koldo Mitxelena" kultur etxea), 8.022 zkia.
- \_\_\_\_\_, f.g., "Variantes de las dos primeras ediciones del Guero", [1900?], eskuizkribua, J. Urkijo Hondoa, ("Koldo Mitxelena" kultur etxea), 9.186 zkia.
- UZEI, 1988, *Laburtzapenen gidaliburua*, Donostia, Elkar
- Vasoli, C., 1984, "La retorica e la cultura del Rinascimento", *Rhetorica II-2*, 12-137.

- Villasante, Luis, 1952, "Literatur-euskara Laphurtarr Klassikoaren gain erata", *BAP*, 91-119 eta 259-298.
- \_\_\_\_\_, 1953, "Ioannes Etxeberri", *BAP*, 131-143.
- \_\_\_\_\_, 1961, *Historia de la Literatura Vasca*, Bilbao, Ed. Sendo (2. edizioa, zuzendua eta gehitua: 1979, Ed. Aranzazu).
- \_\_\_\_\_, 1962, "El «Guero» ¿es obra original?", *Euskera VII*, 5-28.
- \_\_\_\_\_, 1964a, "Rosario trilingüe de elogios a Axular", *Aránzazu*, 107-109.
- \_\_\_\_\_, 1964b, "Introducción", in *Axular: Gero*, edizio elebiduna, Barcelona, Juan Flors, 1-37.
- \_\_\_\_\_, 1967, "Axular eta Gero", *Egan*, 21-30.
- \_\_\_\_\_, 1972, *Axular: Mendea, Gizona, Liburua*, Ed. Franciscana Aranzazu, Ofiati.
- \_\_\_\_\_, 1974a, "Características de la obra *Gero*, de Pedro de Axular. Y puesto que a una tal obra corresponde en la Literatura euskaldun actual", *FLV XVI*, 29-38.
- \_\_\_\_\_, 1974b, "Bibliografía Axulariana", *FLV XVI*, 135-152.
- \_\_\_\_\_, 1988, *Euskararen auziaz*, Serie Eleizalde, 9. zkia., Estella.
- Vinson, Julien, 1880, "Le Guero d'Axular", *Revue de Bibliophiles II*, 104-109.
- \_\_\_\_\_, 1891, *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, Paris, J. Maisonneuve (Orain: *Essai [...]*, 1983; *Bibliographie de la Langue Basque*, San Sebastián, Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", 1984).
- \_\_\_\_\_, 1898, *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque (Additions et corrections; citations et références; Journaux et revues)*, Paris, J. Maisonneuve (Orain: *Essai [...]* *Complement et supplement*, 1983; *Bibliographie de la Langue Basque*, San Sebastián, Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", 1984).
- Wardropper, B. W., 1983, "Temas y problemas del Barroco español", in Wardropper eta beste 1983, 5-48.
- Wardropper, B. W. eta beste, 1983, *Siglos de Oro: Barroco*, Barcelona, Ed. Crítica (ik. F. Rico 1983, III. tomoa).
- Warner, Martin (ed.), 1990, *The Bible as Rhetoric. Studies in Biblical Persuasion and Credibility*, London and New York, Routledge.
- Whinnom, Keith, 1980, "The problem of the «best-seller» in Spanish Golden-Age literature", *Bulletin of Hispanic Studies LVII*, 189-198.
- Zubiri, Enrike, "Manezaundi", 1990, "Axular", *Artikulu bilduma*, Bilbo, Labayru Ikastegia (lehen aldiz: *La Voz de Navarra*, 1934-5-8).

**ERANSKINA**

GOMENDIOZKO KARTA

## ENE IAUN

BERTRAND DE ECHAUS, Tursko Arzipizpiku, Frantziako lehenbiziko erremusinari: Ordenako aitonen seme, eta erregeren Konseillari famatuari. (Axular, iii)

Eta zure prestutasunaz, ohoreaz, eta aitzineko eta ondoko, fama on famatuaz, nork zer erranen du? (Axular, 5)

Nor da euskal-herrian alde edo moldez, zordun eta obligatu etzaitzunik? Behartu eta enplegatu etzaituenik? Eta baliatu etzaitzanik? Zure etxea, egon eta ibili zaren lekhu guztietan, bethiere izatu da, euskaldunen etxea, pausalekhua eta portua. Guztiek zuregana laster. Zuri bere arrenkurak, egitekoak, koaitak, eta ondikoak konta. Eta zuk guztiak arraiki eta alegeraki errezihi. Zuhurki konseilla, kida, goberna eta burutan athera. (Axular, 5)

Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa.

Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinel, eta begiraille bezala, iratzarririk, dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. Hango Bizkondeak eta seme guztiak izatu dira bethiere, egundaiñoz gero, erregez enplegatuak, estimatuak, fin eta leial frogatuak. Eta bai egiazko fedearen eta legearen defendatzaille, eta aitzinatzaile buruzagiak ere. Nafarroa behereko parte hetan, bertze anhitz lekhotan bezala, lege katolika saindua, iduriz flakatzera, kordokatzera eta erortzera zihonean, badaki munduak nola zure aita Iauna, bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik, ioan zen Donapalaira, non baitzen orduan Nafarroako Parlameta. Eta han [...] (Axular, 5-6).

Eta hanbat egin zuen, non bere herria eta inguruneak ere, hetan sartzera zihuan eritasunetik begiratu baitzuten (Axular, 7)

## MONSEIGNEUR

Le Reverendissime CLAUDE DE REUIL Evesque de Bayonne, Conseiller du Roy en Ses Conseils d'Etat & Privé, Ausmonier & Perdicateur ordinaire de sa Majesté, &c. (Materre, iii)

Çure humanitateaz den becebatean (Leizarraga, 249)  
Eta çure zelo Iaincozcoaz den becebatean, harc du engendratu çu baithara gende prestuén bihotzetan halaco reverentia-bat... (Leizarraga, 250)

Çure humanitateaz den becebatean, ene manerá halaco bacen-ere, non ezpaitzuen irudic-ere çure humanitatea secular enegana hel ahal leitela, guciagatic-ere anhitz alde hura valiatu içan çait, eta principalqui, çure maiestatearen placera hala içanic gage ordena lequida[n], çure Beamoco herrian entretenitu iça[n] naicen becebatean: ecen halaz eman içan çait, ithoa beçala azpitic nenducaten gogo-arrenguretaric, eta orhoitzeac-ere buruco biloa latz eraciten drauta[n] captivitatezco suectionetic ilkiteco occasione eta moien (Leizarraga, 249-250; azpimarrak gureak dira)

Eta çure zelo Iaincozcoaz den becebatean, harc du engendratu çu baithara gende prestuén bihotzetan halaco reverentia-bat, non are çure eçagutzea eztatene-ere ecin asco mirets baiteçaque çure verthutea, çuri çucen onez emaiten[n] çaiçquicun laudoriocagatic ceren hain affectionatu eracusten çaren Iaincoaren templeco gauça gaizquituén dreçatzen, eta ceren harc, quasi deseguín eta arrasatu içanic, orain çure moienz reedificate[n] delaric, recrubatu baitarama bere leheneco edertassun Apostoluén demborán ohi çuena. Hunetatcotzat exemplutan frangoqui allega ahal deçaquet çure Beamoco herria: hura behin berce erran ahal daitenic batre beçain Iaincoaren hitzaren recebitzera behatu gaitzetaco eta rebeleracutsi içanic, guciagatic-ere, Iaincoa çure zeloaz, çuhurtziaz eta gogo-handitassunaz cerbitzatu içanic halacara mansotu eta ematu içan da. no[n] egungo egunean Beamocucian Iaincoaren hitza paisiblequi eta edificatione handitan predicatzen baita, baieta disciplina ecclesiasticoa eguiazqui eta bide beçala observatzen (Leizarraga, 250)

Baiña certaco sartcen naiz ni itsas hondar gabe hunetan? Ecin athera naitequeyen oihanean? Çure laudorioen aipamenean? Berac dira bere buruz asco gora mintço: berac dira bere baithan asco clar eta ozen. Utz ditçadan beraz nic hec, hutsic eztatidan. Eta iragaiten naicela aiticina, derradan hutsic eguin gabe [...] (Axular, 9).

Eta iragaiten naicela aiticina, derradan hutsic eguin gabe. Cer ere esquiribatuco baita euscaraz, hura guztia, euskaldunen buruçagui beçala, çuri dagotçula, çuri çor çaitçula, eta arraçoinez orai ere, çuri presentatu behar çaitçula. Eta guztiz ere çure cerbitçari tipi hunen trabailu appur haur, guerotic guerora eguitecoen luçatceac, cenbat calte daccarqueyen, çuc hain ongui daquicun pontu haur, nori egonen, çaiça, çuri ezipadagotçu? Nor quidatuco, norc ostatico du, çuc ezipadeçaçü? (Axular, 9-10).

Çure gericun doha: çure itçalaren azpian venturatcen da. Errecibi eçaçü bada, deffenda eçaçü, alde çaquitça, eguioçu beguitarte (Axular, 10).

[...] eta nehoren guti veldurric, Iendarera, bere beguitarte, ausartqui atheraco du (Axular, 10)

Zure zerbitzari tipiena, eta obligatuena (Axular, 11)

Baina cer? etzait niri eman çure laudorioén aipatzeaz hain aitzina avan-oihanean? Çure laudorioen aipamenean? Berac dira bere buruz asco gora mintço: berac dira bere baithan asco clar eta ozen. Utz ditçadan beraz nic hec, hutsic eztatidan. Eta iragaiten naicela aiticina, derradan hutsic eguin gabe [...] (Leizarraga, 250).

Baina hunetan guelditzen naicela-ere, sportçu dut ecen, ahal liratequeen vorondateric çucenenez eta hobenez-ere gaizqui minçatzeaz berce officioric eguiten eztatzen batzuetaric, ia erran içan denac-ere defenda ahal neçaquela. Ecen ahal datequea ene conditionezco bachotassunic eza hunelaco berce gaucaric batre, ni hain obra saindu baten, bere zelo eta effectione sainduagatic mundu gucietan hanbat laudorio emaiten çayon Reguina bati dedicatetic guibeleratzeco nuenic?...? (Leizarraga, 250-251).

Hunen gaincan çure maiestateari supplicamenduz nagoca, dena onetacotz othoi recebitu nahi duçun, obraren handitassunera eta dignitatera behatzenago duçularic ecen ez Translataçalearen imperfectionetara eta chipitassunera (Leizarraga, 253).  
Eguieçu beguitarte, eta errecebi itçaçü (Materre, xxvii)

[...] eta iendarera atheratceco (Materre, xiii)

Bere cerbitzari gucizco chipiac eta gucizco obedientac (Leizarraga 249)



## IRAKURTZAILLEARI

Eta halatan hartu dut gogo, lehenbiziko parte hunen, lehenik benturatze, eta berri iakitera bezala aitzinerat igortzeko. Hunek zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta nor nola mintzo den, abisu eman diazadan. Gero abisu haren arauaz ethorkizunerat gobematze: eta bigarren partearen kanporat atheratzeko, edo barrenean gelditzeko eta estaltzeko (Gero, 16)

Badakit anhitzek miretsiko duela eta edirenen arrotz eta estraifio, ni lan huni lotzea[...] Baiña ene kontra dela dirudien arrazoin hunek beronek [...](Gero, 16)

Zeren anhitz izan baita orainokoan, eta baita orai ere, ni ez bezalakorik, ni baiño hunetako gaiagorik, eta anzatsuagorik, ezpaitute guztiarekin ere, orainokoan, humelako materiatan, humela ausartziarik eta eskudantziarik hartu[...] Baiña [...](Gero, 16)

[...] ni esportzaten eta aitzinatzen nau, hunek bihotz emaiten deraut, haur edireiten dut nik neure alde eta fabore, zeren[...] (Gero, 16-17)

Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarako minzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki minzatzzen baitira euskal herrian (Gero, 17)

[...] nori berea iduritcen baitaica hoberenic eta ederrenic: eta ene haur ez paita çurea beçala: ez othoi hargatic arbuya eta ez gaitz erran (Gero, 18-19)

Hunetçaz content ez paçara, eguiçu çuc ceure moldera, eta çure herrian usatcen eta seguitcen den beçala. Ceren ez naiz ni hargatic beccaiztuco, eta ez muturturic gaitzez iarrico (Gero, 19)

hartu dut gogo liburutto hunen eguiteco, eta iendartera atheratceco (Materre, xiii)

Miretsico duçue aguian nic (Euscal-herrico ez naizelari) Euscaraz esquiribatceco ausartciaren hartcea. Baiña baldin considera ba-dadi edirenen duçue eztela gauça hunetan ausartciari, eta ez cer miretsiric (Materre, ix)

[...] nic baino hobequi berce batec eguin ukan luqueela [...] ikussiric ecen halacoequin comparatzera ez-deus baino ezdeusago nincela, eta neure buruari quasi gogo nahiaz eta probetchu eguiteco desiraz berkeric eznacussolaric[...] Alabaina[...] (Leizarraga, 251-252)

[...] sporçu harturic [...] bihotz eman ukan cerautana [...] (Leizarraga, 253)

Gainerac badaquit Euscal-herrian añhitz moldez minçatcen direla, eta nori bere herrico Euscara çaicala hoberenic eta ederrenic (Materre, xiii-xiv)

[...] eta nori bere herrico Euscara çaicala hoberenic eta ederrenic: Eta handiç gogoa emaitan deraut ene esquiribatceco molde haur etçayela guztiei ongui idurituco [...] ez naizela gaitz erraiteco, eta ez arbuyatceco (Materre, xiv-xv)

Eta Saraco Euscara hunetçaz content eztenac ezquiriba beça bertce Euscara hobeago batez eta hobequiago, ez naiz ni hargatic bekaiztuco, eta ez imbidios içanen (Materre, xv-xvi)

Har eçaçu, liburutto hunen fruitua, barreneco mamia [...] Baiña intencione on batequin, ceurea, ceurc eguina baitcendu beçala (Gero, 20)

eta nitçaz ere othoitz eguiteaz, arren othoi, orhoit çaiteci (Gero, 20)

Guztiac dohaci borondate on batez eguinac: eguiçu beguitarte, eta errecebi itçaçü nic ceurerç [sic] ba-lira errecebi nitçan nahi cenduqueyen beçala (Materre, xxvii-xxviii)

Hala beraz errecebi eçaçue, eta çuen oracinoetan eguin naçaçue partale (Materre, xvi)

Zeren hain da gauza galdua eta galgarria alferkeria, non naturalezaren beraren ere kontra baita. *Homo nascitur ad laborem et avis ad volatum* (dio Iobek) (Job. 5). Gizona sortzen da travailluko, eta hegaztina aireko. Nola hegaztinari emaiten baitzaitza hegalak, airatzeko, eta hegaldatzeko: hala gizonari ere emaiten zaitza eskuak travaillatzeko (Gero, 34)

Y no sin causa dixo el Santo Iob (Iob. 5. *Homo ad laborem nascitur, & avis ad volatum*) que el hombre nace para el trabajo, como las aves para el vuelo, para enseñarle que el mismo peligro corre el hombre quando está ocioso, que las aves estando paradas [...] (Alvarado, *Arte de bien vivir...*, 1030)

1- Autore batzuk paralelo gisa emandako testuen artean badira zenbait pasarte gure ustez inolako paralelismorik erakusten ez dutenak. Hori da, esaterako, honako honen kasua: "iragaiten baitziren seietan ehun milla presunatan" (Gero, 26), Villasantek Granadaren obraren "pasarte paralelo"-tzat hartuko du (1972, 150-151), hots, "Seiscientos mil hombres sacó Dios de Egipto para llevar a la tierra de promisión, sin mujeres y niños, que no cuentan" delakoarena, hain zuzen ere *Irteera* liburutik hartutako pasarte denean eta Axularrek buruz jakin edota beste edozein tokitan aurki zezakeenean. Horrelakoak -eta ez dira gutxi!- ez ditugu aintzat hartuko, urrunegi eramango baikintuzke exenplu eta irudi biblikoen paralelotasunaren jatorri deskontestualizatua Granadarenean jartzeak. Bestalde, Granadaren obrak direla eta, ez dugu aukerarik izan Lafittek aipatzen duen edizioa aztertzeke ("édition Vivès, Paris, 1862"). Paralelismo zenbait aurkitu bide zuen orriotan: "[...] les pages 3 du tome VIII, 66 du tome XIV, 114 du tome XVII, 496 du tome III, 479 eta 501 du tome XI ont été à l'origine des pages 35, 99, 87, 232 et 501 d'Axular" (Lafitte 1943, 39). Halere, jarraian ikusiko den bezala, horietako batzuk identifikatuta daude.

Munduko gauza guztiak kondentzen dute alferria. Zeren hartaz bertze guztiak enplegatzen baitute bere denbora, zertako eginak baitira hartan. Iguzkiak arrazoiñekin erran ahal diazaio beranduraino ohean datzanari: zerk aratza hor alfer-nagia? Nik atzo, hik baiño bide gehiago iragan nian, inguratu bainuen mundu guztia, eta orai ere, hi baiño goizago iaiki nauk. Zuhaitzek ere erran ahal dezakete: eztakusazue nola gu ezkauden behin ere geldirik eta ez alferrik? Nola hazten, handitzen, loratzen eta geure denboretan eta sasoiñetan fruituz bethatzen garen?

Bada aniamalia adimendurik ez tutenek ere, behintzat erleek eta xinhaurriek, arrazoiñekin erranen derakute, beha diazegula, heken nekeak, travailluak eta ioan-ethorriak konsidera ditzagula eta, halatan agian, ahalketurik bedere, geure eginbidearen egitera, eta travaillatzera, ernatuko eta erdutuko garela.

Erleak, hain gauza ttipiak, eta flakoak, bethatzen du mundua eztiz eztitzeko, eta ezkoz argitzeko. Eta gaitz lizateke kontatzea nola gobernatzen diren erleak elkharren artean; nola duten bere erregea, eta obeditzen duten; nola zaharrak kofauean barrena, etxeko lanen egiten, egoiten diren; eta gazteak, bere mantenuaren eta bizikaian garraion, kanpotik hari diren; nola duten bere athal-zaiña, eta behar ere bai. Zeren eztiari, nola baita gozo, eta izena duen bezala, ezti, anhitz, baitarraika, eta baitzaika aiher. Nola travaillatzen direnek, travailatzen ez tiren alferrak eta nagiak, ezten kolpez egotzten dituzten bere konpainiatik. *Expellunt ab alvearibus pigras* (Plin.). Eta nola bertzerik ere anhitz gauza egiten duten, eta guztiak hain ordenantza handiarekin, non baitirudi ezen ez teta erregerik, bere erresuma hain ongi gobernatzen duenik, nola erleek bere erregearekin batean travaillatuz, gobernatzen baitute berea (Gero, 34-36)

Considera, junto con esto, cómo ninguna de todas las cosas criadas está ociosa; porque los ejércitos del cielo sin cesar cantan loores a Dios; el sol y la luna y las estrellas, y todos los cuerpos celestiales, cada día dan una vuelta al mundo para nuestro servicio; las hierbas, los árboles, de una pequeña planta van creciendo hasta su justa grandeza; las hormigas juntan granos en sus cilleros en el verano, con que se sustentan en el invierno; las abejas hacen sus panales de miel, y con gran diligencia matan los zánganos negligentes y perezosos; y los mesmo hallarás en todos los otros géneros de animales. Pues ¿cómo no habrás tu vergüenza, hombre capaz de razón, de tener pereza, la cual aborrescen todas las criaturas irracionales por instinto de naturaleza? (Granada, *Guía...*, 136a; azpimarrak gureak dira)

Considera también cómo ninguna de cuantas cosas Dios crió está ociosa; los ejércitos del cielo sin cesar cantan loores a Dios; el sol y la luna, y las estrellas, y todos los cuerpos celestiales, cada día dan una vuelta al mundo para nuestro servicio; las yerbas y los árboles, de poco van creciendo hasta su justa grandeza, y dan cada año sus flores y frutos; las hormigas trabajan y juntan granos en el verano, con que se sustentan en el invierno; las abejas hacen sus panales de miel, y con grande diligencia matan los zánganos negligentes y perezosos; y hallarás lo mismo en todos los géneros de animales. Pues ¿cómo no habrás tu vergüenza, hombre capaz de razón, de tener pereza, la cual aborrescen todas las criaturas irracionales, por solo instinto de naturaleza? (Granada, *C. y E.*, 130b; azpimarrak gureak dira)<sup>2</sup>

2- Ez Axularrek ez eta Granadak berak ere ez dute aitortzen -ez zekitelako agian?- pasarte luze honen jatorria. Izatez, san Agustinen *De vigilatione et otiositate vitanda* liburutik jasoa da garrantzitsuena (ikus Migne, *Patrologia*, XL tom., 1263).

Bada xinhaurriaren gobernuaz, zuhurtziaz, trabailuaz, ethorkizuneko egiten duen probisioneaz, hornizoiñaz, eta biltzen duen mantenuaz, nork zer erranen du? Nork eztu miretsiko, eta gogoeta eginen? Spiritu Sainduak berak igortzen gaitu aniamalia ttipitto hunengana, zer egin behar dugun ikhastera, erraiten duela: *Vade ad formicam, o piger, et considera vias ejus, et disce sapientiam quae, cum non habeat duces nec praeceptorem, parat in aestate cibum sibi* (Prov. 6). Zoaz, nagia, xinhaurriagana, eta konsidera itzatzu haren bideak eta bidexkak, ioan-ethorriak eta itzulunguruak, nekeak eta trabailuak, eta ikhasiko duzu zuk ere nola behar duzun aitzinerat eta bethiere bizi, ibili eta gobernatu. Hark erakuslerik eta kidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du udan, neguaren iragaiteko behar duen mantenua, bazka eta bihia (Gero, 36)

Erran komuna da infernua desira onez bethea dagoela (Gero, 49)

[...] zeruko lorian sartzeko, eztirela desira onak berak asko. Baiña behar direla lainkoaren manamendu sainduak, desiraz bezala obraz ere konplitu (Gero, 50)

*Modo, ecce modo, sine paululum* (8 Confess. cap. 6). Ha, Iauna, utztazu aphur bat, igurikazu bertze aphur bat, ez lehia, ez khexa, ez berantets, sarri naiz zurekin (Gero, 53)

Ordea pontua da, ea noiz utziko dugun. Eta zuk diozu, gero. Baiña nik diot ezen ez gero. Baiña nik diot ezen ez gero, baiña orai. Dakusagun ea zeñek dioen hobeki, zeñek duen arrazoiña (Gero, 55)

Y si Galeno considerara las sendas y caminos de la hormiga y contemplara su prudencia, su misericordia, su justicia y gobernación, se le acabara el juicio, viendo un animal tan pequeño con tanta sabiduría sin tener preceptor ni maestro que le enseñase. *Vade ad formicam, o piger, et considera vias eius, et disce sapientiam; quae, cum non habeat duces nec praeceptorem, praeparat in aestate cibum sibi et congregat in messe quod comedat.* Proverb., cap. VI. (Huarte de San Juan, *Examen. d e ingenios...*, 89)

[...] el infierno está lleno destes buenos deseos, mas el paraíso de buenas obras (Introducción al Símbolo de la fe, 266)

Espera, Señor un poco; aguarda otro poco; agora dejaré el mundo; agora saldré de pecado (Guía, 91b)<sup>3</sup>

Tú dices que adelante; yo digo que luego; tú dices que adelante te será esto más fácil de hacer; yo digo que luego lo será: veamos quién tiene razón (Guía, 92b)<sup>4</sup>

3. Villasantek emandako kideasuna (1972, 140-141)

4. Villasantek emandako kideasuna (1972, 140-141)

Bada hemen bentura franko, eta ez esperantza eskasik. Zer da haur? Non da zentzua? Non da akhordua? Zer egin da adimendua? Zeure salbamendua, hanbat dihoatzun gauza, sekulakotzat ongi edo gaizki izaita, iben dezazula benturan? (Gero, 73)

Segur bezala dadukat, ifernura ioaiten diren gehienak, gero baten benturan iarririk, hartan fidaturik eta hartan enganaturik ioaiten direla. Behintzat hala ioan zen Ebanjelioko aberats hura. Zeren nola San Lukas ebanjelistak erraiten duen bezala, aberats hari urthe ona gerthatu baitzeikan, eta bildu baitzuen anhitz, iarri zen bere buruarekin gogoetan, erraiten zuela: *Quid faciam quia non habeo quo congregem fructus meos?* (Lc. 12) (Gero, 75)

Zer eginen dut? Norako dut hunenbat ogi, arno, bihi, fruitu eta onhasun? Eztut edukitzeko lekharik ere. Baiña badakit zer eginen dudan, erraiten dio berriz bere buruari. Leheneko bihitegiak, ardandegiak, sotoak, salak eta ganbarak handitukoit, edukitzeko lekhu franko eginen dut. Eta gero sosegatuko naiz, ardura guztiak utzirik, pausatuki, hatsaren gainean iarriko naiz, erraiten dudala neure baithan: Orai atsegin har dezadan, ian dezadan, edan dezadan, zeren berdin eztut deusen eskasik, eztut gerokoren perilik, badut ethorkizunekatza behar den konplimendu guztia. Bada kontu hautan, kontuak ongi egin gabe, zebillala, aditu zuen zerutik mintzoa: *Stulte, hac nocte repetent animam tuam a te, quae autem parasti cuius erunt?* (Lc. 12). Ha erhoa, zentzu gabea, zer mintzo aiz? zer gogoeta darabillak? Egin dik hireak, gaur eskatuko zaizkik heure arimaren, gaur gorputzetik atherarik eramanen deraue. Eta gero orduan, bildurik dadutzan on horiek norentzat izanen dira? (Gero, 75-76)

Erhoa deitzen du aberats hura, eta arrazoiñekin. Zeren zer da erhokeria handiagorik, geroko denboraz, bertzeren eskuan eta benturaz dagoenaz, bere eskuan eta segurean bailu bezala ordenatzea baiño? (Gero, 76)

Pues ¿cual es el desatinado que osa poner el mayor de los tesoros en el mayor de los peligros? ¿Hay cosa mayor en el mundo que tu salvación? ¿Pues en qué seso cabe poner una cosa tan preciosa en tan grande peligro? (Guía, 97a)<sup>5</sup>

Creo verdaderamente que son innumerables las ánimas que por este camino se han perdido; a lo menos así se perdió aquel rico del Evangelio, de quien escribe Sant Lucas que como le hubiese sucedido... (Guía, 92a)

Que como le hubiese sucedido muy bien la cosecha de un año, púsose a hacer consigo esta cuenta: ¿Qué haré de tanta hacienda? Quiero derribar mis graneros y hacerlos mayores, para guardad estos frutos; y hecho esto hablaré con mi ánima, y decirle he: Aquí tienes, mi ánima, muchos bienes para muchos años. Pues que así es, come, bebe y huelga, y date buena vida. Y estando el miserable haciendo esta cuenta, oyó una voz que le dijo: Loco, esta noche te pedirán tu ánima; eso que tienes guardado ¿para quién será? (Guía, 92a)<sup>6</sup>

Pues ¿qué mayor locura que disponer un hombre por su autoridad lo que ha de ser adelante, como si tuviese en su mano la presidencia de los tiempos y momentos que el Padre Eterno tiene puestos en su poder? (Guía, 92a)

5. Villasantek emandakoa (1972, 146-147)

6. Villasantek emandakoa (1972, 140-141)

Gaitezin beraz bertzeren gainean zentza; dezagun bertzeren peiletik athera segurantz, hartzen dugula, Espiritu Sainduak emaiten derakun konseillua: *Non tardes converti ad Dominum, et ne differas de die in diem, subito enim veniet ira illius, et in tempore vindictae disperdet te* (Eccli. 5). Konberti zaitzezi, bekhatutarik iltki zaitzezi; eta ztezazula berant eztezazula egunetik egunera luzat. Zeren gutien uste duzunean, ahantzienik zaudenean, neurria betheo da, Iainkoa haserretuko da: eta gero mendekuzko egunean, heriotzeko denboran, galduko, eta deseginen zaitu (Gero, 76)

Sagarroia, bere egitez ere nekez erditzen da, baina are, bere faltaz nekezago. Zeren nola larruan baita latz, eta gaztaina karloa bezala, puntaz eta arantzez bethea, eta umeak ere bera bezala latzak, eta arantzetsuak baititu; ume hek erdi behar duenean bere arantzeez, eta karloez min egiten diote, eta halatan minari errendaturik, erditzeko meneratzen denean, barrenat sartzeintu eta han ahal bezanbat edukitzeintu. Eta nola hala dadutzan bitartean ere, handitzen eta gogortzen baitira ume hek; eta alabaiña erdi behar, edo hil: handik azkenean, harri baten kontra permaturik lehen eginen zen baino nekezago, eta penazago erditzen da (Gero, 78-79)

Bekhatuak ilhutzen du adimendua, flakutzen du memoria, eta gaixtatzen du borondatea; zenbatenez bekhatu gehiago, eta bekhatutan egonago, hanbatenez adimendua, memoria eta borondatea, eztheusago (Gero, 83)

Hanbatenez deabrua iaunago, eta nabusiago. Hanbatenez Iainkoaganik urrunago, eta apartago (Gero, 83)

Y pues son tantos los que desta manera son castigados, muy mejor acuerdo será escarmentar en cabeza ajena y sacar de los peligros de los otros seguridad, tomando aquel tan sano consejo que nos da el Eclesiástico, diciendo: *Hijo, no tardes en convertirte al Señor, y no lo dilates de día en día, porque súbitamente suele venir su ira, y destruirte ha en el tiempo de la venganza* (Guía, 92a)

[...] mientras más se dilata es peor a la madre, a causa de las púas de su hijuelo, que cada día más se le paran más duras; y tanto se puede dilatar el parto, que mate a la madre (Venegas, *Agonía...*, 125b)<sup>7</sup>

Porque con el pecado se oscurece el entendimiento y se enflaquece la voluntad, y se desordena el apetito, y se debilita más el libre albedrío, y se hace menos señor de sí y de sus obras (Guía, 92b)<sup>8</sup>

Y adelante estará también el demonio más apoderado de ti, y Dios mucho más alejado (Guía, 92b)

7- Mitxelena ohartarazia (1971, 166-167)

8- Villasantek eman testu kidetasuna (1972, 140-141)

Bada gauza hauk hunela direnaz geroztik, nolatan duzu zuk uste, gero hobeki onduko zarela eta bekhatutik iltkiko zarela orai baiño? Ura ttipi deiño ezin iragan dezakezu, zer eginen duzu bada handi dadinean? Zuhaitz ttipiak, oraiño errorrik eztutenak, ezin athera ditzakezu, zer eginen duzu bada errozta, eta handi ditezinean? Erran nahi dut, orai bekhatu guti duzunean, eta guti horiek ere berri direnean, ezin delibera dezakezu halarik ere, horietarik ilkitzera, zer izanen da bada gero, bekhatuz beterik eta hetan denbora luzeaz gogorturik zaudenean? (Gero, 83-84)

Orai hamar bekhatuekin dihardukazu, gero ehunekin iharduki beharko duzu. Orai urthe baten edo biaren usantza gaixtoa duzu, gero hogoiena edo berrogoiena izanen duzu. Bekhatu egiteaz koropilloak doblatzeintuzu, gaiteak berretzeintuzu, karga handitzen duzu. Zer erhokeria da bada haur, uste baituzu ezen gero karga handiarekin hobeki manaiatuko zarela, orai ttipiarekin baiño? (Gero, 84)

Uste baituzu gero, eritasuna handi dadinean, erraxago izanen dela sendatzen eta erremediatzen, ttipi denean baiño? Eztakizu nola erraiten duen Espiritu Sainduak: *Languor prolixior gravat medicum, brevem languorem praecidit medicus?* (Eccli. 10) (Gero, 84)

Eritasun luzeak eta zaharrak nekhatzen du midikua, baiña laburrak eta berriak, egiteko guti emaiten dio, hura laburzki sendatzen du (Gero, 84)

Pues siendo esto así, ¿en qué seso cabe creer que adelante te será la conversión y mudanza de vida más fácil, [...] Pues siendo esto así, ¿cómo puedes tú creer que adelante te será este negocio más fácil? Si dices que no puedes agora pasar este vado, aun antes que el río haya crecido mucho, ¿cómo lo pasarás mejor cuando vaya de mar a mar? Si tan trabajoso se te hace arrancar agora las plantas de los vicios que están en tu ánima, recién plantadas, ¿cuánto más lo será adelante, cuando hayan echado más ondas raíces? Quiero decir: si agora que están los vicios más flacos, dices que no puedes prevalescer contra ellos, ¿cómo podrás adelante, cuando estén más arraigados y fortificados? (Guía, 92b eta 93a)

Agora por ventura peleas con cien pecados, adelante pelearás con mil; agora con un año o dos de mala costumbre, adelante quizá con diez. Pues ¿quién te dijo que adelante podrás más fácilmente con la carga que agora no puedes, haciéndose ella por todas partes más pesada? (Guía, 93a)<sup>9</sup>

En qué seso cabe creer que, multiplicándose las culpas, será más ligero el perdón, y, creciendo la dolencia, será más fácil la medicina? No has leído lo que el Eclesiástico dice[...] (Guía, 93a)

No has leído lo que el Eclesiástico dice, que la enfermedad antigua y de muchos años pone en trabajo al médico, y que la de pocos días es la que más presto se cura? (Guía, 93a)<sup>10</sup>

9- Villasante 1972, 142-143.

10- Villasante 1972, 142-143.

Egia haur eman zeraukan aditzera aingiru batek lehenago mendietan eta ermitetan bizitzen ziren saildu hetarik bati (In vita Arsenii apud Suri tom. 4 pag. 257). Hartu zuen ainguru hark gizon baten iduria eta ioan zen mendietako saildu hetarik batengana, eta eskutik harturik, eraman zuen oihanean barrena, eta han erakutsi zeraukan gizon bat, hari zela egur egiten. Eta zama bat eginik, loihu zuenean, hasi zen enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz. Baiña hain egin zuen handi, ezen ezin iasanez utzi baitzuen. Utzi zuenean, hasi zen berriz bigarreanean egur egiten, eta bere leheneko zamaren handitzen. Handitu zuenean, hartu zuen, eta hasi zen lehen bezala enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz. Baiña are orduan gutiago, zeren lehendaniak handituago baitzuen. Ordea guztiarekin ere, hasi zen hirugarrenean ere lehiatzen, egur egiten eta bere leheneko zamaren, lehen bezala handitzen, ustez ezen halatan arinduko zeikan, eta erraxkiago iasanen eta eramanen zuen. Sailduonek haur ikhusi zuenean, galdegin zioen ainguruari: Zer erhokeria da haur, uste baitu gizon hunek, berretuz karga arinduko zeikala? Eta handituz, erraxkiago iasanen eta eramanen duela? Orduan ihardetsi zioen ainguruak: horrela duk bada munduko erhokeria ere, uste baitute bekhatorek bekhatu anhitzekin, karga pisuarekin hobeki iaikiko direla arinarekin baino (Gero, 84-85)

Zeren nola eritasun handiak, sendatuz gero ere, utzten ohi baitu bere ondolik, zenbait herru gaixto, zenbait kutsu, narrio etza arrazadura, hala utzten du denbora luzeaz bekhatutan egoiteak ere bere ondolik, zenbait ondore gaixto (Gero, 93)

Esta manera de engaño declaró muy al propio un ángel a uno de aquellos santos padres del yermo, según leemos en sus vidas (De vitis Patrum, p. 2, §36). Porque tomándole por la mano, sacóle al que estaba haciendo leña; el cual después de hecho un grande hace, como probase a llevarlo a cuevas, y no pudiese, volvió a cortar más leña y juntarla con la otra; y como menos pudiese con ésta por ser mayor, todavía porfiaba a hacer aun mayor la carga, creyendo que así la podría mejor llevar. Pues como el sancto monje se maravillase desto, dióle el ángel que tal era la locura de los hombres, que no pudiendo levantarse de los pecados, por el peso grande que tenían sobre sí, añadían cada día pecados a pecados y cargas a cargas, creyendo que adelante podrían con lo más, no pudiendo agora con lo menos (Guía, 93a)<sup>11</sup>

Porque así como el que ha tenido una larga o recia enfermedad pocas veces sale della sin reliquias para adelante, así lo hace también el largo uso de los pecados y la grandeza dellos (Guía, 94a)<sup>12</sup>

11- Villasantek emandakoa (1972, 142-143)

12- Villasantek emandakoa (1972, 144-145)

Halatan ikhusiko duzu, gazte denboran bekhatu batetan usatu duenari zahartzean ere, eta deus ezin daidekeienean ere, gogoia bedere, eta bekhatu hartaz mintzatzeaz, atsegin hartzea bedere, badatxekala [...] Finean lehen zertan segitu baituzu, hartan gero ere, ametsetan, eta eldarnioetan ere edireiten zara. Eta zerk egiten du haur?

hetan segitu, eta usatu baituzu, eta usantza hura hezurretan barrena sarthu baitzaitzu. Eta nola zahartuagati, hezurrak gelditu baitzaitzkitzu. Hala gelditu zaizkitzu usantza, aztura, eta handik sortzen diren mugidak, abiadurak, eta inklinazio gaixto guztiak ere. Halatan erraiten du Iob gizon gaindu hark: [...] Gaixtoaren hezurrak betheko dira gazte denborako bekhatuez, eta harekin batean lurrean ere lohakartuko dira, ezute behien ere utziko. Zeren San Gregoriok dioen bezala [...] Usantzako bekhatuak iarraitzen ohi zaitza nehoi heriotzeraino, eta lurrean barrena sar arteño, ezute hareraino utzten, eta ez komunzki han ere (Gero, 93-94)

Zeren nola baita hetika daritzan eritasun bat, zein egiten baita, sukharra denbora luzeaz, eta aphur bana hezurretan barrena sartzeaz: eta eritasun hark ezpaitu erremediorik, mirakuilluz edo baizen, eta izaitekotz ere xoil luzaro: hala... (Gero, 94-95)

[...] eta izaitekotz ere xoil luzaro: hala da denbora luzeaz, gogoan, eta bihotzean barrena sarthurik dagoen aztura gaixtoa ere. Hura da hetika gaixto sarthua, atheratzen eta erremediatzen gaitza. Eta halakoagatik erraiten du San Augustinek thonban barrena sarthua, eta ehortzia dagoela: eta gaineko harriestalkia, iaikitera eta hats hartzera, utzten eztuena, usantza gaixtoa dela. *Moles illa imposita sepulchro, ipsa est vis dura consuetudinis, qua premitur anima, nec respirare, nec resurgere permittitur.* (Aug. Serm. 44 de verbis Domini tom. 10) (Gero, 95)

Por donde vemos que la vejez de aquellos que gastaron la mocedad en vicios, suele ser muchas veces amancillada con las disoluciones de aquella edad pasada, aunque la presente las rehuse, y la mesma naturaleza las sacuda de sí. Y estando ya la naturaleza cansada del vicio, sola la costumbre que queda en pie corre al campo y les hace buscar deleites imposibles: tanto puede la tiranía y fuerza de la mala costumbre. Por lo cual se escribe en el libro de Job que los huesos del malo serán llenos de los vicios de su mocedad, y con él dormirán en la sepultura. De manera que los tales vicios no tienen otro término sino el común término de todas las cosas que es la muerte, en la cual vienen a acabar; aunque en la verdad ni aun aquí acaban sino continúanse en perpetua eternidad; por lo cual se dice que duermen con él en la sepultura (Guía, 93a eta b).

[...] los apetitos de los vicios tan íntimamente arraigados en los huesos y medulas de su ánima como una calentura lenta de tísicos, que está allá metida en las entrañas del hombre, que no espera cura ni medicina (Guía, 93b)<sup>13</sup>

[...] por lo cual se dice que duermen con él en la sepultura. Y la causa desto es porque por razón de la vieja costumbre, que está ya convertida en naturaleza, tienen los apetitos de los vicios tan íntimamente arraigados en los huesos y medulas de su ánima, como una calentura lenta...[ik. aurreko testua] (Guía, 93b)

13- Villasantek emandakoa (1972, 144-145)

Haur beror eman zuen aditzera gure Salbatzailleak berak, Lazaro laur egunetako hil kiratsua, anhitz hatsbeherapen, eta sentimendu eginik, pitzitu zuenean. Bertze guztiak erraxki eta aise zegoela pitzitu zituen, baiña Lazaro, iduriz, nekez. Aditzera emaitteagatik, zein gaitz den, denbora luzeaz, bekhatutan usatua, usteldua, eta kirastua dagoen bekhatorearen sendatzea, eta erremediatzea (Gero, 95)

Halakoa, hartara heltzen dena, Lazaro kirastua bezala da, Iainkoaren bothere handiaz baizen, ezin erremedia ditekeiena (Gero, 95)

Arrazoin hautzaz guztioz emaiten da aditzera, nola luzamendutan, gerotik gerora ibiltzeaz, hartzen den usantza gaixtoa: eta usantza hura, olioia oihalean bezala, sartzen den gogoan, eta bihotzean barrena. Eta nola den enganamendu handia, eta gure galgarria, erraitea: «gero onduko naiz, gero bide onean iarriko naiz» (Gero, 95-96)

Haur da deabruaren hitzkuntza, haren eskolan irakurtua, han ereiña, eta handik banatua. Iainkoaren miserikordiatik, ontasunetik, eta Pasione sainduaren meritutik, eta baliostasunetik, nahi duzu hartu okhasino eta ausartzia bekhatu egiteko, eta bekhatutan egoiteko. Hain da itsustasun eta itsutasun handia eta iende galduen kontua haur, ezen gure Salbatzaillea arrenkuratu ezpazen ere bere heriotze penatuaz eta desohorezkoaz, arrenkuratu, eta sentikortu baitzen bidegabe hunetzaz, erraiten zuela: *Supra dorsum meum fabricaverunt peccatores, prolongaverunt iniquitatem suam* (Ps. 128). Ene sorbalden gainean egin zuten egur bekhatoreek, han bere gaixtakeria hedatu, luzatu eta zabaldu zuten (Gero, 136)

Esto mismo nos mostró también el Salvador en la resurrección de Lázaro, de cuatro días muerto; al cual resucitó con tan grandes clamores y sentimientos, como quiera que los otros muertos resuscitase con tanta muestra de facilidad, para dar a entender cuán gran maravilla sea resucitar Dios al que está ya de cuatro días muerto y hediondo; esto es, de muchos día y de mucho tiempo acostumbrado a pecar (Guía, 93b)<sup>14</sup>

[...] y el que a este punto llega, ya es Lázaro de cuatro días muerto, que no resucita sino a fuerza de bramidos y lágrimas del Salvador (Guía, 93b)

Todo esto evidéntísimamente nos declara la dificultad grande que se añade a este negocio con la dilación del tiempo; y cómo mientras más se dilata, más se dificulta, y, por consiguiente, cuán manifiesta sea la mentira de los que adelante dicen que será más fácil la enmienda de la vida (Guía, 93b)

Dices que es grande la misericordia de dios, pues por los pecadores se puso en la cruz. Yo te confieso que es muy grande, pues te consiente tan grande blasfemia como es hacer tú su bondad fautora de tu maldad, y que la cruz que El tomó por medio para destruir el reino del pecado tomes tú por medio para fortalecerlo; y donde le habías de ofrecer mil vidas que tuvieras por haber puesto la suya por ti. tomes de ahí ocasión para negarle esa sola que El te dió. Más le dolió esto al Salvador que la misma muerte que padecía, pues no quejándose della, se quejó deste agravio por su Profeta, diciendo: *Sobre mis espaldas fabricaron los pecadores, y extendieron su maldad* (Guía, 100b-101a)<sup>15</sup>

14- Villasantek emandakoa (1972, 144-145)

15- Villasantek emandakoa (1962, 7 eta 1972, 148-151)

Erran nahi du: gaixtoek bere gaixtakerien egiteko, eta hetan luzaro egoiteko, hartzen dituzte zimendutzat eta okhasinotzat, nik neure sorbalden gainean errezibitu nituen azoteak, kolpeak, penak eta oiñhazeak. Eta hetan fidaturik, hetan esperantzaturik eta kontu eginik, berdin nik hekengatik pagatu nuela, ausartzen dira bekhatu egitera, eta bekhatutan egoitera, erraiten

gaitu, on derizku, bereak, bere odolaz erosiak gaitu, men menera gaitezinean eztiatzaigu falta: beraz har dezakegu esku eta lizentzia zenbait bekhaturen egiteko. Erran behar da miserikordios dela Iainkoa, hunelako ahapaldiak, hunein itsusiak pairatzen dituenean (Gero, 136-137)

Miserikordiaz soilki, eta bakharrik, iustiziaz konturik egin gabe, mintzo denak, eztaki zer mintzo den, ezta halakoak iustiziaren handitasuna ikhusten. Eta ikhusazu nola eztuen ikhusten. Zuk diozu miserikordios dela Iainkoa, eta ongi diozu. Baiña zuk, Iainkoa miserikordios dela diozunorrek, aditu behar dituzu aphur bat iustiziaren tornuak eta kolpeak ere, hek aditurik, fidantzia erhoak utz ditzatzun amoreakgatik (Gero, 139)

Iustiziaren lehenbiziko kolpea eta desarra... (Gero, 139)

Dices que es grande la misericordia de Dios, pues por los pecadores se puso en la cruz. Yo te confieso que es muy grande pues te consiente tan gran blasfemia como es hacer tú su bondad fautora de tu maldad (Guía, 100b-101a)<sup>16</sup>

Pues para que salgas dese engaño tan peligroso, ruégote que nos pongamos agora en razón. Ni tu ni yo habemos visto la justicia divina en sí mesma, para que por esta vía podamos conocer su medida (Guía, 101a)

La primera obra de la divina justicia... (Guía, 101b)<sup>17</sup>

16- Villasantek ohartarazia (1962, 7)

17- Villasantek emandakoa (1972, 148-151). Halere, kidetasunaren jarraipenaz aspaldian zegoen ohartua (ik. Villasante 1962, 7)

Iustiziaren lehenbiziko kolpea eta desarra izan zen goitian, zeruko Aingiruetan, Luziferren eta haren lagunen gainean. Zeruko aingirurik ederrena, abantailatuena, eta Iainkoaren adiskiderik handiena, egotzi zuen iustiziak, urguillutasuneko bekhatu batengatik, sekula fingabekotzat, ifernuko peneetara. Eta Aingiru guztien lehena, aitzindaria eta agintaria, egin zen deabru, eta deabru guztien buruzagi, kidoin, eta kapitain. Zen ederrena, egin zen itsusienik; bere gogarena gaizkienik. Onhetsiena, gaitzetsienik; eta gorena, behearenik. Halako suertez non Esaias profetak hain iautsapen handiaz miretsirik, galdegiten baitio Luzifer berari: *Quomodo cecidisti Lucifer qui mane oriebaris?* (Is. 14). Nola erori zinen, Luzifer? Nola erori zinen artizarra, goizean goiz, oillaritean sortzen eta ilkitzen ohi zinena? (Gero, 139-140)

Baiña egin zuen lurrean ere bertze bat, ez bere arauaz atseginagoa, baldin erremediorik ordenatu ezpalitzaika (Gero, 140)

Zeruan Luziferrek berak bedere egin zuen bekhatu; eta ezta miretsteko nor bere bekhatuagatik, penatzea. Baiña lurrean bertzeren bekhatuagatik, Adanenagatik, haren ondoko guztiak, are sorthu baiño lehen, bere amaren sabelean pitzten diren pontuan, diren bekhatore, eta hobenduri: eta hanbat urtheren buruan eztakion ahantz Iainkoari bekhatu hura, nork eztu miretsiko? (Gero, 140)

La primera obra de la divina justicia que se hace mención en la Escritura divina, fué la condenación de los ángeles [...] verás una de las más ricas joyas de la casa de dios, un a de las principales hermosuras del cielo, una imagen en quien tan altamente resplandecía la hermosura divina, *caer del cielo como un rayo* por un solo pensamiento soberbio. De príncipe entre los ángeles se hizo príncipe de los demonios; de hermosísimo, el más feo; de gloriosísimo, el más atormentado; de graciosísimo, el mayor enemigo de todo cuanto Dios tiene y tendrá jamás. ¿Qué cosa de tan grande admiración debe ser ésta para aquellos spíritus celestiales, los cuales tan bien conocen de dónde y adónde cayó una tan excelente criatura? ¿Con qué espanto dirán todas aquellas palabras de Isaías: *Cómo caíste del cielo, lucero que salías a la mañana?* (Guía, 101b)

Desciende luego más abajo al Paraíso terrenal, y verás otra caída no menos espantosa, si no fuera reparada (Guía, 101b)<sup>18</sup>

Porque si los ángeles cayeron, cada uno hizo su pecado actual por do cayese. Mas ¿qué pecado actual hace el niño que nace, por do nazca hijo de ira? [...] Cata aquí, pues, el primer hombre desterrado del Paraíso por un bocado [...] Y al cabo de tantos siglos el hijo que nasce saca la lanzada del padre; y no sólo antes que sepa pecar, sino antes que nazca, nace hijo de ira: y esto acabo de tantos siglos. En tan largo espacio no está aún olvidada aquella injuria [...] (Guía, 101b-102a)

18- Villasante 1972, 150-151.

Miserikordios da Iainkoa, eta bere miserikordia guztiarekin, beha dagoka ifernuan dagoen bati; ikhusten du, eta ikhusiko du, nola milla urthez, eta hamar millaz penatzen den. Eta guztiarekin ere, hala ikhusiagatik ere, han bere lekhan utzten du. Etzaika bat ere bihotzik hautsten: etzaika bat ere hala dagoen on-beharra urrikaltzen. Aitzirik atsegin hartzen du, zeren hala penatzen den, eta nahi du pena dadin, eta are handik ilkitzeko esperantzarik gabe pena dadin. Gogortasunaren handia. Iustiziaren bortitza (Gero, 140-141)

Baiña hunetan badirudi, iustiziatiago dela; eta iustiziak garaitzen duela miserikordia (Gero, 141)

Miserikordios da Iainkoa, baiña erran behar da Iustiziati ere badela. Zeren munduari barkatzera, ezin deusek ere balakatu zuen eta amoratu, bere semearen heriotzeak baizen (Gero, 141)

Miserikordios da Iainkoa, eta guztiarekin ere Noeren denboran, zortzi presunaz bertze guztiak, uholde batez hondatu, eta akhabatu zituen (Gero, 141)

Halaber Sodoma eta Gomorra, inguruko bertze hiri batzuekin, su bat zerutik igorriarik, erre zituen. Halaber Datan, eta Abiron, lurak bere lagunekin iretsi zituen (Gero, 141)

Eta orai ere ifernuratsen dira giristino eztirenak. Eta beldur naiz giristinoetarik ere, gehienek, bide hura hartzen duten (Gero, 141)

¿Qué cosa tan espantosa como ver de la manera que estará aquel sumo Dios mirando desde el trono de su gloria un ánima que habrá estado penando millones de años en tan terribles tormentos, y que no por eso se inclinará jamás a compasión della, sino antes holgará que pene, y que esta pena sea sin cabo, y sin término, y sin esperanza de remedio! ¡Oh alteza de la justicia divina! (Guía, 102b)<sup>19</sup>

Con esa tan grande misericordia que alabas, se compadece esta tan espantable justicia que vees (Guía, 102b)

Mas sobre todo esto, ¿qué mayor muestra de justicia que no contentarse dios con otra menos satisfacción que la muerte de su unigénito Hijo para haber de perdonar al mundo? (Guía, 102a)<sup>20</sup>

Todo el mundo peresció con las aguas del diluvio, y solas ocho ánimas se escaparon en el Arca de Noé (Guía, 103b)<sup>21</sup>

Sobre aquellas cinco deshonestas ciudades llovió Dios fuego y piedra azufre del cielo. A Datán y Abirón [...] tragó la tierra vivos (Guía, 102a)

... y que si de los infieles se pierden todos y de los cristianos tantos... (Guía, 104b)<sup>22</sup>

19- Villasante 1972, 150-151.

20- Villasante 1972, 150-151.

21- Villasante 1972, 150-151.

22- Villasante 1972, 152-153.

Eta halatan Eskritura Sainduan konparatzen dira giristino onak, harri preziatuekin, aditzera emaitagatik giristino on ere guti dela; bata bezain bertzak, direla gaitz edireiten. Eta nola bertze harrietarik baita, preziatuetarik baiño frankoago, hala dela halaber kondenatuetarik ere salbatuetarik baiño gehiago. Salomonek dioen bezala, *Stultorum infinitus est numerus*. Erhoen kontua infinitu da, infinituki anhitz kondenatzen da (*Gero*, 142)

Bada baldin anhitz kondenatzen bada, are giristinoetarik ere, zergatik zu ere, giristino izanagatik ere, etzara beldur izanen kondenatuetarik bat gertha zaitezin? (*Gero*, 142)

Oraiño koan, anhitz egotzi du Iainkoak ifernura, zergatik bada etzaitu zu ere egotziko, baldin egotzi dituen hek bezala bizitzen bazara? (*Gero*, 142)

Uste duzu zuretzat lege berri bat iarriko dela? Uste duzu, Iainkoa han goitian, zu gabe ezin iragan ditekeiela? Edo zu ez haratzeaz bere loriatik galduko duela? Zer burupe, zer pribilejio, edo abantail duzu zuk orai, ifernuan daudenek bere denboran zuten baiño gehiago, baldin hek bezala bizitzen bazara, ez hek bezala haratzeko, edo handik eskapatzeko? (*Gero*, 142-143)

Iakizu ezen miseriak iustuei loria bezala, iustiziak ere gaixtoei ifernua emaiten derauela (*Gero*, 143)

Por donde no sin causa se llaman los justos muchas veces en la Escritura divina piedras preciosas; para dar a entender que son tan raros en el mundo como ellas, y que la ventaja que hace el número de las otra piedras toscas a éstas, ésa hace el número de los malos al de los buenos, como lo testificó Salomón, cuando dijo que era infinito el número de los locos (*Guía*, 104a)<sup>23</sup>

Donde todos los Doctores comúnmente dicen ser esto figura de los muchos que se condenan [...] Pues dime agora: [...] ¿cómo no temerás tú en ese tan común peligro y diluvio universal (*Guía*, 104a)

Dices que te esfuerza la misericordia divina [...]; antes si con ella se compadece tanto número de perdidos, ¿no se compadecerá que seas tú también uno dellos, si vivieres como ellos? (*Guía*, 104a)

¿Perderá, por ventura, Dios su gloria si tú sólo dejares de entrar en ella? ¿Tienes tú algunas grandes habilidades de que Dios tenga particular necesidad proque te haya de sufrir con todas tus tachas, buenas y malas? ¿O tienes algún especial privilegio más que los otros, porque no te hayas de perder con ellos, si fueres malo como ellos? (*Guía*, 104b)<sup>24</sup>

Para lo cual has de saber que aunque la misericordia de Dios se extiende a justos y pecadores [...], aquellos grandes favores que promete Dios en sus Escrituras, señaladamente pertenescen a los justos [...]. Y, por el contrario, cuanto lees de amenazas y maldiciones y rigores de justicias, todo eso habla contigo y con los tales como tú (*Guía*, 105a)

Bada Eskritura Sainduan, Iainkoak prometatzen dituen fabore handi, ezti, gozo, miseriakordiazko hek, iustuentzat, ongi, artez, eta presturik bizitzen direnentzat dira: eta mehatxuak, kheñadurak, iustiziaren garratzasunak eta gaztiguak gaixtoentzat, zure eta zu bezalakoentzat. Zer erhokeria da bada haur, zuretzat diren mehatxuez, eta gaztiguez eztagizun konturik, eta zuretzat ez diren miseriakordiazko solhasez har dezazun atsegin? (*Gero*, 145)

